

Hitz-elkarketa / 2

MIREN AZKARATE VILLAR

ELIXABETE PEREZ GAZTELU

HITZ ELKARKETA / 2

LEF batzordearen emaitza

EUSKALTZAINDIA



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

Izenburua: Hitz-Elkarketa/2
Egileak: Miren Azkarate Villar – Elixabete Perez Gaztelu
Argitaratzailea: Euskaltzaindia, 2014.

© Miren Azkarate
© Elixabete Perez Gaztelu
© Euskaltzaindia

ISBN: 978-84-95438-92-8

Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan: www.euskaltzaindia.net/azkue

AURKIBIDEA

SARRERA GISA

I. BEHI-ESNE MODUKO IZEN-ELKARTE ARRUNTAK

I.1. Sarrera

I.2. Emankortasuna eta mugak

I.3. Hitz-junturako hots-aldaketak: hots-legeak

I.4. Idazkera

I.5. Sailkapena

I.5.1. 'iturburua', 'egilea', 'zergatikoa' edo 'kausa', 'jatorria'

I.5.2. 'jabegoa'

I.5.3. 'osoa-zatia'

I.5.4. 'edukia': 'zer-zerk', 'zer-non', 'zer-noiz'

I.5.4.1. 'zer-zerk'

I.5.4.2. 'zer-non'

I.5.4.3. 'zer-noiz'

I.5.5. 'ondorioa, emaitza'

I.5.6. 'baliabidea'

I.5.7. 'gaia'

I.5.8. 'garaia'

I.5.9. 'lekua'

I.5.10. 'helburua', 'norentzakoa', 'onuraduna'

I.5.11. 'ariketa'

II. MUGAKIZUN BEREZIKO IZEN-ELKARTEAK

II.1. Sarrera

II.2. Multzo-elkarteak

II.2.1. Sarrera

II.2.2. Adibideen azterketa

II.2.2.1. Mugatzaile biziduna maizago daramatenak

II.2.2.1.1. *Aldra*

II.2.2.1.2. *Oste*

II.2.2.1.3. *Saldo*

II.2.2.1.4. *Talde*

II.2.2.1.5. *Tanda*

II.2.2.1.6. *Tropel*

II.2.2.2. Mugatzaile biziduna nahiz bizigabea onartzen dutenak

II.2.2.2.1. *Andana*

II.2.2.2.2. *Mordo / mordoxka*

II.2.2.2.3. *Mulko*

II.2.2.2.4. *Multzo*

II.2.2.2.5. *Pare*

II.2.2.2.6. *Pila / pilo*

II.2.2.2.7. *Sail*

II.2.2.3. Batez ere mugatzaile bizigabeak daramatzaten multzo-izenak

II.2.2.3.1. *Meta*

II.2.2.3.2. *Sorta*

- II.2.3. Mugatzailearen gramatika-kategoria
- II.2.4. Osagaien arteko erlazio semantikoak
- II.2.5. Emankortasuna
- II.3. Zati-elkarteak
 - II.3.1. Sarrera
 - II.3.2. Adibideen azterketa
 - II.3.2.1. *Zati, zatiki* definizioan daramaten zati-izenak mugakizun
 - II.3.2.1.1. *Atal*
 - II.3.2.1.2. *Hondar*
 - II.3.2.1.3. *Izpi*
 - II.3.2.1.4. *Koskor / kosko*
 - II.3.2.1.5. *Mutur*
 - II.3.2.1.6. *Parte*
 - II.3.2.1.7. *Punta*
 - II.3.2.1.8. *Puska / pusketa*
 - II.3.2.1.9. *Zati*
 - II.3.2.2. *Kopuru* definizioan daramaten zati-izenak mugakizun
 - II.3.2.2.1. *Apur*
 - II.3.2.2.2. *Pitin / pixka / poxi*
 - II.3.2.2.3. *Puska*
 - II.3.2.3. Isurkari-motako mugatzailea eskatzen duten zati-izenak
 - II.3.2.3.1. *Tanta / tanto*
 - II.3.2.3.2. *Xorta*
- II.3.3. Mugatzailearen gramatika-kategoria
- II.3.4. Osagaien arteko erlazio semantikoak
- II.3.5. Emankortasuna
- II.3.6. *ordu-erdi, libra-laurden*, frakzio-elkarteak
 - II.3.6.1. Adibideen azterketa
 - II.3.6.1.1. *Erdi* mugakizuna
 - II.3.6.1.2. *Laurden* mugakizuna
 - II.3.6.2. Mugatzaileen gramatika-kategoria
 - II.3.6.3. Osagaien arteko erlazio semantikoak
 - II.3.6.4. Emankortasuna
- II.4. Mota-elkarteak
 - II.4.1. Sarrera
 - II.4.2. Adibideen azterketa
 - II.4.2.1. *Era*
 - II.4.2.2. *Gisa*
 - II.4.2.3. *Klase*
 - II.4.2.4. *Manera*
 - II.4.2.5. *Modu*
 - II.4.2.6. *Molde*
 - II.4.2.7. *Mota*
 - II.4.2.8. *Suerte*
 - II.4.2.9. *Tailu*
 - II.4.3. Mugatzaileen gramatika-kategoria

- II.4.4. Osagaien arteko erlazio semantikoak
- II.4.5. Emankortasuna
- II.5. Konparazio- eta irizpen-elkarteak
 - II.5.1. Sarrera
 - II.5.2. Adibideen azterketa
 - II.5.2.1. *Aire*
 - II.5.2.2. *Antz*
 - II.5.2.3. *Aurpegi*
 - II.5.2.4. *Fama*
 - II.5.2.5. *Hots*
 - II.5.2.6. *Irudi / iduri*
 - II.5.2.7. *Itxura*
 - II.5.2.8. *Kolore*
 - II.5.2.9. *Kutsu*
 - II.5.2.10. *Planta*
 - II.5.2.11. *Tankera*
 - II.5.2.12. *Usain*
 - II.5.3. Mugatzaileen gramatika-kategoria
 - II.5.4. Osagaien arteko erlazio semantikoak
 - II.5.5. Emankortasuna
- II.6. *Sumpsumtive* edo *Sumpsumtiboak*
 - II.6.1. Sarrera
 - II.6.2. Adibideen azterketa
 - II.6.2.1. Zuhaitzak, landareak, loreak... izendatzen dituzten mugakizunak
 - II.6.2.2. Arrainak, hegaztiak... izendatzen dituzten mugakizunak
 - II.6.2.3. Bestelakoak
 - II.6.2.4. Mugakizun logiko-abstraktuak
 - II.6.2.4.1. *Gauza*
 - II.6.2.4.2. *Kontu*
 - II.6.2.4.3. *Lan*
 - II.6.3. Mugatzailearen gramatika-kategoria
 - II.6.4. Osagaien arteko erlazio semantikoak
 - II.6.5. Emankortasuna
- II.7. *Andregai* modukoak
 - II.7.1. Sarrera
 - II.7.2. Adibideen azterketa
 - II.7.2.1. *Aldi*
 - II.7.2.2. *Bide*
 - II.7.2.3. *Buru*
 - II.7.2.4. *Gai*
 - II.7.2.5. *Gizon, mutil*
 - II.7.2.6. *(G)une*
 - II.7.2.7. *Jende*

- II.7.2.8. *(K)ide*
- II.7.2.9. *(K)ume*
- II.7.2.10. *Lagun*
- II.7.2.11. *Orde*
- II.7.2.12. *(Z)aro*
- II.7.3. Mugatzaileen gramatika-kategoria
- II.7.4. Adiera kontuak
- II.7.5. Emankortasuna
- II.7.6. Idazkera

II.8. *Hitzaurre* moduko deiktikoak

- II.8.1. Sarrera
- II.8.2. Adibideen azterketa
 - II.8.2.1. *Aitzin*
 - II.8.2.2. *Albo*
 - II.8.2.3. *Alde*
 - II.8.2.4. *Atze*
 - II.8.2.5. *Aurre*
 - II.8.2.6. *Azpi*
 - II.8.2.7. *Barne, barren, barru(n)*
 - II.8.2.8. *Bazter*
 - II.8.2.9. *Be (Pe)*
 - II.8.2.10. *Ertz*
 - II.8.2.11. *Gain*
 - II.8.2.12. *Gibel*
 - II.8.2.13. *Inguru*
 - II.8.2.14. *Ondo*
 - II.8.2.15. *Oste*
 - II.8.2.16. *(T)arte*
- II.8.3. Mugatzaileen gramatika-kategoria
- II.8.4. Osagaien arteko erlazio semantikoak
- II.8.5. Emankortasuna
- II.8.6. Idazkera

III. MUGATZAILE BEREZIKO IZEN-ELKARTEAK

- III.1. Sarrera
- III.2. Adibideen azterketa
 - III.2.1. *Aitzin*
 - III.2.2. *Albo*
 - III.2.3. *Arte*
 - III.2.4. *Atze*
 - III.2.5. *Aurre*
 - III.2.6. *Azpi*
 - III.2.7. *Barne, barren, barru*
 - III.2.8. *Bazter*
 - III.2.9. *Behe*
 - III.2.10. *Gain*
 - III.2.11. *Gibel*
 - III.2.12. *Goi*

III.2.13. *Kanpo*

III.3. Mugatzaileen eta mugakizunen gramatika-kategoria

III.4. Osagaien arteko erlazio semantikoak

III.5. Emankortasuna

III.6. Idazkera

IV. BI OSAGAITIK GORAKO MENDEKOTASUNEZKO ELKARTEAK

IV.1. Sarrera

IV.2. Berrelkarketa

IV.2.1. Koordinaziozko hedapena edo juntagailuz lotuak

IV.2.1.1. Mugakizun bera duten bi izen elkartuk osatuak

IV.2.1.2. Mugatzaile bera duten bi izen elkartuk osatuak

IV.2.1.3. Mugatzailea eta mugakizuna, biak juntatuak dituztenak

IV.2.1.4. Osagai juntatuen osaera

IV.2.2. Juntagailurik gabeak

IV.3. Osagaietako bat izena ez duten elkartuak

IV.4. Ondorioak

V. BIBLIOGRAFIA

VI. ADIBIDETEGIA

VI. 1. Kodeen azalpena

VI.2. Argibideak

VI.3. Adibidetegia

SARRERA GISA*

Urteak igaro dira Euskaltzaindia *Hitz-Elkarketa* izeneko sorta argitaratzen hasi zenetik, euskal lexikoa gaurkotzeko baliabide guztiz garrantzitsu eta beharrezkoa baita hitz-elkarketa. Ez da, ordea, bakarra, hizkuntza guztiek jotzen baitute hizkuntzaren beraren baliabideez gain —hitz-elkarketaz eta eratorpenaz gain—, maileguak hartzera, hau da, beste hizkuntza batzuetatik hitzak hartu eta berera egokitzera. Eta, jakina, hitz berrien ondoan hor dugu tradizioko euskal hitzen altxorra ere. Hori guztia aztertzeko sortu zen 1981ean Hiztegi-gintza Batzordea, esan duguna kontuan hartuta, bere baitan atal bat baino gehiago behar zituena. Lehen, Maileguzko Hitzen batzordea izan zen; eta maileguak nola egokitu aztertu ondoren, ezinbesteko iritzi zion Euskaltzaindiak euskarak hitz berriak sortzeko zituen baliabideak aztertzeari. Horretarako sortu zen, hain zuzen ere, 1986ko udaberrian LEF Batzordea, *Lexikologi Erizpideen Finkapenerako Batzordea* garai hartan euskaltzain urgazle zen Mikel Zalbideren proposamenez. Batzorde honek, bere aldetik, hitz-elkarketa aztertzeari ekin zion eratorpena bigarren aldi baterako utziaz, eta, lehenik, Zalbidek berak eginiko euskal hitz elkartuen behin-behineko sailkapen orokorra onartu zuen. Sailkapen hori begien aurrean izanik hasi zen Batzordea lanean, eta handik urtebetera argitaratu zen lehen emaitza, *Hitz-Elkarketa/1* liburukia (Mikel Zalbidek prestatua hau ere), sailkapen orokorrarekin batera, bost hitz elkartu motari buruz egindako lana biltzen zuena.

1991n etorri zen bigarren liburukia, *Hitz-Elkarketa/3*, 1988. urtean zehar eginiko jardunaldietan landu ziren txostenak jasotzen zituena (hamabi hitz elkartu mota), eta, 1987an argitaratu zen behin-behineko sailkapen hari aldaketa txikiren bat egin ziona.

Hurrengo urtean, 1992an, plazaratu zuen Euskaltzaindiak Zalbidek moldaturiko *Hitz-elkarketa/4*, hiru atal nagusi dituena. Lehenak, Euskaltzaindiaren 1971ko hitz elkartuen idazkerari buruzko arauaz eginiko galdeketa berri ematen du. Bigarrenak, hitz elkartuen osaera eta idazkerari buruzko argibideak jasotzen ditu, besteak beste, hitz elkartuen behin betiko sailkapen osatuagoa. Eta, hirugarrenik, Euskaltzaindiaren hitz-elkarketari buruzko gomendio-araua, 1992ko ekainaren 26an onartua.

Nabarmena da sorta honetan *Hitz-Elkarketa/2* liburukiaren falta, dagoeneko 1991ko argitalpeneko Sarreran berriaz aitortzen zena (**H-E/3: 19 / XVII**):

Harridura sor dezake, dena den, *Hitz-Elkarketa/3* kaleratzeak bigarrena baino lehen. Bi urtez, 1987an zehar eta 1988ko udaberria arte, hamabost azpisailetan banaturik landu zen *Eguzki-lore* motako menpekotasunezkoa da *Hitz-Elkarketa/2* osatuko duena¹. Baina ulertzekoa da bakarka idatzi eta aztertu ziren hamabost txosten horietan zenbait puntu eta gai errepikaturik aurkitzea. Horrexegatik, hamabost horietatik bakarra egin behar delako, eskatzen du liburu horrek askoz lan handiagoa.

* Miren Azkarate egileak, ikerketarako jaso duen finantziazioa eskertzen du: EHU-US10/10; Jaurilaritza-IT665-13; Europar Komisia-EC FP7/SSH-2013-1AThEME (613465). Elixabete Perez Gazteluren partaidetza Deustuko Unibertsitateko komunikazio ikertaldearen lan ildoan kokatzekoa da.

¹ Hiru jardunaldi eskaini zizkion Euskaltzaindiak hitz-elkarketaren azterketari. VI. Jardunaldiak. Zarautzen. (1987.06.19): “Multzo-elkarteak”, “Zati-elkarteak”, “Mota-elkarteak”, “Konparazio-elkarte exozentrikoak”. VII. Jardunaldiak. Leitza. (1987.10.24): “Leku-denborazko mugakizunezko hitz-elkartuak”, “Leku-denborazko mugatzailedunak”, “Banakuntza-elkarteak”, “Izen-elkarte bereziak”. VIII. Jardunaldiak. Bidarrain. (1988.03.25 eta 26): “*Eguzki-lore* moduko A-B hitz elkartu arruntak”, “Subsumptive compounds”, “Leku-denborazko mugakizuna + -ko dutenak”, “Sasi-maisu modukoak”, “-lagun, -mutil, -gizon”, “Berrelkarketak eta garapenak”, “Bestelakoak”. Horietaz gain, “Posposizio direlakoak” lanerako txostena ere landu zuen batzordeak Donostian (1988.03).

Esana dago, horrenbestez, zergatik eta zertarako gorde genuen *Hitz-Elkarketa/2* liburukia, zein den aurkezten ari garen lanaren edukia. Egia da guk orduan uste genuen baino askoz denbora gehiago igaro dela, baina iruditzen zaigu lanak ez duela balioa galdu, merezi duela oraindik ere H-E/4² liburukian (97 / 77 hur.), “*Eguzki-lore: mendekotasunezko³ izen-elkarteak*” deritzan atalean ageri diren gisa askotako izen elkartuen sailak aztertzeko egindako txostenak orraztu, osatu eta argitara ematea. Areago, urteak joan izanak aukera eman digu liburua ez bestelako euskarrian eskaintzeko lan hau, hitz-elkarketari buruz orain arte argitaratutako gainerako lanekin batera.

Esku artean ditugun elkarte-motei dagokienez, funtsean bitara bil daitezke: “*Behi-esne* moduko izen-elkarte arruntak” —adibide gehien dituena, joriena—, eta berezien saila; hots, arrazoiren bat edo beste dela medio, arestikoekin batean sailkatzen errazak ez diren beste hamaika izen elkartuk osatua.

Berezitat jotako azken horiek, berriz, lau multzo handitan sailkatu genituen: “Mugakizun bereziko izen-elkarteak” (Multzo-, Zati-, Mota-elkarteak...), “Mugatzaile bereziko izen-elkarteak” (*Aitzinsolas*-en ildokoak, *elkarlan* modukoak...), “Subordinaziozko leku-izenak” (*Atharratze-Jauregia*, *Ozaze-Jauregainia*...) eta “Izen-elkarketazko postposizioak” (*komediante moduan*, *etxe aurrean*... adibideen ildokoak).

Bada, lau multzo berezi horietatik, lehen biak besterik ez ditugu liburu honetan berariaz jorratuko. Hauexek arrazoiak:

- a) “Subordinaziozko leku-izenak”, arras gutxi izateaz gain, oro har, gainerako mendekotasunezko izen elkartuen arabera azter daitezke. Esate baterako, *Ozaze-Jauregainia* “Ozaze herriko Jauregainia etxea” bada, “Ozaze herri osoaren zati bat da Jauregainia etxea”, ‘osoazatia’, edo “Ozaze herrian dago Jauregainia etxea”, ‘non-zer’, ‘lekua’ erlazio semantiko edo logikoen arabera azal daiteke.
- b) Postposizioak, berriz, ez bide dira kategoria lexikoak, sintagmatikoak baizik. Egia da behin baino gehiagotan, mugakizuna lekua edo denbora adierazten duen izena denean, duda egin daitekeela postposizioa (*etxe + aurrean*) edo mugakizun bereziko hitz-elkartera ote dugun ([*etxe + aurre*] -an). Azken batean, lexikoaren eta sintaxiaren arteko “muga-arazoak” dira tarteko. Dagokion atalera iristean saiatuko gara kontu hau argitzen. Guztiarekin ere, liburu honen aztergaia “izen + izen” segidako hitz-elkarteak direnez gero, badirudi zentzuzkoena dela baldintza hau betetzen ez duten egiturak hemen ez aztertzea.
- c) Irizpide honek berak eraman gaitu “Mugatzaile bereziko izen-elkarteak” saileko “*Elkarlan* modukoak” bazter uztera. Hauek ere ez dira “izen + izen” egiturakoak eta nola eta zergatik sortu diren horrelakoak kontuan hartuta, badirudi “Erdal aurrizkien euskal ordainak” LEF batzordeak aztertu bai, baina argitara gabe duen lanean izan beharko luketela dagokien azterketa, beste segida batzuekin batean.

² Liburu osoan zehar H-E/1, H-E/3, H-E/4 laburdurak erabiliko ditugu Euskaltzaindiko LEF batzordearen liburuak izendatzeko. Ik. Bibliografiaren atala.

³ Hiztegi Batuaren irizpideekin bat etortzeko, *mendeko(tasun)* moldea hobetsi dugu, nahiz eta gure aurreko lanetan *menpe(ko)(tasun)* erabili izan dugun. Era berean, Hiztegi Batuaren arabera, izena bera ere bestelakoa behar luke gaur batzordeak, *Lexikologia Irizpideen Finkapenerako batzordea*. Baina, sorrerako izena errespetatuz, LEF laburdura gorde dugu.

Esana dago honenbestez hemengo lantegi zehatza “izen + izen” egiturako (A-B motako (H-E/1: 39 / 34)) mendekotasunezko izen-elkarteak direla: elkarte arruntak (*Behi-esne* modukoak), eta mugakizun nahiz mugatzaile berezia dutenak.

Elkartu mota bakoitzaz Euskaltzaindiak eman duen idaztaraua azalduko dugu *Behi-esne* moduko elkarteak aztertzen ditugunean, lehen kapituluan. Osagaien topaguneetan gertatu diren hots-aldaketak, berriz, ez ditugu oro har hemen xehatuko, H-E/3 lanean jasoak baitaude. Bi osagaitik gorako elkartuak eta ingurukoak, berriz, atalez atal aztertu beharrean, atal berezi batean jasoko ditugu.

Elkarte-mota eta azpimota guztiak aztertu ondoren, bukaeran, adibidetegi osoa doa, *Hitz-Elkarketa/1* eta *Hitz-Elkarketa/3* liburukietan egin bezala; liburuki guztietako adibidetegia ere Mikel Zalbidek prestatu eta antolatua da. Atalez atal, kapitulu bakoitzean aipatu diren adibide guztiak eta gehiago ere aurkituko ditu irakurleak alfabeto hurrenkeraren arabera antolatuak testuinguru eta guzti, esan bezala, guztiak batera, irakurleari errazago gertatuko zaiolakoan hitz elkartu jakin bat aurkitzea. Alabaina, ahalik eta informazio osoena emateko, adibidea zein liburutatik hartua den adierazten duen kodeaz eta orrialdeaz gain, beste datu bat ere gehitu dugu: H-E/2ko zein azpisailetakoa den. Hartara, erraz aurkitu ahal izango ditu edonork adibide baten gaineko argibideak, sarean argitaratzeak berak ere horretan lagunduko du-eta. Adibidetegiari egin diogun sarreran emango ditugu argibide gehiago honetaz.

Adibideon mekanizazio lana, ordenagailuan sartu eta sailkatzea, UZEIn egin da. Adibidetegiarekin batera, noski, horko kodeen azalpena ere ematen da, adibidetegia osatzeko baliatu ditugun liburuen zerrenda, alegia.

Aurreko argitalpenetan egin bezala, geure azterketa eta sailkapenak oinarritzeko eta irakurleari ere sail bakoitzaz ahalik eta informazio osoena eman nahian, han eta hemen aipatzen ditugun liburu guztiak bildu ditugu *Bibliografia*-ren atalean. Ildo beretik, puntu bat edo beste sakondu nahi duen irakurleak oin-oharretan aurkituko ditu maiz aski gai hori aztertu duten hizkuntzalarien erreferentziak.

Argitalpen honek, ordea, badu beste berezitasun bat, aurreko lanekin alderatuz gero. Sareko argitalpena da oraingo hau, ez paperean kaleratuko dena; eta honekin batera, sarean jarri ditu Euskaltzaindiak aurreko lan guztiak ere. Hala izateak aukera emango dio irakurleari, testuan H-E/1, H-E/3 edo H-E/4 liburuei aipamena egiten zaienean, zuzenean jotzeko dagokion puntura edo pasartera. Bi bide eskainiko dizkio testuak horretarako: lehenik, esteka batek zuzenean eramango du dagokion liburuko sareko argitalpena; horrekin batera, hala nahi duenak aurkituko du paperezko edizioan pasarte hori zein orrialdetan ageri den ere. Adibidez, *Hitz-Elkarketa/1* lana horrela aipatzen bada, H-E/1: 39 / 34, esan nahi du sareko argitalpeneko 39. orrialdeari dagokiola aipamena, eta paperezko argitalpeneko 34. orrialdeari.

Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu LEF Batzordearen izenean Zarauzko, Leitzako eta Bidarraiko udalei, Jardunaldiak egiteko egoitza eta laguntza osoa eskaini zutelako.

I. BEHI-ESNE MODUKO IZEN-ELKARTE ARRUNTAK

I.1. Sarrera

Euskaltzaindiak esan zuenez, bi hitz elkartzuz adierazle berri bat sortzeko bidea da hitz-elkarketa, euskaraz baliabide indartsua dena, “erdarazko hainbat hitzarte euskaraz eroso eta labur azaltzeko. Erdal A de B moduko izen-komplementazio askoren ordaina, esate baterako, horrela ematen du euskarak: *guraso-elkarte, telefono-zenbaki, garapen-maila, zerga-biltzaile*”. (H-E/4, I.1.: 51 / 37).

Horrexegatik ez da harritzekoa euskal gramatikariak hitz-elkarketaz arduratu izana (Campion 1884, Uhlenbeck 1911, Azkue 1923-25, Villasante 1974, Lafitte 1944..., azken urteetan De Rijk 2008).

Dagoeneko hitz elkartu horietako asko aztertuak eta lan horiek argitaratuak ditugu, Sarrerako hitzetan azaldu dugun bezala. Oraingoan “Mendekotasunezko izen-elkarte arruntak” ditugu aztergai, hau da, bi izenez osatuak; bi horietatik lehena, ezkerrekoa, mugatzailea da, eta bigarrena, eskuinekoa, mugakizuna (H-E/4, 11.: 91 / 77). Beste hitz batzuetan esanda, lehen osagaiak osagai nagusia zehazten du; hau da, X + Y elkartearen esanahia Y da, ‘X-ren’ Y, X-k zehazten, mugatzen duen Y (De Rijk 2008: 867).

Modu askotakoak izan daitezke horrela eraturako izen elkartuak, baina guztiek izango dituzte ezaugarri hauek:

- a) Hitz elkartua beti izena da, eskuineko osagaia hala delako: [behi + esne]_i izena da *esne* izena delako. Zabalago esan, eskuineko osagaiak (mugakizunak) iragazten dizkio bere ezaugarri guztiak hitz elkartu osoari, eta, horren ondorioz, elkarteak eskuineko osagaiaren jokaera eta aukera berak ditu. Alegia, *esne* izen bizigabea, konkretua, zenbakaitza... delako da *behi-esne* hitz elkartu osoa ere halakoxea.
- b) Ezkerreko osagaia ere beti izena izango da. Beraz, mota honetako hitz elkartu guztiek osaera morfologiko bera dute: [[izena] + [izena]]. Honetan bereizten dira H-E/3 liburukian aztertu genituen *jarleku* moduko izen elkartuetatik (H-E/3, XI.: 83 hur. / 63 hur.). *Jarleku* edo *jangela* ere izenak dira, eskuineko osagaia izena delako; baina ezkerreko osagaia, mugatzailea, aditza da.
- c) Esanahiaren ikuspegitik ere, eskuineko osagaiak (mugakizunak) ezartzen du hitz elkartuaren mintzagaia, erreferentzia, eta ezkerrekoak (mugatzaileak) zehazten, ñabartzen, mugatzen du nolakoa den eskuinekoa. *Behi-esne* diogunean, ‘esne’ esaten diogun edari edo urkariaz ari gara eta ezkerreko *behi* horrek adierazten digu zein esne-mota den, behiak ematen diguna, behiarengandik hartzen duguna eta ez ahuntzarena, edo ardiarena, esate baterako.
- d) Ildo beretik, bi osagaiak maila berean ez egotetik datorkie elkartu horiei, hain zuzen, mendekotasunezko zat jotzea. Lehen esana beste modu batera esanez: eskuineko osagaia burua da, eta ezkerrekoa (mugatzailea) horren mendeko modifikatzailetzat edo har daiteke. *Behi-esne* elkartuan *esne* da burua eta *behi* bere modifikatzailea.

Horrek guztiak agerian uzten du zein garrantzizkoa den osagaien hurrenkera⁴.

Beste alde batetik, azterketan hasi aurretik komeniko litzateke bereiztea gaurko hiztunak hitz elkartzat dauzkanak —esan nahi da, osagaiak bereizteko modukotzat dauzkanak— eta, jatorriz hala izanik ere, osaeraren ilunak, osagai bakartuak ezin bereizteak bakuntzat, ihartzat jotzera daramatenak. Ihartzean mailak edo urratsak izanagatik, bidea azken muturreraino egin dutenok hiztunak hiztegiko gainerako izen bakunak bezala ikasi behar ditu, osatuak ez balira bezala (**H-E/3, XIII.1.: 193 hur. / 173 hur.**): *otordu, senar, zipotz, izotz, opil, deiadar*... Gure hemengo azterketa osagaiak “gardenak”, bereizteko modukoak, dituztenetara mugatuko dugu batez ere; alegia, hiztunak bizirik sentitzen duen baliabidearen ispilu izan daitezkeenetara.

Aipatu ditugun lanetan esaten den bezala, elkarte-mota hau bizi-bizia izan dugu eta gaur ere halaxe dugu euskaraz: “Los compuestos de esta 3ª clase son, sin duda, los más frecuentes. En vasco se recurre constantemente a ellos”, dio Villasantek (1974: 20). Euskaltzaindiak ere, antzera: “Hau da seguruenik, elkarte-modu zabal eta korapilatuena” (**H-E/1, VIII.: 70 / 65**); “gaur egun sortzen ditugun hitz elkartu gehienak honelakoak dira” (**H-E/4, XI.1.: 91 / 77**), etab.

Hain baliabide emankorra den honek, baina, oso eremu zabala estaltzen du, arestiko ezaugarriak dituzten mendekotasunezko izen elkartu guztiak ez baitira gisa berekoak. Hainbat irizpidez balia gaitzake (morfologikoak, sintaktikoak, semantikoak...) eremu honetan sailak eta atalak bereizteko⁵. Baina kontura gaitzean baditugula hemen bi gogoeta-gai pitin bat lantzea merezi dutenak: baliabide honen **emankortasuna eta mugak** eta barrengo **sailkapen xeheagoa** egiteko beharra.

I.2. Emankortasuna eta mugak

Emankortasunaz den bezainbatean, garbi dago aspaldidaniko baliabidea izanik ere⁶, estandarizazioarekin batean, eta euskarak arlo berriak irabazi ahala, erruz ugaltu direla halakoak. Alegia, hitz-elkarteak hiztunak aukeran duen bitartekoa da, oro har, ez baitago behartuta noraezean elkartera jotzera⁷ —sintaxira jo dezake (*txori-kaiola* erabili beharrean, *txorien kaiola, txorientzako kaiola*... egin ditzake)—, eta, nahiz aukerakoa izan, hiztunak oso maiz jotzen du elkarketa-mota honetara, egitura honetako izen elkartuen ugaritasunak ispilatzen duen moduan. Horrek adierazten du euskal hiztunak oso eskura sentitzen duen baliabidea dela.

Areago, (**H-E/4, I.1.: 51 / 37**) lanean genioen bezala, itzulpenerako ere iturri oparoa dugu elkarte-mota hau:

Aukera paregabea eskaintzen du, orobat, erdal “izen + adjektibo erreferentzial” egiturak ordezkatzeko: *esku-lan (trabajo manual / travail manuel), aho-literatura (literatura oral / littérature orale), ekonomi teoria (teoría económica / théorie économique)*, etab. Bide honi eutsi behar litzaioke orain ere, ahal den guztian, erdal hitz-moldaera arrotzen mendekoegi bihurtu nahi ez badugu.

⁴ Ohart gaitzean ingelesak edo alemanak bezalako, baina hizkuntza erromantzeek ez bezalako hurrenkera duela euskaraz: “mugatzailea + mugakizuna”, alegia: *cow-milk, Kuh-Milch, behi-esne / leche de vaca, lait de vache*.

⁵ Azkarateren lanera (1990) jo daiteke xehetasunetarako.

⁶ Esate baterako, Villasantek dio (1974: 21) era honetako elkartu asko eta asko (“muchisimas”) darabiltzala Axularrek. Hala guztiz, aipatzen dituen adibide batzuk egun ez genituzke mota honetan sartuko; besteak beste, *alda nahi, afal aitzinean, athal zain, gibel beldurti*...

⁷ Orain bazter utziko dugu azterlan xeheagoa beharko lukeen beste muga bat: elkarketara ezinbestean jo beharra, noiz eta nola.

Baina ba ote du baliabide honek mugarik? Edo hiztunak bi izen, edozein, elkar ditzake mendekotasunezko izen bat eratzeko? Hau da, zer da *ahal den guztian* horretatik kanpo geratzen dena? Auzi korapilatsu samarra da eta azterlan sakona merezi eta behar duena. Guztiarekin ere zertxobait esango dugu, baliagarria izan daitekeelakoan.

Lehenengo kontua argitasunarena da. Ez dugu ahaztu behar hitz elkartua beti ilunagoa dela, hartzaileari deskodetzen lan handiagoa ematen diola eraikuntza sintaktikoak baino. Horrexegatik genioen (H-E/4, I.1.: 52 / 38): “osagaien arteko erlazioak ilunak” direnean, mezuaren hartzailearentzat ilun gerta daitekeenean hobeko genukeela bestelako eraikuntzetara jotzea (*unibertsitate-soldatak* ez baina *unibertsitateko soldatak*, *merkatu-bilakaera* ez baina *merkatuaren bilakaera*...).

Errepara, hala ere, halakoetan auzitan dagoena ez dela delako elkartearen gramatikaltasuna, igorleak ez du “debekurik” halakoak egiteko, euskal gramatikak ez du bide hori ixten, baina benetako hartzaileak, apika, bai. Pragmatika kontua da areago, hortaz, gramatika hutsarena baino. Baina argitasunak argitasun, ba al dago benetako mugarik? Noiz galarazten dizkigu euskal gramatikak mendekotasunezko izen-elkarteak?

Jo dezagun Azkueren (1923: 600) eta Villasanteren (1974: 20) lanetara:

[*aurre, aitzin, arte, barru...*] se unen a nombres de seres animados, lo mismo que de materiales, para componerse con ellos cuando son específicos; pero no a seres individuales, a nombres propios, con los cuales no pueden formar nombres compuestos. No decimos *ni-aúfean* por *nire aúfean* delante de mí, ni *Pedro-atzean* por *Pedroren atzean* detrás de Pedro. El griego *theotókos*, no cabe usar entre nosotros en esa forma de nombre compuesto: *Jainko-Ama* sino *Jainkoaren Ama*. Si entre los vascos se profesó alguna vez el politeísmo, como es muy probable, entonces habrá sido posible el uso *Orzama*, pues *Orzi* «Dios» habrá tenido categoría de nombre específico más que de individual o propio. (Azkue 1923: 600).

Cuando se trata de nombres propios, no se puede elidir el caso de declinación. *Pedroren aurrean*, no *Pedro aurrean*. *Jesusen Bihotza*, no *Jesus Bihotza*. Digase lo mismo de los pronombres personales: *Nire aurrean* = delante de mí, no *ni aurrean*. Con *Jainko* = Dios, el uso es más vacilante, pues, por una parte, en vasco recibe tratamiento de nombre común, y, por otra parte, en la conciencia del hablante es como un nombre propio. Se dice *Jainko-bila* = en busca de Dios, *Jainko herria* = pueblo de Dios, y aun *Jainko-Semea* = el Hijo de Dios. No recordamos haber oído *Jainko-Ama* por *Jainkoaren ama* = la Madre de Dios, y, en definitiva, parece más propio en todos estos ejemplos el uso del caso posesivo. (Villasante 1974: 20).

Benetako elkarte nahiz postposizioa tarteko izan, badugu hor benetako muga: izen bereziek eta izenordainek ezin osa dezakete mendekotasunezko izen-elkarterik (beste era batzuetako elkarteak bai: aposizioak⁸ buruen-buruenik (Azkarate 1990: 290-293). Horrexegatik ez da harritzekoa Azkaratek (1990) milaka hitz elkarturen azterlanean mintzagai ditugunen gisako oso gutxi (eta oso autore gutxiarenak) aurkitu izana.

Arrazoia aski argia da, ezkerreko osagaiak beti erreferentzia zabala, generikoa behar du izan⁹: horrexek garamatza *Lehendakariaren mintzaldia* eta *Aita Santuaren bedeinkazioa* esan eta idaztera, baina ez **Lehendakari mintzaldia* eta **Aita Santu bedeinkazioa*.

Ba al dago bestelako mugarik? Lehen ahotan genituen erdal adjektibo erreferentzialen ordainei¹⁰ dihoazkien auziak dira tarteko. Alegia, euskaraz gisa horretako adjektiboen gabezia

⁸ Halaz ere, bada aposizioak syntaxian, hitz-elkarketatik kanpo eratzen ditugula aldeztu duenik.

⁹ Horrexegatik gaitzetsi izan dira gramatikaren ikuspegitik hainbat “egun” seinale, nahiz eta hizkuntzan geratu diren (*Alderdi eguna, Aberri eguna*...).

¹⁰ Ikus honetaz Ensunza (1989), Loinaz (1995) eta, batez ere, Zabala (1997).

ia erabatekoa (-*dun* atzizkiaz eratorriak eta jatorri-izenki -(t)ar atzizkidunak¹¹ eta gabeak (*frantses, holandes...*) dira salbuespena) eta hutsune horrek sortzen duen bete beharra.

Ildo horretan, honela zioen Euskaltzaindiak (H-E/4, I.1.: 52 / 38):

Gaztelaniazko *música rockera* esateko aukera eroso eskaintzen digu euskal ekarte-bideak, *rock-musika* eginaz. Erosoa bezain mugatua da, ordea, baliabide hori: “una música muy (bastante, demasiado...) rockera” esateko, izan ere, alferrik saiaturako gara *rock-musika* elkartearekin.

Bistan da, hortaz, erdal adjektiboak onartzen dituen modifikatzaileentzako ordainik ezin asma dezakegula euskaraz hitz-elkartearen bidetik abiatuta, erdal modifikatzailearen ordain litzatekeen gure maila adberbioa (EGLU-lab: 448) nekez erabil baitezakegu izena modifikatzeko (**oso musika*, **oso rock-musika...*). Honek, ordea, berriz ere, ez dio eragiten hitz elkartuaren barrengo gramatikaltasunari, erabilerari baizik.

Baina bada auzi korapilatuagorik. Demagun *comportamiento normal / conduite normale, cajero automático / guichet automatique de banque, yogur natural / yaourt naturel, marcador electrónico / tableau d'affichage électronique...* itzuli beharrean gaudela. Euskaraz, hitz-elkartera jotzekotan, ezinbestean erdal adjektiboen oinarrian dauden izenen euskal ordainetara jo behar dugu; alegia, *arau, automata, natura, elektro* izenetara, esate baterako. Baina horrek ekarriko luke nekez onartuko genituzkeen (onartuko ez genituzkeen) **arau-jokaera*, **automata-kutzazaina*, **natur(a) jogurta*, **elektroi-markagailua*, esate baterako, egin beharra.

Badirudi erdal adjektiboa zenbat eta bere oinarria den izenetik urrutiago egon, orduan eta zailagoa egiten zaigula euskaraz elkarketara jotzea, eta, kontrara, zenbat eta “erreferentzialagoa” izan, oinarrian duen izenarekiko lotura zenbat eta gardenagoa eta zuzenagoa izan, orduan eta aiseago egin ditzakegula elkarteak Lotura urrunekoa duten horientzat beste aukera batzuetara jo beste aterabiderik ez dago: izenlagunetara¹², esate baterako: *ohiko, arrunteko... jokaera*, edo mailegatzera: *kutzazain automatiko, jogurt natural, markagailu elektronikoa*. Horren lekuko dauzkagu arruntean darabiltzagun *portu, hizkuntza* edo *jende naturalak* edo Hegoaldeko lagunarteko hizkerako: *gazte formala* (‘zintzoa’), esate baterako¹³.

Guztiarekin ere, beste zerbait ere ez genuke begi aurretik kendu beharko; hots, erdal adjektibo horren oinarrian dagoen izena euskaraz beti modu bakarrean eta berean eman beharrik ez dagoela (*rural* adjektiboaren ordainak izan daitezke, besteak beste, *baserri-giro, nekazaritza-produkzio, herri-kirolak, landa-lan...*). Era berean, itxuraz adjektibo bera denak izan ditzake irakurketa edo balio bat baino gehiago eta horien arabera hitz-elkartea zilegi izan daiteke batzuetan eta bestetan ez. Urrutirago gabe, arestiko *natural* adjektiboa erreferentzial garbia denean, ‘naturari/izadiari buruzkoa’, ‘natura/izadia gai duena’ adierakoa denean, hitz-elkartera jo ahal izango dugu: *Ciencias Naturales, Natur(a) Zientziak* egin dezakegu (eta egin dugu). Baina ‘berezkoa’, ‘artifiziala ez dena’, ‘kanpoko eransgarririk

¹¹ Artiagoitiak (2002) jorratu ditu oraindik orain.

¹² Ez dugu hemen kategoria gogoan, izenaren modifikatzailea izatea baizik.

¹³ Zabalak (1997), beste hizkuntzalarari batzuei jarraikiz, izenondo erreferentzial *tematikoak / sailkatzaileak* bereizten ditu. Izenondoak, modifikatzen duen izenaren argumentutzat har daitezkeen, izenondo *tematikoa* dela esan daiteke. Modifikatzen den izena aditzetik eratorria denean aurkituko dugu erlazio-mota hau: *transporte electrónico* edo *infección vírica*, esaterako. Izenondo erreferentzial *sailkatzaile* deitzen die, aldiz, modifikaturiko izena sailkatzeko erabiltzen ditugunei: *microscopio electrónico, material quirúrgico* edo *demostración matemática...* Bietan, bai tematikoetan eta bai sailkatzaileetan, izango dugu behin baino gehiagotan mailegua hartzeko beharra, izenaren eta izenondoaren arteko harremana urruneko bihurtu denean.

gabea'... adierakoa denean; hau da, dena delakoa nolakoa den adierazteko darabilgunean¹⁴, ezingo dugu jo elkarketara: **natur(a) janariak, hizkuntzak, pertsonak...ez baina janari, hizkuntza, pertsona... naturalak*.

Bukatzeke beste kontu bat aipatu besterik ez dugu egingo, **IV.3** atalean polikiago aztertuko dugu eta. Hitz elkartuen osagaien gramatika kategoriari doakiona da: hitz-elkarketaren funtsezko ezaugarrietako bat da bi kategoria lexikok osatu behar dutela; hots, izen, adjektibo, aditz eta aditzondoaz besterik ezin balia gaitezkeela hitz elkartua osatzeko (**H-E/3, I.2.3.1.: 38 / 18**). Beste era batera esanda, hortik gorako osagairik, sintaxitik datorren kategoria sintagmatikorik ez dugula izango hitz elkartuak osatzen. Eta hori liburu honetako elkartuena ez ezik, eskuarki, hitz-elkarketaren mugetako bat da. Horrelaxe betetzen da gure hemengo aztergaien, oro har: bi osagaiak izenak izan ohi dira.

Baina ikusiko dugu gure adibideetan badirela mugatzailearen tokian kategoria lexiko hutsa ez diren osagaiak; Izen Sintagmak ditugula mugakizunaren ezkerretara: *gazta zahar puxka, liberal mantso talde, arto bero usain...* bezalakoak, alegia¹⁵. Hauek egin eta egiten ditugu euskaraz. Baina gertakari honek hainbat galdera sorrarazten dizkigu: elkarketan al gabiltza bete-betean? Hala izatekotan, mendekotasunezko elkartu guztiek al dute aukera hori? Bistan dago ezetz; ez daukagu **txori polit kaiola* edo **behi beltz esnea* egiterik. Argi dago, honenbestez, murriztapenak egon badaudela eta lehen aipatu dugun mugari —baliabide lexikoetan kategoria lexikoei hartzen dute esku— ez eusteko arrazoirik ez dagoela.

Corpusa aztertuta argitu beharko da noiz, zein mugakizunek onartzen dituzten horrelakoak (hauek baitira salbuespena) eta, ahal den neurrian, zergatik horiek onartzen duten ohikoa ez den mugatzailea. Horrixe helduko diogu, besteak beste, liburuaren bukaera aldean (**IV**).

I.3. Hitz-junturako hots-aldaketak: hots-legeak

Sarrerako hitzetan esan dugu ez ditugula xehatuko osagaien topaguneetan gertatzen diren hots-aldaketak, H-E/3 lanean jasoak daudelako. Baina, labur izanik ere, beharrezkoa iruditzen zaigu *-ia* amaierako osagaiez hitz erdi bat esatea. 1992ko arauak hala dio (**H-E/4, I.3.: 55 / 41**):

Bukaeran >ia< duten hitzak lehen osagai edo mugatzaile gisa dihardutenean, >a< hori kenduta nahiz kendu gabe erabili: (...) *ortografi arauak, erreferentzi puntua, diplomazi falta, bidai agentzia, Filosofi Fakultatea, Euskal Autonomi Elkarte, edota ortografia (-) arauak* etab. Hala ere, >a< kenduta erabiltzeari ematen zaio lehentasuna.

Araua ez da aldatu, baina amaierako *-a* kenduta nahiz kendu gabe erabiltze horretan, eta 1992an esandakoaz bestela, *Euskal Autonomia Erkidegoa* arautu zuen Euskaltzaindiak 45. arauan, “Gure egitura politiko batzuen euskal izenaz” delakoan (1995.09.29). Eta, irizpide berari jarraikiz, *bidai agentzia, bidai bulego*¹⁶, *diplomazialari, historialari* edo *zientzialari* arautu ditu Hiztegi Batuan.

¹⁴ “Kalifikatzailea” denean (Zabala 1997).

¹⁵ H-E/3 lanean (**IV: 139-150 / 120-130**) *zale*-k ezkerretara kategoria sintagmatikoak ere onartzen dituela jaso genuen (*arrimatuzaile, astiro ibilizale...*). Ez ginen, baina, argibideetan murgildu. Hemengo bukaerako azalpenean saiaturako gara guztiak batzen. Ik. puntu horren azterketa xehea Perez Gaztelu (2004, 2008) lanetan.

¹⁶ Marra aukeran dutenak. Beraz, *bidai-agentzia* zein *bidai agentzia; bidai-bulego* zein *bidai bulego*.

I.4. Idazkera

Hitz-Elkarketa/4 liburuan honako bereizkuntza egiten da hitz elkartu mota hauen idazkeran: forma ihartuak edo ihartze bidean doazenak, baturik (*galeper, betile, baserri, gurdibide, lankide...*). Izen-elkarte berriak direla eta, berriz, aukeran uzten du Euskaltzaindiak marratxoaz loturik edo bereiz idaztea.

Arau zabal horrek baditu salbuespenak:

1. Baturik idatziko dira, salbuespenak salbuespen:
 - a. *Aldi, buru, gizon, (g)une, kide, (k)ume, orde* mugakizuna duten elkarteak (*agintaldi, sailburu, legegizon, solaskide, kalekume...*).
 - b. *Aurre, azpi, gain* mugatzailea duten elkarteak (*aurreproiektu, azpiegitura, gainazal...*).
2. Bereiz idatziko dira *erdal, euskal, giza, itsas* mugatzailea duten elkarteak (*erdal itzulpen, euskal aldizkari, giza zientziak, itsas ekologia...*).

Bestalde, Euskaltzaindiak gomendatzen du osagai biak letra larriz idazten direnean hitz elkartua marrarik gabe idaztea. Batez ere errotulu, titulu eta izendapenetan: *Eusko Jaurlaritza, Bertsolari Txapelketa, Zinema Jaialdia...*

Nolanahi dela ere, komeni da Hiztegi Batua kontsultatzea, euskara estandarrerako zer forma hobetsi den jakiteko (<http://www.euskaltzaindia.net/hiztegibatua>).

I.5. Sailkapena

Esan dugu mendekotasunezko izen elkartuek oso eremu zabala hartzen dutela eta, horrexegatik, hain zuzen ere, komeni dela sailkapen xeheagoa egitea. Erabili izan diren irizpideen artean, ikertzaile askok hitz elkartuko osagaien arteko erlazio semantiko edo logikoa erabili izan dute sailak antolatzeke. Sailkapen honen funtsa ezkerreko osagaiak eskuinekoarekin zein erlazio modu duen zehaztean datza; alegia, mugatzailearen esanahiak nola zehazten, mugatzen duen mugakizunaren esanahia¹⁷.

Bi izenez osatutako mendekotasun elkarte hauetan xehetasun gehiagoren bila abiatzean bi izen horien arteko erlazio semantikoetara jotzeak, ordea, ez du esan nahi irizpide argi edo erraza denik. Izan ere ugariak dira bi izenen artean gauza daitezkeen erlazio semantikoak eta, horregatik, izen elkartu berri bat interpretatzeko analogiaz baliatzen omen gara: aldeztu aurretik

¹⁷ Gure barrutian, Azkue eta Villasante konturatu ziren harreman-motak bazeudela, izenik eman ez bazieten ere: “D) Lo que acaso más generalmente se omite en nuestros compuestos es alguna desinencia casual (partícula de declinación), especialmente el posesivo (...) E) Hay vocablos compuestos cuya elipsis es una frase, tales como *baru-txistua* equivalente a *barurik ateratzen degun txistua* saliva que sacamos en ayunas; *kanpanburu* (B-elgeta) (...) literalmente «ayuno de campanas, ayuno mientras no suenan las campanas»; *egur-yan* liter. comida de leña, equivalente a *egufa lortzearen ematen dan yana* comida que se da por acarrear leña; *giltzafi* liter. piedra de llave, elipsis de (*mako baten*) *giltz izateko afia* piedra que ha de ser llave de un arco; *gizotso* duende, de *gizon-antzeko otsoa* lobo parecido a hombre; *odeigari* liter. trigo de nubes, elipsis de *odeiak (ostotsak) uxatzearen ematen dan garia* trigo que se da por ahuyentar truenos”. (Azkue 1923: 584 D,E).

“Aquí la elipsis consiste (generalmente, no *siempre*) en omitir el caso de declinación (por lo regular, el posesivo) (...) pero lo que se omite no siempre es el caso de declinación. En frases como “Bada zerbait *egin beharra*” = hay precisión de hacer algo, se advierte la elisión de *-teko* en el nombre verbal; como en *biltoki* (biltzeko tokia)”. (Villasante 1974: 20).

ezagunak zaizkiguneren eredura jotzen omen dugu, horietatik zeinen antzekoen den begien aurrean dugun izen elkartua (Heyvaert 2009: 249). Jakingarriak dira, honi dagokionez, De Rijk-en hitzak (2008: 867): bi osagaien arteko erlazio semantikoa pragmatikaren argitan aztertu behar da, eta gerta daiteke erlazio semantiko jakin bat izen elkartu bakar batean aurkitzea. Dioena azaltzeko, Azkuek aipatzen duen *hodeigari* izen elkartua baliatzen du (oin-oharrean aipatu duguna). Esanahiari dagokionez, “hodeiekin zerikusia duen garia” izendatzen duen izena dela baieztatu dezakegu, ez gehiago. Euskal nekazaritzako ohituretan aurkitu beharko dugu azalpen zehatzagoa, “trumoiak uxatzearen trukean ematen den garia”. Beste batzuetan adibidetegiko testuinguruetara jo beharko dugu hitz-elkarte jakin baten oinarrian zein erlazio semantiko dagoen argitzeko.

Zailtasunak zailtasun, bi izenen arteko erlazio semantikoa hartuko dugu oinarri *Eguzki-lore* motako mendekotasunezko izen elkartuak hobeki xehatzeko. Baina ‘helburua’ erlazio semantikoa aztertzean, berariaz aztertuko ditugu “aditzetik eratorritako izena + izena” osaera dutenak, gero ikusiko ditugun arrazoiengatik. Sailkapenean hasi aurretik, halaz ere, zerbait argitu beharrean gara:

1. Batzuetan hitz elkartu berak aditzeko modu bat baino gehiago onar ditzake (Levy 1978). Erlazio semantikoak aski gertukoak direnean gertatzen da hori batez ere. Esate baterako, ‘iturburua’ eta ‘egilea’ (‘kausa’ edo ‘zergatikoa’ ere bai) ez dira horren urrutikoak: *trumoi-hotsa* uler daiteke ‘iturburua’ (“hotsa trumoitik dator”), nahiz ‘egilea’ (“hotsa trumoiak egiten du”) erlazioen arabera. Zerbaiten egilea dena horren iturburutzat har daiteke, nahiz ‘iturburu’ guztiak ez diren nahitaez ‘egile’: *arto-irin* elkartuko mugatzailea *arto* bada *irin*-aren ‘iturburua’, baina ez ‘egilea’.

Beste horrenbeste gertatzen da ‘egilea’ eta ‘jabegoa’ erlazioen artean, aldizka: *giza kultura* “kultura gizakiona da” ‘jabegoa’, nahiz “kultura gizakiok egin dugu” ‘egilea’ bietara uler daiteke. Gauzak erraztearren, ‘egilea’ ezkerreko osagaia biziduna denerako erabiliko dugu.

Gertu dauden beste bi harreman ‘gaia’ eta ‘edukia’ dira. Zerbait gai batez eginez gero, gai hori edukiko du ezinbestean gauza eginak: *porru-salda* “salda porruz egin da” ‘gaia’ eta “saldak porruak ditu” ‘edukia’ uler ditzakegu.

Ildo beretik, ‘osoa-zatia’ harremana dagoela diogunean, modu batean behintzat, onartzen ari gara ‘osoa’ den hori ‘zatiaren’ nolabaiteko jabea dela edo aldizka izan daitekeela: *oilo-luma*: “oiloaren zati bat da luma”, “oiloa lumaren jabea da”.

‘Helburua’ eta ‘edukia’ harremanetan ere antzera gertatzen da: *txori-kaiola* “txorientzako kaiola” da eta aldi berean “kaiolak txoriak izan ohi ditu” barrenean, ‘edukia’, hortaz.

2. Beste kontu bat da erlazioon emankortasuna. Gaiari buruzko bibliografiatik hasita¹⁸, oharretatik ikusiko ditugun harremanetako batzuk autore askok aipatzen dituztela (‘gaia’, ‘garaia’, ‘lekua’, ‘baliabidea’, ‘helburua’); beste batzuek, aldiz, ia ez dute oihartzunik izan (‘modua’, edo ‘-en gainean’, ‘-i buruz’). Gure azterketan ere oihartzeko gara erlazio batzuek askoz maizago baliatzen garela beste batzuek baino: esate baterako, ikertzaile guztiek aipatzen ez badute ere, ‘edukia’ euskal izen elkartu asko eta askotan adierazten dugu; ‘ariketa’ erlazioak, berriz, adibide gutxi bide ditu. Guztiarekin ere,

¹⁸ Ikus Azkarate (1990: 134-136).

azken muturrerainoko sailkapena egitea ia ezinezkoa denez gero, gure corpusean maizenik ikusten ditugunen berri emango dugu.

Beste hizkuntzetarako eginaren ildotik, euskararako ere ondokoak bereiziko ditugu: ‘iturburua’, ‘jabegoa’, ‘osoa-zatia’, ‘edukia’, ‘ondorioa’, ‘baliabidea’, ‘gaia’, ‘garaia’, ‘lekua’, ‘helburua’, ‘ariketa’.

I.5.1. ‘iturburua’, ‘egilea’, ‘zergatikoa’ (edo ‘kausa’), ‘jatorria’

Ezkerreko osagaiak, mugatzaileak, zehazten du nondik/norengandik datorren eskuinekoa, mugakizuna; nork edo zerk sortzen/egiten duen, osatzen duen eskuineko mugakizuna:

auzi eta epai arazo, foru-arazo, maitasun-arazo, eguzki-argi, izar-argi, kandela-argi, oin-arrasto, inflazio-arrisku, duintasun-auzi, hizkuntza-auzi, oinatz, langile-batailoi, elizbatzar, trumoi-danbarrada, ardi-esne, aker-euskara, eper-familia, arrantzale-giro, familia-giro, giza giro, festa-giro, ardi-gorotz, asto-gorotz, beldur-haize, erreuma-haize, hego-haize, ipar-haize, egur-hauts, ikatz-hauts, piper-hauts, aleman-herri, apez-hitz, gerrate-hondakin, kale-borroka hots, olatu-hots¹⁹, trumoi-hots, poz-ikara, artile, arrain-irin, gari-irin, eliz jai, herri-kanta, zigarro-ke, arrantzale-keinu, arrantzale-kofradia, apezpiku-konferentzia, mikelete-konpainia, abeslari-koru, Jainko-lege, arbi-lore, gerezi-lore, damu-malko, poz-malko, zikin-mantxa, haur-min, maite-min, espos-oihu, pandero-soinu, amorru-su, haize-txistu, zitroin-ur, arrain-usain, goma erre usain, izerdi eta jantzi busti usain, porru berde usain, usteldutako hosto usain, olatu hots zantzu, giltza ta sarraila-zarata, haur-zarata, ontzi-zarata, automobil edo beribil-zarrastada, eztabaida-zipriztin, platano-zumo...

Mugakizunak: bizigabeak dira aztertu ditugun guztiak. Multzo zabala osatzen dute ‘hotsen’ alor semantikoko izenek: *hots, oihartzun, oihu, soinu, zarata...*, onomatopeiak barne (*burrumba, karraska, ufa, zarrastada...*).

Mugatzaileak era guztietakoak dira: bizidunak nahiz bizigabeak, konkretuak (gehienak) eta abstraktuak. Badira bizidun zein bizigabetzat hartzen ditugunak: *aberri, eliza, herri...* Arestian esan bezala, ‘egilea’ harremana bizidunak tarteko direnean hobeki egokitzen da: *aker-euskara* “akerrek euskaraz egin” (balio metaforiko argia duena, bestalde, animaliek ez baitute hitz egiten), *mutil-jolas* “mutilek jolas egin”, *eper-kanta* “eperrak kanta egin”, *herri-kanta* “herriak kanta egin”, *arrantzale-keinu* “arrantzaleek keinu egin”, *espos-oihu* “esposek oihu egin”, *haur-zarata* “haurrek zarata egin”..., baina hainbat bizigabe ere uler daitezke era honetan: *trumoi-hots* “trumoiak hotsa egin”, *oin-arrasto* “oinak arrastoa egin”...

‘Iturburua’ erlazioa ikusi dugu mugatzailea biziduna izanik, *kofradia, konpainia, batailoi...* moduko mugakizunak dituzten elkarteetan: ‘langileek egiten/sortzen/osatzen duten batailoi’, ‘mikeleteek egiten/sortzen/osatzen duten konpainia’, ‘arrantzaleek egiten/sortzen/osatzen duten kofradia’ edo ‘abeslariak egiten/sortzen/osatzen duten korua’ gisan ulertu ditugu, alegia. Bi osagaien arteko erlazio semantikoari dagokionez, ez daude urrun **II.2.2.1** atalean aztertuko ditugun elkarteetatik.

Erlazio modu bera ikusi dugu *gerezi-lore, artile* eta *arbi-lore* motakoetan ere, ‘gereziak eman lorea’, ‘ardiak eman ilea’, ‘arbiak eman lorea’ gisa hartuaz. Baita *gari-irin, arrain-irin* eta *platano-zumo...* ere, mugatzaileak ‘irin’ edo ‘zumo’ horren iturburua zehazten duelakoan. Baina agian beste batzuei egokiagoa irudituko zaie hor ‘gaia’ erlazioa ikustea.

¹⁹ *Hots, usain, kutsu...* mugakizunetz ariko gara konparazio- eta irizpen-elkarteetan. (**II.5**).

Oinarri-oinarrian ‘iturburu’ erlazioa egon arren, erlazio modu hori metaforikoa dela erakusten dute *ahuntz-erdara*, *ahuntz-euskara*, *aker-euskara*, *beldur-haize*, *erreuma-haize* edo *egia-hots*... elkarteek.

Itxuraz bizigabea izan arren, ‘euskaldun’ adieran ulertu beharrekoa da *euskal* mugatzailea hainbat elkartetan, hala nola *euskal etnia*, *euskal arraza* edo *euskal belaun*. Beste zenbaitetan, aldiz, jatorrian duen ‘euskara’ baino ez da (eta dagozkion hots-aldaketek azaltzen dute *euskal* forma): *euskal izen*. Eta behin baino gehiagotan zaila da hitz-elkarteko mugatzailea ‘euskaldun’ adieran ala ‘euskara’ adieran hartu behar den zehaztea: *euskal mugimendu*, *euskal sentimendu*...

Bi osagaien arteko erlazio semantikoari dagokionez, berriz, zenbait hitz-elkartetan (*guraso-ondare*, esate baterako, edo *gramatika-arau*, *gramatika-lege*) ‘jabegoa’ erlazioaren arabera ere aditzeko debekurik ez dago: “ondarea gurasoek dute, gurasoena da”, “gramatikak arauak ditu”, “gramatikak legeak ditu”... *Arazo*, *auzi*, *min*... mugakizuna dutenak ‘zergatikoa’, ‘kausa’ erlazioaren arabera hobeki ulertzen dira: *maitasun-arazo* “maitasunak arazoa sortu”, *hizkuntza-auzi* “hizkuntzak auzia sortu”, *aberri-min* “aberriak mina sortu”, *haur-min* “haurrak mina sortu”...

Bidenabar, ohart gaitzen arestiko puntuan aipatzen genuen auziarekin eta berrelkarketarekin topo egin dugula horko *izerdi eta jantzi busti usain*, *usteldutako hosto usain* adibideetan: mugatzailea, determinatzailezik gabeko izen-sintagma da: [[jantzi busti]_{IS} usain]_I, [[usteldutako hosto]_{IS} usain]_I baita dagokien egitura.

Horretaz gain, ikus *izerdi eta jantzi busti usai* edo *auzi eta epai-arazo* adibideetan nola bi hitz elkartu juntatu ditugun lehen elkartuko mugakizuna isilpean gordeta (IV.2.1.1); hau da, bien mugakizuna azkenean emanda:

izerdi (usaina) eta jantzi busti usaina, auzi (arazoa) eta epai-arazoa

Kapitulu osoa eskainiko diegu (IV) bi osagaitik gorako elkarteei eta han izango dugu aukera batera aztertzeko orain, kapitulu honetan, erlazio semantiko mota batean edo bestean aipatzen ditugun egitura hauek guztiak.

Azpisail berezi batean dira kokatzekoak ezkerreko osagaia ‘jatorria’ adierazten dutenak. ‘iturburua, jatorria’ bi modutara uler bide daiteke: orain arte jaso duguna (“elatiboa²⁰”); hots, ‘mugimendu edo bilakaera batetik sortzen den zera’ gisara, eta orain aipatzera goazena: ‘leku jakin batetik sortzen den, leku jakin batekoa den zera’ gisara.

Auziaren iturria batez ere *euskal* (egun gutxiagotan *eusko*) eta *erdal* mugatzaileak dituzten hitz elkartu franko dira. Egun erabiltzen ari garen moduan, *euskara* edo *euskaldun* izenen adieratik urrundu eta, beste gabe, “Euskal Herrikoa/Euskadikoa dela, Euskal Herrian/Euskadin egina dela”... adierazteko baliatzen ari garela dirudi²¹. Alde honetatik begiratuta, ikus dezakegu berez “jatorri-izenkiei”, adjektibo jentilizioei dagokien eginkizuna bereganatzen ari dela jatorriz *euskara* izen itxuraldatua besterik ez den *euskal* osagaia²².

²⁰ Hau da, hitz elkartuko bi izenen artean ez da antzematen ‘nonbaitetik ateratzeko mugimendua’ (Bauer 2004) adierazten duen erlazioarik.

²¹ Muturreko adibiderik ez da falta gure kaleetan: *euskal sofa*, *euskal bizikleta*, *euskal hotz*...

²² “Hala ere, egia da adibideotan *euskal*-ek ia-ia izenondo ‘jentilizioen’ (*frantses*, *ingeles*, *italiano/italiar*...) balioa hartzen duela. Baina euskaraz *euskal*, *erdal* ez dira izenondo lokabeak, *euskara*, *erdara* izenek hitz elkarketan (eta eratorketan) hartzen dituzten formak baino”. Azkarate (1990: 315). Hala ere, elkartu guztien

euskal bazkun, euskal diputazio, euskal politikari, euskal populu, euskal ume (euskalduna izan ez izan), eusko baso, eusko folklore, frantses ardo, nafar mendi...

Nolanahi ere, saiatu gara *euskal* mugatzailea duten elkarteak ere bi osagaien arteko erlazio semantikoaren arabera bereizten. Beraz, ‘iturburua’ erlazioa erakusten dutenen ondoan, bestelakoak ere aurkituko ditu irakurleak ondoko sailkapenean eta adibidetegian: *euskal odol*, *euskal ohitura*, *euskal libertate*, *euskal pizkunde* edo *euskal nortasun* ‘jabegoa’; *euskal nobelari*, *euskal olerkari*, *euskal olermen*, *euskal poesia*, *euskal testu*, *euskal toponimia*, *euskal umore*... ‘baliabidea’; *euskal hiztegi*, *euskal giro*, *euskal filologia*, *euskal egun*... ‘edukia’; *euskal lur*, *euskal etxe* ‘lekua’ (Euskal Herri adiera nagusitzen denean); *euskal sen* ‘helburua’.

1.5.2. ‘jabegoa’

Mugatzailea mugakizunaren ‘jabea’ dela adierazten dugu, ‘jabe’ zentzurik zabalenean hartuta. Hau da, mugakizunak adierazten duen zera, mugatzaileak adierazten duenarena dela, “x-k duen y”. Era horretan, *bertso-doinu* ‘bertsoek duten doinu’ gisa ulertuko dugu, edo *industri indar* ‘industriek duten indarra’.

giza adimen, euskal aditz, eliz agintari, ontzi-agintari, haragi-ahulezia, errege-alaba, giza arrazoi, esposa-arropa, eliz artxibo, herri-baso, kristau-bertute, gizarte-bizitza, lore-bizitza, herri-botere, sozialista-buruzagi, bertso-doinu, soin-edertasun, kristau-egiteko, kristau-erlijio, giza eskubide, herri-etxe, euskal fede, karlista-fede, aditz-forma, euskal foru, gizagogo, herri-gogo, euskal gramatika, etsai-gurdi, aberats-haur, euskal hitz, jakitun-hizkera, industri indar, emazte-izen, herri-izen, leku-izen, apaiz-jantzi, gizon-janzkera, teknokrata-joera, urre-kolore, hizkuntza-lege, euskal libertate, alkate-makila, euskal muga, bertso-neurri, herri-nortasun, judu-odol, aitzindari-ohore, bizi-oinarri, euskal ortografia, zaldun-oski, txalupa-patroi, alargun- seme, eliz seme, laborari-seme, jentil-sinesmen, giza soin, handiki-soineko, marinel-txapel...

Era guztietako izenak ditugu erlazio honen arabeko izen elkartuak osatzen. Azpimarratzekoa da beste erlazioetan ikusten ez dugun zerbait: bi osagaiak bizidunak izan daitezkeela (*errege-alaba*, *lapur-kapitain*, *alargun-seme*...). Mugakizunak: bizidunak direnean, gehienetan ahaide-izenak dira.

Mugatzaileen kategoria dela eta, horko *sozialista*, *teknokrata*, izentzat hartu ditugu, *karlista*, *euskaldun* edo *mairu* bezala, esate baterako. Hortaz, honela aditu ditugu hitz elkartuok: “sozialistek duten buruzagia”, “teknokratek duten joera”²³...

Mugatzaileak: bai bizidunak bai bizigabeak. *Herri* mugatzailea dutenak bitara har daitezke: batzuetan bizidun garbiak dira (*herri-gogo*, *herri-nortasun*...), baina bestetan bi ulerkerak onartzen dituzte (*herri-izen*). Bizigabe garbiak badira, berriz, ohikoagoa da ‘jabegoa’ ez baina ‘lekua’ (I.5.9) adieraztea (*herri-gizon*, *herri-jai*, *herri-lapur*...). Izan ere, hemen sailkatutako hainbat, beste erlazio batean ere sailka daitezke. Esate baterako, *ontzi-agintari*, *eliz artxibo*, *gizarte-bizitza*, *txalupa-patroi*... ‘lekua’ (I.5.9) eran ere uler daitezke: “ontzian agintaria aritu”, “elizan artxiboa dago”...; bestetik, *hizkuntza-lege* (“hizkuntzak dituen legeak” ulertu duguna) ez dugu ukatzen ‘iturburua’ (I.5.1) ere izan daitekeela (“hizkuntzatik legeak

atzean *euskara* balego bezala interpretatzen ditu.

²³ Oroi honetaz gramatikan (EGLU-lab: 117) esana: “... ohartuko gara gauza bat dela —zerbait baldin bada behintzat— *sozialista alderdia* (=sozialisten alderdia) eta bestea *alderdi sozialista* (izena + adjektibo dugularik oraingoan). (...) Arrazoi berberagatik, **ekonomiko arazoak* (adjektibo + izen) gaitzetsi dugun arren, ondokook zuzenak dira, hauetan bi izen elkartu (izen + izen) besterik ez baitugu: *ekonomi arazoak*...”.

atera”...). Mugakizuna denean ‘leku’ adierakoa, uler daiteke ‘edukia’ dela bi osagaien arteko erlazioa, ‘zer-non’ (I.5.4.2): *errege-jauregi* uler daiteke ‘erregea dagoen jauregia’ dela; *kaminero-etxe* eta *guarda-etxe* ‘kamineroak edo guardak dauden etxea’ edo *euskaldun-egoitza* ‘euskaldunak dauden egoitza’, etab.

Euskal mugatzailea duten hemengoek “euskarak duen” (*euskal aditz*, *euskal gramatika*, *euskal hitz*, *euskal ortografia*, “euskarak duen aditza, gramatika, hitza, ortografia”...), nahiz “euskaldunek duten” (*euskal fede*, *euskal libertate*, *euskal nahitasun*... “euskaldunek duten fedea, libertatea, mina, nahitasuna”...) moduan ulertu ditugu.

“Konparazio- eta irizpen-ekarteetan” (II.5) aztertuko ditugun hitz-elkarteetan ere, oinarrian, ‘jabegoa’ erlazioa dago askotan. Baina oinarritzko erlazioari gailentzen zaio konparazioa. Han aztertuko ditugu, beraz, *zakur-estilo*, *hauts-kolore*, *kokolo-aurpegi* edo *karlista-fede* moduko elkarteak.

I.5.3. ‘osoa-zatia’

Itxura batean, aurrekoaren sail berezizat ere har daiteke, ‘osotasuna’ adierazten duen ezkerreko osagaia ‘zattia’ adierazten duen eskuinekoaren ‘jabetzat’ jo baitaiteke; esana dugu, hortaz, horixe dela erlazio honen funtsa: ezkerreko osagaiak ‘osoa’ adierazten du eta eskuinekoak ‘oso’ horren ‘zattia’²⁴.

Hori dela eta, hemengo izen mugakizunek meharragoa dute hitz elkartuak osatu ahal izateko bidea: *izter* izenak oso izen-mota zehatza besterik ezingo du onartu mugatzailearen lekuan; izterra duen izakia alegia. Geroxeago aztertuko ditugun *zati*, *puska*... “Zati-elkarteetako” mugakizunek (II.3.2), berriz, askoz ere aukera zabalagoa dute ia edozein izenen eskuinean hitz bat eratzeko, ikusiko dugun bezala.

Ildo beretik, mugakizun hauek, zati-elkarteetakoak bezalaxe, beste “zer” batera eramaten gaituzte, nolabait, baina ez gisa berean. Hemengo mugakizunek erreferentziatzko balioa badute berez, beste zerbaiten zattia izan ez izan. Adibideetako *izter*, *beso*, *bizar*, *hezur*... izenek izen-elkartetik kanpo ere esanahi osoa dute. Zati-elkarteetako *puska*, *zati* eta gainerakoek, berriz, ez dute halako berezko baliorik, beste zerbaitetik ezartzen du erreferentzia (ogiak *ogi-puska*-n, esate baterako); bere osagarriak. Hori islatzen du *zati* izenaren definizioan *zerbait* eta *zera* izenordain zehaztugabeak erabiltzeak: ‘zerbait haustean, ebakitzean edo banatzean gertatzen diren gauzetako bakoitza’.

Bestetik, guztiak ‘osoa-zattia’ harreman zabalean sartu ahal izanda ere —eskuineko osagaia ezkerrekoaren zattia baita kasu guztietan— hemengoak ‘jabegoa’ (I.5.2) harremanaren arabera ere uler daitezkeela esan dugu, zati-elkarteak ez bezala. Eta, kontrara, hemengoetan ez dirudi ‘edukia’ harremana adi daitekeenik eta zati-elkarteetan, aldiz, bai: *oilo-izterra* ez da ‘oiloa’, oiloaren atal bat baizik, izterrean ez dago oilorik; *oilo-puska*, berriz, bada ‘oiloa’, *puska*-ren osagaia baita, eta, hortaz, ‘edukia’ harremana ere gauzatzen dela pentsa daiteke. Zenbaitetan ‘lekua’ (I.5.9) ere ikus daiteke bi osagaien arteko harremanean: *izter-zain* bada

²⁴ Bosquek (1999: 1.2.3.4) izen “meronimiko” deitzen die hauei, hau da, unitate handiago baten zattia adierazten duten *beso*, *adar*, *oin*, *buru*, *alde*, *ertz* edo *adar* bezalakoei; eta “Zati-elkarteetan” ikusiko ditugun *pixka* bezalako mugakizunei, berriz, “zedarri-izenak” (*acotadores*). Azkenok *cuantificativo*-tzat dauzka beste izen-mota batzuekin batean, hala nola ‘neurria’ adierazten duten *kilo* bezalako izenekin eta ‘taldea, multzoa’ adierazten duten *mordo* bezalako izenekin batera. Nolanahi dela ere, egia da batzuetan bi izen-mota hauen artean muga ezartzea ez dela erraza edo era batera nahiz bestera darabiltzagula: *izpi* meronimikotzat hartzen bide dugu *argi-izpiez* ari garenean, baina zedarri-izena bide da *zalantza-izpiez* edo dihardugunean.

‘izterreko zaina’, hau da, ‘osotasuna-zatia’; baina har daiteke ‘izterrean dauden zainak’ moduan ere. Oro har, ordea, ‘osotasuna-zatia’ erlazio semantikoa hobetsi dugu hurrengo adibideetan.

abeto-adar, elorri ta lizar adar; pago-adar, olerki-ahapaldi, esku-ahur, hitz-amaiera, urte-amaiera, elor-arantza edo adartxo bat; gabi-ardatz, bezpera-arrats, larunbat-arrats, biharamun-arratsalde, jai-arratsalde, eliz atari, erloju-aurpegi, betazal, limoi-azal, platano eta kakaues azal, mende-azken, txerri-azpizun, alkandora-beso, astearte-bezpera, festa-bezpera, Santio biharamun, arto-bizar, eihera-borta, erbi-buztan, eliza-dorre, igande-eguerdi, aditz-erro, mendi-gailur, igande-gau, jai-gauerdia, arbola-gerri, antzara-gibel, jai-goiz, ortzirale-goiz, primadera-goiz, arrautza-gorringo, ahari-hanka, errotarri, Pizkunde hasiera, marrazo-hegats, arrain-hezur, berna-hezur, aza-hosto, gabi-igun, igande-ilunabar, zartagin-ipurdi, fusil-kainoi, aitzur-kirten; laia, aitzur eta aizkora kirten, matela-kosko, belaun-kozkor, otso-larru, txori-lepo, oilo-luma, ipurmami, ogi-mami, burmuin, haritz-orritxo, etxe-pareta, jaka-poltsiko, aho-sabai, emasabel, bildots-saihets, txahal-saiheski, uda-sarrera, zaldi-ule, txahal-haragi xerra, urdaiazpiko gordin xerra, izter-zain, aratxe-zango, abarka-zola, arrautza-zuringo...

Adibide ugari ditu mota honek. Mugakizun guztiak bizigabeak eta, oro har, konkretuak dira. Mugatzaile gehienak ere bizigabeak dira, baina animalien izen franko ere erabiltzen ditugu gisa honetako elkartuak eratzeko, gizakia ere tartean dela.

Merezi du ohartaraztea ‘denbora’ adierazten duten mugatzaileak ere franko aurkituko ditugula, adibideetan ikusi bezala, dela egun bateko goiz, arratsalde, arrats, etab. adierazteko; dela egun baten bezpera zein biharamuna adierazteko; dela denbora-tarte baten (urte sasoi baten) hasiera edo amaiera adierazteko...

Bezpera, biharamun direla eta, aurrerago aztertuko ditugun “*Hitzaurre* moduko deiktiko (mugakizun)en” jokamoldetik gertuago bide daude —esanahiz “beteagoak”, apika, haiek baino— gainerako “*Behi-esne* moduko *Eguzki-lore*” arruntetatik baino. *Eztei-biharamun* eta *eztei-ondo* hartzen baditugu, esate baterako, ikus dezakegu ez dagoela horrenbesteko alderik bien artean, denboraren muga zehatza alde batera utzita. Ikusi besterik ez dago bai “deiktiko” deituak bai *bezpera, biharamun* mintzagai ditugunak batez ere postposizio sintagmetan (azken batean egitura sintagmatikoetan) darabiltzagula maizenik. Haiek eta hauek hitz elkartuko buru izanik, osagarri baten premia dute; horrek ere bereizten ditu aipatuko ditugun *arratsalde, egun, gau*... ‘denbora’, ‘garaia’ adierazten duten izen “beteagoetatik”.

Bereziak dira, orobat, izen abstraktua mugatzailea duten elkarteok: *nahimen unitate, gaiztakeri unitate*:

“gaiztakeri unidade asko eta nahimen unidade gutxi” (HE35:84)

“gaiztakeri unidadeak besterik tokatu ez zaizkion kriminal gizarajo bat” (HE35:83)

Gaiztakeriak eta *nahimenak* nekez izango dute ‘unitate’-rik. ‘osoa-zatia’ erlazioa, beraz, ez da benetakoa; ez da *erbi-buztan* edo *abarka-zola* elkarteetan bezalakoa.

Mugatzaileen artean badira juntagailuz lotuak ageri diren *igande edo domeka (gau)* eta *laia, aitzur eta aizkora (kirten)* bi osagaitik gorako elkarteei eskainitako kapituluan (IV.2.1.1) berariaz aztertuko ditugunak.

Azkenik, ‘osoa-zatia’ erlazioa ikusi dugu *ale* mugakizuna duten corpuseko adibideetan:

almeja-ale, artale, baja-ale, bertso-ale, “Herria” ale, hondar-ale, kafe-ale, liburu-ale, mahats-ale, patata-ale, ur-ale, gatz-ale

Egia da adiera bat baino gehiago duela *ale* izenak; honakoak, behintzat, bereiz daitezke gure adibideetan EHk ematen dituenak kontuan hartuz: 1. Gariaren eta kideko landareen hazia (*artale*); 2 zenbait landareren hazi edo fruitu txiki biribil antzekoa (*kafê-ale*); 3 fruitua (*mahats-ale*); 4 hainbat gauzaren zati xehe biribil antzekoa (*hondar-ale*, *gatz-ale*, *ur-ale*); 5 banakoa (*almeja-ale*, *baja-ale*, *bertso-ale*); 6 liburu, aldizkari, inprimaki eta kidekoen aldaki bakoitza (*liburu-ale*); 7 aldizkariez mintzatuz, zenbaki bakoitza (“*Herria*” *ale*). Adiera-ugaritasun horren azpian, ordea, batasun-moduko bat ikusi nahi izan dugu: mugatzaileak, ezkerreko osagaiak, osotasuna adierazten duela ulertu dugu eta, ñabardurak ñabardura, eskuineko mugakizunak osotasun horren zati bat.

I.5.4. ‘edukia’: ‘zer-zerk’, ‘zer-non’, ‘zer-noiz’

Ezkerreko osagaiak eskuinekoaren ‘edukia’ adierazten du. Eskuinekoa izan daiteke, oro har, horren ‘jabea’ (‘zer-zerk’), nahiz dena delako edukia tokian (‘zer-non’) edo denboran (‘zer-noiz’) kokatzen duena. Hala ere, behin baino gehiagotan —batez ere ‘zer-zerk’ eta ‘zer-non’ dugunean—, bitara har daiteke izen elkartu bera: *bertso-bilduma* “bildumak bertsoak ditu”, nahiz “bilduman bertsoak daude”.

Bestalde, esan dugun bezala, ‘edukia’ eta ‘gaia’ erlazioak oso gertukoak dira: *arrautzopil* “opilak arrautzak dauzka”, “opila arrautzez egin” uler daitezke; beste horrenbeste esan daiteke *odol-ibai* elkarkez, “ibaiak odola darama” edo “ibaian odola dago” moduan uler daiteke, baina baita “odolez osatutako/egindako ibai” moduan ere. Bestetan, berriz, ‘helburua’ erlazioaren arabera ere uler daitezke elkartuotako batzuk: *umetoki* “umeentzako tokia”... Badira, bestalde, ‘-en gainean, -i buruz’ erlazioaren arabera ere uler daitezkeenak: *bertso-liburu* “bertsoen gainean liburua zertu²⁵”... Hauxe dugu *liburu*, *ipuin*, *bertso*, *kantu*... bezalako mugakizunak ditugunean eta *euskal* mugatzailea dugun beste hainbatetan sor daitezkeen zalantza. Baina esan dugu ‘-en gainean, -i buruz’ erlazio semantikoak ez duela oihartzun handiegirik izan beste hizkuntza batzuetan eginiko sailkapenetan. Horregatik nahiago izan dugu halako erlazio semantikoa bazter utzi eta, zalantzak zalantza eta anbiguotasunak anbiguotasun, adibide guztiak ‘edukia’ erlazioaren azpian ematea: ‘liburuak bertsoak ditu’, ‘ipuinean abereak daude’... moduan ulertuz. Seguru aski, hau da interpretazio gehien onartzen dituen izen elkartu mota, interpretatzeko korapilatsuena dena, ‘edukia’ erlazioa txoil zabala izaki.

Oso erlazio emankorra da, beraz, ‘edukia’; horrek garamatza, hain zuzen ere, arestian aipatu ditugun bi osagaien arteko erlazio-motak zertxobait gehiago sakonduz, hiru azpimultzo egitera.

I.5.4.1 ‘zer-zerk/nork’: Mugakizunak mugatzailea du, mugatzailea mugakizunaren edukia da. ‘jabegoa’ (I.5.2) erlazioaren ifrentzua:

fruitu-aberastasun, bataio-agiri, heriotza-agiri, izen-agiri, nora-agiri, poesia-antologia, euskal arazo, kondaira-arazo, lege-arazo, politika-arazo, kondaira-auzi, substratum-auzi, testu-auzi, paper-bilgo, azukre-bola, kanoi-bateria, urkabe-bertso, bertso-bilduma, kanta-bilduma, turismo-biltzar, politika-borroka, elebitasun-dekretu, jakintza-edesti, maite-eresi, sendakin-familia, kare-harri, denbora-hitz, laudorio-hitz, mendetasun eta zintzotasun-hitz eta agindu, euskal hiztegi, herri-hitz hiztegi, olerki-idazti, kultura-idea, kultura-iritzi, sorgin-istorio, euskal jakintza, etxejaun, maite-kanta, itsas kantu, ongari-kilo, potasa-kilo, euskal kontzientzia, arto-korda, baratxuri-korda, tipula-korda, olerki-kritika, bekatu eta herio lege, hil-mezu, dialektika-mugimendu, literatura-mugimendu, maite-musika, auzi-paper, bertso-paper, olerki-pentagrama, maite-poesia, gaztetasun-seinale, inflazio-teoria, kostu-teoria,

²⁵ Beste aditz egokiagorik ezean, Azkaratek (1990) darabilen hau erabiliko dugu zeinahi gisatako gertaera, jarduera, ekintza... gauzatzea adierazteko.

nazionalismo-teoria, arte-txaraka, proposamen-txosten, jende-uholde, gazur, metal-ur, arkakuso-zama; langile-premia; oro ardura...

Hauetako bat baino gehiago, aditu ditugun moduan ez ezik (“urak burdina du”, “idaztiaren edukia olerkiak dira”...), ‘zer-non’ eran ere uler daitezke: “uretan burdina dago”, “idaztitan olerkiak daude”, esan dugun bezala. Aldi berean ‘gaia’ (I.5.7) ere izan daiteke: *azukre-bola* uler daiteke “azukrea duen bola” nahiz “azukrez egina den bola” moduan; beste horrenbeste esan daiteke *arto-korda* edo *baratxuri-korda* izen elkartuez.

Bestalde, askotxok onartzen dute aditzeko modu bat baino gehiago. Esate baterako, *agiri*, *hitz*... mugakizunak dituztenak, hemengoaz gain, beste era batzuetara ere uler daitezke: ‘iturburua’ (I.5.1) (“bataiotik agiria zertzea”, “egiatik hitza zertzea”) edo, paradoxa dirudien arren, ‘ondorioa’ (I.5.5) (“agiriak bataioa / mendetasuna, zintzotasuna... zertu”, “hitzak egia / mendetasuna, zintzotasuna zertu”)²⁶. Ildo beretik, *arkakuso-zama* gisako elkarteak erraz uler daitezke ‘iturburua’ erlaziopean: “arkakusoez sortzen duten zama”...

Erlazio-mota hau, ‘edukia’, antzeman dugu, bestalde, *jakinduria*, *jakintza* edo *teoria*, *zientzia* mugakizunak dituzten hainbat elkartetan ere: *folklore-jakintza*, *hizkuntza-jakintza*, *ipuin-jakintza*, *itsas jakintza*, *folklore-zientzia*, *inflazio-teoria*... Eta baita *seinale*, *mezu*... mugakizun duten *gaztetasun-seinale* edo *hil-mezu* elkarteetan ere: “seinaleak gaztetasuna adierazten du”, “mezuak hil dela adierazten du” moduan ulertu ditugu. Halaber *arazo*, *auzi* mugakizun dituzten *kondaira-arazo*, *kondaira-auzi*, *lege-arazo*, *politika-arazo*, *substratum-auzi*, etab.

Euskal mugatzaile duten elkarte sorta bat ere badugu ‘edukia’ erlazio semantikoaren adibide: *euskal arazo*, *euskal hiztegi*, *euskal esentzia*, *euskal filologia*, *euskal jakintza*, *euskal kontzientzia*, *euskal mezenas*, *euskal ondasun*... Guztietan literalki hartu dugu *euskal* lehen osagaia ‘euskara’ izen balioan eta ulertu *arazo*, *hiztegi*, *esentzia*, *filologia*, *jakintza*... horien edukia adierazten duela (ikus I.5.1 puntuan *euskal* mugatzailea duten elkarteez esanak).

Osagaien gramatika-kategoriari behatuaz, mugakizun gehienak bizigabeak dira. Mugatzaileak ere halaxe dira. *Euskal* eta *erdal* mugatzaileak dituzten horiek hemen paratu ditugu “mugakizunak euskara / erdara du” ulerkeraren arabera.

Hemen sailkatu ditugu corpuseko *langile-premia* eta *oro-ardura* elkarteak ere, nahiz H-E/3 lanean (H-E/3, II.2.1.1.2: 58-59 / 38-39) aztertutako *jabe* edo *premia* mugakizunek osaturiko egile-elkarte sintetiko soiletatik oso gertu egon. Orduan ere esan genuen *etxe-jabe* edo *ontzi-jabe Eguzki-lore* elkarteetan sailka zitezkeela (H-E/3, 59 / 39); hau da, orain azterkizun ditugun *Behi-esne* motakoetan. Alderantzizko bidea eginez esan dezakegu hemengo *oro-ardura* eta *langile-premia* ere erraz sar daitezkeela hango ‘egile-elkarte sintetiko soiletan’. Zergatik? Onartuko bagenu *ardura* eta *premia* izenek argumentu-egitura dutela²⁷ (Grimshaw 1990) eta egitura hori elkartuaren barrenean ase

²⁶ Bistan da izen-motak berebiziko garrantzia duela, atzera ere: horko *bataio* edo *agiri* gertaera / ekintza izentzat hartzen ditugun... *Bataio* horrela hartzekotan, ‘ariketa’ erlazioan aipatu beharko litzateke.

²⁷ Egia esan, argumentu-egituraduntzat aditzak, preposizioak eta adjektibo batzuk besterik ez dira aipatzen, Azkaratek (2002: 91) jasotzen duen bezala. Alabaina, galdetzekoa da izaera predikatiboa duten hiztegi-sarrerek edo preposizioen pareko gure postposizioek ere ez ote duten argumentu-egiturarik. Ikuspegi honen alde egiten du Artiagoitiak (2011) ere “osagarria hautatzen duten izenak” bereizten dituen eta “osagarriak hiztegian zehazteko gaitasuna bigarren ezaugarri honekin [hots, izaera predikatiboarekin] lotzen da ez bairik gabe, eta esan dezakegu

dezakeela, sintetikoen eremura hurbilduko ginatke. Esan nahi da, ulertuko genuke *ardura*-ren (edo *premia* predikatuaren) argumentua —zehatz esan, barneko argumentua²⁸: ZEREN premia edo ardura den— ezkerreko izenak asetzen duela elkarteetan. Hortaz, arrazoibide honen arabera, funtsezkoena ez litzateke izango ‘egile’ ñabardura horren agerikoa izatea, argumentu-egitura izatea baizik, eta, horren ondorioz, ez legoke zailtasunik *premia* edo *ardura* mugakizunek osatutako bi elkarte horiek ere sintetikoen artean sailkatzeko²⁹. Beste horrenbeste esan daiteke juntagailuz elkartutako mugatzailea duen *ondasun* edo *langile eskasia* elkarteaz (IV.2.1.1).

Mugatzaileen kategoriari dagokionez, berezia da *nora-agiri* izen-elkartea, ez baita ohikoa galdetzaille kategoriako mugatzailea aurkitzea. Badirudi, elkarte itxura izan arren, izen elkartua baino areago perpaus laburtua izan daitekeela azken batean hemen duguna, ‘nora goazen agiria’ edo horrelako zerbait:

“Orain, beribileen ta gu geronen nora-agiriak erakutsi-bearra (HE17: 40)

Bestalde, adibideen artean ikusi ditugu mugatzailezat izen elkartua duten adibideak, *herri-hitz hiztegi*, mugatzaile juntagailuz elkartua dutenak, *bekatu eta herio-lege*, eta baita mugatzailea eta mugakizuna, biak, juntagailuz elkartuak dituztenak ere: *mendetasun eta zintzotasun hitz eta agindu*.

I.5.4.2 ‘zer-non’: Mugakizunean mugatzailea dago. Gero ikusiko dugun ‘lekua’ (I.5.9) erlazioaren atzekoz aurrerako hurrenkerakoak dira.

emazteki-alor, eleder edo literatura alor, euskal arlo, folklore-arlo, jakintza-arlo, uraska, euskal baratze, kultura-barruti, ardo-bonbilla, koinak-botila, alpagata-denda, liburu-denda, ezkil dorre, botoi-errenkada, liberal-errenkada, giza erretratu, apez-etxe, komunista-etxe, telegrafo-etxe, udaletxe, filosofia-fakultate, ardangela, txori-habia, hilerri³⁰, txakur-herri, harrobi, hilobi, telefono-kabina, erle-kaiola, pospolo-kaxa, kaputxino-komentu, xaboi eta lustre kutxa, zurgin-lantegi, eihera-larre, atun-lata, sardina-lata, arrisku-leku, erle-leku, tximista eta trumoi-leku, su-leize, bertso-liburu; erlijio-, arte- eta jakite-liburu, euskal-olerki edo poesi liburu, euskaldun-lur, patata lur, gurutze-mendi, arrain-merkatu, perretxiko-mintegi, kultur mundu, hitzontzi, jostorraz-ontzi, ur bedeinkatu ontzi, zakarrontzi, ogi-otarka, arrain-otzara, tabako-pakete, arto-soro, belar-soro, alkohol-tanke, elur-toki, lore-toki, zerri-toki, sare-txalupa, idi edo behi-uztari, sutondo-xoko, supazter-xoko, burni ta berun-zama, egur-zama, belar-zelai, urun-zorro, begi-zulo, koba-zulo, sator-zulo, sorgin-hagin zulo...

Hau da itxura batean joriena. Mugakizunak bizigabeak dira eta, espero izatekoa den bezala, ‘leku’, ‘toki’, edo ‘alor’, ‘ontzi’... adiera dute askok, nonbait kokatzeko edo zerbait edukitzeko alegia; horrek berak adierazten digu hauetako asko ‘helburua’ (I.5.10) gisara ere uler daitezkeela. Mugatzaileak, berriz, izan daitezke bai bizidunak (“etxean apaiza bizi da”, “komentuan kaputxinoak bizi dira/daude”, “errenkadan liberalak

honetan antzekoak direla, edo izan daitezkeela, izenak eta aditzak”, dioenean. Bi multzo bereizten ditu osagarriak hartzen dituzten izenen artean: erlaziozko izen arruntak eta aditzetik eratorritako izenak. Eta lehen motaren barnean, beste bost sail egiten ditu: a) izen abstraktuak; b) *irudi* izenak (*argazki*, *erretratu*, *irudi*, edo *poema*); c) erlaziozkoak diren beste izen konkretu batzuk (*arerio*, *etsai*, *jabe*, *lagun*, *nagusi*, *zale*); d) senidetasun izenak, eta e) kokapen izenak (*aitzin/gibel*, *aurre/atze*, *azpi/gain*).

²⁸ EGLU-lab. lanaren araberrako terminologia darabilgu.

²⁹ Antzeko zerbait pentsa al daiteke *afari*, *bazkari*... mugakizunak dituztenez? Hau da, horrenbesteko alde ote dago *bildots-afari*-ren eta erabat “ekintza elkarte sintetikatuzat” jo genuen *zikiro-jate*-ren artean? Berriz ere, izen-moten eta hauen ezaugarrien azterketa xehearen premia aldarrikatu beharrean gara.

³⁰ *Hil* mugatzailea duten hitzok ezinbestean izen moduan (“hilen herria”, “hilen hobia”...) ulertu behar ditugu; alegia, bestetan gerta daitekeen aditzoinaren eta izenaren arteko aukerarik hemen ez dago, *Jarleku* motaren araberrako irakurketa zaila (ezinezkoa?) da eta: **“hiltzeko herria, hobia”*, edo **“herrian, hobian hil”*... (Ik. H-E/3: 85-86 / 65-66).

daude”...), bai bizigabeak (“otzaran arrainak daude”, “askan ura dago”...). Eta azken hauen artean, gehienak izen zenbakarriak diren arren, zenbakaitzak ere badaude (*arrisku-leku, kultura barruti...*). Bizidunak direnean, aldizka, ‘jabegoa’ tartean dela ere uler daiteke: “etxeak apaiza barruan du”, nahiz, “apaiza etxearen jabea da”. Edo ‘iturburua’: “liberalek osatzen duten errenkada”...

Erlazio semantikoaren arteko gertutasunaren harira, *mendi-kate, alienatu-ilara, autobus-ilara* edo *arerio-koluna* gisako elkarteak erraz uler daitezke ‘iturburua’ erlaziopean: “alienatuek sortzen/osatzen duten ilara”, “arerioek osatzen duten koluna”...

Balio metaforikoa du *hitzontzi* elkarteak, ez baitu “hitzak sartzeko ontzia”, “hitzak dituen ontzia”... adierazten, baizik “hitz ugari egiten duen pertsona”. Hala ere, atal honetan sailkatu dugu.

Aipamen berezia merezi dute *zulo, txulo* mugakizun duten elkarteek, beste hainbatetan bezala, mugakizun beraz erlazio semantiko desberdinak nola gauza daitezkeen erakusten dutelako. Horietako batzuk ‘edukia’ erlaziopean sailkatu ditugu —*lanperna-zulo, arrain-zulo, begi-zulo, erreka-zulo, hagin-zulo, istinga-zulo, leize-zulo, tunel-zulo...*— Aurrerago aipatuko ditugun *lur-zulo, haitz-zulo...* elkarteek, berriz, justu alderantzizko erlazioa gauzatzen dute: “lurrean, haitzean... zuloa dago” (I.5.9). Beste batzuetan, aldiz, hala nola *sator-zulo, kainonazo-zulo* elkarteetan, ‘iturburu’ (I.5.1) erlazioa ikusi dugu, “satorrek/kainonazoez eginiko zuloa” alegia. ‘Osoa-zatia’ moduan ulertu ditugu *belarri-zulo, ipur zulo, edo sudur-zulo*. Beste batzuk, azkenik, —*elur-zulo, karta-zulo*—, ‘helburua’ sailean kokatuko ditugu: “elurra gordetzeko zuloa, kartentzako zuloa” aditu dugulako³¹ (I.5.10).

Azken ohar bat mugatzaileen osakeraz: hemen ere erraz aurkituko ditugu juntagailuz elkartutako mugatzaileak —*xaboi eta lustre kutxa; erlijio, arte eta jakite-liburu; tximista eta trumoi-leku...*—; aldi berean hitz elkartu direnak, *jostorraz-ontzi*; edo [izen + izenondo³²] osakerako mugatzaileak, *ur bedeinkatu ontzi*.

I.5.4.3 ‘zer-noiz’: Mugakizunaren sasoian mugatzailea dago, egin da... Geroko ‘garaia’ (I.5.8) erlazioaren alderantzizkoa.

errepublika-denbora, gazte-denbora, gerra-denbora, haur-denbora, euri-denboraldi, astegun, atake-egun, barkamen edo pekamen egun, barau-egun, erromeria-egun, eztei-egun, euskal egun, feria-egun, opor-egun, sosegu-epe, alkatetza-garai, krisi-garai, sorgin-batzar garai, ilargi-gau, elur handi goiz, urre-mende, bakardade-memento, haurgintza-momentu, behar-ordu, heriotza-ordu, lan-ordu, negu-parte, borroka-prozesu, arto-urte, elur-urte, ezkur-urte, inflazio-urte...

Mugakizun bizigabeak ‘denbora’ adierazten du era batera edo bestera: *denbora, egun, ordu, sasoi, urte...* Mugatzailea bai biziduna bai bizigabea izan daiteke. Mugakizuna

³¹ *Etxezulo, amazulo* eta gisakoen *zulo* bestelakoa da, adjektiboak eratzen ditu. *Kalezulo, etxezulo* etab. ere bereziak dira: itxura guztien arabera, hor *zulo* ez da elkartuaren mugakizuna, *kalezulo* ez da ‘zuloa’, ‘kalea’ baizik eta bestetik, ñabardura semantikoak besterik ez bide dizkio eransten ezkerreko osagaiari, dela gutxiespenekoa, dela adierazkortasuna, atzizki handigile-txikigileek egiten duten gisara.

³² Hainbat gramatika, hiztegi eta ikerlanetan (HE/1, HE/3, HE/4 lanetan, Hiztegi Batuan, EGLU-lab.-ean, Ibon Sarasolaren hiztegietan...), *izenondo* terminoa erabili izan da eta erabiltzen da izenaren eskuinean kokalekua duen adjektiboa izendatzeko. Ez dute, baina, ikertzaila guztiak egoki ikusten kategoria izendatzeko *izenondo* erabiltzea (ik. Artiagoitia (2002), Sareko Euskal Gramatikan “[Adjektiboa, izenondoa, izenlaguna](#)”). Guk hemen kategoria izendatzeko *adjektibo* erabiliko dugu eta izenondo terminoari eutsiko diogu adjektiboaren kokalekuaz ari garenean batik bat.

‘denbora’ adierakoa izanik, ‘ariketa’, ‘jarduna’ adierako mugatzaileek osatzen dituzten elkarteak beste erlazio semantiko baten pean aztertuko ditugu (I.5.11).

Bestalde, berriz, *saio* mugakizuna dutenak ‘gaia’ harremanaren bitartez ere azal daitezke: “bertsoez saioa zertu”, “dantza eta kantaz saioa zertu”... Mugatzaile bereko *bertso-despita* eta *bertso-festa*, berriz, ‘baliabidea’

Aurrekoetan bezala, hemen ere ez zaigu falta bi osagaitik gorako elkarerik: *sorgin-batzar garai*, *aizkora-joko egun*, *euskal pizkunde egun*, *karlista gerra denbora*; *barkamen edo pekamen egun*, *mehe eta baraur egun*...

I.5.5. ‘ondorioa’

Nolabait esan, lehen azertu dugun ‘iturburuaren’ (I.5.1) ifrentzua da. Alegia, ezkerreko osagaiak orain eskuinekoaren ondorioa edo emaitza adierazten du: *esne-behi* da adibide paradigmaticoa. ‘edukia’ harremana ere suma daiteke hainbat adibidetan; mugakizunak mugatzailea sorrarazi, egin... badu, sortu duen hori bere edukia izan daiteke. Esate baterako *fabrika*, *industria*, *ola* mugakizunak ditugunean, *oihal-fabrika* bada, fabrikaren badago oihala. Bestalde, maiz, ‘helburua’ (I.5.10) erlazioa ere adi daiteke osagaien artean: *argi-zuzi*: “zuziak argia ematen du” / “zuzia argia emateko da”, *irin-fabrika* “fabrikak irina egiten du”, “fabrika irina egiteko da”... Izan ere, fabrika irina egiteko bada (‘helburua’), normala izango da fabrikaren irina egitea eta, beraz, hein batean, fabrikaren ‘emaitza’ irina izatea.

samin-agur, beldur-amets, olio-aran, fruitu-arbola, intxaur-arbola, sagar-arbola³³, musika-banda, soinu-banda, esne-behi, amodio-belar, umore-bertso, sagardo-dolare, elur-ekaitz, esperantza-ele, barre-erreturatu, indar-etxe, kukurruku-eztul, irin-fabrika, kartutxo-fabrika, kontadore-fabrika, oihala-fabrika, porlan-fabrika, irri-gizon, zeta-har, argi-harri, arbi-hazi, arto-hazi, liho-hazi, maitasun-hazi, hileta-hots, zezin-idi, argi-indar, elektrika-indarrola, petrolio-industria, amodio-iturri, argi-iturri, esne-iturri, gaitz-iturri, jakinduria-iturri, poz eta negar-iturri, txakolin-iturri, artizar, esklabo-izpiritu, herio-kolpe, literatur kreazio, trumoi-laino, ur-laino, burdin meatze, su-mendi, bizi-odol, burdinola, indar-ola, justizia-palazio, euri-seinale, indar-su, argi-zuzi...

Merezi du bereiz aipatzea hemen sailkatu dugun *kukurruku-eztul* elkarte (euskaraz *zakur-eztul* ere esaten zaiona); eztul egitean *kukurruku* moduko bat egiten dela ulertzen badugu, ‘emaitza’ izango da bi osagaien arteko erlazioa. *Esklabo-izpiritu* elkarteari dagokionez, berriz, testuinguruak laguntzen digu “esklabo izatera garamatzen izpiritu” moduan ulertzen:

“Esklabo izpiritua erran nai baita esklabotzen duen izpiritua” (EJ71: 32)

Bestalde, hemen sailkatu dugu *hileta-hots* ere, honela ulertu dugulako: “hotsak hileta izango dela adierazten du”³⁴; nahiz eta beste testuinguru batzuetan bestelako interpretazioa izan dezakeen, adibidez ‘iturburua’: “hiletak sortzen duen hotsa”, ikusi ditugun beste *hots* batzuen gisa.

³³ *Arbola*, *landare*, *zuhaitz* mugakizunak dituztenak sumpsumtiboetan ere aipatuko ditugu. (II.6), Euskaltzaindiak eginiko sailkapenari jarraiki (H-E/4: 11.2.3). Baina, dagokion atalean esango dugun bezala, bi osagaien artean hiponimia erlazioaz bestelakoa izateak zilegi egiten du *sagar* eta *arbola* edo *porru* eta *landare* izenen artean bestelako erlazio semantikoak atzematea.

³⁴ “Maiz entzuten dira gure artean hileta-hotsak; badirudi udazkeneko hotzikara sentitzen dugula gorputzean” (HE27, 304).

Mugakizunak bizigabeak dira (*irri-gizon* “irria sorrarazten duen gizona”, “bufoia” eta *esne-behi* kenduta) eta mugatzaileak ere bizigabeak izan ohi dira³⁵.

Bi osagaitik gorako elkarteak ere baditugu, nahiz beste erlazio semantiko batzuetan bezain ugariak ez izan: *poz eta negar-iturri*, *sagardo-dolare*...

I.5.6. ‘baliabidea’

Eskuineko osagaia zerez baliatuta, zein baliabidez ‘zertzen’ den adierazten du ezkerrekoak.

esku-aldaba, ahari-apustu, idi-apustu, lastargi, amuarrain, olio-argi, batel-arrain, esku-arrantza, esku-bonba, ezpata-dantza, gona-dantza, danbolin-dantza, bertso-despita, haize-errota, esku-eskailera, aho-euskara, bertso-festa, idi-gurdi, zalgurdi, eskutitz, aho-hizkera, esku-idazki, arraun-ingar, aizkora-joko, hitz-joko, karta-joko, pilota-jolas, begi-keinu, aitzur-kolpe, burrunzali-kolpe, ezten-kolpe, diru-laguntza, buru-lan³⁶, eskulan, belar-sega lan, lurrin-makina, haize-oihal, bertso-saio, dantza-saio, ingar-saioesku-tresna, ganadu-txapelketa, txakolin-txapelketa, aizkora-ukaldi, alkabuz-ukaldi...

Mugakizunak: bizigabeak, ia guztiak. Horietako asko mugimendu bortitzekin, kolpeekin zerikusia dutenak; halakoetan mugatzaileak kolpe edo mugimendu bortitz hori zerez egin den adierazten du garbi. Beste batzuek ‘joko’arekin dute zerikusia —*apustu, joko*— edo baliabide batez baino gehiagoz egin daitezkeen *dantza, partida*, eta abarrekin.

Mugatzaileak: gehienak bizigabeak, baina bizidunik ere bada, animalia-izenak batez ere: *ahari-apustu, idi-apustu* edo *ganadu-txapelketa*, ahariak, idiak edo ganadua baitira apusturako edo txapalketarako baliabideak (horrela ulertu dugu, behintzat). Kasuren batean edo bestean (*haize-oihal, haize-errota, lurrin-makina*) bizigabeak izanik ere, nolabaiteko mugimendua eragin dezaketela sumatzen dugu. Hauek guztiak ‘egilea’ erlaziotik gertu egon daitezke. Badira maiz ageri diren mugatzaileak, hala nola *esku, begi, mailu, pilota*... goraxeago aipatu ditugun mugakizun-klaseekin erraz elkar daitezkeenak ‘baliabidea’ erlazioa adierazteko.

Euskal, erdal mugatzaileak dituzten hainbatek ere hemen sartzekoak dirudite, “euskaraz / erdaraz baliatuz dena delakoa zertu” ulertuta. Mugakizunak bai bizidunak bai bizigabeak izan daitezke:

euskal agerbide, euskal aldizkari, euskal artikulua, euskal autore, euskal bertso, euskal editorial, euskal egunkari, euskal egutegi, Euskal Herria, erdal idazle, euskal idazle, euskal ikastola, euskal intelektual, euskal ipuin, erdal irakasle, erdal itzulpen, euskal izen, euskal kultura, euskal liburu, euskal liburugintza, euskal literatura, erdal olerki, euskal olerki, euskal saio, erdal testu, euskal testu...

I.5.7. ‘gaia’

Ezkerreko osagaiak adierazten du eskuinekoa zertaz, zein gaiz egiten den.

kimika-abono, mahats-ardo, sagardo, zimitz-armazoi, odol-bafada, su-bola, haize-bolada, urre-botoi, berun-ezkur, zur-ezpata, egur-gabila, marfil-gaztelu, burdin haga, kare-haitz, burni-hari, harresi, malko-ihintz, elur-izara, arto-jaki, esne-jaki, landare-janari, luma-jantzi, euri-jasa, argizari-kandela, izotz-kapa, odol-kolpe, diru-kopuru, magurio-krema, bakailao-kroketa, burdina-kutxa, algodoi-laino, hondar-mahai, harmaila, zur-mailu, elur-maindire, lizar-makila, mizpira-makila, elur-maluta, gerezi-marmelada, mertxika-marmelada, hodei-muilo, belar-olatu, lurrontzi, zur-ontzi, arto-opil,

³⁵ Corpusean ez zegoen Koldo Mitxelena *txoro-fabrika* bitxia da alde horretatik, mugatzailea biziduna baita: “Zinema amets-fabrika izan daiteke, norbaitek deitu zuenez, baina ez du horrek esan nahi, nik uste, txoro-fabrika izan behar duenik nahitaez”. (Mitxelena 1957: 172).

³⁶ *Lan* mugakizunaz eratuak “Sumpsumtive” motan aztertuko ditugu. (II.6).

aran-pattar, tela-pieza, hari-pilota, paper-plama, tabako-razio, baba-salda, oilo-salda, otarrain-salda, porrusalda, ahate-saltsa, intxaur-saltsa, piper-saltsa, burdin sare, ile-trentza, esperantza-uhin, burdin uztai, egur-zama, elur-zaparrada, kaka-zipriztin, burni-ziri, egur-ziri, su-ziri, berakatz-zopa, baratzuri-zopa, oilo-zopa, hartzubi, arrain-zuku, haize-zurrunbilo...

Hauetako asko arestian aipatutako ‘edukia’ (I.5.4) erlazioaren arabera ere uler daitezke: *diru-kopuru*, *egur-gabila* edo *egur-zama* uler daitezke, hemen egin bezala, “diruz osatutako kopuru”, “egurrez osatutako gabila” moduan, baina baita “kopuruak dirua du”, “kopuruan dirua dago”, “zamak egurra du”, “zaman egurra dago” gisa. Beste horrenbeste esan daiteke eguraldiarekin, naturarekin zerikusia duten mugatzaileek osatzen dituzten elkarteetan: *euri-jasa*, *elur-zaparrada*, *haize-bolada*, *haize-zurrunbilo*, *hodei-muilo*, *olatu-bolada*... Erraz uler daiteke bi osagaien artean ‘edukia’ erlazioa dagoela. Beste batzuk, berriz, ‘iturburua’ erlaziopean (I.5.1) ere sailka zitezkeen: “garagarretik ardoa zertu”, “lizarretik/mizpiratik makila zertu”... Benetako ‘gaia’ ez izan arren, metaforikoa baizik, hemen sailkatu ditugu *dirditz-uztai* eta *urre-eztei* ere. *Gezur* mugatzailea duten *gezur-ardo*, *gezur-aska*, *gezur-lili*, *gezur-min* edo *gezur-ile* ere hemen sailkatu ditugu “gezurrezko ardoa”, “gezurrezko aska” adierazten dutelako (benetakoa ez dela, alegia) eta, alegiazko balioan izanik ere, *burdin barra* “burdinezko barra”-ren parekotzat hartu ditugulako.

Mugakizunak bizigabeak eta konkretuak dira. Mugatzaileak ere, oro har, hala dira. *Bakailao*, *otarrain*, *arrain*... bizidunak izan arren, halako elkarteetan doazenean hiztunak janarizat eta ez animaliatzat hartzen dituelakoan gaude.

Azkaratek (1990: 254) azpimarratzen du denek ez dutela parafraasi-mota bera onartzen: *suzko bola*, *burdinazko uztaia*, *harrizko hesia* bai, baina **porruzko salda*, **baratzurizko zopa* edo **ahatezko saltsa* modukorik ez dugu egiten. Deigarria da parafrasia onartzen ez dutenak janarien alorrekoak izatea.

I.5.8. ‘garaia’

Zabal esanda, mugakizuna noiz gertatzen, “zertzen” den, zein garaitan, adierazten du mugatzaileak.

bijilia-afari, Gabon-afari, bedats-aire³⁷, gau-amets, Erdi Aro, udaberri-arrosa, arratsalde-askari, eztei-bazkari, jai-bazkari, bukaera-bertso, Pazko-bildots, arrats-dei, uda-egun, Gabon-enbor, Olentzero-enbor, hileta-eresi, gau-eskola, uda-euri, argi-ezkila, ilun-ezkila, gari-eztei, bataio-festa, negu-gau, Mendekoste-gerezi, goiz-haize, sarrera-hitz, uda-ikastaro, gau-itzal, Korpus-jai, su-kanpai, gabon-kanta, gau-klub, uda-lore, goiz-meza, argi-oilar, hileta-ospakizun, Gabon-sari, urte-sari, jai-soineko, Donibane-su, San Joan su, gautxori, negu-udare, udaberri-uhin...

Mugakizunak bizigabeak dira, balio metaforikoa duen *gautxori* izan ezik.

Mugatzaileak: izen bizigabeak dira guztiak, *Olentzero*, *San Joan*, *Donibane* ez baititugu hor biziduntzat hartzen, urte-saso baten adierazletzat baizik. Arruntak dira gehienak, baina bereziak ere baditugu: aipatu berri ditugunak, besteak beste.

Esanahiari dagokionez, mugatzaile askotan ikus dezakegu ‘denbora’, ‘une’ adiera: halakoak dira *negu*, *gau*, *goiz*, *urte*, *arrats*... Beste batzuetan mugatzaileak berez halakorik ez izan arren, “mugatzaileak adierazten duena gertatzen denean” moduan ulertzen dugu

³⁷ Hau benetako ‘airea’ da, ez ‘antza’. Bestelakoaz “Konparazio- eta irizpen-elkartek” atalean ariko gara. (II.5).

mugakizunari ematen dion xehetasuna: *gari-eztei* “garia biltzean egiten den ezteia” izango da; *su-kanpai* “sua denean jotzen den kanpaia”; *komunio-soineko* “komunioa egitean janzen den soinekoa”, etab.

Batzuetan, ‘garaia’ erlazioak ez ezik, beste erlazio batzuek ere azal ditzakete hemengo hainbat izen-elkarte: ‘helburua’ (I.5.10), *meza-liburua* “mezetan erabiltzeko liburua”, *su-kanpai* “sua dela adierazteko kanpaia”, *komunio-soineko* “komunioa egiteko soinekoa”; ‘ariketa’ (I.5.11), *ezkontza-kantu* “ezkontzean kantua zertu”... Hau gertatzen da batez ere mugatzaileak berak nolabaiteko jarduna, ekintza, gertaera... adierazten duenean.

Egia da ez direla ‘garaia’ adierazten duten izen bakarrak, hortxe ditugu, urrutirago gabe, *arrats*, *arratsalde*, *egun*, *gau*, *goiz*... lehen ikusi ditugunak, baina, batez ere ‘edukia’ erlazioan ‘zer-noiz’ (I.5.4.2) —*feria-eguna* “egun horretan feria izaten da”— edo ‘osoa-zatia’ erlazioan³⁸ (I.5.3) —*jai-arratsaldea* bada ‘jai’ osoaren atal edo zati bat— ulertzeko modukoak bide ziren. Oraingoak nekez uler daitezke horien modura.

I.5.9. ‘lekua’

Hemen, berriz, non, zein tokitan ‘zertzen’ den mugakizuna adierazten du mugatzaileak.

etxe-abere, Ipar-Afrika, artxibo-agiri, herri-aguazil, mendi-ahuntz, mendi-aieka, korta-aitzur, Hego-Amerika, Ipar-Amerika, itsas anaia, muga-ate, itsas bainu, infernu-batzar, baserri-bazkari, baso ta solo behar, uztar-behi, erdibide, kokots-bizar, baserri-bizitza, familia-bizitza, itsas bizitza, itsas borroka, kale-borroka, esku-burdina, bizkai dantza, gizarte-erlazio, horma-erloju, mendi-ermita, auzo-eskola, herri-eskola, ezker-esku, iturretze, kale-etxe, landetxe, mendi-etxe, mandeuli, Hego-Euskadi, bizkai euskara, gipuzko euskara, plaza-festa, izkribu-fetxa, herri-gaztedi, eliz gela, mundu-gudu, mendi-gurutze, matrail-hagin, eskuin-hanka, mugarri, sepultura-harri, itsas herri, itzal-herri, kosta-herri, mundu-herri, liturgia-hitz, atzerri-hizkuntza, estatu-hizkuntza, eliz hobi, harri-idazki, herri-idi, uztar-idi, lepo-ile, itsas indar, ate-ispilu, Hego-itsaso, Ipar-itsaso, kale-janzkera eta ohitura, itsas jeneral, kale-jira, eliz kanta, eliz kantari, auzo-katu, fabrika-langile, basa lapur, herri-lapur, itsas lapur, mendi-lapur, itsas lapurreta, mahai-leku, eliz liburu, hilerri-lili, korta-lohi, eliz lur, eliz mahai, eskola-maisu, landa-maisu, ontzi-maisu, esku-makila, mendi-malkar, ate-morro, eskumuin, bide-muino, ipar-Nafarroa, itsas neska, etxe-oihal, itsas oihal, itsasontzi, ur-ontzi, eliz otoitz, udal-otsein, lur-paradis, eliz petril, lepo-soka, ontzi-soka, etxe-tresna, mendi-txabola, ur-txakur, buru-txapel, ibai-ur, itsas ur, zingira-ur, baserri-zakur, baso-zelai, sabel-zorri, baso-zuhaitz, oihan-zuhaitz, haitz-zulo, harkaitz-zulo, lur-zulo...

Adibide ugari ditu erlazio honek, nahiz batzuek aipamen berezia merezi duten, adibidez *mintzaira-ohitura* izenak (“mintzairen artean dauden ohiturak” adieran ulertu duguna) eta esanahi ihartua duen *plazagizon* elkarteak, azken hau ez baita “plazan aritzen den gizona” besterik gabe, baizik EHk ematen duen definizioa aintzat hartuaz, “jendaurrean edo jendartean askotan aritzen eta trebeki moldatzen den gizonezkoa”.

Mugakizunak era guztietakoak dira: bizidunak, bizigabeak, konkretuak (gehienak), abstraktuak... Mugatzaileei dagokienez, espero izatekoa den bezala, asko dira berez ‘lekua’ adierazten duten izenak. Guztiak bizigabeak, *mandeuli* izen-elkarteko *mando* izan ezik; “mandoen inguruan dabilen euli” moduan ulertu dugulako hemen sailkatu duguna.

Osagaien arteko erlazioa semantikoari dagokionez, ‘jabegoa’ (I.5.2) erlazioan aipatu ditugun batzuk hemen ere koka daitezke, esana dugun bezala: *eliz artxibo*, *gizarte-bizitza*... “elizan artxiboa dago”, “bizitza gizartean egiten da”... hartuta. Eta, alderantziz, hemen sartu

³⁸ Honenbestez ez dugu esan nahi erlazioa beti bi hauetako bat denik. Esate baterako, *San Joan eguna*, *Gabon gaua* aposiziotzat joko genituzke.

ditugunetako bat baino gehiago —*etxe-tresna, eliz liburu, eskuburdina...*— ‘helburua, zertakoa’ erlaziopean ere sailka zitezkeen.

Basa mugatzailea ‘lekua’ adieran hartu dugu beti; alegia, jatorrizko adieran mugakizunari ‘non/nongo’ zehaztapena ematen diola ulertu dugu, eta berdin egin dugu *larre* mugatzailea duten *larre-behi, larre-behor, larre-elorri* edo *larre-zerri* elkarteekin ere. *Mugarri, muga-ate* (‘aduana’), berriz, “mugan dagoen harria, atea” aditzeko moduaren ondoan, “atea / harria muga da” atribuziozkotzat ere jo daitezke. Bestetan ere badugun (*lepo-soka*: “lepoan jartzeko, leporako soka”...) ‘helburua’ (I.5.10) erlazioaren arabera ere bai: “muga egiteko harria / atea”...

‘egilea’ eta ‘ekintza’ adierako *lapur, lapurreta* mugakizuna duten arestiko adibideok (*basa lapur, herri lapur... itsas lapurreta*), berriz, hemen dira kokatzekoak eta ez elkartu sintetikoen artean (HE/3, II), ezkerreko osagaia ez baita eskuinekoaren osagarri —ez du zehazten zer lapurtzen duten (lapurrak ez du basoa, herria... lapurtzen)—, modifikatzaile baizik, non gertatzen den dena delakoa adierazten du. Honek guztiak berriz ere agerian jartzen digu hitz elkartuen interpretazioa ez dela beti-batekoa.

‘Lekua’ erlaziopean sailkatu ditugun *amets-herri* eta *amets-amore* izenek badute, hein batean, ‘gaia’ (I.5.7) erlazioa aztertzean aipatu ditugun *gezur* mugatzaileaz osatutako *gezur-aska, gezur-ardo* edo *gezur-min* elkarteetan antzik: azken hauek “gezurrezko aska/min/ardo...” gisa ulertzen ditugu eta lehenak, berriz, “ametzeko herri edo ametzeko amore”, “ametzetan ageri zaizkigun herri/amore” moduan. Alegiazkoak dira batzuek eta besteak, ez egiazko ‘gaiak’ edo ‘lekuak’.

Bereiz aipatzekoak dira izen bereziak eta puntu kardinalak adierazten dituzten mugatzaileak. *Bizkai-dantza, gipuzko euskara, bizkai euskara, Huitzi-haur* aski bazterreko adibideak (garai jakin batekoak eta autore gutxirenak) besterik ez ditugu. “Bizkaian egiten den dantza, euskara” edo “Gipuzkoan egiten den euskara” ulertu dugulako kokatu ditugu hemen. *Ipar Afrika, Hego Amerika...* bestelakoak dirudite: ez dakigu noraino den egokia “iparrean / hegoan dagoen Afrika, Amerika...” (‘lekua’ erlazioak eskatuko lukeena, hain zuzen ere) ulertzeko modua; “Afrikaren iparra, Amerikaren hegoa...” adieratik gertuago dagoela dirudi.

Aipamen berezia egin diegu *zulo/xulo* eta *zoko/xoko* mugakizun dituzten elkartei I.5.4.2 puntuan, eta han esan dugu horietako batzuetan ‘lekua’ erlazioa antzeman zitekeela:

ate-xoko, ate-zulo, buru-zulo, denda-zoko, esku-zulo, etxe-xoko, etxe-zoko, etxe-zulo, ezpain-xoko, ganbara-txoko, haitz-zulo, harkaitz-zulo, harri-zulo, horma-zulo, kafe-zulo, kaiola-zoko, kale-zulo, koartel-zulo, labe-zulo, leiho-zulo, lur-zulo, meazulo, mendi-xoko, mendi-zoko, mendi-zulo, ostatu-xoko, paper-zoko, pareta-xoko, taberna-zulo, teilatu-zulo, ukuilu-txoko, ukuil-zoko...

Guztiak ‘lekua’ erlaziopean sailkatu ditugun arren, eta, beraz, “buruan, atean, dendan, eskuan, horman, kalean, labean, leihoan... dagoen zulo/zoko” interpretazio orokorra eman diegun arren, aski dugu OEHra jotzea jabetzeko ñabardura bat baino gehiago dutela mugakizun horiek. ‘Irekidura’, ‘sakonunea’ da *zulo* izenaren oinarriko adiera, hemengo adibideetan ikus dezakeguna; adiera bereko mugakizuna duten beste elkarte asko, berriz, ‘gaia’ erlazioan aztertu ditugu (I.5.4.2), eta bakar batzuk ‘helburua’ (I.5.10) erlazioan ere aurkituko ditugu. ‘Zenbait animalien babesleku edo gordeleku’ adierako *zulo* mugakizuna duten elkarteak ‘gaia’ erlazioan eta ‘iturburu’ erlazioan ikusi ditugu. Bada, ordea, beste adiera bat *kale-zulo, kuartel-zulo* edo *kafe-zulo* adibideetan ageri dena eta OEHk horrela definitzen

duena: “(Ref. a una habitación o estancia subterránea u oculta, a un cuarto o lugar pequeño y oscuro o en malas condiciones, a una vivienda de un pueblo o ciudad en contraposición a la situada en la montaña; tbn. como segundo miembro de compuestos, añadiendo un matiz peyorativo al lugar referido). “Empléase también esta voz en el sentido de “rincón”. Horrelakoetan “kalea zuloa da”, “kafea zuloa da”, atributu elkartzat (**H-E/3, IX.1: 99 / 79**) ere har daitezkeela dirudi **I.5.4.2** puntuan esan dugun bezala *kalezuloa* ez da ‘zuloa’, ‘kalea’ baizik, ustezko mugakizunak ñabardura semantikoak eransten baitizkio ezkerreko osagaiari. Horixe du eginkizun bakarra.

I.5.10. ‘helburua’, ‘norentzakoa’, ‘onuraduna’

Zertarako, norako, norentzat... den mugakizuna adierazten du mugatzaileak. Adibide asko eta asko ditu erlazio honek. Lehenik eta behin atal honetakoak beste izen elkartu mota batekin lotu behar ditugu, *Jarleku* motakoekin (**H-E/3, XI.: 83-94 / 63-74**), hain zuzen; izan ere, mota hau, azken batean, *Eguzki-lore* motaren azpisail bat da, mendekotasunezko izen elkartuak dira: ezkerreko osagaiaren, mugatzailearen kategorian datza aldea, haiek “aditzoina + izena” modukoak izaki. Lotura hemen egiteko arrazoia honakoan datza:

Bi osagaien arteko erlazio semantikoari dagokionez, ‘xede’, ‘zertakoa’ adierazten du mugatzaileak adibide gehienetan, izen mugakizuna ‘zertako’ den alegia. (**H-E/3: 86 / 66**).

Lotura hau are eta argiagoa gertatuko da mugatzailearen kategoria dudakoa duten hainbat adibidetan; esan nahi da mugatzailea bai izentzat bai aditz eratorriaren ointzat edo aditz-esapidearen osagaia den izentzat har daitekeenetan (**H-E/3: 84-85 / 64-65**). Har dezagun *barre-aldizkari*: “aldizkaria barrea sortzeko da” ulertuta ere, duda egin daiteke mugatzailea *barre* izen hutsa den edo *barre egin / eragin* aditz-esapidearen osagaia. Bestalde, mugatzaileak (aditzetik eratorritako) ekintza-izenak (“izenkiak”, **H-E/3: 86 / 66**) dituztenek bereiz aipatzekoak dirudite, ikusiko dugun bezala.

herri-agindu³⁹, barre-aldizkari, itsasargi, lan-arau, ortografia-arau, frailedi-arau, herri-araudi, bazka-arbi, gudu-arma, bazka-arto, ohe-atorra, ziri-bertso, mendi-bota, turismo-bulego, su-burdina, talo-burdina, borroka-dei, irrada-dei, meza-dei, otoitz-dei, oturuntz-dei, meza-diru, mozkor-diru, kristau-doktrina, jainko-edari, korrale-egur, su-egur, borroka-ele, eskapu-entsegu, diru-erakunde, giza eredu, bazka-erremolatxa, eliz erropa, haur-eskola, irakasle-prestakuntza eskola, auzi-etxe, ejerzizio-etxe, kultura-euskara, batzar-gela, zinema-gidoi, komentu-giltza, oinaze-gogo, herio-gorputz, iraultza-gudu, irrati-hari, bataio-harri, proba-harri, txiskero-harri, sudur-hauts, esker-hitz, jakintza-hizkuntza, kultura-hizkuntza, borroka-indar, haur-ipu, giza irakaspen, bakardade-irrits, emazte-irrits, zorion-irrits, iraultza-itxaropen, lohasma-izpiritu, sabel-jai, azeri-janari, ohe-jantzi, erdal joera, eliz kale, propaganda-kanpaina, haur-kanta, dantza-kantu, txibia-korain, haur-kotxe, bidaia-kutxa, jantzi-kutxa, bizar-labana, bazka-landare, eskularru, kristau-lege, mendeku-lehia, bakantza-leku, behar-leku, bola-leku, dantza-leku, ehiza-leku, gau-leku, pasiera-leku, esku-liburu, behar-mahai, barau-ohitura, oin-ohol, talo-ohol, idun-oihal, pixa-oihal, ziri-olerki, guda-ontzi, koktel-ontzi, loreontzi, errege-opil, dantza-orkestra, galtzorratz, moko-painelu, bokadillo-paper, Santio-pelegrin, bataio-ponte, estatutu-proiektu, dantza-soka, batzar-toki, behar-toki, kultura-tresna, sukalde-tresna, ehiza-txakur, eper-zakur, erbi-zakur⁴⁰, eskuzapi, haur-zapi, hauts-zapi, musuzapi, sudur-zapi, jainko-zerbitzu, diru-zorro, oin-zorro, elur-zulo, karta-zulo...

Mugakizunak eta mugatzaileak bizigabeak dira batez ere. Nolanahi ere, erlazio semantikoari dagokionez, hemen jaso ditugun batzuk beste erlazio batzuetan ere aipatu ditugu: ‘edukia’ (**I.5.4.2**) —*ontzi, kaiola, kaxa...* mugakizun dituzten elkarteak, hala nola

³⁹ *Herri* mugatzailea dutenek ‘iturburua’ edo ‘egilea’ aditzeko moduak ere onartzen dituzte: “herriagandik agindua, araudia... etorri”, “herriak egin agindua, araudia...”; nola ulertzen den delako *herriaren* eginkizuna.

⁴⁰ *Txakur, zakur* mugakizuna dutenak “Sumpsumtive” motakoetan ere aipatu beharko ditugu (**II.6**).

poxpolo-kaxa, kafe-taza, erle-kaiola, edo *hautsontzi*, “ontzian, kaiolan, kaxa... poxpoloak, kafea, erleak... egon/gorde...” adieran hartu ditugu, baina izan daitezke “kafea hartzeko, erleentzako, hautsontzako... ontzi, kaiola edo kaxa” ere—, ‘ondorioa’ (I.5.5) —ikus, esaterako, *irin-fabrika* dela eta han esanak—, ‘lekua’ (I.5.9) —*literatur euskara* har daiteke “literaturan erabiltzen den euskara” moduan, baina baita “literaturarako den euskara” moduan ere—, ‘ariketa’ (I.5.11) —erlazio semantiko horren pean sailkatu ditugun guztiek onartzen dute, praktikan, ‘helburu’ irakurketa ere—... Bestalde, Azkarateren (1990) irizpideari jarraituz, ‘zertako’ baino areago ‘nora’, ‘jomuga’ adieraren arabera interpretatzekoak bide diren: *eliz kale, Santio pelegrin*⁴¹... bezalakoak ere hona ekarri ditugu.

Mugakizuna *irritis* dutenek (*bakardade-irritis, emazte-irritis, zorion-irritis*) beste ulertzeko modu bat ere onartzen dute; ‘iturburua’ edo ‘kausa’, alegia: “bakardadeak, emazteek, zorionak... sortzen du irritsa”.

Har ditzagun orain lehen ahotan hartu ditugun “aditzetik eratorritako izena + izena” eraikuntzakoak, eta ekar dezagun abiatzeko 1991n genioena (H-E/3: 86 / 66):

Hau da, euskaraz ‘aditzoina + izena’ erabiltzen den askotan, espainieraz ‘izena +preposizioa + izenkia’⁴² (aditzetik eratorritako izena) ageri da. Hor ditugu, urrutirago gabe, gure adibidetegiko *itzul lan* eta *trabajo de traducción*, eta badirudi euskaraz azken urteotan, espainieraren eraginez seguruenik, ‘izenkia + izena’ egiturak ugaltzen ari zaizkigula; areago orain arteko *jaiotegun* edo *jaioterri* baztertu eta *jaiotze-data, jaiotze-leku* bezalakoak ikustea ez da zailegia.

Agerian jarri nahi izan genuen orduan neurrigabeko ugaltzea eta honek dakarrena, alegia, alde zurretik bagenituen hitzak zokoratzea eta bizirik dagoen baliabide lexikoa atzentzea (edo atzentzeko arriskua). Baina zer dago kezka horren azpian?

Itxura guztien arabera, bi eraikuntza morfologiko mota ditu aukeran euskal hiztunak orain hizketagai ditugunen gisako mendekotasunezko izen elkartuak eratzeko, batez ere ‘helburua’ erlazio semantikoa tartean denean: “aditzoina + izena” eta “aditzetik eratorritako izena + izena”. Baina, guztiz baliokideak al dira?⁴³ Esan nahi da, hiztuna erabat aske al da bide batetik nahiz bestetik jotzeko? Aukera honetan ere murriztapenez hitz egin behar al da?

Lehenik eta behin argi dezagun liskarrean dauden motak ez dihoazkiela aditzetatik eratorritako izen guztiei; ‘ekintza’ adiera dutenei besterik ez dagokie, adiera hauxe baita, azken batean, aditzen adieratik hurbilen dagoena. Alegia, aditzetik eratorritako beste adiera batzuetako izenak (‘egilea’ adierakoak, esate baterako), beste *Eguzki-lore* arruntak bezalaxe aztertzeak dira. Horrek esan nahi du batez ere *-(z)e, -tza, -(k)eta, -kuntza, -pen/-men, -era*... atzizkiez eratorritako izenei dihoazkiela hemengo auzia⁴⁴.

Zehatz esan: gaurko euskal hiztunarentzat *erakustareto* eta *erakusketa-areto* edo *ikerketa-lan* eta *ikerlan*... aski parekoak, baliokideak bide dira. Honenbestez, mugatu dugun barruti honetara iritsita, badirudi esan daitekeela, oro har, hiztunak mota batera zein bestera jo

⁴¹ *Bide* mugakizuna duten gehienak ere modu berean hartuko ditugu (II.7.2.2).

⁴² Ez dakigu “aditzetik eratorritako izenak” izendatzeko *izenki* terminoa egokiena den, kontuan hartuta *Euskal Gramatika laburrean*, esate baterako, beste hizkuntza-zer batzuk izendatzeko erabiltzen dela. *Aditz-izen* ere erabili izan da, baina hau ere ez da guztiz zehatza. Beste hizkuntzetako *nominalizazioa* da hemen tarteko; aditzetik eratorritako ‘ekintza / ondorioa’ adierako izenak, alegia.

⁴³ Galdera honi erantzuteko saioa da hemen oinarri hartu dugun Azkarate; Olarte (1991) lana.

⁴⁴ Eratorbideari buruzko lanean poliki aztertzeak lirerate atzizki hauen arteko aldeak eta berezitasunak. Nolanahi dela ere, atzizki berak adiera edo ñabardura bat baino gehiago izan dezakeela gogoan hartuz, zehatz dezagun hemen ‘ekintza’ hartzen ari garela.

dezakeela. Baina, hori horrela izanik ere, honen ondoan esan behar da gure corpus osoa begiratuta bat ohartzen dela XX. mendea arteko testuetan askoz ugariagoak direla *Jarleku* motakoak “aditzetik eratorritako izena + izena” motakoak baino. Hemendik ateratzen dugun ondorioa da hiztunak *Jarleku* mota beti aukeran duela eta izen elkartua eratzera doanean mota horretara joko duela batez ere. Hartara, argitu behar da berez eskura sumatzen duen baliabide horrek mugarik ba ote duen.

Has gaitezen “ekintza-izenak” aztertzen: Guztiak gisa berekoak al dira? Zer daukagu gure corpusean? Lehen begiratuan ikus dezakegu badagoela nolabaiteko sailkapena egitea alde batetik euskaraz eratorri ditugun izenen —euskal eratorbidearen arabera azal daitezkeen— eta bestetik izen izanda mailegatu ditugun artean. Lehen multzoan sartuko genituzke, hortaz:

alfabetatze-batzorde, azterketa-etxe, erakusketa-gela, zabaltze-indar, alfabetatze-kanpaina, bilera-leku, lotura-muga, irteera-ordu, ulertze-posibilitate...

Bigarren multzoan ditugu, esan bezala, oinarrian duten aditza mailegatuta edo ez (esate baterako, *konfesatu*, *meditatu*), itxura guztien arabera izen izanda (erdaraz “nominalizazioa” gertatu ondoren gehienak) mailegatu ditugunak.

konfesio-epe, errepresio-indar, produkzio-indar, puntuazio-marka, konpentsazio-mugimendu, kontserbazio-sen, koakzio-sistema, konfirmazio-tresna...

Multzo berean sar ditzakegu ‘ariketa’ erlaziopean (I.5.11) ikusiko ditugun *konfesio-leku* eta *meditazio-liburu* ere; hots, maileguz hartu ditugun aditzetiko izenak mugatzaile dituztenen artean.

Lehen multzoan bereizi ditugunak dira batez ere lehen ekarri dugun gogoeta eginarazi zigutenak. Halakoek, oro har (ez beti), “aditzoina + izena” (*Jarleku*) motakoen aditzeko modu bera dute: “alfabetatzeko batzorde”, “zabaltzeko indar”... Guztiarekin ere, argi ibili behar da interpretatzean, mugatzailea aditzetik eratorritako ekintza-izena eta osagaien arteko erlazio semantikoa ‘helburua’ izanda ere, beti ez baitago “oinarrian dagoen aditzak adierazten duena egiteko dena delakoa” interpretatzerik. Esate baterako, multzo berezian sartu ez dugun, gure ustez “Behi-esne moduko elkartu arrunta” den *jakintza-hizkuntza* ez da “jakiteko hizkuntza”, “jakintzetan erabiltzeko hizkuntza” baizik.

Antzeko zerbait izango genuke bigarren multzoan bereizi ditugunetan. *Konfesio-epea* bada “konfesatzeko epea”, baina *ejercicio-etxe* ez genuke ulertuko ez ‘helburua’ erlazioaren arabera (“ejerzitzeko etxea”), baina ezta kide duen *jaiotetxe* aditzen dugun eran ere (“etxean ejerzitzatu”, “etxea zeinetan ejerzitzen den”) alegia. ‘Helburua’ bada, ordea, baina “ejercicioak egiteko etxea” ulertzen dugu. Hots, bai kasu batean, bai bestean, oinarrian zegokeen aditzaren arrastorik ia ez dago egun.

Hortaz, alde batetik, badirudi zenbat eta hitz eratorriak esanahi zehatzagoa, mugatuagoa izan, edo oinarri duen aditzetik urrunago sumatu, orduan eta zailagoa egiten dela guztientzako ematen genuen ‘helburuzko’ parafrasira jotzera.

Bestelako auzirik ere bada. Esate baterako, gure adibideen artean ez zegoen, baina corpusetan agertzen den *euskalduntze-erakunde* bezalakoak hartzen baditugu, ohart gaitzke aditza aldi berean eratorria denean (*euskaldundu*), *-tze* atzizkia edo besteren bat azaltzen ez bada, mugatzailea izentzat hartzeko arriskua dagoela: *euskaldun-erakunde* “euskalduntzeko

erakundea” ez ezik, “euskaldunek osatutako erakundea” edo antzeko zerbait ere uler baitezakegu. Halakoetan, hortaz, badirudi egokiagoa dela izen eratorrira (adib. *euskalduntze* izenera) jotzea.

Alfabetatze bezalako mugatzaileek, berriz, auziaren beste adar bati heltzeko parada ematen digute: noraino egingo lituzke gaurko hiztunak *alfabeta-batzorde*, *alfabeta-kanpaina* edo hauen gisakoak? Esan nahi da, zenbaterainoko eragina izan dezake aditza mailegatua izateak erabide honetan? Gure corpuseko mugak onartuta ere, H-E/3ko *Jarleku* motakoen adibide-zerrenda (**H-E/3: 325 / 305 hur.**) begiratu besterik ez dago konturatzeko mailegu itxura garbia duten aditzoin gutxi direla mugatzaileak. Eta mailegutzen ditugun aditzen artean ere ba ote dago bereizkuntzarik? Hortxe baititugu, esate baterako, *konfesaldi*, *kontsolabide*, *pentsa-ordu*, *pentsamolde*... Eta mugakizunak ba al du ikuskizunik? Itxura guztien arabera, bai: *aldi*, *bide*, *gai*, *kide*... (“erdi-atzizki” izendatuekin), *alde*, *lan*, *toki*, *leku* bezalako mugakizunekin aiseago eta, kontrara, *klase*, *suerte*, *mota*, *kontu*, *modu* eta abarrekin nekezago egiten baititugu *Jarleku* motakoak. Polikiago aztertu beharreko kontuak lirateke hauek denak.

Eta aipatu ditugun xehetasun horien ondoan aholku hau ere ez genuke ahantzi beharko (**H-E/4: 89 / 75**):

[Jarleku] Hitz-erabide emankorra eta erraz ulertzekoa izanik ere ez da komeni, ordea, neurriz gain hartara jotzea: inoiz edo behin agertu ohi diren *elikaiturri*, *ebaluatalde* edo *informabulego* gisakoak, esate baterako, ez dira gomendagarri. Hobe da, horrelakoetan, bestelako elkarte-moduez baliatzea edo are sintagma-erakuntza libreagoetara jotzea: *elikadura-iturri*, (edo *elikatzeko iturri*), *ebaluazio-talde*, *informazio-bulego*. Hitztunaren senak asko dezake, noiz bide batera jo edo noiz bestera erabakitzeko. Baita kasuan kasuko komenentziak ere.

I.5.11. ‘ariketa’⁴⁵

Ezkerreko osagaiak nolabaiteko ariketa, jarduna, ekintza... adierazten du (hauetako asko ere, arestikoak bezala, gertaera-izenak dira) eta eskuinekoak, askotan, ariketa horren egilea; lekua, beste batzuetan. Hau da, ariketa edo jarduna norik egiten duen edo non egiten den adierazten dute erlazio honetako izen-elkarteek. Hori dela eta, mugatzailea bizigabea eta mugakizuna biziduna zein bizigabea izan ohi dira, eskuarki.

prediku-aulki, jolas-egun, politika-erakunde, kultur fronte, langela, laborantza-gizarte, arma-gizon⁴⁶, joko-gizon, lege-gizon, otoitz-gizon, liturgi komisio, finantza-konpainia, guda-langile, sega-leku, meditazio-liburu, prosa-maisu, lan-opor, pilotaleku, ihizi-sasoi, arte-soziologo, hitz-toki, pilota-txapeldun...

“Laborantzan aritzen den gizartea”, “politikan aritzen den erakundea”, “liturgiaz ari den komisioa”... ulertuta. Beste erlazio batzuen arabera ere uler daitezke, jakina. Esate baterako, ez dago horrenbesteko alderik ‘edukia’ atalean, ‘zer-noiz’ erlazioan (**I.5.4.3**) aztertu dugun *lanordu* eta ‘ariketa’ moduan ulertu dugun *ihizi-sasoi* elkartearen artean; edo ‘zer-non’ (**I.5.4.2**) puntuko *leku*, *etxe* edo *toki* mugakizunak dituzten elkarteen eta *otoitz-leku* edo *lan-mahai* izenen artean. Alde bakarra, hemengo mugatzaileak ‘jarduna, ariketa’ adierakoak izatea da. Ikus, bestalde, ‘helburua’ erlazioan (**I.5.10**) *konfesio-epe* edo *meditazio-liburu* elkarreetako mugatzaileez esana; hau da, adiztetik sorturiko izen mailegatuak dituztenez.

⁴⁵ Ekintza-elkarte sintetikoaren ispilu modukotzat har daiteke.

⁴⁶ *Gizon*, *mutil*, *neska* mugakizunak dituztenak **II.7.2.5** atalean ere ikusiko ditugu.

Dena den, ez da hain ohikoa hitz elkartuko bi izenen artean erlazio semantiko hau aurkitzea; askoz maizago antzemango du hiztunak aurreko puntuetan aztertu dugun erlazio semantikoetakoren bat. Horrek berarekin dakar, jakina, adibide gutxiagao jasotzea.

Honaino *Behi-esne* mendekotasunezko izen elkartu arrunten azterketa. Hurrengo ataletan banan-banan ikusiko ditugu “berezizat” jotzen direnak.

II. MUGAKIZUN BEREZIKO IZEN-ELKARTEAK

II.1. Sarrera

Aurreko atalean mendekotasunezko izen elkartu arrunten berri eman dugu. Baina, “Sarrera gisa” hasierakoan genioen bezala, haien ondoan baditugu beste makina bat haien artean sailkatzen errazak ez direnak. Horietako batzuk jorratuko ditugu atal honetan: mugakizuna berezia duten izen elkarteak, hain zuzen ere. Hauexek dira (H-E/4, 11.2.: 92-94 / 78-80):

- lore-sorta, ogi-puska*: multzo- eta zati-elkarteak
- eskola-molde, amodio-mota*: mota-elkarteak
- garo-usain, zikin-fama*: konparazio- eta irizpen-elkarteak
- pinu-arbola, ikerketa-lan*: “sumpsuntive” edo “sumpsuntibo” elkarteak
- andregai* modukoak, “erdi-atzizki” ere deituak
- hitzaurre* moduko “deiktikoak”.

Sailei begiratu orduko ohart gaitezke berezizat jotako mugakizunok ez direla gisa berekoak, eta, hala ere, ez ditugula *behi-esne* elkartu arrunten moldekotzat hartzen. Berezi egiten dituzten arrazoiez zerbait esan beharko dugu, beraz, ez baitugu orain arte berariaz halakorik adierazi. Baina xehetasunak atal bakoitzaren azterketarako utzita, errepara diezaiegun mota horiei:

- a) Lehenik eta behin argi dezagun sumpsumtiboak ez bide direla berezizat hartutako gainerako guztiak bezalakoak, argituko dugun bezala, baina nolana dela ere, badira bereziak, edo gutxienez *behi-esne* ez bezalakoak. Esan dezagun labur-labur adibide baten bitartez: *behi-esnea*, ‘esnea’ da, eta inondik ere ez ‘behia’; *pinu-arbola* ere ‘arbola’ da, baina ‘pinua’ ere bai.
- b) Gainerakoak hartzen baditugu, begietan ematen duen lehen gauza bere maiztasuna da; alegia, beste edozein izenez baino maizago baliatzen gara, nonbait, *talde, zati, molde, aldi, bide...* mugakizunez izen-elkarteak osatzeko. Gainera, askotxotan aski esanahi zabala dute mugakizunok.
- c) Bestetik, berriz, horietako batzuk bere hitzez hitzeko adieraz gain, beste adiera batez ere maiz erabiltzen ditugu elkarteetan: *usain, bide, buru...*, eta horrek egiten ditu, besteak beste, berezi.
- d) Multzo handi samarra da lekua edo denbora adierako izenak (“deiktiko” ere deituak) mugakizun dituztenena. Zerak lekuan edo denboran kokatzea izaten da, oro har, horien eginkizuna. Ez daude postposizioetatik hagitz urruti.

Alegia, xehetasunak xehetasun, badirudi hemengo eskuineko osagaiak gainerako izenek baino aukera handiagoa dutela izen-elkartearen mugakizuna izateko. Gera gaitezen hemen pixka batean. Mendekotasunezko izen-elkarte arruntetan osagaien artean dagoen egitura-harremana oro har, esan daiteke “modifikatzaile-buru” dela; alegia: eskuineko osagaia elkartuaren burua eta ezkerrekoa horren modifikatzailea izaten da. Esate baterako, *behi-esne* edo *idazmakina* hartzen baditugu, ohartzen gara esneaz, makinaz hitz egin dezakegula zein esne edo makina-motaz ari garen zehazteko premiarik izan gabe. Ezkerreko osagaiak, hortaz, eskuinekoaren modifikatzailearen antzeko eginkizuna du; alegia, syntaxian *behiaren esnea* edo *idazteko makina* sintagmetako ezkerreko osagaiak duenaren parekoa.

Esanahiaren aldetik ere gauza bera esan daiteke: *esnea*, *makina* badira berez “zerak” eta ezkerreko *behi* edo *idatz* osagaiak zehazten dute zein behi edo makina-mota den dena delakoa; hots, eskuineko osagaiaren erreferentzia-esparrua murrizten dute; syntaxiko modifikatzaileek oro har egiten dutenaren antzera.

Multzoaz, *zati*az, *usainaz*, *motaz*, *aldiaz*, *aurreaz* eta abarrez, berriz, nekez hitz egin dezakegu ez badugu zehazten zeren multzoa, zatia, usaina... den. Zehaztu behar hori ezkerreko osagaiak bete dezake eta hitz elkartua sortu (demagun, **ikasle-multzo**, **ogi-zati**, **kafe-usain**...). Jakina, testuinguruak eman dezake informazio hori eta ez dugu hitzez zehaztu beharko (aurretik ikasleez, edo ogiaz, edo kafeaz aritu bagara hizketan nahikoa izan daiteke eskuineko osagai soila aipatzea), gure informazio pragmatikotik inferitu, berreskura dezakegulako.

Harreman honi “osagarri-buru” harremana esaten zaio, syntaxian gertatzen denaren ildotik: eskuineko osagaia den buruak (adib. *zati*) osagarri bat hartzen du (*ogi*), syntaxian, demagun *jo* aditzak ZER/NOR *jo* den, determinatzaileek IS edo *aurka* postposizioak genitibodun IS hartzen duten bezala. Bada, hemengo berezi gehienak horrelakoak ditugu, “osagarri-buru” egitura-harremanekoak, alegia, eta honek hainbat ondorio dakartza. Argitzen saiatuko gara.

Zehaztasunak dagokionerako utzita, aurkez dezagun egingo dugun ildo.

II.2. Multzo-elkarteak

II.3. Zati-elkarteak. Hemen aztertuko ditugu *erdi*, *laurden* mugakizunak dituztenak⁴⁷

II.4. Mota-elkarteak

II.5. Konparazio- eta irizpen-elkarteak

II.6. *Sumpsumtive* edo *Sumpsumtiboak*

II.7. *Andregai* modukoak

II.8. *Hitzaurre* moduko deiktikoak

Bistan da ez dela H-E/4 laneko sailkapen bera, baina uste dugu era honetara eginez argitasunean irabaziko duela azalpenak.

⁴⁷ H-E/4, 11.2.1: 92 / 78 lanean frakzio-elkarteak (*ordu-erdi*) zati-elkarteetatik bereiz aipatu genituen; hemen atal berean ikusiko ditugu.

II.2. MULTZO-ELKARTEAK

II.2.1. Sarrera

Multzo-elkartetzat hartu ditugu bigarren osagaia *aldra*, *andana*, *biko*, *buket*, *eli*, *meta*, *mordo(xka)*, *mulko*, *multzo*, *oste*, *pare*⁴⁸, *parrasta*, *parrastada*, *pila/pilo*, *sail*, *saldo*, *samalda*, *sorta*, *talde*, *tanda*, *tropa*, *tropel...* izenak dituzten izen elkartuak. Beste askoren artean, honako izen-elkarteak aztertuko ditugu:

emakume-*aldra*, kaio-*aldra*, erantzun-*andana*, haur-*andana*, uso-*biko*, perrexil-*buket*, idazle-*eli*, oilo-*meta*, diru-*meta*, liburu-*mordo*, erle-*mordo*, erle-*mulko*, inurri-*multzo*, arrain-*oste*, jende-*oste*, arrautza-*pare*, behi-*pare*, ur bedekatu *parrasta*, kanoinazo-*pila*, mutil-*pila*, ardi-*pilo*, lur-*saila*, limoi-*saila*, idazle-*saldo*, zomorro-*samalda*, errezi-*sorta*, galdera-*sorta*, artalde, jende-*talde*, mahomatar *talde*, gazte-*tanda*, soldadu-*tropa*, abere mutu *tropel...*

Izen hauen esanahiari begiratu orduko ohartzen gara guztiek duten esanahi berdintsuaz; gutxienez bada esanahiaren atalen bat, semaren bat, guztietan dagoena: ‘ugaritasuna’, ‘kopurua’, ‘aniztasuna’... dei diezaiokegu goiko izenek duten ezaugarri semantiko horri. Bestela esan, izendatzen duten dena delakoak barrenean nolabaiteko egitura (ez nahitaez antolatua) du eta “zer” osatutzat, eta ez bakartzat, hartzen du hiztunak.

Hori dela eta, espero izatekoa da multzo horren osagaia konta daitezkeen izenak, zenbakarriak, izatea. Baina aurrera baino lehen argi dezagun zerbait, elkarketa-mota honetan eragin zuzena du eta:

1. zenbakarri izateak ez du ezinbestean esan nahi konkretua izan behar duela. Abstraktutzat, izaera fisikorik, gorputzik gabetzat jotzen ditugun zeretako batzuk ere konta ditzakegu: *bi amets*, *bost arrazoi...*⁴⁹
2. *gudu*, *galdera*, *aitorrera*, *oharpen...* bezalako izenak (inoiz abstraktutzat jo izan direnak) gertaera-izentzat hartuko ditugu eta ez abstraktutzat: gertaerak eta ez gauzakiak (gorputza dutenak nahiz gabeak) izendatzen dituztenez gero. Gertaera-izenak zenbakarriak dira: *zazpi galdera*, *bost oharpen...*

Guztiarekin ere, azterketak erakutsiko digu ezaugarri hau benetan horren erabakigarria den multzo-elkarteak eratzean. Baina multzo-izentzat jo ditugunen artean aldeak ere badaude, noski. Hauetaz jabetzeko hiztegiatar⁵⁰ jo daiteke eta begiratu ea zer dioten izen hauetako bakoitzaz, nola definitzen dituzten. Eginbide honek helburu bat baino gehiago du, izan ere. Jaso nahi dugun informazioa ez baita besterik gabe izen horien esanahien artean inolako alderik ba ote dagoen eta zein den ikustea; izen horien definizioan aurki ditzakegu, halaber, ezkerreko osagaiaren aukera murriz dezaketan elementuak ere. Eta datu hau oso interesgarria gerta dakiguke multzo-elkarte honen barnean azpisailak egin ahal izateko.

Bada, definizioak irakurtzean ohartzen gara hasieran aipatu dugun esanahi bateratu, antzeko horretaz. *Multzo* hitza aurkituko dugu *sail*, *sorta* edo *talde*-ren definizioetan; *talde*, *saldo*-renean... Dena den, *multzo* dugu ia izen hauen guztien definizioetan dugun izena,

⁴⁸ Bistan da hemengo *parea* “batera doazen kideko bi izaki edo gauzaren multzoa” dela, ez ‘berdina’ (“ez du parerik...”), ez postposizioetan aztertzekoa den ‘maila berean...’ (“*sagasti parera* iritsi zenean...”, “neskatxa bere *parean* jarri zitzaionean...”) baliokoa.

⁴⁹ Horixe bera dio Artiagoitiak (2011) ere.

⁵⁰ Oinarrian hiztegi-sarreraren definizio-azalpenak euskaraz ematen dituzten hiztegiak erabili ditugu, *Orotariko Euskal Hiztegia*-rekin batean [OEH].

dirudienez sail honetako izen bakoitzaren baliokide izan daitekeena, gutxien markatua eta, horrexegatik, hitz elkartu mota hau izendatzeko aukeratu duguna⁵¹.

Era berean, definizioak erkatuz, beste ondorio honetara ere irits gaitezke: multzo-izen hauen artean hiru sail nagusi bereiz daitezke.

- a) Nolabait esateko [+biziduna] ezaugarria barnean daramatenak, bizidunez aritzeko besterik ez darabiltzagunak; bestela esan, hautu-murritzapena dutenak: elkarketan, ezkerreko osagaiak biziduna izan behar du. Alegia, *izaki, animalia, bizidun...* hitzak hiztegiak definizioetan erabiltzen dituztenez gero, espero dezakegu hauen bidez osatutako izen elkartuko mugatzailea [+biziduna] izatea (aurrerago ikusiko dugun erlazio semantikoa aldatzen ez den neurrian, behintzat). Adibideak aztertzean egiaztatuko dugu hau betetzen ote den.

Halakotzat jo behar bide dira *aldra, oste, saldo, talde, tanda, tropel* bezalakoak. Baina guztiek ez dute hedadura bera: batzuk bereziki euskalki batean azalduko zaizkigu (adibidez *aldra* bizkaieraz, edota *tanda* zubereraz); beste batzuk (*saldo, oste* edo *talde*) hedatuagoak daude euskaran. Dena den, esanahiari dagokionez, baliokidetzat jo ditzakegu guztiak.

- b) Erreferentziaren aldetik zabalagoak direnak; bai bizidunez bai bizigabeez aritzeko darabiltzagunak. Horien artean ditugu *andana, mordo, multzo, pare, pila, sail, mulko* (berriz ere euskalkien arabera berezitasunak ditugu). Horrek esan nahi du izen hauek mugakizun direnean, bai mugatzaile bizidunak bai bizigabeak aukera ditzaketela; ez dagoela alde horretatik murritzapenik, alegia.
- c) *sorta* (eta *buket*) genuke hirugarren: hiztegien arabera izen honekin mugatzaile gisa elkartzen dugun izena bizigabea (landareak batez ere) izan ohi da.

Beste kontu bat da azpisail bakoitzeko izenen artean egon daitezkeen ñabardurak. Adibidez, *talde* eta *saldo* edo *samalda* erkatuz gero, badirudi azkenok multzo handiagoa adierazten dutela lehenak baino, eta beste horrenbeste esan dezakegu *multzo/mordo* bikoteaz. *Tropel*-ek, berriz, multzo handi eta nahasia adierazten bide du. Baina, itxura guztien arabera, hitz-elkarketan eraginik ez duten ñabardura semantikoak dira.

Eta horrekin lotuta, ez genuke bazterrean utzi beharko hemen bildu ditugun izenetako batzuk esanahia zabaltzen joan direla eta horrek elkarketan ere ondorio zuzena (izan) duela. Esate baterako, *eli*, abereez; *mordo* eta *mulko* batez ere mahatsaz; *parrastada* batez ere barreia daitezkeen gaiez (isurkariak, aleak...); *sail* alorraz, lur-eremuaz eta honenbestez, nekazaritzako gaiez; *sorta* batez ere landareez... aritzeko generabiltzanak beste esparru batzuetan erabiltzeak ekarri du era berean elkarketan ere jokabide malguagoa izatea. Alegia,

⁵¹ Bosquek luze arrazoitzen du zergatik bereizi beharrak diren zenbatzaileen eremutik aski gertukotzat dauzkan hauek bezalako izenak (*cuantificativos de grupo*) eta askotan batean sailkatu izan diren talde-izen edo multzokariak (*colectivos*), *gazeria, jendetza, artalde, biltzar...* bezalakoak, alegia. Hala ere, onartzen du batzuetan mugak jartzea ez dela samurra: "Así podemos interpretar *una manada de cerdos* entendiendo que *manada* es un colectivo y *de cerdos* es su complemento restrictivo. Si hacemos esto, especificaremos de qué tipo de *manada* hablamos, como en la oración *Hay varias clases de manadas, pero esta es una manada de cerdos*. La otra opción es entender que *una manada* cuantifica a *de cerdos*, como lo haría *un grupo, un montón* u otras frases nominales cuantificativas". (Bosque 1999: 1.2.3.4). Gure azterketak ere horixe bera erakutsiko du.

osagai horren eta bere ezkerrekoaren artean zegokeen hautu-murriztapena lasaitu eta beste era batzuetako osagaiak ere onartzen ditu bere ezkerretara. Nolanahi dela ere, ez dirudi gehientsuenek lehenagotik gisa horretako murriztapenik izan dutenik: *aldra*, *andana*, *multzo*, *pila*, *saldo*, *samalda*, *talde*...

II.2.2. Adibideen azterketa

Har ditzagun orain arestian egindako azpisailletako izenak eta ikus dezagun zein motatako mugatzaileez elkaturik dauden aztergai ditugun adibideetan, ea hiztegietaiko definizioetatik atera ditugun ondorioak betetzen diren.

II.2.2.1. Mugatzaile biziduna maizago daramatenak

II.2.2.1.1. ALDRA

Honako mugatzaileekin aurkitu dugu: *ardi*, *emakume*, *gazte*, *giza edo gizon*, *gizon*, *hegazti*, *kaio*, *lagun*, *mutil*, *soldadu*, *tentel*, *uso*... Beraz, izen bizidunekin ageri da (*tentel* izen bihurtutako adjektiboa ere hemen sar baitaiteke), espero zitekeen bezala.

“*ardi*-aldria o *artaldria*” (HE20,222).

“eta beste aldean *emakume* aldra andia negarrez, euren gona barrenakaz malko samiñak igortzika” (EJ59,17).

“*gazte* aldra asko joan oi dira” (HE21,60).

“eurokaz adierazorik *giza edo gizon* aldra edo batza ta *gazte* aldra edo batza” (HE21,88).

“patxada onean leorreruntz igari etozan *egazti* aldra begiragarrikotzat artu eikezan” (EJ59,66).

“*kaio*-aldrak ere, burutxoak zearka ta begiak erne” (EJ03,11).

“*lagun*-aldrara ioan zanean esan eban” (EI99,141).

“onetariko *mutil* aldra azitxo bat” (HE21,60).

“Eragozten deuscube ecer aurreratutia *soldau* aldra latzgarri bic” (HE20,204).

“Emen Bilbaon bizi dira alkarri begira *tentel* aldra bat” (HE21,33).

“labe gainean *uso* aldra bat dago zure arimaren zain” (HE39,58).

Hemen sar dezakegu *banda* mugakizun duen *uso-banda* elkartearen ere, *uso-aldraren* oso antzeko esanahia duena:

“bañan *uso*-banda batek, eiztariak tiro asko botatzen badizkio...” (EJ49,44).

Besterik da, jakina, *musika-banda* edo *soinu-banda* elkarteetako *banda* mugakizuna, *Behi-esne* motakoen artean aztertzekoa dena ‘ondorioa, emaitza’ erlazioan (I.5.5)

EHren definizioa kontuan harturik —“aldra, talde handia”—, hemen sailkatu ditugu *samalda* mugakizun duten *sagu-samalda*, *zomorro-samalda* izen-elkarteak ere:

“gauza guziac orchicatzen zituzten *sagu-samalda* izugarriac” (HE45: 194).

“Erri bat izan zan bertan bizitako burrioi guztiak il zituana ta andik pixka batera *zomorro-samaldak* geiagotzen ari zirala igarririk” (EF92: 67).

II.2.2.1.2. OSTE

Mugatzaileak: *aitzindari*, *arrain*, *gudari*, *gudu*, *jende*, *saindu*... *Gudu* ez beste guztiak bizidunak, beraz. Gogoan izan behar da *oste* izan daitekeela bai multzo-izena, ‘taldea’ adieraztekoa, bai multzokaria, ‘armada’ adiera duela (horko *gudarozte*, *gudu-oste*). Bitasun horixe ispliatzen da gure adibideetan. Bestalde, mugatzailea bizigabea eta gertaera-izena

izateak erlazio semantikoetan ere ondorioa dakar: *gudu-oste* adibidean erlazio semantikoa ‘helburua’ da, gainerako adibideetan eta atal honetan oro har daukaguna (‘edukia’ eta ‘iturburua’ rekin batean), ikusiko dugun bezala. Berezitasun horiek direla eta, pentsa daiteke badagoela, apika, arrazoirik adibide hau *Jarleku* motakoetara hurbiltzeko (*abesbatza* bezala sailkatzeko, alegia (H-E/3: 325 / 305), nahiz eta mugatzailearen kategoria elkartu mota horrekin bat ez datorren.

“gal-araci-cituen oraino, printze haren semearequin batean, haren azpico *aitzindari*-oste bat, ceren ican-cuten flaquecia complitecizat bere erreguearen manu barbaroac” (HE10,115).

“ekharriko diotzat lekhuko (...) itsasoko eta ur eztieta *arrain* ozteak” (HE04,79).

“gure aurrekoek egun ontan zapaldu izan baizituzten gure etsaien *gudarozteak*” (EJ60,140).

“besteetan ongi eratutako *gudu*-osteak eratzen zituztela” (HE33,113).

“obispuak koroia jarri zioneko une artan, malkogarria izan omen zan ainbesteko *jendeoztearen* bat-bateko ixiltasuna” (EL70,212).

“«Et omnibus sanctis» erraitean, *saindu* oste bat ikhusi zuen Iñazioc” (EC16,173).

EHk *tropa* izenari ematen dion bigarren adiera, ‘ostea’, da gure corpuseko *soldadu-tropa* izen-elkarteari dagokiona. Horregatik sailkatu dugu *oste* mugakizunarekin batera:

“*soldadu-tropa* baten erdiyan gero plazara ekarri, ezpatarekin lepuak moztu dizkate lastimagarri” (EJ67: 375).

II.2.2.1.3. SALDO

Mugatzaileak: *idazle, jende, mozkor, lapur eta lander, profeta...* guztiak izen bizidunak. *Mozkor, lapur eta lander*, adjektiboak ere izan daitezkeenak, hemen izen biziduntzat hartu ditugu.

“astekarrien ondoan hazi eta prestatu den *idazle*-saldo biphila” (HE26,275).

“*jende* saldoa eskalerak goiti abiatzen da” (HE58,85).

“*mozkor, lapur eta lander* saldoa barreiatu zen” (HE58,66).

“andic laister icusico zuela *profeta*-saldo bat” (HE45,199).

II.2.2.1.4. TALDE

Mugatzaileak: *aingeru, andre, antxoa, ardi eta abere, belatzar, behi, behi eta bigai, bigai, dantzari, ertzain, espainol, etsai, euskaldun, gazteria, gizarte, gizon, gudari, hereje; idi, behi eta ardi, jende, kantari, lagun, liberal mantso, mahomatar, ministro, mutil, neska, oinezko, soldadu, zaldi...* Izen bizidunak guztiak *gazteria* eta *gizarte* multzokariak ere halakotzat jotzen baditugu⁵².

“*antxoba* talde ugaria urgañean ikusita, itxasora begira dabiltzanak” (EJ59,40).

“izan ere cituen *ardi eta abere* taldeac, eta mirabe chit asco” (HE12,25).

“aditzen nakon aitari artzainek *artaldeak* nahastera utzi zituztela” (HE59,36).

“Añemendi-endako *bei ta bigai*-taldea” (EF92,84).

“*ertzain* talde bat, etengabe nere gainean euki det” (HE57,115).

“*Español*-taldean bazan aguretxo bat, asko estimatzen ninduen” (EJ67,66).

“iñoiz eltzen diran arren bertara *euskaldun* talde ikaragarriak” (HE21,77).

“Zer uste dezu, emen *gazteri* taldea ezpalegoke gaitz-erdi” (EJ07,4).

“andreteria eta *gizataldea* sakabanatuten asi baño lentxuago” (EJ59,59).

“bere hierarkiaz, organizazioaz eta aparatuz antolaturiko *gizarte* talde den neurrian” (EJ20,43).

“Itxarkundia *gudari*-taldia Bermeo’n” (EJ60,159).

“Esan bequigu orañ *ereje* talde eta taldecho oriei” (HE40,212).

⁵² Morfosintaxiak behinik behin zilegiztatzen bide digu halakotzat ere hartu ahal izatea. Arruntean bizigabeak bezala badarabilgu ere, ez dirudi bizidunen erako erabilera erabat baztertzekoa denik; XX. mendeko corpusean *gizartearengan eragina izan* bezalakoak irakur daitezke bederen.

“madaricatuac zure lurra dacarcian frutuac, baita *idi, bei, ta ardi* taldeac ere” (HE07,7).
 “*Jentetalde* horrekin noraino helduko ote ginen?” (HE58,64).
 “cristau eguiazco gucien indarrac *liberal mantso* talde baten indarraquin batutzea” (HE40,168).
 “itotzeko zorian zegoen *mahomatar* talde bat salbatzen du eriotzetik” (HE33,87).
 “Puntu honetan *neska* taldearen algarek goia harrapatu zuten” (HE39,108).
 “*oinezko*-taldeko kapitan eta gainera flamendar, frantses eta ingles izkuntzetatik itzulari edo adierazle” (HE33,103).
 “Soroetan ari ziren baserriarrek edo *zaldi* taldearen hanka hotsera baserri atariria irtetzen ziren” (EJ48,12).

Ohart gaitezenez gaur egun *talde* dela izena, baina garai batean (hortxe daukagu *artalde* ihartua) eta oraindik ere ekialdeko hizkera batzuetan bederen *alde* darabilte esanahi bera duela⁵³.

“emazten jorrazteko hamar bat *bertsu*-alde badira” (HE43,14).
 “Ah! zer *gizaldea* behiala Eskualdunena” (HE59,104).
 “Azaña’ren *ortzalde* eder ura” (HE17,21).
 “aitzina *Eskualdunean* hasi zen bere *lerro*-alde goresgarrien ager arazten” (HE59,12).
 “Aurreko *uralde* oietan bazuean ba naikoa” (EJ62,66).

Gaurko ikuspegitik behintzat harrigarri samarra gertatzen da izen bizigabeak (*t*)alde-ren ezkerreko osagaiak izatea; *ur*, gainera, kontagaitza da.

Bestalde, aipatu besterik ez dugu egingo aldizka *alde* eta *aldi* izenez osaturiko hitzak eratu ditugula, ñabardurak ñabardura elkarren artean alde handirik ez dutela: *bertsoalde* eta *bertsoaldi*, *gizalde* eta *gizaldi*, *hortzalde* eta *hortzaldi*, *uralde* (eta *uholde*) eta *uraldi* ...

Baina, guztiarekin ere, *talde* mugakizunaren ezkerretara mugatzaile bizigabeak dituzten adibide gehiago ere baditugu: *erromatiar hizkera*, *finantza*, *guda*, *kultura*, *makilkada*, *ontzi*, *politika*, *txango*...

“esandako jakintza-iztegi-batasun orretan alde batetik *erromatiar izkera*-taldea, eta bestetik ingeles-izkeria sartzen dira” (EJ06,89).
 “*finantza*-taldeak eta industria handietako ugazabak elkarturik daudela” (EB20,17).
 “Alemanak zirauten nagusi bazter guztietan, beren *gudatalde* altzairatuai eta batipat aireko indar garailariari esker” (EJ03,76).
 “*kultura*-taldeak ez dute planifikaziorik” (EI94,27).
 “baita *makilkada*-talde ederra eman ere” (HE23,105).
 “Magallanes-en Estua ikuskatzera zioan *ontzitalde* batean parte artzeko eskatu zioten Amasari” (HE33,87).
 “idatziko du Rikardok *politika* taldeen konfesionalismoa aztertzerakoan” (EI94,18).
 “Ta igande-arratsalde artan bertan prestatu zan *txango*-taldea, gizasemez bakarrik, ager-lekura abiatzeko, elizgizonak buru zirala ta artzai mutilla gidari” (EL70,25).

Guda, *txango* gertaera-izen garbiak ditugu batetik. Esana dugu lehen ere gertaera-izenek badituztela ezaugarriak aditzen eremura hurbiltzen dituztenak. Horren ondorioztat jo daiteke, berriz ere, osagaien arteko erlazio semantikoa ‘helburua’ izatea, *Jarleku* motakoetan ohikoena dena, hain zuzen; hots, “guda egiteko”, “txangoak egiteko” taldeak ditugu. Berriz ere, galdetzekoa da gisa honetako elkartuen sailkalekua hau ote den, multzo-elkarteen artean, alegia.

⁵³ Nolanahi dela ere, *alde* mugakizunaren adibide gehienak leku-denborazko mugakizuna dutenen sailan (II.8.2.3) ikusiko ditugu.

Bestetik ditugu *finantza*⁵⁴, *kultura* eta *politika* giza ariketak adierazten dituztenak eta, gainera, kontagaitzak direnak. Multzo-elkarteei alboratzen diegun ohiko parafrasi hauei ere paratzeak ez dirudi guztiz erraza, ikusiko dugun bezala.

Eta azkenik ditugu *erromatiar hizkera*, *makilkada* eta *ontzi* mugatzaileak dituzten elkartuak. Osagaien arteko harremanen ikuspegitik gainerako multzo-elkarteekin batean azter daitezkeen arren, *talde* multzo-izenak bide duen hautu-murritzapena ez betetzeak berezi egiten ditu.

Bestalde, mugatzailearen kategoria dela eta, *erromatiar izkera talde*-ren egitura era honetan ulertu dugu: [erromatiar izkera] talde], nahiz eta honek garamatzen lexikoaren mugetatik atera behar izatera. Beste aukera bat zen *erromatiar* hartzea [izkera-talde] elkartuaren modifikatzailetzat. Hartara, ez genuke bi osagaitik gorako elkarturik izango. Baina uste izan dugu lehenetsi dugun aditzeko modua egokiagoa dela hurren datorren *ingeles-izkeria*-rekin hobeki uztartzen bide delako⁵⁵.

Hemen sartu dugu *eli* mugakizuna ere, ‘abere taldea’ eta, zentzu zabalagoan, ‘taldea’ adierazten baitu. Adibide bat besterik ez dugu aurkitu gure aztergaietan, *idazle eli*, izen biziduna mugatzaile duena:

“*idazle-eli* ederra osaturik” (HE26,259).

Gure corpusean molde hau besterik ez topatuagatik, OEHN badaude bai mugatzaile bizidunak (*behi eli*, *ardi eli*...) bai bizigabeak dituztenak (*ebanjelio eli*...). Bestalde, hain ohikoa izan ez arren, *pare*, *biko*-ren baliokidea ere izan daiteke *eli*: (*oski eli bat*, “*senhar emazte saintü elibat*, Joakim eta Ana deitzen zirenak”).

II.2.2.1.5. TANDA

Mugatzaile bizidunak: *gazte*, *mutil*...

“*gazte* tandak ordukotz pordon, makilaz, bizar labanaz eta burdin ziriz armaturik ginen” (HE58,64).

“gezur kondatzen trebe zen amari *mutil* tanda batekin bestaz besta ibili zela” (HE58,58).

II.2.2.1.6. TROPEL

Mugatzaile bizidunak: *abere mutu*, *eskualdun*, *jende*, *mutil*...

“ekharriko diotzat (...) hegastina, eta ihizi arinak, eta *abere mutu* tropelak” (HE04,74).

“*eskualdun* tropelak” (HE04,66).

“Nola harmadako *jende* tropela baitzihoan herronkan hedatua” (HE04,68).

“pago gazteak bano bortitzago ziraden *mutil* tropel baten artean” (HE19,123).

⁵⁴ Hau pluralean ere erabil daiteke, baina *pluralia tantum* direlakoan moduan; hots, plural morfologikoak ez du ezinbestean adierazten hiztunak errealitatean ere horrela ikusten duela dena delakoa.

⁵⁵ Nolanahi dela ere, horrek ez dio osagaien arteko erlazio semantikoari eragiten: azterketa zein ere den bizigabeaz ari baikara.

Lehen adibidearen mugatzailea bereiz aipatzekoa da, determinatzailearik gabeko IS baita. Bestetik aipa dezagun *jende*, bi erabilera onartzen baititu: multzokari nahiz bakarkako⁵⁶ (eta zenbakarri) moduan.

Adibide gutxiko *tropa* (*soldadu tropa*) edo *samalda* (*zomorro samalda*, *sagu samalda*) ere hemen sartzekoak lirateke.

“*soldadu*-tropa baten erdiyan gero plazara ekarri, ezpatarekin lepuak moztu dizkate lastimagarri” (EJ67,375).

“gauza guziac orchicatzen zituzten *sagu*-samalda izugarriak” (HE45,194).

“Erri bat izan zan bertan bizitako burrioi guztiak il zituana ta andik pixka batera *zomorro*-samaldak geiagotzen ari zirala igaririk” (EF92,67).

II.2.2.2. Mugatzaile biziduna nahiz bizigabea onartzen dutenak

II.2.2.2.1. ANDANA

Mugatzaile bizidunak: *azeri*, *behi*, *errenteriar*, *eskolier*, *euskaldun*, *gazte*, *haur*, *jende*, *lagun*, *miresle*, *neskato ile harrodun*, *zakur*... Mugatzaile bizigabeak: *burdin ziri mehe*, *epopeia eta kantu heroiko*, *erantzun*, *eskoletxe*, *hitz*, *lili*, *lore*, *neurtitz*, *poema*, *presente*....

“hesi baten gibeletik ohartu zen hantxet *azeri* andana bat bazela bildua” (HE32,31).

“feri egun batez *behi* andana batzu baziren lerroan estekaturik” (EJ04,76).

“paxet batzuek jasaiten zituztela, *burdin ziri mehe* andana bat” (HES9,65).

“gainera, enda guduzale batentzat egoki den araura, *epopeia eta kantu heroiko* andana bat belhaunetik belhaunera heleraziak ezagutzen bide zituzten” (HE30,226).

“BOLETIN berean (298-315) J. Ignazio Gamon-ekoren beste txosten bat (*erantzun*-andana bat) ematen zaigu” (HE33,67).

“ba zioazen berekin *errenteriar* andana bat eta beraren ahaide batzuk” (HE33,73).

“Italian zehar *eskolier* andana batekin bidaiatz ibilki nintzen” (HE56,7).

“Baginen han, xede beretarat igorriak, *euskaldun* andana” (HE59,89).

“*Gazte* andana bat fandangotan, akordeonista soinuariarekin” (EJ04,67).

“aho hizkerak bere-bere dituen sintagmen eta *hitz* andanen ezin urratuzko loturak” (EJ80,28).

“*lore* andana baten artean ehortzi” (HE32,27).

“*Neskato ile harrodun* andana besoz beso zerakartelarik” (HE59,38).

“*Neurtitz* andana handia zaukaten, launazka josiak” (HE59,85).

“Anitzetan balio handiko *poema* andana bat badugu gainera” (HE30,233).

“ukan zituen, ondoko egunetan, herriak emanik, eta Murtutsek ere aste guzietako bere *present*-andana” (EJ72,64).

“lehenago egitate berarentzat bazituela *zakur* andana bat hilak” (HE59,33).

Bereiz aipatzekoak dira *burdin ziri mehe*, *neskato ile harrodun* eta *epopeia eta kantu heroiko* mugatzaileak, kategoria dela medio. Izan ere, “Sarrera gisa” atalean esan dugu “hitz-elkarketaren funtsezko ezaugarrietako bat da bi kategoria lexikok osatu behar dutela (...) hortik gorako osagairik, sintaxitik datorren kategoria sintagmatikorik ez dugula izango hitz elkartuak osatzen”. Adibide hauetan, ordea, mugatzaileak [izena + adjektiboa] osaerakoak dira; izena, aldi berean, elkartua da kasu batean (*burdin ziri*) eta, beste batean, adjektibo eratorria dugu, honek ere oinarri sintaxi-kategoria duela ([*neskato*] + [[*ile harro*] + *-dun*]). Gainerakoan, mugatzaile bizidunak eta bizigabeak ditugu; guztiak zenbakarriak.

II.2.2.2.2. MORDO/MORDOXKA

⁵⁶ Besterik ezean termino hau erabiliko dugu *multzokari*-ren parean. Bidenabar, errepara zenbakarri / zenbakaitz oposizioak ez duela kasuistika osoa estaltzen, bai baitaude multzokari zenbakarriak (*bi armada*, *bost familia*...) eta zenbakaitzak (**bost ikasleria*...).

Mugatzaile bizidunak: *ahuntz, ardi, emakume, erle, erromes, euskaldun, euskaltzale, familia, fraide, galego, gazte, idazle, ijito, ikasle, jende, lagun, mutil, ontzi-jabe...* Mugatzaile bizigabeak: *baxoerdi, bertso, diru, erroskila, etxe, gaitzizen, herri, hitz, hodei, izar, kafe, ke beltz, libera, liburu, lore, luma, lur, mahats, odol, ordu, pago, paper, patata, pinu, piper, txistu, urte, urte, xaleta...*

“ikusi nituen *ardi*-mordoxka batzuk” (HE50,66).

“Fakundo Adurriaga ‘Besamotza’ zanaren bi *bertso* mordo aitazen dira” (EJ76,39).

“Pagoeta’koak artu ditek *diru*-mordo ederra piñudia salduta, basarria erosi zuten urtean aldatua” (EJ62,10).

“jai baten joan omen zaio *emakume*-mordoa etxera meza nagusi ondoan” (HE29,50).

“badoa *erle* mordo bat bidera eta bapatean gogor lotzen zaio azeri harroari” (EJ53,24).

“Ba da Erreterian jatorri oneko *famili* mordo bat” (HE33,5).

“Oihenartek XVII mendean bildu zituen *gaitzizen* mordoak, toponimia xehearen azterketak” (EJ51,66).

“Ozkiro gazia, gau beltza, *izar*-mordo aundia” (HE17,48).

“Onek esan nai du *jende* mordo guzti orrek bere siñestea arnegatu lezakela” (EC70,51).

“bazkal-ondoan kafea artzera etortzeko esan diot. Zuk uste ezpaduzu ere, bai baidut Brasil’go *kafe* mordoxka apropos egun ontako gordea” (EJ03,49).

“San Migel egun batean, eguzkiak Irimo gañetikan iges egiten duan sasoian, *ke beltz* mordo batek irteten zuan” (HE19,63).

“egiteko au garaiz egiten bada ez die ateen kalterik egingo ta *luma*-mordo ederra emango digute” (EF92,102).

“lur onen ezaguera osoa ematen digu ta azterketa au egiteko, lenen-lenen *lur*-mordoska ondo artu bear da” (EF92,39).

“bezperan ebatsitako *mahats*-mordoa atera eta sakantxo bat gainean zuen” (EJ53,107).

“Ari entendako *odol*-mordoa antxe zegoan” (HE29,120).

“euskaldun kapitana eta *ontzi-jabe* mordo bat bildurik, haruntza abiatzeko naia eta kutizia beren bihotzetan piztea lortu zuen” (HE33,87).

“turismokeriaren kontra, Iratiko *xaleta*-mordoren kontra, Duboscq deputatuaren kontra” (EJ51,73).

Mugatzaileen artean izen kontagaitzak ere badaude: *diru* (erabileretako batean), *kafe*, *ke beltz*, *lur*, *mahats*, *odol* edo *urte*. Aipa dezagun *ke beltz* osagaia, hau ere ez baita kategoria lexikoa.

Hemen koka dezakegu baita ere adibidetegiko *ur-mendo*:

“itsas zola = superficie del mar? Bet-betan itsas zolatic atheratzen da ur mendo bat” (EC16,223)

Gure corpusean adibide bakarra aurkitu dugun arren, OEHk badakartza beste bi ere: *elur-mendo*, *lur-mendo*. Esanahiari dagokionez, ‘mordoa’, ‘pila’ adierazten du *mendo* izenak, eta horregatik sailkatu dugu hemen. Baina badirudi II.2.2.2 ataleko mugakizunek ez bezala, mugatzaile bizigabeak bakarrik hartzen dituela (eta alde horretatik badu antza II.2.2.3 atalean aztertuko ditugun mugakizunekin ere).

II.2.2.2.3. MULKO

Mugatzaile bizidunak: *erle*... nahiz bizigabeak: *mahats*, *mahats pikor*... har ditzake:

“artean gainekoek ba zuten mar-mari, alaxe *erle*-mulkoak, umatzen dala ari” (HE18,136).

“larrakenean bere *mahats* molko hori” (HE32,27).

“salda chorta bat, *mahats* molko bat eta espiceria puchca bat” (EJ75,14).

“*mahats pikor* molkoetan” (HE51,47).

Hemen aipatzekoa da *mulko*-ren eta *mahats*-en arteko hautu-murritzapena, apenas bestetara zabaldu dena.

II.2.2.2.4. MULTZO

Mugatzaile bizidunak: *apaiz, gizon, haur, herrizain, inurri, lagun, zaintzaile...* Mugatzaile bizigabeak: *diru, errauts, etxe, heste, instintu, kontradikzio, laino, erlijio liburu, oharpen, paper, patata, sasi, sindikatu, tu...*

- “USAko Banketxe Nagusiak bil zezala *diru* multzoa merkatutik” (EB20,15).
- “*erlijio liburu* multzo bat eta ezer guti gehiago” (HE36,8).
- “Pipan sartu dudun belar au erre-ta *errauts*-multxu bat da bilakatzen oro” (EJ50,75).
- “nahasian pillotutako *etxe*-moltzo hura, dena bear zan lehen-bizi lurrarekin berdindu” (EC70,53).
- “ikusten diat elizako atean nere hegineko edo handixagoko *haur* multxo bat” (EJ72,15).
- “*Heste* multzo lurruntsua orduantxe erori zen zulara” (HE39,69-70).
- “zer da gizona ere *instintu* multzo bateko animalia baino?” (HE39,106).
- “Bartelek *inurri* multzoa sentitu zuen sabelean” (HE39,18).
- “Estatuan bertan dago situaturik gizarte osoko *kontradikzio* multzoa kontzentratuz” (EJ52,46).
- “saskiak mahasti buruetan pausatutik, *lagun* multxo bat muntatzen ginen bi lagunek lerroa artean harturik” (EJ04,47).
- “*lailo*-moltso itxu bat sartu zuan gain artan” (HE29,136).
- “*oharpen* multzo aunditxo bat” (HE33,17).
- “dudarik ez dago *paper* multzo eskerga horren ikertzapenak sakonki aldatuko lukeela euskal kondairaren ardatza” (EJ51,96).
- “Orain *patata* multzo zimel bat zetzan zokoan” (HE39,52).
- “ango *sasi*-moltsuetan gordetan zan” (HE31,23).
- “Industriako abar bakoitzak badu bere *sindikatu*-multzoa” (EB20,35).
- “hanka biekin zapaldu zuen *tu* multzoa” (HE39,25).
- “Nahiago dut *zaintzaile* multzo bat mendietan ezarri” (HE52,22).

Mugatzaile bizidunak eta bizigabeak, zenbakarriak eta zenbakaitzak.

II.2.2.2.5. PARE

Mugatzaile bizidunak: *behi, guraso, idi, kapoi, soldadu...* Mugatzaile bizigabeak: *aldagarri, arrautza, arrosa, bertso, betaurreko, dozena, duro, egun, esku-bonba, galtza, hilabete, hitz, kanoi, kako, kilo, lerro, ordu, orri, “Témoignage Chrétien”, urte, xehetasun, yola...*

- “*aldagarri* pare bat, igandetako arropak, bizarra kentzeko labaña, bizpairu ator, jersey berri ta zar bi” (EJ03,72).
- “nola ziteken honelako basamortuan honen *arrosa* pare politik topatzea?” (HE39,44).
- “emen *bei*-pare batek ez du goldean marka aundirik egingo” (EJ62,52).
- “ondoren, bertsolari guziak *bertso*-pare bana bota zioten” (EJ79,140).
- “sudur handi, *betaurreko* pare eder bat gainean” (HE52,10).
- “An ez dakit zenbat denbora egin genduan; *egun*-pare bat edo ola, tropak etorri bitarte” (EJ66,62).
- “Nik daukadan ganantzia badaukat nori utzia: bi alkandora, *galtza* pare bat, anaiak autsia” (EJ67,245).
- “neska sanoak ziran, *guraso* pare batekin eta estudiantzera edo libertitzera zijoazenak” (HE35,14).
- “Gero ere, *illabete* pare batean, ospeletan euki zituan” (EJ49,41).
- “bere ideia *hitz* pare batez izendatzen digu Leninek” (EJ52,43).
- “*idi*-pare zaar bat gizenbata” (HE50,52).
- “Zepelin asko bonbak botiez, nonai *kañoia*-paria, aiek guziyak sostenditzeko” (EJ79,21).
- “Eguberri batzutan *kapoi* pare bat zazpi aldiz eskualdatu zala” (EJ54,61).
- “*Ordu* pare batean, an etzan gauza onik izan” (EJ60,152).
- “Errenteria’ko Pello Zabaleta bertsolaria zanak idatzitako *orri*-pare batean arkitu degu” (EJ67,110).
- “Santa Barbara’ko fuerte ori ustuta zegoan; *soldadu*-pare bat-edo kontu egiteko; besterik ez” (EJ79,48).
- “*Témoignage Chrétien* pare bat altzo batetan ahazturik itxuraz” (EJ51,11).
- “Eta orain ez dute gogoratu ere nahi Mendibeko *urte* pare hura” (EJ51,68).
- “Barka bizait irakurleak *xehetasun* pare bat ematea” (EJ51,27).
- “*yola* pare bat, lurrean leku guzietan alterak” (HE35,56).

Mugakizun honek berezitasun du bi osagaiko multzo zehatza adieraztea. Hori dela eta, itxura batean zenbatzaileen eremutik gertu gabiltzala ematen du. Ezin jo dezakegu, baina, *pare*⁵⁷ zenbatzailetzat.

Gehiago ere eman daitezke, baina aski izan bitez ondoko frogak: determinatzailearen bat behar du sintagman erabiltzeko. Alegia, “porruA / bat / bi /asko eman”, baina “*porru pare eman”, eta “dozena pare bat porru”, baina “*dozena pare porru”. Eta, gainera, ez du aditzarekiko komunztaduran zenbatzaileek bezala jokutzen: “Bi egun pasa ditu mendian”, “Egun pare bat pasa du mendian”, baina “*Egun pare bat pasa ditu mendian”.

Hortaz, mugakizuna horrelakoa izanik, espero izatekoa da ezinbestean hautatuko dituela mugatzaile zenbakarriak. Eta halaxe dira: mugatzaile guztiak kontu daitezkeenak dira, baina ez mota berekoak. Batzuk neurri-izenak dira (*dozena, kilo...*) (Azkarate 1991: 49), horregatik ez da harritzekoa neurri-sintagmetako osagaiak izatea.

“beren lurreko *dozena pare bat botella ardo* bidaldu zizkiguten” (EJ64,113).

Galtza, betaurreko ere aipatzekoak dira sail lexiko berezi batekoak dira eta: bi osagaiko zer bakarra izendatzen dutenetakoak; alegia, *pluralia tantum*-etako “bikoen” azpiatal berezikoak. Izen berezi bat ere badago; *Témoignage Chrétien*, erdal aldizkari baten izena.

Ñabarduretan sartuta, berriz, aipa dezagun *pare bat*⁵⁸ tarteko denean, bi aditzeko modu izan ditzakegula, zehatza (“bi”) *idi-pare bat saldu du*, nahiz zehaztugabea, baina betiere “bi”-tik gertukoa: “*ordu-pare batean* egingo dut lana”, “*urte-pare bat* igaro du Ameriketara”, “*kilo-pare bat* erosi du”... Bestalde, *hitz-pare bat* ia-ia lexikalizatu, esapide egin bilakatua dago (“bi hitz” zerbaiten gainean esan...); *bost axola* eta antzekoen bidetik, ez du zenbateko zehatzik adierazten.

Azkenik, hemen sartzekoa da bigarren osagaia *biko* duena, *pare*-ren guztiz kidea dena:

“*uso*-bikoa ilean ere balio gutxikoa da; ate batzuen-batzuk urtean ematen duten lumak pixu gutxi du ta gutxi balio du” (EF92,71).

II.2.2.2.6. PILA/PILO

Mugatzaile bizidunak: *alfer, ardi, atso, bare, erle, euskaltzale, ezkongai gazte, gizon, jende, lagun, laguntzaile, mutil, neska gazte, neskatila, rekete, soldadu, tropa* (multzokari moduan hartuta, biziduntzat jo bide daiteke), *txori, ume, uso...*

Mugatzaile bizigabeak: *aditz, agurtza, albiste, arma, arto, belar eta ahotz, dibujo, diru, dotrina galgari, egur, etxe, garo, gaztaina, gorotz, harri, haritz ipurdi, hondakin, hosto, ipuin eta bertso, jesarleku txiki, kanoinazo, kare, kartutxo, lan, laranja, lasto, lur, margarina lata, mondeju, olerki, sasi, simaur, soka, tanke, tiro, traste, txartel, urte, zaku, zilar, zirriborro, zotz...*

“emen sartu ginanean, Jesus, motellak, ura zan *agurtza*-pilla!” (EJ49,96).

“denbora txarra zan lanerako, etorri nintzan onera, eta, jaunak, ura *bare* pill!” (EJ79,110).

“arta-korda, lizar-osto, *belar eta agotz*-pil, kalerik gordeena bein berriz derabil” (HE18,46).

⁵⁷ Eta *biko, dozena, laurdena, herena...* ere ez. Hori guztia dela eta, atal honetako guztientzat bezala, *izen zenbatzaile* deizioa erabili beharko genuke kuantifikazioarekin ikuskizun zuzena duten izen hauentzat. Itzuliko gara puntu honetara.

⁵⁸ *Bat*-en erabilera honetara itzuli beharko dugu berriz ere.

- “eta alcarri lotutaco *dotriña galgarri*-pilla bat dala eta onegatic deitzen da guciraco zucenbide edo sistema” (HE40,22).
- “Fusilak *egur* piloaren kontra utzi zituzten” (HE39,44).
- “Emen nola da orain *etxe*-pilla aundia, Vista Alegre? Orko jardineroa izan zan” (EJ78,45).
- “*ezkongai gazte* pilloa be ez dok txikia” (HE31,34).
- “Aurre-egunetik *gaztaiña*-pilla aitak orbelez estali” (HE18,71).
- “ez da erres olako *gizapill* nastu bat zaintzen” (EJ81754).
- “Onela *gorotz*-pil oneri eroriko zaizkan busti-tantoak putzu batera dijoazen tankeran jarri bear da” (EF92,22).
- “*Aritz-ipurdi* pillla galanta an dago zoko-bazterrean” (EJ03,23).
- “Oñatiarrak igo ziraneke, Arantzazu e’ tzan besterik: *ondakin*-pillo bat. *Arri* pillo bat, ke beltza-jario” (EL70,194).
- “Uarkan, batez ere orbel-garaian, *osto* pillla aundiak jeisten” (EJ60,22).
- “*ipui eta bertso*-pilloaz liburu bat agertu genduen” (HE25,15).
- “Aita, hainbeste lan egin negu guztian, *kare*-pil galantak ere bai, ta xentimo baten alderdirik ez” (EJ62,24).
- “Zuk artu al didazu mesanotxetik neukan *kartuxo* pillla?” (EJ60,60).
- “guri galtzairuzko esku-erramienta batzuk eta *margarina-lata* pillla bat eman ziguten” (EJ03,61).
- “*neska gazte* pillo bat ikusi ei-eban” (HE31,27).
- “Trintxera-ixkiñara atera naiz eta or ikusten det sekulako *reket*-pilla” (EJ60,52).
- “Aritzola (Ermani gañean) Estado Mayor ta *tropa* pillla aundiak” (HE23,40).

Bestetan ere atera zaizkigun gertakariak ditugu hemen ere; hots, *ahotz, diru, egur, gorotz, kare, lasto, lur, simaur...* mugatzaile zenbakaitzak alde batetik eta, bestalde, *ezkongai gazte, neska gazte, dotrina galgarri, jesarleku txiki...* determinatzailelerik gabeko izen-sintagmak (hots, kategoria lexikoa ez direnak). Bestalde, izen elkartuak (*haritz ipurdi*) eta juntatutak (*belar eta ahotz, ipuin eta bertso*) ere badira mugatzailearen tokian.

II.2.2.2.7. SAIL

Mugatzaile bizidunak: *ardi, atso, behi, beltz, birjina, erromes, etsai gazte, gizon, gogo-gudari, gudari, idazle, indiotar, jende, lagun, mikelete, mutil, oilo, polizia, tropa, ume, zaldi...* Mugatzaile bizigabeak: *aitorrera, artikulua, bertso, diru, ekonomia, elerti, erdal-euskal, erromeri edo eskurtsio, eskari, euskara, finantza, galde-eskari, gari, harri, irrati, kilometro, koru, kultura, letra, limoi, lur, melokotoi, muino eta mendixka, olerki, patata, piper, tipula, tiro...*

- “eliz-idazle zaharren *aitorrera*-saila” (EC70,74).
- “baserri aundi baten inguruan *ardi*-sail aundi bat ikusi genduan” (EJ49,71).
- “Bilbo’n ikasle nengoelarik, “Kito’n arrebarekin” *artikulu*-saila aztertu izan dut” (EJ51,26).
- “eriosuar duzu *atso*-sail osoa” (HE18,95).
- “baña emengo *bei*-sailak eta emengo zelaiak ikusiko baziñuzte, arrituko ziñateke” (EJ62,88).
- “*beltz* saila bat gure ezkerretik gu inguratu nayeana” (HE23,116).
- “burla egiteko ziri bat bakarrik ala *bertso*-sail baten puska?” (EJ78,52).
- “edozein lehendakari ganorazkok beretzat apartatzen duen *birjina* sail bat” (HE39,105).
- “diru-sall = caudal. Tà batari tà besteari milagroaz anditzen cien beren *diru*-saila edò segurutzen cien itsasoa vidaltcen zutèn oialdia edò oialdiaren saltze òna” (EI31,345).
- “*ekonomia* sailek errazago iraungo dute beste zenbait sailek baino” (EB20,17).
- “Kristau-izarren argi orixtaz urratutako illunpe ta ke min artean, *erromes*-sail bat dabilkizu, gurutzeak diran aña erromes, gizon ta emakume” (EL70,118).
- “¿Gipuzkoa osoan ba ote da gero, urterotsu *erromeri edo eskurtsio*-sailen bat bialtzen ez dionik?” (EL70,244).
- “hala nola *finantza* saila, sail administratibo-politikoak, sail akademikoak, pedagogikoak, soziologikoak...” (EJ52,8).
- “ezagun-berrikoak egin bitarte, *galde-eskari* saila agortu da” (HE17,24).
- “Aberrialdeko *gogo-gudari*-sailletan olerkaria beti da leen-oñean” (HE17, 35).
- “Tabernariak ozte edo *jende*-sail bat tabernara biltzeko usteaz egiña zan noski” (HE50,70).
- “andik bi aldeetara, *kilometro*-sailletan ezker ta eskubi, etzegoan ezer ere” (HE29,81).
- “Atera kontu: aldi artarako abestu oi zan Arantzazun Patiño’ren meza, 12 abotsetarakoa, iru *koru* sailletan” (EL70,168).
- “euskaldun batek *letra*-sailean inoiz burutu duen egitekorik larrienetakoa” (HE27,341).
- “eutsi etxe ta *lur* sail danari, metro bakar bat ez utzi” (EJ69,42).

“Ara nun *mikelete* salla (...) Munuaundi atzera joan dan” (HE23,62).

“Ez naiz ni noski bakarra liburua berehala bazterten duena, *polizi*-sail horretan” (HE27,359).

“*Tipula*-sail ikaragarriak, ordea; ta letxua ta arroza ta dana” (EJ66,121).

“Ango *tropa* sallak bildu” (HE23,60).

Mugatzaile bizidunak eta bizigabeak ditugu. Gehienak zenbakarriak, baina zenbakaitzik ere bada: *diru*, *ekonomia*, *finantza*... lehen ere (*talde* mugakizunari zegokion puntuan) atera zaizkigunak. *Aitorrera*, *eskurtsio*, *galde-eskari* bezalako gertaera-izenak ere aipatzekoak dira. Errepara, nolana ere, orain ez dugula kasu guztietan lehengo *gudatalde*, *txango-talde* elkartuei emandako parafraasia eta zehaztutako osagaien arteko ‘helburua’ erlazio semantikoa ematerik, hemengo *aitorrera saila* ez bide da “aitortzeko saila”. Beste ikuspegi batetik aipatzekoak dira *erdal-euskal*, *galde-eskari* mugatzaileak, elkartuak dira eta.

Bestalde, *sail*-en adiera desberdinak aurrean izanda, esan dezakegu izen bera erabiltzen dugula elkarketa-mota desberdinak gauzatzeko:

- Multzo-izen bezala darabilgu gehienetan; hau da, ezkerreko osagaiak adierazten du zein elementuk osatzen duten saila, eta osagaien artean ‘edukia’ edo ‘iturburua’ harreman semantikoa dago. Ez dugu elkarketatik kanpora jo beharrik elkartu osoaren interpretazio egokia izateko. Hauxe dugu adibide gehienek ulertzeko modua.
- Baina baita zati-izen bezala ere. Elkarketan adierazten ez den beste osotasun baten zatia adierazten du *sail* izenak berak: ataletan, adarretan antolatuta dagoen erakunderen batena. Errepara, esate baterako, adibide honi:

“hala nola *finantza* saila, sail administratibo-politikoak, sail akademikoak, pedagogikoak, soziologikoak...” (EJ52,8).

Eta *sail* mugakizuna duen elkartua eratzen dugu, hain zuzen, adar, atal horren funtsa zehazteko, dela sailaren ‘eginbeharra’, ‘ariketa’, edo ‘edukia’ (bizidunek edo bizidunek osatua den saila), nola hartzen den. Hemengoak ditugu batez ere adibideetako *ekonomia saila* eta *finantza saila*. Baina adibideetatik kanpora joz, giza erakundeetako arlo askoren izenak ere (besteak beste, Eusko Jaurlaritzako edo unibertsitatekoak) gisa honetan ulertuko genituzke.

Beste batzuetan, ‘helburua’, ‘zertarakoa’ ere adieraz daiteke. Esate baterako, hurrengo adibidean:

“ezagun-berrikoak egin bitarte, *galde-eskari* salla agortu da” (HE17,24).

edo, liburu honetako gaia ez den aposizioaz (**H-E/3: 109-119 / 89-99**) baliatuz izena... adierazteko.

“Txiritarenak A, Zavalak *Auspoa* sailean atera zituenez hartu ditut: bitan eta bitara argitaratuen artean eginikako aukera nerea da, ezinbestean” (HE27,73).

Mugatzaile bizidun nahiz bizigabeak onartzen dituzten multzo-izenen artean sartzekoak dira, halaber, askoz adibide gutxiago dituzten *parrasta*, *parrastada* mugakizunak: *filosofo parrastada*, *ur bedeinkatu parrasta*...

“alako *filosofo* parrastada bat edo ba dogula uste izaten dot nik” (HE21,64).

“Badaezpadan *ur bedeinkatu* parrasta bat isuri zuen” (HE39,65).

II.2.2.3. Batez ere mugatzaile bizigabeak daramatzaten multzo-izenak

II.2.2.3.1. META

Izen bizigabeak dira, oro har, *meta* mugakizunak hartzen dituen mugatzaileak: *belar*, *diru*, *harri*, *hondar*, *iratze*, *lore*, *ongarri*... Bada, dena den, izen bizidun bat ere mugatzaileen artean: *oilo*.

“gure *belar* metak joaiki ziren igerika xalupak bezala, eta soro guzia garbitu” (EJ04,73)

“beren azken orenian Sar ditzen itzalgunian *Diru* metaren barnian” (EJ65,61)

“ta gabeetan bide ertzean naiz ezarriko *arri*-meta txiki baten alboan” (EJ50,148)

“*iratze* metatik erortzen nintzelarik” (HE56,21)

“elizatik hil-harrietara / *lore* meta eta hitzaldi/ (HE56,27)

“Hango *oilo* meta!” (EJ53,142)

Meta mugakizunaren definizioa kontuan harturik —“lurrean gauzak elkarren gainean jarri egiten den pila” (EH)—, mugatzaileek izen bizigabeak izan behar dute, eta hala dira ia beti. Gure corpuseko *oilo meta* elkarteak balio metaforikoa du, ‘oilo pila’ adierazteko modu bat baino ez da.

II.2.2.3.2. SORTA⁵⁹

Mugatzaileak: *agiri*, *belar*, *bertso*, *diru*, *elorrri*, *errezibo*, *galdera*, *garagar-gari*, *gari*, *harpide*, *ipuin*, *liburu*, *liho*, *lore*, *menu*, *olerki*, *ondorio*, *ote*, *paper*, *pasadizu*, *trenbide*...

“*agiri*-sorta luze aberats bat” (HE33,63).

“*bertso* sorta onek beste bi ere bazituan” (HE29,115)

“amak txukun asko prestatu zizkion erropak, txorizo, gazta, txokolate, baita *dirutxorta* polita ere” (EJ62,97).

“*elorrri*-txorta ez dek txarra sua bizitzeko” (EJ62,19).

“iztegi bat publikatu naiean, *galdera* sorta bana igorri zion” (HE33,61).

“orduko erdi zorituak arkitzen ziran *garagar-gari* sortak, balak edo molchoak” (EH13,38).

“eskeñi edo ofrezitu zion Jesusek Ait-Eternoari bere *gari*-sort edo bal au” (HE13,40).

“Zuen laguntza orrekin, *arpide* sorta bat sortuko da” (EJ05,170).

“Urruzuno’re *ipui*-sorta bat eskeñi” (H16,9).

“kosta-alde guzietan bildutako *lore*-sortakin nola igo zan bere zaindari laguntzalleagana” (EL70,160).

“bestela ere txit emagarriak dira *menu*-xorta auek” (EJ64,56).

“gerturik daude guk, hogeitertetik onuntza, egin degun *olerki* sorta bat argitaratzeko” (EJ05,192).

“industriaren egiten dituenean, *ondorio*-sorta sortarazten du inbersio hartzailearengan” (EB20,45).

“Begiak gorri, aurpegia beltz, bizkarrean *ota*-sorta” (HE24,64).

“Gamizen *paper* sortak ogei eta amaseitaraino ba dakit badirela Archivo Histórico Nacionalean jasoak” (EJ00,176).

“euskaldun anemikuen *pasadizu*-sorta gexa” (EJ51,32).

“Ez da herri bat, *tren bide* sorta bat baizik” (HE35,75).

Mugatzaile guztiak bizigabeak dira eta zenbakarriak. Ildo honetan, *liho* kontagaitza eta *harpide* gertaera-izena dira aipatu beharrak. *Sorta*-ren adierakide den *buket* mugakizunaz osaturiko *perrexil buket* ere hemen kokatzekoa da.

“eta nahastecatu ondoan mihiaren saldarekin, emacu *perrechil* buket bat” (EJ75,5).

Eta *meta* mugakizuna duten adibide apurrek ere (*diru meta*, *oilo meta*...) hemen dute sailkalekua, mugatzailea bizigabea izan ohi baita, zentzu figuratuan bizidunen bat ere (horko *oilo*, hain justu) ager daitekeen arren.

⁵⁹ Errepara txistukariari. *Xorta* (mugatzaile ‘isurkaria’ eraman ohi duena: *ardo-xorta*, *ur xorta*...) zati-elkarteetan (II.3.2) ikusiko dugu eta.

“Beren azken orenian sar diten itzalgunian *diru* metaren barnian” (EJ65,69).
 “Hango *oilo* meta!” (EJ53,142).

II.2.3. Mugatzailearen gramatika-kategoria

Gehienetan izena da, baina bada aipatzeko gairik atal honetan, ikusten joan garen bezala.

- a) Mugatzaile gisa adjektibotzat ere har zitezkeenak aipatu ditugu, hala nola *beltz, indiotar, mahometar, alfer, gazte, liberal, errenteriar, galego...* Baina gauza jakina da izena eta adjektiboa oso gertuko kategoriak direla, hizkuntza askotako gramatiketan aspalditik jaso izan den bezala, eta euskaraz ere gertakari horixe bera daukagu (EGLU-lab: 37, 134). Hain zuzen ere, adjektibo gehienek, areago jatorria, adina, kolorea edo izakera —hots, gizakiei dagozkien ezaugarriak— adierazten dutenak badira, izen balioa ere har dezakete: kategoria aldatu dutela, “birkategorizatu” direla esaten dugu⁶⁰. Guztiarekin ere, adibideetan atera zaizkigunak izentzat hartzeko eragozpen larririk ez dagoenez gero, halaxe hartu ditugu.
- b) Izen kategoriakoak izanik ere, juntagailuz elkartua izan daiteke mugatzailea: *ardi eta abere-talde, belar eta agotz-pila, giza edo gizon-aldra, mozkor, lapur eta lander-saldo...* Aurreko kapituluan ere ikusi ditugu horrelako adibideak bi osagaien arteko erlazio semantikoak aztertzean eta esan dugu guztiak batera aztertuko ditugula aurrerago (IV.2.1.1).
- c) Edo aldi berean izen-elkartea ere izan daiteke: *basoerdi mordo, eliz kantari talde, erlijio-liburu multzo, garagar-gari sortak, mahats-pikor multzo, ezpatadantzari-talde, haritz-ipurdi pila, eskoletxe andana...* (IV.2.2).
- d) Kategoriaren ikuspegitik bereiz ikustekoak dira mugatzailea determinatzailearik gabeko izen-sintagma (eta ez izena) dutenak; alegia, elkarteetan ohikoak diren kategoria lexikoen ordeztu, sintagmatikoa dutenak. Mugakizun guztietan atera ez bazaizkigu ere, gisa honetako adibide dezente dauzkagu, inola ere, horrelako izen elkartuak salbuespen bakantzat hartzeko. Hona hemen atera zaizkigun batzuk: *burdin ziri mehe andana, neskato ile harrodun andana, (epopeia eta) kantu heroiko andana, ke beltz mordo, dotrina galgarri-pila, ezkongai gazte pilo, jesarleku-txiki pilo, neska gazte pilo, ur bedeinkatu parrasta, erromatar hizkera-talde, liberal mantso talde, abere mutu tropel...*

Baina beste atal batzuetan ere (*gazta zahar pusketa, izerdi eta jantzi busti usaina...*) gertakari hauxe bera topatuko dugunez gero, guztiak ikusi ondoko utziko dugu azalpena emateko ahalegina (IV.3).

Bestetik, berriz aipatuko genuke *pare*-ren mugatzailea den *Témoignage Chrétien* (erdal) izen berezia, elkarketa-mota honetan atera zaigun gisa honetako bakarra.

II.2.4. Osagaien arteko erlazio semantikoak

⁶⁰ Aski auzi korapilatsua da hau. Hor jaso ditugunak izen garbitzat hartzen dituenik, edo hitz berak sintaxi-egituraren arabera izenaren edo adjektiboaren eginkizuna bete dezakeela aldeztu duenik ere bada. Bosquek (1989,1999) sakon aztertua du puntu hau.

Pentsatzen badugu ‘multzoa’ osotasun bat dela, uler daiteke osoa den horren zati, osagaia izatea, hain zuzen, ezkerreko elementua. Alegia, ‘edukia’ (I.5.4.1) harremanaren edo, bereziki mugatzaile biziduna duten elkarteak, ‘iturburu’ (I.5.1) harremanaren arabera uler daitezke maizenik erlazioak. Hartara, hauxe litzateke parafrasia:

“...-EK OSATZEN DUTEN TALDE / MULTZO / SAIL / PILA / MORDO / ANDANA...”

Eta honelaxe ulertuko genuke: *liburu pila* “liburuak dituen pila” edo “liburuek osatzen duten pila” izango litzateke guretzat, *belar-sorta* “belarra duen sorta”, *aingeru-taldea* “aingeruak dituen taldea”, *kontradikzio multzo* “kontradikzioak dituen multzoa”, etab.

Nolanahi dela ere, multzo-izenen bana-banako azterketan behin eta birritan aipatu dugunez, xehetasun gehiagoren beharrea gara multzo-izenetakoren bat mugakizun izanik osatutako izen elkartu guztien berri eman nahi badugu.

- a) Hasiera aldean esan dugu lehen begiratuan pentsa daitekeela multzo bat kontu daitezkeen zerek osatzen dutela; bestela esan, multzo-elkarte hauetako mugatzaile den izenak zenbakarria izan behar duela. Ildo horretan, jaso ere jaso dugu abstraktu batzuk eta gertaera izenak oro har zenbakarriak direla. Mugatzaile biziduna hautatzen duten mugakizunek oro har (*aldra, oste, saldo, talde, tanda, tropel...*) eta gainerakoek ere gehienetan (*andana, eli, pare, sorta* mugakizunek beti, antza) halaxeko jokamoldea dute: dena delako multzoa ‘zer’ zenbakarriez osatzen dugu.

Baina bada salbuespenik: gertaera-izena mugatzailea denean batzuetan ‘helburua’ adierazten bide dugu areago ‘edukia’ baino (*txango-talde...*); nahiz eta gertaera-izena mugatzailea izateak ez duen esan nahi nahitaez ‘helburua’ adierazten dugunik (*kontradikzio multzo, kanoinazo pilo...*) ezta, jakina, kontrara, ‘helburua’ adierazteko ezinbestean gertaera-izenetara jo behar dugunik. Baina, berriz esan, gisa horretako adibideek ez dute auzirik sortzen.

Era berean, ‘edukia’ erlazio-mota beraren barrenean azaltzekoak dira beste arrazoi batengatik egun bitxiak gertatzen zaizkigun: *erromatiar izkera taldea, bertsu-alde, makilkada-talde, ontzi-talde*, mugatzaile bizigabeak dituztenak. Adibideak ikusita, badirudi salbuespentzat jo behar ditugula, *makilkada-talde / ontzi-talde / bertsu alde* baino errazago aurkituko baititugu *makilkada sail, bertso sail* edo *ontzi multzo*. Guztiarekin ere, badirudi *talde* zabaltzen ari dela, terminologietan bederen — Euskalterm begiratu besterik ez dago—, edozein arlotako erdal *grupo / groupe / group* izendatzeko⁶¹.

- b) Arestikoen ondoan han eta hemen esan dugu bazirela mugatzaile zenbakaitzez eraturiko hitzak. Zehatz esan: *kafè, ke beltz, lur, mahats, odol, urre... mordo; diru, errauts... multzo; arto, egur, garo, gorotz, kare... pila; gari, ekonomia, finantza, kultura... sail; gazteria, gizarte, finantza, kultura, politika... talde*. Bi multzo nagusitan sailka ditzakegu mugatzaileok:

⁶¹ K. Mitxelena-ren ondokoa ere hemen sartzekoa litzateke: “Ez naiz eskema hau dela eta luzatuko, bestetan ere emana eta agertua baitut. Bokala, eta bokala huts-hutsik, zuen nahi eta ezko, gainerako hots guztiak ezpaiko zituelarik. Bokal horren aurretik kontsonante bakarra joan zitekeen, inolaz ere *kontsonante taldea*”. (Mitxelena 1979: 179). (Letra etzana gurea da).

- zenbakaitz izanik ere neurgarriak direnak. “Masa” adierazten dute gehienek (EGLU-lab: 40): *arto, garo, kafe, lur, mahats...* Izen horien tankerakoek aise onartzen dituzte multzo-izenek bezalako kuantifikazioa ezartzen duten izenak, besteak beste, zenbakarri bihurtzen dituzte eta: **bost arto / bost arto pila, *bi garo / bi garo meta...* Horietan ere paratu parafrasiak balio du: “mordoaren zati bat da mahatsa”, “mordoak mahatsa du”, “pil(o)aren zatia da karea”, “pil(o)ak karea du”, “sailaren zatia da garia”, “sailak garia du”, etab. Alegia, ‘edukia’ dugu, berriz ere.
- zenbakaitz eta neurgaitz diren izenak ere baditugu, ordea: *ekonomia, finantza, kultura, politika...*; *gazteria, gizarte...* Hemen bi azpimultzo egin ditzakegu: batetik giza jarduerak adierazten dituztenak eta bestetik multzokarizat har ditzakegunak. Oraingoan ere a) puntuko multzo-izenetan gertatzen denaren antzera, lehen motako izen horien eta bere eskuineko multzo-izenaren artean ezar daitezkeen erlazio semantikoak bi eratakoak izan daitezke:
 - o Pentsa daiteke *ekonomia, kultura* eta abarrek *talde*-aren ‘ariketa’, ‘jarduera’ (I.5.11) adierazten dutela, baldin eta eskuineko osagaia erreferente bizidun -areago, gizaki- batekin lotzen badugu.
 - o Eskuineko osagaia bizigabetzat hartuz gero, berriz, giza jarduera horiek har daitezke eskuinekoaren nolabaiteko ‘eduki’ edo ‘osagai’-tzat, edo, *sail*-en atalean arrazoitu dugun moduan, aposiziozko harremanaz ere hitz egin daiteke, apika, kasuan-kasuan.
 - o *Gazteria talde* eta *gizarte talde* dauzkagu azkenik. *Gazteria* eta *gizarte*, biak izen multzokariak dira, horrek dituen ondorio guztiakin: singularrean darabiltzagu izaki bat baino gehiagoz aritzeko, subjektu plurala eskatzen duten *elkartu* bezalako aditzen subjektuak izan daitezke singularrean (*gazteria / gizarte*a elkartu zen vs. **gaztea* elkartu zen), *aho batez* bezalako adverbioak onartzen dituzte (*gazteriak / gizarteak* aho batez onartu zuen vs. **gazteak* aho batez onartu zuen), etab. Izen multzokariak eta zenbakaitzak izanik⁶², harrigarri samarra gertatzen da multzo-izen baten mugatzaileak izatea. Nola ulertu, orduan, ondoko adibideak?

“Zer uste dezu, emen *gazteri* taldea ezpalegoket gaitz-erdi” (EJ07,4).

“bere hierarkiaz, organizazioaz eta aparatuz antolaturiko *gizarte* talde den neurrian” (EJ20,43).

Bi mugatzaileek antzeko ezaugarriak izanik ere, ez dirudi talde mugakizunaz eraturiko bi hitz elkartuok modu berean ulertzen ditugunik.

Horko “gazteri talde” gainerako multzo-elkartuen antzera interpretatuko genuke, “gazte-talde” edukiko bagenu bezala. Alegia, osararen zuzentasuna zuzentasun, erlazio semantikoaren ikuspegitik uler dezakegu ‘iturburua’ dela, erlazio horri eskainitako atalean (I.5.1) *kofradia, konpainia...* mugakizunez eratuak ulertu ditugun moduan: “gazteriak/gazteek egiten/osatzen/sortzen duten taldea”.

Bestelakoa dirudi “gizarte-talde” elkartuak. Osagaien arteko erlazioa orain arte aipatu dugunaren alderantzizkoa da; hots, ezkerreko izenak multzoa adierazten du eta eskuinekoak, multzo-izena izanik ere, ezkerrekoaren atala “gizartearen barnean osatu/bereizi den taldea” edo daukagula dirudi. Horregatik, apika, erlazio

⁶² Esana dugu multzokari guztiak ez direla ezinbestean zenbakaitz, baina testukoak hala iruditzen zaizkigu.

semantikoa ‘osoa-zatia’ (I.5.3) dela esan dezakegu. Hots, adibideko *talde* hor, azken batean, hurrengo atalean aztertuko ditugun zati-elkarteetako mugakizunen antzekoa da, erlazio semantikoei begira bederen.

Honek guztiak hauxe adierazten digu: multzo-izena mugakizun delarik, osatzen ditugun izen elkartuetan erlazio semantikoa batez ere ‘edukia’ edo ‘iturburua’ da, baina ez da bakarra, beste harreman batzuk ere gauza baitaitezke multzo-izenaren eta mugatzailearen artean⁶³: ‘helburua’ (I.5.10), ‘ariketa’ (I.5.11)...

Aipa dezagun azkenik atal osoan zehar, berariaz izan ez bada ere, atze-oihalean izan dugun beste auzi bat: multzo-izenen eta zenbatzaileen arteko harremana, hain zuzen ere. Lehenik eta behin esan behar da auzia ez dagokiela hemengo multzo-izen guztiei; zehatz esan, *mordo* eta, batez ere egun, *pila* edo *pilo* dira tartean direnak, baina ez gainerakoak.

Kontua da euskal hiztuna hitz elkartuak eratzeko ez ezik beste egitura batzuetan ere baliatzen dela bi izen zenbatzaile horiezaz: zehazki esan, zenbatzailedun sintagmak eratzeko eta, adverbioen gisa, aditzak adierazten duena modifikatzeko, ñabartzeko. Beharbada, batetik besterako urratsa ez da hain zaila gertatzen hainbat gertakari kontuan hartzen baditugu:

1. izaera fisikorik ez duten “zerak” ere —hots, izen abstraktu batzuk, gertaera-izenak— konta daitezke: “amets, aitortza... asko egin ditu” □ “amets, aitortza... mordo, pilo(a) (bat) egin du”. Hortaz, ez dugu gauza konkretu eta kontagarrien nahitaezko premiarik izen zenbatzaileen osagarri izateko.

2. *pila* / *pilo*, *mordo* —ez jakin zergatik horiek eta ez beste batzuek⁶⁴— hiztunarentzat ‘ugari’, ‘asko’-ren (ia erabateko) baliokide bilakatu dira, atal honetan ikusi ditugun gainerakoen gaineratik. Adibideek ere erakutsi digute, jatorria jatorri, ez dutela, antza, mota jakineko izenik hautatzen bere ezkerretara. Ia edozein izen-mota “kuantifika” dezakete, horrela esaterik badago.

3. Hortik aurrera, zenbatzaile zehaztugabeen jokamoldea bereganatu dute. Hona XX. mendeko euskararen corpus estatistikoko adibide batzuk, askoren artean:

“Gauza mordo daki; mordo daki txoriez”

“Eta diru asko ekarri al duzue? - Pilo bat!; pilo bat edan arren...”

“Eta zenbat zaldi-kotxe zebilen kalean!, mordo, en gros!”

Esan dugun bezala, ez dugu antzeko adibiderik itxuraz behintzat hautu-murritzapenik ez duten *andana*, *eli*, *multzo*, *mulko*, *sail* edo *sorta*-rekin.

4. Guztiarekin ere, ez dezagun ahantz zenbatzaile zehaztugabeek ez bezala, izen zenbatzaile hauek determinatzailea beharrezkoa dutela sintagma eratzeko, bai izena bai aditza modifikatzen dutenean. Hori dela eta ezinbestekoa da *bat* edo *-a* determinatzailearekin erabiltzea:

Dirurik ekarri al duzue? Bai, asko / *bai, askoa⁶⁵

*bai, pilo, mordo / bai, piloA/bat, mordoA/bat

⁶³ Urrutirago gabe, corpusean ez geneuzkan *musika*, *antzerki*, *kirol*... *taldeak* ere hor ditugu, ‘ondorioa’ edo ‘ariketa’ erlazioaren araberrakoak.

⁶⁴

⁶⁵ Graduataile gisa adjektiboaren eskuinean bai, jakina, “eder askoa da” bezalakoetan.

Hortaz, ez dirudi zenbatzaitzat jo behar ditugunik, kuantifikatzea eginkizun duten izentzat baizik.

II.2.5. Emankortasuna

Maiztasunaren aldetik eta mugakizunari dagokionez, zenbait multzo-izen beste batzuk baino askoz maizago agertzen bazaizkigu ere (adibidez *pila*, *sail* eta *talde*, *saldo* edo *mulko* baino gehiagotan), multzo-elkartea bizi-bizirik dagoela baieztatu daiteke inolako zalantzarik gabe.

II.3. ZATI-ELKARTEAK

II.3.1. Sarrera

Oraingo izen elkartuen bigarren osagaia, mugakizuna, *apur*, *atal*, *erdi*, *hondar*, *izpi*, *kozko*, *kozkor*, *laurden*, *lipits*, *mutur*, *pixka*, *pitin*, *poxi*, *puska*, *pusketa*, *tanta*, *xorta*, *zati*... moduko izena⁶⁶ da. Hortik datorkie zati-elkarte deizioa elkartuei. Hona adibide batzuk:

karisma *apurra*, literatura politiko *apur bat*, hitz-*atal*, haragi *hondarrak*, maitasun *hondar*, ahaidetasun *izpi*, beldur-*izpirik*, belar *izpi*, azukre *koskorra*, harri *kozkor*, belar *lipits*, eri-*mutur*, lukainka *mutur*, lur-*mutur*, kafesne *pixka bat*, lur *pixka bat*, itxaropen *pixkat*, esperantza *poxi bat*, urin *poxi bat*, gatz *puxka bat*, fama *puxka bat*, landare-*puskak*, lan *puska bat*, gazta-*pusketa*, ardo *tanta*, ezti-*tanto*, arno *xorta*; antxoa, sardina edo lantzo *zattia*, diru *zati bat*, gloria *zatiren bat*, hitz-*zati*, irabazi *zattia*, limoi *zati*...

Multzo-elkarteetan bezalaxe, mugakizun hauek guztiek badute esanahian zerbait batean, hain zuzen ere, guztiak zati-elkarteen azpisailen elkartzeko bide ematen diguna. Hiztegi-tako definizioetara joz gero, ohartuko gara izen horien esanahiak erkatuz zati-izen deitu ditugunak bi azpisailen banatzen direla:

- a) alde batetik definizioetan *zati*, *zatici* bezalako hitzak daramatzatenak: *atal*, *zati*, *puska/pusketa*, *izpi*, *hondar*, *kozkor*, *mutur*, *punta*... Beraz, izen hauen mugatzaileak zenbakarriak ez badira ere, gutxienez zatigarriak izatea espero dugu.
- b) Beste alde batetik *apur*, *pixka*, *pitin*, *poxi*, *puxka*... ditugu (nahiz *apur* edo *pixka*-ren definizioetan “zati txiki” azaltzen den, bigarren baliozat jo dugu, “kopuru txiki” balioa maizago azaltzen delakoan). Bigarren sail honetako izenen definizioetan “kopuru txikia”, “une, denbora... txikia” aurkitzen dugunez, izen hauen mugatzailea zenbakarri nahiz zenbakaitz, neurgarri nahiz neurgaitz izan daitekeela pentsa dezakegu, baina betiere bizigabea. Alde horretatik duda egin daiteke kategoria aldatzen ez ote diren ari; alegia, jatorriz izenak izanik ere, “izentasuna” galtzen eta “zenbatzailetasuna”-edo irabazten ez ote diren ari eta, honenbestez, hitz-elkarketaren mugan ez ote dauden. Edo, beste era batera ikusita, apika bi *apur*, *pixka*, *puska*... bereizi behar ditugu: izen betea bata, zenbatzailea bestea. Horrexegatik jaso ditugu goian hitzak determinatzaile eta guzti.
- c) Azkenik *tanta*, *xorta* ditugu, bigarren sailaren barnean ere sar ditzakegunak, kopuru txikiak direnez; baina badute zerbait berezia: definizioen arabera, mugatzaileak isurkaria adierazi behar du. Horrexegatik sartu ditugu sail berezi batean.

Hiru azpisail hauek bereizi ondoren, ohartzen gara zati-izen deitu ditugun hauen artean dagoen esanahi berdintsua multzo-elkarteko izenena baino abstraktuxeagoa dela, baina, hala ere, nolabait antzeman daiteke bateratzen dituen ezaugarri hori. Ikus dezagun zer nolako mugatzaileak ditugun, definizioen arabera ateratako ondorioak zuzenak diren jakiteko.

II.3.2. Adibideen azterketa

II.3.2.1. ‘Zati, zatici’ definizioan daramaten zati-izenak mugakizun

II.3.2.1.1. ATAL

⁶⁶ Gehiago ere badaude. Nola hartzen den, *ale* edo *ondo* (‘banako’, ‘izpi’: *belar-ondo*, *ile-ondo*) hemen sartzekoak dira, baina ez dute ia adibiderik eta ez dira gure aurreko sailkapenetan (H-E/1, H-E/4) aipatzen. *Ondo*-ren gainean, ikus II.6.2.1 eta II.8.2.14.

Honako mugatzaileak ageri zaizkigu *atal* izenaren ezkerrean: *arto, buru, gastu, gorputz, hitz...*

“urre zarra baño oriagoko *arto* atalekin” (HE19,27).

“beste *gastu*-atal guztiak baino bi aldiz gehiago handitu dela” (EB20,24).

“itzen bat edo *itz* atalen bat onetara ta bestetara esaten dan edo esaten zan” (EJ06,79).

Mugatzaile zenbakarriak eta zatigarriak dira, uste genuen bezala.

II.3.2.1.2. HONDAR

Mugatzaileak: *azaro, belar, bizi, dokumentu, ekain, elur, gaztanbera, haragi, harrokeria, harrotasun, hauts, istil, liho, maitasun, misterio, oilasko haragi, paper, xokolet, urte...*

“Azaro-hondarrean edo Abenduaren lehenetan Iruinearatu izango zen Gamiz” (EJ00,178).

“Goihenetxek eta Lakarrak ezagutarazi dituzten *dokumento*-kondarrak, Oihenartek XVIII mendean bildu zituen gaitzizen mordoak, toponimia xehearen azterketak” (EJ51,66).

“*Gaztanbera* hondarrak bildu gero eta zuri-zuria gainetik banatu zien” (EJ53,38).

“antiguotarrak ere gure *arrokeri*-ondarra badugu-ta...” (EJ51,17).

“alare sartu zaizte barnera *auts*-ondarrak” (HE18,123).

“ez duzu *lio*-ondarrak utziko jo bage” (HE18,106).

“eta dardar dixuri barrero kolkuan, *maitasun* ondar oneik gorderik goguan” (EJ63,18).

“Eguiten ducu hachiz bat *oilasco haragui* hondarrequin dela aratcheki edo bildoski” (EJ75,17).

Hiztegietako definizioen arabera, *hondar* mugatzaile zatigarriekin elkartuko dugun izentzat hartu badugu ere, bi eratako izenekin azaltzen zaigu: *azaro, haragi, gaztanbera, liho* bezalakoekin, hots, zati daitezkeenekin; baina baita *harrokeria, maitasun, hauts* bezalakoekin ere. Bigarren kasu honetan, *pixka* edo *apur*-en baliokidetzat har dezakegu *hondar*, erabat sinonimo ez bada ere. Bestetik, denbora-izenekin (hilabeteak, urtea...) elkartzean ‘bukaera’, ‘azkena’ adiera hartzen du.

II.3.2.1.3. IZPI

Mugatzaileak: *ahaidetasun, amorekortasun, argi, axola, belar, beldur, duda, esperantza, ilargi, irribarre, lekukotasun, liho, negu, urgulu, urre, zalantza, zorion...*

“ez *ahaidetasun* izpirik, markes, duke eta kondeekin” (HE33,5).

“gortina tartetik *argi* izpi bat sartzen da” (HE35,93).

“egia da genero literarioez *axola* izpirik ez duela” (EJ54,749).

“batera ta bestera dabil kulunka nere *belar* izpi mea” (HE34,54).

“*beldur*-izpirik ez nik” (HE17,9).

“maitatzen bazaitut, itaundu dautsozu leyuan klisk-dagin *illargi* izpijari” (EJ63,16).

“argitasunezko *irribarre*-izpi bat ernetzen zaio ezpanetan” (EL70,182).

Hemen ere bi eratako mugatzaileak ditugu, *belar* edo *liho* bezalakoak, zati daitezkeenak, zein *esperantza, ahaidetasun, amorekortasun, lekukotasun* bezalako izen abstraktuak. *Izpi* azken hauekin elkartzean *poxi* edo *apur*-en baliokide genuke, baina ñabardura berezia duela: askotan ezezko perpausetan erabiltzen dugu ‘bat ere (ez)’, ‘fitsik (ez)’, esanahiarekin. Azkenik, *argi, ilargi* edo (zabal jokatuaz) *irribarre* mugatzaileekin “gorputz argitsu batek jaurtikitzen duen argi lerroa” adiera du *izpi*-k, eta, alde honetatik, *behi-esne* motako izen elkartu arruntetako ‘iturburua’ erlazio semantikoaren moldekoekin batean aipa daiteke, *izpi*-ren adiera zehatzagoa dela medio⁶⁷.

⁶⁷ Era berean, oroi ‘osoa-zatia’ harremanean genioenaz (I.5.3).

II.3.2.1.4. KOSKOR⁶⁸/KOSKO

Koskor-ek bi kategoria ditu jasoak hiztegietan, izena eta adjektiboa. Esan beharrik ez dago liburu honi lehena besterik ez dagokiola⁶⁹, *Eguzki*-lore izen elkartuen eratzaila den neurrian. Adibideetan *kosko* aldaera ere jaso dago (*harri-kosko*).

Mugatzaileak: *azukre, burni, egur, goxo, harri, orburu*..

“gozo-ontzitik *azukre*-koxkor bat atera” (HE17,18).

“*Goxo*-kozko bat erakutsi besterik gabe haruntz-honuntz erabil zitekeen” (EJ00,181).

“*arcosco*, lur apur, olo garau, auts ta loigarri guztietati” (HE20,151).

“bere ondora *arri* koxkor bat tira nion” (EJ49,64).

“tartean, erdi aldean eta abar, beste *egur* koskor batzuek” (HE29,61).

“giltzatu-kutxatik norbaitek *ogi* koxkor bat artu duela-ta” (EJ03,15).

“Kasko-kopetetan *orbura*-koskorak eta ezpain-matrailletan zauri-aztarna bat baiño geiago nabari zaizkio erortzean egiñak” (EJ03,32).

Mugatzaileak bizigabeak eta konketuak dira guztiak, horko *goxo* ere hala baita, *gozoki*-ren parekoa, alegia.

Mugakizun hau polisemikoa da eta horrek eragina du eratzen dituen hitz elkartuetan. EHK *koskor* izenean adiera hauek bereizten ditu: 1. Puska txikia. 2. Azalean edo gainalde batean gertatzen den handitu gogorra. 3. *Belaun koskor*, belaun hezurra, belaunburua. Azken honen adibidea badugu, ‘osoa-zatia’ harremanean kokatua. *Matela*-kosko ere han sailkatua dago.

Puska txikia adierazten dute *azukre, goxo, egur*... koskorrek. *Harri-kosko* ere (adibideko *arkosko*) horrela itzultzen du OEhk: “Pedrezuela, pedazo de piedra, cascajo”. Bigarren adierarekin, azaleko handitu gogorarekin, lot daiteke *orbura*-koskorra.

Ogi koxkor nola ulertzen den izan daiteke puska txikia edo, baldin eta ogiaren muturrak (aurre-atzeetan eta ogiaren zehar dituenak) badira —ogiarene zati egosienak, erreneak eta beltzenak izan ohi direnak—, “gainaldeko handitu gogorra”. Eta *harri* koxkor, berriz, *harri*-alderen parekotzat jotzen du EHK.

II.3.2.1.5. MUTUR

Mugatzaileak: *ate, baioneta, baratze, behatz, beso, bide, eri, esku, eskubi, fusil, hari, harkaitz, harri, hegi, ilar, kale, kandela, karta, legatz, lukainka, lur, mendi, ohe, oin, paper, zaku*... Zati daitezkeenak eta bizigabeak ia guztiak.

“*bayoneta* muturrari arto mokotxa jarri genion” (HE23,70).

“eta nola jarraitu zuen tiro miresgarri horrek *besa*muturretik begirako bidea?” (EJ53,119).

“eta Arratzain-en oinean, Igara-ko *bide*-muturrean beraz” (EJ51,93).

“nola orai ez milika *eri*-mutur hori, ez balitz ere haren garbitzeko baizik?” (EJ72,65).

“*eskumuturrarekin* egiten zuan, banan bai azkar eta ondo” (EJ49,76).

“Hortik *eskubi* muturreko jendeak ere askotan bere buruari sozialista izena jartzea” (EI94,83).

“*ari*-mutur guziak lotu bear dira” (HE17,74).

“*arri* muturretikan *arri* muturrera pauso egiñaz” (HE19,117-118).

“Dametako iturriya Rondilla kalean zegon, Donostira aldeko *kale* muturrean” (EJ76,27).

“etxera ere egin bearko diagu *karta*-muturren bat” (EJ62,50).

⁶⁸ *koxkor* eta *kozkor* aldaera adierazkorak ere barne hartzen ditu.

⁶⁹ “Belokiren anaiari artalde koxkor bat erosi zion” (HE50,53), “lege zarreko bazkari koxkor bat egin genduan” (EJ64,180)...

“etxebizitza ere, bere *lur*-mutur eta guzi, modu onean” (EJ03,13).
 “*oin*-muturretan dabil, dun indarra bilduz” (HE18,137).
 “Bererik ez duela *paper* muturtxo bat ere hautsiko” (EJ00,196).
 “Txillaretan bera, *zaku* mutur bat izkutatzen ikusi du...” (HE57,101).

Mutur izenaren esanahi ugaria ongi ispilatzen da jaso ditugun elkartuotan: mutur fisikotik hasi (*bayoneta muturra* bera) eta *eskubi muturreko* adibideko abstraktuaren artekoa; tartean ‘ertza’ ere dagoela, *kale-mutur* adibidean ikus daitekeen bezala.

Mugatzaileak direla eta, berriz, *eskubi* berariaz aipatzekoa da, zatigaitza izateaz gain, oso adiera zehatzekoa baita: ideologia edo pentsamolde bat. *Eskumutur* ere erabat lexikalizatutzat har daiteke.

II.3.2.1.6. PARTE

EHk *parte* izenari ematen dizkion bi adieretatik lehena duena da zati-elkarteetan kontuan hartzekoa, hau da, ‘zattia’ adierakoa (bigarren adierako mugakizuna, ‘alderdia, aldea’, II.8.2.3 puntuan aztertzekoa litzateke, *Hitzaurre* modukoekin batean).

Mugatzaileak: *denbora*, *egoitza*, *etnologia*, *historia*, *irakasle*, bizigabeak gehienak.

“Gure arreba Iruñera jina da orai bizitzera eta menturaz, *denbora* parte bat hor egon gira” (EJ68,52).
 “Bertsularia Etxahunian egoiten da bertze bi haurrekin, *egoitza*-parte batean Ibar bordariak bizi direlarik” (HE43,9).
 “San Juan iturrietara erromes joatea eta Donibane goizean belartzako intzetan oinutsik ibiltzea, eguzkia dantzan irtetzen dela esaten den egunsentian, oraindik ezaguna dugu Gipuzkoan. *Etnologia* parte hau estudiatu dutenen artean, eritzi bat baino gehiago badira” (EB87,49).
 “Hala dakar Manuel Iribarren-ek, Navarra, ensayo de biografia lanaren *historia* partean” (EB87,50).
 “Irlandarrak behar izan zituzten deitu Latinaren jakitea lur-handiko ikastetxetan berpiztekotz. *Irakasle* parte hau begiratu zuten Inlandarrek (sic) Goidel misionisten zabalkundeari esker (HE30,227).

II.3.2.1.7. PUNTA

Gure corpuseko adibideetako mugatzaileak bizigabeak dira: *arkaitz*, *behatz*, *burruntzi*, *dorre*, *elorri*, *eri*, *hanka*, *hegal*, *hosto*, *kanoi*, *letra*, *luma*, *mendi*, *oin*, *pareta*, *sudur*, *titi*, *zango*, *zigarro*, *zume*...

“sasitan kakoturik gelditu zala ardi zarren bat, edo arako antxume txoro ua, erpiñik-erpin zebilelarik, *arkaitz*-puntako koxka-koxkan berandutu zala” (EL70,22).
 “ormatik zintzillik dagon ur-bedeinkatu ontzian *beatz*-puntak bustita, “gurutze santuaren señaileagatik” eginazten die” (EJ03,29).
 “Gaurregun, lengoa izan-arren, txiki ta motzaska agiri da *torrepunta*, itotzen dagola ematen du” (EL70,237).
 “*Eri* puntaz erakusten zioten Murtutsen jar-lekua... hutsa! Jendearen harritzea! (EJ72,61).
 “Kulata lurrean eta *kainoi* punta aulkian, besoak lasaitu zituen” (HE39,49).
 “beldur naiz ilko zala, bestela onezkero *letra* punten bat egingo zuan” (HE19,29).
 “hona, berriz, “Don Quixote” haren ahotan edo *luma*-punta” (EJ00,182).
 “andikan gorago dago, Itziar aldera, *mendi*-punta bat zorrotza” (HE29,10).
 “gaur *pareta*-punta batzuk besterik ez da ikusten” (HE53,42).
 “*sudur*-punta apur bat gora begira duten emakume zoragarri oiek” (HE57,110).
 “ontziyak garbitutzen nizkaten txit merke, *zigarro* puntak eta mantenuen truke” (EJ76,28)

Mugakizunari dagokionez, EHk emandako definizioari erreparatzen badiogu ikusiko dugu *punta* izenari hiru adiera ematen dizkiola eta, horiek definitzeko, ‘mutur’ definitzailea darabilela: “1. Mutur edo buru zorrotza *arantza puntak*; 2 (Irud) *sudur punta*, *mendi punta*...;

3. Gauza meheen muturra edo burua *makilaren punta, oin punta, zango punta...*”. Hiru adiera horietan biltzen dira, beraz, gure corpuseko adibideak ere.

II.3.2.1.8. PUSKA/PUSKETA

Puska bi adiera nagusi balitu bezala hartuko dugu⁷⁰. Bata *pusketa*-ren sinonimoa, hemen doana. Bestea, *pixka, apur* eta kidekoen sailean azalduko dena. Dena den, mugatzailea zati daitekeena denean ez da beti erraza erabakitzen bi adieretatik zein dugun begien aurrean. Horrelakoetan, mugatzailea zati daitekeena denez, sail honetan sartuko dugu izen elkartua.

Mugatzaileak: *aratzeki edo lumaki, arta, arto, banilla, baratzuri, barazki, bertso, bide, birika, burdina, burra, denbora, denboraldi, dotrina, egur; egur eta harri, esne-koipe, exalota, gazta zahar, haragi, haragi egosi, harkaitz, harri, harri bizi; harri koskor, ikatz edo kisu; hosto; illuntasun, eta errieta, kanela, kondaira, landare, limoi, lukainka, lur, mami, marko, ogi, oiha, orri, papiro, periodiko, piper-hauts eta gatz, tipula, txerri, txilar, txingar, txingar azpiki, urde; urdai edo txorizo, urre, zitron axial, zur, zurgai...*

“nire *birika* puska bat bezala” (HE35,98).

“emacume aurreguin berriac utzi dezaquee meza *dembora* pusca batean” (HE07,49).

“itandu biar deutsagu *dotrina* pusca bat” (HE20,154).⁷¹

“kazueta batean intxaur azi bat aundiko *esne-koipe* puska bat urtu” (EJ64,46).

“alkandora, barrengo musu-zapi eta abar... baita lukainka mutur, *gazta zar* puzketa, piku idor, bi dozena arrautze, tipul ta baratzuri-kordak” (EJ03,17).

“Mia-ondakiñak *arri-bizi* puska txikiak besterik ez dira” (EF92,14).

“Gainera, *arri-koskor, ikatz edo kisu* puskaz bereala bereiz ditezke txingo-txingoka ibiltzeko baztertxoak” (EJ03,9).

“idaz-lan au ez da ipuia, *kondaira*-puska bat baizik” (HE16,139).

“Emaçu casola batean bi cullera ur, *chingar azpiki* puchca bat, tipula eta carrote” (EJ75,29).

“*Urdai edo txorizo* pusken ordez izango dira” (EJ62,72).

“sartzen çayote chilo bacochian *citron* achal puchca bat” (EJ75,47).

“Xirpilla ta zerrautsa bai, *zurgai* puxka txikienik artzen ez dio uzten” (EJ03,23).

Ohart gaitezen, berriz ere, *gazta zahar, haragi egosi, harri bizi, harri koskor*, hau da, sintaxi mailako mugatzaileak ditugula, eta ez kategoria lexikoak (IV.3).

II.3.2.1.9. ZATI

Mugatzaileak: *adar, aldi edo denbora; antxo, sardina edo lantzoi, aran eta muxika, arto, auka, aurpegi, bakailao, diru, ele, erretilu, folklore, gari, gibel, gloria, gorputz, gudari, gurutze, hanka, hitz, hondartza, ikusi ezin, irabazi, jan, jela, landare, limoi, lukainka, lur, neke, ogi, ogi mami, oiha, oilasko, okela, periodiko, sintagma, solomo, urdai, zeru...*

“erortzean mutikoak *adar*-zatiak kentzen omen zioten suzko zezena bezala kalez-kale erabiltzeko” (EB87,46).

“*aldi edo denpora* zati baten ondoren, auxe jazo zan” (HE21,95).

“celan... daruaquen *arto* zatija edo catillucada saldia” (HE20,105).

“nik itxas-bedar *auka*-zatiak baino ezpadira ere, zerbait beintzat, amasei orri badakustaz eskuartean” (EJ06,71).

“onek eukiarren *diru*-zati bat ta etse iminiak neuretzat” (EJ70,126).

“*ele*-zati’ askotara —gehiegitara— har daiteke, ez ‘silaba’ tzat bakarrik” (HE27,355).

⁷⁰ Berriz ere bazter utzi dugu adjektiboaren eginkizuna eta ‘handi’ esanahia edo duen *puska*: “a zer neska/mutil puska!”, etab. Aurreraxeago aipatuko dugu.

⁷¹ Adibide hau b) sailean ere joan zitekeen, *apur, poxi*, eta baliokide den *puska*-rekin, nola ulertzen den.

- “urtearo honetako gastronomia aditzera emango dugu, ugari bezin aberatsa dugun *folklore* zati baten bidez” (EB87,27).
- “au guzia zertako? *Gari* zati bat, edo zenbait ale bildu naiez” (EH13,145).
- “ta sekulako *glori* zatiren bat irabazten dutenak, zenbait irabaziko gauzak izain dira” (HE13,138).
- “gure *gudari* zatiya isil-isillik etsayengana aurreratu zan” (EJ81,72).
- “Orra gorputzaren aldetik bati datorkion *gurutze*-zattia, edo neke gogorra” (HE13,112).
- “Herriak anhitzetan *hitz*-zati batzuk jan egiten ditu” (HE26,281).
- “*ikusi ezi* puskatxoa eta zatitxoa ere bazeukakioten” (HE16,100).
- “saltzaileek, bere *irabazi* zattia handitzeko modua ikusten dutelarik” (EB20, 31).
- “arnariak, eltzen danean, *jan*-zattia eskeintzen digu” (EF92,7).
- “Gertutzen dira koktel-ontzi batean *jela*-zati batzuek” (EJ64,106).
- “zañaren urren datorren *landare*-zattia ta lurretik gora ateratzen dana txortena da” (EF92,5).
- “*limoi* zati bat edo *ogi mamin* zati batzuk emoten deutsuez” (HE44,37).
- “*Neke*-zati astun pisua; ta, gogoz artzen ezpada, ta gure Jaungoiko maitagarriaren izenean” (HE13,112).
- “loturak eta korapiloak erabat askatu, urratu eta *sintagma* zatiak haizetan bezala” (EJ80,28).

Mugatzaile guztiak izenak dira (*irabazi, jan...* ere izen bihurtutzat jo daitezke eta); izen bizigabeak: dauden animalia izenak jaki izenak dira, animalia hilenak, alegia, ez bizirik daudenenak. Gehienak zati daitezkeenak izan arren, badira beste zenbait (*gloria, gurutze* (adibidean ‘neke’-ren baliokidea baita), *ikusi ezin, neke...*) zatigaitzak direnak. Ikusten dena da zenbait kasutan *apur, puska* edo *pixka*-ren baliokidetzat jo behar dela *zati*, Azkuek bere definizioan jasotzen duen bezala, baina, apika, hiztegi horretan ematen zaion baino hedadura handiagoa duela⁷²: hots, ‘kopurua’ adierazten bide du, ez egiazko ‘zattia’.

Bestalde, *gudari-zati* berezi samarra dugu: ezkerreko osagaia izen biziduna duen adibide bakarra. Errepara, bestalde, elkartu osoa bizidun bailitzan erabilita dagoela. Ulertzeko modua ere ez da beste gainerakoena bezalakoa (“mugatzailearen atala”), baina ezta “mugatzailearen kopurua” ere. Areago da: mugatzaileak osatzen du mugakizuna; zehatz esan, “gudariak zattia osatu”; *gudari talde* edo *gudari multzo* jarriko balu bezalaxe. Horregatik, nahiz eta *zati* izena izan elkartuaren eskuinean, elkartuaren esanahiaren eta osagaien arteko harreman-motaren arabera, beharbada, “Multzo-elkartetan” (II.2.2.1) hobeki sailkatuta legoke adibide hau hemen baino.

Sail honetan sartzekoak lirateke, halaber: *baratxuri xixter, belar lipits, ingi txatal* edo *zezin troko* bezalakoak, arras adibide gutxikoak.

Lehen sail honetako adibideak aztertu ondoren, hau da atera dezakegun ondorioa: *koskor* eta, neurri batean bederen, *mutur* kenduz gero (*atal*-en adibide aski ez dugu jaso) beste gainerako zati-izenek bi adiera dituzte, ‘zattia’ alde batetik, ‘kopurua’ bestetik.

II.3.2.2. ‘Kopuru’ definizioan daramaten zati-izenak mugakizun

Sail honi dagozkion adibide guztiak ikusi ondoren ekarriko ditugu iruzkinak.

II.3.2.2.1. APUR

Mugatzaileak: *abantaila, aintza, argi, argumentu, arrasto, askatasun, astiune, atsedan, autonomia eta diferentzia, bizi, denbora, diru, duda, elkar-hartu-nahi, esne, euskaldun sentipen, euskara, fede, fruta eta berdura, gaiztotasun, gasolina, haize, hartu-eman, hauts, hondar, igarmen, iluntasun, indar, industria, itsaso, itzal, jaki, kapital, karisma, konfiantza,*

⁷² “porción, pedazo, parte”, dio Azkuek.

laino, legamia, lo, lur, nagitasun, neke, ogi, oinarrizko literatura politiko, ondasun, otoitz, prestutasun, puntu, saio, sakrifizio, salbuespen, sentipen, ur, zerbeza...

- “eskain zaiezute *aintza*-apurño bat” (HE17,36).
 “kriseiluaren *argi* apurrera ez zezakeen ondo bereiz” (HE39,15).
 “augaitik ioataz neure *astiune*-apurrak” (EI99,150).
 “multinazionalen bilakaerak gizarteari ekarri dion azken *autonomia eta diferentzia* apurrak galdu” (EJ52,17).
 “zuetarik dut bihotzean nere *bizi* apurrak eman daukedan gogorik hobereana” (HE59,6).
 “Geu ilteko arriskuan garabiluz *diru* apur batzuk irabaztearren” (HE21,107).
 “Bañan, egia esan, *duda* apur bat gelditu zaigu Ramosenak ote diran” (EJ76,71).
 “eder zait, batez ere –ta ontan, bada-ezpada aitor dezadan, nere aoz, ez inorenaz, diardut– euskaltzale alderdien arteko *elkar-artu-nai* apurrenik sumatzea” (HE17,74).
 “beiai ateratzen dieten *esne* apurra” (HE50,40).
 “lekutan jagok lenagoko aren euskera apurra” (HE21,88).
 “*fruta ta berdura* apur bat baino besterik ez eban hartzen” (HE44,23).
 “bai nere gorputz au ere ilezgero laster *auts* apur bat bertzerikan ezta” (EJ50,75).
 “agiri zan *itxaso* apurra berde baltzeran irakindua egoan” (EJ59,17).
 “*jaki* apur bat mutil aiek eman ezpazidaten ere” (HE50,66).
 “Egia da sindikatuek ere badutela sarritan *kapital* apurren bat” (EJ52,35).
 “eta eguiten dozu egun bat bere *compiantza* apur bat ez deustuben echian” (HE20,71).
 “*legami* apur batec ore gucia jaiqui edo oranzatzen du” (HE40,142).
 “eguberdi ostian *lo* apur bat eguinda” (HE20,137).
 “gutziz osoaren presta gaiten irabaztera ta manatu den *neke* apurra konplitzera” (EJ80,103).
 “biurtzen ziran eta berean, norbere etxera, ango *ogi*-apurrak ere erliki batzuek bezela etxekoai eramana” (EL70,99).
 “militantziak behar omen zuen *oinarrizko literatura politiko* apur bat eginez joateko euskaraz” (EJ20,7).

Guztiak izen bizigabeak dira; era askotakoak, gainera: abstraktuak, konkretuak, zenbakarriak, zenbakaitzak, neurgarriak.... Azpimarra ditzagun *oinarrizko literatura politiko* eta *elkar-artu-nai* mugatzaileak. Lehena determinatzailearik gabeko IS eta bigarrena lexikalizatutako, izen bihurtutako, perpauos osoa dira (IV.3). Bestalde, azalpen sakonetan sartu gabe, aurrera dezagun adibideok erakusten dutela bi determinatzaile daramatzala *apur* osagaiak adibide horietan: *bat* eta *-a*.

Hemen sailkatu dugu *erdara-puntu* elkartearen ere, *puntu* mugakizunaren adiera *apur* mugakizunarenetik oso urrun ez dabilelakoan:

“Nai litzake *erdera*-puntua duan izen bat, erderaz eta euskeraz entenditzeko modukoa” (HE16: 82).

II.3.2.2.2. PITIN/PIXKA/POXI

Mugatzaileak: *amodio, ardo, ardo zuri, arrain, arrantxo, arrazoi, arreta, bakealdi, barre, bizkorgarri, bortxa, broma, burra, buru, denbora, diru, disgustu, egur, elur, erdara, errespetu, esperantza, etsamina, exalota, gatz, gogo, goxotasun, gurin, haize, hamaiketako, haragi erre, hego haize, iluntasun eta errieta, iraupen, irin, itxaropen, izpiritu, jendetasun, kafe, kafe bero, kafesne, kanela, karitate, karga, kirats aire, laguntza, limoi, lo, lotsa, lur, lursagar irin, luzamen, modu, neke, odol, ogi, ondasun, ostia, paper, patata, piper, piper-hauts eta gatz, poz, salda, samurtasun, siesta, sos, soziologia, su, sukre, talo, tipula, tomate, ur, ur-esne, urin, uzta, zalantza, zentzu, zerbeza...*

Ikus dezakegunez, mugatzaile guztiak izen bizigabeak dira. Hauen barnean, era guztietakoak daude: konkretuak, abstraktuak, neurgarriak, zenbakarriak... Bestalde, berriz ere determinatzailearik gabeko IS dugu *pixka*-ren ezkerretara: *haragi erre, kafe bero* (IV.3).

“Lizardi’k bultzatu zuen, *amodio* pittin hori bere poeman sartzera” (EJ51,30).
 “otz be begoala ta, *arrain* piska bat be bageunkala ta... asi ginan etxeruntz” (EJ59,95).
 “noizean bein *pake aldi* pixka bat” (HE23,43).
 “*Diru* poxi batzu ere ba bitartekoer atxikitzeke eman” (HE59,37).
 “patatak zuritzera ta *egur* pixka bat egitera-edo, egunean bi edo iru mutil joan bearra” (EJ66,19).
 “Ia *errespetu* piska bat edukitzen noiz ikasten dekan” (HE35,59).
 “eguiten dezu zure *examiña*-pisca, eta vicitza ontzeco asmoa, eta bucaeran eguiten dituzu fede” (HE07,237).
 “*iraupen* poxi bat nahi baduzu, ukan dezan zure muntrak” (HE32, 29).
 “kabalekin egun guzia ibili ondoan *jendetasun* poxi bat ikasten dutelarik” (HE59,47).
 “*Kafe bero* pittin batek ez dizu kalterik egingo” (EJ03,18).
 “Goizetan *kapesne* piska bat edo, obeto esanda, *ur-esne* piska bat artu ta ‘estruziotara’” (EJ62,71).
 “Articulu hau icendatzen da: ‘*Caridade* pisca bat’” (HE40,115).
 “baña ez da emengo *neque* pisca, eta naigabe apurracgatic asi bear eriotzari deitzen” (HE07,112).
 “bota bear zaizka koipeari *pipe-puts eta gatz* piska bat” (EJ64,74).
 “*ostia* pichcac aphenac billcean” (HE06, XJ).
 “*samurtasun* pitin bat behar zuen bederen” (HE39,14).
 “*zalanza* pixka ori aita Luzuriagak gin gerta diteke bearbada, asiera batean” (EL70,134).

Ostia pixka adibidean *pixka*-k ‘zati’ balioa du, definizioan azaltzen den bigarren balioa. Era berean, hemen sartzekoak dira *pizar/pixar* mugakizuna dutenak:

“*Sos* pixar batzu aitak igortzen ziozkan” (EJ04,20).

II.3.2.2.3. PUSKA

‘Kopuru’ adierarekin azaltzen denean, honako mugatzaileoi elkaturik aurkitu dugu: *ardo, arte, asti, atsedan, azukre, babarrun, baltseo, berde, diru, edukazio, esne, espezeria, etxe, fama, gatz, hauts bero, irin, ikusiezin, koraje, lan, marinada, mejora, odol, ore, parranda, pattar, siesta, su, tankera, uzta, zailtasun, zurruta...* Izen bizigabeak hauek ere, abstraktu zein konkretuak, neurgarriak nahiz neurgaitzak. Berriz ere *hauts bero* IS dugu mugatzailearen tokian.

“*atsedan* puxka bat artu daizuen, neure yaioturiko yazoera bat edatsiko dautsuet” (EJ06,73).
 “eta, nere aserre biziari eskerrak, uste det *baberrun* puskatxo bat bilduko degula aurtan” (EJ79,111).
 “Zer derizkiozu gure gazteriaren dantzari? sosochoa esateko, *balseo* puskacho bat ere gabe” (EJ07,2).
 “iritaya, *berde* puska bat idiari ekartzeko” (HE22,74).
 “Ala izan ez dadin, *esne*-puxka bat saldu bear danean txantxilarekin barren guztia nastu egin bear da” (EF92,94).
 “eta aar *hauts bero* puchca baten gainean oren laurden bat, oguia trempa dadin” (EJ75,4).
 “*ikusi ezi* puskatxoa eta zatitxoa ere bazeukakioten” (HE16,100).
 “Ezekitenak, *koraje* puxka bat artu eta itz batzuk ikasten asi baitziran” (EJ66,17).
 “arrantxoa, banan *mejora* puxka batekin” (EJ66,47).

‘Kopurua’ adierazten duten bigarren saileko zati-izen hauen adibideek beste datu bat ere ematen digute: ‘kopurua’ adierazteko ohikoena da *apur/pixka/puska + bat* erabiltzea. Zati-izen hauek *bat* zenbatzailearekin elkaturik erabiltzen ditugu, zenbatzaileen balioa hartuz. Horrela, bada, egituraren deskripzioa ez bide da [lan pixka] + bat, [erlijio liburu] + bat litzatekeen bezala, baizik: lan + [pixka bat], [apur bat], [puxka bat]...; alegia, lan asko, lan gutxi bezalaxe.

Eta horrek hitz elkartuen mugara daramatza horrelako zati-elkartek, lehen genioen bezala. Baina hiztegieta *apur, pixka...* izenak direla eta “kopuru txikia” adierazten dutela ikusteak makurtu gaitu hitz-elkarteen artean aipatzera, nahiz mugakoak izan.

Azkenik, *apur, pixka* eta *puska*-ren arteko ñabardurak azpimarra ditzakegu. *Apur* eta *pixka* ia erabateko sinonimoak badira ere, *puska*-k, askotan, kopuru handixeagoa adieraz dezake. Hona Koldo Mitxelenaren adibideok horren erakusgarri:

“Ez gaitu, ez, *kritika pixka batek, edo puxka batek*, geure burua ukatzera erakarriko” (“Asaba zaharren baratza”, 1960; MEIG IV,33).

“Esaera polita da eta badu gainera *bere egia pixka eta puxka*” (“Euskalkien ageriko aurpegia”, 1983; MEIG VI,129).

Areago, *puxka*-k izena modifika dezake, esate baterako, adjektiboen modura, ondoko adibideek erakusten duen bezala. Esanahia ‘handia’ da.

“Eta denda-etxetxo. Ta baitare, gaur ejerzizioak ematen diraneko *etxe-puxka* bikaña” (EL70,214).

“Ayek dangatekoak eta ayek *espal-puskak!*” (HE22,17).

II.3.2.3. *Isurkari-motako mugatzailea eskatzen duten zati-izenak*

II.3.2.3.1. *TANTA/TANTO*

Mugatzaileak: *ardo, azahar-ur, bitter, edari, esne, euri, ezti, iruntz, izerdi, kaleko euskara eta erdara, limoi, limonada, malko, negar, odol, ozpin, txuritasun, ur...* Oro har, guztiek adierazten dute isurkaria: *limoi* ere fruitua ez baina fruitutik ateratzen dugun ura adierazteko erabilia baitago. Salbuespenak: *kaleko euskara eta erdara ttantta* eta *txuritasun tanto* ditugu. Badirudi salbuespentzat jo behar ditugula, lehen esan bezala, zati-elkarte hauetan erlazio semantiko bakarra izaten baitugu. *Ttantta/tanto*-k balio metaforikoa dute hemen; azken batean, *apur* edo *pixka*-ren baliokideak dira.

“egingo da ore bat, erantsiaz *azahar-ur* tanto batzuek” (EJ64,39).

“iru edo lau *bitters*-tanto ta azukre-auts gutxi bat” (EJ64,106).

“*edari* ttantta bat har ote genezake gertakizuna behar bezala ospatzeko?” (EJ53,107).

“*iruntz* tanto bat zan okaran baltzean” (EJ50,161).

“gero irabiatu egin ditut eta *kaleko euskara ta erdara* ttantta batzuk bota deusadaz gainera nahasturari, baserri usain gehiegirik izan ez dagian” (HE44,9).

“burua makurturik eta noizik beñean *negar* tantoa zeriola” (HE19,113).

“eta nire becatuen gomuteac botarazo eutsuzan lurreguiñoco *odol* tantac” (EC61,93).

“*xuritasun* tanto batzuen bidez alaituak” (HE27,333).

“Itxaso zabalean *ur* tantoa dirudi Israelek” (EC70,25).

II.3.2.3.2. *XORTA*⁷³

Mugatzaileak: *ardo, esne, ezti, fleur d'oranger, herde, izerdi, minagre, olio, pattar, salda, ur, ur bero...* Guztiak isurkaria adierazten dutenak, *tanta*-ren sinonimoa denez *xorta*. Laranja-lorea adierazten duen frantses hitza ere erabili dute mugatzaile moduan.

“ene alaba, etzeukanagu *ardo-xortarik* etxean” (HE18,56).

“erleek hegan egin zuten ihes *ezti*-sorta zeriela bidean” (EJ53,18).

“sucriarekin arauca, goma adragant pochi bat herraisa *fleur d'oranger* chorta bat” (EJ75,34).

“kokosa behera jausten baitzitzaion *herde* xorta zenbait, aldi batez” (EJ72,34).

“ez baitute oraino kopetan *izerdi* xortik ezagun” (HE59,41).

“cure ahatia utcacu irakitcerat su eztian emendatuz noicetic noicera *ur bero* chorta batekin ez dadin lot itcultcian” (EJ75,112).

Mota honetakoa da *xokolet-tintta* elkartearen ere, mugatzailea isurkaria den heinean eta mugakizuna OEhk “isurkari kopuru txikia” moduan definitzen duenez:

⁷³ *Sorta* mugakizuna multzo-elkartetan ikusia da (II.2.2.3).

“Hain xuxen, uste gabetarik *xokolet*-tintta bat hunkitu baitu eriak” (EJ72: 65).

II.3.3. Mugatzailearen gramatika-kategoria

Zati-izen hauekin elkartzen ditugun mugatzaile gehienak izenak badira ere, zehaztasun gehiago zor diogu puntu honi.

- a) Izen bihurtutako adjektibotzat hartu dugu *berde* mugatzailea, *berde puska bat* esaten dugunean (‘belarra’ baita) eta beste horrenbeste esan daiteke *jan zati-z*, aditza izen bilakatu eta mugatzailearen betekizunean baitugu.
- b) Multzo-elkarteetan bezalaxe, hemen ere zenbaitetan mugatzailea juntagailuz elkarturikoa izan daiteke —*antxoa, sardin edo lantzoizati, urdai edo txorizo puska, fruta eta berdura apur, harri-koskor, ikatz edo kisu-puska...*—; aldi berean izen elkartua izan daiteke —*esne-koipe puska, burujabetza-apur, arratsalde-askari puska, ogi-mami puska...*—; determinatzailearik gabeko izen-sintagma ere izan daiteke: *oinarrizko literatura politiko* apur bat, *ardao zuri* pixka bat, *haragi erre* pixka bat, *kafé bero pittin* bat, *gazta zahar* pusketa, *haragi egosi* puska bat, *harri-bizi* puskak, *hauts bero* puxka bat... (aurretik ere esan dugun bezala, guztiak batera aztertuko ditugu (IV). Nolanahi dela ere, segida hauek ispilatzen dute lehen ahotan genuen zalantza; alegia *pixka, puska, pittin* eta besteren ondoan beti *bat* baldin badugu, sortzen den galdera da noraino gabiltzan elkarketan edo ez ote gabiltzan zenbatzailedun sintagmen barrutian.

II.3.4. Osagaien arteko erlazio semantikoak

Zati-elkarteetako osagaien arteko erlazio semantikoa ‘osoa-zatia’(I.5.3) bide da —hots, mugatzaileak osotasuna adierazten du eta mugakizunak zatia—, baina zehaztasun batzuk egin beharrean gara. Mugakizuna benetako ‘zattia’ da mugatzailea zatigarria denean, (II.3.2.1) atalean sailkatu ditugunak batik bat. Mugatzailea hala ez denean osotasun horretatik kopuru bat (ez nahitaez zattia) interpretatzen dugu eskuarki (II.3.2.2) sailean jaso ditugunak batez ere, baina baita arestikoko batzuk ere.

Erlazio semantiko hori dela eta, mendekotasunezko izen elkartu arruntetan aztertu dugun ‘osoa-zattia’ erlazio semantiko berari zegokion atalean (I.5.3) esan dugun moduan, haiek eta hauek badute elkarren antzik, baina baita alderik ere. Ekar ditzagun labur-labur:

- Hango mugakizunek eta hemengoek mugatzailearen atala edo zattia adierazten dute. Biek ala biek beste norabait igortzen gaituzte erreferentzia osatzeko, baina zati-izenok, haiek ez bezala, ez dute berezko erreferentziarik *puska bat* ez da ezer zerbaitena ez bada. Egituraren ikuspegitik osagarria dute hemengoek⁷⁴, erlazionalak dira.
- Bestetik, haiek ez dute zenbatzaileen eginkizunarekin inolako harremanik; hemengoek, berriz, ikusi dugu harreman estua dutela.
- Oroit, gainera, guztiak “osoa-zattia” harremanaren arabera aditu ahal izanagatik, hauek (baina ez haiek) ‘edukia’ harremanean ere uler daitezkeela: “tipula puskan tipula badago”; “puskak tipula du”.

⁷⁴ Honetxek lotzen ditu, hain justu, II.2 ataleko multzo-elkarteekin.

II.3.5. Emankortasuna

Adibideen azterketan zehar garbi geratu da bizi-bizirik dagoela zati-izenez osatutako izen elkartuen mota.

II.3.6. *ordu-erdi, libra-laurden, frakzio-elkarteak*

Argitaratutako lanetan atal berezian jaso bagenituen ere (**H-E/1: 77 / 72** eta **H-E/4, 11.2.1.: 92 / 78**), badirudi ez dagoela arrazoi erabakigarririk “banakuntza-elkartea” ere deitu izan den hau zati-elkarteetako atal berezizat ez hartzeko, izan ere, mugakizuna —ikus berri ditugun mugakizunak bezalaxe— beti da ‘zattia’; osotasun baten ‘frakzioa’.

Bestetik, berriz, gogoan behar da izan honako bereizkuntza hau (**H-E/3, XII.1.: 183 / 163**)⁷⁵:

Lehen balioa hartzean [hots, ‘bi parte berdinetan zatitu den osotasunaren zati bakoitza’] *erdi*, bigarren osagai izan ohi da ‘X + erdi’ elkarteak osatuz (*Eguzki-lore* elkarteetan aztertzen direnak): *bide-erdi, naranja-erdi...* ‘Mutur edo ertzetatik distantzia berera dagoen puntu edo aldea’ adierazten duenean, berriz, lehen osagai izan arren, ‘erdi + X’ elkarte horiek (*Ertamerika, erdibide, Erdi Aro...*) erabat *Eguzki-lore* elkartetzat hartzen ditugu. Hau da, beste edozein menpetasunezko izen elkarturekin ez dute inolako desberdintasunik, *erdi* beste edozein izen gisa agertzen zaigu eta.

Bada, horko bi *erdi* horietatik, lehenaz ariko gara orain, oro har, “Izena + *erdi*” osaerakoak diren, *erdi* mugakizuna duten eta ‘osotasun baten frakzioa, zattia’ adiera duten elkartuez. Bihoa esana, halaz guztiz, aipameneko bigarren adierako *erdi* hori ere, kokapena adierazten duena —‘gune’ adierakide antzekoa duenak, alegia— oro har izenaren eskuinean darabilgula, hitz-elkartuaren mugakizuna dela (*bihotz erdi, gauerdi...* ‘bihotzaren gunea’, ‘gauaren gunea’); kontrako hurrenkerako adibide bat edo beste ere izan arren (*erdibide* ‘erdian dagoen bidea’). Nolanahi dela ere, horiek guztiok ez dira atal honetan aztertzeoak, *Eguzki-lore* motakoak izan arren⁷⁶, “Zati-elkarteak” ez dira eta.

Aldapa, bidatz, bide... eta antzeko mugatzaileak dituzten hitz elkartuetan batik bat, askotan ez dago zehatz jakiterik noiz adierazi nahi izan den ‘osoaren erdia’ eta noiz ‘ertzetatik distantzia berera (luzeran nahiz zabaleran⁷⁷) dagoen puntua⁷⁸.

“geiago ezinda, *bide*-erdian utzi bearra izan zuten kamio ua urte batzutan atsedean artzeko” (EL70,260)

“... jende-pillo ikusgarria igo zen Arantzazura, birjiñari erbeste-bidean laguntzera. *Bide*-erdian, Altzibar’ko parean, Oñati osoak itxoiten zion” (EL70,187).

Bestetik, berriz, ‘zati’-aren adierari eutsita ere, badirudi ez direla guztiak galga berekoak, alegia, badagoela hor tarte bat 0,5 zehatza adierazten dutenetatik ‘osoa ez dena’, baina ez nahitaez ehuneko berrogeita hamarra-edo adierazten dutenak arte.

⁷⁵ Bistan da gaineko *erdi*-z osatuak albo batera uzten ditugula, aipatu lanean aztertuak daude eta.

⁷⁶ Halaxe jaso ditugu *behi-esne* motakoaren artean, batez ere ‘garaia’ (*Erdi Aro*) eta ‘lekua’ (*erdi-bide, erdi-maila, erdi-parte...*) erlazio semantikoetan.

⁷⁷ “bide-erdian eseri ziren, inori pasatzen ez uzteko” edo “autoren batek harrapatzea nahi ez baduzu, ez ibili bide-erditik, joan bazterretik”... Azken batean, ‘distantziaren’ beste aditzeko modu bat litzatekeela dirudi.

⁷⁸ Beste hizkuntza batzuetan baliabide lexiko desberdinak dituzte guk *erdi* bakarria daukagun tokian: gazt. *medio / mitad / centro* (*medio camino / la mitad del camino / el medio, el centro del camino...*). (**H-E/3: 187-188 / 167-168**).

II.3.6.1. Adibideen azterketa

II.3.6.1.1. ERDI mugakizuna

Mugatzaileak sailkatuta emango ditugu, azalpena errazteko asmotan. Ikus ditzagun lehenik izen bizigabeak, eta bere sema edo ezaugarri semantikoen artean, zatigarriak izateaz gain, nolabaiteko ‘neurria’ edo dutenak. Neurtzeko balio duten zerak direnez, neurri-izentzat jo ditzakegu *arroa, baso, dozena, hamabiko, kana, kilo, kilometro, libra, litro, mende*⁷⁹, *metro, mila, milioi, minutu, ontza, ordu, pauso, urte...*

Esan daiteke izen-elkarte hauetan gauzatzen den semantika-harremana 0,5en ingurukoa dela, neurri garbia adierazten duten bezainbatean.

“*arrua* erdia ta *arrua* laurdenarekin ere egiten zituzten gaztaiak” (HE39,45).

“*nik dozen* erdi bat arraultz prejitu jan nuan, bi talorekin” (EJ49,112).

“*Amabiko*-erdi bat arraultzak egunean ez du asko balio” (EF92,71).

“Ollerias'tik igarotzen dan bidetxabaletik *kilometro* erdi bat ibili ondoren” (EJ60,140).

“amorrai aundi ederrak eta pinak ziran, *libra*-erdi ingurukoak” (HE29,112).

“*Litro* erdi bana ardo ematen zidaten” (HE29,112).

“bainan neure aburuz Augustin Xaho, *mende*-erdi bat lehenago bizi izanagatik” (EJ61,8).

“*mila*erdi bana bertso dituzte” (EJ00,187).

“Orduko salsak izandu ziran Kaiserrentzako gaziyak: *milloi* erdi bat gizon baditu gure lurrian utziyak” (EJ79,21).

“ez zuen, halaz ere, *pausu* erdi bat baizik eman” (EJ151,35)⁸⁰.

“oso gutxik esan dezakete ez dutela gaztaroan *ordu*-erdi bat bederen galdu” (HE35,4).

“amak eztizu *urtherdi*” (HE60,180).

Neurria adierazten ez duten izen zatigarriak ditugu bestetik: *aloger, arta koskol, bertso, egur, gorputz, kaskal, oilategi, puska, sagar, soldata, talo, tronko...* Horien artean, *bertso, tronko* eta *egur* —lehen biak adiera batean— bereziak dira neurri-izenen gisa ere erabil daitezkeelako. Horrela hartzekotan, goiko sailekoekin batean aztertzeakoak dira.

“legorrean irabazten dabe *aloger* laurena edo *aloger* erdia (*soldata* laurena ta *soldata* erdia esan oi daroe)” (EJ59,84).

“... *ere* enklitika delarik ezin joan daiteke bigarren *bertso* erdiaren hasieran” (EJ80,39).

“Bañan ori *bertso* erdia da. Neri bai lagunak osorik esan” (EJ66,157).

“Onek bi *bertso* eta beste baten erdiya ditu. *Bertso* erdi ori nundik sortu duen ezin somatu” (HE61,121).

“leitzarrak galdua du *egur* erdi batez” (HE18,139).

“*gorputz*-erdika dute dantza jatorra ari” (HE18,107).

“intxaur pare bat erditik eginez *kaskal* erdi bana itsasi zion hanka bakoitzean” (EJ53,61).

“Oiloa ala *oilategi*-erdia dakark hor?” (EJ53,61).

“adiskidantzak egin zituela esan zion emazteari eta eskutik jan ziola *puska* erdia” (EJ53,98).

“Ebagi du bereala ederki *tronko* erdia” (HE22,17).

Bigarren multzo honetako ulertzeko modua da, oro har, ‘bi parte berdinetan zatitu den osotasunaren zati bakoitza’. Bi zatietako bakoitzak gordetzen ditu osoaren ezaugarri berak.

Hirugarren multzo batean bil ditzakegu mugatzaile zatigaitzak: *asmo, bokal, egia, gizon, jai, kalte, uste...*

“edo ceren vicitza ontzeco *asmo*-erdiren batzuek izan cinduan” (HE07,287).

⁷⁹ Mugatzaile hau bera izanik, beste adiera (‘gunea’ edo) duen adibiderik ere ez da falta: “XV'gn. eunkida[mende]-erdian jausi zan beti-betiko” (HE24,123); “XVIII'gn. mende erdian, razionalismua kristautasunaren oiñarriak” (EC70,27).

⁸⁰ *Hitz erdi*-tik ez dabil hagitz urruti.

“lau silaba baizik ez zaio zor, -i- bokalerdi bailitza ebaki behar da” (EJ80,46).
 “*egi*-erdia baita, oso osoa ez bada ere —nai izatea ahal izatea— dela” (HE33,5).
 “gomuta eban bere aitak esaten eutsala zaldun bat mundurako *gizon* erdi zala” (EJ70,81).
 “Egun au *jai* erdia da, eta gure errietan goicean Meza enzunda, joaten dira gueyenac lanera” (EC48,555).
 “Errepublikuari *calte* erdi bat eguin eutsalaco” (HE20,213).
 “*uste*-erdi bakar duena, buru-loka dabil” (HE18,57).

Sail honek baditu zenbait gauza harrigarri, zati-elkarketarekin oso ongi uztartzen ez direnak. Lehenik eta behin, galdetzekoa da nolatan mugatzaileak zatigaitzak izan daitezkeen zati-elkarteen osagai; harrigarria da, halaber, *gizon* mugatzaile biziduna hor topatzea, orain arte mugatzaile bizigabeak besterik ez baitugu ikusi, espero izatekoa den bezala.

Gogoan eduki behar dugu izen zatigarriak (neurri-izenak alde batera utzita) mugatzaile gisa dauzkagunean, lehen esan dugun moduan, zati daitezkeen zeren erdiek gordetzen dituztela zatikizunaren ezaugarriak; esan nahi da, *sagar-erdia*, ‘sagarra’ da, *egur-erdia* ‘egurra’ den bezalaxe. Bestalde, bai neurri-izenak bai izen zatigarriak ditugunean, euskaraz hurrenkera aski hertsia dela dirudi, *erdi*-k izenaren eskuinean du kokalekua eta ezinezkoa du ezkerreko osagaia izanda hitza eratzea: **erdi libra*, **erdi kilometro* bezalaxe, **erdi sagar*, **erdi kaskal*...

Izen zatigaitzekin, berriz, gauzak bestela dira. Batetik, ez daukagu eskura zatigarrientzat eman dugun interpretazioa: *bokal-erdia* erabili duen autoreak ez du esan nahi “bokala zatitu eta bitan eginez alde bakoitza”, *gizon erdia*... ere ez: erabat ‘bokala’ edo ‘gizona’ ez den beste zerbait izendatu nahi da. Alegia, EHk ‘erdizka’ adiera zehazten dion *erdi* eskalarra (Zabala 2013) litzateke hauxe.

Esan bezala, hurrenkerak ere badu garrantzirik: badirudi hurrenkera askeagoa izan daitekeela halakoetan —*erdi* + izena / izena + *erdi*—: *gizon erdi* / *erdi gizon*, *erdi bokal* / *bokal erdi*, *jai erdi* / *erdi jai*... parekoak dirudite. Beste lan batean jasoak dauden *erdi emakume*, *erdi arrain*... adibideen ildotik (H-E/3: 185-188 / 165-168), badirudi hauetan guztietan *erdi* graduatzaile moduan erabiltzen dugula⁸¹ eskuineko izena modifikatzean (EHk *adlag*. kategoria alboratzen dio); bestela esan, *erdi ase* motatik gertuago bide gabiltza —nahiz eta eskuineko osagaia hauetan izena ez izan— *ordu-erdi*-tik baino. Baina, guztiarekin ere, adiera eskalarrerako askoz ohikoagoa da “erdi + izena” osaera (*erdi gizon*, *erdi jai*...) kontrakoa (*gizon erdi*, *jai erdi*...) baino. OEHk ere honelaxe dio: “**precediendo** a verbos, sustantivos, adjetivos y adverbios”. (Letra lodia gurea).

Aztertzen ari garen multzo horretako *asmo*, *egia*, *kalte*, *uste* zatigaitzak (baina kontagarriak) itxura guztien arabera zatigarri bilakatuak ditugu; “usteak erdia ustel” esapideak eta goiko adibide argigarriek (“*egi*-erdia baita, oso-oso ez bada ere”) ispiatzen duten moduan.

Bestetik ditugu plural zentzua atxikia dutenak⁸²: *gauzak*, *egurrak*, *konpainia*, *oilategi*... Lehen biek singularrean erabilia beste esanahi bat hartuko lukete (*gauza erdia*, *egur erdia* ≠ *gauza erdiak*, *egur erdiak*) konta eta zati daitezkeen izenak baitira. Besteak, berriz, talde-izen edo izen multzokaritzat jo ditzakegu. Erabateko aditzeko modua da, beraz, ‘taldearen erdia’, dela plurala erabilia, dela singularra erabilia ere, pluraleko balioaz.

⁸¹ “Iñork etzuan bear bentajik Txapelketa bat izanda, *egur* erdiak zutikan eta beste erdiak etzanda” (EJ69,38).

⁸¹ Hizkuntza erromanikoetan “intransitivo” direlako aurrizkiek egiten dutenaren antzera (Gràcia; Azkarate 2000). Mugatzaile bereziko elkartuez aritzean itzuliko gara gai honetara (III).

⁸² OEHn jasotzen da *erdi* + iz (pl.) hurrenkera, gure adibideotako balio berbera duela: “[Midikuak] debekatzen derautza *erdi gauzak*, apetitu guti utzten dio konplizera”. Ax 306 (V 204).

“boltsan dituen *gauza* erdiak lurrera erortzen zaizka” (HE35,117).

“gutxi, *konpañi* erdi edo” (HE23,46).

“oiloa ala *oilategi*-erdia dakark hor?” (EJ53,61).

Azkenik, ihartutzat joko genituzke *alderdi*, *baxoerdi*, *gaitz erdi*⁸³, *galtzerdi*, *hitzerdi*, *pitxerdi*, *txikierdi*... Jatorrizko hitzez hitzeko esanahitik urundu eta bere esanahia finkatua dute, iharbidea guztiek eta modu berean erabat burutua ez badute ere. Honela, esate baterako, *gaitz erdi* esapidea zeharo bestelakotua dugu, adberbio gisa-edo besterik ez darabilgu eta. *Alderdi*-k, nolana dela ere, bi esanahi bereganatuak dauzka: politika arlokoa bata, zabalagoa bestea, ‘alde’-ren baliokidea.

“*alderdiek*, taldeek eta taldetxoek” (HE27,374).

“arazo beraren beste *alderdi* bat aztertuko dugu” (EI94,16).

“*baxoerdi* mordo ugaria edan dugu alkarrekin” (HE34,55).

“goserik ez baleuko, *gaitz* erdi, bana otzak inoiz ez lako gosea sortzen dau” (HE21,38).

“neska gazteak *hitzerdi* konprenitu zuen” (HE32,21).

“zapatac zutochubetan ta *calcerdijac* çacuan eseguita” (HE20,94).

“Egunero *pitxerdi* bat ardo erateko sortuko bagendu” (HE22,31).

“ardandegira jo eben *txikierdi* bana edateko” (HE21,30).

Lehengo *pausu erdi bat* (“ez zuen, halaz ere, *pausu* erdi bat baizik eman”) eta *calte erdi bat* ere, *erdi*-ren erabilera metaforikoa dela medio, beharbada, hobeto leudeke sail honetan, forma ihartuak ez izanagatik. Errepara, gainera, lehena ezezko perpausean erabili dutela.

II.3.6.1.2. LAURDEN mugakizuna

Honako izenak ditugu mugatzaile: *aloger*, *arroa*, *azpantar-pieza*, *bertso*, *bizi*, *egun*, *ilargi*, *kana*, *mende*, *ordu*, *soldata*... guztiak bizigabeak eta zati daitezkeenak.

“legorreen irabazten dabe *aloger* laurena edo *aloger* erdia (soldata laurena ta soldata erdia esan oi daroe)” (EJ59,84).

“*arrua* erdia ta *arrua* laurdenarekin ere egiten zituzten gaztaiak” (HE29,45).

“eta loturik aien pundan *aspandar pieza* laurden bana” (HE19,66).

“*ere* enklitika delarik ezin joan daiteke bigarren bertso erdiaren hasieran; ezta, areago dena, *bertso* laurdenaren hasieran ere” (EJ80,39).

“gaur goizean *egun* laurdena galdu dik” (HE61,172).

“Ainziko urerat *illargi*-laurden bat erori zan zuri, yori gauko zitu zori” (EJ50,46).

“mingaña *kana* laurden bat kanpora” (HE19,101).

“*mende* laurden abantxu ezkondu ginela, laguna gertatu zaut nik behar bezala” (EJ68,43).

“*ordu* laurden bat da hitzegiten ari natzaizula” (HE35,48).

Adiera, zabal esan, ezkerreko izenaren 0,25 adieraztea da. Zenbat eta mugatzailea neurria adieraztetik hurbilago (*kana*, *ordu*...) orduan eta zehatzagoa da delako adiera.

II.3.6.2. Mugatzaileen gramatika-kategoria

Laurden-en mugatzaile guztiak, gure adibideetan bederen, izen bizigabeak eta zati daitezkeenak dira; hauetako gehienak izaritzat, neurritzat har daitezke. *Erdi*-ren mugatzaile guztiak ere bizigabeak dira, *gizon* izan ezik.

Neurri-izenak era askotakoak izan daitezke: isurkarien bolumena adierazten dutenak (*litro*...), luzera (*metro*, *kana*...), denbora (*ordu*...), zenbatekoa (*hamabiko*...), etab. Neurri

⁸³ OEHn balio berbera duela atzekoz aurrerako ordena duenik ere bada: *erdi gaitz*. Autore bakarrak erabilia da, ordea.

zehatza adierazten dutenetatik kanpo, badira zati daitezkeen izenak (*hitz, bertso...*) eta baita zati ez daitezkeenak ere. Zati-elkarteak aztergai izaki, lehen begiratuan bederen, harrigarri samarra gertatzen da, esan dugun bezala.

Mugatzaile-mugakizun hurrenkera dela eta, sail honetan azterturiko adibideak “izena + erdi” hurrenkerakoak direla ikusi dugu. Hurrenkerak batzuetan adieran —eta elkarketan izan behar duten kokapenean— ondorioa du: *erdi bertso* (‘bertso izatera iristen ez dena’) / *bertso-erdi* (‘bertso (oso)aren erdia’, ‘bertsoaren guneko parte eta ez hasiera, ez bukaera’, testuinguruaren arabera)⁸⁴; gutxitan, esana dugu, aski parekotzat jo daitezkeela dirudi: *erdi gizon, gizon-erdi...*

II.3.6.3. Osagaien arteko erlazio semantikoak

Laurden mugakizuna duten hitz elkartuek ulertzeko modu bakarra dutela dirudi, alegia, oro har, ezkerretara duten izenaren 0,25. *Erdi*-k baino interpretazioetarako tarte txikiagoa uzten bide du.

Erdi bestelakoa dela ikusi dugu. Mugatzaile zati daitezkeenak, bizigabeak, konkretuak eta, batik bat, izariak adierazten dituztenak ditugunean, mugatzaileak osoa eta mugakizunak aurrekoaren 0,5 adierazten du: ‘osoa-zatia’ harremana bete-betea gauzatzen da. Zati daitezkeenak bai, baina neurri zehatza adierazten ez badute, berriz, ‘erdia’ modu laxoagoan hartu behar dela dirudi. Zatigaitzak, bizidun eta bizigabeak ditugunean, garbiagoa da nagusi den adiera ‘osoa ez dena’, ‘gutxi gorabeherakoa’, eskalarra (*gizon-erdi, egia-erdi, bokal-erdi...*) dela. Hauen adieren eta hurrenkeraren inguruko xehetasunak eman ditugu.

Bestetik badaude etorki eta osaera bereko formak, baina zein bere adiera berezia duena, hots- eta esanahi-aldaketa gertatu izanaren edo ez izanaren ondorio: *meza-erdi* (‘meza osoaren erdia’) ≠ *mezerdi* (‘sagara’, ‘mezaren erdiko zatia’); *egun-erdi* (‘egun osoaren erdia’) ≠ *eguerdi* (‘goizeko hamabiak’); *gau-erdi* (‘gau osoaren erdia’) ≠ *gauerdia* (‘gaueko hamabiak’)... Adibideok erakusten dutenez, lehenak bakarrik lirakeke zati-elkartean kokatzekoak, bigarrenen adiera ‘gunea’ adieraztetik gertuagoa baitago.

Azkenik aipatu beharko genituzke elkartu ihartuak, osagaien arteko jatorrizko erlazio semantikoa ia galdua baitute, hartu duten adiera dela medio (*galtzerdi, baxoerdi...*).

II.3.6.4. Emankortasuna

Erdi-k emankortasun handiagoa du *laurden*-ek baino. *Erdi*-ri dagokionez, neurgarrien erdia adierazteaz gain, ikusi dugu bestelako mugatzaileekin ere ageri dela. Egun ez da harritzekoa, esate baterako, “egun-erdiko arduraldia” edo antzekoak entzutea. Emankorra dela esan daiteke. *Laurden*-en emankortasuna txikiagoa da, esan den bezala; beharbada, adiera zehatzagoa izateak ere mugatzen du forma berrietara zabaltzea. Bestetik azpimarratzekoa da hitz elkartuok neurri-sintagmetan agertzeko aukera handia dutela (“Andre Madalen laurden-erdi bat olio”, etab.).

⁸⁴ Edo, beharbada, *erdi prezioan (saldu)* ‘aski/oso merke saldu’ *prezio erdian saldu* ‘prezioaren ehuneko berrogeita hamarrean saldu’, euskaldun batzuentzat bederen, nahiz OEHN lehenaren itzulpentzat “a mitad de precio” eman.

II.4. MOTA-ELKARTEAK

II.4.1. Sarrera

“Mota-elkarteak” deitu diegu mugakizuntzat *era, giro, gisa, klase, manera, modu, molde, mota, suerte, tailu...* izenak dituztenei.

liturgia-*era*, apostolutza-*era*, herio-*giro*, jende-*giro*, dolu-*gisa*, bekatu-*gisa*, ur-edo olio-*gisa*, apustu-*klase*, arbola-*klase*, gerla-*manera*, bizitze-*manera*, ahosabai-*modu*, arma-*modu*, autoritate-*modu*, bizi-*modu*, eguraldi-*modu*, giza-*modu*, baserri-*molde*, bentura-*molde*, bekatu-*molde*, bizitze-*molde*, arrain-*mueta*, amodio-*mota*, benerazio-*mota*, bertso-*mueta*, bizitza-*mota*, estatu-*moeta*, euskara-*mueta*, abantail *suerte*, beztimenda-*suerte*, bizio-*suerte*, madarizione-*suerte*, jende-*tailu*, ioko-*tailu*...

Mota- edo modu-izen hauek batean duten esanahia nola bil daitekeen hobeto ikusi ahal izateko hiztegi-tara joz gero, honakoaz ohartuko gara:

- a) Ia izen guztien definizioetan *modu, manera* edo *era* izenak ditugu. *Klase* da salbuespen bakarra, baina adibideak aztertzean ikusiko dugunez, *mota*-ren baliokidea da zenbait kasutan eta, alde honetatik, *mota* bezalaxe defini daiteke; hots, “izateko era berezi apartekoa” adieraz dezake. Beraz, izen guztietan dugun sema edo ezaugarri semantikoa ‘modu’ dela esan daiteke eta, horrenbestez, modu-izen dei diezaiekegu *mota, modu, klase, suerte* eta gainerakoei. Adiera hori izanik ere, badirudi horietako mugakizun batzuen esparrua zabalagoa dela beste batzuen bano. Esate baterako, *mota* euskalki guztietan erabiltzen dena bada ere, *gisa, manera, suerte, tailu...*, ipar-ekialdeko euskalkietako testuetan irakur daitezke batik bat eta *modu*, berriz, batez ere Hegoaldekoetan.
- b) Izen batzuek, modua adierazteaz gain, beste adieraren bat ere badute, hala nola *klase, mota, molde, giro* edo *tailu*-k. Beste batzuen adiera bakarra, aldiz, ‘modua’ da. Horretan oin hartuta, modu-izenen artean bi azpisail egiteko aukera dugu: adiera bakarrekoea eta adiera bat baino gehiago dutenena.
- c) Azkenik bada definizio hauetan kontuan hartzeko beste datu bat: gehienetan “pertsona/izaki edo gauzek duten izateko era” aipatzen zaigu. *Modu* da puntu honetan bereizten den izena, “pertsona edo izaki” definizioan azaltzen ez denez gero. Honek pentsaraz diezaguke *modu* izenarekin elkartzan ditugun mugatzaileak bizigabeak izango direla eta beste mugakizunek, berriz, edozein motatako mugatzaileak onartuko lituzketela; bizidun nahiz bizigabeak. Berehala ikusiko dugu hau guztia egia ote den.

II.4.2. Adibideen azterketa

II.4.2.1. ERA⁸⁵

Honako mugatzaileak aurkitu ditugu adibideetan: *apostolutza, kristau, liturgia, marxismo, prediku(?)*...

“*liturgia*-erak, *predika*-erak, *apostolutza*-erak, *kristau*-erak aldatu nahi ziren” (EI94,44).

“castrismoarekin *marxismo* era berri bat sortuko da” (EI94,75).

Autore beraren adibideok besterik ez ditugu aurkitu adibidetegian. Duda egin daiteke *predika* hori noraino izan daitekeen izena (*prediku*) eta noraino aditzoina (*predika(tu)*). Esaldi

⁸⁵ *Zabalera, luzera...* eta, apika, ‘modua’ ez baina ‘ekintza’, ‘ariketa’ adierako *sarrera, igoera...* izen eratorriena eratorbidean aztertzeakoa litzateke.

bereko *liturgia* eta abarrek izentzat hartzera bultza dezaketen arren, aditzoin izatetik gertuago dagoela dirudi: “predikatzeko era” eta ez “prediku era”. Balioaren aldetik, *modu*-ren pare-parekotzat jo daiteke *era*.

II.4.2.2. GISA⁸⁶

Mugakizun honetako adibiderik ez dugu aurkitu gure corpusean, baina, interesgarria zelakoan, OEHko adibideak hartu ditugu kontuan. Guk aztertu adibideetan izen bizigabeak besterik ez ditugu aurkitu mugatzaileen artean: *bekatu, dolu, koplá, tormenta, ur edo olio... Mota*-ren baliokidetzat har daiteke.

“Zonbat *bekhatu* gisa da?” (Belapeyre, *Catechima laburra*, I, 52).

“*Kopla*-gisa batzuk gozatzeko Sakramentu Sanduaren laudarioetan” (Lizarraga, *Koplak*, 137).

“Ifernuak asma-araz zetzaken *thormenta* gisa guziak” (Duhalde, *Meditacioneac*, 182).

“Gantzukaria, usai oneko *ur edo olio*-gisa bat” (Iraizoz, *Yesukristo gure Yaunaren Bizia*, 371n).

II.4.2.3. KLASE

Hiztegietako definizioek pentsarazten duten bezalaxe, edozein eratako mugatzaileak ditu: bizardunak, bizigabeak, konkretuak, abstraktuak...: *abisu, apustu, arbola, borroka, fusil, ganadu, gizarte, harri, indar, jende, karobi, kontrabando, langile, mundu, pertsona, politika, usain...*

“*apustu* klase ori euskal errietako lengo zarrak asko ezaguru zuten” (HE29,31).

“hitz egin zuen langileriaz, klase arteko burrukaz, *burruka*-klaseaz, alienazioaz” (HE39,11).

“ta ez esne-beiarenak bakarrik, basarriko *ganadu*-klase danena baizik” (EH50,48)

“gizarte mailak, *gizarte* klaseak eta Treveriskoa beti ahotan duen jendeagana” (HE27,392).

“*langile* klaseak zuzentzen duen gizartean” (HE37,113).

Azken bi adibide hauetan *klase*-k ‘*modu*’-arekin zerikusi handiegirik ez duen adiera du: ez da *mota*-ren baliokidea, *maila*-rena baizik; hau da, “gizarte-maila edo etorki bera eta antzeko ezaugarriak dituzten pertsonen multzoa”.

II.4.2.4. MANERA

Mugatzaileak: *bizitze, gerla... Modu*-ren baliokidea da hau ere.

“christioaren obligacioequi vere *vicice* maneraren conforme cumpliceo” (EJ57,56).

“holako *gerla* manera ez ikusirik obe da. Tronperia du sobera” (EJ65,60).

II.4.2.5. MODU⁸⁷

Hauek dira *modu*-ren ezkerrean ageri zaizkigun mugatzaileak. Ia denak bizigabeak dira: *ahosabai, arma, arrantxo, autoritate, azterketa, bekatu, bide, bizi, bizitza, dotrina, egite, eguraldi, ekonomia, elaborazio, eliza, eraso, eskubide, esperanto, euskara, formazio edo*

⁸⁶ Postposizioa ez dena da hau. Adibideak biltzeko OEHko corpusera jo behar izan dugu, gurean ez zegoen eta alerik. Horregatik ez dute adibideok ohiko koderik.

⁸⁷ Honek ere badu postposizio izenakidea; eskuarki *-ra* edo *-n* atzizkiez eratutako postposizio-sintagma erabiltzen dugu eta ‘itxura’, ‘antza’ adierazten du: “baserritar moduan aldean ebala ziskua”, “pañolituak frantzes moduan jarriyak”, “guizamodura amparatzea nai du”, “caco-maco modura”, eta abar.

produkzio, frogantza, galdera, gauza, gobernu, golpe, grina, hitz, hizkera, hizketa, hutsegite, itxura, joko, kezka, lan, lege, mirari, neke eta kezka, oinaze, pentsatze, praktika, produkzio, sena, suerte, tenple, zoko... Bizidunak: *gizon, jende, kristau, pertsona*

Sarreran (II.4.1) definizioen berri ematean atera dugun ondorioa —*modu* mugatzaile bizigabeekin elkartuko dugula— ez da erabat zuzena. Hor ditugu: *gizon, kristau, jende...* bizidunak. Beraz, modu-izen guztiak —edo ia guztiak— elkar daitezke, dirudienez, edozein eratako mugatzaileekin.

“*Zer autoritate modu daukazu bada zuk?*” (HE39,38).

“*galdetu zuten neskek azterketa modu hartaz harriturik*” (HE39,105).

“*gaitzerako bide moduren bat ematen dio*” (HE13,14).

“*bakoitzak zer bizitza-modu egin zuan aztertu genduan*” (HE53,16).

“*begira diezaiogun zer gizamodu den*” (EJ00,179).

“*ekonomia modu edo molde berri baten alboan agertu den burgesiak*” (EJ52,17).

“*liberalen dotrina madaricatuaren cutsutuac dauden cristau modu batzuec*” (HE40,100).

Azken-aurreko adibideak bidea ematen du *modu* eta *molde* sinonimo, baliokide direlako ondorioa ateratze (“*ekonomia modu edo molde*”).

Badago beste *modu* bat arestikoa ez bezalakoa. Gramatikako terminoa da eta aditzez aritzean, indikatiboa, subjuntiboa... izendatzeko erabiltzen da:

“Gramatika bat egiten dugunean zenbait kategoria ezagun erabili ohi dugu: bokala, izena, aditza, aldi iragana, *aginte modua*⁸⁸, komuntadura...”. (Mitxelena 1972: 73).

II.4.2.6. MOLDE

Aztertu adibideetan mugatzaile bizigabeak besterik ez ditugu kausitu: *aditz, baserri, bekatu, bentura, bizi, bizitza, deskripzio, estatu, gobernu, gogoeta, hizkera, hizketa, idazkera, idazte, irakaste, jendetasun, korrika, kritika, lur-langintza, mintzatze, nekazaritza-artzaintza ekonomia, paper, pentsakera, saiakera...*

“*bekatu-molde horrek ez du sentidurik personajeentzat*” (HE35,7).

“*han ezagutu genduen bizi-molden desbardintasun harrigarria*” (HE58,81).

“*bazekiten zer ziren gobernu-moldeak, batasunean bizitzea*” (HE33,17).

“*nahiz ontsa zu gidatu jendetasun moldian, zerurako bidian*” (EJ68,47).

“*Euskal-herria nekazaritza-artzaintza ekonomia moldearen neurrietara mugatu nahi luteke*” (EJ52,19).

II.4.2.7. MOTA

Mota mugakizunak ere era guztietako mugatzaileak hauatzen ditu, bizidunak eta bizigabeak, konkretuak eta abstraktuak: *abere, abono, aflikzio, amodio, ardo, arrain, arrazoi, arte, azterketa, baso-zuhaitz, bekatu, benerazio, bertso, bizitza, dohain edo jite, ekintza, eleberri, emakume, eskola, eskoletxe, esplikazio, estatu, etxabere, euskal hizkera, euskaldun, euskara, fruitu, gauza, gizon, haize, harri, ihizi, ipuin, jai, jaki, jende, koñak, koktel, kultura, lan, landare, langile, lantegi, lege, letra, liburu, lilura, liho, literatura, lotura, luma-abere, mahatsondo, manera, mintzaira, moral, nobela, ogi, olerki, olio, pizti, populu, sagar, teoria, tradizio, txori, ziurtasun, zuhamu...*

⁸⁸ Hitz elkartu berak bi ulerkerak izan ditzake. Testuko adibidea eta ondokoa Mitxelenaren lan berekoak dira: “*Badu horrek axola, historiaren ur lasterrak daraman zotza baita hizkuntza, giza ohiturak, legeak, pentsamoldeak, aginte moduak eta gainerakoak bezala*”. (Mitxelena 1972: 98). Bistan da “*agintzeko moduak*” parafraasia edo dagokiola.

- “*baso-zugatz* mota guztiak bitara biur litezke” (EF92,61).
 “*emakume* mota edo clase asko dituk mundu zabalean beren erriari entzute andia eman dienak” (EJ07,1).
 “*ekintza* mota honen efikaziak neurri asko dauzkala” (EJ52,34).
 “*etxabere* mota guztien tokiak nola bear luteken ezin erakutsirik” (EF92,85).
 “*jende* mota: tipo de personas” (EC48,593).
 “Martell etxe'ko *Cognac* mota onenetako bat” (EJ64,35).
 “illunabarrak... ez du sekulan izango atzo arte izan zuen *lillura* mota” (HE34,29).
 “solamente oray ofrecicen den *manera* mota da diferentea” (EJ57,9).

Bigarren adibidean garbi ikus daiteke *mota* eta *klase* baliokideak direla. Azken adibideko *manera mota*, berriz, erredundantea da, itxura guztien arabera.

Badira gure corpusean beste mugakizun batzuk, hala nola *giro* (hobeki esan, *giro* mugakizun duten *giza giro*, *herio-giro* eta *jende-giro* elkarteak, hirurak autore berarenak⁸⁹) eta *tipo*, hemen sailkatu ditugunak. Lehenaren adibideetan esplizituki esaten da zein adiera ematen dion idazleak:

- “*guiza-guiro* = hombre, tipo de. Ceren *guiza-guiro* oriec larrutzen cituzten ematecoric etzuten anitz gaixo” (EI31: 209).
 “*erio-guiro* = muerte, tipo de. Ta eguin zuten hau oriec, ceren cequiten *erio-guiro* hau cela, S. Agustinec dion bezala, eriotz gaisto itsusi gucien artean gaistoen ta itsusi galgarriena” (EI31: 129).
 “*genda-guiro* = gente, tipo de. Mundu gucian arquitzen diran *genda-guiroric* gogorren ta muquerrenetatic dira” (EI31: 67).

Tipo mugakizun duten elkarteak ere gutxi dira, lau baino ez, horietatik hiru autore berarenak: *hezur-tipo*, *kraneo-tipo*, *kultur tipo* eta *presio-tipo*

- “langile ordezkarien ugaritze eta militantekera hau, *presio* tipo honen agerpen uka-ezineko bat da” (EJ52: 36)
 “larru beltz, hunelako edo horrelako *kraneo-tipoa*, *hezur-tipoa* edukitzea” (EJ61: 20)
 “nahiz eta berez pragmatikoki edozein *kultur-typoren* basiak direnagatik” (EJ61: 20)

II.4.2.8. SUERTE

Mugatzaileak era guztietako izenak izan daitezke, baina gehienak bizigabeak dira: *abantaila*, *abilezia*, *arma*, *bentura*, *beztimenda*, *bizio*, *dantza*; *donu*, *dohain* eta *abantaila*, *fruitu*, *gaixtakeria*, *jende*, *muga* edo *leku*; *madarizione*; *manamendu* eta *zirimonia*, *ontasun*, *pertsona*, *sepultura*...

- “gure laungoikoak beztitu baitzituen lurreko animaliak... bere *beztimenda* suerte batzuez” (HEAX,21).
 “jotzen zituztela superki mutxiko, fandango eta bertze *dantza* suerte hainitz” (EJ72,35).
 “gure laungoikoak, (...) gizona bera, (...) anhitz *donu*, *dohain* eta *abantail* suertez dotaturik egin zuenean” (HEAX,19).
 “iendea... *gaixtakeria* suerte guztiei emanen zeuela” (HEAX,29).
 “gure laungoikoak eman zituen lege zaharrean seietan ehun eta gehiago *manamendu* eta *zirimonia* suerte” (HEAX,21).

II.4.2.9. TAILU⁹⁰

Mugatzaileak. Bizidunak eta bizigabeak: *gorputz*, *jende*, *joko*...

⁸⁹ Beste askori lehen kapituluak ikusi ditugun erlazio semantikoetakoren bat dagokielako: ‘iturburua’ horietako askok *eguzki-giro*, *familia-giro*, *festa-giro*...; ‘jabegoa’ *bizi-giro*; ‘edukia’ *gerra-giro*, *euskal giro*; ‘garaia’ *goiz-giro*, *urte-giro*; ‘lekua’ *ingurugiro*, *kale-giro*, *klinika-giro*, *mundu-giro*; ‘helburua’ *bekaitz-giro*, *belar-giro*, *kritika-giro*...

⁹⁰ ‘moldea’, ‘mota’ dena, ez ‘irudia’, ‘taxua’.

“habillak eta *gorputz* thailu onetakoak” (HE04,79).
 “*jende* tailu bitxiak ikusi zenituzten” (HE39,57).
 “bertze *ioko* thailu bat iokatzen du” (HEAX/HE11,69).

Batzuetan *molde*-tik (edo *modu*-tik) gertuago irudituagatik, beste batzuetan *mota*-rekin ere pareka daiteke (*joko-mota*, adib.).

Adibideak aztertu ondoren, baieztatu ahal izan dugu modu-izen hauek mugakizun ditugunean, edozein eratako mugatzaileekin elkar ditzakegula, oro har, hitz edo izen elkartua eratzeko. Nolanahi dela ere, adibideek erakutsi dute mugakizun batzuek aiseago onar ditzaketela edozein motatako mugatzaileak beste batzuek baino, baina guztiek onartzen dituzte bizigabeak.

II.4.3. Mugatzaileen gramatika-kategoria

Izen elkartu hauetan ere gehienetan izena izango dugu mugatzailearen betekizuna eginez. Dena den, merezi du zenbait xehetasun ematea, ‘mota’ izena mugakizun izanik, adibide batzuk bai baititugu izen-elkarteko lehen osagaia aditza dutenak: *pentsamolde*, *ikusmolde*, *idazmolde*, esaterako; *bizi* mugatzailea ere bi eratara uler daiteke, nahiz izen, nahiz aditz bezala. *Jarleku* motako hitz elkartuetan aztertu genituen horrelakoak (H-E/3, XI.1: 84 / 64).

Hau, hala ere, zehazkiago aztertu behar da, ez baitirudi modu-izen deitu ditugun hauek guztiek berdin jokatzeko dutenik aditzoina mugatzailetzat onartzerakoan. Izan ere, definizioak aztertzean aipatu dugun adiera-bikoiztasunak —‘modua’ eta ‘mota/klasea’ nolabait esatearren — badu hemen oihartzuna; hala dirudi, gutxienez. *Pentsamolde*, *jokamolde*, *bizimolde*, *ikusmolde*, *idazmolde*... esaten dugu, *idazte-molde*, *mintzatze-molde*, *irakaste-molde*, *idazteko*, *mintzatze*, *irakaste*... *molde* eta abarren ondoan. Bestetik berriz, *irakur klase* edota *idatz klase* bezalakorik ez dirudi orain arte egin dugunik. Era berean, *ikus mota*, *egin mota*, *egin suerte* ere ez bide dira txoil arruntak⁹¹.

Molde-ren esanahitik gertuen *modu* dugunez, kontua litzateke argitzea ea biek puntu honetan jokabide bera duten. Ez dirudi, ordea, *ikus modu*, *ikas modu*, *irakur modu* bezalakorik egin dugunik; horiei legozkiekeen parafrasiak darabiltzagu: “ikusteko modu”, “ikasteko modu” eta abar. *Modu* batez ere Hegoaldekoa izateak eta Hegoaldeko euskalkietan “aditzoina + izen” egitura askotan ez erabiltzeak argi dezake, beharbada, puntu hau.

Alabaina, orotariko jokamolde honek salbuespenik ere badu. Hona *molda-modu*-ren adibide bat⁹²:

“... baiezko eta ezezko perpausak (...) gertatu edo, maizago, gertakizun diren galderen erantzun gisa ulertzen eta moldatzen ditugu. *Molda-modu* horrek ez luke, beraz, balio, berez, eske eta aginduak...”. (Mitzelena 1981: 143).

Era mugakizuna dutenak berriz —adibideen urritasuna lekuko— itxura guztien arabera, *modu*-ren kontrako bidetik doaz; alegia, askoz ohikoagoa da “aditzoina + *era*”, “izena + *era*”

⁹¹ *Jarleku* motako adibideetan *elika-mota* bat egonagatik (H-E/3: 335 / 315): “bada landareak bear dituzten *elika-mota* geienen iturria bezela izanez gañera, lurrak asko ontzen ditu” (EF92,15).

⁹² *Pasamodu* izena ere jasoa dago (H-E/3: 357 / 337). Euskalki batzuetan adberbio moduan ere erabiltzen da (“Zer modu(z)? Pasamodu”), baina beharbada *pasamodu* du atzean.

baino. Hori dela eta, dudan utzi dugun *predika* beharbada, aditzointzat jo beharko genuke eta *Jarleku* motara igorri, jaso dagoen bezala (H-E/3: 358 / 338)⁹³.

Bestetik ez da ahanztekoa *era*-ren beste erabilera bat: erdara batzuk izendatzekoa. Euskaltzaindiak “Munduko estatuetakoa hizkuntza ofizialak” deritzan 53. arauan darabilenaren moduan, alegia: *albaniera, suomiera...*

Beraz, modu-izenekin, oro har, mugatzaile gisa izenak azalduko zaizkigu. Salbuespenak *molde, era* (eta *modu* gutxiagotan: *bizimodu...*) ditugu, aditzoinak ere (*era*-ren kasuan, aditzoinak batez ere) onartzen baitituzte.

Azken bi xehetasun mota-izenekin aurkitu ditugun mugatzaileen gramatika-kategoria dela eta. Batetik, ez dugu adibideetan izen bihurtutako adjektiborik mugatzailearen tokian ikusi, baina ez dirudi ezinezkoa denik: *beltz mota, gorri klase, gazte klase...* Bestetik, ez zaigu beste elkarte-mota batzuetan ikusi dugun bezalako mugatzailearik, itxuraz determinatzailearik gabeko izen-sintagma denik, bidera atera; alegia, mugatzaile guztiak kategoria lexikoak dira, ez sintaxikoak. Bai, ordea, juntagailuz elkaturiko mugatzaileak —*donu, dohain eta abantail suerte, formazio edo produkzio modu, manamendu eta zeremoni suerte...*—; edo mugatzailea aldi berean izen elkartua duten egiturak —*ahosabai modu, baso-zuhaitz mota, etxabere mota, eskoletxe mota, luma-abere mota...*—.

II.4.4. Osagaien arteko erlazio semantikoak

Gramatika-kategoriaz hitz egitean aipatu dugun adiera-bikoiztasunak bi erlazio semantiko bereiztera bultzatzen gaitu. Horren adierazgarria da kasu batean edo bestean emango dugun parafraisi modua:

- a) ‘Iturburua’ (I.5.1) erlazio semantikoa: *fusil-klasea* ez da “fusilaren izateko/egiteko klasea”, “fusilen artean bereizten den klasea” baizik. Era berean, “gizonen artean bereizten diren motak”, “fruituen artean bereizten diren motak”, “bertsoen artean bereizten diren motak” dira *gizon-mota fruitu-mota* eta *bertso-mota*. *Modu*-rekin ere beste horrenbeste gertatzen zaigu. Ez du beti ‘modua’ adierazten, ‘klasea, mota’ ere adieraz dezake: *hitz-modua* ez da “hitzak duen izateko modua”, “hitzen artean bereizten dugun modua, mota edo klasea” baizik. Eta beste horrenbeste esan dezakegu *arma-modu, autoritate-modu, bide-modu, jende-modu* edo *kristau-modu* izen elkartuetan dugun erlazio semantikoaz. *Suerte* mugakizuna duten izen elkartuak ere bide berekoak direla esango genuke. Kasu horietan badirudi ‘iturburua’ erlazio semantikoaz hitz egin dezakegula, mugatzaileak, klase, mota horiek nondik atera ditugun adierazten digunez.
- b) ‘Jabegoa’ (I.5.2) erlazio semantikoa. “Norbait(ek) / zerbait(ek) duen izateko modua”, “zerbait egiteko dugun modua” litzateke bigarren adiera honi dagokion parafrasia. Gisa horretako parafraisiak eta parafraisiok ispilatzen duten erlazio semantikoa dugu *molde* mugakizun izanik eratzen ditugun izen elkartuetan oro har, eta *gizamodu* (horrela ere uler daiteke), *bizitza-modu, ekonomia-modu, eraso modu, itxura modu* eta abarretan.

⁹³ Ikus Azkueren iritzia “izena + *era*” egituraz: “Mendiburu se valió de él [-*era*-z, alegia] para significar ‘modo’, aún sin tratarse de nombres verbales; lo cual no parece correcto: *othoitzera* ‘manera de hacer oración’”. Larramendigandik bide datorren egiteko modu honek jarraitzaile bat baino gehiago izan du, Mitxelenaren adibideren bat edo beste barne. Ik. OEH.

Hauetako batzuetan *modu* izena *moduzko* izenlagunaren antzekotzat jo daitekeela dirudi:

- “zer *suerte* modu izan dezu dema orretan?” (HE22,63).
- “Ce *eguraldi* modu dago?” (HE20,116).
- “bakoitzak ze *bizitza*-modu egin zuan aztertu genduan” (HE53,16).

Hortaz, “zer moduzko *suerte* / *eguraldia* / *bizitza*...” litzateke hauen pare-pareko esapidea. Erabilera hau aski itxia bide da; oso testuinguru jakinetan agertzea.

Bestetik, berriz, behin baino gehiagotan duda ez da sortzen ‘mota’-ren eta ‘modua’-ren artean, ‘mota’-ren eta beste atal batean ikusiko ditugun konparazio-elkarteko ‘antz’, ‘itxura’ eta abarren artean baizik:

- “Bañan gero, olakoa arrapatu izan bagendu, pozik jango gendukela, askotan ibilli giñan, bai. Gañontzean, *arrantxo-modu* bat ematen ziguten. Konpañi bakoitzak bereai. Konpañi bakoitzak kozina bana, alegia” (EJ66,19).
- “ta eman bear dizkigu anitz ukaldi, edo *golpe*-modu ta neke” (HE13,139).
- “Bazetorkidak, eta berriketa luze bat ein zidak. Ik jaso al diok? Nik ere ez. *Esperanto*-modu bat asmatu dik, iñork ulertu ez dezaion, eta arekin aritzen dek” (HE17,18).

Alegia, “arrantxo, golpe, esperanto mota?”, ala “arrantxo, golpe, esperanto antzeko”?

- “Atozea, Predikariak erraten duenean, edo Konfessariak adirazten dizunean zure onerako den, ta animaren zauriak ukitzen dituen gauzachoa, ez dezu izan oi zere barrengo *oñaze*-modu bat? Atozea, libru onen bat irakurtzen ari zaranean (...) izan oi ez dezu zuk zere biotzaren dardararen bat edo beste? Atozea (...) lotzen etzaitzu zuri zere *ikara* modua edo beldur iduria?” (HE13,126).

Mendibururen azken pasarte hori aski argia da balio desberdinak ikusteko: *oñaze-modu*, hurren datorren *dardararen bat edo beste*-ren baliokidea da; *ikara modua* garbi dago konparaziozkoa dela (“*ikara* antzekoa”), *beldur iduria* aldamenean izateak erakusten duen bezala. Honenbestez, balioaren aldetik, zenbaitetan konparaziozko *modu* dutenak, zenbatzaile zehaztugabeen kideztat (‘-en bat’...) har daitezkeela dirudi.

Modu mugakizuna duten izen elkartuak, hortaz, oro har bietara uler daitezke (‘mota’, nahiz ‘modua’), testuinguruak markatzen duela bietatik zein izan daitekeen aditzeko modurik egokiena. Zein erlazio semantiko genuke bigarren adiera honetan? Bigarren osagaiak lehenaren ‘modua’ markatzen duela garbi dago, baina lehen osagaia da kontuan hartu behar dena erlazio semantikoak ezartzerakoan. Honenbestez, mugatzaileak, nork edo zerk duen modu hori adierazten duela esan dezakegun heinean ‘jabegoa’ edo antzeko erlazio semantikoaz hitz egin dezakegula dirudi.

Beraz, bi erlazio semantiko nagusi aurkituko ditugu modu-izenak mugakizun gisa erabiliz eratzen ditugun izen elkartuetan. Bestetik, berriz, izen hauek eratzen dituzten egitura lexikoetan ere osagarri-buru harremana dagoela pentsa dezakegu: modua beti zerbaitena da eta ezkerreko izenak asetzen du, hitz elkartua eratzean.

II.4.5. Emankortasuna

Mugakizunak banan-banan aztertu ondoren garbi geratu da bizi-bizirik dagoen elkarte-mota dela. Nolanahi dela ere, mugakizun batzuk aski antzu geratu dira (*suerte*, *giro*, *tailu*...) eta beste batzuk, aldiz, bizitasun handikoak dira (*modu*, *mota*...).

II.5. KONPARAZIO- ETA IRIZPEN-ELKARTEAK

II.5.1. Sarrera

Hemen aztertuko ditugun izen elkartu guztiak azpiatal bakarrean bateratzeko arrazoia da, oro har, nolabaiteko erkatze edo konparazioa egiteko darabiltzagula, nahiz delako alderatzea era bakarrean ez gertatu. Erkatzearen balioa emango digute, *aire*, *antz*, *aurpegi*, *fama*, *haize*, *hots*, *irudi*, *itxura*, *kolore*, *kutsu*, *planta*, *tankera*, *usain*... mugakizunek zenbait izen elkartutan.

Adibidez, Agirrek “integrata airea” duela esatean, “integristek duten bezalako airea, itxura, tankera...” duela ematen dugu aditzera. Edota norbaitek “kokolo aurpegia” badu, “kokoloek duten bezalako aurpegia” duelakoan diogu hori. Antzeko zerbait gertatzen da norbaiten masailak “arrosa kolorekoak” direla diogunean, baina orain erkaketa egiten dugu arrosek eta masailek duten kolorearen artean.

Konparazioa tartekoa denez, ulertzekoa da mugakizun hauetako batzuen esanahiak erabakitzea, beste gabe, sail honetan sartu ahal izatea: *antz*, *aurpegi*, *fama*, *irudi*, *itxura*, *planta* edo *tankera*, esate baterako, horietakoak dira. Erlaziozko izenak dira, osagarria eskatzen dute (Artiagoitia 2011).

Beste batzuek, berriz, lehen adieraz gain beste adiera (metaforiko) bat ere badute eta beste adiera (metaforiko) hori dela eta (erlaziozotasuna adierazten dutenean), hain justu, dira hemen sartzekoak. Esate baterako, hemengo *aire*, *haize*, *hots*... ‘itxura’, ‘antza’, ‘ospe’ balioa duten heinean, eta ez lehen adiera denotatiboa dutenean, dira sail honetakoak.

Usain eta *kolore* mugakizunek berez ez dute adiera konparaziozkorik ez metaforikorik. Badira egiazko usainak eta koloreak ere, jakina, hala nola *betun-usaina*, *kresal-usaina*, *lore-usaina*, *izerdi eta jantzi busti usaina*, *urre-kolorea*, *lur-kolorea*... Betunari, kresalari, loreei, izerdiari darien usaina, urreak eta lurak duten kolorea izendatzeko darabiltzagun mendekotasunezko izen elkartu hauek gainerako mendekotasunezko arruntekin batean aztertu beharrekoak dira eta ‘iturburua’ (I.5.1) edo ‘jabegoa’ (I.5.2) harreman semantikoa dutenen artean sailkatu ere.

Beste batzuetan, kolorea duen, usaina duen zera adierazten duen hitz elkartua darabilgu ez berez kolorea edo usaina duen zera izendatzeko baizik elkarketatik kanpoko beste zerbaitekin lotzeko. Esate baterako, norbaitengatik badiogu arrosa-koloreko masailak dituela arrosen kolorea eta masailena konparatzen ari gara.

Baina *usain*, *kolore* mugakizun direlarik, “usainik ez duen”, “kolorerik ez duen” zerbait adierazten duen mugatzaileraren batekin elkartzen ditugunean, hiztun-taldeak konpartitzen duen metaforaren kutsua dugu tarteko. Izan ere *masoi-usain*, *arkaismo-usain*, *udaberri-kolore* diogunean ez gara ari egiazko usainez edo koloreez, masoiei, arkaismoiei, arruntean behintzat, ez baitarie inolako usain berezirik eta udaberriak ere ez baitu berezko kolore bakarrik. Hala ere, adibideetan ikusiko dugunez, masoiek, arkaismoek usaina eta udaberriak kolorea balute bezala erabiltzen ditugu eta masoiei, arkaismoiei omen darien usain hori eta udaberriak bide duen kolorea beste zerbaitek duenarekin (honek ere usain metaforikoa izanik) erkatzen dugu. Hauetan, beraz, konparazioa metaforan oinarritzen dela eta bi mailatan-edo gertatzen dela pentsa daiteke; alegia, hitz elkartuko osagaien artean lehendabizi eta gero hitz elkartu osoaren eta bere erreferentekidearen artekoa.

Hori dela bide, izen elkartu hauek guztiek beste norbaitekin/zerbaitekin konparatzeak bigarren ondorio bat ere badu: izen elkartu hauen esanahia bi osagaien artean erabat ez

biltzearena, alegia. Esanahia erabat osatzeko izen elkartutik kanpo dagoen konparazioko bigarren terminoa behar dugu. Dena den, aurrerago ikusiko dugu izen elkartuetan konparazioa nola ulertu behar den, duten mugatzailearen arabera.

Beraz, azpiatal honetako izen elkartu askok, erreferentziaren ikuspegitik alde zentrikoak direla esan dezakegu, esanahia osatzeko elkarketatik kanpo dagoen hirugarren elementu baten beharrean baikaude. Adibidez, *liberal-fama* izen elkartuak badu bere esanahia, ulertzen dugu zer adierazi nahi den; baina, era berean, badakigu norbaitek duela liberal fama hori, pertsona bati buruz predikatzen dugula liberal-fama izatea. Beste horrenbeste gertatzen da *garaje-itxura* esaten dugunean, berehala ulertuko dugu zerbaitek, garajeek duten bezalako itxura duela, eta abar.

Predikatu eginkizunean erabiltzen ditugu asko eta askotan. Horrexegatik izen elkartutik abiatuta *-ko* atzizkiaz izenlagun bihurtzen ditugu maiz: ***arrosa koloreko masailak, zaunka haserre usainekoa, gaztaina koloreko pitxarra, morokil usaineko dantza, kabyla irudiko leinu...***

Azter ditzagun orain banan-banan, mugakizunetan oinarriturik, konparazio-elkarte hauek. Eta ikus dezagun zer nolako mugatzaileak azaltzen zaizkigun bakoitzean.

II.5.2. Adibideen azterketa

Ondoren ikusiko ditugun mugakizunoz ohar hauxe egin daiteke: asko ‘itxura’, ‘antza’ adieren arabekoak dira.

II.5.2.1. AIRE

Mugatzaileak: *arin-eskas eta leun-eskas, arrotz, burla, fraide, integrista, josi, lapurtar, Luzifer, markesa, Prometheu...*

“Erromanoen jauregiek ere (...) bazaukaten halako *arin-eskas eta legun-eskas* aire bat” (HE59,18).

“Jonen apaizgaitasuna probetxatuz, *burla* aire zorrotzez bota zion” (HE39,92).

“Ez asi emen *praille* aiderik artzen” (HE57,119).

“*integrista* airea hartzen diot nik Agirrerri” (HE27,382).

“Berdin gerta dakiok hizkuntzari: sukalde-ezkarzetan hazia, baditake *josi*-aire emaiten duen salunetako dirdira liluragarrien artean” (HE59,19).

“bazuen gure jatsuarra halako *lapurtar* aire bat” (HE32,12).

“halako *Luzifer*-airetxo bat erantsi diote, edo *Prometheu*-airea” (HE27,324).

Mugatzaile gehienak izen bizidunak dira (arruntak eta bereziak). *Arrotz, lapurtar, integrista* ere izen balioa hartzen duten izen/adjektibotzat har daitezke. Lehen esan bezala, hitz elkartu hauek ulertzeko modua honakoa da: “*integristek, Luziferrek, lapurtarrek...* duten bezalako airea” du norbaitek. Nolanahi dela ere, OEHk ere jasotzen du *aire* izenak, antza, itxura adiera duenean maiz ezkerretara izenak eta adjektiboak eramanez osatzen dituela hitz elkartuak: “(Tras tema nominal nudo: adj. o, menos frec., sust.)”.

Aipatzekoa da *eskas* (aire). OEHko sarrerak dio askotan predikatu-sintagma osatzen duela. Falta du bere osagarria adieraztea: ‘zerbaitez, zerbaitetik’ *eskas* da norbait edo zerbait. Gure adibidean *legun* eta *arin* adjektiboak dira *eskas*-en osagarriak: berez adjektibo kategoriakoak izan arren, izen balioan hartu behar dira. Alegia, “Erromanoen jauregiek ere (...) bazaukaten halako *arin-eskas eta legun-eskas* aire bat” adibidea, honela parafrasea daiteke: “oso arinak,

leunak ez ziren gauzen itxura zuten jauregiek”. Bestalde, osaeragatik ere da aipatzekoa mugatzailea, bi hitz elkartu juntatuta osatua da eta “arin-eskas eta legun-eskas”.

Bestetik dugu *burla* izena. Abstraktua izaki, *burla-aire* ezin dugu interpretatu “burlak duen airea”. Nola, orduan? “Burla egitean dugun airea” edo antzeko zerbait litzateke; horrelako aireaz, *burla* egitean dugun bezalakoaz hitz egingo zuen pertsona horrek.

Josi partizipioak ere izen bilakatutako adjektiboen multzoan sartzeko modukoa dela dirudi, alegia, (partizipio) adjektibo izatetik izen bilakatutzat jotzeko modukoa. “Zerbaitek gauza erantsiek, josiek, adabakiek izaten duten bezalako airea, itxura... du” izan daiteke ulertzeko era.

Hasieran esanaren ildotik, badu zerikusirik mugatzailearen izaerak konparazioa modu batera edo bestera hartzearekin; eragin hau erlazio semantikoez hitz egitean ere nabarituko da.

Haize mugakizuna duen adibide bakarra ere hemen sartuko genuke, duen *aire*-ren antza dela medio.

“*arro* aize aundiak erabiltzen ditugula” (HE57,147).

Mugatzailetzat izen balioko adjektiboa darama, “harroek duten haizea bezalako darabilguk ere” edo izan daiteke egoki dakioken parafrasia.

II.5.2.2. ANTZ

Hiztegiek *antz*-i alboratzen dizkioten adieretatik, bi hauek topatu ditugu hitz elkartuetan: 1. Agertzen dituzten ezaugarri berdin edo berdintsuengatik, izaki bi edo gehiagoren artean gertatzen den lotura. Eitea. 2. Irudia, itxura.

Bistan da, hortaz, *antz*-ek bere esanahietako batean berez konparazioaren adiera duela, bestela esan, erreferentziazko bi “zer” eskakizun dituela.

Mugatzaileak: *aingeru, argi, arin, barre, basakatu, baserri, bihurri, bizi, dotore, egia, epel, eskubide, euskara, gaztain-kolore, gizon, gordin, gorri, ikaragarritasun, ilun, irudi, izar, neke, ofizial, saihets, zahar, zerri...*

“galdu zenduan *aingeru*-antza” (EJ77,11).

“edo oraindik oso irentsi eztan erejiaren *argui*-antz triste bat becela da” (HE40,35).

“*Zeruko Argia* azken zenbakia bezelakoxea ez ote daiteke atera zuen au? *Arin* antxa emanen lioke, noski” (EJ05,153).

“hire *bizi*-antza itsusi hortan ez lukete lekurik” (HE58,51).

“Egunoroko hizkaratik zettobait aldendurik egoiteaz *dotore*-antza ta prestutasuna bereganatzen du” (HE26,278).

“erlijino-gaietan, ostera, *epel*-antxak batzuk, etsaiak beste” (HE28,76).

“barrikerijoi *eskubide*-antza emoteko bidetxigor sasitsu ta ilun batera eroan oi-ditugu euskera autuak” (EJ06,79).

“Begiak etzituan txikiak, aundiak ere ez; bañan aiek ere *gaztain-kolore* antzekoak” (EJ60,29).

“sorraldi bateko umeak berdin xamarrek izan oi dira geientsuetan *gizantzez* bai jitez” (EJ03, 28).

“Baroja'ren *gizon*-antzak ez dira irakasten asten” (HE24,23).

“bira batzuek zartagian, urre kolore *gorriantz* illuna artu arte” (EJ64,101).

“alako *ikaragarritasun* antzeko bat emoten dau” (HE31,71).

“egun guztian itsasoan da *ilun*-antzagaz portura” (EJ70,102).

“soinkera *neke*-antx pinpirinaz ba'dator aulkira” (HE17,21).

“eskutitz bat ekarri zion Jonek. *Ofizial* antza zedukan” (HE39,83).

“Irlandarazko lehen textuek *zaharrantz* gehiago erakusten dute, ordea, Britainiarazko idazki zaharrenek baino” (HE30,217).

Mugatzaileak izenak eta adjektiboak dira, lehen ere ikusi dugun bezala. Izen bizigabeak (*argi, barre, baserri, bizi, egia, eskubide, euskara, gaztain-kolore, ikaragarritasun, irudi, izar, ofizial, saihets...*), bizidunak (*aingeru, basakatu, gizon, zahar, zerri...*), eta adjektiboak (*bihurri, dotore, epel, gordin, gorri, ilun, neke...*).

Oro har, bi aditzeko modutara bil ditzakegu adibideon ulertzeko moduak, *antz*-en adieretan oinarrituta, guztiek maila bateko edo besteko konparazioa gauzatzen dutela:

- “X eta Y tankera, eite berekoak dira”. Bai izenak bai adjektiboak dira mugatzaileak: *argi-antz* “argiaren tankerakoa”, *arin-antz*, “gauza arinen tankerakoa”, *bizi-antz* “biziaren eitekoa”, *ikaragarritasun-antzekoa* “ikargarritasunaren tankerakoa”...

Ildo honetan, adjektiboen kasuan gerta daiteke *antz*-ek graduatzailearen pareko eginkizuna betetzea, *samar*-en modura edo. Batzuetan, gainera, beste afrikatu bat darabilte idazleek, *antx*, bustia. Esate baterako, *epel antxa* esatean, *epel samarra*-ren antzeko zerbait diogu, “epelaren tankerakoa bai, baina erabat epela ez dena”, “gatzelaniaz *txukun antzean* idatzi nahi dutenek” idatzi duenak ere “gutziz txukun ez, baina txukun samar idatzi edo” adierazi nahi du. Kolore baten mugakizuna denean *antz* (*gorriantz*) adiera bera gauzatzen da: “erabat gorria ez dena, gorritzta, gorritzka... dena”.

- “Xk duen itxura du Yk, X eta Y bi izanik”. Konparazioa gauzatzen da hitz elkartuak adierazten duena beste zerbaiten ezaugarria ere badelako: “Xk *aingeru-antza* du”, “aingeruek duten itxura du Xk”, *baserri-antza*, “baserriek duten itxura du”, *gizon-antz*⁹⁴ “gizonek duten itxura du”, *dotore-antz* “gauza dotoreek duten itxura du”, *ofizial-antza* “gauza ofizialek duten itxura du”...

II.5.2.3. AURPEGI

Mugatzaileak: *arrano, kokolo, masoi, santu, txotxolo...*

“*arrano* aurpegia du bere begi borobil eta guzti” (HE35,78).

“*kokolo* aurpegia ipini arren” (HE44,13).

“*masoi*-arpegia eukala” (EI99,141).

“San Droke altarakoak baiño *santu*-arpegi andiagoa jaukok ba ta!” (HE21,98).

“bere *txotxolo* arpegi ta guzti” (HE17,19).

Izenak (bizidunak) edo izen balioko adjektiboak dira mugatzaileak. Sarreran esan bezala, elkartuok adierazten dute norbaitek aurpegia duela kokoloek, masoiek, txotxoloek, santuek edo arranoek duten bezalakoa.

II.5.2.4. FAMA

Mugatzaileak: *bertsolari, liberal, liberalen biltoki, poeta, sendagile on, zuhur, zerri...*

“egun batez deliberatu zuen behar zituela hemengo *pertsulari* fama zuten guztiak elgarretarat bildu” (EJ04,85).

“Rossier-ek *liberal* fama du” (HE35,80).

“bere botikak *liberalen biltoki* fama omen zuan” (HE19,10).

⁹⁴ Honek, zehazkiago, literaturako ‘pertsonek’ adierazi nahi du.

“Nolanahi ere, euskal marinelei egin dien mesedeak *poeta* fama itzalerazi du” (EJ80,13).

“*Sendagile on* fama du” (HE35,77).

“Ala-olako *xuur*-fama bazeukan, baiñan ikasteko etzen batere etxe txarra” (EJ03,22).

“Eta *zerri* fama nik zeukeat hori duk okerreña” (HE35,105).

Mugatzaileen gramatika-kategoria: izen bizidunak (edo izen balioko adjektiboak: *liberal*, *zuhur*) bat ez beste guztiak. Bizigabe bakarra, besteak ez bezalakoa den *liberalen biltoki*.

Eta honexek, hain justu, lehen ere bidera atera zaigun arazoa begietaritzen digu: bistan dago hemen mugatzailea ez dela *biltoki* soilik, *liberalen biltoki* sintagma genitibodun osoa baizik. Hemen agian —eta baliokide den neurrian *hots* ere kokatuko genuke— gauzak beste modu batera interpreta daitezke.

Alegia, esanahiaren aldetik, beste egiturak bezain hankamotz geratzen dira goian ikusitako adibideak badakigulako norbaitek edo zerbaitek, izen elkartuan azaltzen ez denak, duela fama hori; dena delako horren predikatua dela. Baina konparazioa izan ordez, beste zerbaitek genuke, biltokiak berez ez baitute famarik: “fama da leku hori liberalen biltoki dela”, “fama da Rossier liberala dela”, “hotsa da gizon hori santu dela”... Antzeko parafrasiak eman ditzakegu goiko perpausen ondoan. Hau hala izanik, sarreran esan bezala, egitura guztien batasuna exozentrikotasunean, erlaziozkotasunean, esanahia hitz elkartutik kanpo zehaztu beharrean, kanpoko horren predikatu izatean datzala esan daitekeela dirudi.

II.5.2.5. HOTS

Berriz ere esan dezagun *hots* hemen ez dela ‘zarata’ (elkartu arruntetan, batez ere ‘iturburu’, ‘egile’ harremanetan ikusi ditugun *kale-borroka hots*, *olatu-hots*, *trumoi-hots* bezalakoak). Metaforikoki erabilia, *fama*-ren baliokidetzat jo dezakegu, ‘ospe’, ‘entzute’ adiera duela, alegia.

Adibide bakarra dugu corpusean, *santu*... Honen interpretazioaz ikus arestian *fama* aztertzean genioena.

“Segovian il zen, *santu* otsean” (HE33,59).

Konparazio-elkartea da *flauta-ahots* ere, flautek ez baitute berez ahotsik; adibide bakarra izanik, *hots* mugakizunaren ondoan sailkatu dugu:

“Oi, oi Giselle! esanen luke bere *flauta* abotsarekin” (HE35: 49).

II.5.2.6. IRUDI/ IDURI

Izen honek ere badu, *antz*-ek bezala, nolabaiteko konparazioa bere esanahietako batean, “gauza bat edo ideia bat gogorarazten edo iradokitzen duen zera”⁹⁵. Erreparatzekoa da adibide batean baino gehiagotan [izena + irudiko] sintagma dugula, I.5.1 atalean adierazi dugun bezala.

Mugatzaileak: *betikotasun*, *gizon*, *hurrupa*, *huts*, *ijito*, *jo*, *justizia*, *kabyla*, *kulpa*, *untze*...

⁹⁵ Ondokoa ez bezalakoa denean, alegia. Hauek *Behi-esne* moduko elkartu arruntetan ‘edukia’? edo ‘jabegoa’? harremanean sailkatzekoak dira. “Beste ingurukoetan badezazke idoro zur-lanezko *santu-iduri* bikañagorik, jantzi eder aberatsagorik eta edozelako apaingarri baliosagorik” (EJ03,58-59).

“aldaketari *betikotasun* irudi bat emanaz” (HE36,15).

“hain *giza*-irudiko eta halaz ere hain bestelako” (HE27,323)⁹⁶.

“Eta guciaz ere, len esan degun becela, au da gure anai ascoren amets urreztatua, betico beren *utsirudia*” (HE40,71).

“ile beltz kiskurra eta larru kolorea beltzarana txit, *ijito* irudikoa” (EJ48,23).

“makila jasota iru aldiz *jo*-irudia egingo du” (HE15,19).

“Zebiltza billa testigo ta testimonio falstu, galtzecó Jesus *justicia*-idúris” (EJ55,161).

“herriak *kabyła* iduriko leinutan puskaturik zebiltzan” (HE26,295).

Mugatzaileak izen bizidunak: *ijito*, *gizon*...; bizigabeak: *betikotasun*, *gorputz*, *hurrupa*, *justizia*, *kabyła*, *kulpa*, *untze*...; adjektiboa: *huts*...; aditza: *jo*...

Azken mugatzailea, aditza, berezia da⁹⁷. Horrelakoetan esapide jakinak, finkatuak, osatzen ditugu: *jo-irudia egin*, *ez ikusi iduri egin*. Esanahiaren ikuspegitik konparazioa dugu, “*jo-irudia*” egitea “joko balu bezala, baina egiaz *jo gabe*” aritzea baita. Balizko jardun edo ekintza batekin egiten dugula konparazioa esan daiteke.

Izen edo izen balioko adjektiboak mugatzaile ditugunean, zerbaitek edo norbaitek “*ijittoa dirudiela*”, “*ijitoen antza duela*”, “*hutsa dirudiela*”, “*hutsaren antzeko dela*” eta abar adierazten dugu.

Bestelakoa da ondokoa, ‘txistea’, ‘viñeta’ edo adieraztekoa; *parrirudi* izen elkartuko bi osagaien artean, ‘helburua’ (“barrea sortzeko”) edo ‘ondorioa’ (“barrea sortzen duen irudia”) erlazio semantikoa antzematen diogu:

“berriez, lan benez ta arin-alaiez –*parrirudiak* aztu-gabe–” (HE17,66).

II.5.2.7. ITXURA

Mugatzaileak: *aberats*, *bake*, *basomutil*, *egia*, *euskara*, *flamenko*, *garaje*, *gizon*, *haserre*, *hil*, *ikara*, *izu*, *jainko*, *katedral*, *kristau*, *maitasun*, *makal*, *mozorro*, *negar*, *neke*, *on*, *ospitale*, *pizti*, *saindu*, *teoria*, *zorion*...

“*aberats* itxurak artu, gero futbola, zinea, tabako oria ta lotsa gutxi” (EJ03,24).

“*baso-mutil* itxura aundia danok ere” (HE29,122).

“edozer baño obeto jantzi ditezke kimika-abonoak gezurrezkoak izanda *egi*-itxuran” (EF92,35).

“Ohe gainean *flamenco* itxura duen zerbait dantzatzen hasten da” (HE35,61).

“Izugarrikeriak egiten dituzten *giza*-itxurako bi oinetakoak” (HE27,363).

“kokolo aurpegia ipini arren ta *ikara* itxura” (HE44,13).

“*il*-itxuran arkitzen degu zelaia neguan arbolak ostorik gabe” (EF92,13).

“gainerakoan, alako *maitasun* itxura bat erakusten du Renan-ek bere protagonistarentzat” (EC07,34).

Gramatika-kategoriari dagokionez, era askotako mugatzaileak ditugu:

a) izen bizidunak: *basomutil*, *gizon*, *jainko*, *kristau*, *mozorro*, *pizti*...; izen balioko adjektiboak: *aberats*, *saindu*...

⁹⁶ Erka daiteke ondoren datorrenarekin. Garbi ikus daiteke osagai berak izanik ere, hitz elkartuen esanahiak (eta motak) direla medio, ezin koka daitezkeela sail berean:

“Argizerizko santuari, edo *giza-irudi* bateri, egin leijo, emen zatitxu bat kendu, an imini” (EJ06,79).

⁹⁷ Berez *Eguzki-lore* motakoak ez izan arren (ez baita bi izenek osatua), hemen jaso duguna; mugakizunaren konparazio-balioari erreparatu diogu, mugatzailearen aditz-kategoriari baino areago. *Jostirudi* egitura berekoa, bestalde, lexikalizatua dugu; ez dago osagaien esanahietatik elkartuaren esanahia eratortzerik: ‘komedia’ da.

b) izen bizigabe konkretuak: *euskara, flamenko, garaje, katedral, mozarro, negar, ospitale, teoria...*

c) izen abstraktuak: *bake, egia, ikara, izu, maitasun, neke, zorion...*

d) aditzoinak: *hil...*

e) adjektiboak: *haserre, makal, on...*

Esanahiari dagokionez a) eta b) kasuetan konparazioa badugula esan dezakegu, norbaitek edo zerbaitek, garajeek, katedralek, aberatsek, basomutilek eta abarrek bezalako itxura du. Izen abstraktuek, ordea, ez dute itxurarik; beraz, ezin dugu esan norbaitek *izua* edo *ikara* bezalako itxura duenik, edo *egia* bezalako itxura zerbaitek, etab. Horrelakoetan esan genezake *iduri/irudi*-ren baliokide bilakatzen dela *itxura*. Azken batean *egia-itxura* eta *justizia-iduri* ez daude hain urrun bata bestetik.

Hil, berriz, bi eratara har dezakegu, aditz bezala: “hilda baleude bezala” edota izen bezala: “hilek duten bezalako itxuran”.

Adjektiboak ditugunean mugatzaile —nahiz eta hemengo *haserre* izena ere izan daitekeen—, badirudi beste interpretazio hau eman beharko genukeela: “haserre baleude bezalako itxura”, “onak balira bezalako itxura”...

Taxu mugakizuna izanik ere, arestikoen pareko hitz elkartuak osa daitezke:

“asmo ortan, lengo komentu xarrari beste bi bizitza egotzi zizkioten gañetik, ia eliz-tellatuaren pareraño, lengo etxe-pillo ez-berdiñari batasuna ta *edertajua* emanaz” (EL70,240).

Konparazio-elkartea da, zalantzarik gabe, gure corpuseko *zakur-estilo* ere, nekez erabiltzen baitugu *estilo* izena *zakurrei* buruz ari garenean; mugakizun hori duen elkarte bakarra denez, *itxura* mugakizunarekin batera sailkatu dugu:

“bera agian txapeldun Lizasoko "zakur" hura, bere zakur-estilorik jatorrenaz” (EJ00: 187)

Hemen sailkatu dugu, halaber, gure corpusean *papera (egin)* mugakizuna duen adibide bakarra:

“Txakurra ta eskopeta baditu, eta mendira joaten da eiztari-papera egiñaz” (HE16: 33)

II.5.2.8. KOLORE

Mugatzaileak: *arrosa, buztin, esperantza, gaztaina, hauts, krabelin, liberal, lur, more, osasun, pastel, rubi, su, udaberri, urre, zeru...*

“Aren lengo *larrosa* kolore ederrak biurtu ziraden *buztin* kolorekoak” (HE19,94).

“*larrosa* koloreko masalla ederrak biurtu ziran *krabelina* kolorekoak” (HE19,33).

“*esperantza* kolore, soinekoak pherde” (HE51,14).

“*gaztaina* koloreko pitxar aundi bat sagardoz beteta” (HE19,27).

“beragatic guciac *liberal*-usai eta colorea artzen du” (HE40,153).

“jantziak danak urratu eta musuak ere *lur* koloria” (HE23,107).

“Monet-en pintura-para aberatseko *more*-koloreak” (HE31,64).

“Zituan irurogeiren bat urte, *osasun* kolorea eta geyegi ez arren zer arin mardua” (HE19,31).

“Argiarekin *pastel* kolore berde arin batez pintratu gela bat agertu zeraukon” (HE58,52).

“hamar halako *rubi*-kolorezko unanu-lore jaiotzen ziren” (HE27,298).

“Zalduna egoan dama ederrari dudaz beterik begira; *su*-koloreak urrteten eutxen nai ezebala arrpegira” (EJ70,168).

“*Udabari*-kolorezko oial ez-titsu baten aurrean gelditzen naz gaur” (HE31,64).
 “*urre* koloretan erdoil batzuek itsustuak” (HE32,23).
 “Irri bat bazuen graziaz betea, begiak *zeru* kolore” (HE59,71).

Mugatzaileen gramatika-kategoriari dagokionez, guztiak izentzat har daitezke:

- a) izen bizigabe konkretuak: *arrosa, buztin, gaztaina, hauts, krabelin, liberal, lur, more, pastel, rubi, su, urre, zeru...*
- b) izen abstraktuak: *esperantza, osasun...*

Sarreran esan dugun bezala, *kolore* azal daiteke, noski, mugakizun bezala, inongo konparaziorik egin gabe: *larru-kolorea*, adibidez, “larruak duen kolorea” da (I.5.2), eta ez dago beste ezerekin/inorekin alderatuta; *Eguzki-lore* motako izen elkartu arrunta da.

Horietakoak dira hemen jaso ditugun batzuk: izen bizigabe konkretuak dira mugatzaileak eta hitz elkartu guztiek izendatzen dute errealitateko kolorearen bat: arrosak kolorea du, buztinak, gaztainak, urreak eta gainerakoek duten bezalaxe.

Izen elkartuotan lotura egiten da hitz elkartutik kanpoko erreferentearen kolorearen (demagun *pitxar, masail, unanu-lore, begi*-en kolorearen) eta elkartuak adierazten duen kolorearen artean; harekin konparatzen da zeraren koloreak izen elkartuko kolorea dakarrelako gogora, hain zuzen ere.

Jaso ditugun gainerako mugatzaileek —izen abstraktu eta bizidunak—, berriz, ez dute kolorerik. Halakoetan metaforaren batera jo behar da eta pentsatu hitz elkartuko mugatzaileek (*osasunak, udaberriak, liberalek...*) bide luketen kolorea dela konparaburua. Alegia, “Zituan irurogeiren bat urte, *osasun kolorea* eta geyegi ez arren zer arin mardua” idatzi duenak adierazten du hirurogei urte zituen pertsona horren kolorea osasunari egozten zaion kolorearen (demagun zurbila ez dena, gorrixka...) tankerakoa dela. *Usain*-ez aritzean antzeko azalpena emango dugu.

Bestalde, bereziak dira *esperantza, more* eta *pastel* mugatzaileak, hainbat arrazoi direla medio:

- a) *Esperantza* hiztun-taldeak kolore “berdea” adierazteko finkatutako metaforatzat jo daiteke.
- b) *More* kolorearen izena dela eta, atenzioa ematen du elkarketara jotzea eta ez koloreak izendatzeko ohiko izena + izenondoa eraikuntzara. OEHn *beltz, berde, gorri, urdin, zuri, more* eta *kolore* sarrerak begiratu besterik ez dago ikusteko oso adibide gutxitan (*beltz, urdin, zuri, txuri, xuri* sarreretan adibide bat ere ez, baina *berde, gorri* eta *more*-renetan ere arrunt gutxitan) dagoela aztergai dugun hitzaren hurrenkera, gainerakoan beti “kolore beltza, kolore gorria, kolore zuria...” erabili dute OEHko corpuseko autoreek.
- c) *Pastel*, berriz, teknika berezi batez egindako kolore-mota bat izendatzeko izena da. Osagaien arteko harremanak kontuan hartuta, galdetzekoa da noraino ez ote dugun aposizioa (H-E/3, X.2.5.: 118 / 98)⁹⁸: “*pastel* deritzan kolorea”.

⁹⁸ Hor berean jasotzen den *ortzadar-boa*-ren antzera? Gaztelaniaz, esate baterako, *pintura Renacimiento* bezalakoak aposizio sailkatzaileetan jasotzen dituzte (Val Álvaro 1999: 73.2). Sumpsumtiboan atalean berriz helduko diegu kontu hauei.

II.5.2.9. KUTSU

Mugatzaileak: *absolutu, administrazio, antzina, antzinatasun, antzinate, baba, barne, baserri, bertso, desafio, egia, erdara, erromantiko, etxe, euskara, gordin, igazkotu, itsaso, itzulpen, jakintza, kalbario, kausal, kontsekutibo, kontzesibo, modernotasun, olerki, paper, sobrenatural, suntsiera...*

- “*absolutu*-kutsu hori galtzen du” (EI94,22).
- “euskeraren galera eta *administrazio*-kutsua jatorrizko egiari nagusitzen ari” (EJ51,46).
- “dorrearen leihoak hertsu dira, zeken; eta goiko ojibak *antzinate* kutsu bitxia erasten die” (EJS1,21).
- “bere *barne* kutsua lotuaz eta masak beraiek osatu dituzten erakundeei lotu eta atxikiak” (EJ52,34).
- “gure jardunaren *baserri*-kutsu soportatu ezina” (HE35,4).
- “*desafio*-kutsua duten itz auek ere idatzi zituen” (EC07,33).
- “irakurgaiak darion *egi*-kutsuagatik” (HE28,69).
- “Etxahun, euskal-olerkarietan *erromantiku* kutsu iorikoa” (HE28,57).
- “erabili duen euskerak, oso aberatsa eta jatorra izan arren, ba du tarteka *gordin*-kutsua” (EJ51,57).
- “bixigu presko, gozo, urridun eta *itxaskutsu*arekikoa” (EJ64,49).
- “hitza gaurkotatzen eta *jakintza*-kutsua eman behar zaionez...” (EI94,18).
- “*olerki* kutsua baino, *bertso* kutsua obeto ba'dariote” (HE28,83).
- “Betikoa, jakiña; *sobrenatural* kutsua duen oro ipuizatzen artzea” (EC70,36).

Mugatzaileen gramatika-kategoria:

a) izen bizigabeak: *absolutu, administrazio, antzina, antzinatasun, antzinate, baba, barne, baserri, bertso, desafio, egia, erdara, erromantiko, etxe, euskara, igazkotu, itsaso, itzulpen, jakintza, kalbario, modernotasun, olerki, paper, sobrenatural, suntsiera...*

b) adjektiboa: *gordin...* Mugatzailea adjektiboa denean izen elkartuak hartzen duen balioa lotu behar dugu *antz* aztertzean ikusitakoarekin. Hemen ere euskarak “*gordin* kutsua” duela esatean adierazten dugu erabat *gordina* ez dela.

Autore beraren *kausal, kontsekutibo, kontzesibo* mugatzaileak direla eta, berriz, itxura guztien arabera, “[perpaus] *kausal* kutsu”, “[perpaus] *kontsekutibo* kutsu”, “[perpaus] *kontzesibo* kutsu” erabili beharrean erabili ditu mugatzaileok izen bihurtuta perpaus-motak bereizteko:

- “nola ere bait-i *kausal* kutsua dario; ikus denborazkoa noiz ere bait-” (EJ80:101).
- “perpaus nagusiak hain duelarik, *konsekutiva* kutsua dario; agertuko da besterik ere” (EJ80:134).
- “cein legun da: *konzesiva* kutsua dario: "quamvis..."” (EJ80:79).

Zentzu izena mugakizuna dela ere izan daiteke, aldizka, *kutsu*-ren parekoa:

- “leku denborazko markak *bizidun* zentzua dutenei erantsi behar zaizkienerako” (EJ56,32).

II.5.2.10. PLANTA

Hau ere ‘itxura’ adierakoa. Gure corpusean adibide asko ez ditugun arren, era bateko eta besteko mugatzaileak daude *planta* mugakizunaren ezkerrean: izen bizigabeak (*indar, dezepzio*), izen biziduna (*toreadore*) eta izen bizidun balioko adjektiboa (*inozo*):

- “Neskek egundoko *dezepzio* plantak egin zituzten” (HE39,106).
- “buruko ile sarriak areagotzen zuen aren *indar*-planta” (EJ00,179).
- “ez emen asi *inozo* plantak egiten, Niko” (HE57,134).

“San Krispiñ egunean *toleadore*-plantak eguiten erabilli ebana?” (EJ07,2).

Indar-planta-ren adibidea alde batera utzita, galdetzekoa da ez ote litzatekeen zuzenago “(Zerbaiten) plantak egin” aditz-esapide [edo predikatu konplexu (Zabala 2001)] antzekoaren barrutikotzat hartzea (*itxura(k) egin*, (*ehiztari) papera egin* (HE16,33)... eraikuntzen ildo beretik). Hala izanez gero, beharbada, elkarketaren eta sintaxi-egituren artean genbiltzake areago elkarte bete-betea baino.

II.5.2.11. TANKERA

Ikusi dugun bezala, adieretako batean⁹⁹ *itxura*, *antz-en* baliokidea da. Mugatzaileak: *autobiografia*, *bildots*, *esplikazio*, *gizon*, *kalbario*, *olerki*, *saio*... Guztiak izen kategoriakoak ditugu, bizidunak eta bizigabeak:

- “liburuaren nabarmenena *autobiografi* tankerako bat da” (HE28,69).
- “esan zezala kondeak nai zuna, otsoa alena ua, *bildotz*-tankeran” (EL70,48).
- “bere izatez eta egitez, ezpaitu iru *esplikazio* tankera baizik jasaiten” (EC70,30).
- “etzen, noski, *gizatankera* otz, neurritsu kalkulakor eta itxurati oietakoa” (HE28,72).
- “alako *gizon*-tankera parregarria ematen ziotek” (HE17,17).
- “antza galanta ere badu ermita arek gure elizarekin antzinako *kalbario*-tankeran” (EL70,98).
- “Musset'ek eta Espronceda'k erabilli zuten *olerki* tankera” (HE28,82-82).
- “Euskalki nahastea ere *saio* tankera horretatik datorkio” (HE27,348).

II.5.2.12. USAIN

Metafora balioa duen neurrian dakartzagu adibideok (II.5.1 puntuan aztertu ditugu balio metaforikorik gabeak, ‘iturburua’ erlaziopean): *aberkoi*, *arkaismo*, *artobero*, *arrain*, *basaka*, *baserri*, *bero*, *bizkaitar nahiz bertze edozein eskualde*, *diru*, *egia*, *egun*, *erdara*, *eritasun*, *erremedio*, *errepublikano*, *euskara*, *festa*, *garo*, *guda*, *haserre*, *infernu*, *katu*, *koxkero*, *kristau*, *lapur*, *lehengusu*, *liberal*¹⁰⁰, *lotsa*, *masoi*, *morokil*, *mozkor*, *odol*, *politika*, *prestutasun*, *protestante*, *sakristau eta konbentu*, *santu-izen*, *zahar*...

- “geiegi bazkatu baititugu geren gogoak *aberkoi*-usaiezko gezurrez” (HE17,50).
- “arroko ta *artobero*-uxai omen-naiz” (HE17,54).
- “vokabularian *bizkaitar nahiz bertze edozein eskualde*-usaina agertzea ez-litzate kaltegarri” (HE26,287).
- “Goisabar, edo *egun* usaiñagaz batera” (HE20,116).
- “jaki-prestaera auek badute alako *guda*-usai gutxi bat” (EJ64,57).
- “*infernu* usaya dacar berorrec” (HE07,347).
- “euskerari *sakristau eta konbentu*-usaia kentzekoa” (HE57,127).
- “ezagutuco dozu zuc dongatzat, *lapur*-usainecotzat” (HE20,168).
- “Pompello onek *lehengusu*-usaia badulako Porrasekin” (EL70,191).
- “escuen artean darabiltzquien gauza guci ayetan *liberal*-usaya banatzean” (HE40,81).
- “beragatic guciac *liberal*-usai eta colorea artzen du” (HE40,153).
- “dantzarako eztot nai *morokil*-usainekorik, nik neuk lakose *arrain*-usaiñekua nai dot” (EI99,141).
- “*mozkor*-usaiñez loreek ire barnegiroa zoraturik?” (EJ50,105).
- “Urkizu'tar Ana Batista ama, Seguran jaio ta bertan moja bizi ta illa. 84 urtekin il zan *santu-izen* usaiean (1675), 24 urtez komentu artako buruzagi izan ondoren” (EL70,114).
- “hizkara horrek *zahar*-usaia eta antzina-kutsu arin-samarra daduka” (HE26,278).

a) izen bizidunak: *aberkoi*, *arrain*, *artober*, *katu*, *kristau*, *lapur*, *lehengusu*, *masoi*, *protestante*, *sakristau*...

b) izen bizigabeak:

⁹⁹ Beste adierarako (‘moldea’, ‘modua’...), ik. *Jarleku* motan *idaztankera* (HE/3, XI.: 81 hur. / 61 hur.).

¹⁰⁰ Ik. hemengo *kolore* mugakizuna (II.5.2.8).

konkretuak: *baserri, bero, diru, egun, erdara, errepublikano, euskara, festa, guda, infernu, konbentu, koxkero, liberal, morokil, mozkor, odol, politika, santu-izen, zahar...*

abstraktuak: *egia, eritasun, lotsa, prestutasun...*

biziduna eta bizigabea juntatua: *sakristau eta konbentu*

Determinatzaileak gabeko IS ere badago: *bizkaitar nahiz bertze edozein eskualde*.

Osagaien arteko erlazio semantikoei dagokienez, *usain* mugakizunak *kolore* mugakizunaren antz handia du, alde honetatik. Genioen bezala, *usain* mugakizuna erabil daiteke inongo konparaziorik tartean ez dela: *erre usaina*, demagun, erretako gauzei darien usaina da, eta ez dago beste ezerekin/inorekin alderatuta. Ez da, ordea, sail honetan daukaguna.

Mugatzaileen izaerari begiratzen badiogu, konturatuko gara badirela gauzak benetan usaina dutenak (adibideetako izen konkretu batzuk) eta beste batzuk berez usainik gabeak direnak. Guztietan norbaiti/zerbaiti beste norbaiti/zerbaiti darion bezalako usaina dariola ulertzen badugu ere, bidezkoa da xehekiago ikustea konparazioa nola gertatu den.

Multzo batean sartzekoak dira izen elkartutik kanpoko ‘zera’ri (*arrainari, morokilari, odolari...*) baldin badario benetan izen elkartuan zehazten den bezalako usaina, zeraren usainak izen elkartuko usaina dakarrelako gogora uztartzen dira, hain zuzen ere.

Baina adibide gehienak bestelakoak dira. Bai izen bizigabe konkretu batzuek (*diru, egun, festa...*), bai zenbait bizidunek (*kristau, lapur, lehengusu...*), izen bihurtutako adjektiboek eta —zer esanik ez— abstraktuek, ez dute berez usain jakinik, kanpotik sudurraz adi daitekeenik bederen. Hemen metafora bat da tarteko: “protestanteei, diruari, artoberoei...” bide darien usaina hartzen da konparaburutzat.

Halaber, hemen sartzekoa litzateke *sunda* (‘usain’, ‘hats’...) mugakizuna duen hauxe:

“ez-geunde bada ifoiz ere *maixu*-sundezko euskerarik erabili bear” (EJ06,85).

II.5.3. Mugatzaileen gramatika-kategoria

Konparazio-elkarteetako mugatzaile gehienak izenak dira; era askotakoak (bizidun nahiz bizigabeak, konkretuak, abstraktuak...). Izenaren eginkizunean erabilitako adjektibo edo partizipioak ere ez dira gutxi. Aditzen bat ere ikusi dugu (*irudi, itxura* mugakizunekin). Zegokion atalean azaldu dugu honen gainekoa. Beste askotan bezala, baditugu juntagailuz elkarturiko mugatzaileak (horietako bakoitza aldi berean elkartua izanik), *arin-eskas eta leun-eskas aire*; mugakizuna elkartua duen *liberal usain eta kolore*, eta mugatzailea izen elkartua dutenak: *basomutil itxura*.

Aipa dezagun, azkenik, atal honetan jasotako mugatzaile batzuek (*itxura, fama, kolore, usain...*) kategoria lexikoetatik kanpoko mugatzaileak eraman ditzaketela, eta horretan ez bide du eraginik benetako kolore edo usaina edo metaforikoa izateak. Urrutirago gabe, hor ditugu, besteak beste, *usteldutako hosto usaina, jantzi busti usaina* eta *bizkaitar nahiz beste edozein eskualde usaina* (IV.3).

Adibide horien ildoko gehiago ere baditugu corpusetik kanpokoak. Esate baterako Bitoriano Gandiagaren hauek:

“Baztarren gaiñez, itzala, *ardo-baltz*-kolore urratuz, moltzotan” (Gandiaga, El: 99).
“*Elorri eder*-tankeraz eder-naiezko poematuak” (Gandiaga, El: 21).

Alegia, ez dirudi erabat ezinezkoa *bertsolari txar fama* eta *elurrezko panpin itxura* bezalakoak egiteak. Azken batean, berriz ere aurreko ataletan atera zaigun kontu bera dugu: osagarria eskatzen duten mugakizun berezi hauetako batzuek lexikotik kanpo ere bete dezakete duten eskakizuna.

II.5.4. Osagaien arteko erlazio semantikoak

Oro har elkarketa hauek elkartetik kanpoko konparazioa adierazten dutenez, ez da erraza hemen gertatzen diren erlazio semantikoak zehaztea. Azken batean, horretarako, konparazioaren aurretiko irakurketak beharko genituzke, elkarketa hauen oinarrian dauden beste elkarketa batzuk.

Zenbait autorek ez dituzte horrelako konparazio-elkarteak kontuan hartzen mendekotasunezko hitz elkartuak aztertzerakoan. J. Levy-k (1978), adibidez, mendekotasunezko hitz elkartuak sakoneko erlazio semantikoen arabera aztertzen dituelarik, horrelakoak berariaz kanpoan uzten ditu, konparazioa edo metafora kutsua dutenak, alegia. Horietan erlazio semantiko orokorrik aurkitzea oso zaila dela eta beste modu batera tratatu behar direla aitortzen du. Gehienaz ere, mugatzailea biziduna denean (baina ez beti), “norbaitek duen bezalako *kolore, itxura, usaina...*” parafrasia konparazioaren aurretiko oinarritzat hartzen badugu, ‘jabegoa’ erlazio semantikoaz edo hitz egin dezakegu. Eta neurri batean beste horrenbeste aurki dezakegu mugatzaile bizigabe, konkretua bada; baina ez beti.

II.5.5. Emankortasuna

Zenbait mugakizunekin beste batzuekin baino adibide gehiago aurkitu ditugu. Alde honetatik, esanahian bertan konparazio zentzua daramatenak emankorrenak dira. Metafora kutsua dutenak, berriz, ez dirudi horren bizirik daudenik, baina literaturan badute bere tokia.

II.6. *SUMPSUMTIVE* MOTAKOAK

II.6.1. Sarrera

Hitz elkartu hauek euskaraz ez ezik (H-E/1, VIII.4: 73 / 68; Azkarate 1990: 196-199; 1991, 119; Pérez Gaztelu; Zabala; Gràcia 2004: 129-130) beste hizkuntza batzuetan ere aztertu izan dituzte (Darmesteter 1874: 142; Bergsten 1911: 50; Koziol 1937: 49; Marchand 1965: 302; Levy 1978: 92-93...) ¹⁰¹. Marchand-en *sumpsuntive* deizioa eta definizioa geure eginez honela definitu zituen elkartuok: “mugakizuna *genus proximum* eta mugatzailea *differentia specifica* izan ohi dira” (H-E/1, VIII.4: 73 / 68). Horregatik, “Species-Genus” ere deitu izan zaie. Azkarateren (1990: 196) modura esanez, “ezkerreko osagaiak espeziea eta eskuinekoak generoa adierazten dute”; hots, *lizar arbola*, *jaspe harria*, *menta belarra* hitz elkartuak hartuta, ohartuko gara ezkerreko osagaiak (*lizar*, *jaspe*, *menta*) espeziea, erreferente zehatza, eta eskuinekoak (*arbola*, *harria*, *belarra*) generoa, erreferente zabala adierazten dituztela.

Semantikaren ikuspegitik begiratuta, osagaien arteko harremana inklusiozkoa, hiponimiazkoa dela esan daiteke. Hauxe dute ezaugarri funtsezkoena: hiponimia; bestela esan, ezkerreko osagaia, zehatzena, hiponimoa da (errealitateko erreferentzia-esparru txikiagoa duena) eta eskuinekoa, berriz, hiperonimoa (errealitateko erreferentzia-esparru zabalagoa duena) (Dubois 1983; Lyons 1977: 273 hur.). Honek dakar hitz elkartu horien parafraasiak analitiko edo tautologikotzat ¹⁰² ere hartu ahal izatea: “lizarra arbola da”, “jaspea harria da”, “menta belarra da” ¹⁰³; hau da, askotan ezkerreko osagaia aipatzea aski izan daiteke —hiztunak mundu horren berri badu bederen— izendatu nahi dena izendatzeko, bere esanahian eskuinekoaren esanahia ere sartua baitago: *lizarra* = *lizar arbola*, *jaspea* = *jaspe harria*...

Beste era batera esanda, elkartearen tasunak edo ezaugarriak (*lizar arbola*), azken batean, bi osagaiek batean dituztenak dira; mugakizunaren ezaugarri guztiak hartuta (*arbola* izenarena, esate baterako), mugatzaileak (*lizar*) aukeratzen du mugakizunaren ezaugarrien artean; horrexegatik erabil daiteke mugatzailea bakarrik, elkarte osoaren ezaugarriak adierazten baititu ¹⁰⁴.

Nolanahi dela ere, ezin esan daiteke sumpsumtibotzat jo izan diren guztietan harreman hau betetzen denik, *mihi arraina*, *eguzki lorea*...; *Errezil sagarra*, *Donian belarra*, *San Joan lorea* eta beste hainbatez ezin esan daiteke jaso berri duguna: **“mihia arraina da”*, **“Errezil sagarra da”*...

Errealitatea izendatzea eta sailkatzea ez dagokio bakar-bakarrik hitz elkartu mota jakin honi, egia da, baina esan daiteke horixe dutela hitz elkartuok berezitasun. Horregatik, hitz elkartuok natur zientzietako terminologian (landareak, animaliak, mineralak...) eta, oro har, taxonomia beharrezkoa dutenetan dute erabilera-esparru nagusia. Baina irizpide horri eutsiz, arestikoekin batean beste batzuk ere aipatu ziren H-E/3 lanean.

¹⁰¹ Honek ez du esan nahi ikertzaile guztiak izendapen eta aztertzeke modu beraz baliatu direnik, Azkaratek (1990: 196) jasotzen duen bezala: “Hitz elkartu kopulatiboen inguruan aztertu izan dituzte, ‘gehiketa’ edota ‘atributibo’ azpisailekoekin batera gehienetan”.

¹⁰² Parafraziari ari gara, ez hitz elkartu motaz. Hitz elkartu tautologikoak, parafraasian bat etorriagatik, bestelakoak baitira: *paper-ingi*... (Azkarate 1990: 195-196; H-E/3, IX.1.1.: 99 / 79).

¹⁰³ Alderantziz ez, ordea: **“arbola lizarra da”*, **“harria jaspea da”*, **“belarra menta da”*, hiponimiazko harremanetan ohikoa den bezala.

¹⁰⁴ Estentsioaren (erreferentziaren) ikuspegitik. Intentsioaren ikuspegitik (esanahiarenetik), jakina, zenbat eta zehatzagoa izan orduan eta ezaugarri edo sema gehiago behar ditu adiera zehazteko.

Gainmultzo-izaera hori benetakoa izan daiteke, edo logiko-abstraktua (...) *aberaste-lan, ebaluazio-lan, gizarteratze-lan, afari-kontu, elebitasun-kontu, definizio-kontu, ulermen-kontu* modukoek osatzen dute, bestalde, logiko-abstraktuen saila. (H-E/3: 78-79)

Honenbestez esana dago naturaren mundutik kanpo ere baliatzen garela elkarketa-mota honezaz, adigai abstraktuagoak tartean direnean, baina betiere gisa bateko nahiz besteko errealitatea sailkatzea izanik eginkizun.

Xehetasunetan sartu baino lehen, uste dugu komeni dela sumpsumtiboak auzo dituzten beste hitz elkartu batzuen parean paratzea sumpsumtiboen ezaugarriak argitzeko baliagarria gertatuko delakoan.

Oin-oharrean esan dugun moduan, alde batetik, sumpsumtiboak atributuzkoekin batean sailkatu izan duenik bada. Bestetik, berriz, aurreko lanetan aipatua dago sumpsumtiboak eta aposizioak bereizi beharra eta azpimarratu aposizioen eta atributu-elkarteen arteko antza (H-E/3, X.2.: 112 hur. / 92 hur.). Badirudi, hortaz, beharrezkoa dela sumpsumtiboen, atributu-elkarteen eta aposizioen arteko antzak eta aldeak bereizten saiatzea.

Elkartuen osaera morfologikotik abiatuko gara. Bai atributuzkoen, bai sumpsumtiboen osagaiak bi izen arrunt izan ohi dira, oro har, nahiz eta ezkerreko osagaia izen berezia duten adibide batzuk ere aipatzen diren sumpsumtiboen artean (H-E/3, X.2.1.: 112 / 92): *Errezil sagarra, Donian bedarrac...* Aposizioetan, aldiz, ohikoena da ezkerreko osagaia izen berezia izatea: *Bidasoa ibaia, Aloña mendia*. Hala ere, sintagma, are perpaus osoak (“*Que-sais-jé*” bilduma, “*Acto para la noche buena*” teatro-lana...) eta izen arruntak, letrak, sinboloak... ere (*p letra, “apartheid” politika...*) izan daitezke aposizioaren ezkerreko osagaiak.

Ez du ematen osaera morfologikoak argi handirik ematen duenik elkartuok bereizteko. Argudioak beste nonbait bilatu behar.

Atributuzkoetan, oro har¹⁰⁵, ezkerreko osagaiak ezartzen du elkartuaren erreferentzia. Horrela, esate baterako, *lehoi errege, hiri etsai* atributiboetan, *lehoiaz, hiriaz* ari gara eta *lehoi* edo *hiri* horiezaz predikatzen dugu *errege* edo *etsai* direla. Honenbestez, ezkerreko osagaiak multzo zabala adierazten du (*lehoi, hiri*) eta eskuinekoak, nolabait esan, multzo horretako azpimultzoa (“erregea dena eta ez bestea”, “etsaia dena eta ez bestea”). Baina ez dago zertan bi osagaien arteko parekotasunik izan: esate baterako, ezer gutxi dute batean ‘lehoi’ izateak eta ‘errege’ izateak elkartetik kanpo.

Aposizioetan ere ezkerreko osagaiak ezarri ohi du elkartuaren erreferentzia, baina, atributuzkoetan ez bezala, eskuineko osagaia ere bada elkartuaren erreferentziaren parte. Esan nahi da *Gorbeia mendia, p letra* aposizioetan *Gorbeia, p* osagaiak dira erreferentzia zehatza ematen digutenak; areago, denboraren poderioz ezkerreko osagai soila aski izan daiteke elkartu osoak izendatzen duena izendatzeko. Eskuineko osagaiak argitzen du zein eratakoak diren izaki edo gauzaki horiek: *mendia, letra...*; alegia, ezkerreko osagaia bere multzo

¹⁰⁵ Hala diogu Azkaratek (1990: 187) atzekoz aurrerako hurrenkera duten hainbat adibide jasotzen dituelako: *atso sorgin / sorgin atso, senar errege / errege senar...* bezalakoak. Baina, beharbada, pentsa daiteke errealitatea ikusteko moduak direla eta kasu guztietan ezkerrekoa dela hitz elkartuaren erreferentzia, alegia, “atsoez arituz, sorgina dena”, “sorginez arituz atsoa dena” edo “senarrez ari garela errege dena” eta “erregeez ari garela senarra dena”. Edozein kasutan ez dirudi sumpsumtiboekin nahasteko biderik ematen dutenik. Beste kontu bat da kopulatibo koordinaziozkotzat jo behar diren edo ez, baina ez gara orain horretan sartuko. Ik. H-E/3, IX: 97 hur. / 77 hur.

zabalean kokatzen laguntzen digu. Nolanahi dela ere, errepara badutela bi osagaien ezaugarriek zerbait batean: *Gorbeia* mendiaren izena da, *p* letraren izena da¹⁰⁶. Hau da, hitz elkartuak bi osagaien ezaugarriak nolabait bereganatzen dituela esan daiteke.

Aposizioen bereizgarria “zer” bakarra izendatzean datza. Eta honexek balioko digu bestela oso antzekoak diren sumpsumtiboetatik bereizteko.

Sumpsumtiboetan ere osagaien arteko harreman semantikoa arestikoa bezalakoa da: multzo zabala eskuinekoak adierazten du (*harria, belarra...*) eta ezkerrekoak zehatza (*jaspe, hirusta...*), baina ezkerreko osagaiak ez du “zer” bakarra izendatzen, sail osoa baizik. Egia da, hala ere, badagoela adibideren bat edo beste alderantzizko hurrenkeraren araberkoa: esate baterako, *zakur galgo*¹⁰⁷, *zakur xarlango*. Sumpsumtiboan artean sailkatzeko debekurik batere ez bide dugu: osagaien arteko harremana hiponimiazkoa da, *xarlango, galgo* esatea aski da zakur-mota horiezaz ari garela adierazteko. Baina, ez dezagun ahantz salbuespena direla.

Orain arte hizketagai izan ditugun sumpsumtiboak gisa bertukoak dira eta eman ditugun ezaugarrien arabera azal daitezke. Ez dira, baina, mota honetan sailkatu izan diren guztiak azaltzeko egokiak.

Badira sumpsumtibotzat hartzen diren elkartuen artean: *mihi arraina, katuarrain, lehoi inurria, arratoi zakurra*, edo —bitxia irudituagatik— *eguzki-lorea* bezalakoak. Sumpsumtiboan artean sartzeko modukoak dirudite, arrain, inurri, zakur, lore-motak izendatzeko darabiltzagun izenak baitira. Baina hitz elkartuaren erreferentea eskuineko osagaiak ezartzen du, ez ezkerrekoak, lehen ikusiek egiten zuten bezala. Eta, batez ere, ez dago hiponimiazko erlaziorik ez tautologiarik: “hirusta belarra da”, baina “mihia ez da arraina”, “katua ez da arraina”, “lehoia ez da inurria”, “arratoia ez da zakurra”, “eguzkia ez da lorea”... Ez dago garbi zenbateraino eutsi dakioken ezkerreko izenak espeziea adierazten duen usteari: *mihia, ezpata, katua, arratoia, eguzkia* noraino har daitezke espezieak adierazteko deiziotzat?. Honezaz gain, bistan da guztietan ezkerreko osagaiak konparazio batean duela oinarria “mihia bezalako”, “mihi itxurako arraina”, “arratoiaren antzeko zakurra”... Alegia, beste multzo bat osatzen dute konparazioan¹⁰⁸ oinarritzen diren beste hitz elkartuok, ezkerreko osagaiak, oro har, adierazten du zein itxura, kolore (*urre-lili, urretxindor*...), etab. duen eskuinekoak.

Beste hainbat kasutan, berriz, duda sor daiteke hitz elkartua sailkatzean, batez ere osagaien arteko harreman semantikoa hiponimian (*lizar arbola* modukoak) edo konparazioan oinarritua ez denean (*mihi arraina* modukoak). Har ditzagun, *usain-belarra, pasmo-belarra, kotoi-landarea, bazka-landarea*, esate baterako; badira belar edo landare-moten deizioak; *erbi-txakurra, artzanora*... ere badira gisa bateko edo besteko zakurrak, baina osagaien arteko erlazio semantikoei begiratuta ikusten dugu ez dagoela lehen aipatu dugun harremanaz hitz egiterik; areago, era askotako harremanak izan daitezkeela tartean: “usaina ematen duen belarra”, “kotoia emango duen landarea”; hau da, mendekotasunezko hitz elkartua, ‘ondorioa’ erlazio semantikoaren adierazlea dena; “pasmao sendatzeko belarra”, “bazkarako landarea”, “erbiak harrapatzeko txakurra”; hots, ‘helburua’ adierazten dutenak; bestetik, berriz, “artzainek erabiltzeko, artzainen ora”, mendekotasunezkoa ‘jabegoa’ (edo helburua, norentzakoa) adieraziko lukeena dugu *artzanora* hitz elkartuaren ulkerera...

¹⁰⁶ Hitz elkartuen eta aposiziozko harremanen berri zehatzagoetarako Odriozola; Perez Gaztelu (2002) lanera jo daiteke.

¹⁰⁷ *Hitz-Elkarketa/3* lanean atributuzkoen artean sailkatuta dago (H-E/3: 100 / 80).

¹⁰⁸ Horrexek lotzen ditu II.5 ataleko konparazio- eta irizpen-elkarteekin.

Kontua korapilatsuagoa da eskuineko osagaia *kontu*, *lan* edo hauen gisako adigai zabalagoa, “logiko-abstraktua” (H-E/4, 11.2.3) adierazten duena denean —*gauza*, esate baterako—: *kontu*, *lan* motak direla ukatu gabe ere, ez al dago askotan ulertzerik mendekotasunezko hitz elkartua dela eta ezkerreko osagaiak ‘edukia’ (II.5.4) adierazten duela? *afari-kontu*, *arte-lan* ezin al dira ulertu: “kontuaren gaia, edukia... aforia da”, “lanaren gaia, edukia... artea da”?, edo, ‘egilea’, *atso-kontu*, *apaiz-lan* elkartuetan duguna?.

Ikusitako honek guztiak gogoeta honetara garamatza: sumpsumtiboek ari garelarik bereizi behar dira hitz elkartuok duten eginkizuna, taxonomikoa batik bat, eta izaera morfologiko-semanticoa; zehazkiago esan, osagai-motak, osagaien arteko harremanak eta elkartu osoaren eta osagaien artekoak.

Lehen irizpidea gehiegi zabaltzeak eraman gaitzake motak, sailak, azpimultzoak...—lehen ahotan genuen hiponimiazko harremana azken batean— adierazten dituzten hitz elkartu guztiak sail honetan sartzera: zergatik ez kokatu, esate baterako, *esne-behi* sumpsumtiboaren artean?, ez al du behi-mota bat adierazten? Bestetik, berriz, ez dugu ahantzi behar sumpsumtiboetatik landa beste baliabide batzuk ere badarabiltzagula sailak edo multzoak bereizteko¹⁰⁹. Garbi dago, hortaz, irizpide hau ez dela aski hitz elkartu bat mota honetan kokatzeko.

Horiek horrela, osagaien izaerari eta harremanei begiratzea ezinbestekoa da. Esana dugu hitz elkartu mota hau osatzen duten bi osagaiak izen arruntak izan ohi direla. Era berean adierazia dago bai bizidunak (animaliak...) bai bizigabeak —hizkuntzaren ikuspegitik hala direnak— (landareak barne) izaten direla.

Bestalde, ez genuke zokoratu behar bi osagai horien arteko harreman nagusia: hiponimiazkoa, hain zuzen ere. Ezta hiponimiazko harreman horren arrunteko ordena: ezkerrekoak murrizta, eskuinekoak zabala. Eta, horiekin batean, elkartuaren ezaugarrien eta elkartuko osagaien arteko harremanak. Geroxeago zehaztuko dugu hau.

Gure ustez, aipatu berri ditugun ezaugarriak dituzte berezi eta bereak sumpsumtibo motakoek, oro har; honexek bereizten ditu beste hitz elkartu motetatik. Baina irizpide hau estu hartzeak ekarriko luke orain arte sumpsumtibotzat hartu izan ditugun hainbat hitz elkartu sail honetatik atera behar genituzkeela: esate baterako, kontzeptu abstraktuak adierazten dituzten asko (*afari-kontua*, *musika-lana*...), ezkerrean izen berezia dutenak (*San Joan lorea*, *Errezil sagarra*...), bi osagaien arteko harremanaren oinarria konparazioa dutenak (*mihi arrain*, *eguzki lore*...), edo mendekotasunezko hitz elkartuetan lasai asko azal daitezkeenak (*artzanora*, *erbi-txakurra*...); alegia, era horretako hiponimiazko harreman hori ez dutenak. Goazen auzitan bide daudenak banan-banan ikustera.

a) *kontu*, *lan*... eskuinean duten elkartu ugari neke handirik gabe sailka bide daitezke gainerako mendekotasunezko hitz elkartuen artean. Askotan ez da garbi ikusten zenbateraino betetzen dituzten sumpsumtiboaren ezaugarriak: ez dago hiponimiazko harremanik osagaien artean, mendekotasunezko arruntek bezalaxe, hainbat harreman semanticotako mota gauza ditzakete —esate baterako, ‘egilea’ (NORK): *emakume-kontu*, *sorgin-kontu*, *apaiz-lan*, *irakasle-lan*...—, etab.

¹⁰⁹ Urrutirago gabe eta besteak beste, lexikalizazioaren ondorio diren asko. “Hitz-andana ihartuak” (H-E/3, XIII.: 191-205 / 171-185): *arrainzabal*, *arraingorri* (“Composición impropiaamente dicha”, Villasante 1974: 23-26), edo lehen ahotan hartu ditugun atributuzkoak berak...

Baina honen ondoan, egia da badirela sumpsumtibotzat har daitezkeenak ere. Esate baterako, ezkerreko osagaia aditzetik eratorritako izena eta eskuinekoa batez ere *lan* dugunean, askotan ‘ekintza’, ‘ariketa’ (ZER, ZERTAN), edo ‘helburua’¹¹⁰ (ZERTARAKO, NORAKO, ZEINENTZAT, NORENTZAT) adierazten dutela ukatu gabe ere (*bereizte-kontu*, *banatze-kontu*, *bereizte-lan*, *dibulgazio-lan*, *alfabetatze-lan...*), ez dirudi *lan* osagaiaren esanahia eta ezkerreko osagaiarena hagitz urruti daudenik: *dibulgazio-lana*, ‘dibulгатzea’ bera da edo izan daiteke, hein batean bederen. Hau da, elkartu osoaren ezaugarriak eta mugatzailearenak (eta mugakizunarenak) ez bide dira arras bestelakoak. Horrenbestez, sumpsumtiboentzat eman ditugun azalpenek hemen ere baliagarriak dirudite.

Beste hamaika kasutan ez dago horren garbi zein den osagaien arteko harremana ez eratzen duten elkartuaren sailkapena. *Lan* mugakizunarekin baino gehiagotan sortzen da duda *kontu* osagaiarekin. Nola ulertu behar dugu hurrengo adibideko *aditz-kontu*? Mendekotasunezko arruntan moduan eta ‘edukia’ edo ‘gaia’ harreman semantikoaren arabera: “kontuaren edukia aditza da”, “kontua aditzaz egina da”...? Edo sumpsumtibotzat hartuta: “aditzetan izango genuela behaztopabiderik zailena”? Ez baitugu baztertu behar hiponimiazko harremana inklusiozko harremana dela; hortaz, ‘edukia’ harremana tartean dela.

“*aditz* kontuan izango genuela behaztopabiderik zailena” (HE27,377).

Itxura guztien arabera, *kontu*, *lan* eta erantsi dugun *gauza* mugakizunek aski esanahi lausoa edo zabala izatea erabakigarria izan da sumpsumtibotzat jotzeko, zenbat eta abstraktuagoa, gutxiago mugatua... izan orduan eta aukera handiagoa izango bide du edozein kontzeptuk hiponimo izateko.

b) *Artzanora*, *erbi-txakurra*, *pinu-perretxikoa* bezalakoak, taxoi izenak izan badaitezke edo badira ere, beste gabe, mendekotasunezko arruntzat jo daitezke —haien ezaugarriak betetzen dituzte eta—, eta horren baitan harreman semantiko motak bereizi, lehen genioen moduan.

c) Bestelakoak dira izen berezia ezkerretara dutenak: *Errezil sagarra*, *Donian belarrak*, *San Jose lorea*... sagarrak, belarrak, loreak... sailkatzeko erabiltzen ditugun izenak dira, bai, baina osagaiek ez dute bere artean sumpsumtibo “kanonikoek” duten harremana: Errezil ez da sagarra, Donian ez da belarra...

LEF batzordearen aurreko lanean (H-E/3: 112 / 92), aposizioak mintzagaia zirela, *Donian bedarrac* modukoak aposizioetatik bereizi eta sumpsumtiboetan ikustekoak zirela esan zuen izaki bakarra ez baina klase osoa izendatzeko darabiltzagula argudiatuz. Baina, egia esan, mendekotasunezko izen elkartuen artean ‘tokia’ eta batez ere ‘garaia’ harreman semantikoa dutenen artean ez ote daitezkeen azter ere pentsa daiteke: *San Joan sagarra*, *udarea*, San Juan egunaren sasoiko, ekaineko sagarra, udarea da.

d) Beste sail zabal samarra osatzen dute konparazioan oinarritzen direnek. Baditugu euskaraz beste hitz elkartu batzuk konparazioan oinarria dutenak. Urrutirago gabe, aurreko atalean (II.5) aztertutako: *aire*, *aurpegi*, *itxura*, *planta*... mugakizuna dutenak.

Komeniko da, hortaz, hemengo *mihi arraina* eta hango *integrasta aire* zertan ez diren gisa berekoak argitzea:

¹¹⁰ *Jarleku* motako en antzera (H-E/3, XI: 81-93 / 61-73).

-batetik, hemengoek ez dute haiek funtsezkoa duten jabetzako harremanik. Erka, adibide moduan, honakook: ‘integristek halako airea dute’ / *‘arrainek halako mihi dute’.

-bestetik, berriz, nekez predika dezakegu hitz elkartutik kanpo dagoen izaki batengatik halakoa dela: “Harakok integrista itxura du”, “Harakok integristek duten bezalako itxura du” / *“Harakok mihi arraina du”, *“Harakok mihiiek duten bezalako arraina du”.

Garbi dago, honenbestez, bi elkartu motok oinarrian konparazioa izanagatik, ez dela bietan era berean gertatzen eta ezin sail berean koka daitezkeela. Funtsean: haiek predikatuak eratzen zituzten eta hauek ez. Baina bereizkuntza honek ez digu *mihi arrain* bezalakoak non kokatzekoak diren argitzen.

Azkarateren (1990: 198) iritiz, sumpsumtiboan sailean ‘Especie-Genero’ harreman zehatzaz gain, alderatzea ere sar daiteke; horixe izango lukete hitz elkartu hauetako askok bereizgarri. Gainera, inguruko hizkuntzetan ere, hizkuntza bakoitzaren hurrenkera, *pez espada / poisson épée / sword fish* bezalakoak baditugu. Hau da, konparazioan oinarritzen diren eraikuntzak multzo zabal batean multzo txikiagoak bereizteko¹¹¹.

Badirudi bi aukera ditugula bereizitzat jo ditugun hitz elkartu hauek sailkatzeko: edo sumpsumtiboan artean sailkatu, duten bereizitasunaren berri emanez, edo mendekotasunezko hitz elkartu arruntan artean sailkatu.

Esan dezagun azkenik adibide gehienak naturaren mundukoak izanagatik, ez dugula aditzera eman nahi bestelako gaietan sumpsumtiba (**H-E/3, XI: 81-93 / 61-73**). orik ez dugunik, esate baterako, gure corpuseko *euskal hizkuntza*, *latin hizkera*, *kasete makina* bezalakoak lasai aski sar daitezkeela iruditzen zaigu, sumpsumtiboan ezaugarriak betetzen dituzte eta.

Orain arte esandakoa laburbilduz:

- Sumpsumtibo mota garbien ispilatzen duten elkartuek hiponimiazko harreman semantikoa dute bere osagaien artean: *lizar arbola* eredua.
- Ezkerreko osagaia izen berezia dutenak. Lehen genioen bezala, aposizioetatik nahiz mendekotasunezko arruntetatik gertu egonagatik, hemen aipatuko ditugu, ‘Especie-Genero’ erlazioa nagusi delakoan.
- Konparazioan oinarritzen diren elkartuak. Ezkerreko osagaiak espezia zentzu estuan adierazten ez badu ere, pentsa daiteke itxuraren, kolorearen... arabera alderatzeaz hitzuna baliatzen dela multzo zabaletan multzo txikiagoak egiteko: *mihi arrain* eredua. Hitz elkartuak bere ezaugarriak mugakizunaren ezaugarrietatik hartzen ditu, ez mugatzailearenetik. Azken honen eginkizuna, mendekotasunezko izen arruntetan bezalaxe, erreferentzia zehaztea da. Alegia, *arrain* eta *mihi arrain* izenek, *esne* eta *behi-esne* izenek bezalaxe, funtsezko ezaugarri berak dituzte, *arrain* eta *esne* izenei dagozkienak, *mihi*, *behi* izenenak ez bezalakoak direnak. Honenbestez, *mihi-arrain* bezalakoak mendekotasunezko elkartetzat hartu beharko genituzkeela dirudi.

¹¹¹ Esate baterako, Val Álvaro-k, nahiz eta *sumpsumtive* terminoaz ez baliatu (*construcción apositiva* dio), konparatzearen zeregin sailkatzailearen berri ematen du: “Esta comparación de dos entidades distintas y distantes no es inhabitual en la creación de denominaciones mediante construcción apositiva para **discriminar una subespecie dentro de la especie**, como *mono araña*, *pájaro burro*, *pájaro carnero*, *pájaro gato*, *pájaro carpintero*, *pájaro mosca*, *pez luna*, *pez mujer* entre los términos que designan animales”. (1999: 73.2.2) Gureak dira letra lodiak.

- Mendekotasunezko izen elkartu arruntan antzekoenak direnak, berriz, hauek ditugu:
- batetik animalia-motak... bereizteko darabiltzagunak: *artzanora* eredu. Mendekotasunezko izen elkartu arruntek bezalaxe, osagaien artean hainbat harreman semantiko izan ditzakete. Hitz elkartu osoaren ezaugarriak mugakizunetik hartzen ditu.
 - bestetik *kontu, lan, gauza*... esanahi zabal, abstraktuko mugakizuna dutenak oro har. Hauen osagaiak ere, aurrekoenak bezalaxe, bere artean era bat baino gehiagoko harreman semantikoak izan ditzakete, baina, jaso dugun moduan, ‘edukia’, ‘gaia’ eta ‘helburua’ dira nagusi. Hitz elkartuon eginkizun sailkatzailea, oro har, ez da besteena bezain sendoa. Guztiarekin ere, garbi dago mugakizun hauek dituzten elkarteak sakonago aztertu behar direla, guztiak gisa berekoak ez izaki.

II.6.2. Adibideen azterketa

Bestelakorik ez diogunean, ulertu behar da ondoko adibideak sumpsumtibo arruntak direla, edo, guk bederen, hala ulertu ditugula (aipatu ditugun ezaugarriak dituztela, alegia: hiponimiazko harremana, eta abar).

II.6.2.1. Zuhaitzak, landareak, loreak... izendatzen dituzten mugakizunak

Mugakizunaren arabera sailkatu ditugu adibideak, eta bakoitzaren barruan zehaztuko dugu zein mugatzaileekin osatzen duten izen-elkartea.

AIHEN

‘Mahatsondoa’ adierako mugakizuna izanik, mugatzaileak ere adiera horretakoak dira: *mahasti, mahats*...

“sagar hori’ta gorri, *mahasti*-aihenak” (HE51,55).

“bai bear ere, *mats*-ayena baino okerrago baita” (HE15,25).

ARBOLA

Mugatzaileak: *abeto, aran, gaztaina, gerezi, intxaur, lizar, mahats, pinu, udare*...

“*abeto*-arbola aundi bat, bi adarrekoa, an zegoen dana puskatuta” (HE29,135).

“an utzi ditut *aran*-arbolak, utzi ditut gereziyak” (EJ66,143).

“*Gaztañ* arbolaz betea zegoen aldapa” (HE23,116).

“Etxe-alaiko jentea ari zan keixa batzuk biltzen etxe aurreko *keixa* arboletan” (HE19,23).

“San Blasko apaiz jaunaren etxea zegoan *intxaur* arbolaz inguratuta” (HE19,69).

“*lizar* arbola goizetik jartzen zuten eta arratsalde erdia igarotzean elizgizonak bendezitzen zuten” (EB87,46).

“Kastilla'n *mats*-arbol bat ez det uste danik, aurten orri aña ardo kendu diyotenik” (EJ79,131).

“Gabero tipiti-tapa asten ziran ta ¡fuego! Bañan *piñu* arbola aundiak” (EJ66,84).

“*Udare*-arbolak baziran or, *udare*-arbol zarrak, ikaragarri galantak” (EJ66,91).

Bi eratako adibideak daude multzo honetan: *abeto, lizar, pinu* mugatzaileak dituztenak sumpsumtibo arruntetan sartuko genituzkeenak, eta fruitu izenak direnak: *aran, gaztaina, gerezi*...

Lehenetan, esana dagoen moduan, ezkerreko osagai soila adierazita arbola-mota izendatzea badago. Besteak, berriz, beste era batera ere uler daitezke: “aranak ematen dituen arbola”,

“gaztainak ematen dituen arbola”... Alegia, mendekotasunezko izen arruntetako ‘ondorioa’ (II.5.5) harreman semantikoa ere suma daiteke bi osagaien artean. Nolanahi dela ere, ez genuke atzendu beharko euskaldun asko fruitu izen hutsaz ere baliatzen direla fruitua bera ez ezik arbola ere izendatzeko, testuingurua aski argia bada behintzat (“loretan da gure sagarra”, “gereziak ere zur ederra du”...). Hartara, sumpsumtibo garbitzat jo beharko genituzke.

BELAR

Honako mugatzaileak ditugu: *almitz, batan, gari, horma, hotzeri, itsaso, meloi, pasmo, olio, osasun, tabako, urri, usain...*

- “auen illajeak eta gañerakoak, *almitz* belarra janda ez dira izaten” (HE50,48).
- “eldu dira iru edo lau bultzi *batan*-bedar usaintuz bete-beterik” (HE21,69).
- “ezpabere azpiratu zapaldu ta itoco dabee *gal* bedar garbija” (HE20,196).
- “Itsasoaren ondoan geldi *itsas*belarrak lo berde itoan” (EJ50,170).
- “*Orma* bedarrac goztuteco Banatu jatzun albua” (HE20,65).
- “lore guztiak arnotu'ta nahas: *hotzeri*-belarra, otea, akara” (EJ50,101).
- “guertatzen da onetan illurrarequin, eta *meloi*-belarrarequin guertatzen dana” (HE07,276).
- “*Pasmo* bedarrac biarco dira Eragozteco pasmua” (HE20,65).
- “*Olio* belarrak” (EJ64,31).
- “*osasun* bedarren ezaguerea gueijago daukee onelangoren batzuc” (HE20,52).
- “Lau *urri*belar ditu ikus aurtengoz” (HE18,33).
- “Eliza garbitu, eta apaindu bear da aleguiflean: bideac estaltzen dira *usai*belarrez” (EC48,58).

Multzo honetan ere sumpsumtibo garbiak (*almitz, batan*) eta mendekotasunezkoak bereizi beharko liriateke. Azken hauetan, hauek dira osagaien arteko harreman semantiko nagusiak: ‘helburua’ (*hotzeri, osasun, pasmo*): “hotzeria sendatzeko belarra”..., ‘tokia’ (*itsaso, horma*): “itsasoko belarra”, ‘garaia’ (*urri*): “urriko belarra”, ‘emaitza’ (*gari, meloi, olio, usain*): “garia emango duen belarra”...

LANDARE

Mugatzaile guztiak bizigabe, konkretuak dira, hala behar baitute *landare* mugakizunarekin “sumsumtibo” elkarketa osatzeko: *arto, liho, pago, porru, porru eta aza, sagar...*

- “*arto*-landare batek bi milla litro ur zupatu zituan lurretik bere bizitzan” (EF92,10).
- “gari-lastoaren antzekoa izaten da *liño*-landara ori” (HE29,27).
- “bai *pago*-landara moztu” (HE29,118).
- “or zeudek legortea baiño elkorrago *porru*-landare bat bera ere beren bizitzan emateke” (HE57,118).
- “emen piperra (...) naiz *porru ta aza* landare” (HE15,8).
- “belardi ta gaztaindi bikañak, *sagar*-landareak” (HE50,35).

Hauek itxura batean bitara har daitezke. Botanikaren ikuspegitik edo, pentsatzen badugu arto, liho, pago... guztiak landareak direla (*liho* horrela besterik ezin da hartu), sumpsumtibo garbitzat jo behar ditugu. Bestela ikusita, berriz, fruitua dena, barazkia, zuhaitza dena... eta landarea bereiziz gero, mendekotasunezkoztat jo eta ‘emaitza’ harremanaren arabera azaldu beharko genuke: “porrua emango duen landarea”...

LILI

Lore mugakizunaren sinonimo den mugakizun honekin adibide bakarra dugu *arrosa* lehen osagai duena:

“sare batetarik erortzen zeiezten *arrosa* liliak” (HE59,98).

LORE

Mugatzaile bizigabeak dira, ezinbestean: *arrosa*, *bitxi*, *lis*, *ote*, *unanu*...

“sermolariak asiera luze samarra ta *pichil*orez jantzia dadukatenean, atzenerako aditzaille asko egoten dituk aozabalka, beste asko ler-jarioz lo” (EJ07,1).

“Jean Florin-en armak: iru *lis*-lore, landa urdinean” (HE33,77).

“Karraxika nentzun bide-ertzean *otalorea*” (HE17,29).

“hamar halako rubi-kolorezko *unanu*-lore jaiotzen ziren” (HE27,298).

Gehienak sumpsumtibo arruntak dira: ezkerreko izenak lore-mota besterik ez du izendatzen. Bestetik dugu ‘jabegoa’, edo ‘osoa-zatia’ moduan ere uler daitekeena: *otalorea*, “oteak duen lorea”, “otearen zatia den lorea”. *Bitxilorea*, aldiz, besteak ez bezalakoa da, ezkerreko osagaia ez baita lore-izena.

ONDO¹¹²

Aran, *gerezi* mugatzaileak agertu zaizkigu corpusean

“*Gerezi*-ondoa ta *aran*ondoa ere oso zabalduak daude Gipuzkoan” (EF92,63).

Lehenik eta behin gogoan hartu behar dugu *ondo* mugakizunaren izaera eta erabilera, euskaldun guztiontzat ez baita gisa berekoa. Iparraldeko euskaldunentzat *ondo* bada izen beregaina eta ‘zerbaiten banakoa’ adierazten du, batez ere zuhaitzen, landareen... banakoa: “belar ondo bat”, baina baita “ile ondo bat” ere, esate baterako. Gainerako euskaldunentzat, berriz, ez bide dirudi zuhaitza adierazteko darabilgun *ondo* hori —gure adibideetako, urrutirago gabe— beregain, beste izen baten eskuinera joan gabe, erabiltzen dugunik (*“Bi ondo ikusi ditut” / “Bi sagarrondo ikusi ditut”).

Honenbestez ondoriozta daiteke: 1. *ondo* ‘banakoa’ (*belar ondo*...) mugakizun dutenak ez direla sumpsumtiboan artean sartzekoak, ez baitituzte betetzen elkarte-mota honen ezaugarriak (gertuago bide daude, apika, “Zati-elkarteetatik”); eta 2. *ondo*, berriz —*sagarrondo*-motakoa— atzizki bilakatua dugula, lehen esan dugun moduan. Hortaz, eratorbidean aztertzeakoak liriateke hauek.

Honek dakarren ondorioa da, itxura guzien arabera, *ondo* mugakizuna duten guztiak sumpsumtibo motatik atera beharrekoak direla eta zein dagokion atalean aztertu: mendekotasunezko elkartuen artean lehenak eta eratorbidean besteak.

PERRETXIKO

Mugakizun honekin ere bi adibide baino ez ditugu, *pinu*, *urritx* mugatzaile dituztenak

“Egungo egunean gure baserritar geienak *piñu*-perretxiko deitzen diote” (EJ64,100).

“beste klase bat ere bai, *urritz*-perretxikoa esaten zaiona” (HE29,113).

Bi adibideok bi harreman-motaren adierazgarri dira: lehena mendekotasunezkoa, ‘tokia’ (II.5.9) harreman semantikoaren bidez azal daiteke ‘pinuan sortzen den perretxikoa’.

¹¹² *Oste*-ren parekoa dena leku-izenen artean aztertuko dugu (II.8).

Bigarrena, berriz, sumpsumtibo arrunta da: *urrítxa* bera perretxiko jakin baten izena baita. Bideanabar, ohart gaitezten bigarren adibidea sumpsumtibo motaren azalpen gardena dela.

SAGAR

Ditugun bi adibideetatik *errege* da argi identifika daitekeen mugatzailea, askoz nekezagoa baita *ira* zer izan daitekeen esatea.

“*Errege-sagar* umatuak eta mamia” (EJ64,33).

“*Codoin* edo *Irásagar* confitura” (EJ75,47).

Bata zein bestea egungo begietarako aski aztergaitzak: zer adierazten du *errege*-k “erregeek jateko moduko sagarra”?, “erregeentzako sagarra”? edo “erregea den sagarra”, atributuzkoen gisara? Zein da, bestalde, *irasagar* hitzaren ezkerreko osagaia?

TANTAI

Adibide bakarra dugu juntagailuz elkaturiko mugatzailea duena: (*pinu, pago eta*) *haritz*...

“*piñu, pago eta aritz-tantaien* kerizpe-arteak” (HE31,64).

Berriz ere, eskuineko osagaiaren izaera berezia hartu behar da lehenik gogoan. *Tantai* izena, hiztegien arabera¹¹³, “*zuhaitz garaia eta zuzena*” adierakoa izan daiteke. Honela izatekotan, debekurik ez genuke izango horko adibidea sumpsumtibo arruntan artean kokatzeko. Baina izenondoa ere izan daitekeela jasotzen dute hiztegiek; horrela hartuta, elkartzat ez baina izen-sintagmatzat hartu beharko genuke.

Bestalde, adibide honek badu beste korapilotxorik: zein da hor mugatzailea: *haritz* ala *pinu, pago eta haritz*? Testuinguruak ez du aski argi ematen alde batera edo bestera egiteko.

ZUHAITZ

Gure adibideetako mugatzaileak *altzifre, gaztaina* dira.

“*komentuganeko alzifre* zugaitz zarrak ez dabe luzera txikia artu” (HE31,71).

“*Axangiz*'ko bi *gaztaina*-zuaitz” (HE24,52).

Lehena sumpsumtibo arrunt garbia (*altzifrea, nekosta* zuhaitza baita) eta bigarrena mendekotasunezkotzat jo eta ‘ondorioa’ (II.5.5) harreman semantikoaz ere azal daitekeena. Lehengo *gaztain arbola*-ren azterketa bera dagokio.

ZUHAIZTI

Ez dugu adibide askorik corpusean. Ageri zaizkigun mugatzaileak *elorri, gaztaina*...dira.

“*elordi* ta *gastaiñadi* itzak *elorri*-zugaztia ta *gaztaina*-zugaztia dikurrela” (HE21,88).

Multzoa adierazten du mugakizunak eta ‘edukia’ mugatzaileak. Mendekotasunezkotzat joko genituzke.

¹¹³ Beste adierak alde batera uztera goaz, gure mintzagaiarekin zerikusi zuzena ez dutelakoan.

II.6.2.2. Arrainak, hegaztiak... izendatzen dituzten mugakizunak

Eman ditugun arrazoiak irizpide hartuta, beharbada, sail honetakoak ez genituzke sumpsumtibotzat jo beharko. Bestela esan, mendekotasunezko harremana sumatzen dugu bi osagaien artean.

AINGIRA

Adibide bakarra dugu corpusean *itsaso* mugatzaile duena:

“ibaiaren erdi inguruan saretxalopa bi, *itxas* aingirea langoxeak” (EJ59,58).

Tokia adierazten du ezkerreko osagaiak (**II.5.9**). Harreman hauxe bera dugu ondoren jasoko ditugun hainbat adibidetan, *itsaso* izenak zehazten du non bizi den... delako arraina. Askotan, itsasokoak eta ibai edo erreketakoak bereizteko (*aingira, arrain...*), bestetan, mugakizuna aldi berean beste animalia baten izena ere badenean (*hartz, oilar, zapo...*), arraina dela hain zuzen, eta ez lehorreko beste animalia hori dela zehazteko.

ARRAIN

Mugakizun hau duten bi izen elkartu aurkitu ditugu: batean ez da zalantzarik zein den mugatzailea, *itsaso* (beraz, elkartua, ‘tokia’ harremanaren ispilutzat har daiteke); bestean, ordea, askoz ilunagoa da eta ihartutzat jo behar dela dirudi, ulertezina baita gaurko hiztunentzat.

“baña ez, adibidez, arrai-zukua, magurio-krema, arrokako *antxarraiña*” (EJ64,81).

“Erreboilloa izango da bear bada *itxas*-arrairik onentxoena” (EJ64,66).

HARTZ

Adibide bakarra hemen ere, beste mugakizun batzuekin gertatzen den bezala, *itsaso* mugatzaile duena.

“apar zuriak igarian ebiltatzen *itxas* artz gizon jantzalleak zirudien” (EJ59,17).

OILAR

Aurrekoan bezala, eta hurrengoetan ere hala gertatzen da, *itsaso* da mugatzailea

“Berberiniñk ederrena edo *itxas*-oillarik prexkoena aurrarentzat izango da” (EJ03,34).

ZAPO

itsaso...

“txabaloa, *itxas*-zapo, xangurroa eta legatz-kokoteari dagozkien prestaeretan” (EJ64,81).

ANTZARA

itsaso...

“obeki *itsas*-antzarak elkarren atzean” (HE18,134).

HEGAZTI

itsaso, korta...

“gañalde guztia *itxas* egazti zuriz beteten jako” (EJ59,41).

“kaleko etxeetan *korta*-egaztiak azitzen asi zan” (EJ64,50).

Hauek ere ‘tokia’ harremanaren arabera azaltzeko modukoak bide dira. Beraz, *esne-behi* motako izen-elkarteetan, eta, zehazkiago, bi osagaien artean ‘lekua, tokia’ harremana duten izen-ekarteen ondoan (I.5.10) dute leku egokia, gure ustez.

OILAR, OILO

Mugatzaile bera ageri zaigu bi mugakizunekin, *India*.

“*indio*ilar harro hura eta batez ere azkonarkume bizkor hura” (HE39,89)

“ezartzen dira: urdaiazpikoa, ollandak eta usakumeak, kapoiak eta *indio*lloak, eta abar” (EJ64,27).

India mugatzaileak, itxura guztien arabera, zein den hegazti horien jatorria, eta ez non bizi den, adierazten du. Hauek ere, apika, egungo ikuspegitik ihartutzat joko genituzke.

Hegaztia izendatzen duten heinean, atal honetan sartzekoak dira *galeper* (gari + eper) eta *galtxori* (gari + txori) ere, nahiz guztiz ihartutzat emango genituzkeen.

II.6.2.3. BESTELAKOAK

Hemen jasoko ditugu gure ikuspegiaren arabera sumpsumtibotzat har daitezkeenak, baina, oro har, biologiarekin zerikusirik ez dutenak.

HARRI

Adibide bakarra; *lauza* mugatzailea.

“mahats-mordoa atera eta sakantxo bat gainean zuen *losarri*aren gainean banatu zuen haren muztioa” (EJ53,108).

Galde daiteke noraino den sumpsumtiboetakoa edo, kide-kide duen *harlauza* gidari hartuta, tautologiatzat hartu behar ote den, Azkaratek (1990: 196) *harlauza* hartzen duen bezala. Nolanahi dela ere, lauzak harriak bai, baina harri guztiak lauzak ez direnez gero —hots, hiponimiazko harremana badagoenez gero—, harri-motatzat har daiteke eta sumpsumtiboen artekotzat jo.

HITZ

Mugatzailea, *adjektibo*.

“Hortik ikhouston duzu *adjectif* hitz emea egiten dela *adjectif* hitz arrari yuntatuz” (EI58,13).

HIZKERA, HIZKUNTZA

Hizkuntza-izenak dira mugatzaile gisa ditugunak: *euskara, latin...*

“Gipuzkoako *euskal*-izkeran egiten duenari” (EI99,157).

“Europako sartz-alde onetan, jakintzeetarako *latin* izkeria bakarrik erabilteori bertan bera utzi zanetik gauzok beste modu batera eraltzen dira” (EJ06,89).

“1760ko abendurako *euskal* hizkuntzaz arduratuta dabil Gamiz” (EJ00,191).

Aurreko bi mugakizunen ondoan aipatzekoa da gure corpuseko “*dizkizute-euskara*” hitz-elkarteak ere, azken batean hizkera-mota bat adierazten baitu:

“Batere zalantzarik gabe, beraz “*dizkizute-euskara*” horren aldeko naiz” (HE27,393).

KASU

Adibide bakarra dugu *inesibo* mugatzailea duena, baina hemen sartuko lirateke euskaraz gainerako kasuak izendatzeko darabiltzagun elkarteak ere:

“jatorriz galde hitza delarik ere, gero erlatibo gisa *inesivo* kasuan erabilia” (EJ80,21).

MAKINA

Adibide bakarra berriro ere, *kasete* mugatzailearekin osatua.

“Aitzineko urtarilan erosi nuen nere lehen *kasseteta*-maxina eta hartan ezarri euskal dantzak” (EJ68,95).

Azken adibideok guztiok (*hitz, hizkera, hizkuntza, kasu, makina* mugakizuna dutenok) sumpsumtiboan artean sartzeko modukoak iruditzen zaizkigu.

II.6.2.4. MUGAKIZUN LOGIKO-ABSTRAKTUAK

Aurrekoak baino sailkatzen zailagoak, mugakizunaren izaera abstraktua dela medio. Izen abstraktuak konkretuak baino erreferentzia-esparru zabalagoa har dezake eta, honenbestez, sail oso bat izendatzeko baliatzeko aukera handiagoa du. Hau horrela izanik, sail zabal horretan klaseak, zati- edo azpimultzoak bereiztea ez da harritzekoa. Hitz batean esateko, atal honetan mugak jartzea zailagoa gertatzen da arestiko ataletan baino.

Nahiz eta jasoko ditugun guztiak sumpsumtibo garbien artean sartzekoak ez bide diren, lehen arrazoitu dugun bezala, *kontu, lan* (eta *kontu* izenaren baliokidea izan daitekeelako erantsi dugun *gauza*) mugakizuna dutenen adibide batzuk ekarriko ditugu (**H-E/4, 11.2.3**).

Aurrera dezagun mugakizunaren ezaugarriak ez ezik, mugatzailearenak ere oso gogoan hartzekoak direla eratzten duten elkartu-mota bereizteko.

II.6.2.4.1. GAUZA

Honako mugatzaileei elkaturik aurkitu dugu: *bertso*, *erle*, *gizon*, *gogo*, *kristau*, *lege*, *paper*, *tratu*... *Gizon* eta *kristau* ez beste guztiak, izen bizigabe konkretuak dira.

“behin, *bertsu* gauzetan anitz dakien adiskide batez zion” (EJ65,30).

“Sebastian Garagorri oso iaioa zan, eta *erle*-gauza oietan asko zekiana” (EJ49,39).

“Estago nire echan beste *guizon* gauzaric emenche gagozanac baño” (HE20,190).

“Berez, *gogo*-gauzeetan daukan gayan erabilliko det” (HE24,4).

“Idazle auek *kristau* gauzei buruz azterketak egiñak ziran” (EC70,74).

“Kristo zeruratu ondoren, *lege*-gauzetan jakituna zelako, Paulok laguntzat artu zuen” (EC70,78).

“Bordelen bertsu gehienak *paper*-gauzen kutsua berekilan dute” (EJ65,29).

“Alaba Bilbao'ra joana zan, *tratu*-gauzekin, saltzeko” (EJ49,82).

“Edozein eratako izatea duen zernahi, izaki banako edo berezizat hartua izan daitekeena”, “Izaki bizigabea (bizidunari kontrajarria)”, “(batez ere pl.) Gertatzen, egiten, esaten den zera”... irakur dezakegu hiztegieta *gauza* izenaren definizioan. Definizioak ikusi orduko ohart gaitezke alde batetik oso esanahi zabalekoa dela, baina, era berean, adiera zehatzagoa ere izan dezakeela ‘objektu’ zentzuan. Gure adibideetan suma daiteke horren aztarna.

Adierarik zabalena duenean (jaso dugun lehen definizioan), gauzaki konkretuak adieraztetik urrutien dagoenean, eta mugatzailea izen bizigabea denean, gehienetan aski parafraasi parekoak eman ditzakegula dirudi hitz elkartua izan nahiz *gauza* mugakizunik gabeko izena izan: “bertsu gauzetan anitz jakin” = “bertsoetan, bertsoez anitz jakin”, “lege-gauzetan jakitun izan” = “legeetan jakitun izan”. Alde honetatik begiratuta, hiponimiazko harremana dagoela pentsa zitekeen, ‘zer’ guztiak bai baitira ‘gauzak’, hein batean bederen. Beste era batera esanda, sumpsumtiboetan ohikoa dena daukagula esan daiteke, baina hiponimiazko harremana oso modu lasaian hartuta.

Gehienetan, ordea, ez da horrela gertatzen. Esate baterako, *paper-gauza* hartzen badugu, ez dugu lehen erabili dugun parafraasi alboratzerik, “paperean idatzitako gauzak” edo ulertzen dugu. Hortaz, mendekotasunezko izen elkartua dugu.

Tratu mugatzailea duen adibidean ere ez dugu lehengo ‘gauza’ bera, adiera konkretuagoko ‘objektua’ baizik (hiztegiko bigarren definizioa). Alegia, *tratu-gauzak* ez genuke *tratu* hutsaren baliokidetzat emango: “tratu-gauzak saldu” ≠ “tratu saldu”. Osagaien arteko harremana ez da hiponimiazkoa: *tratu-gauzak* “tratu egiteko gauzak” dira, ez ‘tratu’ bera; ‘tratu’ ez da ‘gauza’ mota bat, ‘jardun’ bat baizik. Hortaz, *tratu-gauzak* mendekotasunezko izen elkartutzat hartuko genuke eta ‘helburua’ erlazio semantikoaren arabera azalduko.

Bestetik, berriz, oroit gaitezen ezkerreko osagaiaren ezaugarriak ere oso gogoan hartzekoak direla. Horrela, esate baterako, *kristau-gauzak*, *gizon-gauzak* adibideetako ezkerreko osagaiak izen biziduntzat hartzen baditugu¹¹⁴, hasieratik bertatik nekezago egingo zaigu hiponimiaz hitz egitea, *gauza* izenaren azpikategorizazioan ez dugu eta [+biziduna] ezaugarriarik. Badirudi, beraz, lehen paratu ditugun parafraasi baliokideak orain ezinezkoak direla: “gizon, kristau gauzak” = “gizonek, kristauek dituzten... gauzak, gizonei, kristauei dagozkien gauzak” ≠ “gizonak, kristauak”. Hau honela izanik, “gizon gauzak egon”, “kristau gauzei buruz aztertu” ez da “gizonak egon”, “kristauei buruz aztertu”, “gizonek, kristauek dituzten, gizonei, kristauei dagozkien... gauzak egon, aztertu” baizik. Alegia, ezingo genituzke sumpsumtibatutzat hartu, mendekotasunezko izen elkartu arrunt moduan baizik.

¹¹⁴ Hiztegiek *kristau* adjektiboa ere izan daitekeela jasotzen dute.

II.6.2.4.2. KONTU¹¹⁵

Mugatzaile ugari ager daitezke *kontu* izenaren ezkerrean izen-elkartea eratuaz: *aberats*, *abiazio*, *aditz*, *afari*, *amore*, *atso*, *balea*, *bereizte*, *bertso*, *beterania*, *dantza*, *deitura*, *diru*, *ederti*, *emakume*, *erlijio*, *ezkontza*, *frogatze*, *gazte*, *gerra*, *hitz*, *hizkuntza*, *hiztegi*, *idolo*, *irradi*, *isil*, *itsasgintza*, *jakintza*, *jan*, *karobi*, *kultura*, *lan*, *muga*, *neska*, *politika*, *sexu*, *soldata*, *sorgin*, *sos eta ontasun*, *sotana*, *sukalde*, *urte*, *zahar*...

- “osabak dana ondo ta *aberats* kontua jartzen dik” (EJ62,91).
 “bañan neri etzidan aitatu ere egiten *abiazio*-konturik” (EJ49,95).
 “*aditz* kontuan izango genuela behaztopabiderik zailena” (HE27,377).
 “*afari* kontua aditzean, zerriak! atera zitzaion barren barrenetik” (HE39,62).
 “bere *amore* kontuak kontu ugariak izan behar dute” (HE61,15).
 “*atso*-kontuak errez igaro dezake” (HE18,92).
 “zenbait mariñel *bale*-kontuban berriz alakoak dira” (EJ78,123).
 “aita Zavalaren eskuan utzi nuen nik *bereizte*-kontu au” (HE25,16).
 “konfiantza osoa zuen, beraz, harekin *bertso* kontuan ere” (EJ04,11).
 “*dantza*-kontua nola izan zan gogoratutzen al zera?” (EJ79,41).
 “Iruñako zerga edo *diru*-kontuak ekartzen dituen orri batean Luzaideko etxeak aipatzen dira” (EJ65,23).
 “donostiarrok *diru* kontutan apalagoak gera” (EJ64,77).
 “utz ditzagun, ordea, *ederti* kontuak eta gauden mutikoei begira” (EJ03,10).
 “Bai bait zekien nolabaiteko *emakume*-kontua bere lepo plazara zabalduz gero. Kontu zorrotza eman beharko zuela nagusien aurrean” (EJ00,189).
 “Joaneren bihotzak eztezate erreza, *erlijio*-kontuan ezpaita arteza” (EJ50,151).
 “Orain badirudi *ezkontza* kontua aldatzen ari dela” (HE35,31).
 “*frogatze* kontu ontan ere ba dira tankerak eta bide bereziak” (EC70,28).
 “baiña guk, *gazte*-kontuak bakarrik buruan” (HE29,21).
 “Eta kondairagille oiek politikako gora beheretan, *gerra*-kontuetan eta Enperadoreen egite ospetsuetan dute jarria gogoa” (EC70,49).
 “*Hitz*-kontuan, berriz diot, ikastekorik asko dugu denok Orixe'rengan” (EJ51,35).
 “Gauzak, ordea, *hizkuntza* kontuan, alderantziz dira” (HE27,396).
 “*Hiztegi*-kontuan, hitzen egokitasunean, adjetiboen xuxentasunean, joskeran, esaldietan” (EJ51,36).
 “emengo *idolo*-kontu, emengo zikinkeriak, eta ibillera gaisto guziak ekusten ditudala” (HE13,33).
 “garraxi biziak egiten dituzten *irradi* kontu oietako neskatxa ikaratiak” (HE57,110).
 “iñork baino sakonago zekien *itsasgintza*-kontuetan jakin behar guztia” (HE33,93).
 “izen onekoa euskalarien artean *jakintza* kontuetan” (HE31,78).
 “Ta, egia esan, *jan*-kontuetan beñepein txit ongi ibilli gera” (EJ64,78).
 “*Karobi*-kontuak esaten asi gera ta Bitori aldean gabiltza” (EJ62,19).
 “Berezketa hau ere *kultura*-kontu bat da 1973-an” (EJ51,84).
 “mundu ontan, dan-danok berdintsuak gera *lan*-kontu ortan” (EJ49,35).
 “*muga* kontua da, funtsez” (HE27,397).
 “entretenezko, *neska*-kontuak eta zorakeri batzuek esan” (HE29,87).
 “Ori orla da, baina...; ez mutil txarra dalako; *politika* kontuan nabarmen xamar ote dabillen” (EJ03,44).
 “Gogoangarri zait ere Orixe'k *sexu*-kontuei zien gorroto osoa” (EJ51,30).
 “utzi dezagun *soldata* kontua” (HE35,81).
 “*sorgin*-kontuen antzekoak egiteko euki eban ekarri aparta” (HE31,98-99).
 “Zendako *sos eta ontasun* kondu horik?” (HE56,12).
 “Mendeetan zehar katolikotasuna utzitako aztarnak eta sustraiak *sotana*-kontu huts bat direla?” (EJ51,86).
 “Aurrena, erdi-txantxetan asi ninzan *sukalde*-kontu ta arazoetan” (EJ64,80).
 “Egillearen eta *urte*-kontuaren auzia garbitu ondoren ere” (EC70,91).
 “Bekoerrotta barreka egoan entzuten *zarr*-kontu gatz bakoak eta gosalduten” (EJ70,145).

Mugatzaile hauen kategoriari erreparatuz gero, aditzetatik eratorritako izenak dira batzuk: *banatze*, *bereizte*, *ezkontza*, *frogatze*, *jakintza*...; oro har, ekintza, nolabaiteko ariketa, jarduna... adierazten dutenak. Beste batzuk ere, nahiz eta eratorriak ez izan, aurrekoen

¹¹⁵ Ez dugu hemen aintzat hartuko *kontu* postposizioa bere erabilera eta adiera guztietan.

antzeko adierakoak dira: *abiazio, afari, dantza, gerra, itsasgintza, jan, politika...* “gertaera-edo jardun-izen” moduan ere har daitezkeenak.

Bestetik ditugu bizidunen (batez ere gizakien) izenak (edo adjektibo izen bihurtuak): *aberats, atso, emakume, gazte, neska, sorgin, sotana* (berez ez, baina prosopopeia da tarteko), *zahar...*

Beste multzo batekoak dira izaki nahiz gauzaki konkretuak: *aditz, balea, bertso, deitura, diru, ederti, hitz, hizkuntza, hiztegi, idolo, karobi, lan, ontasun...* Abstraktuak ere badaude; gutxienak, hala ere: *amore, betzeria...* Mugatzaile osatua duenik ere bada: *sos eta ontasun*.

Lehen egin bezala, *kontu* izena hiztegiek nola definitzen duten jasoko dugu:

“1. Kopuru baten zenbatzea. 2. Irabazien edo xahutzeen kontua dakarren agiria. 3. Arreta, ardura, arta. 4. Arazoa, auzia, egitekoa. 5. Ipuina”.

Bistan da, berriz ere, *kontu* izenak ez duela esanahi bakarra eta gainera dituen esanahietatik laugarrena batez ere aski zabala dela¹¹⁶. Honexek ematen du lanik gehien aztertzeko.

Jaso ditugun adibideetara jo besterik ez dago horixe egiaztatzeko. Esate baterako, hiztegiko lehen definizioaren arabera *diru-kontu* (“zerga edo diru kontuak” adibidekoa, ez hurrengoa), edo bosgarreneko *irriti kontu*, edo *sorgin-kontu* sailkatzeko arazo handirik ez dago, osagaien artean hiponimiazko harremanik ba ote dagoen galdetzeko aukerarik ere ez dago eta: mendekotasunezko izen elkartu arruntzat joko genituzke.

Ildo honetatik, ezkerreko osagaia biziduna dutenak lehen kolpetik bereiztekoak dira, ezin dugu hiponimiaz hitz egin, *kontu* beti izen bizigabea baita; ez dago, hortaz, esaterik mugatzailea mugakizunaren espeziea edo klasea dela... Honenbestez, “izen biziduna + *kontu*” modukoak gainerako mendekotasunezko izen elkartuak bezala azter daitezke. Halakoetan ohi den bezala, osagaien arteko erlazio semantikoak batez ere ‘egilea’, ‘jabegoa’ eta ‘edukia’ dira: *emakume-kontu*: “emakumeek esaten dituzten kontuak”, “kontuetan emakumeak aipatzen dira”...

Izen bizigabeak ditugunean, berriz, lehen esanaren ildotik, funtsezkoa da *kontu* izenaren adiera (‘auzia’, ‘arazoa’, ‘egitekoa’...) eta ezaugarriak ez ezik, mugatzailearenak ere elkarren ondoan ikustea hiponimiazko harremanaz noraino hitz egin dezakegun jakiteko. Hemen sortzen den arazoa da askotan ‘edukia’ harremanaren arabera uler daitezkeela elkartuak, hiponimiaren funtsa ere ‘edukia’ harremana dela eta; gainera, esanahi abstraktua izateak sortzen duen zailtasuna eransten badugu, ulertzekoa da maiz ezin garbi erabaki ahal izatea sumpsumtibo ote den.

Parafraasietara jotzea izan daiteke bidea, lehen egin bezala. Esate baterako, “*muga* kontua da, funtsez” (HE27,397) eta “*muga* da” ezin ditugu parekotzat jo; *muga* ez da kontu-mota bat, kontuaren edukia baizik. Hurrengoak, berriz, apika, errazago parekatuko genituzke: “Ori orla da, baina...; ez mutil txarra dalako; *politika* kontuan nabarmen xamar ote dabillen” (EJ03,44) eta “politikan nabarmen xamar ote dabillen”.

¹¹⁶ Itxura guztien arabera, 3. adieraren arabera *ardi kontu, ume kontu...* (*ibili...*) bezalakoek eratzen dituzten egitura lexikoak ez dira izen kategoriakoak. *Kontu*-k hemen *zain* predikatuaren jokamolde bera du; hortaz, *Hitz-Elkarketa/3* laneko sailkapena irizpide hartuta, *Jardun elkarte sintetikoen* artean aipatu beharko lirateke (H-E/3, II.2.3.: 75-78 / 55-58).

Nolanahi dela ere, guztiak adierazten digu oso modu zabalean besterik ezin daitekeela sumpsumtibo ez hitz egin.

Bestalde, *kontu* mugakizunaren ondoan sailkatu dugu *kuestio* mugakizun duen beste hau ere, adiera bera duelakoan:

“Baina era berean zabalkunde kuestio bat da” (EI94,63)

II.6.2.4.3. LAN

Kontu mugakizunarekin gertatzen den bezala, mugatzaile ugari daude *lan* izenaren ezkerrean ere izen-elkartea osatuaz: *alderakizun*, *alfabetatze*, *alfer* (adjektibo izen bihurtua), *antze*, *antzerki*, *apaintze*, *apaiz*, *argitaratze*, *arotz*, *arte*, *auzo*, *azterketa*, *baratze*¹⁷, *baserri*, *baso*, *batasun*, *bertso*, *beso*, *bulego*, *burdina*, *buru*, *desipuintze*, *dibulgazio*, *egokitze*, *egun*, *epaikari*, *erdara*, *erti*, *esku*, *etxe*, *ezkontza*, *frogantza*, *ganadu*, *garbitzapen*, *gari*, *gau*, *gaztaina*, *gizon*, *guda*, *hari*, *hargintza*, *hizperri-eratzte*, *hortz*, *euskera-ikaste-irakaste*, *ikertze*, *inbestigazio*, *inprenta*, *irakasle*, *kantu*, *kondaira*, *kreatze*, *kreazio*, *kultura*, *landare*, *lege*, *liburu*, *liho*, *linguistika*, *literatura*, *lubaki*, *lur*, *makina*, *margo*, *misio*, *modernizatze eta batasun*, *nekazari*, *notario*, *olerkari*, *olerki*, *ontzitegi*, *pentsamendu*, *sintesi*, *soro*, *sukalgintza*, *tarte*, *teatro*, *txori*, *zabalkunde*, *zerrari*, *zuhaitz*, *zur*...

“*alderakizun* lan ontan euskaltzale bat baiño gehiago saiatu zaizkigu” (HE28,55).

“bizi dedilla liburuetan bederen, *antzelan* bikaiñetan” (EJ51,30).

“*apaiz*-lanetan bein baiño gueyagotan sartu izan zalaco” (HE45,201).

“eta beste zortzi aldare ipiñi ziran beste hainbeste kapillatxotan, lengo zarren orde, osteruntzeko *apaintze*-lanak utzi gabe” (EL70,213).

“izan bear zuten Txirrita eta Artzai-Txikia; *argintza*-lanean; Txirrita ala baitzan” (EJ79,93).

“Konserje izanik ere, etzion *arotz*-lanari laga” (HE61,14).

“*auzo* lanean ekin zioten anaikero, bi errien etsai bakarrari makurtu-arazterano” (EL70,49).

“euskararen *batasun* lanak aztertzea, sakontzea eta aintzinatzea nahi du” (EJ56,11).

“badaiteke (...) poesiari, *berso* lanari, begiramen berezia edukitzea” (HE33,XXV).

“itxas-industriari ta *burdin*-lanari ekin zieten” (HE33,17).

“eta *dibulgazio* lan politak dauzkagu” (EJ20,9).

“*egokitze* lan hunetan saiatzea bertzerik egiten ez tugu” (HE26,289).

“geitxoago balio duen liburu bat bialduko deusut zeure *epaikari* lana zelan-alan ordaintzeko” (EJ05,163).

“Mutil maizterra *etxe*-lan urriz, irabazirako dago” (HE18,70).

“Zuen *ezkontza*-lan orri ez aize geiegi eman” (HE57,119).

“Alako idikiera edo arima-zabaltasun gabe, alperrik izango dira *frogantza*-lan guztiak” (EC70,11).

“Atzenean emacumeac echeari, eta umeai ongui beguiratu bear die *guizalantara* joan gabe” (HE07,91).

“Saiaketa eta *ikertze*-lanok kristau fedearen ondo finkatua frogatzera etorri dira” (EC70,28).

“guztiz zabal eta libreki desarroilatu beharko litzateke *inbestigazio* lan hori” (EJ52,12).

“pozik nago *irakasle* lanarekin” (HE35,89).

“egiñen duk *ortz*-lana, jartzen badite mîi” (HE18,135).

“Literatura, *kreatze* lan den aldetik, arte da” (HE36,3).

“sei egunetako *kreazio*-lana, argiaren eta uren sorrera” (EC70,38).

“esku-tresna ta garlopa zenbat eta menderatzallego, orduan eta *makina*-lanerako gaiago” (EJ03,22).

“aste oso bat igaro baizun mixio-lanak egiten” (HE55,57).

“Umetatik *ontzitegi*-lanetan trenpatua egonik” (HE33,93).

“pentsalari baino areago hasi direla azaltzen *pentsamendu* lanak” (HE35,7).

“teoria guztiak hartuz eta elkartzuz, *sintesi* lana egitea dagokigu” (EB20,46).

¹⁷ Beste honako hau ere, besteak beste, hemen aipatzekoa da: “nosian bein eguraldi chaarrac eragozten deustazanian *baso ta solo* biarrac, jardun daruat mai, aulqui eta ezgauza batzuc eguiten” (HE20,152).

“hutsetik eta ezjakinetik, *tarte*-lan eta buru-aringarri hartu zuela berrogei eta areago urteko diruzainak bertso-gintza” (EJ00,185).

“arotz eta euron antzera *zugatz*-lanai andik edo emendik lotuak dagokijoezan beste norbaitzuk izan ezik” (EJ06,86).

Orain ere mugatzaile hauetako asko aditzetatik eratorritako izenak dira: *alderakizun*, *alfabetatze*, *apaintze*, *argitaratze*, *azterketa*, *dibulgazio*, *egokitze*, *kreatze*, *kreazio*, *zabalkunde*... Edo, eratorriak ez izanagatik, haiek bezala, ‘ekintza’, ‘jarduna’, ‘gertaera’... adierazten dutenak: *kantu*, *misio*, *sintesi*, *sukalgintza*... Asko izen konkretuak dira: *baratze*, *baso*, *baserri*, *beso*, *bulego*, *burdina*, *buru*, *esku*, *etxe*, *ganadu*, *gaztaina*, *inprenta*, *makina*...; abstraktuak, berriz, oso gutxi: *batasun*, *pentsamendu*... Izen biziduna, areago, gizakia dute askok mugatzaile: *alfer*, *apaiz*, *arotz*, *auzo*, *epaikari*, *gizon*, *irakasle*, *nekazari*, *notario*, *olerkari*, *zerrari*...

Uztar dezagun orain mugatzaileen kategoria *lan* izenaren adierekin:

“1. Onuragarri den zerbait lortzeko egiten den jarduna edo ahalegin jarraitua. 2. Jardun hori, ondasunak lortzearen, giza talde baten barnean eta era arautuan egiten denean. 3. Eskulangile, burulangile edo ertilari baten jardunaren ondoriozko gauza. 4. (Izadiko indar baten) jardun etengabea, ondorio ageria duena: ondorio hori”.

Hiztegiek *lan* izena nola definitzen duten ikusita kontura gaitzke arestiko *gauza* edo *kontu* baino konkretuagoa dela, eta honek ondorioa du hitz elkartuok sailkatzean, ikusiko dugun bezala.

Has gaitzen mugatzailea izen konkretua dutenetatik. Denak mendekotasunezko izen elkartu arruntzat jotzekoak dira: *lan* izenak iragazten dizkio bere ezaugarri guztiak hitz elkartuari. Osagaien arteko erlazio semantikoak hainbat motatakoak izan daitezke. Bizidunak direnean, oro har, ‘egilea’ edo ‘jabegoa’ erlazio semantikoa adierazten dute. Bizigabeak direnean: ‘gaia’ (*arto*, *burdina*, *hari*, *liho*...), ‘baliabidea’ (*beso*, *buru*, *esku*, *hortz*, *makina*...), ‘edukia’ (*antze*, *arte*, *bertso*, *ganadu*, *linguistika*, *literatura*...), ‘tokia’ (*baratze*, *baso*, *etxe*, *ontzitegi*...), ‘denbora’ (*egun*, *gau*, *tarte*...) dira ohikoenak.

Hauetako askotan (denetan ez baina: *irakasle lan*...) *lan* izenak adiera konkretua du; hiztegi-tako hirugarren definizioa batez ere.

Abstraktuak ditugunean ere mendekotasunezko izen elkartuak ditugula dirudi: “batasun lanak aztertu” ez da zehatz-mehatz “batasuna aztertu”, “pentsamendu lanak azaldu” ez da “pentsamendua azaldu”. Alegia, pentsa daiteke gure adibideetan behintzat *lan*-en esanahia konkretua denez gero (3. definiziokoa) ez duela aukera handirik izen abstraktu bat mugatzaile izanik sumpsumtibia osatzeko.

‘Jarduna’, ‘gertaera’, ‘ekintza’... adierako izenak mugatzaileak direnean izan ditzakegu, itxura batean, sumpsumtibo garbienak. Hemen, oro har, *lan* izenak ere ‘jarduna’... adierazten baitu. Hau dela eta, ulertzekoa da osagaien arteko harremana ‘Especie-Genero’ motakoa izateko aukera gehiago izatea: elkartuaren ezaugarriak mugakizunaren ezaugarrien arteko aukera bat den mugatzailearenak hartzen ditu. Parafra-sietara jotzen badugu ohartuko gara horrezaz:

“alderakizun lanean saiatu” = “alderakizunean saiatu”, “hargintza-lanean aritu” = “hargintzan aritu”, “sintesi lana egin” = “sintesia egin”, “inbestigazio lana zabaldu” = “inbestigazioa zabaldu”....

Hemen ere, pentsatzekoa da hitz elkartua singularrean joatea izan daitekeela hiztuna sumpsumtiboa erabiltzen ari den seinale; hobeto esan, pluralean erabiltzeak, apika, adieraziko luke *lana*, ‘obra’, ‘lanaren ondorio den zer jakina’ dugula, eta, honenbestez, mendekotasunezko hitz elkartu arrunta dugula.

Halaz guztiz, honek ez du esan nahi osagai horiek ditugun guztietan beti sumpsumtiboa dugunik. Esate baterako, goiko *apaintze-lanak* edo *egokitze-lan* bitara har daitezke¹¹⁸, testuinguruaren arabera: “apaintzea, egokitzea bera” eta, hortaz, “apaintzea, egokitzea lana da” parafrasia albora diezaiekegu, sumpsumtiboari egiten diegun gisa berean, edo “apaintzeko, egokitzeko egiten diren lanak”, *Jarleku* motaren parekoak direnak, mendekotasunezko izen-elkarte arruntak, ‘helburua’ erlazio semantikoaren araberrakoak.

II.6.3. Mugatzailearen gramatika-kategoria

Izenak dira, oro har; animaliak, landareak, zuhaitzak... izendatzeko izenak batez ere. Eskuarki izen arrunt bizigabe eta konkretua dugu ezkerreko osagaia. Eskuinekoa bizigabea nahiz biziduna izan daiteke.

Alde honetatik ere *gauza*, *kontu*, *lan* mugakizunak dituztenak bereiz dabilta: mugatzaile franko izen bizidunak dira; abstraktuak ere badaude.

Bestalde, hainbatetan ihartutzat jo daitezke elkartuok: ez dago gaurko ikuspegitik oso garbi bereizterik ezkerreko osagaia, dela hotsak aldatu dituelako dela osagaiaren esanahia urruti samar geratzen zaigulako... Hauen artean sartuko genituzke: *galeper*, *indioilar*, *indioilo*, *irasagar*...

II.6.4. Osagaien arteko erlazio semantikoak

Sarreran esan dugun bezala, hitz elkartu hauen osagaien arteko harremanak aski bereziak dira: hiponimia da beti tarteko. Horrek esan nahi du ezkerreko osagaia, mugatzailea, mugakizunaren zati, atal, klase... bat dela. Alegia, ezkerreko osagaia da erreferentzia zehatzena duena, eskuineko erreferentziaren atal bat dena. Hortaz, bi osagaien matrizeak, ezaugarri-multzak elkarren parean jarrita ohartuko gara inklusiozko harremana dagoela: ezaugarri batzuk biek batean izan behar dituzte ezinbestean.

Mugatzaileak mugakizunaren ezaugarrietako batzuk ditu eta horrexegatik aski izan daiteke mugatzailea besterik ez aipatzea, bera aski izan baitaiteke dena delakoa izendatzeko; mugakizunaren eginkizun nagusia mugatzailea bere sail zabalean “kokatzea” baita. Mendekotasunezko elkarrean hori ezinezkoa da, mugatzailea bere eskuko erabiltzerik ez dago adiera horretan, mugakizuna baita argi eta garbi hitz elkartu osoari bere ezaugarriak iragazten dizkiona: *esne-behia* diogunean ez daukagu aukeran *esne* soila esatea zer bera izendatzeko. Honenbestez, elkartu osoaren eta bere osagaien arteko harremani begiratuta ikus dezakegu elkartu osoak bi osagaien batean dituzten (mugatzailearenak diren) ezaugarriak hartzen dituela, mendekotasunezkoetan ez bezala.

Egitura-harremanaren ikuspegitik begiratuta ere sumpsumtiboak ez dira mendekotasunezkoak bezalakoak, ez baitirudi mendekotasunezko arruntetan ohikoenak diren “modifikatzaile-buru” (*esne-behi* elkartuan duguna) edo “osagarri-buru” (*lagun-talde*

¹¹⁸ Latinezko *opus* / *labor* bereizkuntza ongi dator *lan*-en bereizkuntzan.

elkartuan duguna) egitura-harremanaz hitz egin daitekeenik: bi buru izango genituzke hemen, aposizioetan dugun bezala¹¹⁹.

Galdetzekoa da ea sumpsumtiboak mendekotasunezko izen elkartuen artean kokatzekoak ote diren. Badirudi ezetz.

II.6.5. Emankortasuna

Azaldutako guztiagatik aise ulertzen da terminologietan izatea eremu biziena. Hala gertatzen da beste hizkuntza askotan ere arbolak, landareak, animaliak... izendatzen dituzten egituretan.

¹¹⁹ Odriozolak (2002) zehazten duen bezala, dvandvak ere bi burukoak izango lirateke, baina hitz elkartu osoak bi buruen ezaugarri guztiak hartzen ditu; sumpsumtiboek, ez.

**II.7. ANDREGAI MODUKOAK: ALDI, BIDE, BURU, GAI, GIZON/MUTIL,
(G)UNE, JENDE, (K)IDE, (K)UME, LAGUN, ORDE, (Z)ARO**

II.7.1. Sarrera

Kapitulu honetan aztertuko ditugun mugakizun guztiek ezaugarri bera dute: zalantzakoa da osagai beregain ote diren ala atzizki. Beraz, zalantzakoa da osatzen dituzten hitzak, izen-elkarteak diren ala izen eratorriak. Hala aitortzen zuen LEF Batzordeak lehen lanean:

Ez da inoiz gauza erraza izan hitz-elkarketa non hasten den eta non bukatzen jakitea: ez euskararen eremuan eta ez, egia esan, atzerri-hizkuntzen kasuan ere. (...)

Euskarari dagokionez, bi dira, besteak beste, mugari finko baino sarriago istilu-iturri gertatu ohi diren puntuak: hitz elkartuen eta eratorrien arteko muga, alde batetik; eta, bestetik, hitz-elkarketaren eta sintaxiaren artekoa (...)

Bukaeran -dun, -gin/-gile, -zain/-zale, -bide, -aldi, -ola, -tegi... duten eraikuntzak hitz elkartuak dira, ala eratorriak? (H-E/1: 27-30 / 22-25).

Hitzok kezka-kate luze baten ispilua dira: euskalariak ez dute gisa berean jokatu elementu lexiko batzuk sailkatzean. Horren erakusgarri dugu, adibidez, Campionek (1884) eta Lopez-Mendizabalek (1943) elkarketan sartu dituztela Uhlenbeckek (1909), Azkuek (1923-25), Lafittek (1944), Villasantek (1974) erator-atzizkitzat jotako hainbat¹²⁰. Baina betiere mugakotzat jotzen dituzte: bi baliabide lexikologikoren —eratorbidearen eta elkarketaren— artekotzat, hain zuzen ere. Alegia, bai aspaldi samarreko gramatika-ikerlanetan, bai gerokoetan (Azkarate 1990, 1991; Euskaltzaindia H-E/3, H-E/4) errepikatzen da elementu horien izaeraren gaineko zalantza, eta, honenbestez, eratzen duten hitzarena. Horietako batzuk izendatzeko erabili zuen, hain justu, “erdi-atzizki” deizioa, Marchand-en (1960a) *semi-suffixe* edo Dimitrescu-ren (1969) *suffixoïde* terminoen bidetik.

Baina, zein irizpide aipatu edo erabili izan dira lexikoko elementu horiek mugakotzat jotzeko?

- a) Oro har, **maiztasuna** aipatzen da (Henzen 1947; Marchand 1960a; Guilbert 1971: LXXIII; H-E/4...). Elementu horiek beste izen edo adjektiboak baino askoz maizago darabiltzagu beste kategoria lexiko baten (batez ere izen baten) eskuinean hitz eratu¹²¹ bat osatzen.
- b) **Bilakaera** ere aipatu izan dute (Uhlenbeck 1909; Azkue 1923-25; Villasante 1974; H-E/4, 11.2.5): hitz beregaina zena, denboraren joanean atzizki bilakatua da.

Irizpide horiek askietsi ez eta arrazoiak bilatzeko saioa egin dute hainbat ikertzailek.

- c) Maiztasunak osagai horren **esanahia aldatzean** izan behar du euskarria (Bally 1932: 244; Rohrer 1967: 16; Lifetree-Majumdar 1974: 65-67...). Lotuta nahiz aske joan, delako hiztegi-sarrerak esanahi-aldaketa sendorik ez badu, ezin atzizkitzat hartu eta hitz elkartuko osagaitzat jo beste erremediorik ez dago.
- d) Giurescu-k (1970: 263-264), Dimitrescu-ren (1969: 3-4) *suffixoïde*-en azterketari eransten dio delako osagaiak **beregaintasuna** galdu ote duen ere kontuan hartu behar dela: osagai hori bakarrik ezin erabil badaiteke atzizki bilakatu den seinale da.

¹²⁰ Honek ez du esan nahi guztiak beti bat datozenik sailkapenean.

¹²¹ Termino hau oso eroso gertatzen da bai eratorriak bai elkartuak izendatzen dituelako, bereizi gabe erabiltzeko aukera ematen duelako, alegia. Deizioa Azkarategandik (1991) hartua da.

- e) Azkaratek (1991) **kategoria-aldaketa** ere aipatzen du, adierazgarria izan baitaiteke osagai bat lotuta doanean eta beregain darabilgunean kategoria berekoak ez izatea.

Mugako eraikuntzen gaia (baliabide lexikoen artekoa, nahiz lexikoaren eta sintaxiaren artekoa) guztiz interesgarria eta gaurkotasun handikoa da¹²² eta adar asko eta aski bihurriak ditu. Baina guk atal honetan LEF Batzordeak *andregai* modukoetan sailkatuak besterik ez ditugu aztertuko (**H-E/4, 11.2.5**). Bihoa aurretik esana, dena dela, multzo honetan bilduak ere ez direla alde guztietatik berdinak¹²³: esate baterako, maiztasun soila irizpide hartuta, adibideek erakutsiko digute (*k*)*ide*, (*k*)*ume*, *orde*, (*z*)*aro* maizago erabiltzen ditugula lotuta *aldi*, *bide* edo *lagun* baino. Bestetik, berriz, mugakizun hauetako gehienak polisemikoak dira eta adiera-aniztasunak badu ondorioz gure aztergaietan. Berezitasun horiek ezinbestean eramango gaituzte atal honetan mugakizun bakoitzaren berri ahalik eta zehatzena ematen ahalegintzera.

II.7.2. Adibideen azterketa

Alfabetoaren araberrako hurrenkeran emango ditugu puntu honetan mugakizunak. Kasu bakoitzean aztertuko dugu zein mugatzaile ageri diren ezkerrean eta zein kategoriatakoak diren, bai eta mugatzailearen eta mugakizunaren arteko erlazio semantikoak nolakoak diren ere.

II.7.2.1. ALDI

Mugatzaileak. Kategoria bateko baino gehiagoko mugatzaileei elkartzen diegu *aldi*. Izen bizidunak: *errege*, *gizon*, *karlista*, *morroi*, *preso*, *txita*, *ume*... Bizigabeak: *aginte*, *agoa*, *ahots*, *aitzin*, *argi*, *arnasa*, *atseden*, *azken*, *azterpen*, *bake*, *barre*, *batzar*, *batze*, *belaun*¹²⁴, *berba*, *bero*, *berriketa*, *beso*, *bide*, *bitor*, *borroka*, *briska*, *dantza*, *dei*, *denbora*, *diru*, *egun*, *eguzki*, *ekaitz*, *erbeste*, *errieta*, *esku*, *eztula*, *festa*, *gaitz*, *galda*, *gau*, *gaztaina*, *gerra*, *gerrate*, *gezurketa*, *gogo*, *gorputz*, *grina*, *haize*, *hauts*, *hazkunde*, *hega*, *hegatzada*, *hitz*, *hizketa*, *hortz*, *hotz*, *indar*, *inflazio*, *itsaso*, *jai*, *jolas*, *kanpo*, *karga*, *kasketa*, *koroazio*, *krisi*, *kroskada*, *labe*, *lan*, *lerro*, *lo*, *loaro*, *loratze*, *lurmin*, *maldizio*, *min*, *mintzo*, *mokoka*, *morkots*, *mundu*, *oinaze*, *opor*, *poz*, *sabel*, *sen*, *siesta*, *solas*, *sozialismo*, *tentu*, *transizio*, *tripa*, *uda*, *udaberri*, *une*, *ur*, *urte*, *zabu*, *zinema*, *zurra*... Abstraktuak eta konkretuak.

Izen bereziak: *Neolitos*, *Pazko*, *Pizkunde*

Adjektiboak: *antzu*, *beltz*, *bizkor*, *elbarri*, *estu*, *gaixo*, *goibel*, *gozakaitz*, *gozo*, *haserre*, *huts*, *mozkor*, *samin*, *txoro*, *zakar*, *zaputz*, *zoro*...

Adberbioak: *antzina*, *orain*...

Zenbatzaileak: *hamabost*

¹²² Azkenaldiko ikerlan gehiagok ere ildo horixe jorratu dute. Besteak beste, Val Álvaro (1999), Perez Gaztelu; Zabala; Gràcia (2004), Booij (2009).

¹²³ Hasieran jaso dugun aipamena poliki irakurtzea besterik ez dago jabetzeko aski gai zabala dela, muga-arazoak sortzen dituzten eskuineko osagai lexikoak gisa berekoak ez izaki. Nolanahi dela ere, garbi dagoena da “istilu-iturri” ez direla “erdi-atzizki” deituak bakarrik. Zehatz esan, arazoa H-E/3 eta H-E/4 lanetako lau saili dihoakie:

- *andregai* moduko “erdi-atzizkiak” (*aldi*, *bide*... eskuineko osagaiak dituztenak). (**H-E/4, 11.2.5**).

- *hitzaurre* moduko “deiktiko”-etako “batzuk” (*alde*, *aurre*...). (**H-E/4, 11.3.1**). (**II.8**)

- “Egile-elkarte sintetiko errokariak” (*-gin*, *-gile*, *-dun*, *-zain*). (**H-E/4, 7.1**).

- “Izaera-elkarte” (**H-E/3, IV.3**) nahiz “asmo-elkarte”-etan (**H-E/4, 8**) aipatutako *zale*.

¹²⁴ Bizigabeen artean aipatu dugun arren, bizidunetz aritzeko erabiltzen da hemen, ez baita gorputzaren zatia, *belaunaldi*, *gizaldi*-ren parekoa baizik.

Izen eta adjektiboen artean aipatu ditugun batzuk aditzointzat ere har daitezke: *bizkor*, *borroka*, *dantza*, *dei*, *galda*, *pausa...*; *beltz*, *goibel*, *gozo*, *huts*, *zaputz...* Areago, *Jarleku* motan jasotako hainbat adibidek ordain zuzena dute hemen, esanahian alde handirik egon gabe, gainera: *mintzaldi* / *mintzoaldi*; *tentaldi* / *tentu aldi*...

“Ijeliak badaucaz une luziak *agoe* aldi bacoichian” (HE20,129).

“Do-nia-ne diote, bai garaztarrek, hiru *abotsalditan*” (EJ51,65).

“Txirrita, bertsolarien erori-aldian, *antzu*-aldian, guzien eusle, buru, biotz ta maixu izana” (EJ79,139).

“*Egualdiak*, *argi* aldia du, ta ÑO'k, eskuan zerabilen argia itzali du” (HE57,106).

“elerti-*batzaldietan* sarbidea uka egin zaie” (HE17,34).

“Aldi artan apaiz eta pralleak zurian *beltzaldi* lizunak egitea gauza arrunta baitzen” (HE28,68).

“*besoaldi* bat sutara dute, baiña ke gorri emaiten” (HE18,87).

“baño alare, bi urteotan egin dunakin, ezin ixildu diteke Santutegiari eman dion *bizkor*-aldi beroa, ta bultzada zer-naitarakoa” (EL70,257).

“Billareal'ko *burruka*-aldian il zan” (EJ60,88).

“Ereji baten azpian egon diran *demboraldi* gucietan chit sarri icusi da” (HE40,67).

“*Guizalditic* *guizaldira*, eta *denbora* alditic *denbora* aldira” (HE40,7).

“bada, *diru*-aldi dabenean be, ogi zorrak kitutu ta praka-jakaengel batzuk egin ezker” (EJ59,48).

“Creatçailleac bere amoriozco(aren) eta botherezco(aren) *escu* aldi batez hari naturaleçaco içaiterequin batean graciaco iaitea ere eman cioenaz guerostic” (EJ58,85).

“Aide onec bereala erantzun zuen: gai ontaco nere *escualdi* guziac uzten ditut, eta nere lecuan zu sar-zaite, gogo badezu. *Escualdi* oyec batec uzten zituenean, oñeco abarca erantzi, eta *escualdian* sartzen zanari ematen zion, eguindaco uztearen sinistgarritzat, eta gueroz etzezaquean itz emanic jan” (HE45,206).

“Jaungoikoak egun on dizula, Joxe Mañuel! *Etxe* aldi? (...) Bai, gaur ere, lanerako baño etxe inguruan egoteko giro obia dago, ta ementxen nabill bare billa” (EJ79,110).

“Alare, naikoa egin zun gure erriak [eliza] altxatze utsarekin, anbat zoritxarrez eta gudaz abaildutako *gizaldi* artan” (EL70,202).

“Giza-asmo aundi guzietan gertatzen da. *Gizaldi* gazteak zaarrari zirika, zaarrari bultza. Zaarra bere egonean goxo, ta aurrerago ez nai” (HE17,55).

“*Gizaldi* berri baten eta *gizaldi* horren obren aitzindari gisa agertzen zaizkit” (HE27,302).

“Mendizaleak, errira agertuz, kantarako du *gogaldi*” (HE18,85).

“Gorputz astuna *gorputz*-aldi txarra daukagula adi-erazoteko ere esaten dogu” (EJ06,81).

“*Aizealdi* bigun onek ere aldegingo baitugu” (HE17,27).

“Lenbiziko *ortzaldiko* ortz erriak” (HE24,53).

“Batzuec besteen ondoren *utsaldi* gabe jarraituaz dijoacen becela” (HE40,139).

“hango eta inguruko euskal *jaialdiak* ikusteko zoria izan dut” (EI94,28).

“*Karga*-aldi bat ona eman ezker, lo pixka bat egin litekek” (EJ62,26).

“Meza, *mintzoaldi* xamurrez; batzarrea, aurtengo gora-beerez ta etorkizunerako asmoez, apainduak” (HE17,43).

“Garaitu ote dezu zuk beti, edo bere *tentualdi* guzietan sulezeko zere lapur-etsaia?” (EH13,90).

“Hamabi *umalditan*, laurogei eta hamaika umez erditu zen” (HE39,17).

“Bidasoak *uraldi* aundietan karreatzen dituen zuaitz enbor eta arbaztei eskerrak” (EJ03,23).

Mugatzaileen gramatika-kategoria: gehienak izen¹²⁵ arruntak dira; bizidunak, gutxi; bizigabeak dira ugarrienak, konkretuak nahiz abstraktuak. Horiezaz gain, izen bereziak, adjektiboak, adberbioak¹²⁶ eta zenbatzaileak ere atera zaizkigu. Bistan da, hortaz, elkarketan oso ohikoak ez diren osagaiak onartzen dituela *aldi*-k bere ezkerretara.

Zenbatzaileak ez dira oso ohikoak izaten izen-elkarteetan¹²⁷, baina uste dugu hiztunak, arrazoi pragmatikoak direla medio, batasuna duten denbora-unitatetzat dauzkala *hamabost egun* corpusekoak, eta baita erants daitezkeen *zortzi* edo *berrogei* ere. Horrexegatik horietatik

¹²⁵ Gogoan izan dezagun, nolnahi dela ere, ugarrienak diren “aditza + *aldi*” modukoak ez ditugula hemen jasoak, *Jarleku* motan aztertuak daude eta.

¹²⁶ Corpusean ez geneuzkan baina irakurri eta entzuten diren *merkealdi*, *lehenaldi*... ere hemen sartzekoak lirateke.

¹²⁷ *Lauburu*, *hamalauzanko*... modukoak alde batera utzita, exozentrikoak baitira.

kanpo, ez dugu [Zenbatzailea *aldi*] modukorik egiten; alegia, *zortzialdi*, *berrogeialdi* bai, baina ez dugu eratu **bialdi*, **bostaldi*...

Adjektiboak hitz elkartuetako mugatzaileak, ezkerreko osagaiak, izatea ere ez da batere arrunta. Aurrera dezagun, halaz ere, egoerako predikatuak direla mugatzaileok (behin-behineko egoera adierazten dutenak), ez izaki mailakoak (behin betiko izaeraren adierazleak) (Zabala 1993): *haurdun*, *gaixo*, *zakar*, *hits*....

Orainaldi, *antzinaldi*... elkarteetako ezkerreko osagaiak ere izen kategoriakotzat hartu behar ditugu. Hiztegiek ere jasotzen duten izenen eginkizuna onartzen dute, eta, bestalde, kide lituzketen denborazko aditzondo edo adberbioak ez ditugu erabiltzen elkarte honetan: **berandualdi*, **etzialdi*...

Bestalde, mugatzailearen kategoriaren ondoan, beharrezko zaigu *aldi* mugakizunaren adierez¹²⁸ ere arduratzea.

Hiztegietara jotzen badugu, ikusiko dugu *aldi*-k ez duela berez oso esanahi sendoa eta *aldi* berean polisemikoa dela: 1. 'denbora hedadura' ('denbora', 'garaia'), 2. 'gertaera baten gauzatze bakoitza', 3. 'txanda', 4. 'denbora zatia', 5. 'gramatikako aditzaren aldiak'.

Era berean ohartzen gara denbora adierazten duenean oso erreferentzia-balio zabala izan dezakeela: kontrakoak diruditen hedadura eta unekoa barne hartzen dituela. Baina ez du berez erreferentzia sendorik, denbora-muga zehatzik ezartzen: zerbaiten edo norbaiten aldia da, ez 'aldia' berez. Alegia, badirudi osagarri bat behar duela denborazko erreferentziazko ardatza mugatzeko.

Bestetik, berriz, azpimarratzekoa da gertaera gauzatzea ere adieraz dezakeela, 2. eta 3. adieretan ikus daitekeen bezala. Gertaera hau, gainera, iteratiboa izan daiteke, behin eta birritan gerta daiteke.

Adiera kontu hauek gure adibideetara egokituta honakoa ikusten dugu:

- *Aldi*-k denboran hedadura adierazten duenean, ezkerretara daramatzen osagaiei ezartzen dien murriztapena da hauek ere iraupena adieraztea. Horregatik, izen bizigabeak ditugunean, oro har, beren adieraren ezaugarrietako bat da denboran iraupena izan ahal izatea. Gertaera edo ekintza adierazten duten izenak dira batzuk (*aginte*, *borroka*, *gerra*, *karga*, *loratze*, *zurra*...), denbora adierazten dutenak beste batzuk (*denbora*, *opor*, *uda*, *urte*...; *Neolitos*, *Pazko*, *Pizkunde*... eta lehengo *hamabost*...). Gizakiak bizi ditzakeen sentimenduak, egoera adierazten dutenak bestetarik: *atseden*, *bake*, *poz*... Eguraldiarekin zerikusia dutenak ere bai: *bero*, *ekaitz*, *hotz*... Baina izen bizidunak ditugunean ere (*errege*, *morroi*, *preso*...) egoerako predikatu moduan ulertzen bide ditugu gehienak, ez baitute izakiaren berezko ezaugarria adierazten, izaki horren egoera bat baizik: 'erregetzak, morrontzak, preso egoteak irauten duen epea'.
- Adberbioak izateaz gain izenak ere badiren *antzina*, *gero*, *orain*, *lehen*... mugatzaileek ere denboran iraupena adierazten dute¹²⁹. Era berean, iraupena

¹²⁸ Zehazkiago, aspektu lexikoaz hitz egin beharko litzateke (Vendler 1967; De Miguel 1999, etab.).

¹²⁹ Beste kontu bat da zer dela eta eratu ditugun *opor* bezalako izenek, *orain* izen bihurtua bezalakoek berez denboran iraupena adierazten badute.

adierazte horrek argituko luke ohiko elkarteetan gertatzen ez den adjektiboak ezkerretara onartu ahal izatea: ez dira izaki mailako predikatuak¹³⁰ (**polit-aldi*, **kezkarri-aldi...*), egoerakoak baizik.

- Baina ez dezagun ahantz *aldi*-k gertaera gauzatzea ere adierazten duela. Adiera hau dugu batez ere ezkerretara ekintza edo gertaera adierako izenak ditugunean: *kasketa*, *hitz (egin)*, *jai*, *hizketa*, *haize...* Antzeko eran hartuko genituzke, *besoaldi*¹³¹, *hartzaldi*, *tripaldi*, *txitaldi*, *umaldi...*, besteak beste. Hots, “besoetz eragitea”, “hartzak ateratzea”, “tripa betetzea”, “umeak izatea”...

Gertaera gauzatzea adierazten dutenen artean badira aldi bakoitza izendatzeko darabiltzagunak, behin eta birritan¹³² gertatzen dena izaki: *eztul (egin)*, *arnasa (hartu)*, *dardara (egin)*...

- Bestetik, berriz, badirudi *aldi*-z ez dugula elkarerik osatzen ezkerreko osagaiaren denboraren zatietako bakoitza adierazteko. Beste era batera esanda, ‘Europako guduaren bi aldiak’ eta ‘Europako bi gudaldiak’ ez ditugu esanahikidetzat jotzen.
- Ildo beretik, *dantzaldi*, *agintealdi*... modukoak ez ditugu ulertzen aginteak, dantzak irauten duen denboraren zati bakoitza, ‘dantzatzea’ edo ‘dantzak, aginteak... irauten duen denbora osoa’ baizik. Honek adieraziko luke aipatuko dugun osagaien arteko harreman semantikoaren ikuspegitik ez dugula ‘osoa-zatia’ harremanik *aldi*-z eratutako hitz-elkarteetan¹³³.

Osagaien arteko erlazio semantikoak. Zabal hartuta, ‘edukia’ harremanaren bitartez azal daitezke, ‘zer-noiz’ (I.5.4.3), bai ‘iraupena’ bai ‘gertaera gauzatzea’ adierazten dutenean. Adib. *oporraldi* “aldi horretan oporrak zertu”, “oporrek betetzen dute aldi hori”; *haurdunaldi* “aldi horretan haurdun egon”, “haurdun egoteak betetzen du aldi hori”, *eztulaldi* “eztulak, eztul egiteak betetzen du aldia”, “aldi horretan ezsula zertu”...

Ihartutzat joko genituzke, azkenik, *ahapaldi* (OEH: *ahape (aho + pe) + aldi*) eta *eguraldi* (*egun + aldi*), besteak beste.

II.7.2.2. BIDE¹³⁴

Mugatzaileak: kategoria bateko eta besteko mugatzaileekin elkartzen dugu *bide*. Izen bizigabeak: *aberastasun*, *aburu*, *adiskidetasun*, *aitzakia*, *amets*, *ardandegi*, *arrazoi*, *askatasun*, *asmo*, *aurrerapen*, *auzi*, *bake*, *batasun*, *baso*, *bekatu*, *burdina*, *burni*, *buru*, *damu*, *diru*, *ele*, *eliza*, *elur*, *erbeste*, *esku*, *ezkontza*, *feudalismo*, *formazio eta informazio*, *gaitasun*, *gaitz*, *gaztaina*, *gardi*, *gurutze*, *haize*, *harri*, *heriotz(e)*, *herri*, *hitz*, *indar*, *iritzi*, *iseka*, *itsaso*, *iturri*, *jakintza*, *jornal*, *kalbario*, *ke*, *kritika*, *kultura*, *lan*, *lege*, *leize*, *maitasun*, *mendi*, *mistika*, *mozkin*, *nahaste*, *ondra*, *ogi*, *oihan*, *okasio*, *orga*, *osasun*, *poesia*, *politika*, *produktzio*,

¹³⁰ Bereizkuntza hau garbi ikus daiteke *gaixo* hartuta. *Gaixoa* izan daiteke 1. ‘eria’ (egoerako predikatua batez ere), nahiz 2. ‘gajoa’, ‘errukarria’ (izaki mailakoa). Baina *gaixoaldi*-k, ‘gaixotasunak irauten duen denbora’ beste aditzeko modurik ez du; egoerako predikatutik abiatuta, alegia.

¹³¹ Erdal aldaerak *brazada* dakar.

¹³² Horren lekuko dugu euskal hiztegietan “dena delakoa egitea”, “dena delakoa egiten den aldia” definitzea.

¹³³ Eta honexek bereiziko luke, besteak beste, beste alderdi batzuetan kide duen *alde* izenetik: *orrialde*...

¹³⁴ Bai hemen eta bai *buru* eta *orde* aztertzean, bazter uzten ditugu postposizio izenkideak, alegia, *hori dela bide*, *gai horri buruz*, *hamabost egunen buruan*, *zure orde*z gisako egituretan duten postposizio balioa.

salbamen, salbazio, solas, soluzio, sortze, susmo, traktore, ukamen, ur, urrats, zehaztasun eta aberastasun, zeru...

Izen bizidunak: *errege, gizon, jainko, mando, zamari...*

Izen kategoriakotzat nahiz aditzoin kategoriakotzat har daitezkeen: *solas, froga, garai, negar...*

Adjektibo nahiz aditz kategoriakotzat har daitezkeen: *erraz, jator, on, umil, zabal, zabar...*

“Afrika-Asietako herri askatu berri edo *askatasun* bidean direnen marmar hotsa” (HE27,339).

“Aurkientzak han nituen, aspaldiko muiño, ibar; *basobide* bazterretan sasi, ota, isats eta iñar” (EJ50,155).

“Ibarrik-ibar, *edur*-bideetatik neguan” (HE31,20).

“Atharratzeko hiria ordoki / hur handi bat dizu alde batetik / *errege*-bidea erdi-erditi / Maria Maidalena beste aldeti” (HE18,111).

“batasun bidean jar gintzazketen zenbait *errepide* nagusi erakusteko ustetan edo” (HE27,376).

“*Gaitz*-bidez bide, edo bide gaistoz dabilena” (HE13,16).

“*Arr*bidea beian, basoaren erditik ziar” (HE31,64).

“Ola-*ke*bide bakar bat ez, ortziaren aratza, izerdizko, nekezko, oñazezko lurrun-gandor zikiñaz lardazten (HE17,45).

“Arren bai arren, bizkor utzi *leze*-bide, yaso goiruntz begiok izarren senide” (EJ50,41).

“Zeren Lastur-ko eta Itziar-ko *mend*bideak gaiztoak baitira ilunduz gero” (EJ48,8).

“Beste *og*bide bat beharko dut horrelako ostikoak sartzen jarraitu nahi baduzu” (EJ53,120).

“Goiko jabea igaro zan *oian*-bidetik orduan” (EJ50,121).

“Aurrak erdi-goserik eta gurasoak erretxinduta, *okasio*-biderik ez da faltatuko” (EJ03,114).

“Ustezko *on*bide arrigarriak dituzten belar eta zuaitz guztiak” (HE24:50).

Mugatzaileen gramatika-kategoria. Gehienak izenak dira, izen bizigabeak —konkretuak nahiz abstraktuak—, nahiz eta bizidunen bat edo beste ere badagoen. Adjektiboak arras gutxi dira.

Dena den, ez da beti erraza lehen osagaiaren kategoria finkatzea. Behin baino gehiagotan duda egin daiteke izena, adjektiboa edo aditza ote dugun. Adjektibotzat hartuz gero, argi dago ‘adjektiboa+izena’ egitura ez dela ohikoa izen-elkarteetan. Horrek berak bultzatzen gaitu adjektiboa edo aditza izan daitezkeen osagaietan, aditz kategoriari begiratzera¹³⁵: *erraz(tu), zabar(tu), umil(du)*. Hala ere, *jatorbide* izenean ez dugu *jator(tu)* aditz kategoriako osagairik. Adibide guztiak interpretazio bakarrera ekar ditzakegu ‘jator, zabar, erraz, umil... izateko bide’ moduan ulertzen baditugu, predikatu-sintagma moduan, alegia; azken batean, aditz kategoriatik hain urrun ez dagoen interpretazioa.

Azkenik, gogoan izan behar dugu adibide batzuetan aski ilundua dagoela bi osagaien arteko harremana; hala gertatzen da, besteak beste, *errepide, errazbide* (‘dejadez’ itzultzen du OEHk), *onbide...* eta, zer esanik ez, leku-izen bihurtua den *Zabalbide* adibidean.

Aldi-ren atalean egin bezala, orain ere mugakizunaren adieraz zerbait esan beharrean gara. Horrela, gogoan izan behar dugu *bide*-k, berez, benetako bide fisikoa izateaz gain, bestelako adiera abstraktuak ere badituela: ‘bitartekoa’, batez ere, eta baita ‘aukera’, ‘legea’ edo ‘zergatikoa’ ere. Elkartuko osagaia denean ere adiera-aniztasun horrixe eusten dio; ez dago, hortaz, alde horretatik alde handirik bere eskuko nahiz elkartuko osagaia denean.

Lehen *bide* hori da nagusi batik bat izen konkretuekin (*ardandegi bide, baso-bide, burdinbide, elizbide, harri-bide...*) eta bizidunekin (*errepide, mando-bide, zamalbide...*) elkartuta. Hauetan, “norabait doan bidea”, “nondik doan bidea”, “zerez eginda dagoen bidea”, “norbaitek/norbaitentzat egindako bidea”... adierazi nahi dela ulertzen dugu.

¹³⁵ Eta, horrenbestez, *Jarleku* motako elkarteetan sailkatzera (H-E/3: 83-84 / 63-64).

Mugatzaile abstraktuek, berriz, beste *bide* metaforikoa ulertzea ia eskakizun dutela esan daiteke, espero izatekoa zen bezala (*amets-bide*, *askatasun-bide*, *auzibide*, *bakebide*...). Baina mugatzaile biziduna duten batzuek eta konkretu batzuek ere multzo honetan sartzekoak dirudite: *dirubide*, *elebide*, *gizabide*, *isekabide*, *jainkobide*..., besteak beste, nekez joko genituzke beste gairen batez egindako bidetzat.

Bestalde, itxura guztien arabera, konkretu / abstraktu bereizkuntzaren ondoan bada besterik. Mugatzaile konkretuen barrenean erabakigarria izan daiteke materiazko izaera izateko edo ez izateko: zenbat eta ikus edo ukigaitzagoa izan, orduan eta aukera gehiago *bide* metaforikoaz aritzeko.

Hemen bildutako forma batzuek kideak dituzte *Jarleku* motan: *aberastasunbide* eta *aberaspide*, *salbamen-bide*, *salbazio-bide* eta *salbabide*; *osason-bide* eta *osabide*..., adieraren aldetik alde handirik ez dutela.

Osagaien arteko erlazio semantikoak era askotakoak izan daitezke, mugatzailearen ezaugarrien arabera.

- Ezkerreko izena konkretua eta berez nahiz besteren baten indarrez mugi daitekeena denean: biziduna bada, pentsa daiteke ‘jabea’ *errepide* ‘erregearen bide’ edo ‘onuraduna’, ‘erregearentzako bidea’... erlazioak ditugula. Azken harreman hauxe dugu, hain justu, ezkerreko izena [-biziduna] izan eta garraioa edo nolabaiteko ‘mugimendua’ egozten diegunetakoa bada: *gurdibide*...
- ‘Helmuga’ adieraz dezakegu ezkerreko izenak leku jakin bat izendatzen duenean: *elizbide*, *zeru-bide*...
- Ezkerreko izenak bidea egin daitekeen gaia adieraziz gero, horixe da harremana, ‘gaia’: *burdinbide*, *harbide*...
- Beste batzuetan ‘non’ dagoen bidea adierazten da: *mendi-bide*...
- ‘Xedea’, ‘zertarakoa’ da ezkerretara izen abstraktuak ditugunean, oro har, *zorionbide*, *amets-bide*¹³⁶...
- Badira, azkenik, zenbait forma esanahia aski lexikalizatua dutenak: *burubide*, *eskubide*, *gizabide*, *hizpide*, *irizpide*, *lanbide*, *ogibide*...

II.7.2.3. BURU

Honelako mugatzaileak aurkitu ditugu *buru* mugakizunaren ezkerrean. Izen bizidunak: *apaiz*, *aratxe*, *diakono*, *ero*, *ertzain*, *euskaltzain*, *fraide*, *gudari*, *kanonigo*, *legatz*, *otso*, *txahal*, *txerri*, *txori*, *zapo*...; izen bizigabeak: *adar*, *arbi*, *auzitegi*, *batzorde*, *begi*, *belaun*, *beso*, *bide*, *ekintza*, *eskailera*, *etxe*, *festa*, *gari*, *goi*, *herri*, *hiri*, *ingeniari-konpainia*, *iturri*, *landare*, *mahai*, *mahasti*, *negu*, *ohe*, *olerki*, *soka*, *su*, *sukalde talde*, *udal*, *udazken*, *ur*, *urte*, *zerbitzu*...

Adjektiboak: *zabal*¹³⁷...

“nagikeriz bezala kulunka *adaburuak* labur eta mazal” (HE34,26).

“horra *batzordeburuak* hitzaldia hasten duen mementua” (HE39,103).

“*bepuru* luze betien azpian begi urdiñ-abar bigun bigunak” (EJ59,93).

“Hamazazpigarren mendearen azken partean Iruñeko *diakon-buru* zen” (EB87,50).

¹³⁶ Hauetako askotan, lehen esan bezala, duda egin daiteke benetan izena edo aditzoina (*amets*, *damu*, *solas*...) ote dugun, edo aditz-esapideko osagaia (*amets egin*, *damu izan*, *solas egin*...). Nolanahi dela ere, harreman semantikoa ez da aldatzen.

¹³⁷ *Zabalbide*-ren kasuan bezalaxe, hau ere, *Zabalburu*, toki izen gisa bakarrik ageri dena.

“Eta ez dago ezer Kondairan aldagarriagorik, hain zuzen, gizonen *ekintza*-burua baino!” (EJ51,52).
 “ondo esan da aditu nai ez emakumiaren griña, arratserako *eskall*-buruan askotan total egiña” (EJ67,268).
 “Guraso, edo *Eche*-Burua bazara, beguira ondo, celan, ta nondic dabilizan zure hume, ta oguipcoac” (EC61,132).
 “Juane, bere emaztea eta semeak ari ziran *etxeburuko* soroan arta jorran” (HE19,46).
 “*Euskaltzain*buruaren eskabidez hurrengo oharrok eta ereduok prestatu ditut” (EJ56,33).
 “Barrena sartu gera eta an arrapatzen ditugu geren usteko lagun batzuk, abertzaleetan oso *goi*-buru egiten zutenak” (EJ49,60).
 “iturri apala da guziz, neri gustatzen zaizkidan bezelakoa: goldioak berdez margotua, *itur*buruaren xirripa etengabeaz besterik ez du” (HE34,22).
 “bizitzan ia gauza guztien *itur*burua da nekazaritza” (EF92,3).
 “Lizenziadu, Irakasle ta *Kanonigo*-buru, Avilan” (HE33,49).
 “*landara*-buru (ta ez bata bestearen aijen edo adar) izateko dabeen eskubidea ere erderaak eurak erakusten deuskue ederto” (EJ06,82-83).
 “Apaiza ta Alkatea jarri dira *mâ*buru” (HE18,20).
 “nik, beintzat, *mai*-burutik altxa eta amonari sorbaldatik oso indarrez eldu eta besarkatuaz” (EJ49,79).
 “saskiak *mahasti* buruetan pausaturik, lagun multxo bat muntatzen ginen bi lagunek lerroa artean harturik” (EJ04,47).
 “Noiz hila zen Butron eta idazten noiz estreinatua Gamiz, *olerki*-buruetan begiratzea aski zukeen” (EJ00,175).
 “*sokaburu* dagona bai mutil martzala” (HE18,22).
 “Kebide orrek, lengo izen eder *suburu*a galduta, erbesteko itz barri tximinia artu eban” (EJ06,72).
 “Langintza aurrez ikasteke ez zitekeen *suka*buru ipinia izan” (EJ00,177).
 “*Txa*buruak-eta bazebiltzan, bañan arekin kendu egarria” (EJ66,72).
 “kutsu gabeko ur garbiaren billa *uburura* joatea, alegia” (EC70,42).
 “zein diren goxo oraindik *udazken*-buruko egun epelak” (HE27,318).
 “Odolkiak, *tserri*-buruak, urdai-azpiko koipe gabea” (HE15,9).
 “*Zaba*burun bizi den... Parkatu” (HE44,31).
 “oraintsu espainol telebistan zinemaldi, lehiaketa eta eurobisioko *zerbitz*uburu bezala” (HE50,53).

Mugatzaileen gramatika-kategoria. Bat ez beste guztiak izenak dira: bizidunak eta bizigabeak. Salbuespena lehen ere jaso dugun *zabal* da.

Adiera dela eta, hiztegiek jasotzen dituzten adierak ikusi orduko ohar gaitzek *buru*-ren polisemiaz. Hona hemen nagusiak: 1. Gorputzaren goiko edo aurreko zatia 2. Adimenaren iturburu. 3. Gauzaki baten muturra (puntaren kontrakoa). 4. Zerbaiten hasiera edo bukaerako gunea. 5. Zerbaiten muturra aurrekoa, goikoa edo nagusia denean. 6. Buruzagia, nagusia. 7. Buruxka. Landareen bilduma biribila. 8. Banakoa.

Elkarketan ondorioa izan dezakeelako, lehen urratsetatik bertatik komeni da aipatzea *buru*-ren erreferentea bai bizigabea, baina baita biziduna ere izan daitekeela. Alegia, elkartuko osagaia izan gabe ere, *buru* izenak adiera zabaldu duela eta metafora (metonimia edo) dela medio¹³⁸, buru fisikotik abiatuta, abstrakturako eta biziduna, gizakia batez ere, adierazteko bidea egin duela. Hortaz, *bide* izenari gertatzen zaion bezalaxe, ezingo genuke esan *buru*-k adiera aldatzen duenik bere eskuko darabilgunean eta elkartuko osagaia denean.

Horrela bada, bizigabea denean, lehen adiera hartzen badugu —lepo gaineko gorputz atala, alegia—, pentsatzekoa da ezkerretara mugatzaile biziduna eraman behar duela. Halakoak dira corpuseko batzuk: *arrainburu*, *legatzburu*, *otsoburu*, *txerriburu*, *txoriburu*, *zapaburu*... *Buru* mugakizunak adiera hori duenean, elkarteko bi osagaien artean ‘osotasuna-zatia’ (I.5.3) erlazio semantikoa antzeman daiteke; beraz, erlazio semantiko bera duten gainerako *behi-esne* motako elkartean artean ere sailka genitzakeen. Mugatzaile bizidunak dituzten gainerako guztiak ez dira lehen adiera honetan ulertzekoak, azalduko dugun bezala. Hitz elkartu osoa bizigabea da.

¹³⁸ *Buru*-ren beste esanahi bat tarteko bada ere (adimena edo), honako esaeran gertatzen denaren ildotik: “Zenbat buru, hainbat aburu”.

Buru-ren bigarren eta hirugarren adierako hitz elkaturik ez dugu corpusean ikusi.

‘Banakoa’ adiera da tarteko batez ere mugatzailea animalien izena denean —gure adibideetan¹³⁹azienda denean, zehazkiago esanda—: *aratxeburu*, *txahalburu*...

Landareen alorreko hainbatek arestiko 7. definizioaren bitartez (“buruxka, landareen bilduma biribila”) azal daitezke, *arbi buru*, *artaburu*, *galburu*...

‘Hasiera’, ‘bukaera’ —tokian eta denboran— adierako *buru* dugu, oro har, ezkerreko osagaia bizigabea duten hainbat elkartutan: *urteburu*, *udazkenburu* (corpusean ez zegoen *asteburu* bezalaxe)... nahiz tokia: *iturburu* (adiera metaforikoa ez duenean), *mahaiburu* (adieretako batean), *oheburu*, *uburu*...

Oso gertukoa den ‘muturra’ adiera du, berriz, beste hauetan: *adaburu*, *bepuru*, *besaburu*, *eskailburu*, *etxeburu* (“Juane, bere emaztea eta semeak ari ziran *etxeburuko* soroan arta jorran” adibidekoa; ez beste adibide izen berekoa), *mahaiburu*...

Azken adiera honek (‘muturra’, baina ‘nagusia’ denean) hain zuzen, galdetzera garamatza ea orain arte ikusten ari garen mendekotasunezko elkarketa arruntetik beste elkartu mota batera ez ote dugun jo behar. Izan ere, *besta*, *herri*, *hiri*, *izen*, *goi*, *landare*... ezkerreko osagaia bizigabea dutenak eta *diakono*, *kanonigo*¹⁴⁰... biziduna dutenak ez ote ditugu “burua, nagusia den besta, herria, hira, izena...; diakonoa, kanonigoa” eran ulertzen? Hala izatekotan, hitz elkartuak atribuziozkotzat hartu beharko genituzke, (“B den A” motan), *hiriburuzagi* atribuziozkoetan aipatu genuen bezala (H-E/3, IX.1.2., 100 / 80).

‘Buruzagia’ adiera dugu, hain justu, beste elkartu batzuetan. Ezkerreko osagaia biziduna izan daiteke —areago; *buru*-ren esanahi hau dela eta, espero izatekoa da beste adieretan baino mugatzaile bizidun gehiago izatea—: *apaiz*, *ertzain*, *euskaltzain*, *fraide*, *gudari*..., baina bizigabeak ere asko dira: *auzitegi*, *batzorde*, *etxe* (“Guraso, edo Eche-Burua bazara, beguira ondo, celan, ta nondic dabilzan zure hume, ta ogupecoac” adibidean, *guraso*-ren kide denean), *ingeniari-konpainia*, *mahai* (adieretako batean hau ere), *soka*, *talde*, *udal*, *zerbitzu*... Elkartu hauei dagokien parafasia: “apaizen, ertzainen... burua, buruzagia” da. Mugatzailea biziduna nahiz bizigabea izan, adiera hau dugunean, hitz elkartuaren azpikategoriazioa [+gizakia] da, eta, arestikoak ez bezala, mendekotasunezko elkartu arruntan artean sailkatzeko ez dago batere eragozpenik.

Azkenik, *bide-buru* (‘bidegurutze’), *bepuru* (‘bekain’), *iturburu* (‘hasiera’) aski lexikalizatutzat jo bide daitezke, hitzez hitzeko esanahia ere adieraz dezaketela ukatu gabe, noski.

Osagaien arteko erlazio semantikoak. Aurreko puntuan ikusiriko adieren araberakoa da izen-elkarteko bi osagaien arteko erlazio semantikoa. Lehen adierako *buru*-a dugunean, ‘osoa-zatia’ harremana dugu. Esate baterako, *txerri-buru* hartzen badugu, ezkerreko osagaiak osoa eta osotasun horren zatia adierazten dute. Erlazio honi dagokion bezala, ‘jabegoa’ ere gauzatzen dela esan daiteke: “txerria buruaren jabea da”.

¹³⁹ Hala diogu, nahiz jendeaz aritzeko ere gisa honetan erabiltzen den *buru*, *arima*-ren antzera.

¹⁴⁰ Testu horretan bertan erdal aldaerak honela dio: “Licenciado, Catedrático y Canónigo Magistral en Ávila”. Itzulpenaren egokitasuna gorabehera, ez da geroxeago aipatuko dugun “kanonigoen burua”, “buru (edo) den kanonigoa” baizik.

Erlazio-mota bera egotz bide dakieke ‘hasiera-bukaerak’ edo ‘muturra’ adierako *buru*-ak ditugunean: “urtearen zati bat burua da”, “urteak burua du”...

Apaizburu, zerbitzburu... bezalakoak ditugunean ere ‘jabegoa’ harremanean pentsa daiteke: “apaizek, zerbitzuek... burua dute”.

Honaino aipatu ditugun guztiak, beraz, mendekotasunezko harremanaren baitan eta *buru*-ren adierak adiera, osagaien arteko erlazio semantiko beraren arabera uler daitezke. Hots, elkartu guztien burua alde guztietatik *buru* da eta ‘osoa-zatia’ (I.5.3), ‘jabegoa’ (I.5.2) da ispilatzen duten harremana.

Bestetik ditugu, berriz, ‘banakoa’ edo landareen alorreko *buru* mugakizuna dutenak: *txahalburu...*, *azaburu...* Gure irakurketak ‘edukia’ (I.5.4) harremanean pentsatzera garamatza. Lehen adierakoak, gainera, ez dabilta hagitz urruti *pare* mugakizuna dutenetatik¹⁴¹.

Azkenerako utzi ditugu “bestelakoenak” bide direnak: *diakon-buru, hiriburu...* bezalakoak. Esan dugun bezala, elkartuok ez dira gainerako guztiak bezalakoak: ez dago esaterik osagaien arteko erlazioa *Eguzki-lore* mendekotasunezko arruntena bezalako denik, ezta *buru* denik elkartuaren burua. Ezkerreko osagaiak ezartzen du elkartuaren erreferentzia eta eskuinekoak esparru horretan mugatzen du atal bat. Horrela, “diakonoen esparruan burua dena”, “hirien esparruan burua dena”... aditzeko erak ditugu; alegia, eskuineko osagaia ezkerrekoaren atributu modukoa da; bere ezaugarri bat edo zehazten du.

Bestalde, ohart gaitezke ezkerreko osagaiaren araberrako erreferentzia hartzen duela elkartu osoak: biziduna bada, biziduna, eta bizigabea bada, bizigabea.

Honenbestez, *buru* eskuineko osagaia duten izen elkartuetan bi harreman-mota eta bi elkarketa-mota gauza daitezke: *Eguzki-lore* motako mendekotasunezko izen elkartu arruntak eta atribuziozkoak.

II.7.2.4. GAI

Mugatzaileak. Izen kategoriako mugatzaileei elkartzen diegu euskaraz *gai* mugakizuna: izen arrunt bizidunak, bizigabeak, eta, adibideren batean, izen berezia.

Bizidunak: *abade, andre, apaiz, bakaldun, biko, diputatu, emakume, emazte, errege, erregina, gazte, idazkari, jabe, mediku, neurtizlari, premu, senar, suhi, zezen...*

Berezia: *Jainko*

Bizigabeak: *afari, aitormen, alfabetatze, alkohol, arte, atzerri, auzi, bazka, bertso, biblia, bizkotxo, burdina, elerti, elerti-ederti, entsegu, erlijio, erredakzio, euskaltzaletasun, euskal egunkari, eztabaida, fisika, foto, gastronomia, gila, gona, hitz, hizkuntza, indar, jakintza, jatorri, kimika, kondaira, kontsumo, kultura, liburu, meditazio, menu, min, mizkineria, musika, olerki, olio, otoitz, poesia, polemika, poz, sari, soziologia, su, sukalde, teknika, zepa...*

“gaurko Jesusen bataioa: ta bidenabar zuri arrerazteko, *aitormen*-gai berririk ez eguiteko” (HE13,73).

“...eta Ricardo Arregi izendatu zituen *alfabetatze* gaitarako batzordea osa zezaten” (EI94,55).

“Bagintuen aitzin hortan sei apez, eta *apezgei* bat” (HE59,15).

“ori ere *auzigai* balitz bezala!” (EJ05,181).

“judizioa eginen bailitzaioke eta *bahigairik* eduki ezik gartzelara sartuko” (HE39,43).

“Beliek zer *bazka*-gaia!” (E60,177).

¹⁴¹ Aipatu hutsean utziko dugu: aztertzea litzateke izen hauen eta zenbatzaileen arteko mugen auzia.

- “Iruñeako emakumeagatiko haserreaz geroz, uko egin ote zien ordurarte ohiko *bertso*-gaii” (EJ00,190).
 “*Biblia* gaietan egungo egunean aurki daitekeen laguntzarekin itzulia” (HE27,342).
 “Gerogo ta beroago bikoien asmaki / nor norengana dagoan batek ba daki. / *Biko*-gaiak oro dira begi ta belarri” (HE18,46).
 “Atxoa sukaldean *bizkotxa* gaien aphailatzen ari zen” (HE32,21).
 “1849-an Chaho *deputatu*-gaiaren alde” (HE43,14).
 “guk baino urriago ditu *elerti*-gai utsezko idazlanak” (HE17,13).
 “*elerti-ederti* gaietazko aren illunaldi ezyakiñetan argi-emaille” (HE17,12).
 “Boskarrenik, *entseiu*-gai izan diren nobela bakarrak dira” (HE35,7).
 “Atsularrek bere liburuan *erligino*-gaiak traktatu zituen” (HE26,270).
 “*Eztabai*-gaiarekiko ain axola gutxiko ezpalira!” (HE17,54).
 “Iur baten azterketa osoak erakutsiko digu, bere *fisika*-gaiak ta *kimika*-gaiak nolakoak diren esanaz” (EF92,39).
 “Baita *gastronomi*-gaiaz idatzi duten literatura-egille trebe bat baiño geiago ere” (EJ64,16).
 “*Gazte*-gaiak batez ere, sortu nai nituan nere lanetan” (HE57,127).
 “Cerron gañera munduco mintegua landare oquerrez betea dagoan, eta *quillagai* guchi dan” (HE07,226).
 “*Gonagayak* naiz aur-zapi tsuri-tsuriak erositak” (HE15,8).
 “Baña gaur *itzgai* au icutzen degun ezquero, bear bada alperricacoa izango ezta” (HE40,128).
 “*hizkuntza* gaietan ere eredu eta gidari gisa ager baitaiteke” (HE27,342).
 “Aita idazkari, semea idazkari, iloba *idazkarigai*” (HE39,67).
 “*indargai* eta tximistargiak zuk asmatuak badira” (HE25,20).
 “Jesu-Cristoren senide, ta Ceruco erreñuaren *jabegai* edo heredero” (EC48,355).
 “*Yainko*-gaiak, nekazaritza ta abar” (HE17,67).
 “Prezio oro goratu egingo da: *kontsumogaiak*, lansariak, salgai den gauza oro” (EB20,16).
 “eta, zer esanik ez, beraren paperak, eskutitzak, *liburu*-gaiak eta abar” (EJ67,63).
 “Mincor-minbera da mundura datorren edocean ta *mingai* guciac beguitan arcen dituena” (EI31,67).
 “egia esan, Euskalerni”ko idazle batzuk ikutu dute, gutxi-asko, *mizkineri*-gai au” (EJ64,17).
 “haietan ikas baitzitzakeen *neurtizlarigaiak* poesia bardikoaren arau oso korapilatsuak” (HE30,233).
 “*Oliogayak*, guria, chardiñak, chipiroyak eta beste” (EJ64,30).
 “Urretan ematen zizkidaten *sarigayak*” (HE23,140).
 “Labe ziloen sartzan zituen ikaragarriko *sugai* pisuak” (HE32,21).
 “Irakurtzeko; ta orrela *sukalde*-gaiaz ondotxo bazekian” (EJ64,44).
 “*Zezen*-gaiaz argitaratzen dan aldizkari batetik hartzen degu” (EJ64,101).

Mugatzaileen gramatika-kategoria: esan bezala, mugatzaileak izenak dira, bai bizidunak, bai bizigabeak.

Indar, *min*, *poz*... direla eta, berriz, duda egin daiteke izenak edo aditzak ote diren. Autore bakarraren adibide bakarrak izen berezia du mugatzailearen tokian: *Jainko*.

Adierari dagokionez, atal honetako mugakizunak aztertzean gertatzen ari zaigun bezala, orain ere *gai* mugakizunari hiztegiek adiera bat baino gehiago alboratzen diote. Hauek dira ohikoenak, hurrenez hurren:

1. Gauzak osatzen dituzten materia-motetako bakoitza, osagaia. Lehengaia. 2. Jarduten, gogoeta egiten den zeraren mamia. 3. (Izen baten eskuinean) X izango dena, izateko bidean dena. 4. Gaitasuna.

Baina adiera horien ondoan, beste azpisarrera hauek ere jasotzen dituzte: GAI EGON: 1. Prest egon. 2. Ezkongai egon. GAI IZAN: 1. Gauza izan. 2. Merezi izan.

Azken azpisarrerok ispilatzen dute garbien *gai*-ren predikatu eginkizuna.

Gure adibideekin alderatuz gero, honakoa ikus dezakegu:

- Mugatzaile bizidunak —areago, gizakiak— dituzten gehienak hiztegi-tako 3. adierakoak dira; alegia, mugatzaileak adierazten duena izateko bidean dena adierakoak: *emakumegai* eta *gaztegai* dira salbuespenak gizakia adierazten duten mugatzaileei dagokienez, horietan 2. adierako *gai* baita mugakizuna. Halaxe gertatzen da *zezengai* elkartean ere. Bestalde, adiera honetakoa da *Jainkogai* ere, *Jainko* izen berezia mugatzaile duen bakarra eta, jakina denez, mendekotasunezko elkarketan aski bitxia dena.
- Mugatzaile bizigabeak ditugunean ere, aipatu berri dugun ‘mamia, mintzagaia’ adiera dugu askotan eta ez dirudi mugatzaile-motak ikuskizuna duenik: konkretuak, abstraktuak, zenbakarriak, zenbakaitzak... ditugu: *euskaltzaletasun-gai*, *elerti-gai*, *arte-gai*, *erlijio-gai*, *jakintza-gai*, *kultura-gai*, *sukalde-gai*...
- Beste mugatzaile bizigabe batzuekin elkartzen den *gai* hiztegiak jasotzen duten lehen adierakoa da, ‘osagaia, lehengaia...’ adierazten duena, alegia: *afari-gai*, *alkohol-gai*, *bazkagai*, *bizkotxo gai*, *burdina gai*, *fisika-gai*, *gilagai*, *gonagai*, *indargai*, *kimika gai*, *kontsumo gai*, *liburu gai*, *menu gai*, *olerki gai*, *olio gai*, *sari gai*, *sugai*, *zepagai*... Halakotzat hartuz gero, *Eguzki-lore* motako arruntak bezala (bereiz eta marratxoa aukeran, salbuespenak salbuespen) idatzi beharko genituzkeela dirudi, haien artean sailkatzeak izaki.
- Kasuren batean edo bestean, batez ere mugatzailea abstraktua denean (*aitormen*, *min*, *poz*...), ‘lehengaia’ baino areago, ‘arrazoia’, ‘zergatia’ adierazten du *gai*-k.

Azpirarra dezagun, dena den, zerbaitek lotzen dituela elkartu guztiak: etorkizuneko kutsuak, alegia.

Osagaien arteko erlazio semantikoak aztertzen baditugu ohartuko gara elkartua gizakia denean, ‘helburua’ (I.5.10) dela erlazio nagusia; *apaizgai*, *deputatugai*... ‘apaiz, diputatu... izateko (bidean) dena’... Erlazio hauxe bera dugu elkartua bizigabea izanik ere zerbait egiteko lehengaia edo adierazten duenean¹⁴²: *bizkotxo-gai*, *gona-gai*, *sugai*...

Zehaztu dugun bigarren adiera dugunean, mugatzailea biziduna (*emakume*, *gazte*...) nahiz bizigabea izan (*alfabetatze*, *gastronomia*...), osagaien arteko harremana ‘edukia’ (I.5.4) da: “gaiaren edukia emakumeak, alfabetatzea... dira”.

Bistakoa da, hortaz, lehen erlazio-motaren izaera, ‘helburua’, oso bat datorrela ‘etorkizun’ kutsuarekin, oraindik ez dena, baina izan daitekeena eta izateko bidean dena adieraztearekin, alegia. Era berean, azpimarratzekoa da harreman eta adiera hauetan bizidunek (gizakiek) ez ezik, bizigabeek ere badutela tokia.

Era honetara azal daiteke, apika, *gai izan* eta *gai egon* predikatuen eta ‘helburua’ erlazio semantikoko elkartuon arteko harremana dirudiena baino estuagoa bide dela. Hots, gizakia ez ezik, bizigabea ere izan daiteke *gai* etorkizunean xede horretara iristeko, hori bilakatzeko: apaiza, emazte... izan, gona... izan. Nolanahi dela ere, badirudi mugatzailearen azpikategorizazioan datzala gakoa, edo gakoaren atal bat behintzat: biziduna ez bada, ezin du

¹⁴² ‘osoa-zatia’ (I.5.3) erlazioaren arabera ulertzeko tentazioa izan daiteke, beharbada; ez da, baina, guretzat guttiz egokia: *gona-gaia* ez da gonaren zati bat, lehen gona ez zena, baina gero itxuraldatuta hala izatera iritsiko dena baizik; *sugaia* ere ez da suaren parte, gero su izatera iritsiko edo sua egiteko balio duena baizik.

hiztunak elkartu osoa biziduntzat hartu; hortaz, ‘helburua’, ‘etorkizuna’, ‘xede’ zehazten duen osagaiak, *gai* mugatzaileak, irakurketa behartzen bide du. Baina mugatzailea biziduna izateak ez du esan nahi elkartu beti [+biziduna] denik; adibideak lekuko. Hots, ‘mamia’, ‘mintzagaia’ ere adieraz dezakegu mintzagaia [+biziduna] izanik. Testuinguruan, informazio pragmatikoan ziurtatzen bide du hiztunak interpretazio egokia.

Pragmatikara jo beharko dugu mugatzaile bizigabeak ditugunean ere, jakiteko zein eratako ‘gaia’ dugun mugakizuna, zein adieratakoa, alegia.

Bestetik, itxura batean, *gai* izena predikatzeko erabiltzeak nahasi ditu pittin bat gauzak, baina ez dirudi kategorial- edo azpikategorizazio-aldaketan pentsatu beharra dagoenik¹⁴³: predikatua ez da kategorial lexikoa, funtzioa baizik.

Nolanahi dela ere, garbi samar dago, Azkaratek (1991: 106) dioenaren haritik, bi *gai* bereizi beharko genituzkeela: hiztegietako 2. definiziokoa alde batetik eta besteak bestetik. Beste hauek, ‘etorkizun’, ‘helburu’ kutsua dutenok, beharrezkoa bide dute zehaztea ‘zertarako’, ‘norako’ *gai* den dena delakoa eta hori elkarketaz baliatzekotan ezkerreko elementuak adierazten du (*apaizgai, gonagai, sugai...*) edo, betiere, syntaxira jo daiteke¹⁴⁴.

II.7.2.5. GIZON, MUTIL

Bi mugakizunok batean aztertuko ditugu, aski antzeko jokamoldea eta adiera dituzte eta.

Gizon

Mugatzaileen kategoriari dagokionez, izen bizigabeei elkaturik ikusten dugu gure corpuseko adibideetan: *arma, baso, batzar, eliza, erlijio, gerra, guda, gudu, herri, itsaso, jakintza, lege, letra, makina, mendi, ola, teoria...*

“iñoiz baiño *arma*-gizon edo gudari geiago batuta” (EI99,137).

“*Basa*-gizon, ikazkin, egurguille ta arotz” (HE18,18).

“(representante de la junta) mintzatzera dijoazkien probintziako *batzar*-gizonak makillaka artzen dituzte” (HE33,21).

“Aita il eta urte gutxiren buruan *eliz*-gizon egin zen” (HE33,93).

“Erri baten mugaldeak eta ondasunak, pake-zuzentasun bideak eta gizarte-legearen itzala *guda*-gizonak dituzte babesten” (EJ03,66).

“ala marinelek nola *herri*-gizonek mota guzitako zikinkeriak bota oi zituzten uretara” (HE33,25).

“Irakur orain errenteriar *gudu*-gizonen eta *itsas*-gizonen izen eta egin haiek” (HE33,71).

“Ez zen berez hiztun trebe horietakoa (...) *jakintza*-gizona zen, ezer bazen” (HE27,351).

“berekin zetortzan: arotza, igeltserua, zapataria ta baita erlojerua, *lege*-gizona eta errementaria” (EJ50,132).

“mariñel-mariñelak zazpi, kontramaixuaren meneko; iru *makina*-gizon, arrantza-patroia, lemazaia ta sukaldaria” (EJ03,13).

“*mendigizon*ak baimena eskatu behar dio bota behar duen zuhaitzari” (EJ53,16).

“atsotitzen biltzaileak, euskal poesiaren *teori*-gizonak” (EJ51,96).

¹⁴³ Azkaratek proposatzen zuenaren ildotik saihestuz: “Elementu bat bakarrik erabiltzen denean kategorial batekoa izatea gerta daiteke; beste osagai baten ondoren doanean, aldiz, beste kategorial batekoa. Halakoak dira euskaraz *gai*, eta *zain* (euskara estandarren ikuspuntutik gutxienez). Biek osatzen dute aditz-esapidea, atributu edo izanik: *zain egon* eta *gai izan*; bi esapideak nor-motakoak dira eta subjektua oro har [+biziduna] izan ohi da. Bigarren osagai direnean, ostera, [+gizakia] motako izena osatzen dute. Morfologia Sortzailearen arabera, hitz elkartuak balira bigarren osagaiak eman beharko lioke elkarte osoari kategorial eta azpikategorizazioa. Nola, ordea, berez izena ez den elementu batek tasun hori eman elkarteari? Horregatik esan dezakegu atzizkietatik gertuago daudela hasierako *aldi, alde, bide* edo *gai*, baino”. (Azkarate 1991: 106).

¹⁴⁴ Real Academia Españolaren gramatika deskriptiboan (GDLE), Demontek ere (1999: 3.2.3.1) *capaz, apto...* bezalako adjektiboez ari delarik, azkenaz dio: “Selecciona complemento argumental ‘final’: apto para trabajar...”.

Mutil

Izen kategoriako mugatzaileei elkartzen zaie *mutil*; izen bizidunak —*arotz*, *artzain*, *asto*, *itsu*, *rekete*, *zaldi*...— eta bizigabeak: *artalde*¹⁴⁵, *baso*, *guda*, *mendi*, *muga*...

- “*Arotz*-mutil eta beste, saririk gabe aritzen zireneko garaia ez da ain aspaldiko kontua” (EJ03,22).
 “jakin beazu beti naizela *artalde*-mutil artzaia, ni juango nintzan pozikan baño asarre zan nagusia” (EJ60,93).
 “*Artzain*-mutil txarra dela otsoa ikasia dut” (EJ53,112).
 “Aita Santu Erromakoaren baimena badaukate automobil edo ‘*astomutil*’ oyek kamiñoetan” (HE22,40).
 “zatoaren lokarriari lotuta ibiltzen zuten *baso*-mutillak, eta baso-nagusiak ere bai” (HE29,96).
 “Anai zarragoak *guda* mutil zituztelako” (HE23,109).
 “Ezkutuko onen lagungarri ar dezagun *itsu*-mutil Gilbert Murray heladezale sonatua” (HE28,89).
 “eliza nagusiko *meza*-mutil dugu, Don Jose'ren laguntzalle” (EJ03,34).
 “karabiñeruak, *mugamutillak*, eta poliziak, ertzaiñek, ugari” (HE31,81).
 “Bereala, zarataka eta bullaka asi zan *rekete* mutil ura” (EJ49,66).

Mugatzaileen gramatika-kategoria: Mugatzaileak bi kasuetan izen kategoriakoak izanik ere, mugakizuna *gizon* denean, mugatzaile guztiak bizigabeak dira. Ezkerreko osagaia izen biziduna zutenak atribuziozkotzat hartu zituen Batzordeak “B den A” egiturazkotzat; alegia, *langile gizon* ‘gizona den langile’ moduan ulertuta (**H-E/3, IX.1.2**). Mugakizuna *mutil* denean, berriz, mugatzaile bizigabeak eta bizidunak daude.

Zenbait kasutan, mugatzailea bizigabea denean batez ere, *gizon* mugakizuna duten adibideak jar dakizkioke aurrez aurre. Esate baterako, *basagizon* / *basomutil*, *gudagizon* / *gudamutil*, *mendi-gizon* / *mendi-mutil*... hartzen baditugu, ikusten da adin-kontuak (eta, batzuetan, apika, lan-egoerak) bereizten dituela biak. Horixe bera ikusten da, ‘ofizio’ edo ‘lanbide’ kontua hertsiki ez bada ere, *rekete-mutil* hitzean: gaztea edo gradurik ez duena —ofiziala ez dena, alegia— adierazi nahi da, itxura guztien arabera.

Bestetan, berriz, badirudi ez dagoela bi mugakizunen arteko pareko hitz elkaturik egiterik: *lege-gizon*, *elizgizon*, *letra-gizon*... egiten ditugu; nekez, ordea, *lege* / *eliz* / *letra-mutil*. Hau dela eta, pentsa daiteke *mutil* markatuagoa dela oro har; alegia, *gizon*-ek ez bezala, ez duela beste gabe ofizioduna adierazten. Salbuespena *muga-mutil* hori izan daiteke, aldamenen duen *karabiñerua*-ren kide gisa erabili baitu egileak.

Bi mugakizunen arteko alde handiena, halaz guztiz, mugatzaile bizidunak dituztenetan ikus daiteke: *artzain*, *arotz* hitzek, esate baterako, berez adierazten dute norbaiten ofizioa, eta ez dago zertan *artzain* / *arotz-gizon* egin (baldin arrazoiren bat dela medio *artzain* / *arotz gizonak* eta *artzain* / *arotz emakumeak* bereizi nahi ez baditugu; baina orduan atribuziozkoen sailean gabiltza). *Artzain* edo *arotz-mutil*, berriz, sail honetakoak dira. Garbi dago halakoetan *mutil*-ek ‘laguntzailea’, ‘ofizioa ikasten ari dena’ edo adierazten duela. *Itsu-mutil* ere hemen sartzekoa litzateke, ‘laguntzailea’ edo adierazten duen aldetik begiratuta, ‘itsu’ izatea lanbide bat ez izan arren. Halaber *meza-mutil*, nahiz mugatzailea bizigabea izan. *Asto-mutil*, berriz, berezia da; hitz-jokoa da.

Osagaien arteko erlazio semantikoak aztertuz, *gizon* mugakizuna dugunean, oro har, mugatzaileek ondoko adierak zehazten dituzte: batzuetan, ‘lekua’ (**I.5.9**) adierazten da: *baso*, *herri*, *itsaso*, *mendi*, *ola*... Leku “fisikoa” ez bada ere, lan-esparrua edo adierazten duten *jakintza*, *lege*, *teoria* bezalakoak, bai eta *gerra* edo *guda* mugatzaile dutenak, aldiz, ‘ariketa,

¹⁴⁵ Nahiz bizidunek osatu delako taldea, hizkuntzaren ikuspegitik bizigabetzat jo behar dela dirudi: “Ardi kutsatua artaldetik (*artaldeagandik) bereizten da”, “Herensuge horrek galera ikaragarriak egiten zituen artaldeetan (*artaldeengan)”...

jarduna' (I.5.11) erlazioaren adierazletzat har daitezke. Bestetan, berriz, jarduerako 'baliabidea' (I.5.6) bide da mugatzaileak adierazten duena: *arma, makina...*

Guztiarekin ere, badirudi guztiak lotzen dituela ezkerreko osagaiak mugakizunaren jardunarekin zerikusia izatea. Hots, eskuineko osagai *gizon*-ek¹⁴⁶ 'egilea' adiera du eta ezkerrekoak mugatzen du non, nola, zertan... egiten duen hori.

Hortaz, mugakizunak elkartu osoa [+gizakia, +egilea] ezaugarrien jabe bilakatzen du. Honek berak adierazten du, bestalde, egiazko hitz elkartuak ditugula, eskuineko osagaiak irazten baitizkio kategoria eta azpikategoria hitz elkartu osoari.

Mutil mugakizuna dugunean, bereizi behar dira mugatzaile bizidunak eta bizigabeak dituzten elkartuak.

Bizigabeak direnean: *baso, guda, meza, muga...* *gizon* mugakizunarentzat zehaztu ditugun harreman berak ditugu; mugakizunaren adinean edo eskarmentuan bide datza bion arteko aldea.

Bizidunak direnean, berriz, itxura batean behintzat, 'jabegoa' (I.5.2) harremanaz hitz egin daitekeela dirudi: "arotzak duen mutila"... , (*k*)*ume* mugakizuna denean dugunaren antzera, baina, 'helburua' ere bai: "artzain izatera iritsiko dena"... ; nola begiratzen den.

II.7.2.6. (G)UNE

Jatorriz forma beraren bi aldaera besterik ez direla dirudien arren (FHV: 227, 305), egungo erabilerak *une* 'denbora' eta *gune* 'tokia' bereiztera jo duenez gero, adibideak ere bi multzotan banatuta jasoko ditugu, azalpena erraztuko duelakoan. Era berean, mugatzailearen ondoan adiera ere zehaztuko dugu 'denbora' (*d*) eta 'tokia' (*t*) ikurrez, esan berri duguna esanagatik, batzuetan ez baitago mugakizunaren aldaeraren eta adieraren artean bana-banako egokitasunik.

Mugatzaile bera bi mugakizunen bi aldaerekin erabili bada hitza eratzeko, biak jasoko ditugu.

Gune

Mugatzaileak. Bi kategoriatako mugatzaileei elkaturik ageri zaigu corpusean, izen bizigabeen eta adjektiboen.

Izen bizigabeak: *argi* (t), *bake* (d?), *itzal* (t), *lilura* (t), *tontor* (t)...

Adjektiboak: *busti* (t), *garai* (t), *ilun* (t), *lodi* (t), *isil* (d)...

Une

Mugatzaileak. Izen bizigabeen eta adjektiboen eskuinera aurkituko dugu *une* mugakizuna ere.

Izen bizigabeak: *argi* (d), *asti* (d), *errealizazio* (d), *gaitz* (d), *garbai* (d), *historia* (d), *jaiotza* (d), *tuntur* (t)...

¹⁴⁶ Bistan da *gizon* erabiltzea eta ez *andre, emazte(ki), emakume...* hizkuntzaz kanpoko arrazoi soziologiko hutsen ondorioa dela.

Adjektiboak: *beltz* (t), *bete* (t), *huts* (t), *isil* (d), *txakon* (t), *zelai* (t)...

- “ardi sarkoia esi-inguruka dabilla *argigune* billa” (HE18,78).
 “oiñaztari lerro azkarrean idatzia duk ire zorigaitzezko *argi* unia” (EJ50,162).
 “*asti*une gitxi darabilt aspaldion” (EI99,150).
 “Compiegne'ko ohianean, tren-bagoi itxi bat biltokitzat, *pake*-gunea siñatuxe dute bi alderdietako arerio bortitzak” (EJ03,36).
 “tigrekumaen antzeko *baltzunak* be baeukazan” (HE31,23).
 “begiratu daijegun bada orain, euskal-iztegiaren esandako *uts*-une ta *bete*-uneai, izkera berarizkook bide-laguntzat artuta” (EJ06,86).
 “*Bustigunea* listuka aizatuz isillik dira gelditzen” (HE18,87).
 “autodeterminazioaren *errealizazio*-unean, marxista baten irizpidea Estatuaren ekonomiazko potentzia” (EJ52,24).
 “Baina Maria guztiz maitea il zala leku urrunean ezebalako nunbait bormuan inor euki *gaitz*-unean ta orrdirik ara biotza eukala gaiso bakarrtasunean” (EJ70,168).
 “Orain egitera goazen basilika berrian pentsatzean, galdetu izan det nere kaxa: ez ote luken obeto emango, alegia, basilika orrek Aloña beraren gain-gañean edo Askartza-ko tontorrean edo nunbait urbilleko *garai*-gunean beintzat, bertako ta kanpokoen ikusgarri?” (EL70,54).
 “Nok *garrbai*-unea Iñontzat ez isteko Neutzako bidea” (EJ70,36).
 “bion arteko *hutsune*an mapa bakar bat ageri da: Euskal Herrikoa” (EJ51,95).
 “Umore ona eta txarra *hutsune* batetik sortzen dira gehienetan” (HE44,7).
 “*isilgunea* dute batean egiten” (HE18,93).
 “Lurralde guztian aditzen da *ixil*lune zabal bat” (EJ50,164).
 “Beren azken orenian Sar diten *itzalgunian* Diru metaren barnian” (EJ65,61).
 “Ametsai bet-betan utzi neskak, *lilluragunetik* asmamena kendu, ta zakur ederrarekin joan da” (HE34,30).
 “larrupetik *lodigune* batzu agertzeraingoan” (HE59,11).
 “Guztiz da neke gogorra damea bada lotsorra, agerrutea *tunturr*-unea eskondu baino lenago garria baino berago” (EJ70,162).
 “Mutil orrek *txakon*-une bat billatuko zuan lapikoak jartzeko” (HE29,104).
 “Andikan piska bat gorago, badago *zelai*-une txiki bat” (HE29,9).

Mugatzaileen gramatika-kategoria. Adibideak ikusita argi geratu da mugakizunaren aldaerak (*une* nahiz *gune* izan) ez duela ondoriorik. Mugatzailearen gramatika-kategoriari dagokionez, bizigabeak dira izen guztiak; ez dago izen bizidunik. Horietako asko abstraktuak dira, gainera. Batzuetan duda egin daiteke zein den mugatzailearen kategoria, ez baitago garbi izena, adjektiboa (*argi*, *zelai*, esate baterako), edo aditza ote den (*garbai*). Baina deigarriena adjektiboen ugaria da¹⁴⁷, euskal hitz-hurrenkeran aski harrigarria dena. Are harrigarriagoa da ikustea gisa honetako adibide gehienetan hurrenkera alderantzizkoa izan zitekeela eta elkartuaren esanahia ez litzatekeela aldatuko: *beltzune* / *une beltz*, *bustigune* / *gune busti*, *garai gune* / *gune garai*, *lodi gune* / *gune lodi*, *sakon une* / *une sakon*...

Adiera dela eta, esan dugun moduan, egungo erabileran *une* ‘denbora’ eta *gune* ‘tokia’ bereiztea nagusitu da eta banaketa horixe ispilatzen dute gure adibideek. Horren erakusgarria da, esate baterako, mugatzaile beretik abiatuta, mugakizunaren aldaeraren arabera adiera bat edo bestea hartzea: *argiune* eta *argigune*, lekuko. Baina bestelako adibideak ere badaude. Urrutirago gabe, *isilgune* eta *isilune*, biek denbora adierazten dutela, edo ‘tokia’ adierako *une* (*tunturrune*), batez ere ezkerretara adjektiboak dituenen: *beltzune*, *hutsune*, *sakonune*... Baina, berriz esan, arruntena formen eta adieren banaketa da. Nolanahi dela ere, ez da ahantzi behar ‘denbora’ eta ‘tokia’ aski antzera adierazten direla hizkuntza askotan.

Osagaien arteko erlazio semantikoei dagokienez, oro har, ‘edukia’ (I.5.4.2, I.5.4.3) adierazten da, alegia, “toki/denbora horretan zer” parafraasiaren bidez eman daitekeena.

¹⁴⁷ Eta ezin esan daiteke gertakari berria denik. Ik. OEH: “De illo loco qui dicitur **soilgunea** (1076)”. Arzm 266. (Letra lodia gurea).

II.7.2.7. JENDE

Mugatzaileak. Izenak dira, gehienbat, *jende* mugakizunaren ezkerrean ageri zaizkigunak corpusean.

Izen bizidunak: *andre*, *arrantzale*, *baserritar*, *buruzagi*, *erromes*, *frantses*, *gazte*, *gizon*, *judu*, *kristau*, *laborari*, *langile*, *liberal*, *marinel*, *moro*, *nafar*, *ofizial*, *riojano*...

Izen bizigabeak: *bertso*, *gerra*, *herri*...

Adjektiboak: *behartsu*, *bilgorri*

“Ken! ken!, *andre*-jendeak dio batez ere” (HE18,34).

“*arrantzale* jendia beti dabill justu, saiatubagatikan eziñ aberastu” (EJ78,26).

“Egia, danok dakigu gaurko *beartsu*-jendearen iritxi-ezina ta bizimodu zalla” (EI70,258).

“Erdal egituran biribildu du Gamizek bere *bertso* jendea” (EJ00,209).

“*Bilo gorri* jende biltzen hasten da” (HE58,85).

“Billareal'ko kantoi bateko etxe batean, etsaiaren *buruzagi*-jendea biltzen zan” (EJ60,18).

“ango zenbait bertsotan Xenpelarrek mozkortzat jotzen du *frantzes* jende ori” (EJ67,222).

“Ziolar-ko zezenik sutsuenak erakarri ditut *gazte* jendeen sasoia eta trebetasuna probatzeko” (EJ48,15).

“100 soldadu zeramazkian bi ontzitan Malagatik Oran-era eta gainera 11.000 dukat, inperadorearen *gerra*-jendearentzat” (HE33,87).

“Jangoicoac berriz aien gaizquitic atrázue óngui, au dá, erremediátzea *guizaguénde*a” (EJ55,158).

“Ahizpa maitea, beldur izaiteko da, *gizon* kentea ez balitz, edo gal baladi aldika gizon bihurtuko gináteke” (HE58,54).

“Ondo dakizu *erri*-jendeak ez dirala oso ajolatsu izaten paperekin” (EJ67,73).

“Libertate konstituzionalak Euskal Herriko *laborari* jende apalari lehen zeukan askatasun eta soberania politiko gehiago kentzen bait zioten” (EJ20,29).

“gau ura dan-dana ezer gelditu gabe lanean pasa ondoren, or asi zaigu *moro*-jendea inji-anju egiñaz” (EJ49,126).

“ze *opizial* jende ta ze errekoziñamentu” (HE16,85).

Mugatzaileen gramatika-kategoria eta adiera. Mugatzaileon berezitasuna da izen nahiz adjektibotzat har daitezkeenak (*gazte*, *kristau*...) direla nagusi¹⁴⁸ eta gehien-gehienek erreferentea biziduna dutela. Corpusean suertatu ez bazaigu ere, OEHk jasotzen ditu *jende* mugakizuna duten animaliak izendatzeko elkartuak ere: *ardi-jende*, *behi-jende*, *ganau-jende*, *txerri-jende*.

Esan bezala, mugatzaile bizigabeak dituzten adibide gutxi ikusi ditugu. Hitz elkartu osoa, baina, biziduna da eta adieraz plural bilakatzen zaigu.

Elkarte osoaren kategoriari dagokionez, gure adibideetako forma berezi bakarra *bertso-jendea* da, gainerako izen elkartu guztiak —alde handiarekin, gainera—, mugatzailea biziduna nahiz bizigabea izan, bizidunak baitira eta hau, berriz, bizigabea da.

OEHk ere *jende* sarreran jasotzen ditu corpusean suertatu ez zaizkigun gisa honetako adibideak, bai mugatzailea bai elkartu osoa bizigabeak dituztenak (“Como segundo miembro de compuesto referido a cosas”). Ez dira adibide asko: *xurigente* (ropa blanca), *elzari eta ligu jende*, *esne gende*; *aragi-genderik ta garizuman arrautze ta esnegenderik*.

Oro har, badirudi *jende*-ren eginkizun nagusia dela izen (batez ere) gizakiak eratzea. Alde batera deigarria da, askotan duen esanahi “ahula” ikusirik, erreferentziaren ikuspegitik ez bide legokeela alde handirik mugatzaile soilei pluralgilea erantsiz osatutako izen sintagmen (demagun, *behartsuak*, *gazteak*, *nafarrak*, *andreak*, *langileak*...) eta *jende* mugakizunaz eratutako izen elkartuen artean (*behartsu jende*, *gazte jende*, *nafar jende*, *andre jende*, *langile jende*...).

¹⁴⁸ Hitzegiek ere horrelaxe jasotzen dute: “Ezkerrean izen bat, izenlagun bat eta are izenondo bat duela”.

Jende gizakiez aritzeko darabilgunean, batzuetan, *gizon/mutil* mugakizunaz baliatuz eratutako pareko formak osa daitezke: *gerra jende* ≈ *gerra gizon*.

Jende bai singularrean (goiko adibide ia guztiak), bai pluralean erabiltzen da (goiko *gazte jende*), adieraz plurala den arren, baina gure corpusean bederen, singularra da nagusi.

Multzo-elkartetik oso urruti ez gabiltzanez gero, osagaien harreman semantikoak ere ildo berekoak dira: ‘edukia’ da. Mugatzaileak adierazten du *jende* hori zerk osatzen duen.

Bestalde, sumpsumtiboan artekotzat ere har bide daitezke ezkerreko osagaia eskuinekoaren azpimultzoa, azpikategorizazioko ezaugarri berak dituztenak: *langile jendea*, *arrantzale jendea*...

Emankortasunari begira, berriz, ez dirudi euskara estandarrean oihartzun handirik duenik. *Jende* mugakizun duten izen-elkarteen erabilera-eremuak azal dezake, agian, zergatik ez duten horrelako egiturek oihartzun handirik euskara estandarrean. Batez ere gipuzkeraz erabili dira, ahoz, edo herri-literaturako testuetan, batik bat.

II.7.2.8. (K)IDE

Mugatzaileak. Izenak dira ezkerreko mugatzaileak. Gehienak bizigabeak.

Izen bizigabeak: *aberri*, *alderdi*, *batzar*, *bizi*, *elkarte*, *garai*, *gogo*, *herri*, *iritzi*, *izen*, *lan*, *mahai*, *muga*, *poz*, *solas*, *sustrai*...

Izen bizidunak: *apaiz*, *haur*...

Izen berezia: *Jel* (laburdura).

Ihartuak¹⁴⁹: *adiskide*, *ahaide*...

“Agur, *aberkide* on ori” (EJ05,165).

“Ioren amaieran errezteko geure *adiskide* eta *gogaide*” (EI99,140).

“*alderdi* kideen aintzinean ere ez nintzan apaltzeko gizona” (HE58,73).

“*Apaiz*kide jaun: Luzaz eta zentzuz aztertu ondoren...” (HE39,67).

“ordezkariak ez dira izango biltzar honetako *batzarkideak*” (HE37,117).

“esposo eta *bizkide* on” (HE13,9).

“*viciquide* = *cónyuge*” (EI31,50,97).

“Entzute aundikoak dira Euskalerrri'ko tripazai-elkarteak. *Elkarte*-kideak beren eskuz jakiak gertutzen dituzten jatetxe oriek” (EJ64,45).

“Aranaren pentsamentu berritasuna ta “iraultza”, eskandaloa haren *garaikide* guziek testimoniatu dute” (EJ20,15).

“beste guzier jin zeraukun bezala, aita-amak, *haur*kideak eta sortetxea utzi behar dituzuna” (EJ68,19).

“bere *herrikide*en txaloak eta goresmenak harentzat eskatu beharrean arkitzen gara” (HE33,63).

“eta orain begira ezazu nere *irizkide* zarenentz” (HE38,158).

“horiek ez ziren “*jel*kideak” “*jeltzaleak*” baino” (HE27,381).

“vicitcearen eta saluamenduaren *lan*quide loriosa eguin nahi cuena” (EJ58,86).

“egun horretan nere *mahaikide* nahi zaituztet, gure zorionaren *poz*kide izan zaitezten” (EJ48,14).

“Bearnesa ere erdara baita eta euskararen *mugaide*” (HE27,346).

“Erderatiko itzak zabalgo andija ta *zustrakide* asko izatea” (EJ06,82).

¹⁴⁹ Ihartutzat dauzkagu mugatzailearen iluna dela medio (**adinez kide*, etab.). Formon etimologiaz ik. OEHN dagokien sarrera.

Mitxelenaren ustez¹⁵⁰ herskaridun aldaera atzizki hutsa zen jatorriz (*-kide*), baina denboraren poderioz bere eskuko bilakatu da. Egun, antza, herskaridun forma horixe da (*kide*), hain zuzen, aske darabilguna eta *-ide* aldaera lotuta baizik ez dugu erabiltzen¹⁵¹.

Mugatzailearen gramatika-kategoria aztertzerakoan, egia esateko, izenburu hau murriztuz samarra geratzen da orain, mugatzaileen gramatika-kategoriaz gain, besterik ere hartu beharko baitugu aztergai *kide*-ren berezitasunen berri emango badugu.

Abia gaitzen, nolana dela ere, mugatzaileen kategoriatik: izenak dira hemen jaso ditugunak eta bestela ere, nekez eratzen du *kide*-k hitz elkaturik izena ez den beste kategoria baten eskuinean: aditza mugatzailea duten *ezkontide*, *ikaskide* adibideei askoz gehiago eransterik ez dugu. Gehienez ere *solaskide*, *lehiakide*, *bizikide* modukoak aipa daitezke, baina bistan da azken horien ezkerreko osagaiak adiztat ez ezik, izentzat ere har daitezkeela; ‘gertaera’, ‘jarduna’, ‘ariketa’... izentzat, alegia.

Hortaz, izenak ditugu, eta gehienak bizigabeak, nahiz eta bizidunik —gizakirik— baden¹⁵². Izen berezi bat ere badugu (jatorria J.E.L. laburduran duena).

Izen bizidunak ditugunean mugatzaile, oro har, ahaidego edo predikazio-izaerako (Zabala 1993) izenak dira: halaxe dira, esate baterako, *apaiz* corpusekoa eta *jabe*, *mirabe*, *heredero*, *egile*... corpusetik kanpokoak.

Hauek guztiak atribuziozko parafrasez eman daitezke: “haurrak, apaizak kideak dira”...; alegia, atribuzioaren ezaugarri bera dute predikazioaren subjektu bizidunek: ‘haur, apaiz’... izatea. Eta gainera, ezaugarri hori predikazioak besarkatzen dituen subjektu guztiek aldi berean batean izan behar dute eta ezin daiteke izaki bakarraz predika, esanahiaren ikuspegitik subjektu plurala (morfoloikoki hala dena edo subjektu singularrak juntatuz sortua) eskatzen baitu. Nahitaezkoa du, hortaz, izaki hori beste batzuekin harremanean egotea¹⁵³.

Baina, esan bezala, mugatzaile bizigabeak dira ugariak. *Gogo*, *poz*... moduko abstraktuak kenduta, konkretuak dira gehienak. ‘Kideak direla’ predikatzen den subjektuek orain ere zerbait izan behar dute batean —*kide*-ren ezkerreko osagaiak adierazten duena— tokia, ariketa, iritzia, garaia..., baina ez dago atribuziozko harremanik; alegia, ez dago lehen bezala esaterik: “lanak... kideak dira”.

Ezaugarri hau dela eta, *kide (izan)* izaki mailako predikatutzat, eta predikatu simetrikotzat jo daiteke, *lagun*, *antzeko*, *ahaide*, *auzo*... *izan* diren bezalaxe.

Horrek ez du esan nahi, halaz guztiz, mugatzailearen azpikategorizazio hutsaren arabera banaketa dugunik; hots, biziduna denean, atribuziozko harremana eta bizigabea denean, ez. Adibidez, adibidetegiko *herrikide* ez bezalako *herri kideak* izan ditzakegu “halako eta halako herri kideak dira” badiogu, edo beheraxeago aipatuko ditugun *baliokide* modukoak ere era

¹⁵⁰ “El significante con sorda inicial se usaba normalmente sufijado a otro y sólo tardíamente ha alcanzado existencia independiente (*kide*, *tegi*, etc.)”. (FHV: 240).

¹⁵¹ Honen eta honen gisako aldaeren gainean (*-(k)eria*, *-(k)izun*, *-(k)or*, *-(k)ume*...) ik. FHV: 45 hur.

¹⁵² Errepara adibiderik bat ere ez dagoela mugatzailea adjektiboa duena, normala den bezala. Honenbestez, itxura guztien arabera, *ofizialkide(tasun)* eta antzekoak bide berri bat urratzen ari dira.

¹⁵³ Ez bide da halabehar hutsa Mitxelenak (FHV: 122, 309) hemen ikustea *-eki(n)* postposizio-atzizki sozietiboaren etorkia: dena delako gertaera gutxienez biri dagokie. Ez gara ari, bistakoa da, mendebaldeko euskalkietan instrumentalaren baliokidetzat erabiltzen denaz (*arkatzarekin idatzi*, etab.).

berean adi daitezke. Eta azken adibide horrek ematen digu bide *kide*-ren auzi-mauzietan gehixeago sartzeko. Ikus dezagun.

Elkartu osoaren kategoria izan ohi da maiz auziaren muina. Alegia, hainbatetan duda egin daiteke *kide* osagaiaz eratu elkartua izena edo adjektiboa den, egitura predikatiboetako osagaia izaki. Gure adibideetako batzuk dira horren lekuko garbiak:

“horiek ez ziren “*jelkideak*” “*jeltzaleak*” baino” (HE27,381).
 “Beamesa ere erdara baita eta euskararen *mugaide*” (HE27,346).

Alegia, horko *jelkide*, *mugaide* (edo *garaikide*, *arte garaikide* modukoak), besteak beste, izenen eta adjektiboen muga labainean ikusten ditugu; seguruenik —honela esaterik bada— batzuk “izenago” (*jelkide*) eta besteak “adjektiboago”. Esan dezagun, guztiarekin ere, tradizioetik datozkigun mugako adibideon erreferentea biziduna izan ohi dela.

Baina bestetan adjektiboak dira garbi eta hiztegiek halakotzat dauzkate. Eta adjektiboak ez ezik, izen bizigabeen modifikatzaileak dira. Esate baterako, gure lanean aipatu adibideak besterik ez ekartzearen (H-E/4, 11.2.5: 93 / 79), terminologia batzuetan sortu diren *ardazkide*, *baliokide*, *hoskide*... asko eta askotan izen baten modifikatzaileak dira, garbi: *kable ardzakidea*, *multzo baliokideak*, *hitz-amaiera hoskideak*¹⁵⁴...

Egia da *kide* beregaina ez dela izan eta egun ere ez dela bakarrik subjektu bizidunen predikatua, OEHn bertan badaude izen bizigabeak subjektu dituzten *kide*-ak (*oinetako*, *zuhaitz*, *hots*, *hizkuntza*...) ¹⁵⁵. Baina hortxe bertan nekez dugu gisa honetako elkaturik: **oinetakokide*¹⁵⁶, **hizkuntzakide*.

Hortaz, itxura guztien arabera, erreferente bizigabea duten elkarteak aurkitzeko beste era bateko adibideetara jo behar dugu, esan bezala, kategoriaren aldetik dudako izan daitezkeen aspaldi samarreko adibideak ere (*mugakide*, *garaikide*...) izen bizidunen modifikatzaileak baitira.

Hoskide, *baliokide*... adibide berriagoak batez ere izen bizigabeen modifikatzaileak dira¹⁵⁷, esan dugun moduan. Orain ere *kide*-ren ezkerreko izenak ezartzen du subjektuak *kide* egiten dituen predikazioaren funtsa, baina, *mugakide*, *garaikide*... ez bezala, parafrasi atribuziozkoa (‘hotsak *kideak* dira’) eta iragankorra onartzen dute (‘X eta Y *hoskideak* dira’ □ ‘X-ek eta Y-k hotsak *kideak* dituzte’); horren isla da hiztegiek definizioetan darabiltzaten: ‘X berak edo berdinak dituen’.

Aldeak alde, simetrikotzat jotzeko beharrezko ezaugarriak betetzen dituztenez gero, adjektibo hauek ere *kide* predikatu simetrikoaz eratutzat jo daitezke.

¹⁵⁴ *Lagun*, berriz, ez bide dugu mota honetan erabili: **baliolagun*, **zentrolagun*...

¹⁵⁵ Errepara, hala ere, hauek ez direla predikazio-izaerako izenak.

¹⁵⁶ Hau berezi samarra izan daiteke ‘pare’ baten, ‘biko’ baten osagarri izatea adierazten dugulako *kide* mugakizunaren bidez —‘osagarritasun’ harreman semantikoa— eta horrek nolabaiteko murriztapenak ezar bide ditzakeelako. Ildo horretatik, ez dugu **idikide* (*uztarkide* bai, ordea), **galtzerdikide*... bezalakorik eratu. *Ezkontide* bai, baina oso ohikoa ez den [A *kide*] osaerakoa da, testuan jaso dugun bezala. Horregatik da berezia gure corpuseko *bizikide*-ren parekotzat har daitekeen egun entzuten den *bikotekide*. Polikiago aztertzea litzateke hitzak elkartu ahal izateko murriztapenen gaia.

¹⁵⁷ Aipagarria da adjektibo hauetako asko erdal *con-1* (Grácia et al. 2000: 287) aurrizkiak eratorritako adjektiboak (eta izenak) ordaintzeko sortuak izana.

Argitzeko beste kontu bat da ea arestiko predikazio simetrikoak *kide* guztientzat balio ote duen edo *kide* bat baino gehiago bereizi behar diren.

“ordezkariak ez dira izango biltzar honetako *batzarkideak*” (HE37,117).

“Entzute aundikoak dira Euskalerrri'ko tripazai-elkarteak. *Elkarte*-kideak beren eskuz jakiak gertutzen dituzten jatetxe oriek” (EJ64,45).

Adibideok ikusita, badirudi *batzar*, *elkarte*... eta horien antzeko mugatzaileak ditugunean, hau da, giza talde edo erakunderen baten izena (izen bizigabea) mugatzailea denean, *kide*-z osatu elkartuak beste modu batean ere uler daitezkeela, nahitaez simetriko izan gabe; hots, ezkerreko osagaiak adierazten duen multzoko gizabanakoa. Hiztegiek beste adiera batean zehazten dute *kide* honen esanahia.

Halakoetan ez bide dago “pluraltasun” beharrik; esan nahi da *kide* bakarreko elkarteak era ditzakegula, beste gizakirik aipatu gabe.

Alegia, ezaugarri horiek dituzten elkartuek bi eratako aditzeko modu izan ditzakete: simetrikoa bata eta hala ez dena bestea:

“Mikel eta Klara batzarkideak dira” (simetrikoa)

“Batzarrera Klara beste inor ez da joan; Klara izan da, hortaz, batzarkide bakarra” (simetrikoa ez dena).

Osagaien arteko erlazio semantikoak. Bereizi ditugun bi *kide*-ak puntu honetan ere ezinbestean bereiz aztertu behar ditugu.

Kide simetrikoa dugunean, mugatzaileak adieraz dezake:

- Subjektuek batean duten ezaugarria, atribuziozko parafrasia onartzen dutenak; alegia, mugatzailea [+gizakia] dutenak (*haurride*...), eta adjektiboak (*baliokide*...).
- Mugakizuna “kokatzea”, lekuan, bai fisikoan, bai hala ez denean: *lankide* “lanean *kide*”, *mugakide*, *gogaide*, *irizkide*..., edo denboran: *adinkide*, *garaikide*...
- Lehen aipatu ditugun *solaskide*, *bizikide*, *lehiakide* modukoetan —hau da, batez ere mugatzailea izen edo aditzat har daitekeenean edo izen erabatekoa izanik ere izenak berez ‘gertaera’, ‘jarduna’, ‘ariketa’... adierazten duenetakoa bada— horixe da ezkerreko osagaiak adierazten duena: zein gertaera, jardun, ariketa edo antzekoetan diren *kideak*.

Bi ezaugarri emango lukete *ardazkide*, *hoskide* eta abarrek erakusten duten *kide*-ren jokabide berrian argia. Batetik, *kide*-z osatutako adjektiboek gehienetan subjektu bizigabeen predikatuak eratzen dituzte. Bestetik, osagaien arteko harreman semantiko nagusia ez da mugatzaile bizigabeekin gertatu ohi den ‘kokatzea’.

Kide simetrikoa ez dena dugunean, berriz, bi osagaien artean ‘osoa-zatia’ bide da harremana, gisa honetara ulertuta: *elkartekide* (*elkarte*- ‘osoa’ + *kide*-‘zattia’), *batzarkide* (*batzar*- ‘osoa’ + *kide*-‘zattia’)...

II.7.2.9. (K)UME

Mugatzaileak izenak dira, oro har; izenei loturik dugu ia beti (*k*)ume

Izen bizidunak: *abere, aingeru, alargun, andra, ahuntz, apaiz, ardi, asto, azeri, azkonar, behargin, behi, demonio, errege, erregina, gizon, handiki, idazle, katu, listo* (adjektiboa, izen bihurtua), *markes, or, otso, puta, saskigile, suge, tigre, txori, urde, uso, zerri, ziraun, zozo...*

Izen bizigabeak: *baso, baserri, euskara, eskola, kale, nekal...*

Ihartutzat hartuko genituzkeen elkarteak: *arkume, emakume, gizakume...*

- “*abe*kume bat egiteko balitz ere, baina *gizakume* bat!” (HE39,96).
 “Anai zarragoak guda mutil zituztelako, *alargun* umeak...” (HE23,109).
 “nungo Gaisoteguijetan egon dira *andracume* azur imintzalla” (HE20,52).
 “nahiz *apezkumeek*, bidezko denez, beren deformazio berbera dutenengan deformaziorik ez somatu” (EJ51,85).
 “mutil batec ostu omen zuan *anzume* bat, confesoreac galdetu cion, *arcumeric* ostu zuan?” (HE07,357).
 “indioilar harro hura eta batez ere *azkonarkume* bizkor hura” (HE39,89).
 “Ezin dezakegu jasan *basakume* bat gutaz burla dadin” (HE39,28).
 “Jaiotzez *behargin*-ume ditun geientsuenak, erdi mixerian bizituak, eta alaz guztiz aundi-zaleak, beti dirudunen alde” (EJ03,70).
 “Chaalaa esaten jaco edozein *beicumeri*” (HE20,109).
 “Gure errian ez ei-zan aren moduko mutil *demoniñokumerik* ikusi” (HE31,16).
 “Orain, *emakumeak* *gizakumeari* begiratzten dio. *Emakumea*, ezkerreko aldetik dago, *gizakumea* eskuitik” (HE57,101).
 “Zer den ba, neska: edo *erregekumeren* bat al den?” (EJ62,101).
 “Kontu ikutu *erreginkume* hauei!” (HE57,146).
 “Irakasle arrek, beste *eskol*-umeentzat baño, neretzat bere eskuak arinagoak izan zituan” (HE50,38).
 “Ez leuke egon bear *euskal*-umerik euskerazko izen bat barik” (HE31,48).
 “Ta orra, ordun, ez soilki idazle bat galdua, baizik aren ikasbide ona ere, *idazlekumerik* sortzeko bideak langatu” (HE17,65).
 “Bi *kale*-ume azaldu ituan, ta bat bozeoan ikasten ibillia zala ta etzala” (EJ62,68).
 “*kalekumeontzat* "astegun buruzuri" geldituak” (HE57,118).
 “*katakuma* azitxoakaz agertzen zan” (HE31,23).
 “*katukuma* batek bezela salto egiten zuan” (HE22,28).
 “horrelakorik ez zian *listokume* horrek espero” (HE39,87).
 “nundik ibilliko ote gera, ba, *markeskume* onek aizea ar dezan” (HE57,149).
 “Hartu zituen bi xakur gazte, bi *orkume* ama batenak” (HEAX,95).
 “Esaion hire *putakume* horri bihar goizean Aiuntamentura aurkez ez badadi, arratsaldean goardiazibilek arrastatuko dutela” (HE39,27).
 “ezartzen dira: urdaiazpikoa, ollandak eta *usakumeak*, kapoiak eta indiolloak, eta abar” (EJ64,27).

Mugakizunaren aldaerak: herskari gabea (*ume*) bere eskuko maizago erabiltzen da herskariduna (*kume*) baino eta alderantziz: *kume* da elkaturik doanean maizenik darabilgun moldea, kontrako adibideren bat edo beste egonagatik (goiko *kalekume* / *kale-ume*, esate baterako).

Mugatzaileen gramatika-kategoria: (*k*)*ume*-ren esanahiak hala eskatuta, espero zen bezala, gehienak izen bizidunak dira (asko animaliak), izen bizigabe batzuk ere badauden arren. Dagoen adjektibo bakarra (*listo*) izen bihurtua da. Guztiak konkretuak dira.

Adiera. Esana dugun moduan, *kume* aldaera batik bat animaliekin darabilgu egun. Mugatzailea animalia denean, oro har, horren ondore hazi gabea izendatzen da, mugatzaileak adierazten duen animalia-motatik sortua. Gizakia denean, berriz, lehengo adieraz gain (adibidez, goiko *alargun ume*, *behargin ume* edo *saskigilekume*), askotan mugatzaileak adierazten duena izatera iritsiko dena adierazten da.

Alde honetatik, *gai*-ren adieretako batekin bat dator: *apaizkume* / *apaizgai*, *idazlekume* / *idazlegai*... Hauek ez baikenituzke “apaizaren (k)umea” edo “idazlearen (k)umea” moduan hartuko. Halaz guztiz, bada edo egon daiteke alderik pare horien artean: *gai* dutenek nekez

onartuko dute berez adiera “markaturik”, *kume* dutenek, berriz, bai. Nolanahi dela ere, *kume*-k hemen adinari dagokion ñabardura (haurra, umea izatea, alegia) galtzen du.

Baina gizakiez aritzeko *kume*-z baliatzen garen beste hainbatetan ere —adibideen arabera, ez dirudi *ume* aldaerarekin gauza bera egiten dugunik— ez dugu ez adina ez izangaia adierazi nahi, irain- edo erdeinua baizik.

Batzuetan berez du mugatzaileak kutsu hori (*demonio*kume, *handiki*kume, *listo*kume, *puta*kume, *urda*kume...), bestetan, ordea, berez izan gabe, hitz elkartu osoak hartzen du: *errege*kume, *erregin*kume, *markes*kume..., testuinguruaren arabera.

Hortaz, itxura guztien arabera *kume* gizakiez aritzeko markatuagoa da *ume* baino. Alegia, “umetasun” hutsa adierazteko aiseago jotzen dugu *ume* erabiltzera *kume* erabiltzera baino.

Bada adibide bat, nolanahi dela ere, besteak ez bezalakoa dena:

“Bere bigarren emazteagandik izan zuen Prantziskok Joan Batista, bosgarren eta *uzker*-ume” (EJ00,177).

Esanahia ‘azkena’ du; ez da ‘uzkerraren umea’, baizik “uzkerra bezalako umea” edo halako zerbait. Metafora da.

Osagaien arteko erlazio semantikoak. Mugatzaileak bizidunak direnean, batzuek ‘jabegoa’ (I.5.2) edo ‘iturburua’ (I.5.1) adierazten dute: *alargun*kume, *azeri*kume...

*Idazle*kume-k bezala, “izateko bidean” adiera dutenek, berriz, ‘helburua’ (I.5.10) erlazioan kokatzekoak bide dira, kide dituzten *gai* mugakizuna dutenak bezala.

Mugatzailea bizigabea denean, oro har, “non sortua den, non bizi den, non aritzen den... delako umea” adierazten du. Erlazioa, hortaz, ‘iturburua’ edo ‘lekua’ (I.5.9) izan ohi da.

II.7.2.10. LAGUN

Izen kategoriako mugatzaileak dira *lagun*-en ezkerrean ageri diren mugatzaileak
Bizigabeak: *akademia*, *auzo*¹⁵⁸, *baso*, *behar*, *bertso*, *bide*, *biko*, *bizi*, *dantza*, *ehiza*, *eskola*, *gerra*, *guardia*, *kontrabando*, *mahai*, *ohe*, *ontzi*, *pasio*, *txalupa*, *zorigaitz*...

Bizidunak: *bertsolari*, *dantzari*, *espos*, *gazte*, *gudari*, *hargin*, *heredero*, *hurko*, *mutil*, *neska*, *neskatila*...

Bereziak: *Jesu*, *Josu*...

“*auzo*-lagun onak izatea” (HE33,5).

“*baso*-lagunek nekez berorazi dute” (HE18,36).

“*Batzorde*-lagunenartetik aruntz-onezkan” (HE17,24).

“Baita bere esan daigun mallua ebala bere *bea*lagun” (EJ77,62).

“bere *Chirrita*ren *testamentua* liburuxkan, bere lendariziko *bertso*-lagunak zeintzuk izan ziran” (EJ79,67).

“Beren hastapeneko *bertsolari* lagunak Basarri eta Uztapide zituzten. Lagun oso onak” (EJ04,88).

“Santuak gaireratzen du *bide*-lagun bezala neskame-esklaba bat zeramatela” (EC07,58).

“*biko*-laguna nor dizun entzun du ta, an dago / Baztan-pertz ua baiño pozez gairiezago” (HE18,60).

“Donostiari emandako foru bera eman zien Oartzuko *bizi*-lagunei ere” (HE33,31).

“bederatzigarrean debecatzen du arguiro lagun urcoaren *vic*laguna cuticiatzea” (HE07,133).

“*Dantza*-lagun ziraden autu zorionez” (HE18,15).

“*dantzari*-laguna du oin-abe zutia” (HE18,126).

“Lastur-ko *ehize*-lagunen artean ezagutu berri dugu Altzolako jauna” (EJ48,22).

¹⁵⁸ Bizigabeen artean kokatu dugu gure testuan hala hartua dirudielako. *Auzo* biziduna ere badugu.

“*Eskola-lagunak* giñan aurtzaroan, eta *mutil-lagunak* gero gaztetako urteetan” (HE31,14).
 “urrun utzirik aita-amak, haurrideak, *gazte* lagun guziak, eta ezin konpreni hemengo mintzamoldia” (EJ68,20).
 “Nere erriko *guardi-laguna*, Rafael Barkaiztegi, gerrietako minez jarrita” (EJ60,61).
 “Etxeberria, esandako mendigañetan gelditu zan bere *gudari* lagunekin” (EJ49,150).
 “Baserri batean jarri zan apopillo, beste bere *argin* lagun batzuekin” (EJ79,15).
 “Christorén echéco húme, anáia, ta miémpro, Sanduen aide, ta *heredéro-lágun*, gueureoc nor bagára” (EJ55,215).
 “*urko-lagunaren* emazte irritsetan moral-esiak apurtu-miñez dijoan amodiozko ujolaren indarra eta bere arriskuak adierazten dizkigu” (HE28,71).
 “*Yosulagundarren* Arauetan eta Idazkietan ez du giza-irakaspen aundiagorik” (HE24,9).
 “Ba al zuten *mutil* lagun (asistente)ik? Ez; geyenetan emaztea edo alaba berekin zuten ta familian bizi ziran” (HE23,119).
 “*Nexka* lagunen abotsak eta istillua” (HE23,149).
 “*Neska-lagunak* izan ziran nere arreba gaztea ta Begoña” (HE31,16).
 “Eta bere oelagun, Roma ceritzana gandic, izan cituen Tabee, eta Gaham...” (HE12,20).
 “Besterik ez ba'zan ere, beren buruak beintzat bizirik atera nai, ba, *ontzi-lagun* gizajoak” (EL70,143).
 “*Pazio-lagun*, esaten dizut. Gogoz'ago esango nizuken: nekal-kide” (EL70,116).

Izen horiek nolakoak diren xehekiago aztertzean, ikusi dugu izen bizidunak eta bizigabeak direla *lagun* mugakizunarekin izen-elkartea osatzen dutenak. Askoz ugariagoak dira konkretuak abstraktuak baino. Bi izen berezi ere baditugu; forma beraren bi aldaera: *Jesu*, *Josu*.

Adiera dela eta, *kide-z* aritzean bereizi ditugun izen-motak ditugu, oro har, berriz hemen.

Mugatzaileak bizidunak direnean adiera ohikoenak dira: ‘ofizioduna, zerbaiten egilea’ (*bertsolari*, *dantzari*, *gudari*, *hargin*...); ‘egoera’ (*espos*, *heredero*); ‘sexua’, batzuetan hori besterik ez (*mutil lagun*, *nexka lagun* (HE23,149)). Azkenok, apika, hobeto leudeke sailkatuta “Atribuzio” elkarteetan, “A den B” motan (H-E/3 IX.1.1., 99 / 79), hemen baino.

Baina bestetan adinarekin, garaiarekin lotuta darabilgu *lagun*: nolabait *gazte* izen bihurtutakotzat joko genukeenaren ildotik (*mutil*, *neska*, *neskatilla*): “gaztetako, mutil, neska garaiko laguna”¹⁵⁹... Honela, esate baterako, *gazte lagun* eta *gazte jende* aurrez aurre jartzen baditugu, ikusiko dugu “garaia, adina” dela adierazi nahi dena eta ez “lagun gaztea”: *gazte jendea* nahitaez “jende gaztea” da; *gazte laguna*, berriz, adinean aurrera egina bada ere, “gaztetako, gazte garaiko laguna” da, jende zaharrak *eskola lagunak* izan ditzakeen bezala.

Bada, halaz ere, beste *mutil lagun* bat, aipatu berriak ez bezalakoa: testuinguru horretan, *soldadu* (ofiziala ez dena edo) *lagun* da adierazi nahi dena. *Lagun*, hemen, ‘laguntzaile’-ren parekoa da. Alegia, lehen ikusiriko *mutil-en* (*reketu mutil*...) pare-parekoa.

Nolanahi dela ere, sail honetan sor daitezke, beharbada, nahasterik handienak, mugatzailea biziduna izanik, *lagun* aurrekoaren atribututzat har daiteke eta. Esate baterako, gure adibideko *bertsolari lagun* hartzen badugu,

“Beren hastapeneko *bertsolari* lagunak Basarri eta Uztapide zituzten. Lagun oso onak” (EJ04,88).

duda egin daiteke “bertsolari-lanetan lagun” (beste *bertso-lagun-en* kidea) hartu behar den edo “laguna den bertsolaria” ote den (honenbestez, atribuziozkoa).

Mugatzailea bizigabea denean, delako mugatzaileak honako adierak ditu nagusi: ‘gertaera’, ‘ariketa’, ‘jarduna’... (*behar*, *bertso*, *bizi*, *dantza*, *ehiza*, *gerra*, *guardia*, *kontrabando*...), giza

¹⁵⁹ Corpusean ez dugu ikusi *neska* edo *mutil-lagun-ik* orain entzuten den beste adiera hau dutela: “andre edo emaztegaia, senargaia”.

taldea edo zerbaitetan aritzen den erakundea (*akademia, batzordea...*); ‘tokia’ (*auzo, mahai...*). Tokia izanik ere, batzuetan jarduna edo ariketa egiten den tokitzat hartzen da: *baso, bide, ontzi, txalupa...*, edo, berriz ere tokia izanik, non baino areago, noiz adierazi nahi da; sasoaia, alegia: *eskola*. Sentimenduak adierazteko izenak ere badaude: *pasio, zorigaitz...*

Berezia da *biko, lagun*-ek har dezakeen beste adiera bat islatzen baitu, pareak osatzearekin (“zapataren laguna”...) zerikusia duena. Hitz elkartua hemen biziduna da, Garazi izeneko emakumeak entzun du nor izango duen laguna:

“*biko*-laguna nor dizun entzun du ta, an dago / Baztan-pertz ua baiño pozez gaiñezago” (HE18,60).

Mugatzaileak adierazten duen horretan (beste norbaitekin) aritzen den banakoa edo adierazten du askotan hitz elkartu osoak.

Hortaz, *lagun*-en esanahia eta jokamoldea *kide*-renaren aski gertukoa da. Urrutirago gabe, hortxe ditugu hainbat pare horren erakusgarri: *bizilagun*-en adiera bat¹⁶⁰ eta lehengo *bizikide*-a, ‘esposkidea’, alegia, edo, *auzo-lagun / auzokide, batzorde-lagun / batzordekide...*

Baina, bada alderik, gure adibideen azterketaren arabera bederen: *lagun*-ez osatutako hitz elkartu osoa, mugatzailea biziduna nahiz bizigabea izan, bizidunez —areago, gizakiez— aritzeko darabilgu (adibidetegiko (*mailu*) *beharlagun*-a metafora baita). Eta honek bereizten du (*k*)*ide*-z osatutakoetatik: haiek ere, oro har, gizakiak izendatzeko darabiltzagun arren, bizigabeak mintzagai zituzten adibideak ere atera zaizkigu.

Beste xehetasun bat dugu *lagun* osagaiaz ez ditugula eratu *kide* osagaiaz egin ditugun *baliokide* bezalako adjektiboak.

II.7.2.11. ORDE

Izen kategoriako mugatzaileen ondoan aurkituko dugu *orde*, direla izen bizidunak edo bizigabeak, baina betiere izen konkretuak.

Izen bizidunak: *aita, errege, jainko, jaun, seme...*

Izen bizigabeak: *begi, buru, esku, etxe, isats, oin...*

“haren *aita*-ordetzat hautatua” (HE05,106).

“arrazoi eta iritzi zucen baten *beguiorde* edo *cataleju* on batez dembora ayetara alderatu” (HE40,33).

“Euskaltzaindiko *buruorde* den Haritzelharrek hain zuzen, bestelako aztarna argitsu bat aurkitu baitigu berriki” (EJ51,98).

“Gero, gizon bentzutuak —berrogeitamar bat— erregeren galeretarako igorri zizkion *Erregeordeari*” (HE33,77).

“bere eskuaz ezin baliaturik, mutiko bat zuen *esku-ordeko*” (HE33,63).

“Escallera malleetati jasteco oratu eguijozu alboco aga *escu* ordeco oni” (HE20,118).

“*Etxe-orde* dun baztar artara / laister datorke atzera” (HE18,88).

“*Etxea* zer samarra izanagatik, bazituan *etxe-ordeko* ta estalpe onak” (HE22,73).

“biderdiko *jainkorde* eta sasi-absolutu guziak sustraitik behar ditugu atera” (EJ94,17).

“Gosaldu ta apaindurik amarr da errdietan euren *Jaun-ordeagaz* egozan berrbetan” (EJ70,142-143).

“Bainan *seme-ordea* ez da egiazko semea, legez baizik” (EJ71,32).

Adibideek erakusten duten bezala, batzuetan *ordeko* izenaz ere baliatzen gara.

Mugakizunaren adieraz den bezanbatean, lehenik eta behin gogoan eduki behar da *orde*-k berak adiera bat baino gehiago dituela.

¹⁶⁰ Bestea *auzo* edo *auzo-lagun* hitzen bera da.

- Maizenik duguna da “mugatzaileak adierazten duen nor edo zer horren lekuan, beste norbait edo zerbait, baina aurrekoa erabat izan gabe” adierazten duena. Ez dago alderik mugatzailea biziduna nahiz bizigabea izan.
- Bestetan, berriz, batez ere kargua adierazten duten izenekin hitza eratzen duenean, burua, lehendakaria, zuzendaria... denaren bigarrena-edo adierazten du: horrelakoa da horko *buruorde*¹⁶¹, esate baterako.
- Hirugarren adiera bat ere bereiz daiteke; *sasi*-ren parekotzat har daiteke: adibideetako *jainkorde*...

Adierak adiera, ikus daiteke, oro har, mugatzailea biziduna bada, hitz elkartu osoak ere halaxe duela erreferentea eta bizigabea bada, bizigabea, bestelako arrazoirik ez bada behintzat. Izan ere, badira hitz elkartuak mugatzailea bizigabea izanik ere azken emaitza biziduna dutenak, edo, hobeto esan, bi ulertzeko era dituztenak. Adibideetako *esku orde(ko)* dugu horietako bat. Batean “norbaiten eskuaren ordekoa, lanerako laguntzailea” du adiera (*amanuense* dator erdal testuan). Baina metonimia-edo tartean dela esan daiteke eskuak gizabanako osoa ordezkatzeko duela.

Jasoa daukagun *esku orde(ko)*-ren beste adibideak, berriz, erreferente bizigabea du (*pasamano de una escalera* itzultzen du autoreak). Nolanahi dela ere, hemen ere metafora da tarteko, ez baita “eskuaren orde” adierazten dena, “zerbait egiteko lagungarria” edo antzeko zerbait baizik.

Biziduna / bizigabea aldaketarik gabe ere, bada beste hitz bat bi adiera dituen: *etxe orde* da. Orixeren adibidean (HE18) hitzez hitz aterako genukeen adiera du: *casa que hace veces de suya* dator erdal aldaeran. Besteak, berriz, berezko beste esanahi bat duela dirudi, “etxe izatera iristen ez baina aterpea, babeslekua dena” (*cobertizo* itzultzen dute gaztelaniara).

Baina, berriz esan, ohikoena da mugatzailearen ezaugarriaren arabera izatea elkartu osoarena. Eta honek, jakina, oinarrizko galdera sorrarazten du, berriz ere: Mendekotasunezko izen elkartutzat badauzkagu *orde*-z osatuak eta mendekotasunezko elkartuen ezaugarria bada mugakizunak —eskuineko osagaiak— elkartu osoari bere ezaugarri guztiak iragaztea, nola uler daiteke hemen esatea mugatzailearen ezaugarriak direla elkartuak hartzen dituenak?

Beharbada, pentsa daiteke *orde*-k ere, lehen *kide*-z esan dugun bezala, berez erreferente bizidunak zein bizigabeak izan ditzakeenez gero —hiztegiek jasotzen dituzten erabilera zaharrak lekuko—, elkartuak beste osagaiaren ezaugarri hau hartzen duela.

II.7.2.12. (Z)ARO

Honako mugatzaileak aurkitu ditugu gure corpuseko adibideetan *aro* edo *zaro* osagaiaren ezkerrean:

Izen bizigabeak: *bake, barau, gaztaina, harri, hazi, ikasketa, lo, nekazaritza*...

Izen bizidunak: *haur, gizon, kristau, nobizio, ume*...

Izen bereziak: *Cervantes, Noel, Pizkunde*.

Adjektiboak: *gazte, heldu, zahar*...

Zenbatzaileak: *berrogei*

“Baliman, *bake*-aroen aipatzen zuten bere Misionera” (HE58,69).

¹⁶¹ Lan hori 1978koa baita.

- “asterik andiena, Aste Santua, ta beragaz batean *baaru*-zaroak, eliz-jai samurrak” (EJ59,44).
 “*berrogeizaro* hark... utzi digun ondare ikaragarria” (HE27,375).
 “*Gaztainarora*, ikazkintzara, irauli dute jarduna” (HE18,80).
 “Bestalde, sendagilleak esana, aita-amak badakite bein *gizarora* ezker, ezin bestez, ondoezak berak artaratu ta, il-bearra dala” (EJ03,34).
 “XX. mendean bizi gera, ez *Harri* Haroan edo Tasmania urrun batetan” (EJ51,15).
 “bai *haurzaroa*, bai *gaztaroa*, izigarri dohakabe iragan zituen” (HE43,5).
 “Ereiten dogun lina-acija lur ondo guijau ta *azaro* onecuan” (HE20,138).
 “iguin zitun bere *elduaro* ta *zahartzaroan* beñepein” (HE28,87).
 “eta txori politen abesti leunenak zeugana eldu daiten *luaro* gurija” (EJ63,46).
 “Olentzaro, metatesis baten bidez *Noel*-tzaro-tik omen dator” (EB87,24).

Mugatzaileen gramatika-kategoria: Izen arruntak dira gehienak, bizigabeak eta bizidunak, konkretuak eta abstraktuak bat edo beste. Izen bereziak ere badaude eta zenbatzaile bat ere bai. Guztiarekin ere, corpusak erakusten duenaren arabera, ez du ematen oso osaera emankorra denik.

Adjektiboen artean sailkatu ditugunak direla eta, galde daiteke zenbateraino eusten dioten adjektibo izateari edo izen bilakatuak ote diren elkartu aurretik. Pentsa daiteke bestela ere aski kide duen *aldi*-k egiten duen bezala, (*z*)*aro*-k ere adjektiboak aukeratzen bide dituela elkartuak eratzeko, hark baino gutxiagotan egiten badu ere. Nolanahi dela ere, ez dezagun atzen berriz ere, itxura guztien arabera, egoerako predikatuak izatea dela murriztapena.

Adiera. *Aro*-k ‘denbora’, ‘sasoia’, ‘garaia’, ‘eguraldia’... adierak ditu, oro har, baina betiere iraupen kutsua duela. Azken ñabardura semantiko honek bereizten du batez ere kide duen *aldi*-tik¹⁶²: alegia, ez dugu hemen aurkituko ‘uneko’ adierarik.

Badirudi euskalkien hizkuntza-aztura edo joerak zerikusia duela *aro*-ren erabileran. Alegia Ipar-ekialdeko euskalkiek gainerakoek baino maizago erabiltzen dutela *aro* hitz elkartuko osagaia izan gabe. Erabilera honetan ez dugu *zaro* aldaerarik aurkituko.

Osagaien arteko harreman semantikoak. ‘edukia’ harremana gauzatzen bide da osagaien artean; ‘zer-noiz’ (I.5.4.3), alegia, “saso horretan zertu”.

II.7.3. Mugatzaileen gramatika-kategoria

Liburu honen bizkarrezurrak hala eskatuta izena + izena osaerako elkartuak ditugunez aztergai, espero izatekoa den bezala, atal honetan ere batez ere izenak dira mugatzaileak, beste kategoria bateko mugatzaileak ere aldi behin jaso ditugun arren, adjektiboak, esate baterako. Guztiarekin ere, ez dezagun ahantz kasurik garbiena aditzena dela: *ibilaldi*, *argibide*, *abiaburu*, *irakurgai*, *ezkontide*, *bizilagun* edo *aterrune* bezalakoena, alegia. Horiek guztiak H-E/3 lanean jasoak daude, *Jarleku* motan, hain zuzen ere (H-E/3, XI).

Beste kontu bat da ea hemengo mugakizun guztiek aukera berak ote dituzten izenaz gain, beste kategoriaren bateko osagaia ezkerretara izanik hitz elkartua eratzeko. Eta honetan badirudi mugakizunetik mugakizunera aldeak daudela.

Esate baterako, mugakizun hauetako batzuk aski maiz erabiltzen ditugu arestian aipatu dugun *Jarleku* motako izen elkartuak eratzeko: *aldi*, *bide*, *gai*, frankotan; *buru*, (*g*)*une*, (*k*)*ide*, *lagun* gutxiagotan; *gizon*, *jende*, (*k*)*ume*, *mutil*, *orde*..., berriz, inoiz ez.

¹⁶² Besterik ere bada, aipatu berri dugunarekin zerikusia duena: *aldi*-k aditzak onartzen ditu bere ezkerretara elkartuak eratzeko eta *aro*-k, ez.

Bestetik, berriz, eta betiere gure adibideetan oin hartuz, badirudi hemengo mugakizunetako batzuek ez dutela adjektiborik onartzen mugatzailearen tokian: *gai*, *gizon*, *mutil*, *(k)ide*, *(k)ume*, *orde*... horietakoak ditugu. Beste batzuek, berriz, ez bide dute halako murriztapenik: *bide*, *buru* adibidez batzuetan —gutxitan— ikusten dugu gisa horretako osaeretan: *(g)une*, *jende*, *(z)aro* askotxotan, eta batez ere, bestela ere kategoriak aukeratze horretan gainerakoek baino dezente malguago jokatzen duen *aldi*.

Eta ugariena den izenen multzora jotzen badugu, ikusiko dugu honetan ere ez dagoela esaterik edozein eratako izena atal honetako edozein mugakizunekin elkar daitekeela. Honela bada, bi muturrak aipatzearen, ikusi dugu *gizon* eta *(g)une* mugakizunak mugatzaile bizigabeak besterik ez zituztela onartzen; *jende* eta *(k)ume*, berriz, maizago elkartzen dira bizidunekin bizigabeekin baino. Bizigabeekin lotzeko joera nabarmena dute *aldi*-k, *bide*-k, *(k)ide*-k. Baina, beste batzuek ez bide dute murriztapen esturik; antzera onartzen baitituzte mugatzaile bizidunak eta bizigabeak. *Buru*, *gai*, *mutil*, *lagun*, *orde* dira horietakoak.

II.7.4. Adiera kontuak

Sarreran genioen bezala, hemengo mugakizunon ezaugarrietako bat da, aske erabil badaitezke ere, asko eta askotan lotuta, izen elkartu bat eratzen darabiltzagula. Hauetako batzuek (*(k)ide*, *(k)ume*, *(z)aro*...) hartzen duten forma bera ere aldatzen dute lotuta edo aske erabilia, baina aldizka euskalkien joerek badute zerikusia formaren aukeran, jaso dugun moduan.

Era berean esana dago mugakizunetako batzuk aiseago erabiltzen ditugula deusi atxiki gabe beste batzuk baino. Baina honetan ere euskalkien arteko berezitasunak egon daitezke tartean.

Nolanahi ere, mugakizunok zerbait baldin badute aipatzekoa esanahiaren alderdia da. Horrela, ikusi dugu mugakizun hauetako batzuek, gehienak egia esan, polisemikoak direla; alegia, esanahi bat baino gehiago dutela eta adiera horietako batzuk konkretutik abstrakturako bidea ispilatzen dutela eta horrek ondorioa duela hitz elkartua aditzeko unean.

Bestetik aipatu ere aipatu dugu izen hauetako batzuek aski esanahi lausoa bide dutela; beste hitzez esanda, beste osagai baten beharra dutela erreferentziaz betetzeko. Azken arrazoiok batez ere argituko lukete zer dela eta erabiltzen ditugun horren maiz elkarketan.

Eta azken puntu horrek beste zerbaitetara garamatza.

Bukaeran -dun, -gin/-gile, -zain/-zale, -bide, -aldi, -ola, -tegi... duten eraikuntzak hitz elkartuak dira, ala eratorriak? (H-E/1: 27-30 / 22-25).

Batzordeak 1987an egindako galdera horri erantzuna emateko moduan bide gara: berez erabil daitezkeenak, beregainak direnak ez dira atzizkiak; alegia, atal honetan ikusi ditugun *aldi* eta *bide* izen kategoriako hiztegi-sarrera erabatekoak direla esan daiteke —ezaugarri bereziak dituzten izenak—, eta eratzen dituzten eraikuntzak elkartutzat jotzekoak dira.

II.7.5. Emankortasuna

Aldeak daude aztertu ditugun guztien artean: euskara estandarrean *aldi*, *bide*, *gai*, *gune* eta *kide* dira seguruenik baliatuenak. Jaso ditugun adibideez gain, gure corpusetik kanpoko beste

makina bat (terminoak asko) dira horren lekuko: *errotazio-aldi*, *kitapen-aldi*, *gasbide*, *garraio-bide*, *ureztar-bide*, *eragozpen-bide*, *datu-bide*, *itomen-gune*, *anbulantzia-gune*, *merkataritza-gune*, *aldekide*, *ardazkide*, *auzokide* (angeluez ere aritzeko), *egilekide*, *demandatukide*, *elkargokide*, *klaustrokide*...

II.7.6. Idazkera

H-E/4 lanaren arabera, mota honetakoak bat eginik idatzi behar dira, salbuespenak salbuespen. Lehen osagaia luzea edo hitz-juntura bihurria duten elkarte berrietan salbuespenak egin daitezke: *kapitalismo-aldi*, *erredakzio-buru*, *administrazio-gune*, *lehendakari-gai*... (H-E/4: 96-97 / 82-83)

II.8. HITZAURRE MODUKOAK: AITZIN, ALBO, ALDE, ATZE, AURRE, AZPI, BARNE/BARREN/BARRU, BAZTER, BE(PE), BITARTE, ERTZ, GAIN, GIBEL, INGURU, ONDO, OSTE, (T)ARTE...

II.8.1. Sarrera

*Aitzin, albo, alde, atze, aurre, azpi, barne(barna), barren, barru(n), bazter, be (pe), bitarte, ertz, gain, gibel*¹⁶³, *inguru, ondo, oste, (t)arte...* mugakizunak dituzten izen elkartuak dira atal honetako aztergaia.

Atal berezi batean bildu eta aztertzeko arrazoia mugakizunaren izaeran datza berriz ere. Mugakizunok lekua edo denbora adierazteko erabiltzen ditugun elementuak dira, leku-izenak; guztiak ez bada, gehienak polisemikoak dira eta, gainera, aski esanahi lausoa, zabala dute.

Hori dela eta, “deiktikoak” direla esan izan da (**H-E/4, 11.2.6.: 94 / 80**), adierazi nahiz mugatzaile hauen eginkizun nagusia igorlearen esakunea leku-denboretan kokatzen laguntzea dela. Alegia, elementu hauen esanahi zabal, lauso hori egoerari lotuta dago erabat eta, hori dela eta, beste nonbaitetik hartu behar du erreferentzia esanahia osatuko badu. Hiztegi-tako definizioak begiratu besterik ez dago horretaz ohartzeko. *Aitzin* dioenak “zerbaiten aitzina” du gogoan (dela lekua, dela denbora), eta beste horrenbeste *albo, alde, atze, bazter, ertz...* dioenak ere. Hortik bide datorkie ezkerretara beste esanahi zehatzago edo sendoagoko beste osagai bat hartzeko joera edo beharra.

Hurrengo atalean (**III**), *Aurreproiektu* motan, berriz ere ikusiko dugun bezala, lekua edo denbora adierazteko elementuak izate horrek badu eraginik hitz elkartuaren osaeran, hitz elkartuko burua zein den, elkartuaren esanahia zein den erabakitzean..., nahiz eta hemen ere segur aski mailak bereizi beharko lirartekeen.

Nolanahi dela ere, gure azterketan batzuetan probetxuzkoa izango da buru morfologikoa (hitz elkartuari ezaugarri morfologikoak iragazten dizkiona) eta semantikoa (elkartuaren esanahia erabakitzen duena) bereiztea (Gràcia; Azkarate 2001). Konparaziorako, *historiaurrea*-ren buru morfologikoa eta semantikoa **aurrea** da; horretxek iragazten dizkio bere ezaugarri guztiak elkartu osoari. *Aurreiritzi*-rena **iritzi** den bezala. Aldiz *aurrendenboraldia* morfologikoki bada **denboraldia**, *denboraldi* izenaren bezalako jokamoldea du, baina semantikoki ez, ez baita “aurretik (egiten) den denboraldia”, “denboraldiaren **aurrekoa**” baizik. Hauek, antza, euskaraz *hitzaurre* ereduaren arabera eman izan ditugu eta ez *aitzinsolas* ereduaren arabera.

Leku-denborak adierazteak, era berean, postposizioen eremura hurbiltzen gaitu. Galdetzekoa da, halaber, hemen jasotako hainbat mugakizun noraino ez ote ditugun gaur egun postposizio gisa besterik erabiltzen¹⁶⁴. Izan ere, kontuan hartu behar da forma berak (edo forma homonimo edo kideak?¹⁶⁵) bete bide dezakeela funtzio bat baino gehiago, eta, honenbestez, sarritan ez dagoela aldeztu aurretik jakiterik zein eginkizunetan darabilgun dena delakoa. Lexikoaren eta sintaxiaren arteko mugetan gabiltza, berriz ere; zehatz esan, elkarketaren eta postposizioen artean.

¹⁶³ *Atze*-ren parekoa.

¹⁶⁴ Egia da ez dela erraza *postposizio* terminoaz erabateko definizioa ematea, ez bederen ikertzaile guztientzat gogo-betegarri dena. Guk Euskaltzaindiaren (EGLU-lab) lanaren arabera erabiliko dugu; hots, xehetasunetan sartu gabe eta zabal esan, perpausoko osagaien arteko gramatikazko harremanak adierazteko darabiltzagun elementuak izendatzeko. Hemen aztergai ditugunaz, ikus, bereziki Azkarate (1990: 392-401), Odriozola (1999), Zabala; Odriozola (2004: 281-315), De Rijk (2008: 69-80).

¹⁶⁵ Honekin zerikusi zuzena du hiztegi-gileek nola hartzen dituzten sarrerok. Oro har, hiztegi-sarrera berean bi azpisarrera bereizten dituzte izen kategoriarena bata eta postposiziotzat (edo/eta adizlaguntzat) daukatena bestea.

Bistan da, hortaz, funtsezkoa dela postposizioak hitz elkartuetatik bereiztea. Horretarako, Azkaratek (1990: 392-401), Odriozolak (1999), Zabalak eta Odriozolak (2004: 281-315) eman zituzten irizpideez balia gaitzke. Hondarrrik hondarrenean ikusi beharko genuke aztergai ditugun eraikuntzek izenek onartzen dituzten modifikatzaileak onartzen ote dituzten, osagarririk ba ote duten... Guztiarekin ere, behin baino gehiagotan ez da samurra erabakitzea. Balia gaitzen adibide batez *alde*-k zein balio izan ditzakeen ikusteko.

Postposiziotzat joko genituzke hurrengoak: erabilera itxia dute, murriztua.

“Erdarazko «delirios» eta «despropósitos»en orde bere jatorrean **etxalde** aritua izan bagenu” (EJ00,184) (“NOREN / ZEREN alde” eta ez kontra).

“Irabazi politagaz etorri dira **etxe aldera**, ta euren nekeak oso azturik, zoro zoro dabiltz” (EJ59,47). (NORANTZ-en baliokidea litzatekeena).

Ez dituzte izenek izaten dituzten aukera berak sintagman erabiltzeko: ez du atzizkirik onartzen (*“bere jatorrean **etxaldeetara** aritua izan bagenu”), edo, onartzen badu, arestikoarena ez bezalako beste esanahi bat hartzen du (“Irabazi politagaz etorri dira **etxe aldeetara**, ta euren nekeak oso azturik, zoro zoro dabiltz”). Gainera, esanahiaren ikuspegitik ere berezitasunak dituzte: ‘aldeztea’ da *etxalde*-rena, edo leku-denborazko atzizki-marka duela, *-rantz*, *inguru*-ren kidea da (*etxe aldera*).

Besteok, berriz, hitz elkartu garbiak dira. Esate baterako, *etxalde* horrek izenek bezalakoxe jokamoldea du: *handi* adjektiboak modifikatzen du eta *mendialde* ere pluralean dago; postposizioetan ezinezkoa dena.

“Nik uste Donapaleu alderdiko **etxalde** handi batetako andregai bat zen” (HE32,51).

“bisitari arrotza, ongi etorri gure **mendialdeetara**, esan zion” (EJ53,107).

Alegia, bistan dago bi egitura-mota horiek bereizteko testuingurura jotzea nahitaezkoa dela, ez dagoela huts-hutsean esaterik —konparazio batera eta ortografia alde batera utzita— *etxe alde* elkartua dela edo postposizioa dela.

Gehienez ere, batzuetan morfemen topagunean gerta daitezkeen hots-aldaketek eman dezakete laguntzaren bat: oro har, elkarketan gertatzen dira aldaketok, ez postposizioetan.

Izen elkartutzat jotzeko, hortaz, juntatzen ditugun bi osagaiak bere eskukoak izatea eta eskuineko elementua izena izatea ezinbestekoa denez gero, gure azterketa honetatik kanpo uztekoak dira baldintza hauek betetzen ez dituztenak.

Baina beti ez daude kontuak nahi bezain garbi. Eta are ilunago daude *-ko* atzizkia tartean denean. Nola ulertu behar dugu hurrengoa?

“Han nonbait, Arrigorriagako **gudu aitzineko** hura”

Badago *guduaitzin* (*gerraurre*, *historiaurre* eginak ditugun bezala) deritzan aldi bat? Hala bada, “[*izena + izena*]_{iz} + *-ko*” da osaera (*[gudu + aitzin]-ko*), eta, hortaz, izen bat dago oinarrian eta emaitza elkartua dugu. Ala, hiztunak ez du horrela eratu beste era honetan baizik: “izena + postposizioa” (*gudu + aitzineko*)?

Bestalde, *Arrigorriagako* izenlagunak zer besarkatzen duen ikustea ere argigarria izan daiteke, espero izatekoa denez, elkartua bada ondoren datorrena, elkartu osoa (adibidez,

“Urbiako [artzain-borda]” bezala) eta ez osagai bat bakarrik (*“[Urbiako artzain] borda”) modifikatu behar baitu. Zehatz esan, nola ulertzen du hiztunak horko *Arrigorriako gudu aitzineko* hori, elkartu (“Arrigorriagako [[gudu aitzin]eko]”) ala postposizio ([Arrigorriagako gudu] aitzineko) moduan?

Alegia, jokamoldeari erreparatu behar zaio erabakitzeke izen elkartuak edo postposizioak diren: postposizioek eraman ohi dituzten lekuzko atzizkiak kenduta, ea kasu-markarik, modifikatzailearik... onartzen ote duten.

Beste konturik ere bada. Hemengo mugakizunetako batzuk ere “erdi-atzizki” deitzen artean aipatu izan dira.

Hitzaurre moduko deiktikoak. Mugakizuna leku-denborazko *aitzin, alde, arte, atze, aurre, azpi, barne* (...) deiktikoa dute. Erdi-atzizki bihurturik daude hauetarik hainbat ere. (H-E/4, 11.2.6.: 94 / 80).

H-E/4 lanean —“deiktiko” direlakoetatik zein jotzen ziren atzizki bilakatzeko bidean zehazki esaten ez bazen ere— esana dago batez ere beregain, bakarrik erabilita ere, askotan beste izen bati lotuta erabiltzen direla; *be (pe)* buruen-buruenik. Hemen ere zehazten ahalegindu beharko dugu, bada, zenbateraino hitz egin daitekeen hitz elkartuez.

Ildo beretik, burubide horri jarraituta, galde daiteke zergatik ez aztertu aurreko atalean, *aldi, bide, buru, gai* eta abarrekin batean. Baina badago arrazoirik hemengo mugakizunok II.7 puntukoetatik bereiz aztertzeko: haiek ez bezala, hemengo guztiek lekua edo denbora adierazten dute. Hortxe oinarrituta zegoen baita ere bai H-E/1 bai H-E/4 lanetan bereiz sailkatzea (H-E/4, 11.2.5 eta H-E/4, 11.2.6).

Orain arte esandakoetatik ondoriozta daiteke kapitulu honetan azterkizun ditugun *aitzin, albo, atze, aurre* eta kidekoek eratzen dituzten eraikuntzak mugakoak direla batetik, hitz elkarketaren eta sintaxi-egituren artean eta, bestetik, elkarketaren eta eratorpenaren artean.

Sarrera hau bukatzeko esan dezagun mugakizun hauen emankortasunari begiratu gero, adibideen kopuruak garbi erakusten duela alde handia dagoela mugakizunetik mugakizunera, gure aztergaiaren bederen. Esate baterako, *alde* mugakizuna duten adibide ugari ditugu; eta *oste* eta *ondo* mugakizunak elkarren ondoan jarriz gero, berriz, ohartzen gara lehenak bigarrenak baino askoz adibide gutxiago dituela. Gauza bera gertatzen da *aitzin* eta *aurre* bikoteari dagokionez, eta abar. Euskalkien arteko banaketak eta euskara estandarrean batak eta besteak izan duen arrakastak ere emankortasunarekin ikuskizun handia du, dudarik gabe.

II.8.2. Adibideen azterketa

II.8.2.1. AITZIN

Mugatzaileak, guztiak izen arruntak dira, bizigabeak eta konkretuak: *aldare, etxe, gudu(?)*, *historia*...

“Gizon batzuek *aldare* aitzin guzian lerro-lerro ezarriak zituzten” (HE59,79).

“*etxe* aintzin guzia plazako gizonen bete zen” (HE59,69).

“Han nonbait, Arrigorriagako gudu aitzineko hura” (EJ20,24).

“Suak piztea eta uretan buztitzeak *historia* aintzinetik datorzkigun ohitura zaharrak ditugu” (EB87,49).

Adiera. Sarreran esan dugun moduan, esanahi zabala, lausoa du hemengo mugakizunak.

Gure adibide urrietan lekua (lehen bi adibideetan), nahiz denbora (bestean) adieraz ditzake. Mugatzaileak, berriz, zehazten du zein tokitan edo noiz kokatu behar dugun dena delakoa, ZEREN aitzina den.

Osagaien arteko erlazio semantikoak kontuan hartuaz, mugakizunaren “arintasun” semantikoak ez dakar elkartuaren burua ez izatea. Esan nahi da, nahiz eta erreferentzia zehazteko beste erreferentetun izen baten premia izan, *aldare aitzina* eta *etxe aitzina aitzina dira*, eta ez *aldarea* edo *etxea*.

Beste kontu bat da nola ulertu behar diren osagaien arteko harreman semantikoak. Pentsa al daiteke, beharbada, tokiaz ari garela, “osoa-zatia” dela (“aldarearen parte bat aitzina da”) (I.5.3)? edo ‘jabegoa’ (I.5.2) (“aldareak aitzina du”)? Denbora adierazten dutenetan, berriz, zailagoa bide da harreman hori ikustea.

Edo, apika, pentsatu behar da mugakizunon berezitasuna, ZERAK espazioan edo denboran kokatzea besterik ez dela eta ez dela sortzen osagaien artean gainerako izen elkartu mendekotasunezko arrunten artean sortzen den bezalako harremanik?

Bestalde, *aitzin* mugakizunaren barrutia batik bat ekialdeko euskalkiak dira, nahiz eta mende honetan mendebaldera ere zertxobait hedatu den (gipuzkerara batik bat). Estandarrean ere badu tokia.

II.8.2.2. ALBO

Mugatzaileak: oraingoan ere izenak dira mugatzaileak, izen arrunt, bizigabe eta konkretuak: *bide*, *gorputz*, *matrail*...

Bizkaieraz aurkitu ditugu, batik bat, *albo* mugakizuna duten izen elkartuak. Euskara estandarrean ez dirudi arrakasta handirik izan duenik.

“orduak orraztuaz, aurrera dijoa gaba: *bide*-alboak sasitzen” (EJ50,85).

“Bere burdiña odolguirua ez da igaroco gure *corputz*-albuetatik” (HE20,214).

“arpeguia gorrista, ta *matralla* albuac guicen guicenac” (HE20,193).

Osagaien arteko erlazio semantikoei erreparatuaz, *albo* adieretako batean ‘aldea’ da. Hala denean, ez dugu lehen esandakoari deus gehitzeko. Gehienez ere erants daiteke, *alde* mugakizunaz aritzean xehekiago ikusiko dugun bezala, adibideren batean (“*matralla* albuac”) esanahi zehatza hartzen bide duela: ‘saihetsa’ baino areago, ‘zattia’ edo.

II.8.2.3. ALDE

Mugatzaileak: mugatzaile ugari aurkitu ditugu gure corpusean *alde*-ren ezkerrean, gehienak izen arrunt, bizigabe eta konkretuak: *arrats*, *baso*, *bazter*, *buru*, *eguerdi*, *egute*, *eguzki*, *esku*, *eskuin*, *etxe*, *gerruntze*, *gibel*, *goiz*, *haitz*, *hegal*, *hego*, *herri*, *iluntze*, *ipar*, *ipurdi*, *kale*, *kosta*, *lehor*, *lepo*, *lur*, *matrail*, *mendi*, *moko*, *muga*, *mutur*, *ohe*, *oin*, *portu*, *punta*, *saletxe*, *zeru*...

Izen berezirik ez zegoen corpusean¹⁶⁶, baina batzuetan badirudi *alde* mugatzaile arruntari lotu eta gero bihurtu dela berezia izen elkartu osoa: *Borda-alde*, *Gurutze-alde*, *Hegoalde*, *Iparralde*, *Koba-alde*, *Torrealde*...

Adjektiboak: *borobil*, *oker*, *zikin*... *Bide*-ri eskainitako atalean (II.7.2.2) adierazi dugun bezala, euskal hitz-elkarketan ez da ohikoa adjektibo + izen elkarketa. Hauek, baina, halakoak dirudite.

Ihartutzat (edo erdi ihartutzat) emango genituzke beste hauek, zein gehiago, zein gutxiago, bi osagaien arteko erlazioa ilunduta dagoen heinean: *arratsalde*, *errekalde*, *eskualde*, *etxalde*, *goizalde*, *herrialde*; *Ernialde*...

“goizean eguzkiaren irteeran eta *arratsaldean* eguzkiaren sarreran” (EJ49,35).

“Udaberria lurraren jabe zan, *Baso* aldea, txori jai bete-betea” (HE57,150).

“Saltsamendi’ko puntatik berago, Itziar aldera, badago mendi-mutur txiki bat, Murgizarreko *Borda*-aldea du izena” (HE29,10).

“Derrior *borobil* aldearekin bea jo bear zuan aurrena” (HE29,32).

“*Buru*-alde ori, berriz, bizarrakin eta illeakin dana tapatuta” (HE29,67).

“Orri izena bi modutara esaten zaio: *Torrealde* lengo izen zarra; baiña *Gurutze*-aldea ere berdin esaten zaio orain” (HE29,11).

“Ta Lontxo ta ni, alaxe beiak (beeterritarrak ez dute beia deitzen) zaintzen, *egute*-aldeko pagadietan” (HE50,33).

“Alaxe ezagutu nuen *Ernialde*’ko aldapa luze ura” (HE50,90).

“Euskaltzaindiak emandako agiri baten bidez irakasle hauek egin zezatela beren lana *eskualde* eta herrietan” (EI94,55).

“Nik uste Donapaleu alderdiko *etxalde* handi batetako andregai bat zen” (HE32,51).

“bi esku-mutur ezurtsu; lau aza-xurten baturik ainbat lodi; *gerruntze*-alde sendoa” (EJ03,21).

“Arantzazuko kalbario-mendian *goizalde* artantxe bete zan Juan ebanjelariaren: ecce mater tua” (EL70,127).

“Geroztik Hartzaren baratzea esaten diote Urbasa mendiko *haitzalde* bati” (EJ53,100).

“Bañan geuden lekutik, guk ez genduan beste *egal*-aldea ikusten” (EJ49,58).

“Elizaren *ego*-aldea, antziñan komentua egon zeneko terrenu ia dana, ondakiñetan zegoan artean, ezer egin-gabe” (EL70,213).

“*herrialde* guztietan toki onak badira” (HE51,28).

“lenengo lana arbolari *ipurdi*-aldea garbitu” (HE29,101).

“Itziar’ko *kale*-aldea ere oso leku polita da” (HE29,19).

“Lastur aldeko ertzetik badu aitz-zulo kaskar bat. *Koba*-aldea du izena” (HE29,10).

“Bizkaiko itsas-hegalean (...) Bizkaiko *lehor*-aldean ere antzera izan da” (EB87,29).

“ÑO’ren *lepalde* ta besondo guriak begiz jaten ari da” (HE57,103).

“berai biziya kenduagatik / *lur*-alde aitan etsaiak, / pozez dijoaz anima batzuk / zerura ekarri naiak” (HE55,16).

“mamintsubac dauqueezan *matralla* alde ta zanguac” (HE20,59).

“Nafarruak ba ditu *mendi*-aldea ta Erribera” (EJ65,52).

“Edozein ispiluk bezala; baditu noski bere huts eta *okerraldeak*, baina eginahalean saiatzen da inguruko bizitzaren errainua jasotzen” (HE27,326).

“Ezteia txikiko *saletxe* aldea dauka orrek izena” (HE29,9).

“*zikin*-aldetik jo bearrean, gai orrek duan alderdi parregarriari begira oi zioagu” (HE57, 119).

Mugatzaileen gramatika-kategoria. Izenak dira nagusi *alde*-ren ezkerrean¹⁶⁷. Oro har, bizigabeak eta konkretuak dira: gauza bat, gorputz-atal bat edo lur-azalean koka daitekeen zerbait dira. Adjektibo bat edo beste ere badago. Hitz eratua beti izen bizigabea da.

Adiera dela eta, esan daiteke atal honetako mugakizunetan ikusi ditugun ezaugarriak guztiz egokitzen zaizkiola *alde* izen bere eskukoari: esanahi lausoa du, polisemikoa da (‘ingurua’,

¹⁶⁶ Beharbada, izen bereziren bat dagoenean zailagoa (ezinezkoa elkartu mota batzuetan bederen) delako elkarketara jotzea (nahiz eta corpusetik kanpoko *Tolosalde*, *Oiartzualde*, *Busturialde*, *Durangalde*, *Ezkerralde*, *Mungialde*... Gipuzkoa-Bizkaietako eskualdeen izenak hor dauden. Ik. Euskaltzaindiaren 140. eta 145. arauak). Postposizioetan, berriz, ugari ditugu izen bereziak: urrutirago gabe, horko “Itziar aldera”.

¹⁶⁷ Aditzak ere onartzen bide ditu (*sartalde*, *sortalde*...). Oso adibide gutxi ditugu, ordea, eta, nolana dela ere — lehen esana errepika dezagun—, ez dira liburu honetan aztertzeokak.

‘zattia’, ‘desberdintasuna’, ‘taldea’ (ik. II.2)... adieraz ditzake) eta erreferentziazko balio deiktikoa du. Azken alde horretatik begiratuta, zerbait nonbait kokatzeko erabiltzen dugun izena da, zabal esan. Eta gauza bera ikusten dugu hitz eratuko eskuineko osagaia denean eraten dituen izenetan; *alde*-k ezkerretara duen izena nonbait kokatzea du eginkizun nagusia: *eguzki alde* diogunean ‘eguzkia sortu edo dagoen bitartez’ ari gara, eta ez *eguzki* deitzen diogun izarraz.

Ñabarduretan sartzen bagara, ikusiko dugu batzuetan *alde* ezkerreko izenaren kokapena lausotzeko edo zabaltzeko ere badarabilgula: *ipurdi alde*, *lepalde*, *kalealde*... ‘ipurdiaren, lepoaren, kalearen inguruak’ dira, ez justu ipurdi, lepo, kalea... bera. “ÑO’ren *lepalde* ta besondo guriak begiz jaten ari da” dioenak, ez du seguru asko parte zehatza edo osotasun baten zatia adierazi nahi, ingurua baizik.

Eta antzeko zerbait daukagu ezkerreko izenak denbora adierazten badu (*goizalde*, *arratsalde*): hemen ere *alde*-k ezkerreko izenak adierazten duen denbora lausotzen duela dirudi: ‘erabat goiza ez dena, erabat arratsa ez dena’... Hauexek dira postposizioetatik gertuen daudenak (*mendi aldera joan / zortziak aldera hasi*...) (Azkarate 1990, Odriozola 2002).

Beste batzuetan, ezkerreko izena zati daitekeena bada, *alde*-k zehatz dezake zatietako bat dela mintzagaia, hain justu: *masailalde* (oroit lehengo *matrail albo-z*), *ipurtalde*, *orrialde*...

Hemengo adibideek batik bat ‘ingurua’, ‘alderdia’ edo ‘zattia’... adierazten dute, oro har, eta denborarekin lotuta dauden *arratsalde*, *goizalde* eta besteren bat kenduta, tokia adierazten duten, edo tokiren batean koka daitezkeen izenak dira.

Badira, bestalde, adibideetan adiera berezia hartu duten izenak, (erdi) ihartutzat jo daitezkeenak. Esate baterako: *arratsalde*, *errekalde*, *eskualde*, *etxalde*, *goizalde*, *herrialde*, *Ernialde*... Hitzok, oro har, hiztunak osorik ikasi behar ditu, batzuk besteak baino gardenagoak badira ere, osagaien esanahien bitartez garbi aditzerik ez baitago hitz elkartu osoaren adigaia. Erakusgarririk argiena *eskualde* izan daiteke, gaurko hiztunak bederen nekez uztartuko baitu: ‘esku’ + ‘alde’ baturarekin. Beste batzuetan, berriz, garbiagoa da osagaien esanahien eta hitz elkartu osoaren esanahiaren arteko lotura (*errekalde*, esate baterako).

Bukatzeko, beste adibide-sorta hau ere badugu:

“emazten jorrazteko hamar bat *bertsu*-alde badira” (HE43,14).

“Ah! zer *gizalde* behiala Eskualdunena” (HE59,104).

“Azaña’ren *ortzalde* eder ura” (HE17,21).

“aitzina *Eskualdun*ean hasi zen bere *lerro*-alde goresgarrien ager arazten” (HE59,12).

“Aurreko *uralde* oietan bazuean ba naikoa” (EJ62,66).

Orain arte aipatu ditugun adieretatik bazter samarrean geratzen zaizkigu, ‘multzoa’ adierazten baitute. Alegia; *alde* / *talde* alomorfoen arteko jatorrizko loturan oinarriz ulertu ditugu. Horrela ikusi ditugulako sailkatu ditugu “Multzo-elkarteetan” eta ez hemen, baina, nolana dela ere, oroit mugatzaileen berezitasunaz han genioenaz (II.2.2.1).

Osagaien arteko erlazio semantikoak. Gehienak mendekotasunezko hitz elkartuetan ere ikusi dugun ‘edukia’ harremanaren bitartez azal daitezke: ‘zer-non’ (I.5.4.2), *eguzkialde* ‘alde horretan eguzkia dago’, *lepalde* ‘alde horretan lepoa dago’... *Alde*-k ‘zattia’ adierazten duenean, berriz, ‘osoa-zattia’ (I.5.3) harremana genuke (*orrialde*...), *ogi-puska*, *lur-zati*... “Zati-elkarteen” gisan (II.3).

II.8.2.4. ATZE

Izen arrunt, bizigabe, konkretuak dira *atze* izenarekin elkartzen ditugun mugatzaileak: *hegal, pago...*

“ginbail bulardetsuak, erabaki gorrien garaia eldu dalakoan, zutitu aurrea lerdenki bekoki-gañean, ta *egal*-atzea lepazamarreruntz etzin” (HE17,43).

“Orregatik jarri giñan pagotegi artan; *pago*-atze banatan gordeta” (EJ49,150).

“Gu, berriz, lasai-lasai *pago*-atzeetan” (EJ49,151).

Ez dirudi mugakizun honezaz askotan baliatu izan garenik hitz elkartuak eratzeko: ikusiko dugun bezala, elkarketan maizago jotzen dugu antzeko adiera duen *gibel* (edo *oste*) erabiltzera.

Atze izenak denbora ere adieraz dezakeen arren, guk ‘tokia’ adiera besterik ez dugu jaso corpusean¹⁶⁸.

II.8.2.5. AURRE

Orain arte ikusi dugunaren haritik, izen arrunt, bizigabe, konkretuak izango ditugu mugatzaile *aurre* izenaren ezkerrean ere; ez dugu izen biziduna mugatzaile duen adibiderik gure corpusean: *atari, ate, begi, buru, dantza, etxe, eztei, gerra, herri, historia, hitz, saletxe...*

“*atal*-aurrea garbitzen elkar-apustuan” (HE18,53).

“gauzez nagusien *ate* aurreak zaintzen egoten dituk” (EJ53,26).

“norbaiten txalopeak bokarte asko artu badau, legorretik *betaurre*agaz gerald on ori ikusi” (EJ59,42).

“arrantzalien aotik artu dotan lez ipinten badot izen ori liburutxu onen *buruaurre*an” (EJ59,7).

“Aurreskuak ederto egin eban *dantzaurre*an” (EJ59,141).

“Jauregi antzeko *etxe*aurrea dauko” (HE31,92).

“zer *eztei* aurre duten berêla bi gazte ôk afaltzean!” (HE18,85).

“atera eruazan maisubac mutilchu icaslac *erri* aurre edo atarira” (HE20,217).

“ohiturok *historia* aurretik datoz, baina Euskal Herriko agiri idatziak ez dira hain zaharrak” (EB87,50).

“Eskaera horri erantzun beharrez, aintzin solasa edo *hitzaurre* au idatzi dut” (EJ04,13).

“Ezteia aundiko *saletxe* aurrea du izena” (HE29,9).

Aurre-k bai denbora, bai tokia adieraz ditzake eta aztergai ditugun hitz elkartuok ere bi adiera horiexek ispilatzen dituzte. Tokia adierazten dute *atal-aurre, ate aurre, buruaurre, etxeurre, erri aurre, hitzaurre, saletxe aurre* adibideek; denbora, berriz, *dantzaurre, eztei aurre, historia aurre...*

Esanahiaren munduan gehixeago sakontzen badugu ohartuko gara badirela aipatu beharreko zenbait ñabardura: *hitzaurre* edo *dantzaurre* hartzen baditugu ikus dezakegu hitz elkartu horien adiera ez dela “hitzen / dantzaren aurreko edozer”, baizik “hitzen, dantzaren aurretik egiten diren hitzak, dantza”. Horrek lotzen ditu hurrengo atalean ikusiko ditugun *Aurreproiektu* modukoekin (III).

Betaurre ere berezia da, esanahia zehaztua baitu: “begi aurrean paratzen den urrutira ikusteko tresna”¹⁶⁹.

¹⁶⁸ OEHN ere ez dago askoz adibide gehiago, eta daudenak adiera berekoak dira: *esku-atze*, esate baterako. Bestalde, toponimian eta onomastikan ere ez omen dago ia *atze*-rik, bai, ordea, *gibel* (*Arratibel, Mendigibel, Jaizkibel...*) eta (gutxiagotan) *oste* (*Elexoste, Urioste*). (Mitxelena 1953; OEH).

¹⁶⁹Hitz hau egokia da ikusteko nola sortzen diren batzuetan izen bikoteak, adieran alde handirik ez dutela, *-ko*

II.8.2.6. AZPI

Hemengo mugatzaileak ere, kapitulu honetako aurreko mugakizunekin elkartzen zirenak bezalatsu, izen arrunt, bizigabe eta konketuak dira: *arbola, begi, haritz, harri, lepo, lerro, lur, ohe, oihan, oin, pagotegi, sasi, urdai, xingar, zeru, zuhaitz...*

“fruituak adarretarik aurdikitzen dituela; *arbola*-azpietarat behatzen dut” (EJ72,56).

“*betazpiak* baltzitubac; ortzac anchina juanac” (HE20,72).

“erriak *aritz* azpietan edo aritz pitzatueta igarotzera eramaten dituzte” (HE24,50-51).

“Ai, baiña, aspaldi batu ziran neretzat amaren begiak; gorputz gaixo ura artu zun illobiko *arri*-azpiak” (HE57,250).

“geroztik gorria du *lepazpia*” (EJ53,11).

“itz, esaldi, yoskera... an dituzu oro arretaz yasorik (...) idazti-zokondo ta *lerro*azpietan piloturik baizik” (HE17,12).

“*lur*-azpia, guk lanerako lurra esan deguna, beste lur baten gañean egoten da” (EF92,15).

“Orduan danak, nun izkutaturik etzutela-ta, *oi*-azpietan ta al zuten tokietan sartu ziran” (EJ67,194).

“Bilatzen dute borda batzuetan, *oihan*-azpietan, sasi handien gibelean” (EJ72,62).

“¿*Oinazpi*ac garbitu jaqueez?” (HE20,108).

“Bañan *pagotegi* azpi artan ia-ia alkarrekin asarretu giñan Etxeberria ta biok” (EJ49,109).

“Onako *sasi* azpi ontan gorde eta emen itxogingo dizuet” (EJ49,51).

“*Urdai*-azpiak onduta gero kakotatik esegita, urte guziko gozagarriak etxean ondo jarrita” (HE25,140).

“Pikazazu *xingar* azpiaren hezur handia eta ongi garbi; atxikazu trenpan hirur egunez gaziduraren khentzeko” (EJ75,9).

“*zeru*-azpia, izarrez; / zeru barrua, areago” (HE57,262).

“zakua ondoan zuela lo gelditu zen *zuhaitz* azpi batean” (EJ53,85).

Mugatzaileen esanahiari dagokionez, berriz, oro har, ‘lekua’, ‘tokia’ edo ‘nonbait koka daitekeen zerbait’ adierazten dute.

Goiko adibideen artean, *betazpi* izan daiteke berezi samarra, duen esanahi zehatza dela medio: ‘begi zulo’. *Xingar azpi* eta *urdai-azpi* hitz kideek ere aski adiera zehatza dute: *xingar azpiki, urdaiazpiko* dituzte pareko.

Bestalde, *oihan-azpi* hitzaz ere bi hitz esan daitezke. Hasieran harrigarri samarra gerta badaiteke ere, argitu behar da “*oihan* barrena” edo ulertu behar dela hemen —kide duen *oihanpe* hitzean bezala— eta ez ‘azpia’, hitzez hitz.

II.8.2.7. BARNE, BARREN, BARRU(N)

Hiru mugakizun hauen gaineko azalpenak batean ikusiko ditugu.

BARNE (BARNA)

Mugatzaileak. *buru, eliza, etxe...* izen arrunt, bizigabe, konketuak hauek ere.

“bainan *buru*-barnea... ez sobera eri” (HE51,39).

“Lekuinen bereziki, *eliza* barnea ez baita izpi bat baizik” (HE59,80).

“kabia aizatzen ditzen txorien antzera / *etxe*-barnea garbituz aurrak atarira” (HE18,16).

“*etxe*-barne bizi bat egingo diat, erderaz *bodegón viviente* esango bagenduke bezala” (HE17,16).

BARREN

atzizkiaz baliatuta nahiz atzizkirik gabe: *betaurre / betaurreko, urdaiazpi / urdaiazpiko, belarrondo / belarrondoko* (adieretakoko batean)... Nolanahi dela ere, ez da hitz-elkarketak argitu beharreko gaia.

Mugatzaileak. *bihotz, erro, etxe, gogo, gona, komentu, praka zahar, sobre...* Izen arrunt bizigabeak; *gogo* ez beste guztiak konkretuak. *Praka zahar* mugatzailea, berriz, determinatzailerik gabeko IS dugu.

“prestuen loria hequien *bihotz* barrenetan dago” (HE06,144).

“Israel baitan loriazco etche baten eguitera, eta *erro* barrenac sartcera haren hautatuen bihotzetan” (EJ58,62).

“Jendea, ura libre ikusi zuanean, *etxe*-barrenetara sartu zan” (EJ67,194).

“eta beste aldean emakume aldrea andia negarrez, euren *gona* barrenakaz malko samiñak igortzika” (EJ59,17).

“gorputz-irudia eman nai izan ez digunak, *gogo*-barrena behinik behin ez digu hartaraino izkutatu” (EJ00,180).

“Sukalde ta aldameneko *komentu*-barrenak¹⁷⁰ galda bizian zeuden, goizeko lau ta erdietan kanpaiak esnatu ginduaneko” (EL70, 241).

“anketatik gora zelanbait jasoriko *praka zar* barrenak bustiaz” (EJ59,67).

“Eta, *sobre* barren arek zer enkargu zekarren irakurririk, onela dit Etxeberria’k” (EJ49,21).

BARRU(N)

Mugatzaileak. *agiri, arima, bihotz, bular, eliza, etxe, horma, itsaso, katilu, klaustro, kolko, komentu, leize, lur, mingain eta tripa, zeru...* Izen arrunt bizigabeak. Ia denak konkretuak.

“bidali zizkioten bataio ta jaiotza agiriak (...) *Agiri* barruetan bere Martiñ-en seme legezko agertzen zan” (HE57,45).

“euskal-fedearen *anima*-barrua zeñen zorrozki azterkatu ta atzitu zun liburu oietan, iritzia, nik eman-bearrik gabe...” (EL70,226).

“erregutu *viotz* barrutic jaunari, condenateco zorian, ta urrean dagozanacaitic” (EC61,58).

“Neskak entzun ezker danbolinen otsa taup taup *bular*-barruan dauka euren biotza” (EJ70,73).

“*Eleiza* barrua ta inguru guztiak notiñez estalduta egozan” (HE21,76).

“Baztango errietan bezela Arrati-aldean, Bermion aña Etxalarren, nunaiko *etxe*-barruetan ikusten da isekita Garateren kalendarioa” (EL70,233).

“*ixas* barruan ikusi eben eguzki garbiaren jaiotza pozgarria” (EJ59,210).

“Zerua, auspez dagon *katillu*-barrua, argi-intziritan zijoan galdua” (EJ50,64).

“ez orratik galerazi Arantzazukoak. Aitzitik, baiezkoa eman eta indartu egin zituzten, *klaustro*-barruko bi aldare-kapillatan emakumeak sartzeko baimenduz” (EL70,115).

“ibaiko urak (...) garbi garbi erakusten ebien *kolko* barrua, euren ondo edo oe gañeko tresna zar, arrain aldu ta erretillu zati guztiak banan banan agertuteraño” (EJ59,40).

“Ez eban *komentu* barruak ondo artu” (HE31,16).

“barnera so-dagit: gabeko itzal-antzo, *lexa* barru¹⁷¹ ontan ezin dagit zantzo” (EJ63,2).

“ta zu, goierritarra bazara, txorierrian edo *lur*-barruan jaiotze bizi zareana” (EJ59,7).

“Gorputzez zan milla ta berreun arrua, beste berreun *mingaiñ ta tripa* barrua” (EJ78,109).

“zeru-azpia, izarrez; / *zeru* barrua, areago” (HE57,262).

Hiru mugakizun hauen banaketa euskalkieie zor zaie. Zabal esan, jatorriz *barru(n)* batez ere bizkaierakoa; *barren*, gipuzkera, goi nafarrera eta lapurterakoa, eta *barna* eta *barne* ekialdeko euskalkietakoak ditugu, nahiz eta denboraren poderioz erabilera aldatu den. Gure corpusaren arabera, badirudi *barna/barne* dela zokoratuen gelditu dena elkartuak eratzeko eta, kontrara, “izena + *barren / barru*” dela osaera emankorrena.

Laburbilduz, forma bateko zein besteko mugakizunaren ezkerrean ageri diren mugatzaile guztiak izen arrunt bizigabeak dira.

¹⁷⁰ Juntadura dela eta, badirudi Gramatika Batzordearen lanean (EGLU-4: 39) jasotzen den gertakariaren antzekoa dugula hemen: “Ondarkia pluralekoa izateak, ordea, ez du esan nahi juntaturiko ardatz guztiak nahitaez pluralean direla, Lafittek bere gramatikan ongi seinatu zuen: (139) Jainkoak eginak dira eguzki, ilhargi eta izarrik (P. Lafitte *Grammaire basque*, 69)”.

¹⁷¹ OEHk jasotzen duenez, beste kategoria eta erabilereaz gain (postposizioena batez ere), adjektiboarena ere badute mugakizunok, izenarenaren ondoan, noski. Horren adibide, esate baterako, horko *lexa barru* “profunda caverna” aldatu dute hiztegi handian. Beste testuinguru batzuetan izan dezakeen balioa ukatu gabe, ez dugu eragozpen larrikerik ikusten egitura hori elkarketaren bidetik aditzeko: “leizearen barrua” (“profundidad / interior de la caverna”).

Mugakizunaren esanahiari dagokionez, berriz, elkarte hauetan ez da sumatzen postposizioetan har dezakeen denbora balioa (“bi hilabete barru”...): guztietan tokia da, oro har, adierazten dena.

Hitz batzuek esanahi berezia dute: *itsasbarrua*, “itsaso zabala” da, “itsaso handia”; gardenxeagoa den *lurbarru*, berriz, “kostaldekoa ez den lurra” da; *gona-barrena*, *praka-barrena* gonaren, praken beheko partea da.

Corpusean ez zeuden *bebarru*, *esparru* (< *hesi* + *barru*) ihartuak ere aipatzekoak dira.

II.8.2.8. BAZTER

Mugakizun honi elkartzen zaizkion mugatzaile guztiak izen konkretu, bizigabeak dira:

Bide, *basobide*, *denda*, *eliza*, *errege-bide*, *erreka*, *etxe*, *gurdibide*, *herri*, *hiri*, *ibai*, *itsaso*, *kai*, *kale*, *kamino*, *karretera*, *komentu*, *kosta*, *landa*, *lehor*, *lurralde*, *oihan*, *soro*, *su*, *sorterri*, *sukalde*, *taberna*, *torilo*, *ur*, *zeru*, *zoko*... Hemengo *lehor* izen balioan ulertu behar dugu.

“Oriotik Aiarako *bide* bazterrean” (HE53: 13)

“goiz batean zegoan Patxi bere *denda* bazterrean” (HE19: 103)

“eliza eta *eliza*-bazterrak gain-gainetik garbitu eta antolatu” (EJ72: 67)

“*erregebide* bazterretan landatuak baitituzte izei luze mehar” (HE59: 91)

“aunitz automobil ehortzi ditu *erreka* bazterretan eta jendea frango eramán” (EJ68: 36)

“Orrelako uztai-azkonak maiz asko gure *erri* bazterretan ikusi izan ditut” (HE24: 40)

“*Etxe* bazterretan hasten naiz zerbait lan porroska egin nahiz eta zonbait aldiz utzi behar” (EJ68: 44)

“ez ichasguizonak, ez Ameriketara ire izena zabaltzera bidali ta andik *uri*-bazterrak eche politez apaintzera etorri oi ditukan indianoak” (EJ07: 1)

“Ardura elgarretaratzen ziren *itsas* bazterrean” (EJ59: 100)

“*kale* bazter, enparantza ta antzoki kokorretan” (HE28: 78)

“*kamio*-bazterreara azkar asko sakabanatzen ziran” (EJ60: 78)

“*Komentu* bazterrak miatu ta, iñor ez. Atarira begiratu ta, elur-mandirea lau-lau, iñoren oñatzik ez...” (EL70: 141)

“*mariñela*, *leihor*-bazterretik huna bihotzño bat zitaz orhoit dena!” (EJ60: 165)

“biotzaren egoera bat dala *lurralde*-bazter bat ikustea” (HE31: 45)

“gure baserri-etseetako *su*-basterretan ekin da ekin” (EI199: 140)

“*Taberna* baztar batean artu dituzte kape, kopa ta purua ere” (EJ62: 47)

“*Torillo*-bazterreko barrera tartian zezena pasatu da kolera batian” (EJ67: 204)

“ur bazter = orilla. Aditzecoa da ur bazter batean predicatzen ari zen batez Jangoicoac egiña” (EI31: 96)

“Santurik balin bada *zeru*-baztarrean” (HE18: 95)

“Aritz ipurdi pillá galanta an dago *zoko*-bazterrean” (EJ03: 23)

Ohartzen gara mugatzaile horien artean badirela aldi berean elkartutzat hartu behar direnak, liburu honetako kapitulu batean edo bestean (edo H-E/3 lanean) aztertuak: *sukalde*, *sorterri*, *errege-bide*, *basobide*, *gurdi-bide*, *lurralde*...

Oro har, esan dezakegu mugatzaileek ‘lekua’ adierazten dutela; horrela hartu behar baitira, gure iritziz, *ur* edo *su* mugatzaileak ere, “sua dagoen lekua” edo “ura dagoen lekua”, zentzurik zabalenean.

Mugakizunaren adierari dagokionez, EHk ematen dituenetatik, bi bereizi behar dira gure corpuseko adibideak ikusita: 1 ‘ertza, muga’, *itsasbazter*, *torilo-bazter*, *kamio-bazter*, *ur-bazter*...; 2 ‘zokoa’, *etxe-bazter*, *kale-bazter*, *sukalde-bazter*, *taberna-bazter*, *zeru-bazter*...

Bereizkuntza horretan oinarrituta, pentsa daiteke *bazter*-ek lehen adiera duenean bere mugatzailearekin eratzen duen erlazio semantikoa ‘lekua’ eta bigarrena duenean ‘osoa-zatia’ dela.

II.8.2.9. BE (PE)

Mugatzaileak. Ia guztiak izen arrunt, bizigabeak dira: *arku, ateri, barru, barrun, beso, buru, eliza, erro, estali, etxe, galtzar, gau, geriza, giltza, haitz, harkaitz, harri, hego, hegal, ilun, itsaso, itzal, kontzeju, lur, magal, muga, ohe, oin, sabai, sabel, sasi, teila, teilatu, ur, uztarri, zubi, zuhaitz...*

Baina, izen bereziak ere ager daitezke *be (pe)*ren ezkerrean: *Loreto...*

Aski bitxia da, erabide lexikoetan (elkarketa nahiz eratorbidean) ez baita batere ohikoa izen berezietz hitzak eratzea. Baina egun behintzat, ez du ematen oztopo handirik izango genukeenik edozein leku-izen berezi (mendi-izenak...) + *pe* eraikuntza egiteko: *Erniope, Izarraizpe...*

Bestalde, izen eratu osoa maiz agertzen da euskal leku- eta pertsona-izenetan: *Aldabe, Altube, Etxabe, Erostarbe, Haizpe, Ilarbe...*

Ihartutzat joko genituzke, berriz, beste hauek: *barrunbe, errape...*

“dardaratu egiten zait *barrunbe* osoa pozez” (HE34,39).

“Ta egingo nuke, *barrupe* artatik, amar, ogei, berrogei-ta-amar idazti atera baietz parra-parra, nork artua izan-ezkero” (HE17,76).

“Duçun beraz *burupe* baiño beldur guehiago eman caitzquitçun arguien eta talenduen gatic” (HE06,32).

“ardi arren *errapea* dena galdua zan” (HE50,53).

“bazituan etxe-ordeko ta *estalpe* onak” (HE22,73).

“emacume setatsuaequin *echape* batean vici baño obe da” (HE07,93).

“Eguin zuan Jaunac emacumea guizonaren *galzarbeco* sayets-ezur batetic” (HE07,90).

“Ezin *gaupe* hautan utz, hilen naizelarik, Gorphutz-hil ustel baten ikharaz bertzerik” (EJ50,67).

“Zugasti onetan sartuta, bere *kerizpe* indargarrian murgildu, ta badirudi beste mundu zoragarri bateko sarreran nagoela” (HE34,22).

“Gizonak bere burua munduan aurkitzen (...) *Giltzape* horretatik ezin irten ez ezaguera bidez, ez lurreko maitasun bidez” (HE27, 18).

“Alpha-çaçu bihotcez, Jesusen icena, eta ordutic emanen-çare descaxuan, sunsituco-dire çure *ilhumbeac*” (HE05,111).

“erriko pillare edo *kontzejupe* oietako batera baztatu zan, ni zaintzearren” (EJ60,120).

“«*Loreto-pe*» euskal izen jatorraren ordea «Pico del Lorito» erdal aldakera nardagarria” (EJ51,21).

Lehenik eta behin, aukeran ditugun bi aldaeren formez ohartxo bat egin behar da: Hiztegiek jasotzen duten bezala, herskari ahoskabea (*pe*) da batik bat hitz-eraketan erabiltzen duguna, nahiz eta aldaera ahostuna (*be*) behin edo beste ere erabiltzen dugun (*barrunbe, ilunbe...*, baina *oinpe...*).

Aztergai dauzkagun mugakizunetatik morfema hau da seguruenik euskalari gehienek atzizki izatetik gertuen ikusten dutena; Villasantek (1974: 114) urrutirago gabe, horrelakotzat dauka: “Sufijo *-pe (-be)*”. Baita De Rijk (2008: 887-890) ere¹⁷². Azken hizkuntzalari honek, gainera, ohartarazten du jokabide berezi samarra duela atzizki izateko; izan ere, bera bakarrik ager daiteke, beregaina izan daiteke, aurretik *-(r)en* formako osagaia hartuaz (“*Mitxelenaren*

¹⁷² “The suffix *-pe* has the meaning ‘under’ and is probably etymologically related to the noun *behe*”. (De Rijk 2008: 887).

promesaren pean”). Nolanahi ere, bi hizkuntzalariek azpimarratzen dute beste izen bati lotuta erabiltzea dela ohikoena.

Ez da, beraz, harritzekoa, hiztegi-gileek *pe*¹⁷³ hiztegi-sarrera beregaintzat hartzea eta ematen dituzten adibideek horixe erakusten dute: beregaina dela. Izentzat jotzen dute. Baina ematen dituzten adibide horiei erreparatuta ikusten da jokamolde berezia duela. Ia ez dago osagarririk gabeko izenen jokamoldea ispiatzen duen adibiderik (“Larrungo pe horietan.”). De Rijk-ek argitu bezala, adibide gehienek osagarria dute (-*en*) eta leku-atzizkiak daramatzate (“Zorren petik nolabait ateratzeko”, “Hila eta ehortzia nago nire bekatuen pean”). Alegia, azken adibideek *pe*-ren postposizio erabilerara eramaten gaituzte.

Hortaz, ezin esango dugu atzizkia dela. Zabal esan, gaurko erabilerak erakusten du *pe* batez ere postposizio gisa darabilgula, baina osagarria behar duen leku-izena ere badela. Eta azken kasu honetan, osagarria -*en* genitiboa nahiz beste izen bat (elkarketan) da.

Mugakizunaren esanahia *azpi*-ren parekoa da, ihartuetan izan ezik. *Azpi* izenaren osagarriak bizidunak ere izan daitezke (*behiaren azpian*)¹⁷⁴; -*be* (*pe*)-renak ez.

II.8.2.10. ERTZ

Mugatzaileak izenak dira, izen arrunt, bizigabeak eta konkretuak: *amildegi*, *bide*, *bidezabal*, *buztan*, *etxe*, *ezpain*, *galtzada*, *hodei*, *ibai*, *itsaso*, *iturri*, *kale*, *kosta*, *leiho*, *mahai*, *masail*, *mendi*, *ogi*, *pinadi*, *soin*, *txalupa*, *ur*, *zeru*

“sinistu ezinezko miraria zirudin *amildegi*-ertzean gora” (EL70: 85).

“kotxeen faroak *bide* ertzeko arbolak argitzen dituzte” (HE35: 43).

“Borreruari danon artean biarr litzake *buztan*-ertzean imiñi laster arran tsikia eta zolia” (EJ70: 45).

“Saseta ori, naiz zauritua izan, *etxe*-ertz artatik *etxe*-atzera gu bezelaxe bere oñez biurtu zan” (EJ60: 124).

“*ezpain* ertzak makur eta begia heze” (HE27: 310).

“*Galtzara*-ertzetan ermitatxoak antzo, are apalago ta il-zoriago diraute kantazarrak aiton-amonen aoan” (EL70: 102).

“*odaiertzean*, urrutirat, ukurtuz haren ganat jausten zela iduri baitzuen” (HE59:27).

“*ibai* ertzetik pasiran doaz” (HE35: 42).

“*itxas*-ertzeko ontzi txikiak ikusten genituan” (EJ49: 69).

“Ur gardenari begira *iturri*-ertzan lili-aren irudija” (EJ63: 40).

“lenbiziko *kale*-ertz sarrerara allegatu geranean eta zabaltzen ari giñala” (EJ60: 124).

“*mahai* ertza jo eta bi kandelak hankaz gora erori ziren” (HE39: 61).

“asko ezagun dute zure senar gizajoan *masalla* ertzak ase eta betean dabilela” (HE19: 119).

“*ogi*-ertzari mamia kenduz egin dion zorrotena” (HE18: 80).

“ez zetorren zeren joan baitzihoan *pinadi* ertzean gora” (HE39: 65).

“Toleta. Karelean edo *txalopertz* gañean erramuari eusteko ipinten dan ziria” (EJ59: 94).

“Bartzelonatik asi ta Donostiarano egozan *urertzeko* erri guztien sarrerak zelangoak ziran” (EJ59: 88).

“urritira irristatzen zaizkit, *zeru*-ertzearen luzatze geldian nekatuak bezela!” (EJ50: 144).

¹⁷³ *Peko* ere bai. Bazter utziko dugu hemen -*ko* atzizkiak dakartzan ondorioak aztertzea, baina itxura batean, leku-izena bizidun bilakatzeko modua bide da. Erka: “Oro dira haren peko, hura ororen gehien” / *“Oro dira haren pe, hura ororen gehien”.

Atzizki honek leku-izenekin duen jokamoldea poliki ikertu beharko litzateke. Ik. arestiko ataleko *betaurre* / *betaurreko*; *urdaiazpi* / *urdaiazpiko* eta abar.

¹⁷⁴ Hala dio De Rijk-ek (2008: 887) ere: “In combination with a directional case ending (-*an*, -*ra*, -*tik*, etc.) -*pe* can serve to express the meaning ‘under’, like the word *azpi*: *liburupean* or *liburu azpian* ‘under the book’, *ohapetik* or *ohe azpitik* ‘from under the bed’. In contrast to *azpi*, the suffix -*pe* can only occur with inanimates: ‘under the cow’ can only be translated by *behiaren azpian*”.

Mugatzaileetako askok ‘lekua’ adierazten dute —*kosta, leiho, amildegi, bide, etxe, galtzada, ibai, itsaso, iturri, kale, zeru...*—; beste batzuek, ordea, gorputzeko atalen bat —*buztan, ezpain, masail, soin*—; berezia da, alde honetatik, *ogi* mugatzailea.

Ertz mugakizunari dagokionez, bi adiera bereiz ditzakegu: batetik, ‘gauza lau bat bukatzen den aldea’; hauxe da adibide gehienetan aurkitzen duguna. Bestetik, ‘irekidura baten muga lerroa’, *ezpain-ertz* elkartean duguna.

Zer adiera duten ikusita (eta corpusean adibide gehiegi ez dugunez) hemen sailkatu ditugu *izkina, kantoia* eta *hegi* mugakizun duten elkarteak. Izan ere, *EH* ikusiaz, *izkina* ‘bazterra, kantoia’ da; *kantoia* izena definitzean ere ‘izkina’, ‘ertza’ eta ‘bazterra’ ematen dira definitzailetzat. Halaber, *hegi* ‘ertza, bazterra’¹⁷⁵ da.

Hiru mugakizunekin aurkitu ditugun mugatzaileak izen arrunt, bizigabe, konkretuak dira: *bide, frontera, itsaso, kale, mahai, muraila, ohantze, trintxera...*

“badakik bi trenkada armamento Pikabea'k eta biok Txekoeslobakia'n erosi eta *frontera*-ixkiñaraño, Endaia'raño, iritxiak zirala” (EJ60: 84).

“beste aldeko *kale*-ixkiñatik neska gazte bat korrika ta bera ia jotzeraño etorri kantoiean”(EJ79: 89).

“egorretikan *muralla*-iskiñan jendia jostatzekua, itxas kanpua denbora txarrak iñoi ez barkatzekua” (EJ78: 156).

“*ohantze* echkinan amatto nigarrez” (HE51: 27).

“Kalamua mendiaren inguruetara eta etsaiaren *trintxera*-ixkin batera” (EJ49: 63).

“Pendejo, *kale* kantoiean burua ipiñita” (HE29: 26).

“ez nintzela segurki gehiago *bide*-hegietao aran ondoen gainerat iganen! (EJ72: 32).

“*itsas* hegiari dauden ostatuetao batean” (HE59: 97).

“ganibeta *mahai*-hegian pausa, eskuak dabantalean xuka” (EJ72: 64).

Lekua adierazten dute mugatzaileok, horrelakoxeak izan behar baitute aipatu ditugun mugakizunen osagarriak.

II.8.2.11. GAIN

Mugatzaileak: berriro ere izen arrunt, konkretu, bizigabeak dira mugatzaile gehienak: *begi, bekoki, bortu, bular, esku, etxe, gorputz, horma, izen, izter, lepo, mendi, sabel, salda, zeru, zubi...*

Izen berezi bat ere bada: *Olloki...*

Ihartutzat hartuko ditugu, bestalde: *bekain, mingain...*

“ikusit nuenean nik zure *bekaiña*” (HE18,55).

“San Bartolomein ermita *bortu* gain hartan omen baita” (HE60,152).

“nola pilotak *bular*-gain eta beso-ginarra hartzen dituen larrupetik lodigune batzuk agertzerainokoan” (HE59,11).

“praka ipurdian igurtziaz *esku*-gaña” (HE22,36).

“*etxe* gañetan ondo lotu barik egozan tella zarrak eta tellatuen egaletako arriak” (EJ59,15).

“millika nahi dezan amorekati, gatz eta ogi phorrokiña iaourtzen deyote *khorputz* gaña sorthuberriari” (EI58,143-144).

“Prozesioari aurrea artuta, *ormagain* batean zuti-zuti jartzen da Baltzategi'koa, ta otsegin zien” (EL70,25).

“cembait cristau fededunec belaunetic-belaunera datorquien *icengañ* edo apellidoaren lecuan” (HE40,62).

“Neri deitutzen ditet Galtzaundi *izengaña* det nik Goñi Aldatxur-txoro izengoitutzat deitzen didate neroni” (EJ76,136).

“*Iztargaiña* arri dute” (HE18,93).

¹⁷⁵ ‘Osoa-zatia’ erlazioan (I.5.3) sailkatu dugu *mendi-hegi*, hor *hegi* mugakizunak beste adiera bat duelako, ‘mendiaren hegala; malda’.

“ikasi-nairik geure eresia, *lepo*-gañetan artzen dabela txori guztien irudi argia” (EJ77,39).
 “Nafarrete’ko *mendigain* ura artzeko eta bertan gelditzeko ordena zuala esan zidan” (EJ60,147).
 “Deba’tik goraxeago dago *Olloki*-gaiña” (HE29,22).
 “*Sabel*-gaiñaz kontu du esterik lèr gabe” (HE18,125).
 “gure *salda*-gaiñak ez dik hainbeste begi” (HE18,43).
 “Lehen izarrek argitzen zuten *zeru*-gain urdina” (HE51,62).
 “Bañan bigarrengoan, sei edo zazpi metro goragotik pasa zuan arriak *zubi*-gain ori” (EJ60,153).

Esan dugu izen arrunt bizigabeak ditugula mugatzaileak, eta horien ondoan badugula corpusean izen berezia den mugatzaile bat ere. Baina horrek ez du esan nahi izen berezirik — leku-izen berezirik, zehatzago esan— har ez dezakeenik, toponimian (eta onomastikan) ugariak baitira halakoak: *Olloki-gain*-en moldekoak, alegia. Hauen ondoan, aipatzekoak dira, berriz ere, elkartu ondoren izen berezi izatera iritsi direnak (*Bidegain*, *Lizargain*, *Mendigain*...).

Oro har, mugatzaileak adierazten duen leku horretatik gora dagoena adierazten dute.

Berariazko azalpena behar dute *bekain*, *izengain* hitzek, lehenak, gainera, hots-aldaketa dela medio, ilunagoa du osagai mugatzailea (*begi*). Begi-gaineko gorputz-aldea izendatzeko darabilgu lehena, eta ez begiaren gainean egon daitekeen edozer. *Izengain*-ek, berriz, bi esanahi ditu: ‘abizena’, ‘deitura’-ren parekoa, bata, eta ‘izengoiti’, edo ‘goitzen’-aren parekoa bestea. Gure adibideetan, ordea, lehena besterik ez daukagu.

Salda-gain-ek, azkenik, corpusean ez zegoen *esne-gain* bide du kide gertukoa. *Gain* izenak, hemen, ‘saldaren gainean egiten den koipezko geruza’, ‘esnearen gainaldean gertatzen den geruza mamitsua’ adierazten du; ez saldaren, esnearen gainean jarritako edozer. Nolanahi ere, hor dugu beti ‘saldaren gainean’, ‘esnearen gainaldean’ adieraz, corpuseko gainerako adibideekin parekatzen dituen.

Hemen sailkatu dugu *goi* mugakizun duen *zeru-goi* ere:

“zeru goietan kanta gogotsu Xalbadorrekin batean” (EJ69: 107)

II.8.2.12. GIBEL

Mugatzaileak. *belarri*, *etxe*... Izen arrunt, bizigabe eta konkretuak hauek ere.

“kopeta parekatu ondoan, *beharri* giblean hatz egin eta, irri faltso bat ezpainetan duelarik” (EJ72,46).
 “*Etxe*-gibelez *etxe*-gibel landa, gatu zehatu bat bezala sartu ninduan etxera” (EJ72,18).

Gure corpusean adibide gutxi ditu¹⁷⁶, kide duen *atze*-ren gisa berean, nahiz eta, OEHK jasotzen duenez, tradizio luzekoa izan eta ekialdeko euskalkietan ez ezik, mendebaldekoetan ere mende hau arte erabili izan den¹⁷⁷.

¹⁷⁶ Hala ere, Interneteko corpusetan badu lekua, batez ere Iparraldeko eta Nafarroako publikazioetan, elkarketa garbian eta *giblean* postposizioan.

¹⁷⁷ Hortxe daukagu Bidasoa eta Oiartzun arroak besarkatzen dituen *Jaizkibel* (<Haitz + gibel) mendia diogunaren seinale.

II.8.2.13. INGURU

Aurrekoetan bezala, mugatzaile gehienak izen arrunt, bizigabe eta konkretuak dira: *bazko, bular, eguerdi, eliza, ermita, etxe, gauerdi, herri, ipurtxulo, itsaso, giro, leku, onda, sagasti, testu, txabola...*

Bada izen berezi bat ere: *Ama Neskuts eliza*. Aski adibide berezia da bi aldetatik: mugatzailea izen berezia delako (hau lehen ere ikusi dugu) eta, batez ere, izen berezi horren osaera aski zalantzakoa delako: lotura-atzizkirik gabe (*-(r)en*, hemen), erreferente bakarreko izen berezia (*Ama Neskuts* —Ama Birjina, alegia—) mendekotasunezko izen elkartu arruntaren mugatzailea da¹⁷⁸. Guztiarekin ere, corpusean adibide bakarra da¹⁷⁹.

“*Ama Neskuts eleiza* inguruak” (HE21,76).

“Ez da dembora asco ecusten cirala emacumeen *bular*-inguruan ustai andi batzuec” (HE07,120).

“elizkarietara datorrenari, *eguerdi*-ingurua bada, zerbait ematea, eztet uste pekatutzat iduki bear dala” (EJ07,1).

“oso mendi-gain alai ta polita billatu genduan Salbatore’ko *ermita* ingurua” (HE29,121).

“aunitzetan gero erraten zautan *gauerdi* ingurua zela eta ez zuela erloirik” (EJ68,15).

“Jakizu Zarpantzarrek duela kargua, gaiso idukitzeko *erri*-ingurua” (HE18,100).

“iñok ezer ekarri eztaien, errien mugari ta *itxas* inguruak zaintzeko” (EJ59,106).

“*Leku*-inguru artan billaka gabiltzala, or asi zaizkigu etsaiak tiroka” (EJ49,51).

“euriaren *onda*-ingurutxoak eta iturri-xirriparenak alkarrekin naasten ziran” (HE34,31).

“bañan nik *sagasti*-ingurua arrapatu nai, beren alderdira ninjoala itxura egiñez” (EJ60,53).

“*Testo* inguru honetan, alderdi politikoen eginkizuna guztiz aurkakoa da” (EJ52,32).

Esanahia dela eta, berriz, *testuinguru* litzateke aipatzekoa, beste adibideek ez bezala, aski esanahi finkoa hartu duelako, hizkuntza eta literatura-kontuetan, bederen. Corpusean ez zeuden *mahai-inguru, hitz-inguru (itzulinguru-ren kidea dena)...* ere halakoxeak bide genituzke.

Oro har, mugakizunak hitz elkartuaren esanahiari dakarkiona da mugatzaileak adierazten duen tokiari zehaztasuna kentzea, alegia, *eliza-ingurua* dioenak, esate baterako, ez du zehazki “eliza” adierazi nahi, baizik “eliza inguratzen duena, elizaren aldetsua edo”. Lehen *alde*-ren balioetako batez esan duguna, alegia.

Bestetik, nahiz eta *inguru* ‘ia’, ‘gutxi gorabehera’ adierazteko ere erabiltzen den (kopuruaz ari garela batez ere), ohart gaitezke hitz-elkarketan ez dugula adiera horretako adibiderik. Seguru aski *inguru* ‘tokia’ / ‘denbora’ ez den adierakoa denean, postposizioen egituran darabilgulako: nolabaiteko kopurua, neurria adierazten duten sintagmekin (“Larogei pezeta inguru balio du”, “Ur-ardotan pitxerdi-inguru edan du”...) batez ere¹⁸⁰.

Buelta mugakizun duten *gerri-buelta, lepabuelta* eta *mutur-buelta* ere hemen sailkatu ditugu, adibide gutxi direlako eta adierari dagokionez, gertueneko esanahia *inguru* izenarena izan daitekeelako:

“*gerri-buelta* ikaragarria bear pixu oiek artzeko, oso altua etzala jakiñik” (EJ79, 91).

“aurpegi eta lepabuelta azaltsu haiek lanaren eta sufrimenduaren (...) gaztatze erruki gabea salatzen zuten” (HE39,55).

¹⁷⁸ Oroit liburuaren hasieratsuan (I.2) jaso dugula Azkueren (1923: 600) eta Villasanteren (1974: 20) iritzia: **Jainko Ama* ez baina, *Jainkoaren Ama*, **Pedro aurean* ez baina, *Pedroren aurean...*

¹⁷⁹ Berriz ere, egungo Interneteko corpusetan *Bilbo ingurua, Rijeka inguruak, Csepel inguruak, Chalindray eta Chaumont inguruak...* badaude.

¹⁸⁰ Postposizioen eremuan gabiltzala, beste balio batzuk ere baditu *inguru*-k: “gai horren inguruan ez dut deus esatekorik”... Hori ere ez da hemen aztertzea.

“bekokia eta *mutur*-bueltak hazkatu zizkion” (HE39, 15).

II.8.2.14. ONDO

Mugatzaileak. Izen arrunt, konkretu, bizigabeak dira mugatzaileak: *afari, arreta, baserri, bazkari, bazko gauerdí, begi, belarri, bertso, beso, bide, bihotz, eztei, festa, gerra, gibel, guda, hatz, hesi, ibai, ile, itsaso, izen, lepo, meta, min, sasi, su, txabola, zoko...*

Ihartutzat eman daitezkeen adibideak ere baditugu corpusean: *garondo (garrondo), ukalondo, ukondo...*

“zer *afal*-ondo alegera bezain goxoak zeramatzen” (HE59,7).

“*Arretondo* chaarra egin... Mirar con desabrimento” (HE20,222).

“gure etsaiak zeuden *baserri*-ondo batera allegatu gera” (EJ49,50).

“*bazkal* ondo batez, senar emazteak lotzen gira beribil ixtorio batez” (EJ04,59).

“bizi denak orhit ukhenen dü *bazko gaiherdi*-ondua” (HE18,21).

“pozikan komeni ez biotz aundi ari, *begiondoak* malkoz biotzak ler-zori” (EJ69,51).

“Eibarren bertan serbitzen, orduko ere ondo nekien *belarrondo* garbitzen¹⁸¹” (EJ79,41).

“*bertso*-ondo polit hau ematen digu Gamizek” (EJ00,204).

“*beso*-ondoak, guri-guriak agertzen zaizkio” (HE57,103).

“zauskada sakon eta latz batek astindu dit *biotzondo*” (HE34,28).

“amaitu bide-da *ezteio*ndoa zaratatsua...” (HE33,30).

“Horrela amaituko zen *festondo*aren pasarte hau” (EJ53,7).

“askozaz gehiago ta zuri kiskur kirikolauak *garondo*an, bildots edo arkume baten irudira” (EJ59,93).

“kopetaldean nahiz *garrondo*an ez dakit” (HE27,399).

“Zaila zen giroa *gerra*-ondo ilun hartan” (EJ51,39).

“Etzakiat zer *gibel*ondo ukanen duen ene solasak” (HE59,100).

“Halaber da ezagutzen beretik herioa, ezen lastimagarria uzten du *hatz* ondo” (EJ80,155).

“billatu zuten gorputza Marrkane baserriaren azpian, *esi*-ondo batean” (EJ79,49).

“Zalapartaka zabilan, jo harat, jo hunat, begiak odoletan, nahasiak, haguna zaiola ahotik, *ile*-ondoak xutik” (HE59,69).

“artatik dizu Gerrieder *izen*ondo” (HE18,82).

“urdeak *lepondo* puztu lér bearrez” (HE18,124).

“icusi zuen Booz, *met*-ondo batean etzaten” (HE54,205).

“Getsemani nere *miñ*-ondo” (EJ50,51).

“*suton*dotik zetorren argia bat ez adina baitzen” (HE39,13).

“iru edo lau pameli juntatuta bide-krutzeetan edo *txabola*-ondoetan” (HE29,22).

“Arantzazu menditarre izugarrienean dago (...) 700 metroko alturan eta alare zulo-zuloan (...) *Zokondo* arlosteagorik. Dun ederra, orixe bait-du: bere arlostea ta zakarra” (EL70,54).

Afalondo eta *bazkalondo* hitzetan (*afalaurre, bazkalaurre, afaloste, bazkaloste...* hitzetan bezala) duda egin daiteke mugatzailea izena ote den (*afari, bazkari*) eta morfemak elkartzean hots-aldaketa gauzatu ote den, edo aditzoina ote dugun (*afal(du), bazkal(du)*). Bigarren hipotesiaren alde (“*afal(du)* ondo”, “*bazkal(du)* ondo”) egingo bagenu, sail honetatik atera eta *Jarleku* motara (H-E/3, XI) igorri beharko genituzke, H-E/3 laneko adibidetegian *bazkalordu* (H-E/3: 348 / 328) jaso zen bezala, esate baterako. Halaz guztiz, ez dirudi ezinezkoa mugatzailea izena izatea; H-E/4 lanean *afalondo* “hitzaurre” mota honetako adibideen artean jaso dago (H-E/4, 11.2.6).

Ondo mugakizunak bai tokia (‘aldamen’, ‘albo’...), bai denbora (‘ondoren’, ‘ostean’...) adieraz ditzake, oro har, eta baita denborarekin lotura estua duen ‘ondorioa, arrastoa, aztarna’... ere. Hain zuzen ere, adiera horiexen araberrako hitz elkartuak ditugu hemen:

¹⁸¹ “Belarrondoak garbitzen jakin” dio Txirritak “bizkorra, emai... izan” adierazteko.

belarrondo, beso-ondo, betondo, hesi-ondo, lepondo...; *eztei-ondo, festa-ondo, meza-ondo, minondo...*; *gibelondo, hatz-ondo...*, hurrenez hurren.

Lehen adiera tarteko denean, ez dirudi alde handirik dagoenik, askotan bederen, *ondo* eta *alde*, *inguru* izenen artean: *elizondo, elizalde, elizinguru* aski gertukoak bide dira. Denbora adierazten duenean, berriz, *oste* bide du gertuen (*oste*-k, jakina, tokia ere adieraz dezake).

Ohar berezia merezi duten adibideak ere baditugu. *Bihotzondo*-k bi ulertzeko modu izan ditzakeela dirudi: bat erabat hemen sartzekoa “bihotzaren ingurua”, eta bestea, berriz, *hondo*-rekin lotzera eramango gintuzkeena. Bigarrenaren alde egitekotan, sail honetatik atera beharko genuke eta *Eguzki-lore* motako *Behi-esne* mendekotasunezko arrunten arabera aztertu: ‘osoa-zatia’ (I.5.3), edo ‘jabeagoa’ (I.5.2) harreman semantikoetan, apika.

Izenondo gure adibidean ‘izengoiti’-ren parekoa da, baina gramatika (EGLU-lab.-ean esate baterako), eta hiztegi askotan (*Hiztegi batua*-n, Ibon Sarasolaren *Euskal Hiztegi*-an, Interneten kontsulta daitezkeen hainbatetan), adjektibo-mota bat izendatzeko erabiltzen da, corpusean atera ez zaigun *aditzondo*, adberbio mota bat izendatzeko erabiltzen den bezalaxe.

Mugakizun honen baliokidea, bizkaierazko *oste* da. *Atze* eta *gibel* ere izan daitezke pareko.

II.8.2.15. OSTE

Mugatzaileak. Sail honetako gehienak bezalaxe, adibide hauetako mugatzaileak ere izen arunt, bizigabeak dira: *bazkari, belarri, eguerdi, gaixo, gogarte, jolas, urte...*

“osaba Bartelen ereinotzpeko hitzek gupida gabe mailukatzen zioten *belarri* ostea” (HE39,67).

“Naparroa-ardao guzurbakoak gorputza dauko ta indarra; *gaiso*-oste baten sendotuteko da osagarri bakarra: naibagak bere kenduten dituz ardaoak, izanik zarra” (EJ70,79).

“burura ez gordeteak inos iolasetan eukiten nendun makal *iolas*-osteetan” (EJ70,340).

Euskalkien banaketak badu ikuskizuna mugakizun hau hautatzean: bizkaierazko testuetan ageri da batez ere *oste*. Gainerako euskalkietan errazago jotzen da arestian ikusiriko *ondo*-ra edo besteren batera: *atze, gibel...*

Adierari dagokionez, bai tokia (*belarri-oste...*), bai denbora (*bazkaloste, eguerdi-oste...*) adieraz ditzake. Ikus daitezkeen bezala, hemengo hitz askok beste mugakizun batez baliatutako hitza kide dute, dagozkien sailetan ikusi bezala¹⁸².

Bestalde, *oste*-k beste adiera-erabilera batzuk ere baditu: erantzun moduan edo, hitza errepikatuaz. Ikus ondoko Mogelen adibidea:

“¿Cer urte ta cer *urte* oste? Urten eguizu aimbat lasterren onelango echeti” (HE20,71).

Gogora dezagun, azkenik, ekialdeko euskalkietan badela beste *oste* bat —izena hau ere—, baina hitz elkartuko osagaia denean batik bat izen bizidunak mugatzaile izaten dituela: *talde, multzo*-ren parekoa da (*gudaloste, jende-oste, bekatu-oste...*), “Multzo-elkarteetan” (II.2) ikusi dugun bezala.

¹⁸² Erka, esate baterako, hemengo *gaixo-oste* eta lehengo *minondo*, edo *afaloste, bazkaloste* eta *afalondo, bazkalondo*, denbora dela bitarte; eta, tokia dela eta, hemengo *belarri-oste* eta lehengo *belarri-gibel, belarrondo*, esate baterako.

II.8.2.16. (T)ARTE

Sail honetako gainerako mugakizunekin ikusi dugun bezala, izen arrunt bizigabeak dira mugatzaileak; gehienak konkretuak: *ate, baso, baso eta harkaitz, barrera, begi, beso, bide, egun, erreka, esku, gogo, hanka, harkaitz, huts, hutsune, laino, lan, mendi, sasi, txaraka...* Errepara mugatzaileetako bat bi izen juntatuk osatzen dutela: *baso eta harkaitz*.

Izen bizidunak ere baditugu, nahiz horrelako mugatzaileak ez izan ohikoak sail honetako mugakizunekin: *gizon, jende, lagun, seni(de)...*

Adjektibo mugatzailea ere badugu: *huts*. Mugatzaileen artean ohiko kategoria ez izan arren, beste zenbait mugakizunekin ere ikusi dugu (ikus, esaterako, *bide* (. II.7.2.2), *alde* (II.8.2.3).

Gaur ihartutzat hartuko genituzke: *atarate, begitarte, eguarte, eskuarte, gogarte*¹⁸³, *senitarte...*

“arin-arin sartu eban errotako *atartera*” (HE21,95).

“ondo gomuta dot, biok alkarregaz ioan ginean urrira urrengo egunean, eskolako *atarteragino*” (EI99,166).

“guk, *baso-tarte* aietan, oso xamurki egiten genduan sukaldea” (EJ49,32).

“etsaiari berriz ere *baso eta arkaitz-tarte* aietan arpegi emateko asmotan” (EJ49,143).

“txapel oker bat *begitarte* gaizto batekin hurrantzen zaitadanean” (HE58,84).

“Miren Eguzkiñe Azaolak eman zigun, gitarra eskuan eta edertasuna *begitarte*an, kantu berriaren zantzua” (HE51,60).

“beste olatu batek txalopea ta semea *besartetik* kendu eustazanean” (EJ59,98).

“bihurguna itzaltsu batetan, Baretus-ko mugan, landarako *bidarte* ahantzia ikus daiteke” (EJ51,71).

“Ondarribitik araño hamasei kilometroko *bide-tarte*a” (EJ03,16).

“euqui eraguingo deusut arastegui, edo *egubarte* ez chaarragua” (HE20,137).

“*Errekarte* ta mendi egal zoko katean dindilizka dagoan erri koskor bat da gure Arranondo” (EJ59,21).

“gastuei arpegia emateko, *eskuarte* mardultxoa bidali zuen Errenteriak” (HE33,71).

“Ilargiaren *eskutarte*a ezagutzen zun, noiz onerako ta noiz gaiztorako” (HE,90).

“Gizartean lotzen eta askatzen gaitu hizkuntzak” (HE27,386).

“orra emen egun bacoheraco *gogarte*, edo Meditaziño labur batzuc” (EC61,13).

“lau aldietatik bardiñak diran otzaratxo zapalak *ankarte*an arturik” (EJ59,84).

“ez du *hutsarte* hori beteko” (HE27,383).

“berak utzi zuen *utsunarte* negargarrizkoa gure aita-amentzat” (HE50,83).

“Lurrean bertze egitekorik ba nuen baina ez gauza ederrik, *jendetarte*ari, populuari aintzinapen bat eginaraziko zuen” (HE58,61).

“noizean beingo *lagunarte*ak or ez gaitu jartzen alai?” (HE25,70).

“Errezil’ko sarrera ederki ikusi genduan *laño-tarte* batean” (EJ60,78).

“seme bat bezala maitatu zuen (...) *lan-arte* edo bakantza-egun batzuez” (HE59,8).

“Zaraitzuko ibaiak Arbaiungo *mendarte*a igaro eta laster osin handi baten ertzean” (EB87,50).

“auzoak auzoen kontra, anaiak anaien aurka, e’zgan gizon edo emakumerik, ez gordeleku edo *menditarte* izkaturik” (EL70,35).

“ezetz *sasi-arte* latz auetan oñik sartu” (HE17,74).

“Gure tabardoak eta falanjisten jantziak zulo edo *sasi-tarte* batean gorde genituan” (EJ49,24).

“Bere *senitarte*an bakaldungaitan ba dauko ba” (HE21,57).

“Laster joaten zan mendizarratuko *txaraka-arte*etara” (HE31,23).

Adierari dagokionez, mugatzaile askok ‘tokia’ adierazten dute. Nolanahi dela ere, elkartu guztiok ez ditugu era berean hartzen, *arte*-ren berezitasun semantikoak direla medio.

Adieretako batean *arte*-k bi (edo gehiago) ‘zer’ lotzea ezinbestekoa du, dela denbora, dela tokia eta aniztasun hori ageri da batzuetan hitz elkartuetan. Honela, esate baterako, *besarte* “besoen artean dagoen espazioa” da, *errekarte*, “erreken artean dagoen...”, *sasi-tarte* “sasien tartean dagoen dena delakoa” eta ez “beso, erreka... bakarrean (edozein dela) dagoen (t)arte”. Gisa honetakoak ditugu *bidarte, hankarte, txaraka-arte...* Adibide horietan ikusten dugun bezala, ez dirudi *arte* eta *tarte*-ren arteko aukera garbirik dagoenik (*sasi-arte* eta *sasi-tarte*, lekuko), nahiz eta adibide gehienak *arte*-z baliatu.

¹⁸³ Corpusean jaso ez dugun *astearte* ere hemen kokatzekoa bide litzateke.

Bestetik, berriz, beharbada joera orokorra ez bada ere, ematen du banaketa-modu bat dagoela ezkerreko osagaiaren arabera: -a + *arte* (*errekarte*), -o + -*arte* (*besarte*), -i + *arte/tarte*. Ematen du hitz-elkarketan ohikoa den bezala, ez dela batere zaila hots-aldaketarik gabekoak ere aurkitzea: *basarte* ‘zona boscosa, interior del bosque’ eta *baso arte*.

Beste batzuetan, berriz, *arte*-k ‘jomuga’, ‘helmuga’, ‘burua’ edo adierazten bide du, bai tokia bai denbora direla bide. Adibidez, *bide-tarte* hemen “bideak hartzen duen luzera”, “bidea osatzen duen distantzia”... da:

“Ondarribitik araña hamasei kilometroko *bide-tartea*” (EJ03,16).

Hurrengo, berriz, “bideen, arteko dena delakoa” da:

“bihurguna itzaltsu batetan, Baretus-ko mugan, landarako *bidarte* ahantzia ikus daiteke” (EJ51,71).

Atarte ere, ihartua bada ere, *arte*-ren adiera honen arabera hartzen dugu: “ate arterainoko tokia” edo; alegia, batez ere denbora adierazteko darabilgunaren (NORAINO-ren parekoa litzatekeenaren) parean. Alde honetatik, *atarte*-k denbora adierazten dutenen kidea dela dirudi, *egubarte*, *lan-arte*-k duten aditzeko modu bera bide du-eta. Hau da, “eguna arteko denbora”, “lana (hasi) arteko denbora”, nahiz eta bigarren hau beste era honetara ere uler daitekeen “lanetik lanera, lanean aritzeen artean dagoen denbora”.

Baina beste batzuetan ez dugu ulertzen ‘zer’ bat baino gehiago jartzen ari garela harremanetan; ‘zer’ bakarra (baina, ohi denez, generikoa) adierazten du mugatzaileak eta hor zuloa, zirrikitua edo dagoela adierazten dugu. Adiera hau erdiesteko mugatzaileak nolabaiteko ‘gorputza’, ‘hutsunea’, ‘zirrikitua’ egin ahal izateko adinako ezaugarriak izan beharko dituela dirudi. Esate baterako, nekez adieraziko dugu halakorik mugatzailea biziduna izanik (erka **gizon (t)arte* eta *gizarte* edo **lagun (t)arte* eta *lagunarte*...). Adiera honetarako, egun *tarte* aldaera gehiagotan erabiltzen dugu herskari gabea baino. Adibideetako *baso-tarte*, *baso eta harkaitz-tarte*, *laino-tarte*, *menditarte*¹⁸⁴... aipatu dugun moduan uler daitezke: “basoan, lainoan, mendian... dagoen zuriunea” edo.

Arrunt izen abstraktu gutxi dira. Aipatuko dugun *gogarte* ihartua alde batera utzita, *hutsarte* eta aski kidea duen *hutsunarte* ditugu. Berriz ere badirudi adjektiboa dela mugakizuna, lehen *hutsune*-z aritu garenean esan dugun bezala¹⁸⁵. (II.7.2.6). Bestetik, adieraren kontua ere badugu: lehen kolpean erredundante samarra dirudi, ez baitago alde handirik *huts*-en (eta zer esanik ez *hutsune*-ren) eta *hutsarte*, *hutsune*-ren artean¹⁸⁶. *Arte*-k, hemen, bai denboraren bai tokiaren adiera har ditzake “norbaitek utzi duen toki / denbora hutsa” edo.

Mugatzaile biziduna gutxik dute eta, gainera, badirudi ezinbestekoa dutela aniztasuna adieraztea, arestian esan dugunaren ildotik: *gizarte*, *jendetarte*, *lagunarte*, *senitarte*... ezin uler ditzakegu “gizakiengan, jendearengan, lagun(ar)engan dagoen (t)artea...”, baina ezta mugatzaile bizigabeez ari ginela eman ditugun adierak ere (*“jendeen bitartean dagoen

¹⁸⁴ Erka daiteke *mendarte*-rekin, hau “mendi arteko lekua” da.

¹⁸⁵ Itxura batean, badirudi *alde*, *arte*, *une*... mugakizunekin ez dela hain ez-ohikoa adjektibo kategoriako mugatzailea aurkitzea.

¹⁸⁶ Baina, era berean, egia da *hutsarte*-k errazago onartzen duela sintagma mugatuetako osagaia izatea *huts*-ek baino, batez ere neurri-sintagmetan: “toki batetik bestera bost metroko hutsarte / ?hutsa utzi”, “bi minutuko hutsarte, hutsunea / ?hutsa izan”.

distantzia”, “lagunetik lagunera dagoen espazioa”...). Hitz hauek ez dute ez tokirik ez denborarik adierazten, morfologikoki singularrak izanagatik, zentzu plurala hartzen dute: jende, lagun, senide multzoa... Alde honetatik begiratuta, gertuago daude multzo-elkarteetatik (II.2) hemen ikusi ditugun adibideetatik baino.

Hitz elkartuon esanahiaz esan ditugunek ez dute ihartuen azalpenerako balio, ez dira-eta erabat gardenak: *atarte* (‘ataria’, ‘atalaurrea’), *begitarte* (‘aurpegi(era)’)¹⁸⁷, *eguarte* (‘eguerdi arteko denbora-tartea’)¹⁸⁸, *eskuarte* (‘baliabidea’, ‘ondasuna’...), *eskutarte* (‘eskua’, ‘eragina’)¹⁸⁹, *gogarte* (‘gogoeta’)¹⁹⁰...

II.8.3. Mugatzaileen gramatika-kategoria

Hitz elkartu hauen mugatzaile ia guztiak izen arruntak, bizigabeak eta konkretuak dira. Kasuan-kasuan jaso ditugu orotariko joera honetatik saihesten direnak.

Bestalde, aipagarria da izen berezi bat edo beste ere atera zaigula mugatzailearen tokian (*alde*, *pe*, *gain* mugakizunen ezkerretara batez ere), mendekotasunezko hitz-elkarketan batere ohikoa ez dena. Guztiarekin ere, maizago gertatu bide da mugatzailea izen arrunta izanik, elkartu ondoren izen elkartu osoa toponimiara nahiz onomastikara igarotzea¹⁹¹

II.8.4. Osagaien arteko erlazio semantikoak

Esaten joan garen bezala, mugakizun hauen adiera zabala dela medio, ez dugu mendekotasunezko hitz elkartu arruntetan izan ohi dugun harreman semantikoen aukera eta ugaria.

Azaltzen joan garen adibide bereziak alde batera utzita, oro har, mugatzaileak adierazten duena espazioan (‘non’) edo denboran (‘noiz’) kokatzea du eginkizun mugakizunak; alde honetatik begiratuta ‘edukia’ harremanaz hitz egin daiteke, zabal hartuta. Hori dela medio, ulertzekoa da eskuarki mugatzailea izen konkretua izatea, nonbait edo noizbait koka daitekeen zerbait izatea, alegia.

II.8.5. Emankortasuna

Sarreran genioen bezala, alde handia dago mugakizunetik mugakizunera. Ikusi dugu mugakizun batzuek oso adibide gutxi zituztela (*aitzin*, *albo*, *atze*, *gibel*, *oste*); beste batzuek, aldiz, ugari (*alde*, (*t*)*arte*, *aurre*, *gain*, *ondo*...).

Joerak oso nabarmenak dira euskalkiak direla eta bikote edo hirukoteak lehian ditugunean: *aurre*-k hartu dio tokia *aitzin*-i; *alde*-k, *albo*-ri; *ondo*-k, *oste*-ri, *barru*-k *barne* eta *barren*-i...

Baina, xehetasunak xehetasun, egitura-mota hau estandarrean bederen aski erabiltzen dela dirudi.

¹⁸⁷ Corpusean ez zetorren beste adiera bat ere badu hitz honek: ‘harrera’.

¹⁸⁸ Honek ere bai, ‘arratsaldea’.

¹⁸⁹ Gure corpusean mugakizunaren bi aldaerek adiera desberdineko hitzak gauzatu badituzte ere, OEHN biak, zeinek bere adiera duela, hiztegi-sarrera berean sartu dituzte; *eskuarte*-n, hain zuzen ere.

¹⁹⁰ OEHN *gogarta*, *gogarte* dator. “Propósito de hacer algo” (Lar.). Zein ote osagaiak: *gogo* + *arte* ala *gogo* + *arta* (*arreta*)?

¹⁹¹ Argibideak: Mitxelena (1953; FHV; 1971...).

Hala ere, ez genuke atzendu beharko lekua edo denbora adierazi nahi ditugunean, euskaraz, apika errazago jotzen dugula postposizioetara elkarketara baino; bestela esan, itxura batean badirudi hiztunak eskurago duela postposizioen egitura, elkarketak baino murriztapen gutxiago ditu eta.

II.8.6. Idazkera

Euskaltzaindiak ez zuen berariazko araurik eman *hitzaurre* modukoez, hitz elkartuen osaera eta idazkera arautu zituenean. Beraz, ez dugu berariazko araurik aurkitu *Hitz-Elkarketa/4* lanean ere (**H-E/4: 95-97 / 81-83**). Hortaz, pentsatzekoa da gainerako *Eguzki-lore* motakoei dagokien bera dagokiela hauei ere: bereiz nahiz marratxoz loturik idatzi, salbuespenak salbuespen (*hitzaurre* bera, esate baterako).

Nolanahi dela ere, adibideen idazmoldeari erreparatzen badiegu, ohartuko gara guztiak edo bat eginik (*begitarte, hutsarte, betaurre, dantzaurre, hitzaurre, lepagain, mingain, afalondo, bihotzondo...* eta *be/pe* osagaia duten guztiak: *aterpe, barrunbe, ilunbe, zubipe...*), edo marratxoz lotuta (*etxe-aitzin, etxe-atze, pago-atze, aldare-aurre, etxe-aurre, gerra-aurre, beso-azpi, bihotz-barne, esne-gain, mendi-gibel, bular-inguru, etxe-ondo, gerra-ondo, belarri-oste, guda-oste...*) jaso genituela.

Guztiarekin ere, ez dugu atzendu behar postposizioentzat emandako idaztaraua; hots, bereiz idaztekoak direla. Eta, ildo beretik, amaitzeko gogora dezagun orduan esana:

-pe(ko)-dunetan izan ezik, forma markatuak dira, oro har, idazkera baterabildu horiek: auzo-erdara nagusien *international, interstate, preschool* moduko “hitz bakarren” eredura sortuak agian. Kasu horietan ere posible da, ihartze-fenomenoa tartean ez dagoenean, markatu gabeko idazkera erabiltzea: *nazio arteko (lehiaketa), hil ondoko (berriak)*¹⁹². (**H-E/4: 97 / 83**).

¹⁹² Errepara batez ere adjektiboen ordainak aipatzen direla hor.

III. MUGATZAILE BEREZIKO IZEN-ELKARTEAK
***AURREPROIEKTU* MODUKOAK**

III.1. Sarrera

Aurreko atal nagusian (II) luze aritu gara mugakizun bereziez. Orain, berriz, mugatzaileak dira bereziak.

H-E/4 lanean bi multzotan bereizita daude mendekotasunezko hitz elkartu arruntek ez bezalako mugatzailea, mugatzaile berezia dutenak (H-E/4, 11.3: 94-95 / 80-81): “*Aurreproiektu* modukoak” eta “*Elkarlan* modukoak”. Baina bi multzook bereziak izanagatik ez dira gisa berekoak: lehen mugatzaileek lekua edo/eta denbora adierazten duten izenak dira; bigarrenak, berriz, izen kategoriakoak ez diren *elkar* eta *kontra* dira.

Liburu honen hasierako argibideetan esan dugun bezala (“**Sarrera gisa**”), harrigarri samarra gerta zitekeen “izena + izena” osaera duten elkartuak aztergai dituen lan batean halakoak ez direnak berariaz jorratzea.

Bestetik, berriz, elkarketaren eremutik haratago jo behar bide da *elkar* bezalako izenorde elkarkari bat (EGLU-lab: 68-70) edo *kontra* bezalako postposizioa (EGLU-lab: 498-502) ezkerreko osagai duten eraikuntzak argitzeko.

Azkenik, ez da baztertu behar eredu horren arabera eratu ditugun hitz asko erdal aurrizkidun hitzen bati irtenbidea eman nahian egin dugula areago euskal bideetatik abiatuta baino.

Beraz, arrazoi horiek guztiek garamatzate *elkarlan*, *kontrazal* gisakoak hemen ez baina beste nonbait lantzeko uztera.

Aurreproiektu motako elkarteei dagokienez, berriz, *hitzaurre* moduko elkartuetako mugakizun ezan duguna errepikatu beharko genuke, baina orain eskuineko osagaiaren orde ezkerrekoaz ari garela zehaztuta, hizpidean ditugun hauek berriz ere leku-izenak baitira.

Osagaiak lehengo berak izanik ere, hitz elkartuko ezkerreko (eta ez eskuineko) osagaia izateak eta askotan erdal izen aurrizkidunaren ordain izateko sortua izateak eztabaidagai bihurtu izan ditu era horretako hitz asko. Gainera, ezin dugu ahantzi mota honetako hitz elkartuak, inola ere berriak ez izanik ere, asko ugaritu direla azken urteotan; aski sistematikoki ugaritu ere.

Inguruko erdaretan oso maiz eta oso erraz jo dezakete eta jotzen dute aurrizki-bidera. Euskaraz, berriz, ez daukagu pareko biderik. Mitxelena¹⁹³ argi adierazi zuen bezala,

¹⁹³ Beste lekukotasun batzuen artean, hona hauek: “Merece señalarse que la lengua vasca, donde la composición —de tipo muy poco románico— sigue siendo hoy un procedimiento muy productivo, no ha conseguido hacerse con un sistema de prefijos. No se descubren más que conatos aislados, que sólo en algún caso (*des-* alternando con *ez-*, la partícula negativa vasca, en *desegin* ‘deshacer’, *des-* / *ezberdin* ‘desigual’, etc., *mes-* en algunos dialectos) ha llegado a tener vitalidad. (Mitxelena 1974, PT: 216).

“Tales preverbios [*ac-*, *con-*, *de-*, *ex-*, *in-*, *per-*, *prae-*, *re-*, *sus-*] no están incluidos en ninguna lista de universales lingüísticos y ni siquiera está probado que su posesión aumente o mejore las posibilidades expresivas de un idioma. Pero el hecho es que las lenguas indoeuropeas, y basta con tener en cuenta las indoeuropeas, los tienen por herencia o por readquisición, y que constituyen un instrumento fácil para sacar cinco, diez o quince verbos de cada verbo, mientras que nuestro *ekarri* sería una raíz estéril que no da otro fruto más que el causativo *erakarri*.

Tampoco faltan estos preverbios en las lenguas kartvélicas, empezando ya por el georgiano más antiguo, y, por lo que sé, también aparecen en húngaro, por ejemplo. Hasta se podría decir, exagerando algo, que los preverbios

parekotasun falta horrek aspalditik kezka eta ezinegona sortu du euskalariengan¹⁹⁴. Baina, gaiaren garrantzia ukatu gabe ere, ezin gara hemen auzi zabalago horretan berariaz aritu, hitz-elkarketatik kanpoko besterik ere besarkatzen baitu¹⁹⁵; bai, ordea, aldian-aldian ukituko atal honetako aztergaiarekin zerikusia duen heinean.

Horrela, esate baterako, etengabe aterako zaigun galdea da zein eginkizun duen elkartuaren barrenean ezkerreko osagaiak: mugatzaileek hitz elkartuetan ohi dutena, ala bestelakoa; alegia, hitz elkartuaren burua izan ohi den mugakizuna ñabartu, zehaztu egiten duen (batez ere leku-denboretan kokatzen ote duen), edo ezkerreko osagai hori, deiktiko izendatu ohi den elementu hori ote den elkartuaren buru semantikoa eta, honenbestez, mendekotasunezko euskal hitz-elkarketa arruntetik urruntzen garen, hein batean bederen. Alegia, *historiaurre*, etab. aztertzean aurreko atalean atera zaigun kontu bera.

Era berean, argi dezagun guk beherago aztertuko ditugun adibideek ez dutela, apika, ugaritasun hori ispiatuko, gure corpusaren muga dela medio, baina ez genuke begi aurretik kendu beharko azken urteotan asko sortzen joan direla, hainbat esparrutako terminologietan batez ere¹⁹⁶.

Gure abiapuntuko sailkapenean, beraz, ondoko mugatzaileak hartuko ditugu: *aitzin*, *albo*, *aurre*, *azpi*, *barne*, *behe*, *gain*, *goi*, *kanpo* (H-E/4, 11.3.1: 94 / 80). Baina zerrenda pixka bat zabaldu dugu lan horretan bertan uzten genuen zirrikitutik aurrera eginez

Beste zenbait deixi-hitz ere honela erabili da: *artizki*, *atzerri*, *atzizki*. (H-E/4, 11.3.1: 95 / 81).

eta beste mugatzaile batzuk ere hartu ditugu aztertzeko: *arte*, *atze*, *barren*, *barru*, *bazter*, *gibel*.

Bestetik, ohartuko gara ez ditugula hemengo mugatzaile guztiak neurri berean erabili ez erabiltzen elkarketa-mota honetan; emankortasunaren edo bizitasunaren ikuspegitik alde nabarmenak daudela, alegia, batetik bestera. Esate baterako, gure adibideek erakusten dutenaren arabera, *aurre*, *azpi*, *barne* maizago erabili izan ditugu *aitzin* eta *albo* baino. Azterketan berariaz jasoko ez dugun *alde* apenas darabilgun (oso adibide gutxi ditu eta, gainera, ihartuak dira (*aldarte*, *alderdi*, *alderri*, *aldiri*...)). Ildo beretik ikusi beharko litzateke zenbateraino eragin dion estandarizazioak mugatzaile hauen emankortasunari.

III.2. Adibideen azterketa

Aurreko ataletan mugatzaileen berri zehatza eman behar izan dugu gero elkartu osoaren azalpena iristeko. Orain, berriz, mugakizunen azterketari jarri beharko diogu arreta, bereziak hemen mugatzaileak baitira.

son un elemento constitutivo de nuestra civilización, al serlo de casi todas las lenguas, grandes y pequeñas, que le sirven de vehículo. Y esa civilización solamente es nuestra porque nosotros, al menos en los niveles más altos, hemos sido y somos receptores, no creadores. Así pues, como receptores, estamos condenados a recibir, junto con ideas y productos, las formas lingüísticas a que van unidos". Mitxelena (1977a: 76).

¹⁹⁴ Nolanahi dela ere, eta iragaitzaz bada ere, Mitxelena (1968, 1977a), Amuriza (1974), Villasante (1974), Mujika (1978, 1982), Irigoyen (1979), Irazola (1985), Butron; de Pedro; Olanga (1986), Azkarate (1991, 1992), Perez Gaztelu (1995a, 1995b, 1998, 2004, 2010, 2012) eta LEF batzordeko lan argitaragabeak aipatu beharrak dira, besteak beste.

¹⁹⁵ Esate baterako, mailegatzea bera ez aipatzearen, eratorbidea, atal honetan ikusiko ez ditugun beste hitz elkartu mota batzuk, eta sintaxi-egiturak izan daitezke hainbat erdal aurizkiren euskal ordainak. Adibidez: *inacceptable* = *onartezin*, *embarcar* = *ontziratu*, *internacional* = *nazioarteko*, *extraordinario* = *ohiz kanpoko*...

¹⁹⁶ XX. mendeko corpusari begiratu bat ematea besterik ez dago horretaz ohartzeko.

III.2.1. AITZIN

Mugakizunak izen bizigabeak dira gehienak: *alde, egun, lan, solas...* Baina izen bizidunak ere badaude, bakanagoak gure corpusean: *gidari, kelta...*

“Eta pena hark, gerok geure borondatez hartzen dugunak, eramaiten dio aitzin *aldea* bertze penari, bertzek emaiten derakunari, pazientki errezibitua izanagatik ere” (HE11,105).

“Egunez ari garelarik, beraz, gauza bat da bezperan, aitzin *egunean*, nahiago baduzue, Oihenartek dioenez, egun hartan, biharamunean eta bestea, arras bestea, atzo” (HE27,100).

“dardara berrien aitzin-*gidari* datozen trumoi hots ilunak” (HE27,334).

“Euskaldunek zutela delako hitza kelten eta Aitzin-*Kelten* ganik jaso” (HE30,215).

“Euskaltzaindiak 1968.ean Arantzazuko biltzarreetan agertu zuen bere jokabidea, egin zitekeen batasunaren aitzin *lan bezala*” (HE27,42).

“Larregiren lana aitzin-*solhasean* aiphatzen derauku” (HE26,275).

“eskaera horri erantzun beharrez, aintzin *solasa* edo hitzaurre au idatzi dut” (EJ04,13).

Mugatzaile honek bi aldaera nagusi izan ditu kategoria (izena) eta adiera (‘aurre’) bera dituztela: *aitzin* eta *aintzin*.

Adibideon ulertzeko modua dela eta, berriz, itxura guztien arabera, aipatu eta aipatuko dugun adiera ugaritasuna dugula dirudi.

Ia denek “aitzinean, aurrean dagoen edo doan dena delakoa” dute parafrasia: *aitzin-gidaria*, esate baterako, “aitzinean doan *gidaria*” da. Hitz elkartuaren burua, garbi, eskuineko osagaia da, mendekotasunezko euskal hitz elkartuetan ohi denez, eta ezkerreko osagaiak zehazten, ñabartzen, kokatzen du burua: ‘aitzinean’, alegia. Bestela esan, elkartuaren erreferentea *gidaria* da eta bere ezkerreko osagaiak, modifikatzaileak, adierazten digu zein *gidari*-mota den, aitzinean doana, alegia.

Aitzinsolasa har daiteke, berriz, dudaren edo beste ulertzeko moduaren erakusgarritzat. Zer da *aitzinsolasa* “aitzinean esaten den solasa”? Ala “solasaren aurreko dena delakoa, baina bete-betean solasa ez dena”? Hau da, arestikoak bezalakoa, ala bestelakoa?

Bigarren aditzeko modua onartuz gero, elkartuaren buru semantikoa *solasa* ez dela esan beharko genuke, “solasaren aitzineko” dena delako beste zerbait baizik. (II.8.1)

Guztiarekin ere, hemen ditugun adibide gehienek, gutxi izanagatik, mugakizuna toki-denboretan kokatzen dute (non edo noiz dagoen mugatzailea, alegia) eta hau dela eta, ‘lekua’ edo ‘denbora’ harreman semantikoa gauzatzen dela esango genuke.

III.2.2. ALBO

Mugakizunak, *albo* izenaren ezkerrean aurkitu ditugun mugakizun guztiak izen bizigabeak dira: *gela, herri, probintzia...*

“albo-*errietatic* Erregueari bidera irteten zitzaizcan emacumeac” (HE45,211).

“ontan, Koxme-ren zintzur-ots minberatia albo-*gelatik*. Aida baten ondoratu zaio Terexa bi pastel ta arroskoletxe platerakin” (EJ03,52).

“Euskalerritik eta albo-*probintzietatik* Ameriketara joandakoak, aietxek, bidaltzen dituzte gauza baliotsuenak” (EL70,155).

Osagaien arteko harreman semantikoei dihoakienez, ikus daiteke mugatzaileak mugakizuna lekuan kokatzen duela, alegia, NON dagoen delako mugakizuna.

Ez du adibide askorik. Hemen sailkatu ditugu gure corpusean adibide bakarrekoa den *alderri* (*alde* izena mugatzaile duena) eta *inguru* mugatzaileaz osatutako *inguru-herri* eta *ingurune*¹⁹⁷ ere:

“beguiratu zuen Sodomara eta Gomorrara, eta *alderri* artaco lur guztira” (HE12, 17).

“inguru *errietatik* zer esanik ez dago” (HE21, 60).

“hiriaren inguru*ne* guzian ez da bertzerik ageri” (HE59, 90).

III.2.3. ARTE

Mugakizunak: *kale*, *hizki*... Izen bizigabeak.

“eta an doaz lurrera izketan egon diranak: Gurutz kaleko aterki-saltzaillea, Artekaleko zapatari bat, eta Somerako botikarioa” (HE21,71).

“imperativoan geroko formak ere baditu; hauek *-ke-* artizkia hartzen dute” (EJ80,23).

Oso adibide gutxikoa hau ere. Gure corpuseko bietatik, bata leku-izena da (*Artekale*) eta bestea hizkuntzalaritza-gramatiketako terminoa. Bi mugakizunak izen bizigabeak dira, esan bezala.

Hitz elkartuon ulertzeko modua, “[zerbaiten] artean dagoen hizkia, kalea”, da.

III.2.4. ATZE

Mugakizunak: *alde*, *esku*, *herri*, *hizki*... Izen bizigabeak dira denak.

“ipinten dabe atzealdean ondo pilloturik, eta prest dagoz berriro, bear bada” (EJ59,42).

“atzealdeak berotu etzizkigunean” (EJ62,68).

“aurrekuari lagunduteko da atzeskuen eskongea; ta atzeskuari aurrekuena barrinduteko guztia” (EJ70,71).

“izan ere, gutxi ziran naiz atzerrian naiz expetxean edo langille-batalloitan senitartekoren bat etzeukatenak” (EJ03,42).

“beste zenbaitek, -garri eta -tzale atzizkia dutenak batikbat” (EJ80,18).

Parafrasia, berriz, behin eta birritan ematen ari garena da, oro har: “atzean dagoen...”; ‘non’, ‘lekua’, hortaz.

Atzerri berezia da, ez baitugu zehatz-mehatz “atzean dagoen herria” edo ulertzen; lexikalizatutzat joko genuke.

Errepara, azkenik, *atzealde*, hitzez hitzeko adiera izateaz gain, metafora dela medio, ipurdia esateko eufemismoa ere izan daitekeela.

III.2.5. AURRE

Mugakizunak: izenak dira guztiak¹⁹⁸, bizigabeak guztiak, *mutil* izan ezik: *alde*, *baldintza*, *egun*, *esan*, *esku*, *ezpain*, *hitz*, *hizki*, *iritzi*, *kultura*, *solas*...

“aurre-*aldea* (...) lurra jota dauka; atze-*aldea* tente” (HE29,16).

¹⁹⁷ Mugakizun bereziko elkartean artean ere du *une/gune* mugakizunaz osatutako izen elkartuen artean (II.7.2.6).

¹⁹⁸ Egia da era honetan eraturako aditzen bat edo beste badagoela hiztegiatan, baina askoz gutxiago dira izenak baino. Ik. honezaz H-E/3, I.1.2.: 26-27 / 6-7; eta liburu honetan bertan (III.3).

“askok egiten dabe aurregunean (bezperan) joan ara” (HE21,27).
 “txerri-iltzekoan eta pesta-aurregunean” (HE18,16).
 “Ezin obeto deritzaigu guri “Saski-Naski”ren aurre-esanak erderaz egitea, arrotz eta eusko-erdeldunek gure berri ikasi dezaten” (HE17,61)
 “Auresku ta atzesku, bata besteen ondotik, zortzikoz agurtu” (HE18,18).
 “Artasiaren aurre-*ezpaiñean* multzokatzen da lastoa; sardea azpitik sartuz, berdintzen, narra geldituz arroa” (HE18,339).
 “Pierre Lafitte Kalonigu eta Euskaltzainak Aurre-Itzez Platon'en hirur arpegi” (HE38,309).
 “Ez dugu, *des-* eta horren antzekoren bat edo beste kenduz geroz, aurrizkirik, latineko *ad-*, *ab-*, *co(n)-*, *de-dis-*, *ex-*, eta gainerakoen indarra bihur dezakeenik” (HE27,110).
 “aurreiritiz eta mitoz hezurmamitutako aurre-kultura besterik ez da” (EI94,21).
 “aurre-mutillak ikusi eben andra bat bidea ausi eta basora sartzen” (HE21,107).
 “aurre-solasak erderaz egitearen aldeko” (HE17,61).

Arestiko mugatzaileek baino adibide gehiago ditu *aurre-k*.

Osagaien arteko harreman semantikoei begira, *aitzin*-en atalean (III.2.1) genioena errepikatu beharko genuke hemen ere. Batetik dugu ohiko ulerkerak; mugatzaileak leku-denboretan kokatzen du elkartuaren burua den mugakizuna eta honelako parafasia du: “aurrean dagoen mugakizuna; aurretik doan/jartzen den mugakizuna”. Halakoak ditugu gehienak: *aurrealde*, *aurreiritzi*... ; alegia, “aurrean dagoen aldea, iritzia; aurreko aldea, iritzia...”.

Bestelakoa bide dugu *aurrekultura*... Ez dugu uste “aurretik izan dugun kultura denik” eta bai, areago “kultura deitzen dugun dena delako horren aurreko garaia, egoera...”. Aditzeko modua hori izatekotan —buru semantikotzat *aurre* jotzekotan—, berriz ere galdetzekoa da ez ote litzatekeen egokiagoa izango “zer” hori adierazteko, *historiaurre* kidearen bidetik *kultura aurre* egitea, idazkerak idazkera.

Aurregun, berriz, bietara uler daiteke, lehenengo multzokotzat (“aurretik den eguna”) nahiz bigarren multzokotzat joz (“egun (honen) aurrekoa”)¹⁹⁹. *Aurre-hitz* ere har daiteke “aurretik esaten diren hitzak” eta “hitzen, hitz garrantzitsuen aurreko hitzak”.

Auresku ere berezi samarra da, baina hemen *esku*-ren adiera da tarteko.

Aurrealde dela eta, berriz, galde daiteke zer alde dagoen *aurre*-ren eta *aurrealde*-ren artean; noraino ez ote den errepikatzea, bi osagaiak lekua adierazten dutenak izaki.

III.2.6. AZPI

Mugakizun guztiak izenak dira; bizigabeak askoz gehiago bizidunak baino, ohi bezala. Izen bizigabeak: *egitura*, *gai*, *harri*, *jan*, *joko*, *lan*... Izen bizidunak: *asto*, *lapur*...

“Postura ontan egiten zan; lau urkulo jarri atze aldetik; aien gainean egur puerte bat; azpi-*astoa* esaten zioten ari. Aren gainean bi egur luze, azpi-*astoiari* josita” (HE29,62).
 “azpiegitura hitza adierazpenean sartzeko eskatu zuena Mitxelena jauna izan zen” (EJ56,93).
 “Ilbeltzean, iñorkin edo azpigaiak bildu, egurra bota, azkeneko simaurrak atera” (EJ62,12).
 “euskeldunak Kristau-legea bear-ainbatez yakin ezin zezatekela Ikasbide zaar lotsagarri orren azpiarriaz” (HE17,51).
 “azpijana ebillen karlista ta liberalen artean” (HE18,12).
 “honela mila azpijokuren ondotik Nafarroan kontrako iritzia jasotzen du alkatetxeen bozketan” (EJ52,21).
 “azpi-lanak berea egin du arian-arian” (EJ03,37).

¹⁹⁹ *Egunaurre* ere aldamenen du. Halako bikoteak aldizka egoteak (*hitzaurre* / *aitzinsolas*...) hiztunon zalantza ispilatzen bide du.

“Villon, ostera, alper, mozkor, jokalari, emakumezale, iruzurgille, azpi-*lapur*, ebasle, ate ta jantzi-kutxa apurtzalle” (HE28,56).

Hitzon ulertzeko era honelaxe ispila daiteke: “azpian dagoen dena delakoa”, *azpi* horren esanahia esanahi. Dela *azpi* fisikoa (*azpialde*, *azpiharri*...), dela ‘abereen ohea’ (*azpigai*), dela ‘isilekoa’, ‘izuna’ (*azpijoko*, *azpilapur*...), kasu guztietan hitz elkartu osoa metafora den (*azpiasto*, *azpiharri*...) edo ez den, ez du eraginik parafrasi moldean. Alegia, mugakizuna da hitz elkartuaren buru guztizkoa, euskal hitz-elkarteetan ohi den bezala.

Azpiegitura, apika, bitara har daiteke: “azpian datzan, dagoen egitura”, orotariko ulerkeraren ildokoa, nahiz buru semantikotzat *azpi* hartuz, “egituraren azpiko dena delakoa, baina berez egitura ez dena”. EHk ematen duen definizioa ikusita —“ageriko egiturari eusten dion oinarria, hura datzan egitura ezkutua”— badirudi lehen adieran ulertu behar dugula; alegia, *egitura* dela semantikoki burua.

Corpusean ez genuen *azpigarapen*-en modukoak aipatuko ditugu ezin ditugulako jasotakoan era berean aditu: ez du “azpian egiten den garapena”, “azpitik garatzen dena” edo antzeko zerbait adierazten, “garapenera ere iristen ez dena, garapen mailaren azpian dagoena”, gradua, maila baizik²⁰⁰.

Era berean, corpusean ez zeuden *azpibatzerde*, *azpimultzo* bezalakoak hartzen baditugu, bestalde, “osotasun baten zatia”, “osotasunak duen ezaugarri bera duena baina txikiagoa, maila apalagokoa... den dena delakoa” ulertuko genuke; nolabaiteko hierarkiazioa, alegia²⁰¹. Alde honetatik bereizketa argi samarra egin daiteke tradizioko *azpi-asto* edo *azpi-lan* moduko adibideen eta azken urteetan erdal *sub*- edo *infra*- aurizkien ordain sortu ditugun ‘*azpi* + izena’ osaeren artean (*azpiatal*, *azpi-multzo*, etab.).

III.2.7. **BARNE, BARREN, BARRU**

Aurreko kapituluan, mugakizun diren egituretan egin bezala (II.8.2.7) hemen ere batera aztertuko ditugu hiru mugatzaileak.

BARNE

Mugakizunak izen bizigabeak dira ia denak: *araudi*, *asmo*, *atsekabe*, *bakarrizketa*, *bake*, *baratze*, *bide*, *bihotz*, *bizitza*, *egitura*, *gerra*, *giro*, *indar*, *jardunaldi*, *kutsu*, *lur*, *maratila*, *min*, *muin*, *tirain*, *zentsura*, *zirrara*... Izen bizidun bakarra dugu: *gizon*.

“barne-*araudi* bat ere egina dugu” (EI94,33).

“leengo alaitasuna barne-*pake* biurtu zait” (HE34,64).

“barne-*bakarrizketa*, Joicek lantzen duena eta zeinaz usatzen baidu maisuki Camus-ek *La chute*-en” (HE35,8).

“ba du behintzat barne-*bide* onek norbere begitazioetan eta norberari begiko zaizkion usteetan erortzeko perilla” (EC70,74).

“barne-*bihotzez* jarreikiren zaie nik orain erranen ditudan hitzei” (HE02,38).

“Jesusen siñeste gabe, barne *bizitza* gabe” (EC70,14).

“barne-*egituraz* Euskal Herriko parrokiako ardi-talde ona eta sineskorra baizik ez gara” (EJ51,85).

“Gironda-ko gudu hau beraz, Frantziako barne-*gerlako* pasadizu bat izan zen” (HE33,85).

²⁰⁰ Aurizki erromantzeetan oso bizirik dagoen adiera da mailakatzea, graduatzea: *sobredosis*, *subdesarrollo*... Ik. Turon-en (2004) azterketa.

²⁰¹ Alegia, SUB-, INFRA- erdal aurizkiek duten balioetako bat.

“Bataioaz zuzen egin izan aintzin gizona zatikatua da: alde batetik barne *gizona* edo gizonaren nahia edo adimendua, bestetik gizonaren haragia” (EJ71,30).

“Foruko Euskaltzaindiaren barne-*jardunaldietan* bigarren bat gehitzea erabaki zen” (EJ56,103).

“yorratzen asi ari nere barne-*lurra* / (...) Nere barne-*baratzan* datorrela gora” (EJ50,11).

“ongi daki onek anderekerien berri; ezagutzen ditu baita emakumezkoen barne-*maratillak*” (EJ03,46).

“sorlekuko barne-*muinetan* sartzeko gogo bizi bizi bat erne zitzaidan” (HE33,3).

“Esperantza zen lehen udaberria, barne-*tiraina*; urteotan barrena, berriz, histu egin da nigan, loratu gabe zimeldu, barne-*tiraina* kanpoko haize bala epel bilakatu” (EJ51,91).

“gure arteko barne-*zentsurak* egin ohi dituen inausketen itzalik gabe” (HE33,XXVII).

“Artan, Garazik burua itzuli / barne-*zirrara* aundirekin” (HE18,73).

BARREN

Mugakizunak: *azkura, ertz, irakite, isuri, izerdi, kale, mugida, ostots...* Izen bizigabeak guztiak. *Barrenkale* elkartea leku-izena dugu.

“olerkari etzeratenok gure barren-*azkure* ontaz zerbait uler aal-dezazuten” (HE17,28).

“berriro be beste era batean etorteko gogoaz urtetan dogu, Extremadurako bideruntza, Gredosetako Atx-gangar ikaragarrien barren-*ertzetatik* ziar” (HE31,71).

“Eta izenari baino izanari lotuago ageri den mintzabehar horrek, barren-*irakite* horrek, uzta joria sor dezake” (HE27,141).

“Ara or Josefa Olite, Bidebarrietako alargun aberatsa: orrek be, Barren-*kaleko* zigarro saltzallea zanean, ezeieban gura senartzat Eguren Indianoa; baña eztau orañ damu bere gurasoen escondeari jarraitua” (EI99, 161).

“Ez lirake berehalakoan agortuko ez ahituko hori irakurtzeak sortzen dituen gogoetak eta barren-*mugidak*” (HE27,334).

“Baña —legea lege— berak dun maitatxi, / barren-*ostots* ixillaz, ekarri besteri” (HE18,23).

BARRU

Mugakizunak: izen bizigabeak dira gure adibidetegikoak: *alde, ikara, irakin, kisketa...* Ihartutzat hartuko genuke gaur: *barrunbe*.

“Alde batetik bestera igaro-nairik zebilela, barru-*aldera* egin naian, burni batetik esegita balia eziñik gelditu zan” (HE57,73).

“Biak pertsona bakar baten *barrunbean* kokatzen badira, ez dago ez bakerik ez osasunik gizon asko ero-etxera eramán dituen bide batean baizik” (HE27,262).

“ez barru-*irakinaren* erdi-beharrez, inoizko behin ‘esta la vena (poética) madura’ badio ere” (EJ00,185).

“Asi, asi! Orrelako barru-*ikara*-gose bai-nazu, Moris jauna” (HE57,110).

“Cembait dei, ate-joca, barru-*quisquetac*, eta argui ni irazartutecol!” (EC61,56).

Ikusi dugunez, guztiek dituzte izen bizigabeak mugakizunaren tokian, baina, hala izanik ere, hitz elkartu osoaren kanpoko erreferentea sentimendua edo denean, hitz elkartu horrek adierazten duena “sentitzen”, “bizitzen”, “jasaten”... duena gizakumea edo gizakumearen modura erabilitako zer bizigaberen bat da, oro har. Bestela esan, *barne-indar, barren-ostots* edo *barrun-irakin* dioena egia da indarraz, ostotsaz edo irakinaz ari dela, baina horiek denak gizakume bati dagozkio.

Barne-gizon da mugakizun bizigabea ez duen bakarra, baina testu horretan bertan lehentxeago *barneko gizon* darabilte. Argi dagoena da “gizonaren barneaz, nahiaz, adimenduaz...” ari direla, haragiari kontrajarririk. Osagaien hurrenkera dela eta, berriz ere, duda egin daiteke noraino ez ote litzatekeen egokiagoa izango osagaiak atzekoz aurrera ematea: *gizon-barne*, alegia.

Osagaien arteko harreman semantikoei dagokienez, ikus daiteke era bakarrekoak ez direla, edo gutxienez, guztiak era bakarrean biltzea ez dela, beharbada, guztiz egokia. Honela, bada,

batzuetan atal honetako adiera nagusia aurkituko dugu, ‘tokia’ (I.5.9), alegia: *barne-bihotz*, *barne bizitza*, “barnean / barrenean / barruan dagoen...”; bestetan, ordea, ez da horren argi ikusten mugatzailearen eginkizunik garrantzikoena mugakizuna toki-denboretan kokatzea denik. Esate baterako, gizakumearen sentimenak, nahiak, gogo... adierazten dituzten mugakizunekin doazenean: *barne-atsekabe*, *barren azkura*, *barne bake*, *barne indar*, *barne mi*,..., apika, nonbait kokatze hutsa baino areago bestelako harreman semantikoa da nagusi: “barnetik datorren, barneak sortzen duen...” edo honen antzeko zerbait; hots, ‘iturburua’ (I.5.1) harremana. Ildo beretik, *barren-mugida*, *barren-irakite*, *barru-irakin*, seguruenik, “barrenean / barruan gertatzen den mugida / irakitea” baino areago, “barrenak / barruak jasaten duen mugida / irakitea”, “barrena / barrua mugitzea / irakitea”, ‘jasailea’ edo ulertuko genuke²⁰².

Bestetik, berriz, aipatzekoak dira: *barne araudi*, *barne egitura*, *barne gerra*, *barne jardunaldi*... bezalakoak, itxura guztien arabera, berriagoak direnak.

Egia bada ere, oro har eta gure aztergaiaren bederen, gizakumeaz kanpoko “barrena” gutxitan daukagula hitz elkartuko mugatzailearen tokian (sintagmetara jo nahiago dugulako, antza), badaude adibide aspaldi samarrekoak: *barrenkale* leku-izena ez da gaurkoa, *barrukisketa* ere Añibarrorena da. Baina mugakizunok, konketuak izateaz gain izaera fisikoa dute, “nonbait” koka daitezke. Eta hala ez direnean ere hitz elkartu osoa gizakumeaz aritzeko erabiltzen da (*barne-lur*, *barne-baratze*...).

Hizpidean ditugun *barne araudi*, *barne egitura*... bezalakoan erreferentzia, berriz, ez da gizakumea. Harreman semantikoa ere, batzuetan ‘tokia’ (I.5.9) dela ukatu gabe ere (*barne egitura*, *barne gerla*...), bestetan ez dirudi horren gardena denik. *Barne-araudi* edo *barne-jardunaldi*, esate baterako, noraino ulertzen ditugu orain arte aipatutako harremanen arabera? Egia da “barnean egiten den araudia / jardunaldia” dela, eta alde horretatik orain arte ikusitako gainerakoekin batean uler daitezkeela, baina hitz elkartuon adiera nagusia haratago doala dirudi. Hots, *araudia*, *jardunaldia*... nonahi egiten delarik ere, “erakunde edo talde jakin bateko jendearentzat edo jendeak eta ez talde horretatik kanpokoek egiten duen araudia, jardunaldia...” edo ulertuko genuke. Hau dela eta, beharbada, ‘helburua’ (I.5.10) erlazio semantikoaz hitz egitea egokiagoa litzateke.

Barne, *barren*, *barru* aldaerei dagokienez, gure corpusaren arabera adibiderik gehien dituen *barne* da, gutxiago ditu *barren*-ek eta gutxienak *barru*-k. Baina, oro har, azken biok dira, hain zuzen ere, batik bat gizakumearen “barrena” adierazteko, nonbait kokatze hutsa ez denerako, nolabait esan, maizenik erabili direnak.

Azkenik aipatu ditugun *barne-araudi* eta gisakoek ez dute ordainik beste bi mugatzaileetan; alegia gure corpusean ez dugu *barren-jardunaldi* edo *barru-gerra* bezalakorik ikusi²⁰³.

²⁰² Ohargarria da mugakizuna aditzetik eratorritako izena izatea, edo aditz baten ekintzari lotua; horrek azal dezake aditzaren argumentuei dagokien ‘jasailea’ errol tematikoa egokia izatea.

²⁰³ *Euskalterm* kontsulta daiteke eta agudo ikusi *barne*-ren erabateko nagusitasuna eta beste bi aldaeren lekuko falta. Euskara batuan hitz berriak sortzean *barne* bultzatu da, eta nagusitu, eta beste biak baztertu: *barne-ekipamendu*, *barne-zola*, *barne auditorretza*, *barne-eragiketa*, *barne-estaldura*, *Barne Geodinamika*, *barne-administrazio*, *barne-agertoki*, *barne-aire*, *barne-analisi*, *barne-argi*, *barne-araudi*, *barne-diseinu*, *barne-energia*, etab.

III.2.8. BAZTER

Mugakizunak: *alde, egur, etxe, euskalki, herri, leku, oihal, solas...* Izen bizigabeak²⁰⁴.

“Israeldarrei, Egiptotik atera, ta beren bazter-*aldera* zijoazenean, adirazi zien Moisesek, Jaunari, beraren manuz” (HE13,46).

“subil naiz ‘bazar-*egur*’ naiz ‘enbor’, bat dena etxe bakoitzetara bina dakartena” (HE18,127).

“Luzaideko bazter *etxe* baten izena dugu ‘Bordelia’” (EJ65,19).

“bazter *euskalkia* delako bertakoa” (HE27,380).

“gurea bezalako bazter *herri* bateko jendea” (HE27,340).

“eztot uste baztar-*lekurik* itxi dodanik ikusi ta galdetu barik” (HE31,20).

“Orreagako baztarrak gogoratzen deustaz (...) Monet-en oial lilluragarriak (...) Matisse beraren kutunenakaitik be ez neuke truke egingo (...) *Chailly-en Bière*’rako bidean dagoan arboladoi onegaitik. Ezta, Van Gogh eta Cézanne euren bazter-*oialik* onenakaitik be ez” (HE31,64).

“albeilietzat barka ene bazter-*solas* horiek” (HE30,206).

Osagaien arteko harreman semantikoei begiratzan badiegu konturatuko gara ia kasu guztietan *bazter*-ek ‘tokia’ adierazten duela: “bazterrean dagoen egurra, etxea, euskalkia...”. Nolanahi dela ere, ez dugu begien bistatik kendu behar *bazter* mugatzaileak adiera bat baino gehiago dituela. Adierarik ohikoena gure adibideetan, “gunetik kanpokoa” bada ere, bada adiera berezia duen bat: Mendibururen *bazter-alde*, hain zuzen ere. Ez du hiztegieta jasotzen den ohiko adiera (‘baserria’, nahiz ‘lurraldea’, ‘bazterra’); *bazter* mugatzaileak hemen “erbeste, deserri, urrutiko lurraldea” adiera hartzen du, ‘baztertu’-ren adieraren ildokoa.

Erabat kanpo dagoena *bazter-oihal* da. Alegia, bere testuinguruan kokatuta, ezin uler dezakegu “bazterrean dagoen oihala” (dena dela *bazterra*). Itxura guztien arabera, hor esan nahi dena da “bazterrak (parajeak...) margotuta dituen oihala”, “paisajea”, alegia. Hau honela izango balitz, atal honetatik atera beharko litzateke eta gainerako *Behi-esne* motakoekin batean sailkatu, ‘edukia’ harreman semantikoan, “oihalak bazterra (margotuta) dauka”, “oihalean bazterra dago” edo antzeko zerbait aditzearen ondorioz.

III.2.9. BEHE

Mugakizunak izen bizigabeak dira guztiak. Izen arruntak gehienak: *alde, barru, maila, sarrera, subil...*

Baina izen bereziak ere badaude: *Nafarroa, Pirinioak...*

Ihartutzat hartuko genituzke, bestalde: *behatz, Beterri...*

“Etxearen be-*alde* erdia, artegiak artzen zuan” (HE57,94).

“Gerla-aurretik, artikuluen behe-*aldean* izengoitia edo izenordea ipintzeko ohidura arras hedaturik zegoen” (HE27,216).

“bi mallakoa da bitzta ta be-*barruan* du zurgintegia” (EJ03,22).

“Goierrian esaten estozuezan itz asko daukez *beterrikoak* eta itxasondoan ostera” (EJ59,7).

“goi eta behe *mailako* hizkuntzarik ez baldin bada” (HE27,386).

“moztu bait zuen Karlos V.ak Behe-*Nafarroa* Espainiagandik” (HE52,4).

“Behe *Piriniotako* sekzioaren parte bezala” (HE39,118).

“Bê *sarreran* bi atal, / arri-ustai mako: / bat ardi sarrera ta / beste beiendako” (HE18,323).

“au da goisubilla; beragocuan, be-*subilla*” (HE20,40).

Osagaien arteko harreman semantiko nagusia ohikoa da: mugatzaileak kokatzea ‘non’ dagoen mugakizuna. ‘Non’ horrek, ordea, lekua zein denbora adieraz dezake, gure corpusean aurkitu ez arren, azken urteetan sortu ditugun *Behi Paleozeno* edo *Behi Pliozeno* moduko

²⁰⁴ OEhk badakar Urteren *bazter-jaun*. Autore berak *bazter gizon* ere jasotzen du (Ik. Urkizu IV, 114).

elkarteetan. Orobat, ‘garai’ adieraren kontrakoa ere adieraz dezake, ihartutzat jo dugun *Beterri* izen propioan, edo *Behe Pirinio*, *Behe Nafarroa*²⁰⁵ toponimoetan.

Kide duen *azpi* arestikoarekin alderatzean ohartzen gara hemengoak askoz adibide gutxiago dituela —mugakizunaren tokian doanean ([Izena+*azpi*] eta euskararen historian gertatu denaren bestaldera— eta han aipatzen genituen osaera berriek (*azpigarapen* edo *azpibatzerde* bezalakoek) hemen tokirik ez dutela. Honenbestez, esan daitekeela dirudi mugatzailearen tokian maizago jotzen dela *azpi*-ra ([*azpi*+Izena]) hemengo *behe*-ra ([*behe*+Izena]) baino, euskara estandarrean behinik behin.

III.2.10. GAIN

Corpuseko adibideetako mugakizun guztiak izen bizigabeak dira: *alde*, *begiratu*, *ertz*, *so*, *zurikin*...

“Beraz, nahiz eta azalari, gain-*aldeari* dagokon gauza dela uste izan” (HE26,279).

“Aski da inguruetara gain-*begiratu* bat edo beste zabaltzea” (HE27,376).

“azpitik baltzez da karel ondoan edo gañertzean lerro urdin, zuri edo gorriz” (EJ59,40).

“Dugun beraz gain-*so* bat eman irlandarazko idazkuntzari lehen textuetatik gure egunetara arteo” (HE30,230).

“Bazterrera lekutzen du gain-*zurikin* latza” (HE18,60).

Osagaien arteko harreman semantikoak direla eta, adibideetako gehienek “gaineke, gainean dagoen... dena delakoa” dute parafrasia. Badira batzuk, halaz ere, ezin era honetara itzul ditzakegunak. Horrela, *gainbegiratu*, *gainso* aurreko moduan baino areago, “gainetik, azaletik... egiten den delakoa” emango genuke. Hots, berriz ere, *aurre* eta *azpi* mugatzaileei zegozkien ataletan esanak berriz esan beharko genituzke: erabilera berrien adierazle bide dira.

Azken ohar gisa esan beharko litzateke OEH eskuan hartuta, hemen aztergai ditugun eraikuntza lexikoen adibideak egon badauden arren (Larramendik urratutako bideari jarraituz), askoz ohikoagoak direla izenlagunaz (edo adizlagunaz) osaturiko sintagmak: “gaineke + izena”; “gainean, gainetik, gainera... + aditza”...

III.2.11. GIBEL

Mugakizunak: urriagoak dira *gibel* mugatzaile duten elkarteak. Guztieta, mugakizunak izen bizigabeak dira, eta horietako bat (*hego*-haize) aldi berean hitz elkartua: *alde*, *hego-haize*, *ondo*...

“Hatz badun gibel*aldean*, / ikhusiko dun zenbat naizen habila” (HE18,105).

“Arontzakoan lagun, ez aundi, / gibel-*egoaize* epela” (HE18,342).

“Etzakiat zer gibel*ondo* ukanen duen ene solasak, bainan xuxendu gogo hit, baituk beharra” (HE59,100).

Osagaien arteko harreman semantikoaz ez dago deus berririk esatekorik; ‘non’ erlazioa (I.5.9) da nagusi.

Gibelondo aipa daiteke lexikalizatutzat edo jo daitekeelako: ‘ondorioa’, ‘ondorena’.

Gure corpusean adibide gutxiago ditugu hiztegietan —OEH barne— baino.

²⁰⁵ Oroit dezagun, dena den, Euskaltzaindiak *Baxe Nafarroa* eta *Nafarroa Beherea* formak arautu dituela, eta ez *Behe Nafarroa*. Horrek berak adierazten du zein den kasu honetan *behe*-ren adiera.

III.2.12. GOI

Mugakizun guztiak izenak dira; gehienak izen bizigabeak: *alde, argi, arnasa, ate, buru, gela, herri, izen, kale, maila, subil, une...*

Baina izen bizidunak ere ager daitezke *goi* mugatzailearen eskuinean: *aingeru, errege, ikusle...*

Baita izen bereziak ere: *Amerika...*

Ihartutzat hartuko genituzke, bestalde: *Goierrri, Goizueta (Goizubieta* forma osoaren aldaera ihartua)...)

“Santu bat da. Mundua salbatzeko Jainkoak bidali digun *Goiangerua*” (EJ03,77).

“Txondorra goi *aldetik* kargatzeko” (HE29,69).

“Goi-*Ameriketako* Sarkaldeko kontu oiek” (HE57,110).

“lehenak bigarrenari alde handia daramaiolarik poesiaz eta goi *argiz*” (EJ80,10).

“Basoa, ez aritzez zirudidan osatua, baizik... *norbaitzuez*: oin-oinen gañean luze-luze egiñak, erne-indarra goi *argi-yario* artatik egarriz edaten...” (HE17,29).

“Zatozkida, goi-*arnas*, eizu nerekin lan” (HE18,13).

“berriz muxarrak sartu ditezen, / zabali du goi-*atea*” (HE18,77).

“Barrena sartu gera eta an arrapatzen ditugu geren usteko lagun batzuk, abertzaleetan goi-*buru* egiten zutenak, lasai-lasai silloi apañetan exerita” (EJ49,60).

“Garai hartan Irlandarrak errege batzuen pean zeuden: bazen “ard-ri”, hots, “goi-*errege*” zeritzaion bat Tara hiriburuan; errege bat eskualde bakoitzaren buru; bai eta errege ttipiagoak (“tuath”) edo gizeli bakoitzaren gainean” (HE30,228).

“Garoak bildu zituten, egurrak metatu, / kristau ta aberên janak goi-*gelan* atetu” (HE18,91).

“Ontzigitzarako arazoetan erregeren goi-*ikusle* zen” (HE33,99).

“jaioterriak emon eutson bere euskal-lanak izenpetuteko goi-*izena*” (HE31,58).

“Abesti au ez dakit neuk zelán dan, baiña entzuna daukot txarri, zikin, loi-sats, urde, iguingarria dala, Bilbaoko goi-*kaleetako* txarritokietan erabilten dana” (HE21,61).

“Elizanburu-ren goi-*maillik* eta euskal-kutsurik ez izanarren” (HE28,84).

“Otzaratchoff-eko goi-*uneak* asko esan gura dau gudeai antz ona emoteko alde aretan” (HE21,67).

Badugu adibide bat, itxura batean behintzat, aztertzeko bi modu onartzen dituen: Lizardiren *goi argi-yario* da. Nola aztertu behar da?

- a. goi [argi-yario]
- b. [goi argi]-yario

Horko marratxoak lehen hipotesira makurraraziko bagintu ere, bigarrenaren alde egingo genuke *goiargi* izen aski finkoan oin hartuz (*goiargi + jario*, alegia). Lizardik behin baino gehiagotan erabiltzen du; *argi-yario*-rik, berri, ez. OEHk erakusten digunez, gainera, Lizardiren garaian (eta geroago ere bai) aski hedatua zegoen hitz berria da. Horrela hartzekotan mugakizuna *argi* da. Behin elkartuta (*goiargi*), elkartu osoa beste elkartu baten (*goiargi-jario*), elkartu sintetiko baten, mugatzaile bilakatu da.

Osagaien arteko harreman semantikoak aztertuaz, berri, itxura guztien arabera “goiko + mugakizuna” da eman daitekeen ordezkoko parafasia adibide askorentzat.

Batzuetan “goian dagoena” adierazi nahi da beste gabe (*goialde, goiate, goigela, goikale, goiune*, edo *goierri* bera) eta ‘non’ (I.5.9) da harremana. *Goi-izen* izan daiteke dudakoa: “goiko izena” (“benetako izenaren goiko izena”) nahiz “izenaren goikoa” bi parafasiek, beharbada, balio izan dezaketelako. Hor daude *goitzen* eta *izengoiti* bi moldeak lekuko²⁰⁶.

²⁰⁶ Alde honetatik *aurregun / egunaurre* dakar gogora.

Bestetan, berriz, badirudi non dagoen baino areago nondik datorren dela tarteko “goitik datorrena” edo litzateke aditzeko era (*goiargi*, *goiarnasa*); hemen, beraz, ‘jatorria’, ‘iturburua’ (I.5.1) bide da harremana.

Guztiarekin ere, badira arestiko bi harremanetan nekez sartuko genituzkeenak, edo, gutxienez beste ulerkeraren bat ere onartuko luketenak. *Goi Amerika* ez dirudi “goian dagoen Amerika” denik; “Amerikaren goiko aldea”, “Amerikaren goia” baizik.

Mugakizunak izen bizidunak direnean, oro har, are nekezago egiten da eman ditugun parafrasietara jotzea: *goiaingeru*, *goierrege* edo, mugakizuna itxuraz bizigabea bada ere, bizidun bilakatua duen *goiburu*²⁰⁷ ez dira “goian dagoen aingerua / erregea / burua”, ez “goitik datorrena”, ez “aingeruaren / erregearen / buruaren goia”; “aingeru / errege lehena”, “aingeruen / erregeen / buruen goiko, goragoko gradua” edo baizik. Gure corpusean jaso ez dugun, baina OEHK jasotzen dituen *goi-ikaskuntza* eta *goi-ikastetxe* elkarteetan duen adiera bera. *Azpi* mugatzaileaz aritzean aipatu dugun hiztegietako definizioek inoiz jasotzen duten hierarkia maila, alegia.

Goi-ikusle-k, bestalde, beste azalpen semantiko bat eskakizun du, arestiko guztiek ez baitute balio, ezta “goiak ikusten dituen, goien ikuslea” sintetiko moduan ulertuta izango genukeena ere: “goitik ikusten duena” bide da. Alegia arestian *gainbegiratu*-z esan duguna berriz esan beharko genuke hemen.

III.2.13. KANPO

Mugakizunak. Izen bizigabeak: *alde*, *aldi*, *etxe*, *herri*, *lan*, *larrosa*, *zabaltasun*...

Izen bizidunak: *jende*, *zozo*...

“ero-buruñoa kanpoalderat poxi bat ateratzea” (HE59,11).

“Sabando. Haurtzaro-gaztaroak. Euskara. Kanpo *aldi*. Jesuita nahian” (EJ00,176).

“¿Baina, sequera dunagaz lò eguiten davena, ala campo-*eche* osasuntsu baten vitzi dana, leenago, ta sarriago?” (HE09,186).

“kanpo *errira* goazeneko erderaz danok ikasi” (HE25,99).

“Kanpo*jendez* beterik Luzaide” (HE31,81).

“Jaiotzetikan oituak geunden / baserri zabal batian, / kanpo-*lanian* jarraitu degu / jua diran zenbait urtian; egun batetik bestera danok / sartu gaituzte lurpian, / orain kalia bizi bearra / lau paretaren tartian” (EJ66,143).

“Ez naiz kanpo *larrosa* eta etxe kardo horietakoa” (EB87,32).

“Kanpo-*zabaltasunak* eta ibilaldiak, uretako bustialdiak eta merienda ugariak ditu gogoan ondorengo urteetan ere” (EJ00,177).

“Zu, tripaundi! Zenbat eper jango zeunkez zuk bazkari baten? / ... hogeitamaretik gora. / ... Eta zozoak? / Hemengoak ala kanpo-*zozoak*? / Bardin da. / Ba hemengoak hirurehun, laurehun... Kanpokoak bostehun baino gehiago” (HE44,22).

Ikusi bezala, mugakizun guztiak izenak dira; oso bizidun gutxi jaso ditugu gure corpusean; gizaki bakarra.

Osagaien arteko erlazio semantikoei dagokienez, lehenik eta behin gogoan behar da izan mugatzaile honek aski adiera zabala izanik ere (‘barrengo ez dena’), ñabardurak izan ditzakeela. Adierarik usuena eta zabalena lekuari dihoakiona da. Adiera honen barrutian, ñabarduretan sartuz eta zabalenetik xeheenera joz, lehenik aipatu beharrekoa ondokoa da: “zerbaiten barrenari aurrez aurre jartzen zaiona”; bestela esan, “barrena (etxea) / kanpoa”

²⁰⁷ Gure corpusekoaz ari gara. Beste *goiburu* bat ere badago, noski, ‘helburua’, ‘ikurritza’, bizidunei ez dihoakiena.

paratzen ditugu elkarren kontra: *kanpoalde*, *kanpo-lan*, *kanpolarrosa*²⁰⁸... Hauen guztien aditzeko modua: “kanpoko + mugakizuna” da, alegia, “kanpoan dagoen edo egiten den dena delakoa”. Mugatzaileak zerbait nonbait kokatzen du.

Ñabardura xeheagoa du hurrengoak: “hemengoa (sorlekua) / kanpoko (atzerria...)” dira aurkez aurke jarriak; *kanpo*-k hemen bertakoa ez dela adierazten du batik bat: *kanpo aldi*, *kanpo herri*, *kanpojende*, *kanpozozo*... Hauentzat ere goikoen antzeko parafrasia emateko eragozpen handirik ez bide dago: “kanpoko...”.

Mugakizun bizigabeak ditugunean, arestikoen parafrasia —“kanpoan dagoen...”— egokia izan daitekeela dirudi eta horren ondorioz, berriz ere, ‘non’ (I.5.9) harremanekotzat jo. Bizidunak ditugunean, aldiz, “kanpoan sortu den, kanpoko den (kanpotik etorri den)...” parafrasia egokiagoa bide litzateke. Beste modu batera esanda, *kanpojende* nekez erabiliko litzateke, beste gabe, “kanpoan dagoen jendea” adierazteko. Hau dela eta, *frantses ardo*, *atzerri hitz* edo *euskal / erdal* mugatzailea duten hitz elkartu askoren bidetik, ‘iturburua’, ‘jatorria’ (I.5.1) adieraztetik gertuago ikusten ditugu hitzok.

Badu, bestalde, *kanpo*-k beste bigarren adiera bat, aurrekoarekin hein batean lotuta egonik ere, berezia dena: “landa, zelaia, eremua, leku zabala”. Mugatzailearen adierari begiratura, *kanpoetxe*, *kanpo-zabaltasun* adibideak hemen sartzekoak lirateke, baina osagaien arteko harreman semantikoei erreparatuz gero, ezingo genituzke biak gisa berekotzat jo, ikusiko dugun bezala.

“Landan (eta ez herrian edo hirian) dagoen etxea” da *kanpoetxe*, eta, hortaz, lehen ere aipatu dugun ‘non’ bidezko parafrasia emango genioke, nahiz eta arestikoen baino adiera zehatzagoa duen mugatzaileak. Honenbestez, *mendietxe* edo *basetxe* hitz elkartuetatik gertuago ikusten dugu gainerako [*kanpo* + izena] elkartuetatik baino. Horregatik, apika, hobeto legoke *Behi-esne* arrunten multzoko ‘lekua’ harremanean hemen baino.

Kanpo-zabaltasun ere bestelakoa begitantzen zaigu. Hitz elkartu hau ezingo genuke inondik inora aurrekoak bezala itzuli, ez dago eta balio deiktikoaren arrastorik. Ez baita “kanpoan dagoen zabaltasuna”, ez “kanpoan sortu dena”, dena dela *kanpo* hori. Areago, hemen ezingo genuke “kanpoko zabaltasuna” parafrasilik eman hitz elkartu honen adierari iruzur egin gabe; garbi esan, ‘jabegoa’ harremana dugu nagusi: “kanpoaren zabaltasuna” da, “kanpoak duen zabaltasuna”, *giza askatasuna* “gizakiaren / gizonaren askatasuna” den bezalaxe. Hau dela eta, *kanpo* mugatzailea eramanagatik, beharbada adibide hau ere gainerako *Behi-esne* arruntekin batean bildu beharko litzateke.

Hori guztia gogoan hartuta, galdetzekoa da zenbateraino eusten dion bigarren *kanpo* deitu diogun honek (‘landa’...) leku-izen izateari, zenbateraino erabiltzen dugun leku-izen moduan, edo ez ote den, besterik gabe, gainerako *Behi-esne* arruntekin batean ikusi behar. Bestela esan, hitz-elkarketan duen jokamoldea ikusita, ez ote liratekeen bi *kanpo* bereizi beharko, *kanpo*₁ atal honetako leku-denborazko izenekin batean aztertzekoa, postposizio izenkidea duena (lehen adierakoa, bere ñabardurak dituela) eta bestea, *kanpo*₂ erreferentzia sendoagoko, zehatzagoko izena (bigarren adierakoa)²⁰⁹.

²⁰⁸ *Kanpolarrosa* elkarteak, dena den, balio metaforikoa du; geroxeago azalduko dugu hori.

²⁰⁹ Ez zaigu oharkabeen pasatzen iritzi honek ondorio lexikografikoak izan ditzakeela, baina hizkuntzen historian ez da arrotza adiera askoko hitz bakarra zena (polisemia) forma bereko hitz desberdinak izatera (homonimia) iristea.

Azkenerako utzi dugu *kanpolarrosa* metafora. Goiko adibideak garbi erakusten duen bezala, *etxe kardo*-ren ifrentzutzat hartua dago eta “kanpokoentzat ona, eskuzabala..., baina etxeokoentzat hala ez dena” edo adiera du, “kanpoan uso, etxean otso”-ren kide-kidea, alegia.

III.3. Mugatzaileen eta mugakizunen gramatika-kategoria

Mugatzailez mugatzaile esaten joan garen moduan, mugakizunak beti izenak dira eta ia beti bizigabeak eta konkretuak. Izen bizidunen bat edo beste atera zaigu bidera, *aitzin*, *aurre*, *azpi*, *barne*, *goi* eta *kanpo* mugatzaileen eskuinean, baina oso gutxi dira eta, nolana dela ere, ez dago proportziorik mugakizun bizidunen eta bizigabeen artean.

Izen bereziak ere, arras gutxi: *Amerika*, *Nafarroa*, *Pirinioak*. Hirurak *behe* mugatzailearen eskuinean (*goi*-renean *Amerika* ere jaso dugu).

Alegia, badirudi elkarketa-mota honetan batik bat osagai bizigabeek hartzen dutela esku. Beste kontu bat da behin elkartu ondoren hitz elkartu osoaren erreferentea bizigabea den (ohikoena) edo, metafora dela medio, bizidun bilakatu den, *aurresku* eta *kanpolarrosa* adibide bakanetan dugun bezala.

Eta antzeko kontua dugu izen berezien atalean. *Goi* eta *Behe Amerika*, *Behe Nafarroa* eta *Behe Pirinioak* mugakizun bereziak dituztenen ondoan, aipatzekoak dira elkartu ondoren “zer” bakarria izendatzeko deizio, izen berezi izatera iritsi direnak: *Barrenkale*, *Beterri*, *Goierrri*, esate baterako.

Esan bezala, eta liburu honi dagokion moduan, atal honetan jaso ditugun mugakizunak izenak dira. Zehaztapen horrek badu garrantzirik eta ondoriorik. Izan ere, izena izan ohi da atal honetako mugatzaileen mugakizuna eta ez aditza (**H-E/3: 26-27 / 6-7**):

[leku-denborazko mugatzailedunak: *aurreikus*i, *azpimarkatu*...] Adibide gutxi dira, mende honetakoak, eta badirudi lehen osagaia aditzlaguntzat har daitekeela: ‘aldez aurretik ikusi²¹⁰’, ‘azpian markatu’, ‘gainetik bihurritu/xuritu’. Ez dirudi, beraz, azken urteetan zenbait erdal aurrizki hauen bidez ordezkatzeko hedatzen ari den joerak tradizio handiegirik duenik. (...) Leku-denborazko mugatzailea duten aditz-elkarteak ere urriak direla erakutsi digu adibidetegiak, dozenerdi adibidetik gora aurkitzea nekeza da eta. Leku-denborazko mugatzaileekin elkartzen den mugakizuna izena izan ohi da (ik. *Hitz-Elkarketa II*); bestelakoak, *gain*, *goi*, *aurre*... + *aditza* erakoak nahikoa bakanak, areago gehienak mende honetakoak, dira gure literatur tradizioan²¹¹.

Eraikuntza-mota hori inoiz egiten dugula onartuta, hortaz, kontua da zehaztea zein den osagaien arteko harremana, elkarketa ulertzeko modua.

Lehen aukeran bi harreman-mota eta bi ulertzeko modu daudela ematen du:

- a) Ezkerreko osagaia eskuinekoaren modifikatzailea da, aditzlaguna da: “azpian marratu” edo da aditzeko modua.
- b) Hitz elkartu sintetikoaren gisa, *azpimarratu* ezkerreko osagaia eskuinekoaren osagarria da eta osagarri zuzenaren eginkizuna du. Aditzeko modua “azpia marratu” da.

²¹⁰ Hitzegi Batuan aditz hau jasotzen zen, “aurrez ikusi” sintagma hobetsita. Une honetan (2014ko maiatza) "aurreikus, aurreikus, aurreikusten" hobesten da.

²¹¹ Alegia, inoiz eratu izan diren ondokoaren modukoak ez dirudi euskararen orain arteko joera zabalarekin bat datozenik: *arteikus*i ‘entrevistar’, (*t*)*artejarri* ‘interponer’, *gainpasatu* ‘traspasar’, *gehieraiki* ‘sobreedificar’, *barnentzun* ‘auscultar’, *aurreburutu* ‘preconcebir’, *zeharjoan* ‘atravesar’, *gerojari* ‘aplazar’, *beheztatitu* ‘subdividir’...

Bigarren aukera honek, baina, kontra du tradizioan euskaraz ez dugula gisa horretako aditzik osatu, aditz-esapideak alde batera utzita (*hitz egin, min hartu...*), hitz elkartu sintetikoen atalean azaldu genuen bezala (**H-E/3: 47 hur. / 27 hur.**)²¹².

Honenbestez, 1. aditzeko modura jo beharko genukeela dirudi; alegia ‘azpian marratu’, ‘gainean jarri’, ‘gainean ezarri’ edo, berez *gain* izenaren adiera aldatuaz, ‘gehiegi kargatu’. Baina, berriz esan, *azpimarratu* aditzaren osaera-adierok ez bide digute balio *aitzingidari* etab. ere modu berean (1. *aitzingidatu □ aitzingidari) eratu ditugula ondorioztatzeko. Beraz, “leku-izena + aditza” elkartzea bera da, antza, euskal gramatikak oso erraz ez daukan bidea. Bestela esan, adibideek erakutsi digute euskaraz leku-denborazko mugatzaileak elkarketan darabiltzagunean izenak onartzen dituela batik bat bere eskuinean eta beste kategorietakoak adierazi behar ditugunean syntaxira jotzena dugula.

Guztiarekin ere, erdal aurrizkiei euskaraz eman zaien ordainen ikuspegitik ere hel dakioket auzi honi, dudarik gabe, ez baitugu ahantzi behar, itxura guztien arabera, terminologietan gisa honetako eraikuntzek sarbidea badutela eta terminologiek eguneroko hizkeran egun duten eragina bistakoa da, aipatu berri ditugun adibideek erakusten duten bezala.

III.4. Osagaien arteko erlazio semantikoak

Mugatzaileak direnak direla —lekua eta/edo denbora adierazten dutenak—, ulertzekoa da osagaien arteko harremanak ere, oro har, lekua edo denbora adieraztearekin zerikusia izatea. Hortaz, ‘lekua’ (NON) harremanarekin (I.5.9) egin dugu topo usuenik. Beste batzuetan ‘denbora’ (NOIZ) (I.5.8) eta ‘iturburua’ (NONDIK) (I.5.1) ere jaso ditugu. Esan ere esan dugu batzuetan mugatzaileak nonbait edo noizbait kokatzea baino areago gradua edo hierarkian maila zehaztea zuela eginkizun (esate baterako, *azpi*).

Harremanak harreman, gehienetan elkartuaren burua, bai morfologikoa bai semantikoa, eskuineko osagaia da, mugakizuna, *Behi-esne* mendekotasunezko elkartu arruntetan ohi den bezala. Baina era berean adierazi dugu guztiak ezin direla gisa horretan azaldu. Alegia, batzuetan leku-denborazko mugatzailea duen elkartuaren buru semantikoa mugatzailea bera dela, hain zuzen, eta ez mugakizuna.

Hala ere, ez dezagun atzenu batzuetan ez dela samurra garbi bereiztea zein den elkartuaren esanahi zehatza, edo bitara har daitekeela. L. Guilbert-ek (1971) dioen bezala, hizpidean ditugun erromantzeetako eratorrietan, gogoan eduki behar da, besteak beste, azpiko egituraren leudekeen izenak bi ikuspegiren arabera azter daitezkeela: parafrasia kasu guztietan “I₁-en {*aurrean, atzean, gainean...*} dagoen I₂” izanik, izen bera egon daiteke I₁ eta I₂ sinboloek ordezkaturia (*postdate*: “une date qui est après la date”), edo desberdinak izan daitezke bi izen horiek (*antichambre*: “une pièce qui est avant la chambre”), edo, bestela, I₁-en azpimultzoa izan daiteke I₂ (*avant-scène*: “la partie de la scène qui est devant la scène”). Alegia, *aitzinsolas, aurreiritzi* eta gainerakoez aritzean esan duguna.

Hortaz, euskarari dagokionez, berriz esan, galdetzekoa da noiz dugun ohiko mendekotasunezko izen elkartua, buru guztizko eta erabatekoa eskuineko osagaia duena,

²¹² Gainera, “liburua azpimarratu dut” bezalakoak egin ahal izateak ixten bide du aukera hau, *marratu* aditzak aldi berean bi osagarri (*liburua* eta *azpia*) izango lituzke eta. Erka honakoarekin: *Hitz polita* esan diot / *Hitz* egin diot / **Hitz polita hitz* egin diot. Berriz ere, argumentu-egiturarekin egiten dugu topo.

mugakizuna, eta noiz ari garen beste gisa bateko eraikuntza lexikoak gauzatzen, burua (buru semantikoa behintzat) ezkerreko osagaien adierazita.

III.5. Emankortasuna

Gehienetan bezala, adibideen kopuru soilari erreparatuta, garbi ikusten da mugatzaileetako batzuk maizago darabiltzagula beste batzuk baino. Esate baterako, *aurre*, *azpi*, *barne*, *behe*, *goi* eta, hein batean bederen, *gain* askoz maizago erabili ditugu hitz elkartuak osatzeko *aitzin*, *albo*, *barru*, *barren*, *bazter* edo *gibel* baino.

Lehenago iradoki dugunez, debeku handiegirik gabe erabiltzen ditugu leku-denborazko mugatzaileok izena denean mugakizun; ez mukuru, hala guztiz.

Era berean, oroitu beharko genuke gure leku-denborazko izenen ordain izan ohi diren aurrizkiez baliatuz eratorririko hitz oro ezin eman daitekeela itsu-itsuan egitura kalkatu hutsez, aurrizkiaren adiera eta osagaien arteko harremana kontuan hartu gabe; euskal elkarketa-mota honek mugak dituela saihestu gabe.

Honenbestez, elkarketa-mota honen bizitasuna ukatu gabe ere, ohartu behar dugu izenlagunez askoz maizago darabiltzagula adibidetegi honetako formen kideak (*alboko gela*, *aurreko baldintza*, *azpiko egitura*, *barneko bizitza*, *bazterreko herri*, *goiko kale...*) adibidetegian jasotako elkartu asko baino.

Nahiz aspaldi samarreko lekuko bat edo beste ere egon badagoen (Leizarraga Beskoitzekoaren *aldiri*, Lizarraga Elkanokoaren *aldiritar* eta, batik bat, Larramendiren hamaika sorkari), formen lehen agerpenen berri ematen duten hiztegiak begiratu besterik ez dago ohartzeko ez direla oso zaharrak eredu horren arabera eratu ditugun hitzak.

III.6. Idazkera

Euskaltzaindiaren arauak (25. arauak) dioenaren arabera, mugatzailea *aurre*, *azpi* edo *gain* dutenak bat eginik idatziko dira: *aurrekontu*, *azpiegitura*, *gainbalio...* (H-E/4: 97 / 83). Gainerako mugatzaileez ez dago berariazko araurik. Honenbestez, pentsatzekoa da *Eguzki-lore* mota osoarentzat dagoena dagokiela: aukeran marratxoaz lotuta nahiz bereiz idaztea.

IV. BI OSAGAITIK GORAKO MENDEKOTASUNEZKO ELKARTEAK

IV.1. Sarrera

Euskaraz bi osagai baino gehiago elkar ditzakegun, elkartu ohi ditugun edo ez sarritxo eztabaidatu izan da azken urteotan gure artean. Euskaltzaindiak ere aztertu du gaia, baita saiatu ere, ahal zen neurrian, erantzuna ematen²¹³ (**H-E/4: 44, 56-59 / 30, 42-45**). Ekar ditzagun berriz liburu honetako aztergaiarekin zerikusi zuzena duten hitzak (**H-E/4: 57-58 / 43-44**):

1. Atal biko sintagma da hitz-elkatea (...) Hori du bere izaera jator sustraizkoa, eta horri eustea komeni da ahaleginean (...)
2. Goiko arau hori are sendoagoa da mugatzaile-izenari muga jakineko adjektiboren bat eransten zaionean: *hautagai-zerrenda baina hautagai berrien zerrenda* (...)
3. Badira, ordea, guztiarekin ere, berrelkarketa errazago onartzen duten eramoldeak (...)
- 3.1. Mugatzailea *euskal, erdal, frantses...* dutenak (...)
- 3.3. Mugatzailearen koordinazio-hedapenak: *emakume- eta haur-taldeak* (...)
- 3.4. Aurrerago ikusiko diren irizpen-, multzo-, zati- eta mota-elkarteak. *Eguzki-lore* gisako beste gehienek baino askatasun handixeagoa dute hauek honelako hedapeneterako: *butano-saltzaile itxura, kafè erre usaina* (...).
4. Mugatzailea edo mugakizuna (edo biak) berez hitz-andana ihartu direnean, berrelkarketaz ezin hitz egin badaiteke ere, hiru hitz edo gehiago suertatzen dira elkarren ondoan.
 - a) Mugatzailea edo mugakizuna erabat iharturiko hitz-andana denean: *galeper-zakurra, akelarre-eguna, baserri-bidea, zorion-agurra, udaberri-gaitza...*
 - b) osagai bietako bat ihartu samarriko hitz-andana denean: *urbedeinkatu-ontzia...*

Goazen, bada, auzia berritzera eta hor esana, batez ere 3. puntu horretan salbuespentzat jotzen zena, adibideetan ikusi dugunarekin alderatzera, ea arestian plazaratu genituen iritziak oraingo adibideek egiaztatzen dituzten.

Guztiarekin ere, hasiera-hasieratik garbi utz dezagun berriz ere (**H-E/4: 59 / 45**), izen elkartu gehienak (eta euskaraz bakarrik ez) bi osagaikoak direla; *Eguzki-lore* motan ere horixe ikusi dugu. Alegia, hitz-elkarketa baliabide errekurtsiboa izanagatik, gramatikak ez bada ere, ulergarritasunak mugatzen duela, nahiz eta mugatze honetan hizkuntzatik hizkuntzara aldea egon daitekeen (alemanez, antza, ingelesez baino aiseago jotzen dute bi osagaitik gorakoetara (Marchand (1960b); baita nederlanderaz ere²¹⁴...)). Hitz batean esateko: zenbat eta osagai gehiago, orduan eta ilunago bihurtzen da hitz elkartua; ezin baitugu ahantzi osagaien arteko erlazio semantikoak ere ugaltzen direla.

Ildo beretik, ulertzekoa da bi osagai baino gehiagoko elkartuak ditugunean ere osagai biko sustraiko egiturara jo behar izatea, elkartua bere betean ulertuko badugu (Bloomfield 1933, etab.); hots, hierarkiaren auziaz ari gara: bi osagai lotuko ditugu lehenik eta gero bi horiek bakarra balira bezala jokatu dute beste osagai batekin elkartzean. *Ahosabai hots* diogunean, esaterako, lehenik *ahosabai* izen elkartua osatuko dugu eta ondoren izen (elkartu) hori beste izen bati lotuko diogu eta ‘mugatzailea (izen elkartua) + mugakizuna (izen bakuna)’ egiturako hitz elkartua sortu.

Horrelako eraikuntzak berriak edo zaharrak diren gogoan izatea ere komenigarria da. Azkaratek (1990) jasotzen duen bezala, hizkuntzalariek aski berriak direla onartzen dute. Marchand-ek berak aitortzen du alemanez antzina hiru baino gehiagokorik ez zegoela; bost eta sei osagaikoak berri samarrak direla. H. Koziol-ek (1937) ere dio ingelesez hizkera

²¹³ Eztabaida honetaz, ikus Azkarate (1990: 329 hur; 1991: 128-129) eta Lieber; Stekauer (arg.), 2009.

²¹⁴ Izen kategoriako osagaiak dituen mendekotasunezko elkarteetan ohikoak dira lau osagaiko elkartuak ere: *weersvoorspellingsdeskundigencongres* ‘eguraldi aurreikuspen aditu kongresu’ (Don 2009: 370-371)

arruntean nekez aurkituko ditugula bi osagai baino gehiagoko elkarteak; hirukoak literatur hizkuntzan edota legelarienean azaltzen omen dira batik bat.

Hori guztia kontuan izanik, hortaz, zer esan dezakegu gure corpuseko bi osagai baino gehiagoko elkartuez?

Lehenik eta behin, badirudi lehen kolpetik bazter uzteko modukoak direla osagaietako bat ihartua dutenak (**H-E/4: 58 / 44**), hiztunak elkartutzat ez baina izen soiltzat badauka, berrelkarketaz hitz egitea ez bide litzateke-eta guztiz zuzena izango. Baina puntu honetan, jakina, auzi-iturririk ez da falta, hiztunak noraino sumatzen duen ihartzea.

Eta, zer esan gure auziari bete-betean dagokion arestiko 3. puntu horretan jasoez? Zein jokamolde dute *Eguzki-lore* motako elkartuek oro har bi osagaitik gorako elkartuak eratzeko aukerari gagozkiola? Ba al dago alderik motatik motara? Eta, esate baterako, *irizpen, multzo, zati eta mota*-elkarrekin errazago onartzen dutela berrelkarketa esaten denean (**H-E/4: 58 / 44**), *irizpen*-elkarrekin ematen diren bi adibideak (*butano-saltzaile itxura / kafe erre usaina*) gertakari beraren adibide al dira? Nola uztartzen dira 2. puntua (elkarketan osagai mugatzaileak ezin duela adjektiborik onartu, alegia) eta 3.4. puntuko *kafe erre usaina* adibidea? (**H-E/4: 58 / 44**). Beste hamaika galdera ere egin daitezke.

Bada, honek guztiak garamatza argitasunaren mesedetan benetako berrelkarketa: “elkartu ondoko elkarketa, elkartua berriz elkarketan erabiltzea” edo defini dezakeguna (*ahosabai hots, emakume- eta haur-taldea*...) eta elkartuaren osagaietako bat izen hutsa ez duten —zehatzago esan, determinatzailek gabeko IS mugatzailea duten— elkartuak bereiztera (*ur bedeinkatu ontzi, kafe erre usain*...).

Zehazte honetan, era berean, komeni da benetako berrelkarketatzat jo duguna zein elkartu motak osatzen duten eta berrelkarketa nola gauzatu den aztertzea.

IV.2. Berrelkarketa

Esan bezala, berrelkarketa gauzatu dela esango dugu elkartuaren osagaietako bat era berean elkartua bada. Esana ere dugu kontua sustraiko biko egiturara iristea dela, horrek emango baitigu elkartu osoaren berri zehatza. Batzuetan garbi samar antzemango diogu osaerari, baina beste batzuetan zalantzak izango ditugu. Baina ez dezagun ahanzi zailtasunak ez direla bakarrik euskararenak; esate baterako, Ch. Bally-k (1932) ere aspaldixko aipatu zuen *maitre d'école de village* frantsesez har daitekeela *maitre d'école + village*, nahiz *maitre + d'école de village* bezala. Zenbaitetan, beraz, egitura anbiguoak izango ditugu, modu batera baino gehiagotara har daitezkeenak (azken batean hitz elkartuari berezko omen zaion anbiguotasunaren ondorio besterik ez liratekeen zalantzak izango ditugu).

Azkarateri (1990,1991) jarraituz, sailkapen xeheagoa egiteko irizpide hartuko dugu zein osagai errepikatzen eta zein isilpean gordetzen den. Ez ditugu adibide guzti-guztiak jasoko, aurreko kapituluetan ere behin baino gehiagotan aipatu baititugu aldi berean izen elkarte ziren mugatzaileak eta mugakizunak; baina bai nahikoak joera nagusiez ohartzeko.

Uste dugu komeni dela berrelkarketaren barrenean bi multzo nagusi egitea, osagaiak juntagailuren batek lotuak izatearen edo ez izatearen arabera. Bi osagaitik gorako elkarteak xehekiago aztertzen hasi aurretik, ordea, argitu nahi dugu, euskaldunek askotan hitz bakar gisa ikusi arren, bi osagaiko egituratzat hartu ditugula *arratsalde, eguerdi, Gabon, Urteberri,*

zorion eta *kidekoak*. Hala ere gerta daiteke adibideren batean edo bestean geuk ere izen bakartzat hartu izana eta adibidetegian bi izenez osatutakoekin batera azaltzea.

IV.2.1. Koordinaziozko hedapena edo juntagailuz lotuak

IV.2.1.1. Mugakizun bera duten bi izen elkartuk osatuak

Mota hau da ugariena. Ezkerreko izen elkartuko mugakizuna isilpean dago eta eskuinekoari eusten zaio. *Eta, edo* juntagailuek lotzen dituzte, oro har, osagaiak.

belar eta ahotz-pila / mozkor, lapur eta lander saldo / gramatika eta elerti sail / muno ta mendixka sail / ardi eta abere talde / eleder edo literatura alor / giza edo gizon aldra edo batza / iluntasun, eta errieta pixka / fruta eta berdura apur bat / piper-hauts eta gatz pixka / harri-koskor, ikatz edo kisu puska / aratxeki edo lumaki pixka / kaleko euskara eta erdara ttantta / urdai edo txorizo-puska / antxoa, sardina edo lantzoizati / aran eta muxika-zati / ur eta ogi-barau / neke eta kezka-modu / formazio edo produkzio modu / dohain edo jite mota / donu, dohain eta abantaila suerte / muga edo leku suerte / manamendu eta zirimonia suerte / sakristau eta komentu-usain / poz eta negar-iturri / formazio eta informazio-bide / dantza eta kanta saio / laia, aitzur, eta aizkora kirten / platano eta kakahuete azal / arto eta gari uzta / burni eta berun-zama / automobil edo beribil-zarrastada / barkamen edo bekamen egun / baso eta botila hots / giltza eta sarraila zarata / bekatu eta herio lege / mendetasun eta zintzotasun-hitz eta agindu / elorri eta lizar adar / erlijio-, arte- eta jakite-liburu / etnia- eta kultura-kontzientzia / baso eta soro behar / modernizatze eta batasun lan...

Adibideetan ikus daiteke bi mugatzaile baino gehiago ere izan ditzakegula *eta, edo* juntagailuez elkaturik: *antxoa, sardina edo lantzoizati; mozkor, lapur eta lander saldo; laija, aitzur eta aizkora kirten; donu, dohain eta abantaila suerte; erlijio-, arte- eta jakite-liburu; harri-koskor, ikatz edo kisu puska...* Azken adibide honek, bestalde, argi asko erakusten du mugatzailea ere, aldi berean, izan daitekeela izen-elkartea; horrelakoa dugu beste hau ere: *piper-hauts eta gatz piska*; eta bi mugatzaileak ere izan daitezke, aldi berean, hitz elkarte: *arin-eskas eta leun-eskas aire* (II.5.2.1). ‘Izena + adjektibo’ osaerako mugatzailea ere izan daiteke juntagailuak elkartzen duena: *izerdi eta jantzi busti usain, epopeia eta kantu heroiko andana*; eta ‘izenlaguna + izena’ osaerakoa: *kaleko euskara eta erdara ttantta*.

Bada, bestalde, guztiz berezia den adibide bat, mugatzaileak *nahiz* juntagailuak elkartzen dituelako eta bigarren mugatzailea izen-sintagma egiturakoa delako (eta ez izena, ohikoa den bezala): *bizkaitar nahiz bertze edozein eskualde usain* (II.5.2.12).

IV.2.1.2. Mugatzaile bera duten bi izen elkartuk osatuak

Hauek askoz gutxiago dira arestikoak baino. Halakoetan, mugatzaile horri dagozkion bi mugakizunak elkartzen ditu juntagailuak

Ogi *zerra eta puska / ekonomia modu edo molde / emakume mota edo klase / liberal-usain eta kolore / elorri-arantza edo adartxo / gazte aldra edo batz / zaldi-ule edo zurda* (?)²¹⁵ / euskal

²¹⁵ Galde ikurra paratu diogu bi eratara har daitekeelako: “[zaldi-ule] edo [[zaldi] zurda]”, nahiz “[zaldi-ule] edo [zurda]”, *zurda* nola hartzen dugun; alegia, zaldiena ez ezik beste animalia batzuen isatseko ilea izan daitekeela eta zaldiarena dela zehaztu nahi dugula (lehen moduan) edo *zaldi-ule* osorik *zurda*-ren sinonimoa dela pentsatuta (bigarren moduan).

olerkari eta idazle / gari-sorta edo bala / hitz ugaritasun eta edertasun / ikusiezin puskatxo edo zatitxo / palanka joko edo apustu...

IV.2.1.3. Mugatzailea eta mugakizuna, biak juntatuak dituztenak

Gutxi izan arren, baditugu corpusean adibideak mugatzailea eta mugakizuna, biak, juntagailu bidez elkartuak dituzten elkarteak: *giza edo gizon aldra edo batza; mendetasun eta zintzotasun-hitz eta agindu*. Garbi dago, hala ere, ez direla —ezin izan direla— asko eta, nolana dela ere, osaera aski gardena dute.

IV.2.1.4. Osagai juntatuaren osaera

Elkartu ondoko azterketa eta sailkapenari gagozkiola, bi osagaiak eraturako mendekotasunezko izen elkartuak bezalaxe azter daitezke hemengoak. Hortaz, liburu honetan zehar erabilitako sailkapen bera erabil daiteke berriz ere elkartuontzat.

Esate baterako, “Multzo-elkarteetan” (II.2) sailkatzeak dira, besteak beste, *belar eta ahotz pila, ipuin eta bertso pilo; idi, behi eta ardi talde; giza edo gizon aldra edo batza...* “Zati-elkarteetan” (II.3), *piper-hauts eta gatz pixka, aran eta muxika-zati, harri-koskor, ikatz edo kisu-puska, ikusi ezin puskatxo eta zatitxo...* “Mota-elkartekotzat” (II.4) ditugu, berriz, *formazio edo produkzio modu, dohain edo jite mota, muga edo leku suerte; emakume mota edo klase...* “Konparazio- edo irizpen-elkarteak” (II.5) ere jaso ditugu: *sakristau eta komentu-usain, liberal-usain eta kolore...* Eta abar. Mugakizun horietako bakoitzean ere saiatu gara mugatzaile eta mugakizun elkartu hauek nabarmentzen.

Eguzki-lore motako *Behi-esne* arruntak ere baditugu: *laia, aitzur eta aizkora* kirten, *bekatu eta herio* lege, *elorri eta lizar* adar... Bi osagaien artean era askotako erlazio semantikoak izan ditzakegu, baina maizenik atera zaizkigunak ondokoak dira: ‘iturburua’ (I.5.1) (*baso eta botila* hots...), ‘edukia’ (I.5.4.2) (*eleder edo literatura* alor...) eta ‘osoa-zatia’ (I.5.3) (*zaldi-ule edo zurda...*)...

Guztiarekin ere, adibideek erakusten dutenaren arabera, ugariak “Multzo- eta zati-elkarteak” dira.

Esandako guztiak hurrengo bi sailletarako ere balio du.

IV.2.2. Juntagailurik gabeak

Bi osagaiak mendekotasunezko izen elkartua eratu eta batere juntagailurik gabe, beste mendekotasunezko izen elkartu bateko osagai gisa azaltzen deneko adibideak ditugu hemen. Horrelakoetan, batzuetan ez da samurra gertatzen zehaztea zein den elkartuaren osaera urratsez urrats, baina lehengo irizpidean oin hartuz, sustraiko biko egitura argitzeko ahalegina egin beharko dugu.

Azterketa xeheena egitekotan, elkartu osoaren sailkapena egin ondoren, bere osagaiena ere egin beharko litzateke. Hemen nahiz eta zehatz-mehatz eta goitik behera egingo ez dugun,

komeni da ildo nagusien berri izatea, batez ere atal honen hasieran paratutako galderei erantzuteko eta orain arteko jokamoldea zein izan den jakiteko.

Hona, hortaz, lehen urratsean aurkitu ditugun adibideen sailkapen nagusia:

a) *Behi-esne* moduko mendekotasunezko elkartu arruntak:

ardi-ertzaro, kale-borroka hots, kamioi-motor hots, burdin-mailu hots, olatu hots zantzu, ahosapai hots, argibide-iturri, jai-egun arratsalde, basahuntz azpizun, herri-hitz hiztegi, sorgin-hagin zulo, aizkora-joko egun, sorgin-batzar garai, lur-abere lantegi, frantses literatur liburu, bertso-paper txapelketa, atsegin-kontentu toki, bizilagun kopuru, esne-zopa katilu, baso-ardo tragoxka, eskulan etxe, eliz gobernadore hierarkia, erregebide-bazter, eliza-aldare saihets...

Arestian jaso bezala, hainbat erlazio semantiko gauza daitezke elkartuaren osagaien artean. Horrela, esate baterako, ‘iturburua’ (I.5.1) maiztxo dugu, mugakizuna *hots* edo esanahikideren bat denean. Baina bada bestelakorik: ‘ondorioa’ (I.5.5) (*argibide-iturri...*), ‘osoa-zatia’ (I.5.3) (*basahuntz-azpizun...*), eta, batez ere, ‘edukia’, (I.5.4) ia gainerako guztietan.

b) Mendekotasunezko elkartu arrunt horien ondoan, bereziak ere askotxo dira.

- o “Multzo-elkartek” (II.2.2): *eskoletxe andana, baxoerdi mordo, ontzizjabe mordo, erlijio liburu multzo, herrizain multzo, mahats pikor mulko, haritz-ipurdi pila, urre-hauts pila, gogo-gudari-sail, galde-eskari sail, garagar-gari sorta, trenbide sorta, eliz kantari talde, usakume biko, esku-bonba pare...*
- o “Zati-elkateak” (II.3.2): *hartu-emon apur, euskaldun-sentipen apur, astiune-apur, bakealdi pixka, kafesne pixka, ur-esne pixka, hego-haize pixka, lursagar irin poxi, kirats aire poxi, denboraldi puska, esne-koipe puska, ogi-ardo puska, azahar-ur tanto, artakoskol erdi...*
- o “Mota-elkartek” (II.4.2): *nekazaritza artzaintza ekonomia molde, ahosabai modu, baso-zuhaitz mota, eskoletxe mota, etxabere mota, literatur hizkuntza molde, lur-langintza ekonomia molde...* Aipagarriak dira *nekazaritza-artzaintza ekonomia* mugatzailea, lehen osagaitzat dvandva-elkartera duena (ikus H-E/1: XIV) eta *lur-langintza ekonomia* mugatzailea, lehen osagaitzat beste mendekotasunezko izen elkartu bat duena. Aurreraxeago itzuliko gara lau osagaiko elkarte hauetara.
- o “Konparazio- edo irizpen-elkartek” (II.5.2): *basakatu antz, basomutil itxura, lursagar kutsu, paper-gauza kutsu, santu-izen usain...* Gure corpusean arras adibide gutxi dituena.
- o Sumpsumtiboak (II.6.2.4): *hizperri-eratze lan, euskara-ikaste-irakaste lan...*
- o *Andregai* (II.7.2) eta *hitzaurre* (II.8.2) modukoak: *lekaide-soin azpi, orrialde azpi, ingeniari-konpainia buru, elerti-ederti gai, loaro aldi, mortero tira-aldi, itsas lanbide, ola-kebide, bihotz-hutsune...; bazko gaiherdi ondo, eliz mahai aurre, errege-bide bazter, gauerdi inguru, kare-harkaitz gain...*

o “Aurreproiektu” modukoak: *barne-bakarrizketa, barne-jardunaldi, (goi argi jario)*...

Bereiz aipatzekoak dira mugatzailea *euskal, erdal, eusko* dutenak, osagai horien berezitasuna dela medio:

euskal aho poesia; euskal ederti gai; euskal egunkari-gai; euskal eliz hierarkia; euskal herrialde; euskal hitz-jostaldi; euskal hitz neurtu; euskal hizkera mota; euskal hizkuntza-jakinde; euskal izen-jakintza; euskal kirol jaialdi; euskal olerti-jai; euskal pizkunde egun; euskal giza maila; erdal bertso bikote, erdal maite-literatura... Euzko-gudarozea, Eusko Langile Alkartasuna...

Azken horietan batez ere askotan ez dago garbi jakiterik zein den osaera: *euskal* [*eliz hierarkia*], *euskal* [*ederti-gai*], *euskal* [*kirol-jaialdi*], *euskal* [*olerti-jai*], *erdal* [*bertso-bikote*], *eusko* [*gudarozea*]...? Hots, izen elkartua dugu mugakizuna eta *euskal* osagaia mugatzailea? Ala, [*euskal eliz*] *hierarkia*, [*euskal ederti*] *gai*, [*euskal kirol*] *jaialdi*, [*eusko gudari*] *oste*, etab.? Hau da, *euskal* osagaiak eta beste izen batek osatzen duten izen elkartua da elkartu osoaren mugatzailea eta beste izen bat da mugakizuna?

Beste batzuetan, berriz, gardenxeago bereiz daitezke osaera batekoak eta bestekoak. Lehenetakoak ditugu, besteak beste, *euskal* [*aho poesia*], *euskal* [*herrialde*], *euskal* [*hitz-jostaldi*], *euskal* [*hitz neurtu*], *euskal* [*giza maila*]... Bigarrenetakoak, berriz, [*euskal egunkari*] *gai*, [*euskal izen*] *jakintza*, [*euskal hizkera*] *mota*, [*euskal pizkunde*] *egun*, [*eusko langile*] *alkartasuna*...

Honenbestez, badirudi *Eguzki-lore* elkarketa zabaleko ia mota guztietako adibideak ditugula berriz ere, mota batzuek adibide gehiago eta beste batzuek gutxiago dituztela. Osagaietako bat (mugatzailea nahiz mugakizuna) ihartua denean, hiztunak elkartua dela sumatzen ez duenean, esan dugun eta espero izatekoa den bezala, aiseago egingo ditugu bitik gorako elkartuak. Zerrenda aspertu arte luza daitekeenez gero, beste askoren artean batzuk besterik ez ditugu ekarriko diogunaren erakusgarri: *baserri-kutsu, ekonomi gizarte, bekain-ile, burdinbide-habe, eskutitz-azal, harresi-atari, oilasko barrunbe, artzain txabola, sagardo botila, zaldun eleberri, zorion itxura, zorigaitz lagun*...

Hitz elkartuetako osagaien osaeran sartzen bagara, berriz, bereiz jaso ditugun *euskal/eusko/erdal* osagaia dutenak albo batera utziaz, adibide gehienetan mugatzailea da aldi berean elkartua dena eta gutxiagotan mugakizuna. Alegia, lehen ikusi dugun gertakari bera.

Sorgin biltoki, ardi-ertzaro, ola-kebide, barne-bakarrizketa, barne-jardunaldi aipa daitezke gutxiago direnen —mugakizun elkartua dutenen— adibide. Azkenon barrengo osaerari begiratzen badiogu, berriz, ohartuko gara *Jarleku* motako mugakizuna dutela gehientsuenek: *sorgin biltoki, ardi-ertzaro, barne-jardunaldi*..., mugatzaile elkartuetan oso nekez daukaguna.

Mugatzaile elkartuen barrengo osaeran arakatuta egiazta dezakegu era askotako elkartuak ditugula, berriz ere, berrelkarketako osagai, baina itxura batean, gehienak *Eguzki-lore* motakoak dira. Ekar ditzagun ugarienak:

□) *Behi-esne* moduko arruntak dira franko; era askotako erlazio semantikoen arabera, gainera:

- ‘iturburua’ (I.5.1): *olatu hots zantzu, azahar-ur tanto, hego-haize pixka, urre-hauts pila, esne-koipe puska* (‘osoa-zatia’ moduan ere har daiteke), *sorgin-batzar garai, ingeniari-konpainia buru, karlista-gerra denbora...*
 - ‘jabegoa/egilea’ (I.5.2): *herri-hitz hiztegi* (‘iturburua’ ere uler daiteke), *sorgin-hagin zulo, euskaldun sentipen apur...*
 - ‘osoa-zatia’ (I.5.3): *kamioi-motor hots, ahosapai hots, haritz-ipurdi pila, ogi mami zati, ogi-bihi suerte...*
 - ‘edukia’ (I.5.4): *bertso-paper txapelketa, erlijio liburu multzo, erlijino-poesi alor, sagardo-botilla-illara, luma abere mota...*
 - ‘ondorioa, emaitza’ (I.5.5): oso adibide gutxi izan arren, *legebatzar toki...*
 - ‘baliabidea’ (I.5.6): *eskulan etxe, gogo-gudari sail, esku-bonba pare...*
 - ‘gaia’ (I.5.7): *lursagar irin poxi*, (mugatzailea era berean elkartua da: *behi-esne* motako ‘lekua’ harremanaren arabera: *lursagar*), *lursagar kroketa, harresi atari, burdin-mailu ots, esne-zopa katilu...*
 - ‘lekua’ (I.5.9): *kale-borroka hots, basahuntz azpizun, lur-abere lantegi, basomutil itxura, korta-lohi pila...*
 - ‘helburua’ (I.5.10): *sudur-hauts ontzi, erregebide-bazter...*
- ∏) *Eguzki-lore* elkartuetako mota berezien artean sailkatzen ditugunak ere baditugu. Esate baterako, “Zati-elkartek”: *baxoerdi mordo...*, “*Andregai* eta *hitzaurre* modukoak”: *astiune-apur, bake aldi pixka, denboraldi pixka, loaro aldi, arratsalde askari...*
- ∏) Mugatzaile elkartu gehienak aipatu motakoak izanagatik, *Eguzki-lore* motakoak ez direnak ere badira. Besteak beste:
- Elkartu sintetikoak (H-E/3, II): *herrizain multzo, ontzijabe mordo, hutsegite modu, lur-langintza molde, hizperri-eratze lan...*
 - *Jarleku* motakoak (H-E/3, XI): *argibide-iturri, saletxe alde, jostorratz ontzi...*
 - Dvandva elkartu kopulatiboak (H-E/1, XIV): *hartu-emon apur, galde-eskari sail, garagar-gari sorta, ar-eme kontu, arrautza-olio nahasjaki* (mugakizuna ere elkartua duena), *ardo-olio zahagi...*
 - *Koordinaziozkoak* (H-E/3, IX.2): *kafesne pixka, ur-esne pixka, ogi-ardo puska...*
 - *Atribuziozkoak* (H-E/3, IX.1): *jai-egun arratsalde* (‘edukia’ ere uler daiteke; “egunean jaia zertu”), *eskoletxe andana* (koordinaziozkoztat ere har daiteke: “dena delako eraikuntza aldi berean eskola eta etxea da” ulertuaz)...

- o Tautologiak (H-E/1, XIV.1): *atsegin-kontentu toki*, eta abar.

Mugatzaile elkartua duten sail honetan aipagarriak dira, besteak beste, *hizperri-eratze lan, euskara-ikaste-irakaste lan*, sumpsumtibotzat (II.6.2.4) jo ditugunak, “*Hitzaurre* moduko” (II.8.2) *bazko gaiherdi ondo* edo “*Mota-elkarteetako*” (II.4.2) *nekazaritza artzaintza ekonomia molde*, barrengo osaera trinkoagoa dela medio. Hauen berri xeheagoa ematen saiatuko gara, aldizka, irakurleak, hartzaileak, topa dezakeen konplexutasuna erakusteko.

Har dezagun lehenik atzena jaso duguna: *nekazaritza artzaintza ekonomia molde*. Izen elkartu honek bi interpretazio modu izan bide ditzake:

- o [nekazaritza-artzaintza] ekonomia]] molde]] nahiz
- o [nekazaritza ekonomia] molde]] [artzaintza ekonomia] molde]]. Alegia,

[IZEN + IZEN] (dvandva elkartu kopulatiboa) □ [IZEN + IZEN] (*Behi-esne* mend.) □ “*mota-elkartea*”

[nekazaritza+artzaintza] + ekonomia]] molde.

Edo, bestela esan:

[[IZEN + IZEN] (*Behi-esne* mend.) + IZEN (“*mota-elk.*”)] (dvandvaren ezkerreko osagaia: nekazaritza ekonomia + molde) +
[[IZEN + IZEN] (*Behi-esne* mend.) + IZEN (“*mota-elk.*”)] (dvandvaren eskuineko osagaia: artzaintza ekonomia + molde.

Eta mugakizunak errepikatzen direnez, lehena isilpean utzi eta mugatzaileak elkarte kopulatiboan bildu.

Bi aukerak aipatu besterik ez ditugu egingo, oraingoz, hizkuntzalaritzan ez baita, guk dakigula, ikuspuntu teorikotik gai hau sakonki aztertu.

Bi sumpsumtiboak hartzen baditugu, berriz, biek dute mugatzailezat hitz elkartu sintetikoa; gainera, *hizperri-eratze* elkartu sintetikoaren ezkerreko osagaia aldi berean elkartua da. Bigarrenaren osaera berriz ere urratsez urrats zehaztuko dugu, beste adibide batzuetarako argigarri izan daitekeelakoan. Horrela ulertu dugu:

[[euskara ikaste] (lan) [(euskara) irakaste]] lan. Alegia,

[IZEN + IZEN] (ekintza elkarte sintetikoak: euskara ikaste / euskara irakaste).

[IZEN + IZEN] (elkartu kopulatibo dvandva: euskara ikaste + euskara irakaste □ euskara-ikaste-(euskara)irakaste, bigarren mugatzailea oraindik ere agerian edo isilpean dagoela.

Hemendik aurrera ere bi aukera egon daitezke:

[IZEN + IZEN] bi sumpsumtibo osoak eratu ditugu eta ondoren elkartu (euskara-ikaste] lan + (euskara) irakaste] lan. Eta gero lehen elkartu sumpsumtiboko mugakizuna (*lan*) isilpean gorde: euskara ikaste (lan)-(euskara) irakaste lan. Edo,

[IZEN + IZEN]: Sumpsumtiboa eratu dugu zuzenean elkartu kopulatiboaz (euskara ikaste-irakaste) baliatuz:

Baditugu, era berean, bi osagaiak elkartuak dituzten elkartuak: *jaiegun arratsalde, euskal kirol jaialdi, buru-langile lorealdi...*

Bazko gaiherdi ondo elkartuaren osaerak, berriz, zalantza gutxiago sorrarazten bide ditu. Partiketa hauxe dirudi egokiena: *Bazko gaiherdi] ondo*; mugatzaile elkartua duten multzokoa, hortaz, baina elkartu horren mugakizuna era berean elkartua dela: *bazko] gau + erdi*]. Eta antzeko zerbait esan dezakegu *mendi-hegal zoko kate* adibidea dela eta: *mendi-hegal] zoko] kate] bide da urratutako bidea*.

Azkenik aipa dezagun *Eguzki-lore* motakoa beste elkartu mota baten osagaia ere izan daitekeela. Esate baterako, ondoko elkartu sintetikoaren osagaietako bat, ezkerrekoa, ‘zati-elkartea’ (II.3.2) dugu: [*zorion-izpi] jario*; “*Aurreproiketu*” (III.2.5) motakoa da, berriz, [*goi argi]-yario*.

IV.3. Osagaietako bat izena ez duten elkartuak

Izen kategoriako osagaiak elkartu ohi dira liburu honetan aztergai ditugun *Behi-esne* moduko izen-elkartuak sortzeko. Baina aurreko kapituluetan behin baino gehiagotan aipatu ditugu bestelako adibideak ere, hau da, kategoria sintagmatikoko osagaiak zituztenak. Horrelakoetan, determinatzaileak gabeko IS izan ohi da mugatzailea. Oro har, izen batek eta adjektibo batek osatzen dute mugatzailea; kasuren batean edo bestean, izenlaguna dugu.

Sail honetan interesgarriena izan daiteke ikustea zein mugakizunek onar ditzaketen gisa horretako mugatzaile batere ohikoak ez direnak.

Hauxe da adibideen sailkapena:

- “Multzo-elkartuak” (II.2)

epopeia eta kantu heroiko andana, neskato ile harrodun andana, burdin ziri mehe andana, ke beltz mordo, ur bedeinkatu parrasta, dotrina galgari pila, jesarleku-txiki pilo, ezkongai gazte pilo, erromatar hizkera-talde, liberal mantso talde, abere mutu tropel...

- “Zati-elkartuak” (II.3)

literatura politiko apur, kafe bero pittin, ardao zuri pixka, haragi egosi puska, hauts bero puska, tipula xehetu puska, gazta zahar pusketa, odol gorri xorta, salda bero xorta, ur bero xorta...

- “Konparazio- edo irizpen-elkartuak” (II.5)

haur lerden itxura, sendagile on fama, liberalen biltoki fama, artobero usain, izerdi eta jantzi busti usain, porru berde usain, bizkaitar nahiz bertze edozein eskualde-usain, usteldutako hosto usain, goma erre usain...

Egia esateko, zegokionean arrazoitu dugun bezala, guztiak ez dira gisa berekoak, bai baitaude hor tartean benetako “usainak”, metaforikoekin nahaste, baina bistan da orain aztergai dugunerako bereizkuntza horrek ez duela ardura.

Bereiz aipatzekoa da *bizkaitar nahiz bertze edozein eskualde-usain* adibidea, mugatzailearen osaera dela medio.

- *Hitzaurre* modukoak (II.8)
praka zahar barren, *abar orlegi* gain

- *Behi-esne* modukoak
ardo zahar ontzi, *ur bedeinkatu* ontzi, *ur bero* botila, *emakume abertzale*-batza, *frantses literatur* liburu, *buru ahaztukor*-altzo...

urdaiazpiko gordin xerra, *almendra-mikatz* hauts...

mutilzahar rarezia, *fraide berri* bizitza, *hitz neurtu* txapelketa ...

Askoz adibide gutxiago ditugu sail honetan arestikoetan baino. Azalpenetan sartu aurretik nolana dela ere, ohartu behar dugu *mutilzahar*, *fraide berri*, *hitz neurtu* mugatzaileak hiztunak seguruenik hitz elkartu (areago, izen soil) moduan hartzen bide dituela.

Bestetik, berriz ere esan beharrean gara “Multzo- eta Zati-elkarteak” ditugula nagusi, “Konparazio- edo irizpen-elkarteekin” batean.

Baina errepara diezaigun beste honi: azkenik jaso dugun *Behi-esne* motako adibideetako osagaien arteko erlazio semantiko nagusia ‘edukia’ (I.5.4) da, eta ‘iturburua’ (I.5.1) da, “Multzo-elkarteena” bezalakoa, alegia. Erlazio horixe dute lehen multzoan bildu ditugunak (mugakizunak *ontzi*, *batza*... bezalako “ontziak” edo dira); ugarienak, bestalde.

Horren ondoan, ‘osoa-zatia’ (I.5.3) bide da beste harremana (*urdaiazpiko gordin* xerra), (*almendra-mikatz* hauts adibidean, zehatzaigoak izan nahi badugu ‘iturburua’ dela ere esan dezakegu), “Zati-elkarteena” bezalakoa alegia. Baina egin dezagun kontu harreman hau ‘edukia’-n ere uler daitekeela: zerbaiten zati denak zerbait hori ere bai baitu (*urdaiazpiko* xerraren edukia *urdaiazpiko* da).

Hortaz, laburbilduz, azken multzo honetan (IV.3) bildu ditugun bezalakoek mugatzailearen kategoriaren arazoa aurkezten digute: determinatzailearik gabeko izen sintagmak baldin badira (gehienak [I Adjektibo], gutxienak [Izlag I] osaerakoak) nola uztartu gertakari hori bestean ere ahotan hartu dugun harako erabide lexikoetan kategoria lexikoak besterik ez ditugula erabiltzen; zehatz esan, izena, adjektiboa, aditza eta adberbioa. Jaso ditugun horiek, itxura guztien arabera, lexikotik kanpora jotzera garamatzate, kategoria sintagmatikoetara. Baina, dena dela, ohart gaitezen sintaxian bete-bete erabiltzeko modukoak ere ez direla, determinatzailea falta baitute. Hau dela eta, lexikoaren eta sintaxiaren arteko egituratzat jo izan dira²¹⁶; alegia, ez erabat lexikoan, ez erabat sintaxian kokatzekoak: batetik besterako pasabidean egongo bagina bezala edo.

Ikusi dugu ardurakoa dela poliki begiratzea zein elkarketa-mota jaso ditugun sail berezi honetan eta zein ez. Horrela, ikusi dugu ugarienak “Mugakizun bereziko izen-elkarteak”

²¹⁶ Pérez Gaztelu; Zabala; Gràcia (2004).

ditugula; zehazkiago, “Multzo-, Zati- eta Konparazio- edo irizpen-elkarteak” (*usain* mugakizunekoak batez ere). Baina era berean aipatzekoa da ez dugula sail zabal horretako beste motetako adibiderik (“Mota-elkarteak”, sumpsumtiboak, *andregai* modukoak...) jaso, *hitzaurre* motako bi adibide eskas horiek alde batera uzten baditugu.

Behi-esne arruntetan ikusi dugu jaso ditugun adibideak oso urriak direla.

IV.4. Ondorioak

Kapitulu honetan jaso ditugun adibide eta mota guztiak hartuta, honako ondorioak atera ditzakegu:

1. Ihartuak alde batera utzita, ez dugu oro har bi osagaitik gorako mendekotasunezko elkarteetara jotzen. Eta horrelako egituretara jotzen badugu, juntaduraz, koordinazio-hedapenez baliatzen gara batez ere: elkartuaren azalari begiratuta, mugatzaileak juntatzera areago mugakizunak juntatzera baino. Hauetan nagusi dira “Multzo- eta Zati-elkarteak”.
2. Benetako berrelkarketara ez dugu horren aise jotzen, eta jo dugunean honako joerak atzeman ditugu:
 - a) Mugatzailea izan ohi da hitz elkartu osoaren osagai elkartua; gutxiagotan mugakizuna.
 - b) Aurreko lanetan esandakoaren arabera, “irizpen-, multzo-, zati- eta mota-elkarteak” errazago onartzen dute berrelkarketa (**H-E/4: 58 /44**). Baieztapen hori pixka bat zehaztu beharrean gara. Antza denez, mota hauen artean aldea dago: ez dute guztiek emankortasun bera. Gure adibideen arabera, berriz ere, “Multzo- eta Zati-elkarteak” dira nagusi. Baina aipatzekoa da, era berean, *Behi-esne* mendekotasunezko arruntak ditugunean ere ‘edukia’ erlazio semantikoa dugula askotan eta baita ‘iturburua’ ere, “Multzo-elkarteetan” dugun bera, alegia.
 - c) Elkartuak diren osagai mugatzaileetan zerbait nabarmentzekotan, *behi-esne* motakoen nagusitasuna da aipatzekoa, baina gainerako motetakoak ere ez dira gutxi. Ugarietan ez dugu osagaien erlazio semantikoaren ikuspegitik joera nabarmenik sumatu.
3. Errazagoa da berrelkarketa mugatzailea *euskal*, *eusko*, *erdal* modukoa denean (**H-E/4: 58 / 44**). Hala ere, adibideak aztertuz, ikusi dugu batzuetan ez dagoela garbi jakiterik zein den elkartua den osagaia, mugatzailea edo mugakizuna.
4. Determinatzailearik gabeko IS mugatzaile duten elkarteak ere ikusi ditugu; horietatik gehienak “Multzo- eta Zati-elkarteak” dira, baina ez da falta “Konparazio- eta irizpen-elkarterik” ere.

Hortaz, bistan da badagoela gai aski azterkatzen eta ikertzen segitzeko hemen egin dugun deskripzio edo berri-emate soiletik haratago joko badugu. Guk corpusaren azterketa eta sailkapenean oinarrituz, susmo hutsean utzi dugu elkartuen osagaien arteko erlazio semantiko motek zerikusirik ba ote duten atal honetan jaso ditugunekin, berrelkarketarekin eta mugatzailea determinatzailearik gabeko IS dutenekin batik bat.

Era berean, poliki aztertzeoak dira liburu honetan zehar aipatzen joan garen beste bi kontu gutxienez: mugatzaile lexiko hutsak ez direnak onartzen dituzten mugakizun horien eta zenbatzaileen arteko lotura eta mugakizun horien eta argumentu-egituraren artekoa.

Guztiarekin ere, ez dezagun atzendu atal honen hasieran genioena: adibide gehienak XX. mendetik honanzkoak dira. Ildo beretik, gogoan izan dezagun argitasunak agindu behar duela buruen-buruenik horrelakoetan, jakina baita zenbat eta osagai gehiago izan orduan eta ilunagoa gertatzen zaiola deskodetze lana hartzaileari.

V. BIBLIOGRAFIA

- ALTUNA, P. (par.) (1972): *Mitxelenaren idazlan hautatuak*. Bilbao: Etor. [MIH]
- AMURIZA, X. (1974): “Euskal Aurrizkiak”. *Euskera* 19: 9-104.
- ARTIAGOITIA, X. (2002): “-(t)ar atzizkidun hitzen jokabide sintaktikoaren inguruan”. *Fontes Lingua Vasconum* 91: 443-462.
- (2011): “Izen zenbakarriak eta zenbakaitzak, neurgarriak eta neurgaitzak”. In *Sareko Euskal Gramatika*, www.ehu.es/seg/morf/5/6/0#izen_zenbakarriak_eta_zenbakaitzak_neurgarriak_eta_neurgaitzak
- ARTIAGOITIA, X.; P. GOENAGA; J. A. LAKARRA (ed.) (2002): *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*. Anuario del Seminario Julio Urquijo/EHU.
- AUSTIN, J.L. (1962): *How to do things with words* (1971: *Palabras y acciones*. Buenos Aires: Paidós; 1982: *Cómo hacer cosas con palabras*. Barcelona: Paidós).
- AZKARATE, M. (1990): *Hitz Elkartuak Euskaraz*. Donostia: Mundaiz-Deustuko Unibertsitatea.
- (1991): *Irakaskuntza-proiektua* (argitaragabea).
- (1992): “Larramendiren hitz-eraketa”. In LAKARRA, J. A. (ed.). *Manuel Larramendi. Hirugarren Mendeurrena (1690-1990)*: 207-219. Andoain: Andoaingo Udala (www.euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon_tegiak/736.pdf).
- (2002): “Hitz-elkarketa, argumentu egitura eta theta-rolak”. In X. ARTIAGOITIA; P. GOENAGA; J. A. LAKARRA (ed.): *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*: 91-104. ASJU/EHU.
- AZKARATE, M.; F. OLARTE (1991): “*Erorator-atzizki* ala *eratorpen-atzizki*?”. In J. A. LAKARRA; I. RUIZ ARZALLUZ (ed.): *Memoriae L. Mitxelena Magistri sacrum*: 753-766. Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo». Gehigarriak. XIV. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- AZKUE, R. M. (1905-1906): *Diccionario Vasco-Español-Francés*. Tours Name (1969: Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca; 1984: Bilbo: Euskaltzaindia). [DVEF]
- (1923-25): *Morfología Vasca*. (1969: Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca).
- BALLY, CH. (1932): *Linguistique générale et linguistique française* (1965: Berne: Éditions Francke).
- BAUER, L. (2004): *A Glossary of Morphology*. Washington: Georgetown University Press.
- BERGSTEN, N. (1911): *A Study on Compound Substantives in English*. Uppsala.
- BLOOMFIELD, L. (1933): *Language*. New York: Henry Holt (1994: *Hizkuntza*. Bilbo: Klasikoak).
- BOSQUE, I. (1989): *Las categorías gramaticales*. Madrid: Síntesis.
- (1999): “El nombre común”. In BOSQUE, I.; V. DEMONTE (ed.): 1 (3-75 or.).
- BOSQUE, I.; V. DEMONTE (ed.) (1999): *Gramática descriptiva de la lengua española*. Madrid: Espasa. [GDLE]
- BUTRÓN, J.; J. DE PEDRO; J.M. OLANGA (1986): *Euskal hizkuntza eta literatura: BBB-1*. Donostia: Erein.
- CAMPION, A. (1884): *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara*. Pamplona. (1977: Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca).
- DARMESTETER, A. (1874): *Traité de la formation des Mots Compopsés dans la Langue Française* (1967: Paris: Librairie Honoré Champion).
- DE MIGUEL, E. (1999): “El aspecto léxico”. In BOSQUE, I.; V. DEMONTE (ed.): *Gramática descriptiva de la lengua española*: 46 (2.977-3.060 or.). Madrid: Espasa.
- DE RIJK, R. P. G. (2008): *Standard Basque. A Progressive Grammar*. Cambridge and London: The MIT Press.
- DEMONTE, V. (1999): “El adjetivo: clases y usos. La posición del adjetivo en el sintagma nominal”. In I. BOSQUE; V. DEMONTE (ed.): *Gramática descriptiva de la lengua española*: 3 (129-215 or.). Madrid: Espasa.

- DIMITRESCU, F. (1969): "Notes sur les suffixoïdes dans le Roumain littéraire actuel", *Revue Roumaine de Linguistique* 1: 3-6.
- DON, J. (2009): "IE, Germanic: Dutch". In LIEBER, R.; STEKAUER, P. (arg.): *The Oxford Handbook of Compounding*: 370-385. Oxford University Press.
- DRESSLER, W. U. ET AL. (ed.) (2000): *Morphological Analysis in Comparison*. Amsterdam: John Benjamins.
- DUBOIS, J. (1983₂): *Diccionario de lingüística*. Madrid: Alianza Editorial.
- ENSUNZA, M. (1989): "Erdal Adjektibo erreferentzialetarako euskal ordainak", *Euskera* 34-2: 577-596.
- EUSKALTZAINDIA (1987): *Hitz-elkarketa/1*. Bilbo: Euskaltzaindia. [H-E/1]
 (1991): *Hitz-elkarketa/3*. Bilbo: Euskaltzaindia. [H-E/3]
 (1992): *Hitz-elkarketa/4. Hitz elkartuen osaera eta idazkera*. Bilbo: Euskaltzaindia. [H-E/4]
 (1994): *Euskal Gramatika Lehen Urratsak-IV. (Juntagailuak)*. Bilbo: Euskaltzaindia. [EGLU-IV]
 (2002): *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna*. Bilbo: Euskaltzaindia. [EGLU-lab.]
 (2012): *Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak*. Donostia: Elkar. [EH]
- GIURESCU, A. (1970): "Observazioni sulla categoria dei Composti Romanzi", *Revue Romaine de Linguistique* XV-3, 261-266.
- GRÀCIA, L.; M. AZKARATE (2000): "Prefixation and the head-complement parameter". In W.U. DRESSLER ET AL. (ed.): *Morphological Analysis in Comparison*: 61-73. Amsterdam: John Benjamins.
 (2001): "Prefixes, heads and word order". Universitat de Girona-Euskal Herriko Unibertsitatea. Argitaragabea.
- GRIMSHAW, J. (1990): *Argument Structure*. Cambridge MA: The MIT Press.
- GUILBERT, L. (1971): "De la formation des unités lexicales", *Introduction au Grand Larousse de la langue française*, T.I., IX-LXXXI. Paris: Larousse.
- HAENSCH, G.; L. WOLF; S. ETTINGER; R. WERNER (ed.) (1984): *La lexicografía de la lingüística teórica a la lexicografía práctica*. Madrid: Gredos.
- HENZEN, W. (1947): *Deutsche Wortbildung*. Halle / Saale (1965: Tübingen).
- HEYVAERT, L. (2009): "Compounding in Cognitive Linguistics". In LIEBER, R.; STEKAUER, P. (arg.). *The Oxford Handbook of Compounding*: 233-254. Oxford: Oxford University Press.
- IRAZOLA, J. M. (1985): *Hitz konposatuak, aurrizkibidea, atzizkibidea eta ariketak*. Bilbo: Hizkuntza Eskola Ofiziala.
- IRIGOYEN, A. (1979): "Crítica sobre prefijación y sufijación en lengua vasca", *FLV* 32: 243-258.
 (1989): "Ez ukatzailea euskal tradizioaren bidetik noiz eta nola", *Euskera* 34-1: 241.
- KOZIOL, H. (1937): *Handbuch der Englischen Wortbildungslehre*. Heidelberg.
- LAEUFER, CH.; T. A. MORGAN (ed.): *Theoretical Analysis in Romance Linguistics*. Amsterdam: John Benjamins.
- LAFITTE, P. (1944): *Grammaire Basque (Navarro-Labourdin Littéraire)*. (1962₂: Bayonne: Des "Amis du Musée Basque" et "Ikas"; 1979: Donostia: Elkar).
- LAKARRA, J. A. (ed.). (1992): *Manuel Larramendi. Hirugarren Mendeurrena (1690-1990)*. Andoain: Andoaingo Udala (www.euskaltzaindia.net/dok/iker_jagon_tegiak/736.pdf) .
- LAKARRA, J. A.; I. RUIZ ARZALLUZ (ed.) (1991): *Memoriæ L. Mitxelena Magistri sacrum*. Anuario del Semanario de Filología Vasca «Julio de Urquijo». Gehigarriak. XIV. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- LEVY, J. (1978): *The Syntax and Semantics of Complex Nominals*. Nueva York: Academic Press.
- LEWANDOWSKI, T. (1984): *Diccionario de lingüística*. Madrid: Cátedra.
- LHANDE, P. (1926): *Dictionnaire Basque-Français*. Paris: Gabriel Beauchesne Editeur.

- LIEBER, R.; STEKAUER, P. (arg.) (2009): *The Oxford Handbook of Compounding*, Oxford University Press
- LIFETREE-MAJUMDAR, M. (1974): "Contribution à l'analyse des modes de composition nominale en français écrit contemporain", *Cahiers de Lexicologie* XXV-1: 63-84.
- LOINAZ, M. (1995): "Adjektibo erreferentzialen erabilera", *Berba* 16.
- LOPEZ-MENDIZABAL, I. (1943): *La lengua vasca* (1977: Donostia: Auñamendi).
- LYONS, J. (1977): *Semantics*. Cambridge University Press (1980: *Semántica*. Barcelona: Teide).
- eskuan zuan atxurrekin bost edo sei artalandara zatituaz (HE19: 47)
- arto-landare batek ia bi milla litro ur zupatu zituan lurretik bere bizitzan (EF92: 10)

arto-lasto [I.5.3](#)

- zer uste uan gizajo orrek, arta lastoz betea zegoala? (HE19: 40)

arto-lokotz [I.5.3](#)

- iruna 54 ontzako egur ebatea, ta 40 arto-lokotz otarrera biltzea (HE50: 19)

arto-lur [I.5.4.2](#)

- arto-lurrak baneatzen zebiltzan gogor Bordaberritarak (EJ62: 59)

arto-pila [II.2.2.2.6](#)

- artapillaren gainean dagoen saskira (HE18: 59)
- arta-pil ederra zuritu zuten (EJ62: 26)
- arta-pil txuri inguruan alkiak illara (HE18: 66)

arto-puska [II.3.2.1.8](#)

- ontzia arta puska batekin inguru guztian igozten (HE19: 32)

arto-talo [I.5.7](#)

- umetan etzitzaigunen sekula faltatzen arto-taloea bederik (EJ03: 20)
- ogi izeneko zerbait oretzen dute; baita arto-taloeak ere noizbeinka (EJ03: 17)

arto-urte [I.5.4.3](#)

- ezkur-urte da, baita arto-urte (HE18: 74)

arto-zati [II.3.2.1.9](#)

- celan (...) daruaquen arto zatija edo catillucada saldia (HE20: 105)
- onek barriz niri, atzo baiño lenagoko egunian, arto-zatixa kolkotik ostu neuri ta xan gero (EI99: 156)
- bai, txotxo, onek edozer iri; eu az, eder ori, arto-zatirik asko-ta (EI99: 156)

arto-zopa [I.5.7](#)

- txokolatea zartagi aundi baten eginda, arta-zopakin (HE29: 37)

arto-zuztar [I.5.3](#)

- soroko arta-zuztarrak moztu (HE50: 48)

artobero-usain [IV.3](#)

- baietz uste dot (eta bua artobero usaiña) (HE21: 97)
- ontan ere artobero-usaia ba-darigu (HE17: 55)
- arroxko ta artobero-uxai omen-naiz (HE17: 54)

artoburu [II.7.2.3](#)

- emendic artuco ditue artoburuac, andic balac; emendic azac, andic beste gauzaren batzuec (HE07: 175)

artopil [I.5.7](#)

- Oskila tente, Baztarrikako. / Artopil zabal, Errekaldeko. / (HE18: 62)

artxibo-agiri [I.5.9](#)

- ez eta hiriko artxibu-agirietan ere (HE33: 7)

artzain-mutil [IV.2.2](#)

- 1913.ean, zortzi urte arras bete gabe, artzaimutil bortura biali ninduen aitak (EJ68: 18)
- artzai-mutil txarra dela otsoa ikasia dut txikitan (EJ53: 112)

artzain-mutiltxo [IV.2.2](#)

- au ezta batec bere burua artaldearen arzai eguitea ezta arzai-mutilcho eguitea bera ere (HE40: 179)

artzain-or [IV.2.2](#)

- arzaien chacurrei esaten zaie artzanora (HE20: 175)
- artzan-hor gaizua emanik gida (HE60: 176)

artzain-soineko [IV.2.2](#)

- etzuen ezagutu, artzai soñecoquin eta eguzquiac beztua zegoalaco (HE45: 209)
- artu zituen artzai soñecoa eta aballa (HE45: 210)
- Saul-ec etzuen nai artzai-soñecoquin joateric (HE45: 210)

artzain-txabola [IV.2.2](#)

- kobazulotik atera orduko bideska bat hartu eta artzai txabola batera iritsi zen (EJ53: 31)
- denbora luzean ez zuen artzai txabolarik, ardirik, ez sugerik ikusi (EJ53: 64)
- makil aundi bana artuta, joan omen ziran artzai-txabolara (HE29: 70)

artzainburu [IV.2.2](#)

- alabér Cerura igatecó cególaic, señalátuzué, eguinzué, utzizué S. Pedro bere vicário lurreán, ta Christinoen Artzáiburu (EJ55: 206)

asaba-herri [I.5.4.2](#)

- Ezaindurik daukagu Asaba-erri dana! / Ta Euskera laztana... a (EJ77: 107)

asaberri [I.5.4.2](#)

- Aizorri esaten oida Oñati-aldean aiterri edo asaberri edo iaioiterri esateko (EI99: 141)

asanblada-mugimendu [I.5.4.1](#)

- asanblada mugimendu hau, eta hauek aurrera daramatzaten ekintza eta borroka guztiak (EJ52: 37)

asamblea-egun [I.5.4.3](#)

- Koroazioko urre-eztaietan (1936), Oñatiko asamblea-egunetan, aña jende orratik, ez da egundo ikusi Arantzazun (EL70: 246)

askatasun-bide [II.7.2.2](#)

- Afrika-Asietako herri askatu berri edo askatasun bidean direnen marmar hotsa (HE27: 339)
- herriari askatasun bidea erakustea (EI94: 22)

askatasun-egoera [I.5.4.3](#)

- askatasuna bere gogoz kontra galdu zuen herri bat bere askatasun egoera zaharrera ta legitimora itzuli nahirik (EJ20: 28)

asmatze-lan [II.6.2.4.3](#)

- bañan nobelagille ez danak, nekez eramango du asmatze-lan ori bide zuzenetik (EJ60: 11)

asmo-bide [II.7.2.2](#)

- ...moldiztegia ipiñi komentuan eta andik illeroko errebista atera ta zabaldu errietara, Birjiña-zalearen geigarrirako ta euskal-Prantziskotarren asmobideai aize emateko (EL70: 227)

asmo-diferentzia [I.5.1](#)

- diferentzian azpian, asmo diferentziak aparte, historiari begiratzeko molde ezberdinak daude (EJ20: 14)

asmo-erdi [II.3.6.1.1](#)

- edo ceren vicitza ontzeco asmo-erdiren batzuec izan cinduan (HE07: 287)

astakume [II.7.2.9](#)

- Aitari astacume bi galduta, Saul eheco morroi batequin asto billa joan zan (HE45: 198)
- astacumeaz etzezala conturic izan (HE45: 198)
- astacumeac aguertuco zirala esango ziotenac (HE45: 198)
- ezetz esan gure etxean azkeneko astakumea noiz jaioa dan! (EJ79: 121)
- zeren noiz ere astokhumeak yasan nahi baitu potroaren itchoura (EI58: 59)

aste-iluntze [I.5.3](#)

- aste-illuntzetan, ixil-ekutu, zinera azkar igesi (HE25: 74)

astearte-arratsalde [IV.2.2](#)

- astearte-arratsaldean etxea botatzen ari ziran, kutxarearekin (EJ66: 138)

astearte-bezpera [I.5.3](#)

- ez, jauna, astearte bespera (HE61: 172)

astearte-goiz [I.5.3](#)

- zure abokatak ez du deusik egin zuretzat eta jalgi behar duzu asteart goizean (EJ68: 35)

asteazken-arratsalde [IV.2.2](#)

- beraz, behin, aste-azken arratsalde batez, nere eskolako bi lagun (EJ72: 24)
- beraz, behin, aste-azken arratsalde batez, nere eskolako bi lagun (EJ72: 24)

asteazken-goiz [I.5.3](#)

- astezken goizari buruz, gauaz inguratu dute (HE14: 162)

astegun [I.5.3](#)

- aste egunetan lebita xarrakin (HE23: 119)
- aste-egunean, bazkaldu mendian (HE29: 111)
- aste-egunean zine, teatro, jaietan berriz fubola (HE25: 74)
- bakoitza geure etxeetan bizi gozak astegunetan (HE31: 34)
- udako astegun buruzuri luzeetan (HE44: 33)
- aimbeste soñoco bichidunez, eta ori astegun buru zurijan videz zabiltzala? (HE20: 44)
- emen etzuan ematen aste-eguna zanik (EJ62: 40)
- astegun nai iai-egun errdi zoraturik bizi zan Kontze ederra etxean sarrrurik (EJ70: 137)
- nekazaleak astegunean atzamarrakaz daroa kontua ziurr noiz izango dan eguna bearr bakoa (EJ70: 76)

- Astegunetan, Ministreak on irudi zaion bezala exortatzen du (HE02: 37)
- beguira, astegunean eguin cintzaquean lanac jayeraco utzi ote dituzun berariaz? (HE07: 59)
- eta soñeco zarrac adabatzeco dembora astegun, eta jayerdietan? (HE07: 59)
- ¿Cergatic ez dieztezu eguiten cerorrec ume eta mirabeai lan oriec astegunetan? (HE07: 60)
- debeatua dago languilleac, eta alogueran vici diranac astegunetan jocoan aritzea (HE07: 76)
- astegunetan biar eguitiari dagocan leguez (HE20: 95)

astelegun [I.5.3](#)

- halakoentzat, bestak ere astelegun direla (HEAX: 51)
- gauak egun eginez, igandeak astelegun (HE59: 106)

astelehen-arrats [I.5.3](#)

- andik edo emendik, astelen-arratserako jakiñaren gañean zegon Txirrita (EJ79: 94)

astelehen-arratsalde [IV.2.2](#)

- astelehen arratsalde hartan beraz (...) toki bererat urrats xehean joanki ihainbertze lagun (HE59: 37)
- astelen-arratsaldean jai egiten genduan eta batengana edo bestearengana juntatu sagardotegian (EJ78: 49)
- astelehen arratsalde hartan beraz (HE59: 37)

astelehen-goiz [I.5.3](#)

- an bertan lo eginda astelen goizean geron bizpidea ikasten asteko (HE50: 76)
- astelen goiz batez, Txirrita zana aldamiu gañean ari omen zan argintzan (EJ79: 90)
- astelehen goiz batez, argia hasi baino lehenago, heldu zaiok Piarres (EJ72: 46)
- mila-zortzi-ehun eta berrogoita bortzean, Buruilaren hastean, astelehen goiz batez (EJ72: 5)
- astelehen goiz batez, Andre Incarnacion, goizean goiz jeikia, bezperako haitadaz (EJ72: 37)
- baña astelen-goizean irten nintzan Zabalegi'ra (HE50: 64)

asti-ordu [I.5.4.3](#)

- Giristinoa, eman diat eskarazko bersutan Katholiko Manuala neure asti ordutan, (EJ80: 43)

asti-puxka [II.3.2.2.3](#)

- egun asti puxka bat baitugu, hasiko gaituk alfabetikaren ikasten (EJ04: 43)

astiune [II.7.2.6](#)

- astiune gitxi darabilt aspaldion (EI99: 150)

astiune-apur [IV.2.2](#)

- augaitik ioataz neure astiune-apurrak (EI99: 150)

asto-belarri [I.5.2](#)

- Mydasec asta belarriac ditu (HE07: 228)

asto-bizkar [I.5.3](#)

- berari Bedayo'tik begiratuta, asto-bizkar baten antza du ba (HE50: 62)

asto-gain [II.8.2.11](#)

- gaitzerdi, asto-gain ortatik gaur yetxirik bageunde (HE17: 51)

asto-gernu [I.5.1](#)

- asto-garrnua ta arrdao bitzdunak modeak dakaz kanpoti: au ikusi ta negarrez dagoz geure maaztiak gogoti (EJ70: 78)

asto-gorotz [I.5.1](#)

- zu astagorotzen erretore zinateke gaur (HE39: 39)

asto-haragi [I.5.1](#)

- Klemente VII'garrena asto-aragiz asetu zan (HE24: 131)

asto-mutil [II.7.2.5](#)

- baimena badaukate automobil edo asto mutil oyek kamiñoetan ibiltzeko (HE22: 40)

atabal-hots [I.5.1](#)

- igon ziran (...) duntzaiña ta atabal otsez (HE21: 60)

atake-egun [I.5.4.3](#)

- guk ordurako bagenekian, moro aiei zurrut asko ematen zietela atake-egunetan (EJ49: 126)

atalaurre [II.8.2.5](#)

- atal-aurrea garbitzen elkar-apustuan (HE18: 53)

atalburu [II.7.2.3](#)

- gelako atalburua iraganez batera (...) behereko multzo batekin tupust egin zuen (HE39: 13)
- bien erdian, eta letraz ezarrico dituzu zure eheco atalburuan, eta ateetan (HE07: 10)
- ezta ikusiko ere atalburu hori! (EJ51: 71)
- beste etxe harrigarri eta zahar bat ikus daiteke, adrilu gorritz eraikia; eta atalburuan hau irakurtzen da (EJ51: 67)
- eta pentsakor gelditu naiz atalburuari so: orduan ere bai! (EJ51: 67)
- gero atalburuan fetxa berria ezarri eta beste gabe inprentarako moldatua (EJ80: 15)

atarialde [II.8.2.3](#)

- biak billa ibilli atari alde artan an bear zuala, ta ez billatu (HE29: 96)

atarate [II.8.2.16](#)

- arin-arin sartu eban errotako atartera (HE21: 95)
- ondo gomuta dot, biok alkarregaz ioan ginean urrira urrengo egunean, eskolako atarteragino

(EI99: 166)

ate-aurre [II.8.2.5](#)

- gauez nagusien ate aurreak zaintzen egoten dituk (EJ53: 26)

ate-brinbel [I.5.3](#)

- ate-brinbeletik kanporako egozala, urabillak, beren buru-bagakotasuna agertuaz (EI99: 156)

ate-hots [I.5.1](#)

- halako batez ate-hotsa (EJ53: 103)

ate-ispilu [I.5.9](#)

- behin, komoda zaharreko ate espiluan, bere tankera osorik ikusi zuen (HE39: 99)

ate-kirten [I.5.3](#)

- eta bazkaldegi bateko ate-kirtenetan Nafarroako kateak hautatu dira apaingarritzat (EJ51: 67)

ate-kisket [I.5.3](#)

- ate quisquet baten otsac esnaatu narua (HE20: 130)

ate-morroï [I.5.9](#)

- lau ate-morroï, soin-ertzak urrez aski-apaindurik (HE17: 21)

ate-mutur [II.3.2.1.5](#)

- zirri bat egin zion etxabolako ate muturrian (HE19: 64)

ate-pilare [I.5.3](#)

- bildots-ill odolez Israeldarrei bustiraci ciezten icheetaco ate-pilareac (EI31: 84)

ate-xoko [I.5.9](#)

- aitak ez du makila ate xokoan izanen? (EJ04: 25)

ate-xulo [I.5.9](#)

- ate-xulo meharretik gatua bezala luxaturik (EJ00: 183)

ate-zirrikitu [I.5.3](#)

- belarria ate-zirrikitura urbilduz (HE15: 22)

ate-zirritu [I.5.3](#)

- ate zirritu batetikan atera zuan burua (HE19: 117)
- bi ate zirriztotatik argi aria dator (HE57: 106)

ate-zulo [I.5.9](#)

- etxeoandreak ate zulotik begiratu eta mando galduaren itzala (EJ53: 103)
- ta arako Batxi ta koiñatua mai-ganera begira, isilik eta bakarrik, ate-zulotik urabillak ikusi ebazanean (EI99: 156)
- norbaitzuk, ate-txulotik-edo ikusita arri ura (HE29: 47)

ateburu [II.7.2.3](#)

- eguerdirako, herririk gehienetan, lizar edo elorri erramak ateburuetan jarriak izango dira (EB87: 53)

aterbe [II.8.2.9](#)

- apez geieri aterbea ken (HE14: 151)
- ttipi bat mila zitakelarik, aterbe gaitza eginarazi (HE59: 55)
- Den itsuenak ikus dezake, bertzalde, hanitz gutiago aski litakela, ara hortara, bai aterbe, bai eskolemaile (HE59: 57)
- atherbe hau hogoi eta hamar urrhats luze da (EC16: 41)
- nausiak emaiten ere zaukuk aterbia. Aditu duk? Aterbia (HE59: 114)

aterpe [II.8.2.9](#)

- Aizkorriko aterpea 1923'an eregia degu (EL70: 238)

aterpetxo [II.8.2.9](#)

- alboan Santa Maria Eliza. Eta eliz-atariak aterpetxoa euri zaparralditarako giritxi goxo (EJ03: 10)

atseden-apur [II.3.2.2.1](#)

- zuaz orain gorputzari atseren apur bat emotera (HE20: 137)
- aurretik, Ollerias errian, atsedeen apur bat gure gorputzari eman (EJ60: 140)

atseden-ordu [I.5.4.3](#)

- atsedeen orduak oraindiño [tit] (EJ59: 57)
- atsedeen orduak [tit] (EJ59: 47)

atseden-puska [II.3.2.2.3](#)

- atsedeen-puska bat artu daizuen, neure yaioturiko yazoera bat edatsiko dautsuet (EJ06: 73)

atsedenaldi [II.7.2.1](#)

- atsedeenaldiak eta beste... ez nahiz ahantzi nabila, gabiltza (HE56: 8)
- naiz-eta gure lagunak atsedeen-aldiak egin, Etxeberria eta biontzat etzan askotan olakorik izaten (EJ60: 113)

atsedenalditxo [II.7.2.1](#)

- atsedeen alditxo baten ondok eskuratuko duk (EJ53: 28)

atsegin-bolada [I.5.4.3](#)

- atsegin-boladak bete naute bein eta berriz, eta oreka galdu dut zearo: gorputzekoa ta arimakoa. (HE34: 61)

atsegin-herrikide [IV.2.2](#)

- atsegingarri ez aal duzu izentatzen atsegin-erkide daitekena, naiz atsegin dakarrena? (HE38: 172)

atsegin-kontentu toki [IV.2.2](#)

- bide gogorretatik, igan bear dugu guk zeruko atsegin-kontentu tokira (HE13: 122)

atsegin-sari [I.5.1](#)

- onec izan daruaz egunecuaz ostian, escupeco edo atsegin sarijac (HE20: 125)

atsegin-zirrada [I.5.1](#)

- nolako atsegin zirrada sentitzen zituen Bartelek haragi guztian zehar (HE39: 26)

atsekabe-gradu [I.5.2](#)

- ttikiren orduko atsekabe gradua neurtu izan balitz (HE39: 19)

atsekabe-negar [I.5.1](#)

- kaletik Bidaurretarakoan, erri osoak izuaren izuz lagundu zien, bidean eta atsekabe-negarrean (EL70: 194)

atso-kontu [II.6.2.4.2](#)

- atso-kontuak errez igaro dezake (HE18: 92)

atso-madarikazio [I.5.1](#)

- jeneral bat harmada baten aitzinean ibiltzen den bezala, atxo madarizione hori, errieta ondolik (EJ72: 32)

atso-pilo [II.2.2.2.6](#)

- atso pillo andi bat dabil urduri urduri (HE21: 68)

atso-sail [II.2.2.2.7](#)

- eriosuar duzu atso-sail osoa (HE18: 95)

atun-lata [I.5.4.2](#)

- bakoitzari berea egun guziko: sardiña-lata, atun-lata, txuskoa, ogia alegia, eta baso aundi bat ardo (EJ66: 21)

atzapar-ukaldi [I.5.6](#)

- haren ezpain xokoko irri ximurra, bai eta ere haren aztapar ukaldi bera (HE32: 12)

atzealde [III.2.4](#)

- entzun genduan gure atze aldetik automobil edo beribil-zarrastadea (HE21: 41)
- atzealde polit hortan? (HE35: 57)
- ipinten dabe atzealdean ondo pilloturik, eta prest dagoz barriro, bear bada (EJ59: 42)
- Saul-en ondoren irten zan, eta atzaldetik osca jarri zitzayo (HE45: 221)
- atzealdeak berotu etzizkigunean (EJ62: 68)
- aurre-aldea (...) lurra jota dauka; atze-aldea tente (HE29: 16)
- alki gorri oetan atze-aldeak atsegin dukela deritzait (HE17: 21)

atzerri [III.2.4](#)

- izan ere, gutxi ziran naiz atzerrian naiz espetxean edo langille-batalloitan senitartekoren bat etzeukatenak (EJ03: 42)
- atzerrian udaberriz (EJ50: 13)
- Zeru goxo onek lurreko minkaitza ez galtzen! Erri lur ontan atzerri! (EJ50: 83)
- euskaldundurik daduzkan atzerri-hitzak bakean utzi behar direla (HE26: 288)
- atzerri latzean ikusten dut neure burua (HE27: 342)
- atzerri-olerkaritan gure Etxahun maitagarriak izan dun kiderik aundiena (HE28: 60)
- onen anaia lege gogorak eramana da atzerrira (HE18: 69)
- seme zarrenarentzat ondare guzia, urrengoztat ezerrez. Urrengoztat..., itxasoa, atzerria, soldaduzka, Ameriketa (EL70: 154)
- USA-ko kapitalak atzerrira aldegitia, irabazpide hobearen bila? (EB20: 41)
- Euskalherri'ko alde guztietatik ipuiak erruz eldu dirala jakinerazten dugu; bai ta atzerrietatik ere (EJ05: 156)
- atzerrian utziko zituen bere hezurak (EJ00: 196)
- iru urtez atzerrian aspertu ere egiten da bat, baiña egia esateko, damuturik nago (EJ03: 54)
- orregatik, eta entzuten dituztenak entzunda, izu-ikaraturik, aunitz lagun gelditu dira atzerrian (EJ03: 40)

atzerri-gai [IV.2.2](#)

- atzerri gaietan posible izan zaio (HE37: 113)

atzerri-hitz [IV.2.2](#)

- euskaldundurik daduzkan atzerri-hitzak bakean utzi behar direla (HE26: 288)
- ameskeri barreikarrija litzateke barriz, atzerri-itxok zustraitu eztaitezan, arako muga-ate edo aduana antzeko gauza bat imini nai izatea (EJ06: 87)

atzerri-hizkuntza [IV.2.2](#)

- gaur ez da Europa'n atzerri-izkuntzik bearrezko ez duan lurralderik (HE50: 19)

atzerri-negar [IV.2.2](#)

- negar lurruna dari ta dausez intziri atzerri negar batek ixilki (EJ50: 171)

atzesku [III.2.4](#)

- auresku baten zer da ikustea lenengo eskuen zinuak; eta neskatxai begiratuta atzeskuaren kinuak! (EJ70: 71)
- aureskuari lagunduteko da atzeskuen eskongea; ta atzeskuari aureskuena barrdinduteko guztia (EJ70: 71)
- muxarrak eta gaztain erreak, esnea dutela atzesku (HE18: 86)

atzizki [III.2.4](#)

- beste zenbaitek, -garri eta -tzale atzizkia dutenak batikbat (EJ80: 18)

auka-zati [II.3.2.1.9](#)

- nik itxas-bedar auka-zatiak baino ezpadira ere, zerbait beintzat, amasei bat orri badakustaz eskuartean (EJ06: 71)

aurpegi-azal [I.5.9](#)

- Ille-bizar txurien esi-barnean, aurpegi-azala, aulkien gorria bera lotsarazterañoakoa, ageri du (HE17: 23)
- ezkoa bezain ori zun aurpegi-azala (HE18: 50)

aurpegi-zati [II.3.2.1.9](#)

- aurpegi-zatiak eta zati diren osoarekin eta elkarrekin bestelakoak baitira (HE38: 169)

aurrealde [III.2.5](#)

- aurre-aldea tellatutik bera lurra jota dauka (HE29: 16)
- aurre-aldea (...) lurra jota dauka; atze-aldea tente (HE29: 16)

aurrebaldintza [III.2.5](#)

- aurrebaldintz ekonomiko eta sozialek (HE36: 4)

aurregun [III.2.5](#)

- aurre-egunetik gaztaiña-pilla aitak orbelez estali (HE18: 71)
- batuta egozan aurre-egunetik Mungian da inguruetan (EI99: 137)
- askok egiten dabe aurregunean (bezperan) joan ara (HE21: 27)
- erritar mutil asko, aurreguneko jan edan geitxoagaitik eta gitxitxo egin ebielako (EJ59: 63)
- txerri-iltzekoan eta pesta-aurregunean (HE18: 16)

aurrehitz [III.2.5](#)

- Pierre Lafitte Kalonigu eta Euskaltzainak Aurre-Itzez Platon'en hirur arpegi (HE38: 309)

aurreiritzi [III.2.5](#)

- hurrei ordea aurreiritziak uztea zintz egitea adina gostatzen baitzaie (HE39: 109)
- inorantzia aurreiritziak eta kriterio extraliterarioak (HE36: 32)
- literaturaz kanpoko aurreiritzi eta ikuspegiak areagotu egin dute (HE36: 3)
- baserri giroko kultura hori, ipuinez, aurreritiz (EI94: 21)

- zabaltasun bat, aurre iritzi, gogoko ditugun sistema (EC70: 12)
- liburuaren aitzakiz, norbere aurre-iritziak eta usteak sartu oi ditugu gidari (EC70: 74)

aurrekultura [III.2.5](#)

- aurreritiz eta mitoz hezurmamitutako aurre-kultura besterik ez da (EI94: 21)

aurremutil [III.2.5](#)

- aurre-mutillak ikusi eben andra bat bidea ausi eta basora sartzen (HE21: 107)

aurrerapen-bide [II.7.2.2](#)

- "aurrerapen-bidea" idatzitzeko agindu zionean (HE24: 15)

aurrean [III.2.5](#)

- Saski-Naskiren aurrean erderaz egitea (HE17: 60)

auresku [III.2.5](#)

- batek besteari eskuak emon da aureskorako sokaturik (EJ59: 59)
- makilka zabalune andi bat egin eban errizañak, eta asi zan aureskoa (EJ59: 59)
- eguerdi aldian, aintzina, Murgoitixoko kofradiako mutilak aureskua egiten ebien (EB87: 44)
- lenik mutil bat dakus aureskularia (HE18: 53)
- aureskua noiz-asiko begira dagoala, mutil orditu bat yatorko baltzeoan beragaz egiteko itsu-soñura eroan-gurarik (EJ77: 109)
- aureskuen dabillen neska yantzale nor da, gazteak? (EJ77: 112)
- auresku baten zer da ikustea lenengo eskuen zinuak (EJ70: 70)
- aureskuari lagunduteko da atzeskuen eskongea; ta atzeskuari aureskuena barrinduteko guztia (EJ70: 71)

auresolas [III.2.5](#)

- aurre-solasak erderaz egiñaren aldeko (HE17: 61)

aurrezpain [III.2.5](#)

- Artasiaren aurre-ezpaiñean multzokatzen da lastoa; sardea azpitik sartuz, berdintzen, narra geldituz arroa (HE18: 339)

aurrizki [III.2.5](#)

- Ez dugu, des- eta horren antzekoren bat edo beste kenduz geroz, aurrizkirik, latineko ad-, ab-, co(n)-, de-dis-, ex-, eta gainerakoen indarra bihur dezakeenik (HE27: 110)

autobiografi tankera [II.5.2.11](#)

- liburuaren nabarmenena autobiografi tankerako bat da (HE28: 69)

autobus-ilara [I.5.4.2](#)

- ni an nenbillen batetik bestera autobus-illara artan beraren galdezka (EJ60: 116)

autobus-lotura [I.5.1](#)

- Mauleko trena kendua izan da. Oloroe-Atharratze autobus-lotura kendua ere bai (EJ51: 72)

automobil edo beribil-zarrastada [IV.2.1.1](#)

- entzun genduan gure atze aldetik automobil edo beribil-zarrastadea (HE21: 41)

automobil-mugimendu [I.5.1](#)

- eta Bergara'ko Deskarga aldetik ere automobil-mobimentu aundia zebillen (EJ49: 111)

autonomi arazo [I.5.1](#)

- esan beharrik ere ez dago, berehala sindikatuen autonomi arazoa datorkigula guztioi burura (EJ52: 36)

autoritate-modu [II.4.2.5](#)

- zer autoritate modu dadukazu bada zuk? (HE39: 38)

autoritate-printzipio [I.5.1](#)

- autoritate printzipioaren axola hutsez (HE39: 39)

auzetxe [I.5.9](#)

- auzetxetik atera soka eskuz-esku (HE18: 20)

auzi eta epai-arazo [IV.2.1.1](#)

- Juezak auzi ta epai-arazoetan mintzatu oi-dabeen zearkariragiño (EJ06: 86)

auzi-etxe [I.5.10](#)

- aurkeztu bear eban auzi-etxean, eun da berrogei urte lenagoko gertaera baten ganean ekiena esatera (EI99: 168)

auzi-paper [I.5.4.1](#)

- Ona emen bi edo iru urtez onuntz laicisten contra eguiten diran aucipaper aserre eta uandituen iru puntuac. (HE40: 183)

auzibide [II.7.2.2](#)

- lenago soll eta garbi ipin zagun, galde edo aucibide au (HE40: 175)
- mundua nastua darabilen joan-etorri edo aucibide au oso eta bici eguiñ oi diran lánen gañecoa da (HE40: 191)

auzigai [II.7.2.4](#)

- ori ere auzigai balitz bezala! (EJ05: 181)

auzitegiburu [II.7.2.3](#)

- auzitegi buru Errekondo (HE23: 109)

auzo-eskola [I.5.9](#)

- txikitan Uribarriko auzo-eskolara ibilli zan (HE25: 12)

auzo-etxe [I.5.9](#)

- auzoetxeko andrea etorri zen bisitaz gure etxera eta xutik zegon sukaldean ele eta ele (EJ68: 16)
- auzo-etxera doaz, zai dute danbolin (HE18: 16)

auzo-gela [I.5.9](#)

- Eliz ondoan. Emen dago orain auzo gela. Aldamenean "Escuela Nacional" (HE23: 82)

auzo-katu [I.5.9](#)

- geroxeago, auzo-katuak dira gaienduko, miau ta marramau (EJ03: 10)

auzo-lagun [II.7.2.10](#)

- auzo-lagun onak izatea (HE33: 5)

auzolan [II.6.2.4.3](#)

- jo ta ke galtzara irikitzen, ea mutillak, mondragoitarrakin bat artuta berebiziko auzolanean (EL70: 49)
- auzo lanean ekin zioten anaikero, bi errien etsai bakarrari makurtu-arazteraño (EL70: 39-40)

axola-izpi [II.3.2.1.3](#)

- egia da genero literarioez axola izpirik ez duela (EJ54: 749)

aza-hosto [I.5.3](#)

- belar legorra jarri oeak kajetan egin ditzaten ta egunero jaten ematea, aza-ostoak, letxuga-ostoak (EF92: 101)

aza-kirten [I.5.3](#)

- cerriac jaten cituen azaquirtenac ere (HE07: 312)

aza-lili [II.6.2.1](#)

- aza-loratua, aza-lilia edo koniflora (EJ64: 48)

aza-ondo [I.5.3](#)

- aza ondoa ongi begiratu, orriz-orri astindu et [sic] barerik ez (EJ53: 96)

aza-orri [I.5.3](#)

- bare patxadatsua ikusi zuen aza orrietara igotzen (EJ53: 95)

aza-salda [I.5.7](#)

- aza-salda naikoa izan al duzue! (HE18: 32)

aza-zurten [I.5.3](#)

- bi esku-mutur ezurtsu; lau aza-xurten baturik ainbat lodi; gerruntze-alde sendoa (EJ03: 21)

azaburu [II.7.2.3](#)

- harçau açu buru churi bat edo biga eta erakitaraz puchca bat (EJ75: 21)

azahar-ur [I.5.7](#)

- egingo da ore bat, erantsiaz azahar-ur tanto batzuek (EJ64: 39)

azahar-ur tanto [IV.2.2](#)

- egingo da ore bat, erantsiaz azahar-ur tanto batzuek (EJ64: 39)

azalprintz [I.5.3](#)

- edo nescacha mutillen batzarreetara, eta azalprintz oneco guciaquin atsegin artu naya izan oi cenduan? (HE07: 142)
- milla losencha len, baña azal prinza cimurtzen, eta ortzac erortzen asi zaizcanean, ez daucazu ezertan. (HE07: 97)

azaro [II.7.2.12](#)

- Ereiten dogu lina-acija lur ondo guijau ta azaro onecuan (HE20: 138)

azaro-hondar [I.5.3](#)

- azaro-hondarrean edo abenduaren lehenetan Iruinearatu izango zen Gamiz (EJ00: 178)

azazkal [I.5.3](#)

- erpuruetakoz atzaskal artean (HE21: 68)

azeri-andana [II.2.2.2.1](#)

- hesi baten gibeletik ohartu zen hantxet azeri andana bat bazela bildua (HE32: 31)

azeri-bihotz [I.5.2](#)

- atsegin egiten dautazue ene azeri bihotzean (HE32: 31)

azeri-dantza [I.5.1](#)

- an egiten zen mutilen axeri-dantza, etxez-etxe arraultze ebaska eguna bota ondoan (EJ65: 21)

azeri-janari [I.5.10](#)

- Joanis, eguizu bada azeri janaria (HE20: 164)

azerikume [II.7.2.9](#)

- halakorik egiten dela ere!, zioen azerikume guztiak madarikatuz (EJ53: 50)

azkazal [I.5.3](#)

- gerri-mako, lepa-kupi, minbera azkazala (HE18: 59)
- emendik lurreraño beren eskuetan, azkazal batean ere miñik artzen ez dezula (HE13: 87)

azkonarkume [II.7.2.9](#)

- indioilar harro hura eta batez ere azkonarkume bizkor hura (HE39: 89)

azkonkor-kaskateko [I.5.6](#)

- Don Saturdiñoren azkondor-kaskatekoen barri ondo ekian Peruk (HE31: 17)

azoka-egun [I.5.4.3](#)

- zer mirari gertatu dan asteko Azpeitiko azoka egunean? (HE22: 52)

azosto [I.5.3](#)

- Axuri, Apez, neskame, azosto eta auntzak, okin, arotz, emazte bi erratzei josiak (HE18: 53)

azpantar-pieza laurden [IV.2.2](#)

- eta loturik aien puntan aspandar pieza laurden bana (HE19: 66)

azpi-harri [III.2.6](#)

- ikasbide zaar lotsagarri orren azpiarriaz (HE17: 51)

azpiasto [III.2.6](#)

- Lenengotik, arbolak bota ta moztu egiten zituzten (...) azpi-astoa esaten zioten ari (HE29: 62)

azpiegitura [III.2.6](#)

- esaten da Euskaltzaindia horiek lantzearen alde dela baina beti ere ortografia eta hizkuntzaren azpiegitura zainduz (EJ56: 93)
- azpiegitura hitza adierazpenean sartzeko eskatu zuena Mitxelena jauna izan zen (EJ56: 93)
- euskalkiak lantzean hizkuntzaren azpiegitura zaindu behar dela (EJ56: 96)

azpigai [III.2.6](#)

- Ilbeltzean, iñorkin edo azpigaiak bildu, egurra bota, azkeneko simaurrak atera (EJ62: 12)

azpijan [III.2.6](#)

- gorroto honen handinahi eta azpijanak (HE27: 315)
- azpiana ebillen karlista ta liberalen artean (HE18: 12)

azpijoko [III.2.6](#)

- eta apostu bat egingo bagenu? esan zion azpijokuz Axelkok (EJ53: 96)
- zure biziko ase bazenuke han, ihardetsi zion azpijokuz arranoak (EJ53: 142)
- honela mila azpijokuren ondotik Nafarroan kontrako iritzia jasotzen du alkatetxeen bozketan (EJ52: 21)

azpilan [III.2.6](#)

- aspaldidanik azpi-lanean ari ziren bulkoak (HE28: 76)
- Alostorreko nagusiagan ere, azpi-lana egin zuen, eta, emeki-emeki, bere emazte zenaren oroimena lausotzen joan zitzaion (EJ48: 19)
- azpi-lanak berea egin du arian-arian (EJ03: 37)

azpilapur [III.2.6](#)

- iruzurgille, azpi-lapur, ebasle (HE28: 56)

azterketa-etxe [I.5.10](#)

- jakileen aurrean bertan lotu ez askatzeko moduan ta mordoska oietako bat azterketa-etxera (laboratorio oficial de análisis) eraman ta bestea saltzaleari utzi. (EF92: 36)

azterketa-lan [II.6.2.4.3](#)

- baina folio guztien azterketa-lana burutzeko, noski, denbora guztia behar lukeela urte batzutan barrena (EJ51: 96)

azterketa-modu [II.4.2.5](#)

- hortzak ikusteko? galdatu zuten neskek azterketa modu hartaz harriturik (HE39: 105)

azterketa-mota [II.4.2.7](#)

- bi jokabide, bi azterketa-mueta erabilli oi da, ba, auzi auek garbitzeko (EC70: 74)

azterpenaldi [II.7.2.1](#)

- Etxeberri'k bere liburutan darabillen euskeraren azterpenaldi bat (HE28: 62)

aztore-eskularru [IV.2.2](#)

- Jaun Beltran-ek, aztore-eskularrua jantzirik, bere hegazti harrapakaria abailan bidaltzeko abagune baten zain (EJ48: 11)

azukre-bola [I.5.4.1](#)

- ez bada tipula berria, emoçu sucre bula ttiki bat (EJ75: 13)

azukre-errauts [I.5.1](#)

- sei arroltce fresco, pisu bera sucre herrauts eta irin (EJ75: 45)

azukre-hauts [I.5.1](#)

- iru edo lau bitter-tanto ta azukre-auts gutxi bat (EJ64: 106)

azukre-koskor [II.3.2.1.4](#)

- beste batzuek azukre koskorra kuadrada (HE29: 100)

azukre-koxkor [II.3.2.1.4](#)

- gozo-ontzitik azukre-koxkor bat atera (HE17: 18)

azukre-lika [I.5.7](#)

- Ebangeliotic ezta eta azucere-lica darizten testoac bacarric ateratzen ditu platerara (HE40: 81)

azukre-poxi [II.3.2.2.2](#)

- ez bada aski gorrasta, gorrastatu behar da sucre pochi batekin (EJ75: 8)

azukre-puxka [II.3.2.2.3](#)

- eta farcitçen direnean glaçatcen tuçu sucre puchca batekin eta phala gorriaz (EJ75: 24)
- hartuz artha emaiteco noicetic noicera sucre puchca bat ez itçulceco (EJ75: 53)

baba-kutsu [II.5.2.9](#)

- eskuan zuen baba-kutsuko burrunzaliarekin jo du Txirrita bi begien erdian (EJ79: 15)

baba-lasto [I.5.3](#)

- Leitze-landan jan dukan baba-lasto tantai (HE18: 135)

baba-leka [I.5.3](#)

- baba-lekak jaten ari zala aoa betean (HE22: 70)

baba-lore [II.6.2.1](#)

- antziñako prantzi-porruak ere, etziran noski izango bearbada Iztueta "baba-loreak" dion bezain laudagarriak (EJ64: 19)

baba-malkar [I.5.3](#)

- mandioa betea ostoz ta belarrez, agotzez eta lastoz ta baba-malkarrez (HE18: 118)

baba-salda [I.5.7](#)

- baba-saldarekin naikoa izaten genduan (HE29: 116)
- bizi litekek (...) laister artuko degun baba-saldari utziaz (HE22: 59)

- Txirritari eguardirako zegoen baba-saldatik eman omen zion kutxarekada bat (EJ79: 13)
- orregatik izango zuela ainbesteko burua: lenbiziko tragua baba-saldatik egin zuelako (EJ79: 13)
- Txirritari eguardirako zegoen baba-saldatik eman omen zion kutxarekada bat (EJ79: 13)
- orregatik izango zuela ainbesteko burua: lenbiziko tragua baba-saldatik egin zuelako (EJ79: 13)

babarrun-baratze [I.5.4.2](#)

- an ikusi genuen gure bertsolariya baberrun baratz baten inguruan (EJ79: 110)

babarrun-puskatxo [II.3.2.2.3](#)

- eta, nere aserre biziari eskerrak, uste det baberrun puskatxo bat bilduko degula aurtan (EJ79: 111)

babesgarri-lege [I.5.10](#)

- Erkalaren babesgarri-legea ez al didate ezarriko (HE17: 26)

bainila-gustu [I.5.1](#)

- baduçu ratafia on-on bat vanilla gustu perfet batekin (EJ75: 52)

bainila-puxka [II.3.2.1.8](#)

- emaiten duçu çure esnia egosten vanilla puchca batekin eta sucatçen duçu (EJ75: 32)

bainu-etxe [I.5.10](#)

- alperrak alperragotzeko or-emenka mendi-egaletan ditukan guezalaga edo urastegui edo bañuecheak (EJ07: 1)
- Azkoitiko San Juan bañu etxean ere holako ohiturak omen ziren aintzinako denboretan (EB87: 51)
- Kesada edo Kanalejas jauna auzoko bañu-etxeen baten bazeuden (HE24: 140)
- besteak baiñu-etxe batean ezagutu zituen bere nagusiak (HE16: 43)

baioneta-mutur [II.3.2.1.5](#)

- bayoneta muturrari arto mokotxa jarri genion (HE23: 70)

baja-ale [I.5.3](#)

- teniente ori il zutenean, beste baja ale batzuk ere izan genituan (EJ66: 103)

baju-ahots [I.5.2](#)

- gizon iger eta luzeak baju abotsa izaten dute (HE35: 101)

bakailao-zati [II.3.2.1.9](#)

- tipula gorritzen asten danean makallau zatiak kazuelara bota (EJ64: 111)

bakaldungai [II.7.2.4](#)

- bere senitartean bakaldungaitan ba dauko ba! (HE21: 57)

bakantza-denbora [I.5.4.3](#)

- Zer berri da ahetzen? Ongi pasatu duzue bakantza denbora? (EJ04: 94)

bakantza-egun [I.5.4.3](#)

- lan-arte edo bakantza-egun batzuez (HE59: 8)

bakantza-eskualde [IV.2.2](#)

- Zuberoa, horrela, kanpotarren ehize-leku eta bakantza-eskualde huts ari da bihurtzen (EJ51: 72)

bakantza-leku [I.5.10](#)

- Labordek frogatzen duenez, frantses burgesiaren bakantza-leku bihurtua da (EJ51: 81)

bakardade-irrits [I.5.10](#)

- bakartade-irritsaz nago, irriez aspertua; nahiago ditut ibai, landak eta zerua (EJ50: 155)

bakardade-memento [I.5.4.3](#)

- bakardade memento haietxek izan dira agian neure bizian ezagutuko ditudan osoenak (EJ51: 94)

bake-bolada [I.5.4.3](#)

- pake bolaratan nai aña artzen dugu, ba (EJ03: 50)

bake-denbora [I.5.4.3](#)

- bake denboran ziren Lazariano (HE58: 69)

bake-egun [I.5.4.3](#)

- baque egunetan atera eruazan (HE20: 217)

bake-itxura [II.5.2.7](#)

- pake-itxuran aurkeztu bait-ziran, zuri-zuri gezurretan itzegiñaz (EL70: 192)
- pake-itxurako inguruan zeudelarik ere, pamily geienak estuasun larripean bizi ziren (EJ03: 41)

bake-urte [I.5.4.3](#)

- Pake urtea degula aurten? Ez da itxura aundirik! (EJ69: 33)

bake-zuhaitz [I.5.5](#)

- Nere barne-baratzan, datorrela gora bake-zugaitz azpian, alaitasun-lora (EJ50: 11)

bake-zuhaitz azpi [IV.2.2](#)

- Nere barne-baratzen, datorrela gora bake-zugaitz azpian, alaitasun-lora (EJ50: 11)

bake-zuzentasun bide [IV.2.2](#)

- Erri baten mugaldeak eta ondasunak, pake-zuzentasun bideak eta gizarte-legearen itzala guda-gizonak dituzte babesten (EJ03: 66)

bakealdi [II.7.2.1](#)

- Ondo -guk- noizean bein pake aldi pixka bat (HE23: 43)
- Urkola'n eta Barazar'en baretasun eta bake-aldi bardiña nabaitu zan (EJ49: 157)

bakealdi pixka [IV.2.2](#)

- Ondo -guk- noizean bein pake aldi pixka bat (HE23: 43)

bakearo [II.7.2.12](#)

- Baliman, bake-arogan aipatzen zuten bere Misionera (HE58: 69)

bakebide [II.7.2.2](#)

- pake bidetik bildu gaitezen anaiok anaiongana (EJ69: 72)

bakegune [II.7.2.6](#)

- Compiègne'ko ohianean, tren-bagoi itxi bat biltokitzat, pake-gunea siñatuxe dute bi alderdietako arerio bortitzak (EJ03: 36)

balde-erdi [II.3.6.1.1](#)

- balde erdi bat erasteko ordu erdi baino gehiago emon eban (HE44: 15)

bale-kontu [II.6.2.4.2](#)

- zenbait mariñel bale-kontuban berriz alakoak dira (EJ78: 123)

bale-soka [I.5.11](#)

- Mediku eta apaiz, bestia alkatia, bale-sokai tiraka bazan an jendia (EJ78: 35)

bale-zorri [I.5.2](#)

- Bale-zorri baten iduria ere badu, adierazpen onekin (EJ78: 22)

balio-aitor [I.5.4.1](#)

- bestalde, gutxik lortuko bide luke gaur, kritikari gisa, Azurmendik lor dezakean balio-aitorra (EJ51: 53)

balio-estruktura [I.5.4.1](#)

- Gizona mundu mailako ta giza mailako balio estruktura batean aurkitzen da (EI94: 47-48)

balio-maila [I.5.3](#)

- ta Jainkoaren epaia ere, balio maila guzietan buruz gertatzen da (EI94: 50)

baliogo-eztabaida [I.5.4.2](#)

- Baliogo-eztabaidak dira bakarrik gizonetan. (HE34: 56)

baltseo-puskatxo [II.3.2.2.3](#)

- Zer derizkiozu gure gazteriaren dantzari? Sosochoa esateko, balseo puska bat ere gabe... (EJ07: 2)

Banakola-leiho zulo [IV.2.2](#)

- Eta ba daroat Banakola-leio zuloetara, ta ango langiñei dirautset artu dagioela gure gizonari dakarren zeregiña. (...), eta gero daroat Centro Vasco-ra (HE21: 55)

banatze-kontu [II.6.2.4.2](#)

- 50.000 laurlekoen banantze kontua eman zezanean (HE21: 52)

bandera-tiro [I.5.10](#)

- Bandera-tiroa asten da une ortan (EJ51: 22)

banderape [II.8.2.9](#)

- cer ecin quizun dago gaur leguéc debeatzen ez tuten eran cristauen banderapecoac guerra eguiteco (HE40: 192)
- zucenaz diruditen persónac bere banderapean dauzcan partidu gaiztoa onratuaz eta ontzat beguiratuaz (HE40: 73)

banka-hiztegi [I.5.4.1](#)

- pertsona eta merkatalgo izendegiak, herri, eta herritarren izenak, banka hiztegia, etab. (EJ56: 125)

baratxuri-korda [I.5.4.1](#)

- alkandora, barrengo, musu-zapi eta abar... baita lukainka mutur, gazta zar puzketa, piku idor, bi dozena arrautze, tipul ta baratxuri-kordak (EJ03: 17)

baratxuri-puxka [IV.2.2](#)

- eçarraçu baratchuri puchca bat, tipula eta perrechila (EJ75: 10)

baratxuri-xixter [II.3.2.1.9](#)

- perrechil buket bat, baratchuri chister bat, canela puchca bat, espiceria, biper beltcha (EJ75: 15)
- baratxuri xixter batzu (sic) han hemenka sartuak (HE59: 30)

baratzuri-zuztar [I.5.3](#)

- larru-azalari uarkara berezia damaio emengo inguratsak; angoak, osterak, baratzuri-zuztarraren antzeko buztin-mintza (EJ03: 77)

baratz-lan [II.6.2.4.3](#)

- baño landareak abonoak azkar artu dezaten nai degunean (baratz-lanetan, esateko) (EF92: 37)

baratze-mutur [II.3.2.1.5](#)

- eman, Anttoni-ren baratze-muturrak (EJ03: 14)

baratze-terreno [I.5.4.2](#)

- pralleenak izandako baratz-terrenu batzuk gobernuak beretzakotzat zeuzkan eta subastan saldu nai zitun (EL70: 205)

baratzuri-salda [I.5.7](#)

- biharamunean, zazpietan jeiki, baratzuri salda hartu ta berriz beren itzuliaren egitera gan behar (EJ04: 68)

baratzuri-zopa [I.5.7](#)

- esate baterako, baita baratzuri-zopa ere (EJ64: 100)

barau-aro [II.7.2.12](#)

- asterik andiena, Aste Santua, ta beragaz batean baru-zaroak, eliz-jai samurrak... (EJ59: 44)

barau-egun [I.5.4.3](#)

- eta alauer oracioac erraten diradenean, vrte gucian barur egunetan, Gariçuman (EJ57: 123)
- Donostia'ko jaien bidez, ilbeltzaren emeretzia barur-eguna izan dela urte askoz donostiarrentzat? (EJ51: 19)
- barau-egun (HE08: 185)
- konfesiyo ta barau-egunak animaz akordatzeko, pekatuaren mantxa Judasen kalabozuan sartzeko (EJ67: 374)
- eta barau-egun oec dira Bazco-aurreco Garaizumaren berrogei egunac (ED46: 186)

barau-lege [I.5.1](#)

- galduta zuten etorkizuna egunaren barur-legeak (EJ51: 20)

barau-ohitura [I.5.10](#)

- bateko, barur-ohitura galtzen zijoala esan dugu len (EJ51: 20)

barau-otoitz [I.5.8](#)

- barur-otoitzak laguntzat artu, eranzun zion Tobiasi Aingeru Santuak (HE13: 100)

barazki-puxka [II.3.2.1.8](#)

- barazki-puxka gozoez egiña (HE17: 44)

barbar-mintzaera [I.5.2](#)

- Lesbi-tarra izaki ta barbar-mintzaeran azia bezala (HE38: 160)

bare-apustu [I.5.6](#)

- bare-apostua [tit] (EJ53: 95)

bare-pila [II.2.2.2.6](#)

- denbora txarra zan lanerako, etorri nintzan onera, eta, jaunak, ura bare pilla! (EJ79: 110)

bare-sare [I.5.10](#)

- bare-sare-gaiñetik biltzeko odolkoa (HE18: 126)

barealdi [II.7.2.1](#)

- ekaitz-aizea etorren baraldi-atzean; eguna datorrenez izarrak batzean (EJ70: 134)

barietate-tesi [I.5.4.2](#)

- neskek gogor eusten zioten beren barietate tesiari (HE39: 106)

barkamen edo pekamen egun [IV.2.1.1](#)

- urtean behin, barkamen edo pekamen egunean, Israel herriaren bekatuen barkamenerako (EJ71: 20)

barkamen-kanta [I.5.10](#)

- gogoak osatu-asmoz asi nintzan lanean parkamen-kantak kantatzen gizaseme artean (EJ50: 155)

barne-araudi [III.2.7](#)

- barne-araudi bat ere egiña du (EI94: 33)

barne-asmo [III.2.7](#)

- ez inungo piztien barneasmo eta susmo izkutuen eredu (EJ53: 8)

barne-atsekabe [III.2.7](#)

- zenbat egun uts... zenbat barne-atsekabe (HE34: 48)

barne-bakarrizketa [IV.2.2](#)

- barne-bakarrizketa, Joicek lantzen duena (HE35: 8)

barne-bake [III.2.7](#)

- leengo alaitasuna barne-pake biurtu zait (HE34: 64)

barne-baratze [III.2.7](#)

- nere barne-baratzen, datorrela gora bake-zugaitz azpian, alaitasun-lora (EJ50: 11)

barne-bide [III.2.7](#)

- barne-bidetik atera diteke (EC70: 84)
- ba du beintzat barne-bide onek norbere begitazioetan eta norberari begiko zaizkion usteetan erortzeko perilla (EC70: 74)

barne-bihotz [III.2.7](#)

- barne-bihotzez jarreikiren zaie nik orain erramen ditudan hitzei (HE02: 38)

barne-bizitza [III.2.7](#)

- Jesusen siñeste gabe, barne bizitza gabe (EC70: 14)

barne-egitura [III.2.7](#)

- barne-egituraz Euskal Herriko parrokiako ardi-talde ona eta sineskorra baizik ez gara (EJ51: 85)

barne-gerra [III.2.7](#)

- Gironda-ko gudu hau beraz, Frantziako barne-gerlako pasadizu bat izan zen (HE33: 85)

barne-giro [III.2.7](#)

- mozkor-usaiñez loreek ire barnegiroa zoraturik? (EJ50: 105)

barne-gizon [III.2.7](#)

- alde batetik barne gizona edo gizonaren nahia (EJ71: 30)

barne-indar [III.2.7](#)

- eta liturgia bat ere bai, barne indar eta zabatze indar andikoa (EC70: 26)
- ez mirakuiluzkoak, noski, baiñan Jesusen barne-indar batez egiñak (EC70: 36)

barne-jardunaldi [IV.2.2](#)

- Foruko Euskaltzaindiaren barne-jardunaldietan bigarren bat gehitzea erabaki zen (EJ56: 103)

barne-kutsu [III.2.7](#)

- bere barne kutsua lotuaz eta masak beraiek osatu dituzten erakundeei lotu eta atxikiak (EJ52: 34)

barne-lur [III.2.7](#)

- ator egi, lepotik zintzilika atxurra, yorratzen asi ari nere barne-lurra (EJ50: 11)

barne-maratila [III.2.7](#)

- ongi daki onek anderekerien berri; ezagutzen ditu baita emakumezkoen barne-maratillak (EJ03: 46)

barne-min [III.2.7](#)

- ots dardartia darion barne-miña (HE28: 57)

barne-muin [III.2.7](#)

- bere barne-muñean minduta Miren, etzuen ezer azaltzeko kemenik (HE34: 67)
- sorlekuko barne-muinetan sartzeko gogo bizi bizi bat erne zitzaidan (HE33: 3)
- guziz bestelakoa dela barne-muiña iñarrosten didan ilbear au (HE34: 58)
- zure iduri amesgarriak ernetzen du nere barne-muña (HE34: 37)
- Gil del Rio-ren liburuak mindu eta zauritu ere egiten bide gaitu geure barne-muinetan (EJ51: 76)

barne-tirain [III.2.7](#)

- esperantza zen lehen udaberria, barne-tiraina (EJ51: 91)
- histu egin da nigan, loratu gabe zimendu, barne-tiraina kanpoko haize bala epel bilakatu (EJ51: 91)

barne-zentsura [III.2.7](#)

- gure arteko barne-zentsurak egin ohi dituen inausketen itzalik gabe (HE33: XXVII)

barne-zirrara [III.2.7](#)

- artan, Garazik burua itzuli barne-zirrara aundirekin (HE18: 73)

barre-aldizkari [I.5.10](#)

- IGELA bezalako farre aldizkari bati sorrera eman zion (HE30: 202)

barre-antz [II.5.2.2](#)

- Azkenik, seaskan esna, guzcion yardun eta ots arteon, beti parre-antza (HE17: 18)

barre-erretatu [I.5.5](#)

- Dies irae doinuan etxeko guztiei egin farre-erretatoan Gamizi berari dagokion ahapaldia: ibilkera zalapartaria (EJ00: 179)

barre-irudi [I.5.10](#)

- berriez, lan benez ta arin-alaiez -parrirudiak aztu-gabe (HE17: 66)

barre-pixka [II.3.2.2.2](#)

- "umeen gauzak" esan, farre piskabat egin eta kaixo motel (EJ48: 24)
- paper hura argitaratu egin zuen, jendeak parre pixka bat egin zezan (EC70: 78)

barrealdi [II.7.2.1](#)

- Gazte-jendeak ba du parraldi (HE18: 88)

barren-azkura [III.2.7](#)

- olerkari etzeratenok gure barren-azkure ontaz zerbait uler aal-dezazuten (HE17: 28)

barren-ertz [III.2.7](#)

- atx-gangar ikaragarrien barren-ertzetatik ziar (HE31: 71)

barren-irakite [III.2.7](#)

- Eta izenari baino izanari lotuago ageri den mintzabehar horrek, barren-irakite horrek, uzta joria sor dezake (HE27: 141)

barren-izerdi [III.2.7](#)

- arima, gozo eta barren-izerdi gabeko mintzoa (HE26: 291)

barren-mugida [III.2.7](#)

- hori irakurtzeak sortzen dituen gogoetak eta barren-mugidak (HE27: 334)

barren-ostots [III.2.7](#)

- Baiña -legea lege- berak dun maitatxi, / barren-ostots ixillaz, ekarri besteri a (HE18: 23)

Barrenkale [III.2.7](#)

- Barrenkale (gaur Barrencalle) (EI99: 161)

Barrenkale-barren [IV.2.2](#)

- Barrenkale-barrena (gaur Barrencalle-barrena) (EI99: 161)

barrera-tarte [II.8.2.16](#)

- Santiago-egun batez, zezenak iges egin zuen barrera-tartetatikan, eta mendi aldera jo zuan (EJ67: 194)

barru-ikara-gose [IV.2.2](#)

- Asi, asi! Orrelako barru-ikara-gose bai-nazu, Moris jauna (HE57: 110)

barru-irakin [III.2.7](#)

- ez barru-irakinaren erdi-beharrez, inoizko behin "esta la vena (poética) madura" badio ere (EJ00: 185)

barru-kisketa [III.2.7](#)

- Cembait dei, ate-joca, barruquisquetac, eta argui ni irazartuteco! (EC61: 56)

barrualde [II.8.2.3](#)

- arbolaren sustrai luzeak eurak billatzen dabe ura, barru alderantza asiaz (EJ07: 2)

barrunbe [II.8.2.9](#)

- dardaratu egiten zait barrunbe osoa pozez (HE34: 39)
- zergatik ikutzen dit barrunbea ura ikusteak? (HE34: 23)
- eta aldegin bearrean, setaz bezala barrumbean esatea (HE07: 211)
- Pazcoatic illa beteren barrumbean confesatzen, eta comulgatzen ezpada (HE07: 345)
- oec vici dira eren vicitza gaiztoan oatuae bezala, eta beren barrumbeac esaten die (HE07: 4)
- ezpada dotriña liberalác señalatzen dizun inguru-mayaren barrunbean (HE40: 59)
- asi liteque esnatzen zure barrumbean illuntasun, eta naigabea (HE07: 113)
- eta bere icenaz arrotzea, baldiñ bere barrumbean edo biotsez adisquideetacoa bada? (HE40: 61)
- Elizác bere barrumbetic botatzen duen nornai cristau fededunec (HE40: 140)
- Españiac, bere barrunbearen gueyena oraindic oso eta sendo dauca (HE40: 205)
- guciac ere bacoitzác bere barrumbean daucan concienciarequin cembait suertalditan leguearen bidez (HE40: 180)

basa aihen [I.5.9](#)

- muruan gorritzen ari ziren basa-aihenen ostroen larratzkena ezagutarazten zuten (HE58: 52)

basa auzi [I.5.9](#)

- hor azkenean basa-auzi batean galde-aldi bat egin (HE58: 67)

basa hegazti [I.5.9](#)

- zenbait basa-egazti eta dozenatxo bat erbi izan da eguneko arloa (EJ48: 12)

basa idisko [I.5.9](#)

- zortzi basa-bei, ta basa-idisco galant bat (HE20: 109)

basabehi [I.5.9](#)

- badaucaguz oneez ostian zortzi basa-bei (HE20: 109)

basabere [I.5.9](#)

- lurreco bas-abereec eta aireco hegaztinec badituzte bere egoitçac (HE05: 107)
- Basaberac esaten jaquee chicar igon baga datozanai (HE20: 187)
- txaloka hartu zuten basabereak berria eta erregek urera joan nahi zutenen buru izendatu zuen mandoa (EJ53: 17)
- hirugarren edo laugarren aldirako urrunera ikusi zuen basaberea (EJ53: 98)
- eta artean harrapaturik gelditu zitzaizkion atzaparrak basabereari (EJ53: 100)
- len basabereak (abere basotarrak) ziranak orain gizonaren naiez menperatuta abere

etxetiarrak biurturik daude (EF92: 69)

basabide [I.5.9](#)

- egun baten arin-arin joiazala basabide batetik (HE21: 107)
- orain eun urteko euskaldunak erribide ta basabidetan gau ilunean ibilteko zuziak bear izaten zituen (EJ06: 72)

basabortu [I.5.9](#)

- erakutsi zerauen hurruneke basa-bortu beroetarat aisa bialtzen ahal zituela (HE58: 78)

basaburu [II.7.2.3](#)

- basaburuan 1940-tik 1950-ra arte jaio direnen artean bertan bizi ezinik, %-82-ek egin diote alde Zuberoari (EJ51: 71)

basagizon [II.7.2.5](#)

- basa-gizon, ikazkin, egurgille ta arotz (HE18: 18)

basahuntz [I.5.9](#)

- oiek basurdetan eta basauntzetan ibiltzen ziran (HE29: 82)
- nik ez det oraindikan, lurraren gaiñean, basauntza baiño pizti azkarragorik ikusi (HE29: 82)
- bi ahizpek basahuntzek bezalako ijutia eginik, esmerilean zorrotzuriko xilioa jaurtiki zuten (HE39: 45)
- inoiz basahuntz hori ager baledi (EJ53: 120)
- aspaldiko denbora batean, basahuntz asko izaten omen zen Urbasa eta Haundimendi aldean (EJ53: 117)
- basahuntzek ez zuten orduan adarrik (EJ53: 117)
- neugaz zillargitzen dira ibai, soro, larredia, ta Auñamendiko basauntza, berez orrein izutia (EJ50: 22)
- egun batean, an bertan, arkaitz tartean, basauntza azaldu zan (EJ66: 41)

basahuntz-azpizun [IV.2.2](#)

- CHEAMENA: (...) basauntz azpizunak Villeroi gisara (EJ64: 31)

basajaun [I.5.9](#)

- jentialen antzeko ipuiak baxajauneri askotan ezarri oi dizkiete (HE21: 62)
- basajaunik bako basoen jaun izanik (HE44: 14)
- basajauna dago piku jaten iturri ondoan (EJ53: 118)
- basojauna, jentillak eta gañerako euskal mitologiaren kondarrak (HE27: 10)

basaka-usain [II.5.2.12](#)

- aren ginballak (kapelak) ere badio alako basaka-usai ta igazkotu-kutsu bat (HE17: 39)

basakatu [I.5.9](#)

- basakatuak ere bai, eta katagorriak ere bai (HE29: 82)

- basakatu antza geiago eukan (HE31: 23)
- arrapatzen nituan erbiak; basakatuak ere bai (HE29: 14)
- basakatua lakoxe beor-zaillak dozak (HE21: 93)
- basakaturik ain arin ez da abarrez abar goratu (HE18: 71)

basakatu antz [IV.2.2](#)

- basakatu antza geiago eukan (HE31: 23)

basakatu ume [IV.2.2](#)

- beste abeto baten gaiñetik jetxita, bi basakatu ume (HE29: 136)

basaker [I.5.9](#)

- barkatu, jauna; basahuntza ez baina basakerra zen (EJ53: 119)
- eta geroztik basaker guztiek adar kimatuak dituzte munduan (EJ53: 120)
- adarrak, basakerrak izaten ditu (HE29: 83)

basakume [II.7.2.9](#)

- ezin dezakegu jasan basakume bat gutaz burla dadin (HE39: 28)
- nork eta gixonska basakume hark (HE39: 26)

basalapur [I.5.9](#)

- ostuten deuscubez batzuc erri-lapurrac, ta ez guichi basa-lapurrac (HE20: 109)

basantxume [I.5.9](#)

- ontan, basauntxume bildurti bat dator -lenbizi dardaraz- (EJ50: 139)

basapizti [I.5.9](#)

- batzuek basa piztien larruekin jantziak izan ziran (EC70: 54)
- otso ta basapiztien janari izateko (EL70: 22)
- basapiztiak ez zion erantzunik eman (EJ53: 143)
- elkarri kalterik egin gabe bizi izan ziren geroztik denbora luzean abere larri, basapiztia eta mamutza guztiak (EJ53: 20)
- azeria zen basapiztietan maltzurrena (EJ53: 25)
- gizonak hasi zirelarik lurra lantzen basapiztiak larritu egin ziren zeharo (EJ53: 51)
- hori esaterakoan ahoa ireki behar izan zuen basapiztiak eta oiloak ihes egin zion (EJ53: 84)
- galdetu zion irribarre maltzurra ezin izkutatzuz basapiztiak (EJ53: 108)
- an ibilli ziran basa-piztiak lez (HE21: 65)
- danok amorratuta or goaz txarrera, basa-piztiak baiño okerrago gera (EJ69: 44)

basatxoko [I.5.9](#)

- harkaitz-bizkarrek inguratua, basa-txoko batean etzina (EJ00: 176)

basauri [I.5.9](#)

- Bilbo-ondoko basauri batzuetan lanka esaten da bankuaren ordezt (EJ06: 72)

baseliza [I.5.9](#)

- goizetik inguratu eta joan ziren baseliza aurrera (EJ53: 37)
- ahal bezain poliki hartu eta itzuli zen baseliza aurrera (EJ53: 38)
- bazen han baseliza zahar erdi-erori bat eta inor joaten ez zela jakinik, mesa entzuteko baimena eskatu zion astoak (EJ53: 77)
- astoak berriz pozez baseliza barnetik (EJ53: 77)
- eliza nagusira, beste batzuk talai-etxera ta Antiguako baselizara norbait edo beste (EJ59: 90)
- Bezarain mendian baseliza bat eraiki-azi zuen bere kontu (HE33: 53)
- Ama Mariaren irudi eder bat, baseliza polit politean ondo gordeta (EJ59: 49)
- urteten dabie abade guztiak baselizaruntz urre-zidarrezko jantzirik ederrenakaz apainduta (EJ59: 49)
- Miren Neskutza'ren baselexa (EJ63: 20)
- usaintzen dabe leunki ormako bedarrak. Uso baten antzean baselexoi datza (EJ63: 20)
- origaitik amek eta sein txikijak pozik sartuten dira baseleiz orretan (EJ63: 24)
- erbestetarren batzuk baselizaruntz, Antiguako Andre Maria-ri eskintzeko argizariak eskuetan (EJ59: 49)

baseliza-barne [IV.2.2](#)

- astoak berriz pozez baseliza barnetik (EJ53: 77)

baselizatxo [I.5.9](#)

- Antiguako Amaren baselizatxoa ikusten dan tokian, txapela kenduta (EJ59: 89)
- soil soilik Guadalupeko baselizatxora urbiltzen zen meza-egunetan, Praxkukin ia betiro (EJ03: 43)

baseme [I.5.9](#)

- lezondotarrek ziotenez bera ere ez omen zen emakume, baseme baizik (HE39: 91)

baserri etxe-jaun [IV.2.2](#)

- gure baserri etxe-jaunak, beti euki dabe euzkeraz irakurtzeko naitasuna (EJ05: 187)

baserri-antz [IV.2.2](#)

- oiek ez dute erakutsi nai iñola baserri-antzik (HE25:)

baserri-atari [IV.2.2](#)

- soroetan ari ziren baserritarrek edo zaldi taldearen hanka hotsera baserri atarira irtetzen ziren (EJ48: 12)

baserri-auzo [IV.2.2](#)

- baserri-auzoetan bakarrik gorde dute antziñako egun aien lurriña (HE57: 118)

baserri-barne [IV.2.2](#)

- herri koxkor horien berri (eta baserri-barneko berri batez ere) jakiten oso erraza ez delako (EJ51: 46)

baserri-bazkari [IV.2.2](#)

- erriko Donearen eguneko baserri-bazkari luzea, guztizko luzea (EJ59: 48)

baserri-bizitze [IV.2.2](#)

- baserriarrez eta baserri bizitzeaz izanen duen abegi onak (HE36: 35)

baserri-giro [IV.2.2](#)

- atzo etorri jatan neure erriko baserritar bat, Ipar-Amerikan, Idahon, seme bi daukozana (HE21: 104)
- Iru gazte Ameriketara dijoaz, bañan Ipar-Amerikara, ez Ego-Amerikara (HE50: 9)
- Eziñ siñistaturik nago oraindikan gertatu danarekin Ipar-Amerikan (HE55: 21)
- iltzaillea zein izan zen jakiteko, Batzorde bat izendatu zan Ipar-Amerikan (EC70: 102)
- Geien bat Errusi, Ingalaterra ta Ipar-Amerika'ren laguntzari esker iritxi du, bakarrean sekula lort etzezaken garaipena (EJ03: 36)

Ipar Euskal Herri [IV.2.2](#)

- Ipar Euskal Herria, Bretaina, eta abar, historia berri horretan sartuz (EI94: 38)
- Han nengoen ni, bada, Ipar Euskal Herritik etorri behar omen zuenaren zai (EJ20: 7)
- Ipar Euskal-Herrian, literaturari abioa emanen diote protestantek (EJ54: 747)
- Ipar Euskal-Herrian "h" letra gehienek ahoskatu eta idatzi denek giten dute (EJ56: 53)

Ipar Itsaso [I.5.9](#)

- Ipar Itxasoa igaro dabe egaizki-tramankuluetan (HE21: 72)

Ipar Nafarroa [I.5.9](#)

- Eta zenbat aldiz ez ote da gertatu lur ikararik Ipar Nafarroan? (HE52: 22)
- ez omen duela deus egin nahi Ipar Nafarroaren alde (HE52: 21)
- Ipar Nafarroan zehar [tit] (HE52: 3)

ipar-germaniera [I.5.9](#)

- ipar-germanarazko hizkelkiak (HE30: 208)

ipar-haize [I.5.1](#)

- piltzarrez lepo beharriak kukutuak ipar haizeak azpitik goiti daldaratuz (HE59: 83)
- Ipar-aize ozmiñak zugaztietan ataraten dau abarrots ezti-eztia (HE21: 75)
- elhur, iphar-haize, gaupe hedotsu hor dituzu... Gure ganat jin zara! (EJ50: 91)
- murmuratzen dute ipar-aizearen eraginez ta berresaten (EJ50: 178)
- Emengo egoaizeak bezelako indarra izaten zuela ango iparraizeak, eta asko sufritu zutela (EJ79: 32)

iparralde [II.8.2.3](#)

- Gobernuak ifar alde abetan zun guda nagusi goenekoa (HE23: 60)
- ipar aldeko paretean zeukan bere atea (HE50: 20)
- Ipar aldeko haurrideei lagundu beharrea (HE27: 384)
- Gure Iparraldea turismo-eskualde bihurtu nahi dutenek ez bide dituzte begi onez irakurri (EJ51: 43)

- Akitaniakoak baiginen ipar aldeko Euskaldunak (EJ54: 743)
- Errika datoz iparr-aldeti belak betean ontziak ondo dirudi egun argitan belan dabilen ontziak (EJ70: 65)
- Letra hau iparraldeko idazkeran erabiltzen zela eta hegoaldekoan ez (EJ56: 53)
- Iparraldetik dator leitzar arranditsu (HE18: 19)
- konkurrentzia eta nor gehiagokarik gabe, hondatuko da bi mendez euskal literatura, iparraldean bederen (EJ54: 747)
- Guk ez baina iparraldeko euskaldunek maiz dioten zuk erosi liburua, gure erositako-ren orde (EJ80: 19)
- agertu ziran iparraldeko aize otz da meiak gizadi zar aulduai auzrretarañoiko ikarea sartuaz (EJ59: 83)
- Huntara Euskalherrian gure Ipharraldean odol-taldeek erakusten derauzkigute argi ta garbi (EJ61: 22)
- defentsarako Legeak aplikatzen dituzte, batez ere euskaldunak Ipharaldetik ohiltzeko (EJ61: 12)
- beharrezkoa zen Bidasoaz ipar aldeko norbaitek liburuari behakoren bat ematea (EJ04: 13)

iparsartalde-haize [IV.2.2](#)

- iparsartalde-haize= kaleko iparsartalde-aizea ta urruti-antzeko olatu-ots-zantzua entzunaz (EJ64: 49)

ipartar euskaldun-talde [IV.2.2](#)

- gure artean ipartar euskaldun talde bat (EJ51: 27)

ipuin-iturri [I.5.5](#)

- Zure burukoa papeletara alda ezazu; bialdu gero zure sorkari ori leiaketa-auzitegira. Saria eskuratzen ba-dezu, ipui-iturritik pixka batean bizi zaitezke (HE57: 111)

ipuin-jakintza [I.5.4.1](#)

- Bada ipuin jakintzaren bigarren maila bat ere (EJ53: 8)

ipuin-mota [II.4.2.7](#)

- Bañan badago beste ipui-mota bat (HE22: 10)
- beste ipui-mota baten ondoren zebillek (HE57: 113)

ipuin-sari [I.5.1](#)

- Saria eskuratzen ba-dezu, ipui-iturritik pixka batean bizi zaitezke (...) Ipui-sariak neurrian bai-datoz, eta urtea luzea baita, aietatik jateko (HE57: 112)

ipuin-sorta [II.2.2.3.2](#)

- Urruzuno-ren ipui-sorta bat eskeñi (HE16: 9)

ipur habia [I.5.10](#)

- esertokian ipur-kabia sakontxeagotu dut (HE17: 24)

ipur txuntxur [I.5.3](#)

- Si te pego un ostikara en ipur-chunchur, ia te botare mas que campantorre mas arriba (EJ07: 2)

ipur zulo [I.5.3](#)

- loitan sartuko al aiz ipur-zuloraño! (HE53: 26)

ipurdi-alde [II.8.2.3](#)

- lenengo lana arbolari ipurdi-aldea garbitu (HE29: 101)

ipurdi-mazal [I.5.3](#)

- Orpo-gaiñean jarririk ipurdi-mazala (HE18: 59)

ipurdi-xilo [I.5.3](#)

- ipurdi xilotik kanitaz ondoraino sarraskitu (HE59: 29)

ipurmami [I.5.3](#)

- gelako eserlekuak adina zaltokiak gogortuak zituen bere ipurmami galantak (EJ00: 181)

ipurmasail [I.5.3](#)

- Bi begi eder eta zango-aztalak giartsu; 0,90 inguru bular-kaiola; ipur-masailik badunik etzaio igartzen (EJ03: 21)

ipurtargi [I.5.9](#)

- Maite biak, asmotan bat, tanto bi dira urrutira: ipurtargiak bide-ertzetik ikutu die begira. (EJ50: 85)

ipurtohol [I.5.10](#)

- Oneechec, ipurtolac. Emen dacusazunac, oinugalac (HE20: 140)

ipurtxulo [I.5.3](#)

- zast!, ostikoa ipurtxulo inguruan eman nion (EJ60: 111)

ipurtxulo-inguru [IV.2.2](#)

- zast!, ostikoa ipurtxulo inguruan eman nion (EJ60: 111)

irabazi-txanpon [I.5.1](#)

- Irabazi-txanponok pozik sartuko lizkioke amak Aurrezki-Kutzako libretan, baina guzien bearra dauka Anttonik; beso-kozkoari muxu eman eziñik bizi baizaigu (EJ03: 34)

irabazi-zati [II.3.2.1.9](#)

- Saltzaileek, bere irabazi zatia handitzeko modua ikusten dutelarik (EB20: 31)

irail-erdi [II.3.6.1.1](#)

- Irail-erdirik eta maiatzera arrtean ibili direanak alkarren atzean (EJ70: 73)

irakaskuntza-xede [I.5.10](#)

- gipuzkeraz idaztea, irakaskintza xedeak inposatzen zien gauza zen (HE36: 33)

irakasle-aulki [I.5.10](#)

- Irakasle-alkitik naiz liburuetatik beren pentsakeraren argi-izpi miragarriak batzuek egozten zituzten bitartean (HE33: 43)

irakasle-lan [II.6.2.4.3](#)

- pozik nago irakasle lanarekin (HE35: 81)

irakasle-partre [II.3.2.1.6](#)

- Irlandarrak behar izan zituzten deitu Latinaren jakitea lur-handiko ikastetxetan berpiztekozt. Irakasle parte hau begiratu zuten Inlandarrek (sic) Goidel misionisten zabalkundeari esker. (HE30: 227)

irakasle-prestakuntza-eskola [IV.2.2](#)

- Irakasle prestakuntza-eskoletan biderik zabalenak eman ditzaten (EJ56: 11)

irakaste-molde [II.4.2.6](#)

- Nere dotriña edo nere irakaste-moldearen araura" (EC70: 69)

irasagar [II.6.2.1](#)

- Codoin edo Irasagar confitura [tit] (EJ75: 47)

irasagar-konfitura [IV.2.2](#)

- Codoin edo Irasagar confitura [tit] (EJ75: 47)

iratze-meta [II.2.2.3.1](#)

- Iratze metatik erortzen nintzelarik (HE56: 21)

iraultza-gudu [I.5.10](#)

- ahal ba litz, beharreko ba litz iraultza guduaren teoria marxistaren boetheiaz ere (EJ61: 37)
- Ez dut uste iraultza guduaren inspirazione Marxenganik dathorrenik (EJ61: 37)

iraultza-itxaropen [I.5.10](#)

- sindikatuengan zeukaten iraultza itxaropena (EJ52: 31)

iraupen-poxi [II.3.2.2.2](#)

- Iraupen poxi bat nahi baduzu ukan dezan zure muntrak (HE32: 29)

irin-fabrika [I.5.5](#)

- Ba, nai badezute, ara or irin-pabrika (EJ66: 49)
- Irin-pabrikara joan giñan, ta an orduan ere irin egiten ari zanak (EJ66: 49)

irin-lore [II.6.2.1](#)

- Dotcena arroltce, bakhotchian, libera bat lemami irin lorez eguina (EJ75: 39)
- amanda ezti ta khirexak, "irin-lore", "aurdiki duen yusa" (EJ64: 40)

irin-poxi [II.3.2.2.2](#)

- Eçarraçu irin pochi bat eta egostera su ezti batean (EJ75: 6)
- carrotac, frita burra puchca on batekin, guero eman irin pochi bat eta taça bat esne (EJ75: 16)

irin-puxka [II.3.2.2.3](#)

- Eguiten duçu saltsa bat tipula chehatua friguitcen duçularic, irin puchca bat (EJ75: 27)
- emaiten tuçu çure tomatiac eta irin puchca bat (EJ75: 31)
- Emaçu perrechila buket bat, irin puchca bat eta bustiçaçu (EJ75: 8)
- ahatia erre denian, athera çaçü, pasa çaçü yusa eta nahas irin puchca batekin (EJ75: 11)
- nahasten duçu guero irin puchca batekin eta gorritcen beharric balin badu (EJ75: 12)

irin-zaku [I.5.4.2](#)

- irin-zakuren tartean eta paper batez bilduta, talo erretzeko pala ibiltzen genduan (EJ49: 32)

irizkide [II.7.2.8](#)

- Eta orain begira ezazu nere irizkide zarenentz (HE38: 158)

irizpide [II.7.2.2](#)

- oinarriztat hartu diren irizpideak (EJ56: 55)
- Idazkeraren auzian etimologiaren eta erabileraren irizpideak aurrez-aurre gertzen direnean (EJ56: 56)
- Nere iritzirako, Xenpelarrek bere burutik sortzen zituan bere iritzbideak (EJ67: 408)

irrada-dei [I.5.10](#)

- Irrara-deia. Danbolin-andere ta senarra (HE18: 66)

irradi-hari [I.5.10](#)

- Euskeraz nola esan "guiones radiofónicos"?... "Irrati-ariak" edo antzeko onelako zerbait. (...) Aurreneko jarri dizkizudan irradi-Ariak, urte artan lenengo saria irabazi zuten (HE57: 127)

irradi-kontu [II.6.2.4.2](#)

- garraxi biziak egiten dituzten irradi kontu oietako neskaxa ikaratiak (HE57: 110)

irradi-sail [II.2.2.2.7](#)

- Eta irradi-sail horien buruzagi eta sustatzaile, bi bizkaitar jator (EJ51: 61)

irradi-tresneria [I.5.10](#)

- kañoi aundi itxuraldatuak nunai, irradi-tresneri, arma-zoin, janari ta ur-bildegia, irarkol, eritegi, kaperak, jolas-biltoki ta abar eta abar (EJ03: 53)

irratitz [I.5.1](#)

- Three coins irratitzean. Ez! Itzali egin beharko (HE34: 67)
- Three coins" jotzen asi dira irratitzez (HE34: 47)

irri-bertso [I.5.10](#)

- Gure bertsoaritza xumerako, irri bertsoarako behinik behin, gaiago dakusat nik neuk eskola-bertso ikasietarako baino (EJ00: 183)

irri-gizon [I.5.5](#)

- Gure bertsoaritza edo umore-bertsoarako trebe zitekeena bazkal-mahaiondoko irri-gizon bufoi-ordekotzat darabilte handikiok (EJ00: 184)

irri-poema [I.5.10](#)

- azalpen bat, irri-poema bat (HE28: 68)

irribarre-izpi [IV.2.2](#)

- I- alkarri esku-emanda kondairagilleari malkoa dario, illunabar ua gogoratzean. Malkoa ta lotsa, ta izua ta etsi-eziña. Baño, aldi berez, begi-malkoak dizdiz dagiotelarik ere, argitasunezko irriparre-izpi bat ermetzen zaio ezpañetan (EL70: 181 182)

irris-irin [I.5.7](#)

- Hartzaitzu zazpi unza irris-irin eta zazpi unza sukre, nahasten tuzu bertze goitikoekin (EJ64: 42)

irris-ogi [I.5.7](#)

- Irris oguia [tit] (EJ75: 35)

irris-zopa [I.5.7](#)

- Irrisa-çopa [tit] (EJ75: 3)

irteera-ordu [I.5.10](#)

- Eskoletako irteera ordua (HE35: 116)

irudi eta letra-joko [IV.2.1.1](#)

- Zerbait esateko litzateke ere Gamizek irudi eta letra-jokoetara zuen makur irristakorraz (EJ00: 6)

irudiantz [II.5.2.2](#)

- Irudiantz osoa ematera, eta are guchiago imajin edo erretrato eguiazco izatera iristen ez tiran (HE40: 83)

iruntz-tanto [II.3.2.3.1](#)

- Iruntz-tanto bat zan okaran baltzean (EJ50: 161)

isasertz [II.8.2.10](#)

- itsas-ertzeko arkaitz-mutur batera joango zaizkizu taldeka (HE27: 310)
- Geien-bat Madrid aldeko jendea da bertaratzen zaiguna, itxas-ertzeko egurats garbia ta mañuak artzera (EJ03: 77)
- Itxas-ertzeko ontzi txikiak ikusten genituan (EJ49: 69)
- Matxikako itxas-ertz ortatik altxa gera (EJ49: 70)

isatsorde [II.7.2.11](#)

- Araxeago, suteagian arotza dakuste: karraxiz, lagun diela eskatzen diote. Badoa gizon bizkorra uste bezain uste, loturik gelditzen da denen isats-orde (HE18: 53)

iseka-bide [II.7.2.2](#)

- Il bear zutenei, eriotza eman ez gairera, iseka-bide eta irrigarri asko egiten zitzaizen (EC70: 54)

isil-kontu [II.6.2.4.2](#)

- edan da gero binan alkarri isil-kontuak esaten (EJ70: 71)

isilaldi [II.7.2.1](#)

- Isilaldi bat egin ondorean, Kitolisi biotzeko naigabea kentzearen (EJ59: 98)
- Itz eguiten dizu, bai, zere isillaldietan, edo zu gueldirik eta soseguz (HE13: 127)

isilaro [II.7.2.12](#)

- Bihotzez zuek guztiok, isilaroko nekakideok oro (EJ51: 102)

isilgune [II.7.2.6](#)

- Isilgune luzea gorde zuten (HE39: 62)
- Isilgunea dute batean egiten (HE18: 93)

isilune [II.7.2.6](#)

- garr puztu-arrtean entzun dainean isil-unerik eztaukan aia (EJ70: 31)

istil-hondar [II.3.2.1.2](#)

- Bertze emazte batek ixtil ondarrak karrikako errekarera eraztatzen ditu (HE58: 83)

istil-hots [I.5.1](#)

- Lau tanta belarrietan. Istil-otsa gogoetan. Ire kolkoa, Udaberri den loretan. (EJ50: 65)

istilu-hots [I.5.1](#)

- Istil otsak ez du ordurik kontatzen laga ... (HE57: 106)

istinga-zulo [I.5.4.2](#)

- Gero bera iztin zuloan zaldiekin sartu zanean (HE23: 89)

itsas agindu [I.5.10](#)

- Erregek behar bezalako Itsas-Aginduak atondu nai zituen (HE33: 89-91)

itsas aingira [II.6.2.2](#)

- ibaiaren erdi inguruan saretxalopa bi, itxas aingirea langoxeak (EJ59: 58)

itsas anaia [I.5.9](#)

- itxas-anaien garaitza orrek zorabiotan aserik (EJ69: 10)

itsas antzara [II.6.2.2](#)

- obeki itsas-antzarak elkarren atzean (HE18: 134)

itsas armada [I.5.9](#)

- Okendo'tar Antonio, gure Donostiar ospatsua, zan ordun Espāniko itxas-armada guziaren agintari. Erregeak auxe izendatu zun Olandarrari arpegi emateko (EL70: 138)

itsas arrain [II.6.2.2](#)

- lurreko animaliez, itsas arrainez, eta hegastinez naharoki konplitua (HE04: 62)
- eta arraintza bera erdikalatua, itsas-arraina ez zenaz geroz ja-goitirik (EJ72: 56)
- Erreboilloa izango da bear bada itxas-arrairik onentxoena (EJ64: 66)
- arraintzatik bizi ziren, itsas-arraina esku-menerat heldu zitzaientenaz geroz (EJ72: 55)
- Arrantzalea tsalupa baten da itsas-arrainen mirua, itsasoari kentzen deutsana gorrdeta daukan dirua (EJ70: 103)

itsas ate [I.5.9](#)

- sare lodi andi baten irudira, itxas-ate edo barra ondoan, uretan jarrita ikusten ziran (EJ59: 83)

itsas bainu [I.5.9](#)

- Motrikora itxas bañoak artzera eraman giñuzten (HE23: 118)

itsas begi [I.5.9](#)

- Zilegi bekit nik itxas-begian bein ian nunaren oroitzapena (EJ50: 140)

itsas belar [II.6.2.1](#)

- Nik (dakustana ezin ukatu daiket eta) itxas-bedar auka-zatiak baino ezpadira ere, zerbait beintzat, amasei bat ori badakustaz eskuartean (EJ06: 71)

itsas bilkindegi [I.5.4.2](#)

- Zamalbideren jator-etxearen irudi edo "maketa" ta beraren erretratu bat -baita Matxinena ere- ikus daitezke gaur Donostiako "Itsas Bilkindegia" delakoan (HE33: 79)

itsas bista alde [IV.2.2](#)

- Urreitsu'k badu, bere pegante, mendi-punta polit bat itxas-bista aldera (HE29: 10)

itsas bizitza [I.5.9](#)

- ez zen ordurako bere lehengo itsas-bizitza lorios dirdaitsuaren arrastorik ere gelditzen (HE33: 61)

itsas borroka [I.5.9](#)

- Beste zenbait itsas-burruketan ere egon zen Irigoien harrez geroztik (HE33: 85)

itsas dema [I.5.9](#)

- azkenengo egin zan otsandiko itxas deman beste euskal uri batekoen azpian geldituarren (EJ59: 58)

itsas ekintza [I.5.9](#)

- "itsas-ekintzan guztiz aditua zelako" maiz izan zen Madrill-era deitua (HE33: 93)
- Badakigu haren itsas-ekintzako zertzelada askoren berri (HE33: 89)

itsas estura [I.5.3](#)

- Erreteriarra Magallanes-en Itxas-Esturako txangoetan (HE33: 83)

itsas gerrate [I.5.9](#)

- Itsas-gerratetan gailendu ziren (HE33: 69)

itsas haize [I.5.1](#)

- kanpotik-edo datorrit bedats-aire fina, itsas-haizea kanpotik etorri ohi zaigun bezalatsu (EJ51: 91)
- Itsas-aize ilhunbe, auhen eta dolu Goizean bai, sarri ez, munduko bizia. (EJ50: 68)
- Goizean bai, sarri ez, joanen zait bizia, Itsas-aize ilhunbe, nigar eta oihu (EJ50: 68)
- bertzeek irri, itsas haize gaziak xixtaka perekatzen ginintuela (HE59: 98)

itsas hartz [II.6.2.2](#)

- apar zuriak igarian ebiltzan itxas artz gizon jantzalleak zirudien (EJ59: 17)

itsas hegal [I.5.3](#)

- Bizkaiko itsas-hegalean, Eusebio Maria Azkuek joan zen mendearen erdi-aldera idatzitako (EB87: 29)

itsas hegazti [II.6.2.2](#)

- gañalde guztia itxas egazti zuriz beteten jako (EJ59: 41)

itsas hegi [II.8.2.10](#)

- itsas hegiari dauden ostatuatarik batean (HE59: 97)
- Danesak agertu ziren izaro berdeko itsas-hegietan (HE30: 207)
- Goazin itsas hegira, han gozatzeko gogoak bat bederari emanen daukun bezala (HE59: 112)

itsas herri [I.5.9](#)

- sagardantegi ta ardantegiak, danak izaten dira bardin samarrak, itxas errietan beintzat (EJ59: 22)
- beste umant asko dirala Euskalerrian, gure itxaserrietan gizonik aña umant dirala (EJ59: 35)
- jakin daijala orrek, itxaserrietan be eztirala gizon guztiak aizedun, txakillo ta buru ariñekoak (EJ59: 60)
- Itxas errikoak, gitxiago jan da be, geiago jan dabiela esan leike (EJ59: 52)
- neuk ikusi ditut Arranondon eta edonok edozein itxaserritan ikusi daitez. (EJ59: 12)

itsas hondar [I.5.3](#)

- beruna bezala itsas-ondarrera eroririk (HEAX/HE11: 127)

itsas indar [I.5.9](#)

- leku hoietan gure itsas-indarrak geituak izan daitezzen (HE33: 37)

itsas industria [I.5.1](#)

- itxas-industriari ta burdin-lanari ekin zieten (HE33: 17)

itsas inguru [II.8.2.12](#)

- iñok ezer ekarri eztaien, errien mugarri ta itxas inguruak zaintzeko (EJ59: 106)

itsas jakintza [I.5.4.1](#)

- beste batzuk itsas-jakintzari naiz merkatalgoari, naiz lan-ekintzari ematen ziren (HE33: 43-45)

itsas jeneral [I.5.9](#)

- Inperadoreak Itsas-jeneral egin zuen aita (HE33: 77)
- itxas-jeneralak, almirante edo ontzidi-buru ta kapitan famatuak (HE33: 23)

itsas kantu [I.5.4.1](#)

- itsas-kantuak (HE51: 57)

- geroago urte askotan be ainbat bidar entzuten ei-ziran itxas-kantuak (HE31: 32)
- itsas-kantuak (HE60: 161)

itsas kutsu [I.5.1](#)

- bixigu presko, gozo, urridun eta itxas-kutsuarekikoa (EJ64: 49)

itsas lanbide [IV.2.2](#)

- Langinak ziren, itxas-lanbideetan bereziki (HE33: 17)

itsas lapur [I.5.9](#)

- Fomore itsas-lapur bihurriak (HE30: 223)
- nire errian ba ziran itxas-lapurak (HE21: 53)
- Indietako uretan (Ameriketako uretan alegia) itsas-lapurren kontra burrukatu zen (HE33: 95)
- Dozena arrai-kaja eman bear dizkiguzute. Ez gera itxas-lapurak. Gure erriaren eskubideak galdetzen ditugu; besterik ez (EJ03: 60)

itsas lapurreta [I.5.9](#)

- itsas-lapurretan zebillen, kalte aundiak egiñaz (HE33: 77)

itsas obo [I.5.9](#)

- Ageri dan tartez, itxas-obo bera zuretako txiki; malkor eta malkor, elur eta elur, eta zero garbi. (EJ50: 39)

itsas oihal [I.5.9](#)

- itsas oial = vela (de mar). Indira vidaltzen duen ontzian sartzen baditu ontzi-lemaren ta itsas oial egoen berriric (EI31: 113)
- itsas-oialac = velas (de barco). Egaztiaren saietsetan eguac eta ontzian gañeco zur luce mastac, soquetac eta itsas-oialac (EI31: 244)

itsas oilar [II.6.2.2](#)

- Berberifnik ederrena edo itxas-oillarrrik prexkoena aurrarentzat izango da ta onek, berriz arrai-buru aldea (amak gogoz zupatuko lukena) Pinto'ri eskeintzen dio (EJ03: 34)

itsas olatu [I.5.9](#)

- itsas olatuen gainean gaztelu bat (HE33: 33)

itsas ur [I.5.9](#)

- itsas-ur = agua marina. Cerec gacia den eta edateco ez ona itsas ura (EI31: 278)

itsas zapo [II.6.2.2](#)

- itxas-zapoa saltsan (EJ64: 80)
- txabaloa, itxas-zapoa, xangurroa eta legatz-kokoteari dagozkien prestaeretan (EJ64: 81)
- Besteak, paella ta itxas-zapoa Amerika-erara (EJ64: 81)

itsas zerbitzu [I.5.9](#)

- gizon prestuek iges egiten zioten itxas-serbitzuari (HE33: 39)

itsas zidor [I.5.9](#)

- Andik laister, Dantzing'go itxas-xidorra dala ta ez dala, Polonia'ri eraso Alemaniak (EJ03: 38)

itsas zola [I.5.3](#)

- itsas zola = superficie del mar?. Bet-betan itsas zolatic atheratzen da ur mendoi bat (EC16: 223)

itsas-barru [II.8.2.7](#)

- itxas barruan ikusi eben eguzki garbiaren jaiotza pozgarria (EJ59: 210)

itsas-ondo [II.8.2.14](#)

- eta itxas ondoko ertzak oso apañak ditu, bere ordekek, zabaltokiak eta guzi (EJ60: 109)
- Itsas ondoko legarra bezain ugari balira ere Israelen semeak, ondarra da salbatuko (EJ71: 37)
- Eztozuez ñoz ikusi ichasondoko nasa edo molla-ganean mutil bizkorrak narru gorrian (EJ07: 1)
- Andik, mendiz-mendi ia itxasondoraño sartu giñan (EJ66: 32)

itsasalde [II.8.2.3](#)

- Txubilloko itsasalde isilera narama neure barruak (EJ51: 94)
- Bizkaiko euskeran da itxasaldeko ekandu edo oiturak gogoan ditudala, (EJ59: 7)
- Bizkai itxasaldeko lagunekaz bat eginda (HE21: 53)

itsasaldi [II.7.2.1](#)

- Aro ona dago, kairantz goazan, kanpoan dabil iparra gaurrkoa da bai itsasaldia eztago taiua tsarra (EJ70: 64)
- itsas-aldi = marea? tempestad? An hura sartu ta laster aguertu cen itsas-aldi guztiz izugarria (EI31: 19)

itsasargi [I.5.10](#)

- Getariako ta Zumayako itxas-argiak agiri ziran lurrean (EJ59: 96)

itsasbazter [II.8.2.8](#)

- itsas bazterrera (HE51: 58)
- itxas bazterretik sayo egin nai zuen (HE23: 115)
- Zur onen laguntasunez, piskaka piskaka ni Joan gerturatzen itxas bazterrera (HE19: 57)
- itsas bazterrean dagoen ondarra becela (HE12: 20)
- Itsas bazterreko haitzen artetik ikusten zuen olagarroak (EJ53: 125)
- Goseak ez du barkatzen eta itsas bazterrera itzuli zen buruapal gizona (EJ53: 134-136)
- baicic soldaduac biribillatu eta Palestina-co itsas bazterretara bialdu bacituen (HE40: 192)
- Ardura elgarretaratzen ziren itsas bazterrean (HE59: 100)

- Israeleko semeak ere itsasbazerrean, errege Faraonek alde guztietarik inguratuak, eta ezin ihesik zeidikiten bezala, ustez hartuak eta atrapatuak zedutzanean (HEAX/HE11: 143)
- lurralde artako sarkaldeko itxasbazerrean erruz dago nitratotan (EF92: 30)
- hango itsas-bazerretik Hiberniarat (HE30: 212)
- Itxas-bazerreko erri batzuk ez ezik Gipuzkoa guziko nagusi ziran (HE61: 19)
- Bere anai Kandidok, itxas-bazerrean atzemandako karramarroak ekartzen dizkionean, zorutzen jarri oi da (EJ03: 33)
- Irudimen laztana, goazen batera oroimen eztsuak pozez ikustera, itxas-basterrera! (EJ77: 89)
- euriagatik triste arima triste diran bezela tamarindoaren adarrak itxas-bazerrean (EJ50: 176)

itsasbelar [II.6.2.1](#)

- Itsasoaren ondoan geldu itsasbelarrak lo berde itoan (EJ50: 170)

itsasbide [II.7.2.2](#)

- Itsas bideak behar bezala gerizatu ta begiratzeko (HE33: 95)
- irabazteko asmo leñargitsuagaz indartuta, urteten deustie txalopetan itxas bidera (EJ59: 33)

itsasertz [II.8.2.10](#)

- Goierrialdeko urietara, itxas ertzetako azkartasuna, oiua, zarraparradea (EJ59: 75)
- Noiz eztagoz itxas ertzetako emakumeak guraso bat edo seme maitea galtzeko zorian? (EJ59: 19)
- eldu dira Inghlandako itxas ertzera (HE21: 72)
- Itsasertza duten herriak daude batetik (EJ51: 79)
- Andik laister itxasertzera urbidu zen Kaximirokin izketatu arabera (EJ03: 72)

itsasertz-hondar [IV.2.2](#)

- Itsas-ertz-ondarreko uin batez besteti / geienez ez da argiro gora-bera ageri. / Ondar-pillak egiñez josta den aurrari / alako batek dio iges-bidea itxi. (HE18: 37)

itsasgintza-kontu [II.6.2.4.2](#)

- iñork baino sakonago zekien itsasgintza-kontuetan jakin behar guztia (HE33: 93)

itsasgizon [II.7.2.5](#)

- alkondarak eta prakak, itxas gizonen jaka urdiñak eta oeko zapi zuriak esegita (EJ59: 21)
- kale bedar, oker da aldaztxuetan itxas gizonen gozategi edo ardangelak non dagozan (EJ59: 22)
- Ez ichasguizonak, ez Ameriketara ire izena zabaltzera bidali ta andik uri-bazterrak eche politez apaintzera etorri oi ditukan indianoak (EJ07: 1)
- txolarteetan itsas gizonentzat ontzi berririk eta hoberik asmatu zuenik, alegia. (EJ80: 12)
- kale bedar, oker da aldaztxuetan itxas gizonen gozategi edo ardangelak non dagozan (EJ59: 22)
- itxas gizon azkarra izan zan, itz baten esateko (EJ59: 88)
- itxasgizonen ibilkerak eta olakoekin ez ei-zan aspertuten iñoz be (HE31: 17)
- Mikolek eta aren gisako beste itxasgizonak illuntasun da naste andia euki (EJ59: 88)
- Itsasgizonak, ontzia nai ankilea, zapatariak, oiñetakoa; laborari edo lugiñak, atsurra nai

- burdia, nai lurra landuteko beste tresnaren bar (EI99: 155)
- batiri zelan edo alan ikasi eutsan ingeles-kanta edo erezi bar, O Susanna deritasona, Goiko Amerikatarrena ta Inglaterrako itsasgizon geienak buruz dakiena (EI99: 155)
- Itxasgizonak, arpegia beingoan illundurik (EJ59: 101)
- Itxasgizonen artera ere sarturik dago ekaitza (EJ69: 103)
- Euskal Erriari bakean ezin itxi eutsielako, Itxasgizonak askoetan emon eutsen min beragaz (EJ59: 100)
- Gure itxasgizona bekoki baltz samarrekoa zan, itz latzekoa batzuetan (EJ59: 100)
- Arantzazuko Amak ¿Ezagutu ote du, gero, bere itxasgizon ospatsuenen artean, Legazpik aña jaiera ta maitasun izan dionik? (EL70: 147)
- Itsasgizon ikazkin, negu gau luzetan, gordin jarduki bitez ontzi txaboletan (HE18: 107)
- Torre polit bat ere badago antxe, itxasgizonak egiña (HE29: 10-11)
- da lantegiko nagusiak gure Itxasgizonari itandu eutsan (EJ59: 103)
- "Itxasgizonak etortzen dira geienik limosna ugarienez, Birjiñaren laguntza ere berak geienik bear izaten eta, eskatuz batera, irixten bait dute" (Esteban Garibay) (EL70: 94)
- Irakur orain errenteriar gudu-gizonen eta itsas-gizonen izen eta egin haiek (HE33: 71)
- Gipuzkoako itsas-gizonen gainean idatzitako liburu interesgarri batean (HE33: 23)
- sakela estututen asi iakanena, itsas-gizon egin zan (EI99: 163)
- Arantzazuko eliz-komentua, San Prantziskoren pralleak daukatela; jaiera aundikoa dela; itxas-gizonak batezere ikaragarri joaten dirala ara (EL70: 136)
- Argatik eusko-arrazak eman izan ditu ainbeste gudu-gizon, trebe ta ospatsu. Ainbeste mixiolari, Santu ta ongille, nunaiko lurraldeetan. Ainbeste abizen, Ameriketako familietan. Eta ainbeste itxas-gizon, noiznaiko ibillietan (EL70: 154)
- Itxas-gizonak lagundu zioten (HE29: 56)

itsasneska [I.5.9](#)

- Hegoialderantz itxasneskek dantzan -zure ahizpak- dihardute hantxe, bainan zuk ahantz... (EJ50: 91)

itsaso-apur [II.3.2.2.1](#)

- agiri zan itxaso apurra berde baltzeran irakindua egoan (EJ59: 17)

itsaso-bazter [II.8.2.8](#)

- itsaso bazterra (HE51: 57)
- haren mendiak eta itsaso bazterra (HE51: 11)

itsaso-ertz [II.8.2.10](#)

- Ibaian eta erreka txikietan. Itxaso-ertzean (HE31: 20)
- Irakur dezadan iardun goitar ori itsaso-ertzean (EJ50: 54)

itsasontzi [I.5.9](#)

- Gabez itxas ontzietan jun (HE23: 113)
- Poeta izatea ala itsas ontzi berriak, zedroz edo beste zuhaitz zurez egin ohi zirenak, (EJ80: 12)
- Galveston Texas eman ninduten kargako itsas untzian, Hogoï egunen buruan nintzen heldu (EJ68: 27)
- Poeta izatea ala itsas ontzi berriak, zedroz edo beste zuhaitz zurez egin ohi zirenak, (EJ80: 12)

12)

- guk itxas-ontzian lana egiteko lau edo bost illabeteen (HE50: 86)
- ta begiak etsipenez inguratzen itxas-ontzi aintzinako kobrearen metal zaharrak (EJ50: 177)
- Zezen-iltzalle izandutako Lekunberri bezala, itxas-ontzi eder bateko buruzagia (EJ64: 83)
- Lendabiziko, sukalkintza-lanak, itxas-ontzi batean, arrantzale nintzala, egin nituan (EJ64: 80)
- ichas-ontzi = barco. Galerac eta gavarrac eta chalupac eta itsas-ontzi chiquiac badabilzque arraunez batetic bestera (EI31: 278)
- burdin-bide, hiri, ur-erreka, dela itsas-untzi (HE59: 117)
- Iriarte jaunak ematen edo saltzen zituen itxas-ontzirako igarobideak (HE50: 86)
- Iru egun kai barruan egon ondoren, gaur itxasoratzekoa da Ulia itxas-ontzia (EJ03: 13)
- Itsas-ontziek, lur-bil orori Eman ondoren inguru (EJ50: 123)
- biok abiatu giñan Buenos Aires'tik Rosario'ra, eta Londonnier itxas-ontzi beljikarrera igo giñan (EJ67: 64)
- Itxas-ontzi ori, lareun lagun berekin zituala, urpera joan zan (EJ79: 87)
- gerok itxas-ontzia ordaintzeko (HE50: 82)
- Amerikako laguneren diruari itxoiten itxas-ontziaren igarotze ordaintzeko (HE50: 83)
- Zezen-iltzalle izandutako Lekunberri bezala, itxas-ontzi eder bateko buruzagia (EJ64: 83)
- ta begiak etsipenez inguratzen itxas-ontzi aintzinako kobrearen metal zaharrak (EJ50: 177)
- Armari horretan itsasontzi bat ageri da (HE33: 77)
- Itxasontzietako buru jabik (HE31: 34)
- itxasontziak eta kanpoko gauzak galtzea (HE24: 58)
- Itsasontzi baten muturrak hura ebakitzen duen gisa (HE58: 66)
- itxasoari eta itxasoan zebiltzan itxasontzi eta baporeai begira (EJ49: 69)
- Zenbat oroigai datzan errukiz lotyta. Itxasontzi politik, jantzitxu zurijak (EJ63: 24)

itsasontzi-konpainia [IV.2.2](#)

- Launbatzak edo itxas-ontzi Conpañiak bere langilleak (HE50: 86)

itsaspe [II.8.2.9](#)

- Ez othe zare zu maiz hilzale bat beltza! Hezurak itsaspean ez othe dabilta. (EJ50: 32)

itsu-soinu [I.5.1](#)

- itsu-soiñuan obeto dsantzan eingo leukie (EI99: 141)
- mutil orditu bat yatorko baltzeoan beragaz egiteko itsu-soñura eroan-gurarik (EJ77: 109)
- dirua kentzen da itsu-soinuan, danbolinean bat bere ez (EJ70: 71)
- Itsu-soinuan dabilta dantzan errekan kaskailoak lez (EJ70: 71)

itsumutil [II.7.2.5](#)

- izengoitiok euskararengandik urrun zebilen idazlea bere herrira itzuli, edo, itsumutil antzo (EJ00: 190)
- itsua badabil itsu-mutil, ongi jaioak gaude (HE27: 322)
- Tormes'ko Itsu-mutilla (bizkaieraz, bere itzulpenik onena beharbada) (EJ51: 33)
- Ezkutuko onen lagungarri ar dezagun itsu-mutil Gilbert Murray Heladezale sonatua (HE28: 89)
- Ezkutuko onen lagungarri ar dezagun itsu-mutil Gilbert Murray Heladezale sonatua (HE28: 89)

iturbegi [I.5.2](#)

- ithur begiari ohore egiten deyo; eta ezta gald'egiten eya garbi edo thurbuts izan zenez (EI58: 59)
- Bizitzaren mendietan, / arkaitz ta arrocketan, / zorionaren itur-begia / nekien, oraindik / ume ta on nintzanetan (EJ50: 169)

iturburu [II.7.2.3](#)

- euskal idazleen printze eta iturburu segura bihurtu dute (HE36: 20)
- Gure Jauna gauza gucien asiera, eta iturburua da, eta gu eguin guinduan (HE07: 40)
- ecin comparatuzco Virginaren privilegioac çure ontasunaren haste eta fmgabeco ithurburuetaric sortu direnaz guerostic (EJ58: 26)
- badaric ere ezta beldur behar guiçonec ahi ahal deçaten arduraqui darion ithurburua (EJ58: 32)
- ez choilqui bere içaiten baitadutçan gauça mudacorren ecin mudatuzco ithurburuac (EJ58: 40)
- haren hautatuen dotsutasunaren hondogabeco ithurburua! (EJ58: 72)
- eta hura harequin gucien gaineco ontasunaren iabetasunean iuntatcen çuen ithurburuzco graciaren appareilluac iauntsi ciotçanean (EJ58: 90)
- iaquinic ithurburuzco iustutasuna ossoqui nausi içan dela Iaincoaren bi obra hetan (EJ58: 93)
- zoin zitazkeen gereziketa eta fruitu-aberastasun horren iturburuak (EJ72: 55)
- "itzaren zerbitzari" diranak (au da, Apostoluak) artu ditu iturburutzat (EC70: 103)
- Jesusen bizitzako iturburuetara jo bearra dago, iturburu oien balioa ta abar ongi neurtuz (EC70: 27)
- zaharren berriak jakiteko, iturburuetara jo bearra dagoela (EC70: 32)
- berri zeatzak jakin nai baditugu, iturburura joan bear dugu albiste jatorren eske (EC70: 41)
- goragoko iturburuen eraltzea da (HE24: 7)
- Eguiçu, othoi, o! on gucien ithurburua, bihotz triste hau, ez dadin goça (HE06: 49)
- gurequiñ baitarquegu tentacione gucien ithurburua (HE06: 62)
- eta gauza gucien asiera, eta iturburua, eta bere nai utsez gordetzen digu eman cigun izatea (HE07: 235)
- lenengo lecuan, zuri gauza gucien asiera, eta iturburuari bezala onreric andiena emateco (HE07: 245)
- ceiña ganic heldu baitire, gauça on guciac bere ithurburutic beçala (HE06: 70)
- gauza bearra da Jauna onratzea, eta adoratzea gauza gucien asiera, eta iturburua bezala (HE07: 13)
- Liburu honen iturburuen bila hasiz gero (HE27: 300)
- garai bateko ontzigintzak behar zituen gaien iturburu (HE33: XXI)
- goldioak berdez margotua, iturburuaren xirripa etengabeaz besterik ez du (HE34: 22)
- zu zera gauza guztien asiera edo iturburua, ta guzien iraupena ta muga edo fiña (EJ03: 30)
- Jainko-Graziak jotako animaentzat Arantzazu beti izan da Santutegi berezia, asmo santuen kabia, elburu aundienen ituburu ta gora-lekua, Loiolaren eta aren jarraitzalleen "biderako indargarria" (EL70: 233)
- Zu baitzira grazia orenen Ama eta iturburuya (HE01: 56)
- indarrak? indarra dozue eskubidien iturburua? (EJ59: 101)
- zuri gauza gucien asiera eta iturburuari becela honreric andiena emateco (HE40: 221)
- Bizio guztien eta pensu gaixto guztien zimendu, ithurburu eta maestru bezala (HEAX/HE11: 43)
- ceini iratchequico baitiotçatçu çure hautatu guciac bere vertutearen, victoriaren eta saindugarritasunaren ithurburuari beçala (EJ58: 71-72)

- eta ez baiditugu iganaraticen bere ithurbururat aithor humill baten medioz (HE50: 86)
- gracia gucien ithurburu salbagarri bat (HE05: 100)
- hura baita haren zuzentasun eta egintzen iturburua (EJ71: 22)
- Korintoarretan Izpiritu Saindua fededunen dohain berezién eta Eliza-zerbitzuen iturburua da (EJ71: 9-10)
- auek dira Jesusen berri jakiteko ditugun iturburu nagusiak (EC70: 60)
- Berak dira, ba, gure iturburu nagusia (EC70: 67)
- bizitzan ia gauza guztien iturburua da nekazaritza (EF92: 3)
- haren bizitzarekiko berriak; lanaren nondik-norakoa, aldiak, iturburuak eta gainerakoak (EJ00: 5)
- Periko azkar enteratu zan Iturburu'ko Joxe Mari ere Burgos'era egokitu zala (EJ62: 32)
- iturburua = origen. Ta cer neque da gure eguillea, gauza guztien asiera, ta iturburua, guztien iraupena (EC48: 304)
- iturburu = origen. Zu cera gauza gucien Asiera, eta iturburua (EC48: 15-182-336)
- Lauda, bada, bethiere eta ohoratua zaradela, lege saindu haukin ithurburua. (EJ80: 77)
- Graciaco eta Loriaco ontasun gucien bigarren ithurburu içanez, mereci onez deitzen baita Iaincoaren bideen hastea (EJ58: 44)
- hori içan da haren hautuaren eta predestinacionearen ithurburu doatsua eta Iaincozco cimendua (EJ58: 47)
- haren botherea eta amorioa beha baitcegoten munduco benedicinoaren ithurburuari beçala (EJ58: 60)
- lurrean partitu içan çaisten gracien, eta ceruco lorian preparatu deraustetçun koroen ithurburu (EJ58: 66)
- Alfertasuna da gero guztien ithur-burua (HEAX (HE11): 45)
- zein baita justizia eta ontasun ororen ithur-burua (HE02: 16)

Iturretxe [I.5.9](#)

- Iturretxea Garaziko maldetan hedatua zen (HE32: 51)

iturri-bide [II.7.2.2](#)

- Zenbat aldiz ez dira iturri bidean aipatu ezkontzazko lehen solasak! (HE59: 47)

iturri-ertz [II.8.2.10](#)

- Ur gardenari begira iturri-ertzan lilija: ur altsuan lili aren irudija (EJ63: 40)

iturri-hots [I.5.1](#)

- Ibai beltza, zugaitz beltzak, iturri hotsa (HE35: 71)

iturri-lats [I.5.1](#)

- Oial-joketan diarduzula/ iturri-lats gardenean zure besoen erraiñua are/ ez aen isil urpean (HE18: 40)

iturri-leku [I.5.4.2](#)

- Iturri lekua [tit] (HE59: 45)

iturri-negar [I.5.1](#)

- Iturri-negarra [tit] (EJ63: 40)

iturri-putzu [I.5.4.2](#)

- Urreitsu'k badu iturri-putzu txiki bat (HE29: 10)

iturri-xirripa [I.5.1](#)

- euriaren onda-ingurutxoak eta iturri-xirriparenak alkarrekin naasten ziran (HE34: 31)

itxaropen-argi [I.5.1](#)

- Eta euskal-semeak baietz, anai izango zirala erantzun zioten; eta mendi santu uaxe jo-etsi zuten euskal-anaitasunaren etxe, ta otoitz-leku, ta eros-mendi, ta itxaropen-argi (EL70: 247)

itxaropen-pixka [II.3.2.2.2](#)

- baiña itxaropen pixkategaz be bai (HE31: 79)

itxura-modu [II.4.2.5](#)

- alderdi bacoitzean desberdiña dalaco ichura modu bat artzen du (HE40: 202)

itxuraldatze-erregela [IV.2.2](#)

- erabili behar diren itxuraldatze erregela errazak (HE27: 377)

itzal-agur [I.5.1](#)

- Donostia-berria zaarra menperatzen asia zen, eta arrezkero etzuen Antigua'k jasoko Udaletxe'ko itzal-agurra (EJ51: 19)

itzal-agurtza [I.5.1](#)

- Nori egiten dio itzal-agurtza (HE34: 54)

itzal-apur [II.3.2.2.1](#)

- goitik beera begiratu nindun itzal-apur batez (HE17: 33)

itzal-herri [I.5.9](#)

- Hara Berpizkundearen itzal-herria, ohituak ginen eki-begiaz bestaldea. Gure Aro honen egite haundia du Berpizkundeak, jakintzaren jauzi harrigarri batekin, mundu berri bat orratzen ari dugu guk ere. (EJ54: 747)

itzalgune [II.7.2.6](#)

- Beren azken orenian Sar ditzen itzalgunian Diru metaren barnian (EJ65: 61)

itzalpe [II.8.2.9](#)

- beraren itzalpean gordea dagoen guyenaren culpagarri alde aldoan beti eguingo zaitu (HE40:

59)

- cristau dotriñaren icena ematen diezaten dotriñ orien itzalpean beren sustrai chit caltarquitsuetatic (HE40: 41)
- xoriak itzalpetik kantu eta irri (HE60: 159)
- Budha baketsuaren itzalpean ikusi ditu (HE27: 338)

itzulpen-kutsu [II.5.2.9](#)

- Arrutzarenak, asi goitik eta bera, itzulpen kutsua darama (HE19: 19)

ixilaldi [II.7.2.1](#)

- Ixillaldi osoa da andik urrengoa (HE18: 57)
- Ikastolan aurrak. Urren ixilaldiz, gurdi negartia (EJ50: 36)
- Orduan, ixil-aldi ura aprobetxatuaz, Zelatun aldera jo genduan (EJ60: 76)

ixilune [II.7.2.6](#)

- Lurralde guztian aditzen da ixillune zabal bat (EJ50: 164)
- Laister zan ixillunean gure basarria (EJ62: 82)
- Alako batean, Periko asi zan ixillunea austen (EJ62: 12)
- Hogeita hamabost urteko ixilunea gero, eta 1964.ean abiada berria Kaliforniatik (EJ68: 10)
- Lurdesek, ixil-une baten ondorenean (EJ62: 79)

ixingura-putzu [I.5.9](#)

- Bere pasaixuduna da ixingura-potzu ori (HE31: 26)

izaki-edesti-eguneroko [IV.2.2](#)

- Izaki-edesti-egunerokoa" (Diario de Historia Natural) bi anei ta seireun orri aundi dauzka (HE24: 29)

izaki-izen [I.5.2](#)

- Iztegiari begiratuezkero, berein izkera dazauguz gurea baino oparoago orniduak, batez bere asmo barriko izaki-izenetan (EJ06: 72)

izar-argi [I.5.1](#)

- Izar-argitan ninjoanean kalbariora-ustean, kalbariora-ustean eta Arantzazura-bidean, Birjiña Ama ta bere semea topa nituan parean (EL70: 101)
- Lilia, Apalezko loreña, Eteten dun tairik gabe nire bizia; Izar-argia (EJ50: 76)

izar-harrikada [I.5.7](#)

- Izar harrikadek fiiiiin! ziztu eta flix flax argi egiten zuten (HE39: 111)

izar-mordo [II.2.2.2.2](#)

- Ozkiro gazia, gau beltza, izar-mordo aundia (HE17: 48)

izate-azalpen [I.5.5](#)

- Ene lagunak, Ikasbide zaarra zenbatetaraño dan txarra ta gauza-eza adiraz nai basarritarrari ta Yainkoa-rekiko izate-azalpena esanarazi zion: (HE17: 51)

izen-agiri [I.5.4.1](#)

- Hiriberri-ren izen-agiri jatorrizkoa ostu ta gorde egin zuten nonbait (HE33: 17)

izen-aitzaki-azpi [IV.2.2](#)

- E'tzun poz makala izan Oñatiko erriak, kofradiaren izen-aitzaki-azpian, kondea ixildu-arazi zualako. ixildu ez-ezik, lagundu ere asko lagundu zun andik-aurrera kondeak Arantzazuko obra-lanetan (EL70: 51-52)

izen-bilduma [I.5.4.1](#)

- Ez genduen luzaz hileri ez kolpatueri pentsatu salbu izen bilduma baten egiteko (HE58: 66)

izen-errenkada [I.5.4.2](#)

- litteratur laphurtarrak izen-errenkada ugaria ezagun du (HE26: 275)

izen-gain [II.8.2.11](#)

- lotsez estal ditezque bere icena eta icengaña (HE40: 107)
- Neri deitutzen ditet Galtzaundi izengaña det nik Goñi Aldatxur-txoro izengoitizat deitzen didate neroni (EJ76: 136)
- cembait cristau fededunec belaunetic-belaunera datorquien icengañ edo apellidoaren lecuan (HE40: 62)

izen-marra [I.5.4.1](#)

- Erdi-erdian badu gurutze ederra, eta ezker-eskuin izen marrak iru lerrotan (EJ65: 24)

izen-paper [I.5.4.1](#)

- bakoitzari izen-paperak eskatuz (HE58: 67)

izen-sintagma [I.5.1](#)

- Partitiboari gertatzen zaion bezala ez baitira izen sintagma mugatuen ondorik erabiltzen (EJ56: 34)

izen-zerrenda [I.5.4.2](#)

- izen zerrenda bat eraman nuen Antzuolara (HE19: 17)

izenburu [II.7.2.3](#)

- MARXISMOA modan dago izenburuarekin argitaratzeko asmoa nuen (EI94: 69)
- Uste gabean jarri diogu liburu oni izen burua (HE55: 9)
- Aurreko izenburu horretan urrunegira joan bagara ere (EJ52: 34)
- Ta, ala, orixe jarri diogu liburu oni izenburutzat (EJ79: 10)

- Bi olerki luze, lau labur eta zazpigarren bat bertsoetik gabe izenburu hutsean utzia (EJ00: 194)
- izenburu bakar hau erdal-euskal sail biendako dela bidebatez (EJ00: 208)
- Izenburu orrekin eta onako iru bertso auekin, Errenteria'ko Pello Zabaleta zanaren iru orritxo ditut (EJ67: 80)
- "Xenpelar'en bertsoak" izenburuarekin Errenteria'ko Makazaga moldiztegiak argitaratu zuana (EJ67: 55)
- Onek eta onen ondorengo argitaraldi guztiak bertsoen izenburua aldatu egin diote (HE61: 49)
- Izenburu aldean puskatuta dago (HE61: 98)
- Parizco (48. eta 49. bertsoen arteko izenburuan), gustiac (59), gaisqui (78) (EJ80: 31)

izenkide [II.7.2.8](#)

- nere izenkide orrek (HE50: 62-63)

izenondo [II.8.2.14](#)

- artatik dizu Gerrieder izenondo (HE18: 82)

izenordain [I.5.2](#)

- aldamenear jar dezaketan izen-ordaina gehitu gabe (HE27: 389)
- izen-ordain higuinagari hau ezinbestean darabilt (HE27: 342)

izenorde [II.7.2.11](#)

- izenorde edo pronombre adizkizun baten infixatzea (HE30: 219)
- ituen: hi izenordeari dagokion forma. (EJ80: 43)
- gero, izenordeen formen aukera egin zuen (EJ56: 27)
- Euskaldun fidel izen-ordearekin zabaldu ditu askotan bere gauzak (EJ68: 9)
- larogei-ta-amarretik gora dira, orri oetatik burua agertu zutenen izen edo izen-ordeak. sarri ta luze jardun ziranak ez gutxi-gutxi (EJ07: 2)

izerdi eta jantzi busti usain [IV.2.1.1](#)

- Autobus bat geratzen da. Izerdi eta jantzi busti usaia. Nahasian (HE35: 116)

izerdi-bits [I.5.1](#)

- Arazo oneei darraico galjaite necagarrija icerdi bitzetan (HE20: 151)

izerdi-tanta [II.3.2.3.1](#)

- Ateraten dabee suteguiti aguirira, ez icerdi tanta, ta bero asco botabaga (HE20: 127)
- Pentsa ezak ikasten duzuen letra bakoitzeko izerdi tanta bana ohosten duzuela (HE39: 92)

izerdi-xorta [II.3.2.3.2](#)

- ez baitute oraino kopetan izerdi xortik ezagun (HE59: 41)

izkribu-fetxa [I.5.9](#)

- Notaria arretazago zegoen urruneko mendi elurreztatueta, agoazila atarai gaineko habe

nagusiaren urteak kalkulatzeko ari zen bitartean, eskribu fetxak hura ere hartzen zuela ohartzeke (HE39: 47)

izkribu-karpeta [I.4.2](#)

- 36 izkribu-karpeta bahitu zizkioten erregeren mandatariek herbesterakoan (EJ00: 181)

izotz-kapa [I.5.7](#)

- aurreko gauean eroritako izotz kapa zuria (HE39: 79)

izpiritu-lege [I.5.1](#)

- Izpiritu legea. Elgarren kontrako bi lege aipatuak dira hemen: fededunaren izpiritu legea, Jainkoaren bizia emaiten duena: eta fedegabearen bekatu legea, heriora deramana. Hots, bizi legea eta herio legea: Kristo bizi emaileak bekatu herio emailetik libratu gaitu. (EJ71: 30)
- Bai, Kristo Jesusen baitan bizia emaiten duen izpiritu legeak bekatu eta herio legetik libratu zaitu (EJ71: 30)
- Elgarren kontrako bi lege aipatuak dira hemen: fededunaren izpiritu legea, Jainkoaren bizia emaiten duena: eta fedegabearen bekatu legea, heriora deramana. Hots, bizi legea eta herio legea: Kristo bizi emaileak bekatu herio emailetik libratu gaitu. (EJ71: 30)

izpiritu-poxi [II.3.2.2.2](#)

- Baginuen ongiarentzat ere izpiritu poxi bat (HE32: 35)

izter-erdi [II.3.6.1.1](#)

- Iztar erdiraiño da elurra gaiñean (HE18: 134)

izter-gain [II.8.2.11](#)

- Iztargaiña arri dute (HE18: 93)

izter-masail [I.5.3](#)

- Etzuan gauza aundirik; iztar-masallekoak baizik (EJ60: 124)

izter-zain [I.5.3](#)

- Zaldien aldepera joanik abereri ixtazainak mozten zizkioten (HE58: 66)

izterbegi-mundu [I.5.4.2](#)

- Bekhatua, zer darokuk izterbegi mundura, gure gana hain kruela zeinak baitu iaidura? (EJ80: 153)

izu-damu [I.5.1](#)

- Ona da izudamua; ordea berez utsic, ta Confesio gabe ez da, becatuac barcatzeco diña. (HE08: 208)
- izu-damu = atrición. Besteari deritza izu-damua, Infernuac izutu, eta ara erorteco, bildurrac becatariari ar-erazten diona (ED46/HE08: 208)

izu-ikara [I.5.1](#)

- Filistintar guziac izu-icara aundiac artu zituen (HE45: 210)
- Ire arpegi maiteak, izu-ikara, ildakoen itxura artu zifian (EJ50: 63)

izu-itxura [II.5.2.7](#)

- Bukatuko al da?, galdetzen dute gaiztoz edo zalantzaz, izu-itxuraz edo koldarkeriz, Arantzazuko euskal-fede etsi-gaitzaren berri ez dakitenak. ♠auza izango al da Euskalerra, oinbeste aundiko arazoa aurrera eramateko? (EL70: 254)

izurrite-denbora [I.5.4.3](#)

- ongi ihardun zuen izurrite denbora batez (HE52: 6)

ifiostor eta garo-pila [IV.2.1.1](#)

- baifian estalpean ifiostor eta garo-pilla bat bazeukatela (EJ60: 157)

jabegai [II.7.2.4](#)

- Espiritu Santuaren jauregi, eta ceruaren jabegai (HE07: 302,310)
- nere echean jayo dan mendeco au, da nere jabegaya (HE12: 13)
- Jesu-Cristoren senide: Espiritu Santuaren vicilecu, edo Eliza, ta Ceruaren jabegai (HE07: 270)
- dembora berean eguiten duala Ceruaren jabegai, edo heredero (HE07: 271)
- Aguinduco dioe jabegayari, paga ditzala, eta onec eguingo du aurrecoac eguin zuana (HE07: 166)
- Doai onec eguiten du guizona Jaincoaren seme, eta Ceruaren jabegai (HE07: 105)
- Jesu-Cristoren senide, ta Ceruco erreifuen jabegai edo heredero (EC48: 355)
- jabegai = heredero. Aita beticoaren ume, eta Ceruaren jabegai (EC48: 47)
- jabegai = heredero. Aditzera emateco Ceruco erreifuen jabegai cifiala (EC48: 262)
- jabegai = heredero. Jaungoico beraren ume, eta Ceruaren jubegai eguiten dituan (EC48: 201)
- eguifn ninduan Jainco beraren ume, ta Ceruaren jabegai, edo heredero (EC48: 570)

jaboi eta lustre kutxa [IV.2.1.1](#)

- jaboi eta lustre kutxa bana aski zitzaien (HE39: 37)

jai-arrats [I.5.3](#)

- Demagun, zureztat jai arratsetan ostatura, edo edari vicia saltzen dan toquirra joatea dala orditczeco (HE07: 335)
- bildu ziraden jai-arratsean, lan danak egindakoan (HE25: 78)

jai-arratsalde [IV.2.2](#)

- Jai arratsalde batean elkartu zan Ernani-n bertsolari batekin (HE61: 174)
- Jai artsaldea zelan igarotzen zuan (HE24: 134)
- Txirrita ta Telleri-Txiki juntatu ziran jai-arratsalde batean (EJ79: 33)
- Egun atati gora iai-arratsaldetan ikusten eben alkarr ta sarri goizetan (EJ70: 131)
- eta au eguiten degu jai-arrasaldeetan dotrina esan-ondoan (HE07: 19)

jai-bazkari [I.5.8](#)

- Jai bazkaritan ez gera asi esan genduan bezela (HE25: 90)

jai-bezpera [I.5.3](#)

- Etzait itzali belarritik, bi errietako dandara; jai-bezpereko aren aldean sakona baitu zirara (EJ50: 30)

jai-erdi [II.3.6.1.1](#)

- eta soñeco zarrac adabatzeco dembora astegun, eta jayerdietan? (HE07: 59)
- Gerora "jaiardi" biurtu ziranak! ... (HE57: 118)
- jaiardi = media fiesta. Egun au jai erdia da, eta gure errietan goicean Meza enzunda, joaten dira gueyenac lanera (EC48: 15)
- eta Elizac ipiñi cituen beste jai asco, batzuec osoac, besteac jai erdiac (HE07: 47)
- jai erdi = media fiesta (misa + trabajo)?? (EC48: 555)
- eta au eguiten degu jai-arrasaldeetan dotrina esan-ondoan, eta jai-erdietaco Meza nagusietan (HE07: 19)

jai-gauerdi [IV.2.2](#)

- Baserritako gazterik asko kalez-kale jai gauerdin (HE25: 89)

jai-goiz [I.5.3](#)

- Aiuntamentura joan omen ziran Deba'ra, tallatzera, jai-goiz baten (HE29: 44)
- Ondorengo jai-goiz batean, beyak zaintzen zebillela (HE22: 45)
- zer egiten zebillen Tolosa'n jai goizetik (HE50: 73)
- Zortzian bein, jai-goizean, lan ori izaten genduan (EJ78: 46-47)

jai-ilunabar [I.5.3](#)

- kontatu zion, orain au idazten ari dan bere illoba bati, jai-illunabar eder batean (EJ79: 14)

jai-iluntze [I.5.3](#)

- Txabolan egingo dizkiagu dantzak eta baileak jai-illuntzetan (HE29: 77)

jai-mota [II.4.2.7](#)

- Betiko leloa, betiko jai-mota (HE34: 27)

jai-soineko [I.5.8](#)

- gizaldra asko jai soñekoakaz jantzirik eta bideak betean joaten dira Arranondora (EJ59: 44)

jaialdi [II.7.2.1](#)

- azkenengo yaialdideirik apurrenari ere ertzak zearo artu-bearra bait-zan (HE17: 13)
- hango eta inguruko euskal jaialdiak ikusteko zoria izan dut (EI94: 28)
- Egun hauen jaialdiak mundu guzian zabalduak daude (EB87: 21)
- Egun sentiaz batera asiak dira kale nagusia txorrotxio xamurrez alaitzen, berak ere jaialdian parte artu nai bailute bezela (EJ03: 48)

- Erritxoetako jaialdiak irukotxak izaten dira (EJ59: 63)
- inguruko errietan jai-aldi aundiak egin zituzten (HE29: 108)
- Alkain gaztea: nik etzaitu apaltzera bakarrik ekarri, gaurko jai-aldiari laguntzera baizik (EJ60: 29)
- Jai-aldi atsegin-polita egin genduan (EJ64: 96)
- Agertokian jai-aldiaren erregiña ta bere damatxoak (EJ76: 79)
- itz-neurtuen sari emateko jai-aldi bat izan zan (EJ76: 79)
- eztala ospatzen gorazarrerik, pake-erabakitzerik, itunik edo jai-aldirik, jan-edanik gabe. (EJ64: 48)

jaialdi-dei [IV.2.2](#)

- azkenengo yaialdideirik apurrenari ere (HE17: 13)

jaiegun [I.5.4.3](#)

- Jaiegunetan obeto jazten zan, elizarako. (EJ59: 93)
- txintxonezko jaka-prakak: orixe zan jaiegunetako jantzia. (EJ59: 93)
- jaiegun = día de fiesta. Ez du jai egunic ausico (EC48: 305)
- Jaijegun Santubetan jocuan (HE09: 52)
- Eta artzekotan ere ¿jayegunez artu bear? (HE15: 23)
- Jatsico dira meza enzutera jai egunetan indrisca, ta eurra bada bere (HE20: 59)
- jaiegun hautsi = quebrantar la fiesta. Ez du jai egunic ausico (EC48: 305)
- jai egun = día de fiesta. Etortzen cerate, eguiaz Jai egunetan Meza entzutera (EC48: 67)
- atraciradeal iay egunbates, bi lagun ciudade batetic (EJ57: 112)
- Baña jai eguna gozatu ñok ez bestean! Orixe bai! (EJ59: 48)
- koipea ataraten deusie jai egunari, eurak diñoen legez esateko (EJ59: 52)
- Mañasik be amabietatik eta iru ta erdietako bitarteari Arranondoko Andre Mariaren jai egunean (EJ59: 53)
- Ta jai egun guztia igaro ta gero, biotza gosean eroian etxera (EJ59: 62)
- Mezan dezakek, ordean, adora maizkiago, igande eta iai egun manatzen diren oro. (EJ80: 87)
- Beraz ez da iñor beartu bear jai egunetan Meza, eta Jaunaren itza entzutera (HE07: 256)
- eta becatu oen sustraya da araco eche artara joatea jai egunetan (HE07: 276)
- Demagun jai egunetan biltzen dirala an, edo emen mutillac, eta nescachac (HE07: 330)
- etzan jai egunic, etzan Mezaric, eta Sacramenturic (HE07: 42)
- jai egunari emoten jacola beria (HE20: 95)
- jai egunetan kanpoko asko etortzen ziran (HE23: 98)
- Irugarren aguintea da jai egunac santificatzea (HE07: 47)
- Gauz oetan animarena da lanaren gueyena, eta berenez ez dira debeatuac jai egunetan ere (HE07: 50)
- nai du alabaña guc emengo arazoac alde bat utziric, jai egunetan guc gure animac garbitzea (HE07: 53)
- eta cembat bider jai egunean Mezaric enzun bague zere culpaz? (HE07: 58)
- Beguira, zure ume, morroi eta nescameai eragotzi ote diezun Meza jai egunetan enzutea (HE07: 59)
- Urteko Domeka guztiak eta gordetzeko jai egunak (EJ05: 163)
- aurrera izan nai, astea lanerako ta jai eguna jai (EJ07: 1)
- Ezin izaten dabie beti. Jai egun asko igaro bear izaten ditue itxasoan (EJ59: 48)
- Eguerdiko Mezia emoten etortzen dok bat, jaiegunetan (HE31: 34)

- eta eracar bitez jai-egunetan mutilchoac, escupeco edo erregaloaz, maitatuaz eta balacatuaz (HE40: 157)
- Jai-egunetan kaletarrakin jolastutzero joan bearrean (HE25: 61)
- Jai-egunetan, berriz, guk nai genduan aiña aundiko siesta (HE29: 112)
- jai-egunetarako bat eta asterako bestea (HE29: 21)
- Katalintxu jai-egun arratsaldetan, Mosuka edanik Mari alargunaren Negarra (EJ77: 85)
- Bilboko eliza batera iai-egun andi baten ioan zan emakuma bat, geure adiskide baten emaztea (EI99: 153)
- Emakume bat, seiñ egin-barria sendatu ta urrengo iai-egunean, beren aide ta auzoak ikusi daroe (EI99: 163)
- Lengo jai-egun batian ermita-atadi baten a zer erromeriya zelebratu duten! (EJ67: 131)
- astegun nai iai-egun errdi zoraturik bizi zan Kontze ederra etsean sarrrurik (EJ70: 137)
- jai-eguneko dantza ta jolas garbiak (HE25: 88)
- Jai-egun santu-guitea (HE08: 169)
- Jai-egunetan, berriz, guk nai genduan aiña aundiko siesta (HE29: 112)

jaiegun-arratsalde [IV.2.2](#)

- Katalintxuk jai-egun arratsaldetan, mosuka edanik Mari alargunaren negarra (EJ77: 85)

Jainko-begi [I.5.2](#)

- Jainko-begiak ekar zaigun eguna (HE18: 18)

Jainko-begiramen [I.5.1](#)

